

S. ONAINDIA

EUSKAL LITERATURA (II)



Lit. de J. B. Góngora S. L. B. A. D.

ETOR

S. ONAINDIA

EUSKAL LITERATURA

« III

***Bi menderen artean
1895-1920***

Bilbao 1974

ETORBIDEAN KVLTVRA

Apartado 193
San Sebastián

BEAR DIRAN BAIMENAKIN

I. S. B. N. 84-300-e047-2

Depósito legal; BI 1016-1974

GRAFICAS BILBAO — Gordónlz, 28 — BILBAO

LEN-SOLASA

BIDE IBILLIA.—Gauzai gora eragiñik, ba-goaz aurrera. Eme-retzigarren gizaldian ale osoa egotzi diogu, ta alare uts-uneak utzi ditugu oraindik bete bear genituenak. Tontor-gaiñetik obe-ki ikusi oi dira atzean lagatako bide-makurren utsaldiak. Bide-arloa egiñez, egia da, uste baiño geiago ikasten dugu, ta urren-go txandan etzaigu gaitz izango errakuntza oien osatzea.

Onela bide egiñik, euskal elertiaren ederra opa dugu, ez besterik. Onen billa gabiltza. Lenengo literatura eunkiak zer utzi diguten, naiz eta gaiñ-giroki, azaldu dugula ez dago ukatzerik: ortan saiatu gara geure ekiñalean. Euskal idazleak bere gogoa —eta bere erriarena— ñirñirka utzi du dardar-pitxi bezela, bere idatzien ostro artean garreztatua. Bakoitzak bere era-ra ikusi ta sentidu digu ar-emana izan duen gizartea ta mundua. Ariñak arin eta ertsigo ibilli gara, bear bada, ta ez ditugu beren ertz guztiak egokitsu aitzen eman. Izkera ere onentzat argia dana, arentzat illun zulo duzu; ezta errez guztien aukerara lan egitea. Orrez gaiñera, bakoitzak geure ikus-molde estutik so-egin oi diogu idatziari; emendik sortzen gero, iritzietara jotzean, uste ta gardi ain ezberdiñak.

XIX'GARREN MENDE AZKENA.—Mirari izugarri baten aurrean gaude, berriz ere, Une auetako zuri-beltzak, dinbili-dantzak eta goraberak gogotan arturik, nola etzaigu sekulako galdu gure iz-

kuntza? Naiz mugaz andik naiz emendik, euskerak, naitaez jeurtu egiñaz, zokoratu bearra zeukan; gero ta ugariagotuz zijoazten bere onda-tresnak: eskola ta irakaskintza, aldizkari ta egunero-koak, irrati ta zinema, antzerld ta jolasak, gudaritza ta arat-onat ibilteak derrior zekarren euskeraren atzera bearra.

Ingurumariko Laterri-jokabideak ere ba-zuten errua, noski. Prantzia'n, esaterako, 1789'garren urteko naste ta matxiñada egunetatik Estaduak zeukan dana bere eskuetan, esku bat-batean euki ere; etzuen nai eskualde txikien jabetasunik ez agintza-izpirik. Aize-bolada artan guztia zan batera naia, erdira jo bearra: izkuntza berdiña, lege berdiñak, eskubide ta betebear berdiñak danentzako. Izadian dakusgun erako berdin-ezean batasunik etzan aintzat artu nai. Ta jokabide onek, ez izan ezmezik, gauza askoren amilketa zekarkigun ezinbestean.

Euskaldunok ortaz ainbat gauza geneuzkan il-agiñik. Ilten zegoen gure izkuntza. Abando'ko arrano garbalak «Euskerea ilten dago», deadar egin zuenean, etzan gezurra aren esana, ola-xe zegoen eta. Gaxo geneukan geure ele zarra; iltzear noski. Zergatik batez ere? Etsaiez esiturik geundelako? Ba liteke. Baiña besteak beste, eritasun onen sustarrik beiñena euskaldunaren garrik eza zan. Edu onetan mintzatzen da I. Larrakoetxea: «Euskotarrak gure gauzakanako ta batez ere euskereaganako daukagun maitasun-eza da gatzik txarrena. Guk euskerea benetan maite-maite ba gendu, bere barrutiko ta landako zailtasunak gorabera, laster ikasiko geunke ta garai ta une guztietan erabiliko geunke» {*Euskera*, 1922, 34 orr.).

Mugaz andik, naiz eta azken urteotan, aldakuntza aundi gabe iraun du euskerak. Zergatik berdin iraute ori? «Au —diosku idazle batek— Prantzia'n euskera patois batzuk —gaskoiña ta bearnesa— mugatuta dagoelako da, dudarik gabe; Espaiña aldetik, ordea, auzo zuzen eta arrarte gabeko izkuntza ofiziala du». Gaur-gaur, alare, zein an zein emen, geure berezko amasa galtzeko arrisku berdintsuak daukagu. Alde ta diferentzi au soil-soilki gogorazi dezakegu: an nekazari ta arrantzaleak eus-

keraz mintzatzen dirala, ta emen, industria ta gaurko erakunde berriak bitarteko, gure eskualdea arrotzez bete zaigula. Beraz, ez XIX'garren gizaldiaren azkenerantza, ez gaur ez ditu egun xamurrak gure izkuntzak.

IRRINTZI KEMENTSUA.—Egoera onek bultz-eraginda bota zizgun Arana-Goiri'k S. O. S. ikaragarria: «Ilten dago euzkera!» Ta etzan su gabeko etxean jausi deadar ura: izan zuen oiartzuna. Gizaseme errimek osaturiko belaunaldi berri bat sortu zan, edo-ta jaiki zan oiartzunaren otsari erantzunik. Ordukoak dira, adibidez, bi talde auek: Arana Goiri, Azkue ta Kanpion batetik eta Unamuno, P. Baroxa ta R. Maeztu bestetik, beste askoren artean. Seirok argi ta langilleak. Lenengo irurak euskal saillari oratu zioten, beste irurak erdel-zelaia trebe atxurturik. Seirak zeramaten, eta ez motel, euskal arnasa ber-bera.

Bizkaitarrak ditugu iru auek: Arana Goiri, Azkue ta Unamuno. Bizkai'ko Aldundiak irasitako «Instituto Vizcaíno» zeritzan Ikastetxe nagusian Aldundiak berak, 1887'an, euskal ikastola bat jarri nai izan zuenean, irurok aurkeztu ziran. Arana Goiri'k 22 urte zituen, Azkue'k 23 ta Unamuno'k ere 23. Eustakio Madina, Pedro Alberdi ta Luis Itza ere auekin aurkeztu ziran. Azkue'k umetatik zekien euskeraz, ederki jakin ere; Unamuno'k zerbait zekien; Arana Goiri, berriz, euskaldun berri genduan. Azkue'ri eman zioten irakastegia.

«Une ontatik irurok, bakoitzak bere bidea artu ta arexeri jarraituko dio eriotzararte. Erraldoi izena artu dezakete irurok, bakoitzak bere saillean. Iru bizkaitar auek berai dagozkien asmo ta gogaien aldeko burruka latzak aurrera eramanak dira. Arana Goiri ta Azkue Bizkaia'n geratzen zaizkigu, gaiñazpika ta burrukaldi oiek etxean berton jokatzeko, alegia. Unamuno'k landara jauzi dagi beste ortzi-mugalde batzuen billa. Arana Goiri'k bere aldizkari burrukalari *Bizkaitarra* sortzen duen urte berean, Azkue'k ere bere *Euskalzale* (1897) sortzen du, euskal literaturari eskeiñitakoa noski; Unamuno'k, ordea, sei urte le-

nago irabazia zuen Salamanka'ko Ikastetxe ospetsuan ain zuzen «Gerkar izkuntza ta elerti» irakastegia. Azkue'k, erraldoi gailena, bizi osoa eman zuen gure Izkuntzari itxasi ta estekatua. Arana, oster, politika zelaian burrukatzen da. Euzko Alderdi Abertzalea sortu ta kulturazko indar guztiak ekinen jarri zizkigun» (Añamendi, *Literatura*, II, 47 orr.).

BI LANGILLE PORROKATU.—Arkimedes (287-212) sirakusarraren burdin-agak ludiaren ardatzari ikara eragiteko beste indar ba'zuen, gizaseme azkar auek ere euskal erria zataian jaso zutela, edo-ta beintzat jo ta ke ortan alegindu ziranik ezin daiteke ukatu. Aueri esker daukagu gaur ere zutik gure izkuntza. Miingain- zolia dantzaratuz zer asko esan oi ditugu, baita funtsik gabeko ta egitik urrutixe daudenak ere sarri. Baiña egari berea itzuli nai dionak, ez gurarik ere, au aitortu bear du: Azkue ta Arana'gatik izan ezpalitza, euskera onezkero Araba'n, Errioxa'n eta Naparru bealdean bezela geneukan, lurpean ondo eortzia.

1

1) *Azkue*.—Euskaldun genduan jaiotzetik. Baiña elizkarrera bitartean eta gero, gure izkuntzaren barru-barrurainoko ezkutuakin jabetu zan, eta lekeitiar argi onek bere bizitza luzean egin zigun lana ikaragarria izan zan. Ona aren lan-moltzo bat: Euskal Izkindea, «Euskalzale», «Ibaizabal», Iztegi nagusia, Euskal kantutegia, Euskalerriaren Yakintza, ainbat irakurgai, antzerki, opera, musika, esaera bildu; labur: euskal erri osoa arakatu zigun onek zeuzkan arri-pitxi baliotsuenak jaso ta aurren urren ipiñirik. Oni, A. Donosti'ri ta beste batzui eskerrak, ez tira dagonekoz gure gogo bereziaren agerkai ugariak betiko itzali. Euskal literaturan iñor txalogarri baldin ba'dugu, Azkue zanari ezin uka genezaizldoke merezi ditun esku-zarta beroak.

Egi osoa esateko, etzegoen bakarrik; ba-zuen talde bat, *élite* bat, txikia lendabizi, gero azi ta ugarituaz joan zana. Ar itzazu gogoan «Euskalzale» ta «Ibaizabal» agerkarietan datozten

idazle apalak. Eredu bi naikoa dituzu: Txomin Agirre ta Kiri-kiño. Oeri esker, gure euskera, kinka larrian zegoen arren, bere aspaldiko gaiñ-oskol bada-ezpadakoa erantzi ta bere-berea zuen erritar soiñeko ñabar dotorez apaintzen asi zan: euskal joskera-gatik diot au batez ere.

Euskal joskera. Asiera-asieratik azaltzen zaigu Azkue joske-ra ta itzurren giarraren jabe; Lekeitio'n, bere amaren magal beroan ikasia etzuen nunbait galdu ezertan ere, eliz-ikasketak lateraz ta espaiñeraz osatu zitun arren. Agirre'k orobat itzurren ona du, baiña len-idatzietan ba-zitun bere okerrak, gerora zu-zendu ta uxatu zizkigunak. Kirikiño'k, aldiz, erdel-kutsutik urrutiratua ibillita ere, etzigun beti jagon euskal belarriak nai lukean lango itz-joera goxoa. Gauzkan giro-ingurutik aldera egi-tea, egiazki, etzaigu xamur-bera.

2) *Arana Gairi*.—Sabino Arana Goiri dugu beste aldetik euskerea gaizkatu ziguna. Politika izan zan bere arazo aparte-koa; bere erria bizirik atera nai izan zuen. Izan ere, erauskiñez betea, beraldi gorrian aurkitu zuen, erakunde, oitura, ele ta bes-te zer guztietan; aurretiko guda ta iskanbillak lurra jo-azote-raiño ondatu zuten bere sorterría, Bizkaia, Euskalerría. Orain-dik ba-zuen alare arnasa, ta arnas orri eragin bearra zeukan osorik itzali ez zedin: bizi-naia azkortu, erakundeak berriztu, izkuntzan lengo azku ta bizkortasuna txertatu. Arbasoengandi-ko sena utzi ta erakunde berriakin aldatuz zijoan Bizkaia: goi-errietatik bera jatsi zitzaizkigun baserritar mordoak; kanpotik etorriak ere, pilloka zebiltzan Somorrostro'ko meatz-zuloetan langille. Industri lana ugaltzen asi zan Bizkaian. Emeki ta atsa-ren gaiñean, len lugintzan eta artzaintzan ari zan erria, indus-tri-arazoan buru-belarri sartua gertatu zan. Aldaketa au gogo-tan izanik, sortazi ta zabaldu zitun Arana'k bere asmo ta ekin-tzak.

Entzun idazle gazte batek ontaz dioskuna: «Ez da aski Ara-na Goiri gizaseme jeinutsu, langille nekegaitz, burrukalari ke-

mentsu zala esatea. Aren eragiña, ziurki, berdintsua izan ote zan gutxiago edaturik beste puntuetan ere? Txaho bera jeinutsua izan zan, baiña uritar mandatu bat aldarrikatu zuen Ipar euskal erriko landa-eremuan». Ez, ala fede. Txaho'ri etzion iñork jaramonik egin. Arana'k, ordea, ikus nolakogudarostea duen atzetik gaur dan egunean ere.

Idazle berberak darrai: «1890'an ipiñi dezakegu biribilketa aundia: Bilbao'k bere Boltsa irasi ta bere lenengo langilleen oporraldia ikusi zuenean, Sabino'k bere lenengo abertzale artikulua argitaldu zitun, ain zuzen. 1893'an bota zuen deadar au: «Euzkadi da euzkotarren Aberria». Berak asmatu zuen gaiñera euskal erria adierazten duen «Euzkadi» itza. Berak margoztu zuen euzko ikurriña. Berak sortu zuen, 1895'an, Euzko Alderdi Abertzalea. Berak korapillatu zuen zazpi euskal probintzi ba-koitzaren nortasuna ta alkar-lokarria: «Bizkaia azke Euzkadi azkean». Muga gabea duzu aren kazeta ta literatura lana. Maiz joan zan igeska Ipar euskal errirantza. 1903'an il zan, 38 urteko, bere etenbako burruka ta espetxe-egotez eo ta ezindua. Eroz-atzat euki zuten lendabizi bere adiskideak; baiña auek Euzko Al-derdi Abertzalean jarraitu zuten, Sabino'ren slogan au goiburu zutelarik: «Jaun-Goikoa eta Lege-Zarra» (J. L. Davant, *Tempes Modernes*, 1971-72, 241 orr.).

Idazle beronek gero, ura bere bolura eraman nairik, baik, Arana'k ez duela gizarte iraultzarik aitatzen dio. Etzanik, baiña, ezin aiatu iñolaz ere. Abandoarrak bere asmoen eginbide ba-rruan Bizkai osoa artzen zuen; Bizkai osoa —edo-ta nai baldin ba'duzu, Euskalerrri osoa:— onek zeuzkan auzi ta korapillo guz-tiekin: lur, lege, ekandu, elerti, musika, dantza, lugintza, gizar-te auzi, arrantzale, artzain, egurgin, meatzetako langilleri ta abar. Erri osoa, itz batez, eta onentzako nai zigun gogo zuen jabetza ere. Jabetasun gabe, zer balio dute gaiñerako guztiak? Gaurkoan, damuz, txaramel gisan pellokeri asko esan oi ditugu; bat aux, iñondikan ere: «Urlia burgesa duzu». Arana'k ez

omen zion sozial arazoari indarrik eman. Gaiok, egia esateko, belar berriak ziran orduan; baiña ikus bere idatzietan nola orrazten ditun.

Gatozen, baiña, geure arlora. Arana Goiri euskaltzale ageri zaigu milla eratar. 1884'garren urtean, Barzelona'n ikasle zala, euskeraz ikasten dabil Van Eys'en eta A. Kanpion'en gramatikak esku artean ditularik. Opa zuena irixteko naimen izugarria zuen eta epe laburrean jabetu zitzaigun bere asaben izkuntzarekin. Iraultzaille zetorren politikan bezela euskal elertian ere. Bide berrien billa zebilkigun atsedean gabe: bide berriak nai zintun euskerarentzat, gogaiz, biotz-zirraraz, iztegiz, idazkeraz, poesi-neurkeraz, azal ta barne berriztatua ikusi nai zuen gure ele zarra. Rizal filipindarrak bere erriarentzat opa zuena, orixe bera nai zuen Arana Goiri'k ere Euskalerriarentzat, Unamuno'k dioskunez.

Laburzki: «Eragille bizi ta azkar baten aurrean gaude. Galduriko denboraz berriz jabetu nai luke, ta gutxitan so dagi gibelera. Aren luma urduriak 322 lan ta 22 idazti jaurtiki dizkigu 16 urte laburrean. Damakigun ugaritasunak ederld margozten digu zer-nolako gizona genduan; edesti, politika, izkuntza, kistar gogo, apolojetika, sozioloji, eskugo politiku ta laterri-arteko, irakaskintza, agiriko bazkunak, demografi, auteskundeak, albistak, berri-kritika ta kronika, antzerti ta olerki, polemika ta eztabaida, auek danok astindu zitun gizona» (Añamendi, *Literatura*, II, 50 orr.).

INGURUKO IZARÑOAK.—Zeru zabaleko izar disditsu auen biran ba-dira beste txikiago batzuk ere; J. Urkixo ta A. Kanpion, bi bederen, ixillik utzi eziñak; Urkixo bilbotarrak eta Kanpion iruñarrak, izan ere, ederki jokatu zuten bakoitzak bere egitekoan. Bizkaitarrak iker-lanari ekin zion aunitz euskal liburu zahar aztertu ta argitara emanez; edesti-lana zitzaion eder napartarrari, ta ezin obeki aizatu zitun ainbat artxibutako agiri ta paper austuak, makiñatxo bat kondaira-pitxi eurotatik jaso ta liburu marduletan gorpuzturik.

Bi auen artean, erdel idazleak ba'dira ere, merezi dute aipamen arin bat beintzat Antonio Trueba'k, Bizente Arana'k eta Hermili Oloriz'ek ere. Berdin, nai-ta kanpora begira, len aita-turiko M. Unamuno, Pio Baroxa ta Raniro Maeztu ere euskal gaiak kezkatuta bizi izan ziran. Euskal idazleak gero aztertuko ditugu.

EUSKAL IRAKASKINTZA ESKOLETAN.—Egungo egunean mordoxka batek aitortu nai ezta ere, neurri eder batean beintzat, Elizak eutsi izan dio, ta eusten dio, euskerari, Interesgarriak dira gai ontan «Constituciones Synodales antiguas y modernas del Obispado de Calahorra y La Calzada» (Madrid, 1700) deritzan liburu mardulean datozen erabakiak. Or duzu baita lekuko euskal literatura; geien bat eliz-gizonak idatzia da. Len eta orain Elizak izan duen indarra ezin da ukatu. Aurrerantzean? Berdintsu bear luke izan. Bataiatuok osatzen dugun bazkuna, ots, Eliza, gure ezpirituaeren eta soiñaren gidari da; erri zintzoak bere biozkada ta eskariak —kanta ta otoitz— euskeraz zuzendu bear ditu Egillearen aulkirantza. Oraintsurarte olan jokatu ez ba'du ere, onik aurrera euskeraz egingo ditu Elizak bere eliz-kizunak ere, ta onek, eutsi ez-ezik, bultzada ederra emango dio gure mintzairari.

Antziña-antziñatik, orrez gaiñ, erriaren izkuntza erabilli zuen Elizak erlijio irakatsiak eliztarrai ematekoan. «Begiramen oni bi gauza dagozkio. Bata, erriak bere-berea duen izkuntza erri orrentzat zer dan jakitea, au da, bere pentsamentu ta barrukotasunaren tresna adierazle alegia. Bestea, egin maillari dagokiona da, irakaskintzak duen elburua alik eta zeatz indartsuen aurrera eraman al izateko. Norbere izkuntza erabillirik, izan ere, lotsa ta begirunea izanik, lotsa izaten ere irakatsi egin oi da, barru-barrutik ulerkoi ta adi-errez mamiki egiñaz». Au da gizona osorik azi ta kulturatzea. Ta erabillitako joera oni eskerrak, Eleizaren lana aipagarri ta onurakor izan danik ezin dezakegu ezetsi. Aspaldidanik euki ditugun irakats-textuak, nork

egiñak dira Elizak ezik? Beragandik irtenak dituzu ainbat do-
triña, era askotakoak, erria gorputz eta arima eskolatze-
ko el-
buru ta asmoz osotuak. Euskal erriko monastegi ta lekaretxeak
ez dira kardaba ontan nagi ibilli.

Entzute zabala artu zuen aldikada baten eskoletan euskeraz
egiten zuten gaztetxoai jarten zien ereztunak. Baiña aldia isti-
llu ta makur askoren zentzarazle dugu, ta atzenez, ele biko
eskolak, saio bezela beintzat, sortzen asi ziran. Noizkoak dira
olako eskolak? Bana-banako xeetasunetara beratu gabe, Bil-
bao'n, Berriotxo doatsuaren Ikastetxean asi ziran, Azkue za-
naren leia berariz, lendabizi euskeraz ere irakasten. Ondoren,
1905'an batez ere, oiugogorrak bota zitun «La Patria» aste-
rokoak elebitsuko eskolak eskatuaz; ontan Euzkeltzale Bazku-
nak lan goragarria burutu zuen. 1908'an, *Itziar Amaren* eskola-
ko umetxoentzat euskera utsezko ikastegi bat jarri zan. Donos-
ti'n geneukan beste bat, Muñoa jaunarena, entzute aundikoa.

Orrelaxe, ark eta onek bultz-eginda, urterik urte eusko ar-
nasa sutazi ta bero iraunazoteko alegiñak egiten ziran. Etzan
oindio Euskaltzaindirik, baiña euskera jagon eta kezkatan jarri
nai ziguten. Beingoan diogunez, alkarte ta agerkari moltzoak
sortu ziran or-emen, eta auen lana ere etzan exkaxa izan. To-
losa'n (1908) sortu zan «Euskal Esnalea»-k, adibidez, «Gora
euskera maitagarria!» zuen titulo ordeko bezela, ta zenbat bul-
tzada egindakoa dugun an eta emen; beronek sakatuta irasi
zan, 1915'garrenean, euskerazko katedra edo irakastegi bat Gaz-
teiz'ko Apaizgaitegian; baita beronek zuzendu zien, 1917'an,
euskal irakaskintzari buruzko idazki agiri bat Euskalerriko ikas-
tetxe guztietako nagusiai.

Eta zirikada oneri esker, erdel egunerokoak ere euskal ata-
lak beren orrietan sartzen asi ziran: «Euzkadi» (1913), «Diario
de Navarra» (1915) ta abar. Bizkai'ko Aldundiak bere lanto-
letatik irteniko agiri guztiak euskeraz ta erderaz izan ditezela
erabakitzen du (1917), eta bideetako araudia ele bietan argitara-
tzen digu. Labur, euskal giro bizia sortuaz doa.

ALKARTE BERRIAK.—Ludian ez gaude bakarrik. Eta eginkizun garrantzitsu bati saka egiteko, alkar gurutzatu bearra dugu, batasunak indarra dagi ta. Beraz, euskal erriaren onezko lanari atxikirik zebiltzanak ere, bildu ta alkartu nai zituzten beren kemenak. Eta, udaberrian kimuak adarretan bezela, bazkuna berriak jalgi ziran nainun, zazpi probintzietan noski. Alkarte auek, batatz beste, euskeraren onetan burutu zuten lana etzan iñolaz ere urria izan.

Bizkaia'n, lenen, euzko alderdiak lan izugarria egin zuen, «Euzkeltzale Bazkuna» bere inguruan sorturik baitik bat. Zail duzu neurtzeko alkarte onek gure izkuntzaren alde osotu zuen lana: bultz-indar bikaina nosld euskerak garai artan zeukan egoera gordiña dardaratzeko.

Alkarte au Bilbao'n jaio zan, eta beronen bazkide guztiak euskal ikasleak izan ziran, euskeraz itz-egin eta bata besteari euskal idazkiak bialduaz alkar sututzen zutenak. Lenengoz Bilbao'ko «Euzko Gastedi»-ko aretoan alkartzen ziran, neska ta mutil; gero ba-zuten toki aparta beren lanetarako. Gazte auek, lokarri estuz baturik, lan txalogarria osotu zuten; kantu, jolas, dantza, millaka liburuxkak argitara emanez, eta erriz erri eskola asko antolaturik. Onetan Emakume Abertzale Batza'k eta «Euzkel-Laguntza»-k laguntasun berebizikoa eman zien.

Ona laburzki «Euzko Pizkundia»-k euskeraren alde burutu zuena: a) *Aldizkariak*. Lenengo «Euzko-Deya» argitaldu zuen aldizkingi bezela; euskera utsez; bizitz aberatsa izan zuen. Geroago, au laga ta beste bat, ederragoa, atera zuen: «Euzkerea». Txairo agertu zan, bigarren aroan batez ere. Beronen eskuetatik ateratzen zan baita euskal egutegi eder bat ere, ormarakoa, 20 urtetan, utsik egin gabe argitaldu zana. b) *Liburuak*. Idazti mordoa argitara zigun; ona batzuk: 1) «Método gradual para aprender el euzkera», iru mailletakoa, iru idaztitan; liburu auxe omen dugu euskaldun berri geien egin duena; 2) «Euzkel-abestijak», iru idazti abestiz ta bi loreskin-eresldz; idazti bakoitzak 25 kantu

dauzka, bizkaieraz, gipuzkeraz, laburderaz, napárreraz, zubere-
raz; 3) Sei euskal ipuin: «Zorijonaren jauregia», «Luki eskela
ta Ander otzana», «Koldobika ta Jon», «Margarite'ren ames
ixukorra» ta «Amesak»; 4) «Loyola'ko Iñaki Deuna»; 5) «Bi-
jar Doniane'ra»; 6) «Santson»; 7) «Sobre la unificación del
euzkera»; 8) «Ipuiñak»; 9) «Lekobide»; 10) «A todos los
vascos»; 11) «Abertzale Aberri-saltzailliak»; 12) «Afijos, pre-
fijos y sufijos»; 13) «Tratado etimológico de los apellidos euz-
kéricos». d) *Antzerkiak*. Ainitz teatru-lan, argitaratu ez-ezik.
Bilbao'n eta Bizkai'ko errietan antzestu zitun. Auek, esaterako:
1) «Olerkari bijak»; 2) «Txomin Arrayo»; 3) «Meza barrija»;
goizean, meza ostean batez ere, zabaltzen zituzten orriak eta
arratsaldean antzokia bete egiten zitzairen. e) *Euskal sariketak*.
Igandetan erriz erri joan oi ziran euskal giroa arrotuten; sarri
eratu oi zituzten sariketak, euskeraz irakurri ta idazten ondoen
zekiten neska-mutikoen artean.

Euskaltzaletasun au, ariz ariz, mugaz emendiko lau pro-
bintzietara zabaldu zitzaigun, an eta emen ekintza ta jaialdi
berdintsuak ugarituaz, eta geure izkuntzari eusteko garra azia-
gotuaz. Bidaso'z bestaldetik ere an dugu «Eskualzale Biltzarra»,
1901'an Ondarribi'n erretakoa; makiña bat lan begiragarri osa-
tu digu 74 urte auetan. Begira, alkarte au sortu zanean bildu
ziranetatik batzuk: M. Landerretxe, Guilbeau, Grazian Ade-
ma. A. Kanpion, J. Urkixo, Ahetz-Etxebar, J. K. Gerra, Isaak
Lopez-Mendizabal, Serapio Muxika, ta besteak. Urrengo ur-
tean, 1902'an, Sabino Arana Goiri'k, antxe, Ondarribi'n, aur-
keztu zuen berak euskerarentzat nai zuen idazkera (ortografía)
berria: orduan mugaz andikoen erruz atzerazia ta urte batzuk
geroago Euskaltzaindiak ere beretzat artua nunbait. Alkarte
onek, d'Abbadie jaunak, asiriko Euskal Jaien ardurea izanik
eta, mesede aundia egin dio gure izkuntzari.

Eta Donosti'n? Ez daude lo. 1887-88'garren ikastaroan eus-
keraz erakusten asi ziran ango Institutoan; Jose Gaspar Oregi
apaiza dute irakasle, Maria Kristina erregeñari ere, euskal asi-

orraziak beintzat, irakutsi zizkiona. Geroago, 1896'an, alkarte errikoi bati asiera ematen die Donosti'n bertan: «Euskaldun Fedea», M. Soroa teatrugillearen inguruan eratua. Euskal antzertia girotu zuten batez ere, Donostia'n eta errietan. Aipa ditzagun ortan saiatu ziran auek: Pepe Artola, Ramos Azkarate, B. Mokoroa, J. Elizondo, S. Baroxa, R. Illarramendi, T. Altzaga, B. Iraola, Ganboa, J. I. Uranga, Gorostidi, E. Gorostiaga, ta abar. Teatru-saioa bukatzerakoan, olerki ta bertso-lanak ere irakurtzen zituzten, entzuleen adimenak ñirñirtu ta biotzak xixurkaturik (*Euskal-Erria*, 1896, I, 212 ta 318 orr.).

Euskal literaturakin ba-du zer-ikusia gure bazkune batzuk goiburu bezela erabillitako ikurritzak ere. Gure kondairan eza-guna da lendik Gipuzkoa'n, Araba'n eta Bizkaia'n batez ere bertoko lege, eskubide, elerti ta goraberak ikasi ta jakiñazteko Konde Peñaforida'k sortu zuen Euskalerriko «Adiskideen Alkar-tea»-k, XVIII'garren gizaldian ain zuzen, erabilli zuen «Irurak-Bat» ezaugarria. Geroago, 1890'an lez. Iparragirre'ren egunetan, karlista gerra ondoren, «Laurak Bat» egin zan, Nabarra'k ere, beste iru probintziekin batera, bere euskal balioak zaindu nai zitulako. Azkenez, 1897-8-21'an, billera aundia ospatu zan Donibane-Lohitzune'ko Udaletxean, angoen eta emengoen artean noski, euskal erria osatzen duten zazpi erkietakoak an bildu ziralako, «Zazpirak Bat» artu zuten ikurtzat, aurrerantzean guztion kemenak bateratu ta euskal gauzen alde alkarrekin lan egiteko zin egiñik.

ALDIZKARIAK ETA EGUNEROKOAK.—Emeretzigarren gizaldia-
ren erditik onuntza eta ogeigarren onen asieran bere biziko ga-
rra sentiduten zan Euskal erriak bizkar gaiñ zeukan sorta neke-
garria astindu ta gauzak orekan jarri nairik. Konta ezin-alako
zerrenda duzu bitarte ortan Bizkaia'n bakarrik bizitza izan zuten
aldizkari ta egunerokoak: 225'tik gora, danak zenbatzera ezke-
roz. Ona Euskalerrri guztitik banaka auek:

—*Irurac Bat* (Bilbao, 1850-1882). Karlistak ateratzen zuten. 1882'tik aurrera *Lau-Buru* zeritzan, Iruña'ko egunerokoa.

—*El Noticiero Bilbaíno* (Bilbao, 1875-1936).

—*Euskal-Erria* (Donosti, 1880-1918). 79 ale. Jose Manterola'k sortu zuen, eta 1893'tik Donosti'ko Euskal Lore Jokuen Batzarra'ren aldizkari biurtu zan. Zuzendariak: Jose Manterola (1880-1884); Antonio Arzak (1884-1904); Frantzisko Lopez Alen (1904-1910); Adrián Loiarte (1910-1918).

—*El Vasco* (Bilbao, 1884-1898). Eguneroko katolikua.

—*Eskualduna* (Baiona, 1887). Astekaria, euskeraz eta frantsesez. 1904'an izena aldatu zioten: *Eskualdun Ona*. 1908'tik aurrera berriro ere, lengo tituluz, ots, *Eskualduna*, irten zuen. Errepublikatarren aurkakoa zan. Louis Etxeberrri'k sortua. Luzaro beintzat Hiriart-Urruti kalonjea izan zan zuzendari; gero, 1925'an Adema kalonjea, ta arrezkero Saint-Pierre.

—*Bizkaitarra* (Bilbao, 1893-1895). Zuzendari: Arana Goiri.

—*Euskal Herria* (Los Angeles, 1893-1898). Larunbat guztiez agertzen zan Kalifornia'ko euskaldun berriketaria. Zuzendari; J. P. Goytino. Asteroko onen bilduma osoa Paris'ko «Bibliothèque Nationale» dalakoan aurkitzen da, J. Bilbao'k dioskunez.

—*Euskalzale* (Bilbao, 1897-1899). Iru ale. Asteazte asteko albistari edergarriduna. Zuzendari: R. M. Azkue. 1899'an, irailetik aurrera, euskeraz ta erdereaz atera zan, goitikoan aginduz.

—*La Patria* (Bilbao, 1901-1903). Gero, *Patria* asterokoa (Bilbao, 1903-1906).

—*El Correo Vasco* (Bilbao, 1899).

—*Euzkadi* (Bilbao, 1901-1915). 12 ale. Iru illabetetik beingo aldizkaria: Jakidi, Erti ta Elerti. Sabino Arana Goiri'k sortua. 1902-1904'ra debekatua. Illabete biñakoa: 1910-1914; eta illerokoa: 1915. Irugarren aroan, ots, 1910-1915'ra, Eleizalde'tar Koldobika'k zuzendu zuen.

—*Ibaizabal* (Bilbao, 1902-1903). Zuzendari: Kirikiño, Azkue'k lagunduta. Bizkaieraz eta gipuzkeraz. Igandeetan irtetzen zuen, Bilbao'ko Dendari kalean, 19 zenbakian: Juan Jose As-tui'ren irarkolan.

—*Euzkotarra* (Mexiko, 1907-1908). 1908'an galazo egin zu-ten, eta *Azkatasuna* izenarekin argitaldua izan zan; baiña au ere debekatua izanik, Nueva Orleans'en agertu zan zenbaki bat bein-tzat, euskeraz, erderaz ta ingleseaz.

—*Euskal Esnalea*. Lenengo alkarte bat izan zan, 1908'an irasia; gero aldizkari bezela agertu zan Tolosa'n, 1908-1909, 20 zenbaki. 1910'an Donostia'n atera ziran 21 eta 22'garren zenbakiak, alkartearen berri ta aurrerantzean aldizkari biurtuko zala aitzen emanaz. Urrengo urtetik, ain zuzen ere, *Euskalerria-ren Alde* erderaz ta *Euskal Esnalea* (Donosti, 1911-1931), eus-keraz, biak alkarrekis atera ziran. 331 zenbaki. Bion zuzendari: Gregorio Muxika. Ospetsua izan zan onek, 1910'an, atera zuen *Esku-Egundiya*, bertan parte artu zuten idazleengatik batez ere.

—*RIEV (Revista Internacional de los Estudios Vascos — Revue Internationale des Etudes Basques)* (Paris-Donosti, 1907-1936). J. Urkixo'k, euskal iker-lanerako baitik bat, sortu ta zuzendu zuen aldizkaria.

—*Bizkaitarra* (Bilbao, 1909-1913). Asterokoa. 214 zenbaki. Onen ordeaz, *Euzkadi* egunerokoa atera zan 1913'tik aurrera.

—*Euskalerraren Alde* (Donosti, 1911-1931). 21 ale. Zu-zendari: G. Muxika. Au il zanean, ordeaz, J. Ariztimuño'k *Ya-kintza* bi-illerokoa asi zuen.

—*El Pueblo Vasco* (Bilbao, 1910-1936),

—*Arabarra* (Gazteiz, 1912).

—*Jaungoiko-zale* (Zornotza, 1912-1936). Apaiz talde batek ateratzen zuen, Gabriel Manterola buru lez zala. Dozenaka li-buruxkak ere argitaldu zizkigun, errian aipu aundia arturik. 1932'tik 1936'ra *Ekin* izenarekin.

—*Euzkadi* (Bilbao, 1913-1937). Egunerokoa. Abertzalea, euzkel atal eder bat zekarrena. 1913'garreneko zezeillaren lenngoan irten zuen lenngo zenbakiak, eta 1937'garreneko bagillean azkena.

—*La Tarde* (Bilbao, 1914-1937).

—*Euzko Deya* (Bilbao, 1916-1922). Ikurra: Jaungoikoa eta Lagizarra. Euzkeltzale Bazkuna'k aterazi zuen. Bigarren aroan (Bilbao, 1921-1922) Euzko Gastedija'k atera zuen. 12 ale.

—*Catequesis* (Bilbao, 1917). Bilbo'ko apaizentzat, erderaz ta euskeraz.

—*Hermes* (Bilbao, 1917-1922). Zuzendari: Jesus Sarria.

Beste asko dira oraindik aipagarriak. Baiña oraingoz aski. Nekez neurtu al izango duzu, bear bezela, agerkari auek garai artan egin zuten lana. Berariz lez aitatu barik utzi dugun napar ausarten «Revista Euskara» (1878-1883) aldizkaritik asi ta aipatu ditugun «Euskal-Erria», «Eskualduna», «Euskalzale», «Ibaizabal»-tik zear, «Euskal Esnalea», RIEV, «Euskalerriaren Alde», «Euzkadi», ta «Jaungoiko-Zale»-k batez ere, karlatar «guda zapalgarriaren ondoren», gure mende aul eta lausotuaren lozorroa astindu ta pizkunde bidean jarteko, ez izan dudarik, artez ta bulartsu jokatu bear zan. Orrelaxe egin zuten, agiri denez, gizaseme gazte ta kementsu aiek, langille zintzo ta porrokatu aiek. Ba al gera gauza beste arenbeste egiteko?

Bizkaia

1895-1920

«Sortu zen Arana ta esnatu da euskera ta inarrosi du burua bizkor. Politikaz txíntik eztizut aterako, ezpaitagokit: euskeraren esnatzeari nagozu. Mintzatu zen Bizkaia, ta itzetik ortze-
ra «inbido» otsegin zigun beste euskaldunei. Gogonduri ta buru-ernari gelditu zen alditxoaz Gipuzkoa, ta azkenik «ordago» iardetsi. Yókua «euskera-» iza-
ki, alegia, ta Laphurdi'k «iduki», eskua zedukalakoa.

»Arana gabe edo Arana'z leku ari izanak eta ari direnak badituzu, baino aren aldekoak naiz aitzikoak, naiz bi-tartekoak, naiz Arana-kukuak, ua dute eragile nola edo ala. Laphurdi'k zedukan oraino eskua, nere ustez, eta ez ditu galdu nai egun ere. An ere apur bederik ageri da Arana'ren urratsa. Itz-berri-sortzean begiratuago, gibeltiago dituzu laphurtarrak, baino alare Arana'ren buruan sortu batzuk artu diti-zue naiz Eskualduna'n naiz Gure Herria'n: «idatzi» esate baterako. Gainerakoz, ango garran gutxi edo asko Bizkaia'k aizeman diola ukatzerik eztago».

(Orixe)

Mi.

J.^s ,iA:. iiiivv-jlj- **AM**
.: "xjy^ ,#r,t)-"
'i l)\! ,ftiS'.',i
>6j T^tj'iPVI
siir, .•^:\l;ll IUJ⁸, v

LABURPEN

Begikaldi zabal baten igaro ba'dagizkigu begiak gauden garaian zear, bertatik konturako gara ua etzala izan badaezpadako berbizkunde aragia, zirkin-aldarra. Euskalerri osoa oartu zala zirudin orduko lege-moztutzeak berekin zekarren ondamendiaz. Elkar sustaturik, beraz, lerrenak egin bear ziran euskera beintzat gaizkatu zedin. Izkuntza onez ateratze ontan politika guztien gaiñetik jokatu zuten.

I.º *Sail aundia*. XIX'garren mende azkenak, Bizkai aldean bereziki, gizaseme jator asko eman zizkion euskal literaturari. Orainarte izan ditugun argi ta eragilleenak, esan dezakegu. Ikusiko dugunez, guztiotan aurrenena Arana-Goiri; ortzipe edatuan noizik-bein agertzen diran izar arrigarri antzeko izan zitzaigun, dena astindu ta berrizta nairik ibillia: euskera, oraingoz bederen, betiko amiltzetik berak atera zigun, Azkue, Txomin Agirre, J. Urkixo ta Kirikiño'ri ezer-txo ere kendu gabe.

Bizkaitar seme azkarrok danetik landu zuten: izlaritza, olerki, itz lau, iker-sail ta abar.

Olerkari artean, or dugu Arrese-Beitia, gartsu ta bizi, gutxik bezela euskera, galzori gorrian ikusirik, intziri batean kanta ta goretsi zuena; ortxe baita Gorgoni Erretereria ere, izlari ta koplakari, Manila urrutitik bertso beroak «Euskalzale»-ra bialtzen errimean.

Itz lauz ari ziranak, berriz, euskal literaturan beti gailen izango dituzun auek zenbatu ditzakegu: Azkue, Txomin Agirre ta Kirikiño, iru tantai; eta oien inguruan besteok: Aita K. Basabe lekeitiarra, J. Izurrategi, F. Belaustegi, E. Bengoa mixiolaria; Simon Erkiaga lugina, J. J. Maguregi markina, ta abar.

Izlari bikain gertatu ziran Aita Jeronimo zomotzarra, J. B. Arros-pide, Galo Ibiñagabeitia elantxobetarra, J. M. Garate karmeldarra, ta abar.

Iker-saillean, bi dituzu batez ere, Bizkaiko semeak, bestelako lana burutu zutenak: Azkue, ainbat arlori ikutua, ta J. Urkixo —RIEV testigu— gure liburu zarrai makiña bat atximur egiña.

Bego auekin Zirilo Artzubiaga otxandioar langillea ere. Lan ederrerra egin zuen bere aldizkari «Jaungoiko-Zale»-kin, liburu mordo galanta argitara emanaz baitik bat.

2.º *Eragille bizkorrak*. Pizkunde garai artan aurrelari zijoan Arana etzegoen, ez, bakarrik. Euskera idatzari gagozkiola, Azkue, Agirre ta Bustintza ezingo dira egundo ere aiztu, ez albora utzi: iz-argi dirdaitsu dituzu-ta.

Ontan, begira beste aurki-gune nabarmen bat ere: bitarte aundi barik munduratuak dira eragille zangar auek. Iru, gaiñera, urte berebean: Azkue, Txomin Agirre ta Mikel Unamuno. «Orra iru euskaldun andi —dio E. Erkiaga'k—, bakoitza bere arloan. Irurok euskalzale be, baiña oster, neurri ezbarðiñetan. Lenengoa —Txomin Agirre— zaarregi egin barik il zan, baiña euskera ao-miñetan eta bere luma zorrotzean erabillela; bigarrena —M. Unamuno— asi bai egin zan asi, joranez atan ere, baiña beste arlo batzukaitik utzi egin eban euskera bertan beera, geienbat. Azkue gurea, Jaungoikoak emondako urte luzeetan egundo etenik egin bage langille ta euskera-maite sutsu agertu izan zan beti» (*Zeruko Argia*, 1964, dagonillak 9, 4 orr.).

3.º *Nork lanik bikaiñena*? Izan ere, euskera arlo utsean noski, Azkue'k burutu zuen lanik bikaiñena. Zer askori ekin zion Lekeitio'ko seme gaillen onek: aldizkari, iztegi, gramatika aundi ta txiker, morfoloji, musika, irakurgai, ta beste; gure erriak zitun oitura, siñiskeri, esakun, bertso ta jolas mordoak, berak jaso ta sailkatu zitun liburu edurretan.

L. Mitxelena'k onan: «Maizenik, gurasoengandik artu genituen ondasunak baztertutik, letoizko bitxi politez apainduak genbiltzan, Azkue paper-eske, lekuko-billa asi zan arte, erriz erri ta euskalkiz euskalki, iri ta irixka urrutienetaraiño joaz. Eta etzituen orrenbestez aztu zokoratuak zeuden liburu zaarrak. Banan-banan ikuskatu zituen gau ta egun lekuko zintzo oiek, iñolazko aberastasunik, zaarrik naiz berri-rik, gal etzedin. Berak egin zuen gure artean, itz batean esateko, Mistral'ek okzitanoarentzat 1885-ean egin zuena eta baita ere, aal zitekean neurrian, Akademiak gaztelaniarentzat 1726-37-ean bete zuen eginkizuna» (*Z. A.*, 1964, dagonillak 9, 4 orr.).

1.—FELIPE ARRESE TA BEITIA (1841-1909)

Gizaseme batzuk badira, urteen gupillak millaka arantz-onantz egin arren, gogotik joaten ez zaizkigunak. Beren egipenak luzarazten dute olakoen oroitzaren aria. Ta oietakoa dugu ez-pairik gabe Otxandio'ko Arrese oleskaria. L. Mitxelena'k one-la: «Ezaguna da gure artean Arrese ta Beitia...: zenbait bertso beintzat, gutxi bederen, buruz dakizkigu geienok. Biotz sutsu aren garra ezta oraindik illaundu» (*Egan*, 1957, 117 orr.).

GIZONA.—Txit ezagunak dira aintziñatik Otxandio'ko untzak. Araba ta Bizkai muga-mugan daukagu erri ospetsua, Anboto ta Gorbea mendien begipean. Ementxe jaio zan Arrese 1841-5-25'an. Andres ta Tomasa, bere gurasoak. Amairu urte egin zitunean Gazteiz'era joan bear izan zuen, an Markos Ordozgoiti maixuakin marrazkigintza (dibujoa) ikasten. Andik laster, mai-xuak, mendean zitun ikasleai poztasun pixkat ematearren, jar-tzen zizkien sariak, ia geienak, Felipe'k jasoten zitun; lagun ba-tek bein, ori zala-ta, otxandioarrari autsak aterateko asmua artu zuen. Augatik edo, etxera biurtu zan Arrese eta arrez gero, bere aita arotzaren ondoan eman zuen, olerkari ta santugin, bere bizi-tzaldi guztia. Azkenengo karlatar gerrateko iru urte —1873-76— Donostia'n egiñak izan ezik, bere errian bizi izan zan beti.

Ogetamar urte zeuzkalarik Azkoaga (Aramaio) erritxoko ala-ba Anjela Bengoa'rekin ezkondu zan, eta sei seme-alaba izan

zituzten: lau gazterik il zitzaizkien, Luzio ta Puri, berriz urte luzeak artu zituzten. Erriarentzat santugiña zan Felipe, ta izan ere santu-irudi asko ditu bazterretan: Otxandio'ko elizakoak, zurezkoak beintzat, bereak ditu, eta Durango'n, Oñati'n, Gazteiz'en eta abar ere ainbat dauzka. Donosti'ko egotaldian argintzan ekin zion, eta ango Ikastetxe zarreko (gaur Bidai ta Urrutidazki-Biltoki) karel edo goi-ertzetako euskotar gizon famatuen iduriak zizelatu zitun, baita iltegi zarrerako ainbat obi edertu ere. Nolako artista ote genduan arlo orretan? Naikoa ona, itxura danez; baiña, txibizkeriz edo, emen ingurumari ainbat aldare berritu zitun durangoar Saturnino Basoa'k esaten zidanez, Arrese'k pikondo egiten omen zitun bere santu-irudiak. Oso maitatua zan errian; edonori laguntza eskintzeko beti prest zegoelako, batez ere. Karta bat idatzi bear zala, liburuko bat aurrera atera, ondasunak banatu, mesede bat eskatu naiz beste antzeko gauzaren bat egin, Arrese'gana jo oi zuten Otxandio'ko seme-alabak. Eta, edonork ulertzekoa da, edu ontako gizasemeak nolako on-iritziazen jaba izaten diran errietan. Kristau legean ere bete-arteza genduan Felipe, bere olerki-lanetatik ondorendu dezakenez. Eliz-kantak ez-ezik, bestelakoak ere, goi-ixuriz gaiñezka dauzkagu, ezti abaua legez. Eta auxe, fede-batasuna nai zuen euskaldun guztientzat. 1880'an Maule'n sariztatu zioten «Bizi da ama euskera» itz-neurtuan, onela kanta zigun:

Neure anaiak, bat izan beti
Euskeldun siñiskeretan;
Bat izan geure uste, eretxi,
Gogo eta asmuetan;
Fede bizi bat baldin badogu
Biotz eta arimetan,
Bakez oraindik biziko gara
Mendi, atx eta ibarretan.

TRUEBA, ETXEGARAI.—Garai artako euskaltzalerik geienakin artu-emana izan zuen. «Euskal-Erria», «Revista Euskara», «Euskalzale» eta «Ibaizabal» ziran orduko aldizkariak; guztiotan idazten zuen Arrese'k. Eta oien artezkariak ezagun eta maite zitun: Manterola, Arzak, M. Soroa, Lopez-Alen, Artolatarrak, Azkue, Kirikiño, Txomin Agirre, Kanpion... Menéndez y Pelayo'k ere iñoiz agurtu zuen eskutitz ederrez, baita Pardo Bazan andereiño idazleak zorionak eman zizkion. Bidasoa'z andik ere ba-zuen adiskide on euskaltzale jator bat: Duvoisin kapitaina. Ederki alkar artzen zuten idazkiz, eta askotxo dira kapitainak Arrese'ri egingakoak. Berak itzuli zitun prantsesera Arrese'ren olerki sarituak; onela dio 1879-8-25'an izenpetutako idazki batean: «Guziagatik zure eresia atera da mila kopiatan eta gero «La Semaine» Baionakoan 1500 kopiatan, frantsesezko biurtzerakin batean». Beste izkuntza askotara ere itzuli nai izan zuen *Ama euskeriari azken agurra* olerkia; ona bere itzak: «Nahi ginduke ezarri elkarri bekoz beko Eskera, Española, Frantsesa eta Anglesa, goan dadin Europa guziko gizon argituetara». Ta gero, iñun olerki gudurik bazan, beingoan iragarten zion, bertarako zerbait idatzi zezan Arrese bizkorturik. ~~1911~~an, Ziburu'n il zan Duvoisin kapitaina, ta Arrese'k, adiskide samur antzo, amalauko gozo bat idatzi zuen aren azken-omenez.

1909-1-16'an il zan Arrese, 65 urtekin. Bertso bipil berotan euskal erriari amasa ematen lerrenak egin zitun oleskariaren gomuta etzan bertatik griñik-ezaren zuloan erori. Aren poesianak, gaur ere, irakurriak dira. Omenaldiak, ordea, maiz izan ditu; oietariko bat, euskal erriko idazlerik oberenak esku arturik, 1930'an, Otxandio'n bertan egin zitzaiona dugu.

ZERK EGIN ZUEN ARRESE EUSKAL OLERKARI.—Lendik ere esana gelditu da: emeretzigarren gizaldiaren erdirantza ba-zan euskal lurtean liskar, azantz eta ezin-aiturik! Ez zijoazten nasaiki Espaiña'ko barne-arazo ta auziak, eta pi-

tean bein sortu oi ziran eztabaida ta iskillu-otsak: 1873-1876 bitartean, adibidez, karlistak eta liberalak gordin ere gordin bu-rukatu ziran alkarren artean.

Gure erriak, iñork baiño latzago jokatu zuen garai artan, eta On Karlos'en alde jokatu ere. Norbaitek galdu bear eta karlatarrak galdu zuten. Eta, anai arteko burruka ta galtze ori zirala-ta, a nolako astiñaldia izan zuen euskal erri osoak! Or-
durako ere naiko murrizt zeuden euskal legezar eta eskubideak, osoan ebaki zituzten garailleak: Cánovas del Castillo gobernu-ko nausiak —1876-7-21'an— gure foru ta lege zarren ondar guztiak suntsi-azi zituan. Karlisten sailleko askok, jakiña, etzu-
ten begi onez ikusi murrizte au; eta orduko euskaldun zintzoak ditugu, bakoitzak al zuen giñoan, euskeraz ta erderaz, galdutako lege zar aien faborez zorrozkiro ots egin zutenak.

Ogetamar urte zituan Arrese'k orduko. Gerra aldiko gora-bera askoren testigu izan zitzaigun. Baita ikusi zuen alkar-jote susterrik gabeko orren amaia. Alderdi bitan zatiturik zebiltzan euskaldunak ordu negargarri oietan. Zer uste zuten? Zeren billa zijozten? Au ezin zuen, ezertara ere, eramán Arrese'k; euskaldun zurrian, pakezale zan, eta anaiak anaiengandik ba-
nanduta ibiltzea ezin eramana zerizkion. Jakingarria dugu ontan 1898-10-2'an Azkue zanari egiñiko kartan dioskuna. Ona pus-ka bat:

«Amorebieta-ko konbenioa egin zanean erretirau nintzan karlisten partidutik, eta geiago beti predikau izan neban bakean egoteko, Foruak galdu gura ezipagenduzan; esan eta egin galdu artean etzirean geratu; alan etorri zirenean zorigaiztoko egunok gure Erriagana nire biotzak mingoztasun asko iruntsi ebazan, alderdi bietako jenteagaitik, enebalako ikusten bitzuetan sober-
bia baño; danak egin eben ondo euren gerrea euren miñean; baña nire biotzean ez; eta neure artean esaten neban, ez ete dago euskaldunik euskaldun gauzak maiteago dabezanik erdal-
dunak baño?

«Aldi artan nik eneban iñor bere ikusten inguru onetan. Alan, bada, zelan neure etsigitasuna izan zan ordurako bere bertsoak ipintea inprentara emon ezarren, 1879'ko udabarrian go-goak emon eustan eresi bat egin bear nebala illetatsu edo negarrezkoa, iñok egiten ez eban ezkerro. Jaungoikoagana biotza jaso, ez ezkerro ta ez eskumara begiratuta, bakarrik gora eta geure izkerro ta Arboleagana, asi nintzan ipinten *Ama Euskeriaren azken agurrak*» {Euskera, 1957, 311 orr.).

Donostia'ko «Aires Bascongados»-era bialtzeko asmoz egin zituan, baiña alan-bearrean Elizondo'ko euskal jaiak iragarri ziran egun gutxi barru ta araxe bialdu zuen bere bertso-sail ederra, euskaldunen biotz-muiñean egiazko sentimentu abertzalea sartzearren egiña. Euskaldun danen batasuna opa zuen; ortantxe bakarrik zekusan berak Euskalerriaren salbabidea; guztia galdua zan, bestela: euskal legeak eta euskaldunen mintzaira. Igarle goi-argitu ez ote genduan?

Gizon batek —ala-ala, erri batek— zoritxarpean baldin ba'dakus bere burua, dauzkan indarrak bateratu ta bizi-naia adierazi oi du. Etzun nai ilterik Arrese'k, ezta bere erria ilda ikusterik ere; beraz, bizi-naia ta olerki-sena odol-bultz berdiñean naasirik, deadar zulagarria bota zigun lau aizetara; tantai bezela jaiki zan erriaren egoera estu mingotsa kantatuz: asieratik saiatu zan «bide-gabekeriaren irudi txepela begietatik urrintzen, nainon agiri zan ezin-ikusi aula, indar lotsagabea, zigor abere taiuzkoa, eskubideen auste mingarria arinduten».

Ekaitz gogor ostean zugatz buruak oi duten bezela, Euskal-Erriak, garailleen zigorpean aul negar egin gaberik, berriz ere burua jaso ta, denak bat, naiz ekonomi-bizitzari naiz kultur-bizitzari bekokia ematen alegintzea nai zuen bizi. Kikiltzetik ez bait-dator ezer onik.

ARRESE'REN EUSKAL LANA.—Zeukan lanbideko asti-uneetan liburuak irakurtzeari emana zebilkigun gaztetatik, eta olerkiak irakurtzen zitun batez ere; gaur oraindik bere sen-

dikoak gordetzen duten liburutegian, beste askoren artean, olako bitxi batzuk agiri dira, gaztelar olerkariak bereziki. Idazten ez dakigu noiz asi zan, baiña ziur asko gatzetatik ekingo zion orri ere. Olerkari bezela 1878'an, Elizondo'ko euskal jaietan agertu zitzaigun, eta arrezkero ogei bat bider beintzat saria jaso zuten bere poesi-lanak: Elizondo (1878), Donosti (1880), Maule (1880), Irun (1881), Būbao (1882), Markina ta Ondarribi (1883), Iruña ta Donosti (1885), Arantzazu (1886), Durango (1886), Gernika (1888) —Unamuno'k emen irakurri zuen, abots argi ta zoliz, Arrese-Beitia'ren olerki saritua, *Gure Bandera* deritzana—, Gazteiz (1888), Yurreta (1891), Maule (1896), Senpere (1898), Zumarraga ta Aramaiona (1899).

Ona bere lanik beiñenak:

1) *Ama Euskeriari azken agurrak* (1879), Iruña'ko «Revista Euskara»-n.

2) *Bizkaitar zarrak eta erromatarrak* («Revista Euskara», 1883). Trueba'k erderazko bertsoan jarri zuen.

3) *Diccionario Manual Bascongada y Castellano y elementos de Gramática* (1884). VIII-112 orrialde. Astigarraga'ren iztegia bizkaireraz atonduta.

4) *Ama Euskeriaren Liburu Kantaria* (Bilbao, 1900). 496 orrialde. Lendik «Euskal-Erria»-n eta «Euskalzale»-n argitaraturiko olerkiz ornitua. Artur Kanpion'ek jarri zion itzaurre luze bat.

5) *Asti-orduetako bertsozko lanak* (Bilbao, 1902).

6) *Olerki Sortatxua* (Zornotza, 1930). 62 orrialde. Amasei olerki datoz.

7) *Olerkiak* (Zornotza, 1933). «Jaungoiko-zale» bazkunak osotu zuen txorta au. Beronen asmoa naiko zabala zan: Arrese'ren olerki guztiak argitaratzekoa. Lenengo aleari itzaurrea ezarri zion Jon Kurutz Ibargutxi apaizak onela: «Arrese-Beitia'ren olerkiak barriro argitaratzeko asmoa artu dabe aren se-

me-alabak. Asmo ederra, bein! Urietako zeietan giza-gurenen gomutaz jasoten diran irudiak, gomutaki illak izan oi dira. Agoa bai ta itzik ez dagie». Lau idaztitan agertzeko asmoa zeukaten, baiña lenengo baiño etzuten atera.

8) *Olerkiak* (Bilbao, 1956). Asmo berdiñez su-garturik, neronek egiña duzu argitalpen au. 688 orrialdeko liburu eder baten, aren iru olerki-idaztietako danak batu ta sartu genitun. Baiña baditu oraindiño geiago ere «Euskal-Erria»-n eta «Ibaitzabal»-en; azkenengo ontan ogei bat ba-dagoz beintzat oraindik liburuetan bildumatu gabe. 1903'an, Arana il zanean, ari unkitua lez du *Gure Eguzkia amatau da!*, deritzan 19 ahapal-diko poesi arnas aundikoa.

Bederatzi zatitan banatu nitun nik Arrese'ren olerki-sorta gertatzerakoan. Ona; I. *Kantu errikoiak*: ederrenak nunbait, askoren ustez. II. *Lirika kantuak*: bere lira zuen aldean, eta onen ariai atzez ikuturik egiñak ditu Arrese'k bere neurtitz maza-lak. III. *Gora kantuak*: eder zaigu gizaseme gurenak txalotzea. IV. *Amalaukoak*: Lope de Vega, Quevedo, Shakespeare ta ola-koen maillara ezta iritxiko bear bada, baiña poliki egiñak ditu 35 bat. V. *Eliz kantak*: erromantikuen bidez ibillia dugu Arrese, ta goitar gaiak abestean ere, oparo askatzen ditu irudimenaren egoak. VI. *Alegiak*: alegi ta ipuietarako etzan iñoren arrobira gai billa joan; otxandioarrak, geienak beintzat, bere-bereak ditu azal ta mami. VII. *Ipuiñak*: errian bazan trakets edo griña txar-dunen bat, santugilleak laster jipoia berotuko zion. VIII. *Ira-kurgaiak*: askotariko gaia dute auek. IX, *Erderatik euskeratuak*: Zorrila, Karo, Herrera, Valbuena ta olakoen lanak itzuli zitun. Augatik edo, Fray Luis de León, Becquer eta antzekoak barik, beste oiek itzuli zitulako, L. Mitxelena'k au dio: «Egia esan, poesirako baiño retorikarako ixuri geiago zuen. Ezta ikusi bes-terik zein olerkari euskeratu zituen». Baiña, beti bezela, aren olerkiz iritzia emateko, obe litzakigu garai artako poesi-tira ta joera aurrez gogotan artzea. Ta orduan ezingo duzu esan Arrese egiazko lirikua eztanik. Poesi lirikua, zer ote dugu? Alan nai

onan, norbere izate barruko sentiera ta zauskadak adieraztea, bakoitzak bere barne-mundua kantatzea; ez dugu besterik. Ta au bakoitzak egin oi du ondoen dagokion, edo-ta modan dagoen, tinko naiz itz-ontzi, piko ta joeran.

IRITZIAK.—Aurrera egiteko jaioak gara gizonok; aurrera kultura saillean, edo zibilizazioan. Eta kulturaren zati bat, ez dugu besterik, literatura ere. Guk ba-dugu, poesian batez ere, tradizio bat, gaur ere oraindik, bertsolariak eta mugaz andiko olerkariak, naikoa ondo zaintzen dutena. Tradizio ortatik zerbait saiestuaz ibilli zitzaigun Arrese ta Beitia. Geroztik laster, Arana-Goiri, Iñarra, Tolosa'ko Arrese ta ondorenguak ibilliko zitzaizkigu bezela. Adimen zorrotza, irudimen bizia ta biotz kilikagarria erakutsi zuen otxandiotarrak bere lanetan; eta gauzak esateko ganora. Doai aunegatik, ziur asko, orduko euskaltzale jakintsu guztiak txalo-zartaka goratu zuten.

A. Kanpion'ek onela; «Olerkari gorengoa dugu Arrese, baiña *euskal* olerkaria gero, ta aberri-miña kantatzen, nik uste, iñor baiña euskaldunago. Eskuratu bere olerki ederretatik edozein, ta euskal erriaren muin gartsua ta azal islatsua bertan aurkituko dituzue. Foru-zale da Arrese, ta onek ematen zizkigun eskubideak ilda ikustean, eurok negartzen ditu, malko jario; Jaungoikoa maite du, ta Aregana biotza jasorik, Aren lege jakintsuak goratzen ditu, Aren egiñen osotasuna abestu; gizon ona duzu, siñismen bizikoa, ta erlijiozko ezkutapen aundiak gogora dakartzi».

Duvoisin kapitainak: «Zure burutik atera da, jaun maitemaitagarria, eskara zaharrak duen eresiarik ederrena». Eta beste eskutitz baten: «Zuri erakusteko, jauna, zeinbat ederresten, miresten eta prezatzen ditudan zure bihotz-jauzi herritarrak, bidaltzen darotzut ene iduri iguzkin egina, begira diozozuntzat, adiskide baten arpegiari bezala» (1879-7-11).

L. Mitxelena'k: «Biotzondoa badu, izkuntza aberatsa ere bai; egiazko Unikoa osatzen duen zera, ordea, euskeraz geroztik

agertu den zer berezi ori, falta zaio». Eta ondoren: «Esandakoak eztu beeratzen ez gutxiesten. Retorika jatorra du, goitarra, biotz bero batek indartua. Eta euskera eder, sendo eta ugarian mintzatzen da beti. Izkuntzaren aldetik badugu, beraz, zer ikasi Arrese'gan, eta beste batetik ere bai. Bertso orietan dauzkagu bilduak garai artako gogoeta, kezka, asmo eta burrukak, euskaltzale gartsu batek ikusiak eta adieraziak» (*Egan*, 1957, 118 orr.).

Azkenez, aitor dezagun argi: poesi-zale zan Arrese umetatik, amaren sabelean edoski zuen grina indarrez. Erti-lanak egi-keran ez zuen musaengana jo bearrik, argi-billa nunbait; gogo baitan zeraman naikoa kopla zoragarriak eiotzeko. Egia da, ikasiz ere asko piztazi zuen bere irudimena, Liburu santuak irakurritz geien bat. Osterantzean biotza zan beretzat iturri jori ta apartsu. Iparragirre ta Arrese bi erri-igarle ditugu, beren garai-koen naikari ta opa biziak kopla gartsuetan gorputz egiñik utzi zizkigutenak.

(Ikus B. Larrakoetxea, *Euskal Esnalea*, 1926, 167 orr.; S. Onaindia, *MEOE*, 288 orr., *Olerkiak*, Bilbao, 1956, itzaurrean eta *Gure Bertsolariak*, Bilbao, 1964, 238 orr.; L. Villasante, *HLV*, 282 orr.; L. Mitxelena, «*Egan*», 1957, 117 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1952, 188 orr.; Auñamendi, II, 115 orr.).

2.—JOSE MANUEL ETXEITA ETA LUZARRAGA (1842-1915)

Adia samin au bota zigun bein Eusebio Erkiaga'k: «Euskal idazle izan ez diran letradun edo burujantzi asko izan da Euskalerrian. Esaterako, mixiolariak, eta baita autorrentzuleak bere. Eskribauak eta, osagilleak eta. Zenbat jazoera, zenbat egoera latz nobelagarri ez ete ditue ikusi ta bizi izan, barbarako, mixiolari euskaldun sail zabal eta edatsuetako gizasemeak? Zegaitik ez ete deuskue aberastu gure elertia, irakurgai biribillak

agertuaz?... Egia da, alan bere, euskeraren alde jardun izan dabena euskaldun euskaltzalerik zintzoenak, ia beti, ain zuzen elizgizonak izan dirana. Beste letradun asko, ibilfariak, itxasgizonak, aundikiak batez bere, iñoz agertu al izan dira euskeraren aldeko lanetan?»

Etxeita mundakarra, alere, sail ajolakabe ortatik berex eman bearra da; berau bait dugu, uri-gizona noski, euskal literaturako nobelagilleen taldea edertzen duten lenengoetariko bat. Bai, Mogel'en «Peru Abarka», Daskonagerre'ren «Athea galtzeko oihartzunak», Elizanburu'ren «Piarres Adame»-ren auzoan jarri bear ditugu Etxeita'ren «Josetxo» ta «Jaioterri maitia» ere.

NOR GENDUAN.—Kantauri itxas ertzean, ots, Mundaka'n jaio zan Etxeita 1842-12-13'an. Il ere bertan il zan, 1915-5-1'an. Bere gurasoak: aita, Markos Etxeita Duñabeitia, Garai'ko semea, ta ama, Maria Josefa Luzarraga Abaroa, Mundaka'ko alaba. 1867-11-25'n ezkondu zan Mundaka'ko alaba Juana Abaroa Axuriagoxeaskoa'rekin. Seme bakarra izan zuten, izenez Salbador.

Atsegin izan oi zaigu gizonaren itxura noiakoa izan zan jakitea ere, bai gainez bai izakeraz. Etxeita'ri buruz, au diosku E. Erkiaga'k: «Gizon bardingoa zan luze-laburrean. Azalez, baltzerana. Begiak, urdiñak zituan, zear luzanga urratuak. Bekoki zabala, ezpan lodiak, ao egokia, bizar estua. Izakeraz, atsegiña ta mazala ei zan. Artu-emonetan, apal eta maitakorra. Bai goikoentzat, bai beekoentzat, guztientzat bardin antzekoa, gizon oso ta bakarra, azpillik bagea. Buruz argia, zanez azkarra, ariurritz langillea» (*Olerti*, 1962, 108 orr.).

Gaztetatik ibilli zan, txo lez, itxas-adarrak urratzen. Geroago, Bilbao'n ikasi zitun Nautika-gaiak, beti ere nota ederrak ateratzen zitula. Ta laster itxosaratu zan berriro, lenengo bear ziran proba ta azterketak egiten, eta ondoren itxaso guztietarako pillotu bezela. Era ortan ikuskatu zitun sarriro Europa'ko ta Ameriketako errialdeak; baita, berak bere Oroitzapenetan dios-

kunez, ekaitz gogorrai arpegia eman eziñik, bere burua arrisku izugarrietan ikusi ere. Etxeita'ren bizitzako asi-orraziak txit garrantzizkoak dira.

Azkenez, itxaso ta beronen ekaitzai agur egiñaz, Manila'n geratu zan, Larrinaga itxas-ontzi etxeko zuzendari amasei urtez egiñik. Bitartean kargu auek euki zituen: ango kaleko Batzarrekoa, Filipinas ugarteetako Banakuntzakoa, Tabakalera Bazkunako onularia, Itxas-bazkunako artezkari ta Saleroste-Kamarako lental<ari, eta guenean Manila'ko alkate. Erkiaga'k ondoren au gaiñeratzen du: «Lan eta arazo guztietan agertu izan eban bere zuzena ta zindotasuna. Gizon azkarra ta jendakiña izan zan; euskaldun eredu. Apala, baketsua, etxezalea, aren oiturak ez euken ezer nabarmenik» (Loc.. cit.).

ETXEITA'REN IDAZLANAK.—Ez dakigu noiz etxeratu zan. Baiña, aurretik ere idazteari emana baldin bazan, gero, Mundaka'n, bere jaioterri gozoan, Izaro, Ogoño ta Atxerre begipean zoragarri zitularik, euskereari ta musikeari osorik lotuta bizi izan zitzaigun. Orduko aldizkarietan ugari agiri dira aren lanak: *Euskal-Esnalea*, *Euzkadi*, *Jaungoiko-zale* ta *Gaceta del Norte'n* batez ere.

Liburuak ere argitara zitun, bertsoz eta itz lauz. Ona:

1) *Josecho* (Durango, 1909). Florentino Elosu'ren etxean. 368 orrialde. Irakurgai onen gaiak badu gatza. Mundaka'tik, Bermeo'rako bidean basetxe baten senar-emazteak bizi ziran seme-alaba barik. Bein jitano batzuk joan zitzaizkien etxera; mutiltxo eder bat zekarten: Josetxo. Onek beingoan oratu zion seme gabeko amari, esanaz: «Ama! Ama!» Umetxo ura erosi zuten. Zegan? Amar ogerleko ta amar oillotan. Aundi azi ta itxasoratu zan, pillotu ta buru izatera eldurik, eskualde asko ibilli ta ikusi zitun. Bitartean, ainbat gorabera. Azkenik, bere jaioterrira biurtu ta Mundaka'ko neskatilla batekin ezkondu zan.

Geroago jakin zanez, Josetxo napartarra zan, Etxauri'ko semea; jítano emakume batek ogetabi illabete inguru zeuzkala ostua, «bikotxa bere arreba bategaz, da biak guztiz alkarren antzekoak, biak euken eskumako belarpean orañen andi samar bat» (*Josetxo*, 355 orr.). Guenean, bere egiazko ama ezagutzeko poza izan zuen.

2) *Jayoteni maitia* (Durango, 1910). 255 orrialde. Pizkundeko artzain-nobela kutsua du. Euskaldun neska-mutillak erbestera doaz, Mexiko'ra, geroago Ardibaso zoragarrira biurtuaz. Berton datorren lagun baten inguruan ainbat gauza gazigozo eiotzen ditu. «Lenengo maillako notiñak, ugariago ditugu emen —diosku E. Erkiaga'k—. Elebarri au, oster, alaiagoa da, ariñagoa. Bear bada, biotz-isuri aundiagokoa. Barruan, alako lillura ugariago zirikatzen dauana, letragintzaren ikutu nabariagoa daukana. Irri-ikutu atsegiñez txitean-pitean, olde ameskoraren kilika bigunez».

3) *Au, Ori ta Bestia* (Durango, 1913). Durango'ko Elosu'ren etxean, besteak lez. Neurtitzak dira, lendik ere orduko aldizkarietan eta aipatu nobela bi oietan sartu zitunak. 52 olerki guztiz. E. Erkiaga'k onela: «Musika-zale zanez, neurritz artez egiñak dira, izkera errezean, oztopo barik irakurtekoak, itzak moztu ta itsusitu bage, euskera osasuntsuan. Samurtasuna igari dabil izneurtu askotan, an or emen sentimentu bikain ta gardena erakutsiaz. Minberatsuen ondoan, ba ditu bertsu zirikatzaileak bere, alaikorrak; eta noizean bein akulugana zorrotz darabil. Alkarrizketa-zale itsua zan, eta neurtitzotan bere, autuka diardue angó bizidunak, geienez giza ta emakumeak. Teatru-lan politak egin izan eukean, orretara jarri izan ba'litz» (*Olerti*, 1962, 115 orr.).

Ba-ditu oraindik, or-emenka argitaratuak, «Euzkadi» aldizkarian batez ere, beste lan batzuk: «Atsua ta mutikua», «Libin», «Auntz-kumetxuba», «Matilde'ren naigabiak», «Deungekeria ta damutasuna», «Mari Jesus ta iru artzañak», eta A. Trueba'gandik egin zizkigun itzulpen batzuk, «Zorijona», adibidez.

SARIAK.—Etxeita'k, bere bi nobeletako notiñak, berak ibilliz ikusi ta ezagutu zitun itxas-barruti ta lur-aldeetan jartzen dizkigu. Oien gaia, beraz, bizi-bizi zekarren aurreragotik bere gogoan. Idatzi ere egin ote zituen atalen batzuk? Dana dala, edo azkenengo urteetan edo aurretik, naikoa idatzi zigun. Gauza askori buruz idatzi ere.

Eskuratu zitun sariak ere etziran kaskarrak izan. Lenengoa 1908'an irabazi zuen, «Euskal Esnalea»-k eraturiko ipui-batzaldian *Mari, Jesus ta iru artzañak* sariztu ziotenean. Zarautz'en 1912'an, «Euskalerriaren Alde»-k antolatu zuen poesi-leiaketan bere *Itxasoa* olerkiak eraman zuen bigarren saria. 1914'an ere, «E. Alde» berak eratu zuen ipui-itzulketa batzaldian berak irabazi zitun lenengo bi sariak, bata Trueba'ren ipui «Jainkogan siñisten dot» itzulpenagatik eta bestea «Urikoa» komediagatik.

Argitara barik datza oraindio bere gutun *Memorias* deritzana, itxasoak astintzen ibilli zaneke ainbat gorabera ta gertaldi uste gabekoz ornitua.

IRITZIAK.—I. Omaetxebarria'k: «Etxeita'k bi nobela utzi dizkigu: *Jose txo ta Jaioterri maitia*. Lenengoak Añibarro'ren idazildoari jarraitzen dio, bigarrena berriz Mogel'erañño irixten da. Errikoitik urbil dabillena duzu bere izkera, itz berriak oso zuur erabillirik» (*Eusker a*, 304 orr.).

Eusebio Erkiaga'k; «Arima kez katsua eban gure idazle itxas-tarrak. Zeaztasunak zuzen ta zuur emoten oitua nunbait eta, estadistika zale amurratua da. Zerzelada ta koxka ta buru-buztanak, ziur esaten dakiz».

M. Zarate'k: «*Jose txo*. Nobela bat da. Erromantiku usaiña dario, baiña erreza eta polita da».

Etxeita'k ba-zuen kezkarik bere eleberriak osotzean: fonetika zala, itz berriak, orduko joerak zirala-ta... Ezagun zitun orduko euskaltzaleak; berak diosku Jose txo'ren itzaurrean: «Ira-

kurgei au iratzi dodanean, gomuta izan dodaz Astarloa, Campion, Azkue, Arana-Goiri ta beste jaun jakitun batzuk, eta eurak euskerearen alde egin dabezan lan gogoangarriak».

(Ikus G. Muxika, «Euskal Esnalea», 1915, 50 orr.; S. Onaindia, MEOE, 624 orr.; I. Omaetxebarria, «Euskera», 304 orr.; L. Villasantte, HLV, 314 orr.; Eusebio Erkiaga, «Olerti», 1962, 107-123 orr.; K. Etxenagusia, *Euskal Idazleen Lorategia*, 1969, 152 orr.; M. Zacate, Bizkaiko euskal idazleak, 1970, 118 orr.; Auñamendi, II, 179 orr.).

3.—SIMON ANJEL ERKIAGA TA GARATEA (1843-1922)

Luzaro ibillia naiz euskal idazle onen bizitz-xeetasun billa. Azkue zanaren *Euskalzale-n* idazten zuen, eta naikoa ondo; Azkue beronek bere Iztegi nagusian aitatzen digu, «Erkiaga, Izpaster'ko nekazari» esanik (XI). Besterik ezer ere ez. Baiña gizonak nai duena lortu egin bear du. Ta jo nuen berri-billa gaur Izpaster'ko txaunburu dan Jose Maria Amutxategi, ango eleizako artxibuaren ardurea duenarengana, ta ark bialdu dit gura nuena. Millesker! Zergatik idazten dut au? Beste ainbatek, nik idatzi arren, erantzun ez egin didatelako: parkatu, baiña mingarri da.

Simon A. Erkiaga Izpaster'ko semea dugu, beraz. An jaio zan 1843-10-8'an, arratsaldeko ordu bietan. Bere gurasoak: Juan Antonio ta Maria Sorkunde, izpastertarrak. Dolabeko baserrian bizi izan zan beti; Izpaster'ko alaba Maria Iñazia Gandiaga'rekin ezkondua. Baserritarra. Eleizakoak artuta, 1922-12-9'an, arratsaldeko ordu bi ta erdietan il zan.

EUSKAL IDAZLE.—Takean potean esan oi dugu baserritar garbiakandik ikasi bear dugula euskeraz itz-egin eta idazten. Eta beurok idazkortza artu ta papera zirriborrotzen digutenean? Orrela egin zuen ipaztar nekazari Erkiaga'k. Azkue jauna ain-

bat bidar urreratu zitzaion bere ezpaiñetatik euskal urre-pitxiak jaso gura-ta. Beste batzuetan idatzi eragiten zion, «Euskalzale»-tik atera dezakegunez.

Ona zer idatzi zuen Erkiaga'k «Euskalzale» albistarian. 1897: *Eskutitz eder hat*, 85; *Gomutagarriak*, 291, ta *Gurasoen soñekoak*, 390. 1898: *Zoro jantziak*, 162; *Batzaillen Banatzailak*, 270, 298 eta 319. 1899: *Zaar baten esangurak*, 198; *Eleizako egoerea gaur egunean*, 364.

Mintzatzen ez-ezik, idazteko aiñean ere ongi zekien euske-raz. Eta argitara eman zituen lan auek, egoki biribilduta dagoz bai mamiñez bai azalez. Bere baserri-inguruan ikasiaz gaiñ, irakurri egiten zuen itxuraz, eta gogotik irakurri ere berezko etorriari lagunduaz. Ona «Zaar baten esangurak» deritzanetik zatatitxo bat ao-goxogarri bezela:

«Entzun daioguzan, ba, zaar bati bere esangurak,.. Amaitu iat nire gorputzaren aldetik euki dodan izate guztia. Badaroat zelanbait eskua burura, ta eztot billatuten ulerik, azal-tximurtu ta azur utsa baiño. Bakat esku ori neure arpegi, lenago bere edertasunagaiti ainbestek begiratuten eutsanera, eta eztago berton, azal-ikoldu ta ormaza utsak baiño: gizonaren edergarri launak emoniko bizarrak eurak be, alde dabe; bakarrik billatuten ditut euretati geldua lez indarkatuta dagozan zarama zuritu batzuk. Gogoratuten baiataz onetan, arako nire agin sendo, arriak txikituko zituenak, neure ortz eder, ezpan ta aoaren iantzigarriak, eztago euretatik kondo gogaikarriren bat ezpada: ta sartuten badot ogi ainkaren bat aoan, an darabilt ezin bigundurik ordu betean, begira dagoan bati begitanduteko beti iaten nagoala, edo zoratu ete iatan, ardi zarrak ausnar lez, beti alan ekiteko. Surra iarri iat okotza ioten; eriona beragaz dau geie-nean. Begiak eztakuste ezer; gauzarik andienak begitanduten iataz, lanbro artean dagozan gauza txiki ezin ikusi batzuk. Belarriak eztantzue ezer, eurennezko durundi iñoz amaituten eztan

bat baiño. Neure adiña edo adimena illundu da guztia; gogoratu gura badot leenago iragoriko iazoeraren bat, ezin dot bear dan argitasunagaz billatu, ez ausnartu.

«Burua ta buruko gauzak orren ezereztu baiataz, zetan ete da andi berako gorputz zati au? Ai!, eztago oneen ganean zer-esan andirik: bakarrik esan neike, aga zar igartu bat lez gelditu iatala, ez iagiteko, ez ibilteko, eta ez ezetako: asten banaz ibilli gurarik oinkada bat edo beste egin gurarik, ez dauste aldendu gura neure oiñ biak alkargandik; batak aurrera gura badau, besteak eztautso iarraitu nai, ta biak daukadaz alkarri iratsita lez: alperrik dira niretzat esku-makilla ta sendagarri guztiak, eztago nire agazar au barriraztu leikean egur eringo edo muetarik lurbira guztian; alperrik osagillarik iakintsuenak dendatuko litzatez niretzako osagarriak billatuten». (*Euskalzale*, 1899, 198 orrialde).

Onelaxe darrai, ganoraz oso, zarraren urdailla nola, bere itzak nolakoak diran, arima aldetiko samintasunak eta abar, esatera ederrez jantzita, adierazirik. Lan bikaiña edozein antolojira-ko ere. Bir-aldatu dugun zati ontan bakarrik, nolako itzak: «Geldu», «zarama», «ikoldu», «kondo», «iratsi», «eringo», «dendatu» ta besteak. Joskera ona darabil beti.

4.—EMILIANO ARRIAGA (1844-1919)

Bilbo'ko seme izan zan Juan Krisostomo Arriaga (Bilbao, 1806-Paris, 1826) musikalaria otsaundikoaren illoba. Idazle ta musikalaria. Bilbao'n jaio zan 1844-2-4'an, eta Araba'ko Zua-
zo'n itzali zitzaigun 1919-8-19'an.

Sal-erosketari eman bere burua, baiña aldi berean, Bilbao'ko gauza zarrak maite zitulako, auek, musikulari ta idazle bezela, goretsi ta ospatu nai izan zitun. Berau izan zan Bilbao'ko «Filarmónica» alkarte ta «Centro Vasco»-ko lenengo zuzendari. Egia esateko, bere sorterriakiko maitasunak aundi-

tzen du Arriaga; onek eraman zuen bere denboran osotu ziran eginkizunik garaienetara ez-ezik, baita Bizkaiko uriburua idazlan eta liburu atsegingarrietan aupatzera ere. Zekusan zerak alderdi egokitik begiratzen zekian ezkeroz, ezker-eskoi zeukantetik jasotako guztia txit eskertsu adierazi oi zuen bere lanetan.

Bibolin jotzaille azkarra gendun. Eta musika idazle trebe. Musika-gaitasuna erakutsi zigun lan auetan: 1) *Chimberiana*, erri kantuz osoturiko lan bikaiña, Bilbao'ko Udal-Eres-Batzak 1918'an lenengoz joa; 2) *Bilbainescas*, pianurako suite bat, erri-ahestialdn oretua; 3) *El amanecer en Deusto*, eres-poema; 4) *Ave Maria*, abots askoz kantatzeko; eta beste lan txikiagoak, batzuk oraindik argitaratu gabetik.

Idazle zan aldetik, euskeraz etzuen ezer idatzi; baiña 1909'an ereserki bat osotu zuen, Begoña'ko Amaren omenez, Arana-Goiri'ren letra ta izkiaz. Ainbat erdel lan argitaratu zitun, ordea, Euzkadi» aldizkariaren orrietan batez ere. Bereak ditu gero liburuok: 1) *La Romanesca*; 2) *Léxico del bilbaino neto* (1896); 3) *Vuelos cortos*; 4) *Txiplis-txaplas* (1899); 5) *Revoladas* (1920); 6) *La pastelería* (1908); 7) *Teoría del violín*; 8) *Lekobide*, euzko elesld eresidun asele irukotxa, Aita Imanol Arriandiaga'k euskeraz ipiñi ziona (Bilbao, 1918, bigarren ateraldia); 74 urte zituela argitaratu zuen euskal opera onen liburuxka.

(Ikus *Euskalerriaren Alde*, 1919, IX urtea, 320 orr.; *Hermes*, 1919, III, 415 orr.); Auñamendi, *Literatura*, II, 245 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliografía*, I, 317 orr.).

5.—JERONIMO GARAGOITIA AGIRRE (1846-1921)

Ona dandatik dandara, ortzi zabalean izar arrigarri antzera, agertu oi diranetariko bat. Nik ez nuen ezagutu: Aita Jeronimo karmeldarra ilda amairu egunera (1921-12-4'an) etorri nintzan ni Larrea'ko lekaretxe jaiki ontara praille ikasketak asteko as-

motan. Aren oroiz tutulu-putulu aurkitu nuen bazter ontako aizea; aundia bait zan soin-arima. Norbere errian ez omen da igarle izaterik; Aita Jeronimo, orraitio, zornotzarra izanda ere, emengo eskualde guztietan aintzakotzat eukia izan zan.

Zornotza-Amorebieta'n jaio zan 1846-9-30'an, eta kistar egutegiak Jeronimo deuna oroitzen duen egunean, ain zuzen. Markiña'n artu zuen karmeldar abitua, 1869-11-23'an, eta elizkarrera egiñik, 1872'an meza ematera iritxi zan. Gizon argia ta zurra zanez, Markiña'n, Larrea'n, Avila'n eta Alba de Tormes'-en etxeko nagusitza bere bear izan zuen; gero, Aita Nagusiaren Aolkulari izan zitzaizun Erroma'n, eta Mixioen arduradun. Ementxe, Larra'ko komentu ontan itzali zan 1921-11-2ran.

IZLARI TREBE.—Atzerri aldetik luze xamar bizitza eraman zuen arren, ondo zekien euskeraz eta Garizuman eta Garizumatik kanpora, Kristo'ren erreinua zabaltzen ibilli oi zitzaizun aspertu gabe. Kastilla'n bizita ere, Aita Ozerin Etxebarria, Dima'-ko semea, lagun zuela, maiz etortzen zan euskal errira. Iturri garden antzera, etorri ugaria zuen, eta eskabide asko zetorkion or-emendik; bera, ordea, naiz errietara naiz jazoera aundiko deietara joateko beti zegoen gertu ta prest; zala Begoña'ko Amaren koroatzea (1900-9-8'an), zala Balentin Berriotxo Zorundunaren ezurrak bere jaioterri Elorrio'ra aldatzea, berak zuzendu bear zuen olakoetan Kristo'ren itza. Makiña bat itzaldi egiña dugu! Bai ederrak ona ta pakea, aldarrikatzen dituztenen oiñak!

Emen duzu nolako izlaria zendun argi adierazten dizun erakuskai bat. Beñola Markiña'ko prailletxean amar eguneko mixioa eman zan, 1897-10-17'an asita. Izlariak: Aita karmeldar auek izan ziran: Jeronimo, Ijinio, Jerman eta Jazinto; laurok izlari onak, erriz erri asko ibillitakoak. Mixio onen berri ta albistea orduan Barinaga'n arimazai zegoen Maguregi jaunak ematen zuen Bilbao'n Azkue'k zuzentzen zuen *Euskalza* asteroakoan. «Aldraka joaten giñean —dio— alde guztietatik egunean baiño egunean euren berba santua entzuteko gurari ta egarri andiagoaz, bada ikusten zan elizea bete-bete artu eziñalan».

Eta Aita Jeronimo izlari ernearen goralpena onela dagi: «Onen ezaugarria (beste askoren artean), boskarren arratsaldean, parkaziñoeko berbaldiaren gueneruntz entzun ziran negar-ziz-puru zoliak, ulua ta zotin andiak, tantaka jausten zirean malko samiñ ta goriak eta ikusi zirean betinguru gorrituak. Eta zelan ez, edo nork, ez eban egingo Aita Jeronimoren eztarri-ots ta dei ikaragarriak eta berba itzaltsuak entzun ezkeror? Belarriak zarratu eta biotza arri eta atxak baiño gogorrago eginda eukazanen bat izan bearko eban» (*Euskalzale*, 1897, 371 orr.).

Libururik ez zigun utzi, argitara emanik beintzat. Bai, ordea, sermoe pillo galanta. Gure liburutegietako arasetan eliz-itzaldiakin osoturiko esku idatzi mordoak daude, oraindik sailkatu ta zenbatu gabe, batzuk izlariak berak bere kasa atera ta idatziak, beste batzuk iñork eskuz idatziak; orixegatik, ez duzu askotan errez norenak diran jakiten. Askotxo dira A. Jeronimo'renak. Garai artako sermoiak sarri ordu betekoak izan oi ziran, buruz ikasita esaten ziranak. Labur; XIX'garren gizaldi azkenetako izlarien sermoe asko dituzu or-emen; baita A. Jeronimo'k utziak ere, baiña sailkatu barik. Lan au norbaitek bere bizkar-gaiñ artuko ba'lu, nolako mesedea egingo lukean!

AITA JUAN ANTONINO URIBIARTE BISTEGI
(1860-1949)

«Arratia'n —diosku Atxiki'k— erritxo bat dozu. Goitik bera Dima'k eta Orozko'k iruntsi bear dabela dirudi; aurrez-aur ta atzez-atze or dabiz Zeanuri ta Arteaga zearka-zearka sartu bearrean. Ona emen erri onen izena: Areatza-Billaro. Erritxo ontako auzune Uribiarte'n jaio zan Aita Juan Antonino» (*Karmen'go Amaren Egutegia*, 1952, 115 orr.). Ementxe munduratu zan, ba, 1860-5-9'an.

BIZITZ-APURRAK.—Ur zitun bere jaiotetxetik erriko eliza ta prantziskotar mojatxoan komentua, ta aietako elizkizun eta kanpai-otsak eraginda edo, goi-deiaren zurrumurrua somatu zuen bere barnean; ala ere, gerokoaz asko arduratu barik, etxe-lanetan ziarduen maratz. Gudaritza ere Madrid'en bete zuen; gazterik geienentzat arriskutsuak izan oi dira urteok, baiña gure mutilla griña batek jota zebillen orduan ere ta munduak etzion ezer esaten. Eta egiteko ura bukatu ordukoxe Gazteiz'ko apaizgaien Ikastetxera joan zitzaigun. Langille bizkor ta ikasle alai dabil bertan. Ikastaro bitartean, opor-aldietan batez ere, an eta emen etxeko arazoetan trebe ta azkar agiri da goiz ta arrats.

Gazteiz'ko Pierola jaun gotzaiñak jaupari egin zuen, 1890-4-5'an. Bertatik Olarte-Orozko'ko parroku izentatu zuten: Tomas Aperribai apaiz jauna zuen abade-lagun. Zoli zebillen beti eliz-gauzetan; neska-mutillak maite zituen eta auek bide onetik erabiltzeko benetan saiatzen zan. Laztan zuen Karmen'go Ama, ta bere eliztarrai onen eskapularioa ezarteko baimena Erromatik lortu zuen beretzat. Geroago, Billaro'ko apaiz-lagun izentatu izan zan, baiña ez urte askotarako; andik laster, ba, Olarte'n zeukan apaiz-lagun Tomas Aperribai jaunarekin batera, Karmen'go Amaren jantzia artu zuen Larra'ko komentuan. 1897-6-10'ra zan.

Atxiki'k diosku: «Neke, lor ta samintasun galantak igaro ta eroan bear izan ebazan bere sendikoak zirala-ta, 37 urtedun karmeldar egin zalako». Santander'en egon zan lenengotan, an-go euskaldun arrantzale ta itxastarrai mixioak euskeraz emanik. 1900'an Larrea'ra bialdu zuen orduan Probintzial eta geroago Kuba'n Santiago uriko Gongotzai izan zan Balentin Zubizarreta karmeldarrak. Eta arrezkero guztian, il arte, lekaretxe ontan bizi izan zan, «48 urte ta erdi gaberdian jagi ta gazte zarren eredu izanik».

Nik emen ezagutu nuen, baita berarekin bost urte bizi izan ere. Eta beste gomutagarri askoren artean auxe dut oraindik: gazteai erakutsi naia. Ni, nere praille ikastaroak amaitutakoan,

menpekotasunak ona ekarri nindun, Larra'ko komentu ontara. 1935-9-8'a zan; udazkena irixtean, beraz. Gaztetan ikasita edo, ortu-lanean eta mats-gauzetan batez ere, aitua genduan Aita J. Antonino. Udazken artan ni artu ninduen lagun, mats-mordak batu ta gero urteberri ostean mats-aienak iñausteko. Gaixo-ikus-le arduratsua zan, eta sarri eraman oi ninduan ni ere berarekin. Aitak semeakin egiten duena nereldn ere egin nai zuen: berak zekiena ta barnean zeramana nik ere jakitea ta osotutzea opa zuen dudarik gabe. 1949'ko kandelario egunez il zitzaigun ementxe, Eleizearen eta Ordenearen alde ainbat izerdi bota zuen komentu ontan.

IZLARI NEKA-EZIÑA.—Arimazai axolatsu, aitor-entzuteari emana, etxezale maratz, «edozetan ekiana ta edozeri ekiten eutsona» ez-ezik, izlari zolia ere ba-zan gure A. J. Antonino. Amaikatu itzaldi eder egiña dugu, Bizkai'ko errietan bereziki! Galdetu, bai, gure erriari zelakoa zan. Gure komentuko artxi-buan aurkitzen da, gaur ere, A. J. Antonino'ren itzaldi-moltzo bat. Ona «Karmengo Amaren Berbaldia» deritzanetik zatitxo au.

«Gure Jaun eta Jaungoikoak ipiñi dituban itz-berba guztijen artian bigun eta gozuen da amaren izena; eztago neke-atseka-be ain andirik gizonen aoan ipinten dabenian amaren izena gixtututen eztanik; eztago iñor bere estura eta larritasunetan izen onegana zuzenduten eztanik; «ama» esaten dau semerik gaxtuenak negarrez, zerbait igaroten dabenian; ta au irakatsi dautsa izatiak berak, berba onetan ipiñi deutsan lez bere Egilleak, bere neke ta atsekabetan poza. Modu onetan poz eta atsegiñez bete ditu Jaungoikoak Adanen seme-alaba guztijak, emonik bere Ama euren Amatzat, esan deustubedan lez —Ecce mater tua—, iñor bere geldituten eztala izen gozo onetara joateko eskubide baga. «Or daukazube zeuben Ama» dirausku guztijoi».

(Ikus Atxiki, *Karmen'go Amaren Egutegia*, 1952, 115 orr.).

7.—JUAN JOSE MAGUREGI ZELAIA (1860-1930)

Mendi-pendizetan badira, baita baratz zokoetan ere, lore ixillak, iñork begiturik egin gabe, usaintsu, irazi ta argoi jaio-bizi ta zimeltzen diranak. Oietakoa duzu euskal literaturan Maguregi markinañ apaiza: ainbateko idazlea, baiña oraiñarte iñok begitu aundirik egin gabe, aldebat utzia.

Xemein'en jaio zan 1860'garren urtean, Ormetxe deritzaion basetxean. Etxe oneko semea zalarik ere, Jainko-deiari erantzunik, apaiz-karrera artu zigun gaztetan; eta, arima-zaintzarako bear-bearrezkoak diran ikaskizunak amaitu zitunean, apaiztasuna artu zuen gotzaiaren esku-ezartez. 1884'garren urtea zan. Urte mordotxoan, gero, Barinaga'n egon zan ango eliztarrai beren gogo premiñetan arduraz lagundurik. Andik urte batzuetara Bolibar'en daukagu, Simon Bolibar, Ego-Amerika'ko errialde askori —Kolonbia, Benezuela, Ekuador, Peru ta Bolibia— askatasuna ekarri zien gizaseme zoliaren aurretikoen erritxo sonatuan. Ementxe il zan 1930-11-27'an, 70 urtekin.

EUSKALTZALE.—Maite zuen euskera, ta Barinaga'n aurkitzen zala laguntasun ederra eman zion Azkue jaunari, *Euskaltzale* argitaratzean. Lanok argitaratu zitun asteroko artan: 1897'an: *Euskaltzaleren Artezkari jaunari*, 371; *Ingiratsu bat*, **391**; *Aita besoetako ta ume-besoetakoa*, 397. 1898'an: *Alperraren zoria*, 233; *Idebatea*, 250; *Izkirimiriak*, 256 eta 424; *Ondo egiña*, 277; *Itxasaldetik Irailaren azken-egunetan*, 315; *Euskalerriko uri bi*, 323; *Elozkaitik urriaren guenean*, 348; *Azkenapai bat*, 364. Eta 1899'an: *Izkirimiriak*, 32, 55, 72 eta 96; *Guztion kaltegarri*, 51; *Egurastoki baten*, 93; *Aste done edo santuko monumentoaren jatorria*, 100; *Kurutzetakoen jatorria*, 102; *Txakur-katuen sumoa*, 110; *Ikaskizun eder bat*, 134; *Baserri lanen irudipean bardinkizun bat*, 148; *Ustezko lagun osoak eta lagun erdi benetakoa*, 163; *Basoen onerako*, 191; *Ikaskizuntxu*

bat, 271; *Eskutitz-erantzukida* «bere modukoa», 279; *Berarizko senitaldea*, 280; *Asto igarlea*, 368; *Burutsua ta buru-eritxia*, 375; *Artzaiñen ikustaldia*, 402. , - ••,••• . ;,,

Geroztik ez zuen bide zer aundirik idatzi. Aiurritz bestelakoak gara geienik, seta berdiñeko bi aurkitzea zail izateraiño izan ere. Xemeindarra lotsati zan, itxura danez; lanak argitaratze-koan, beinik bein, gutxitan erabilli zuen bere abizena, deitura; izen-ordeak, berriz, txit ugari: «Txintxorta», «Egi-zale», «Baserri», «Txipristin», «Anton Berezi», «Txolintxu», «Txikia», «Txistular». Azkue zanak, iru urietan atera zuen *Euskalzale* as-terokoan aurkibidea jartean, ondo zekien nor ixiltzen zan ez-izen guztion azpian eta J. J. Maguregi ezarri zizkien.

Denbora aietako joerari atxikia, begiko zitzaizkion garbiza-leen lanak, eta berak idazten zuenean beti zebilkigun arduraz nola adierazi zezakean taiu oneko euskeraz erriak naiz liburuak arrotz-kutsuz zerabilzkien itzak eta esaerak. Ba-ditu Larramen-di'k bere Iztegian dakazkin itzak, «Dierondea» (republika), «ja-kinde» ta beste, esaterako. Geroago, baita, erakutsi zitun Arana-Goiri'ren eskolakoena ere, «bazkide» ta antzekoak.

EUSKAL LIBURURIK?—Etzuen libururik argitaratu. Ta zer? Liburu mardulak atera bear ote idazle izateko? Arrotz izkun-tzetan ba-dira bertso mordoxka ondu zuelako, olerkarien Parna-soan gorenengo daudenak; Donibane Gurutzeko ta Teresa Deu-na, adibidez, gaztelar poesi-landan goi-goi daudenik ezin deza-kegu ezpaian jarri. Xemeindarraren idazlan osoakaz, ortara jo ezkerro, liburu bikaiña, elerti-bitxiz josia, osotu genezake. Gaur ez dugu nai irakurteko luzerik, ez dugu astirik, eta gaiñera, as-toaren arima bezela gaiñik-gaiñ iñun geratu gabe ibiltzen oitu gara. Maguregi'k, ia beti, lan motzak eskeintzen dizkigu. Aren idazkortza, ordea, bai lan jatorretan bai itzulpenetan, beti igi-tzen zaigu bizkor-bizkor; amaren magalean ikasitako euskeraz ari da, izkera mamitsu ta jario aundikoan, jakiña.

Gai askori ikutu zion idazterakoan: ipuiak, ele-meleak, baserri lanak, euskal itzak, bidez-bidezko gertakizunak. Au da: Kirikiño zanaren pareko, ezker-eskuma ta aurre-atze zer ikusi, uraxe artzen zuen idazgai. Bi itzetan esanik, ikusle ta idazle izan zitzaigun J. J. Maguregi. Bertsolari ere, bai; orrela agertzen da noizik noizera bere lantxoetan, tartean naiz amaieran, bertso bipil batzuk jarririk.

Aintziñako gauzetaz ere ba-zuen axolarik. Ona *Idebatea* deritzan lanari ipiñi zion oarra: «Liño-arazo guztia, esaterako, aztu ta galdu da zorigaiztoan; aspaldion soiñ-gei dana dendako miesea. Bestelakoak zirean lengo euskaldunen amulo ta kirruzko praka-alkondara, atorra-samatilla-sakota, da amatal zuriak, batez be lexibatik arako ereiñotz usaiñezko garbi-garbiak».

Irakur, ao-goxogarri, *Basoen onerako* deritzan artikulua osorik.

«Lurra asi da —didaz— gogait egiten emoteaz zugatz mardo eta alor edo *frutu* ugariak lenengo gizaldietan legez. Zergaitik? Kendu ta kendu eta gitxi emon ezkerro, gozagatu, ligortu eta indakatuta geldituten da lurra be, azala ta zanak uts-utsik dituala beste edozein gauza legez. Mardoak eta ikaragarriak asten zirean leen zugatzak ta bizi luzedunak, orain erkiñak ta txikiak ta bizi laburdunak. Gaztaiñariak geixoa dabillela, bestelakoak lurraren indarrik ezaz bertan bera, ez il, ez bizi, taiu txarrean dagozala. Zer izango litzake egoera orretatik basoak atearateko gauzarik onen bat? Esan bagarik ezta kigu; erantzungo dozue.

Ba, Anton-en eretxian, orain-arte joan direan urtetan aztuten itxi yakon lankira barriro jarritea. Aspaldion baserritarrak basoetan kodaiña ebalten dabe sarriago, arpegia baizen garbi basoa isten dabela ongarri guztiak kenduta, ta atxurra gitxi-gitxitan da geienak bein bere ez. Orregaitik basoak eztabe edaten neguan bear daben beste ur, eta zugatzak eta landarak ezin euki, euki bear leukeen indarra; zerren batetik urik artu ez, da bestetik atxurtuten eztan basoari, etxako ustelduten gaiñeko lu-

rra, ta bai giñarra ta saskarrieriak basoa ligortuten dabenak agertu ugari. Auxe dala uste dot ba, basoak onduteko biderik onena, neguan al dan geien atxurtutea.

Baserritarrak: beste zaletasun batzui itxita baso-atxurriai jarraituten badeutsazue, urte gitxien barruan gaur baiño itxura obakoak ikusiko dozuez» (*Euskalzale*, 1899, 191 orr.).

ITXORKUNETAN ERE BAI?—Sartu zitzaigun onetan ere. Ona bikor bat: «*Tripea* —dio— ez uste izan erderazkoa danik, ezpada euskera garbia, «esan gura dau Titi-pea». Izan leiteke erdaldunak euskeratik arturikoa beste asko lez izatea. Edonok daki sabela *ventre*, urdailla *estómago* dana; baita erderaz titi esaten eztana be, begaz Titipea (tripea) euskerazkoa da» (*Euskalzale*, 1898, 250 orr.).

Ez da errazoi txarra! Batzui, ala ere, irriparrea loratu zale ezpain-ertzean, arrimenari amor emanik noski. Jakin bezate onakoak beste au ere: Euskeralariak, etxeakoak baiño atzerritarrak geiago, beste ainbeste egin digutela euskerak onako ta alako itzak erbesteko izkuntzetatik artuak ditula esatean. Astarloa'k eta Maguregi'k funtsik ezpadute, beste oietakoak are gutxiago dutela oraindiokarren. Ez dezakegu jakin, ezta urrik eman ere, itz askotan beintzat, zein dan emaille ta zein artzaille. Erdi aldean gaudela, griña txar gabe gauzak ikusten ditunari errez dator kio irriparra ezpain-ertzera, olako jakintsuak ere euskal itzai buruz nolako arrazoiak jarten dituzten nabaitzean.

LANGILLE ON.—Azkue zanari poliki lagundu ziola esan dut, eta olaxe duzu. Lekeitiarrak bere Iztegi nagusia (1905-06) argitaratu zuenean, oneri jarri zion sarreran, nork lagundu zion aitzen emanez, onela dio: «Or-emen egotaldiak egin ostean, BN'ko Erronkari ta Saraitzu'ko izkelkiak sakondu nairik, Otxagabia'n egin nuen aldikada laburra. Iru batzar berri egin-azi nitun gero: bat Bilbao'n, lau euskaltzalek —bartzandar apaiz Go-

rosurreta'k, Maguregi markinañ apaizak, Izpaster'ko lugin Erkiaga'k eta Arrasate'ko artzain Iturbe'k— osotuta...» Maguregi ez genduan, ba, edozein.

Onezaz gainera ba-du Azkue'k beste zerbaite ere markinañraren buruzkoa. Beñola, Leiden Unibertsitateko William Rollo euskaltzaleak *The basque dialect of Marquina* argitaratu zuen; liburu hau antolatzeko, bi udatan beñik bein, mendi tarte artako izkelgiaren berezitasunak J. J. Maguregi eta Juan Barkin markinañrarekin ikasi eta aztertu zizkigun. Azkue'k RIEV aldizkarian eman zuen olandar jakintsuak mamitutako liburuaren iritzia, sei orrialde luzetan eman ere. Eder izan zitzaion ipar-aldekoaren lana. Eta biak goratzen ditu, lanaren egilea eta egillearen irakaslea; egueagatik «guztiz pozik irakurri dut lana» dio eta irakasleagatik «zorionik beroenak damazkiot Barinaga'ko apaiz jaunari *The basque dialect of Marquina* idatzi duenaren neurriko ikaslea atera duelako» (RIEV, 1925, XVI, 563 orr.). Wm. Rollo'k erantzun zion Azkue'ri (RIEV, 1926, XVII, 620 orr.).

(Ikus Arteaga'tar Lon'ek, 1973-10-12'an, bidali zizkidan oarrak).

8.—AITA JUAN BIZENTE ZENGOTITA-BENGOA (1862-1943)

Izen aundiko karmeldarra. Eguzki aldetik Oiz oinēan dagon Berriz erritxoan munduratu zuen 1862-7-19'an. Bere gurasoak: Frantzisko Zengotita-Bengoa eta Petra Lasuen Besoitagoena, biok berriztarrak. Beuron senitartekoa genduan Juan Bautista Zengotita-Bengoa, mertzedekoa ere, 1802'an Puerto Rico'ko gotzai izan zana. Frantzisko Zengotita karlatar porrokatua zuen, Euskalerriko lege zarrak eta erlijioa alderdi ortan ezin-obeto uztarturik bai zekusan, eta 1836'tik 1841'ra lenengo eta 1870'tik aurrera gero, teniente koronel zala, Durango eta inguruetako

guda-saio guztien arduradun ibilli zitzaigun. Baita, atzenez, gerra ostean, alderrai gaur Ziburu'n eta biar Donosti'ko Mota gazteluan atxillo ere.

Juan Bizente gaztea 1877-11-24'an sartu zan Larrea'ko karmeldarren komentuan, urrengo urtean gabonillaren 10 profesa egiñik. Jaldntza Burgos'en eta Teologia Markiña'n ikasirik, 1885-3-2'ran meza eman zuen. Geroztik 1887'an Valencia'n daukagu Teoloji irakasle. Urrengo urtean, berak 26 zitula, Valencia bertako nagusi izendatzen dute: emen argitaratu zuen bere euskal liburua. Irutan izan zan Burgos'ko nagusi. 1900'an India'ra doa, Verapoly deritzan mixio-lurraldera. 1920'an Euskalerrria biurtzen da, «La Obra Máxima» aldizkaria ateratzen asirik; batez ere errian mixio-garra piztazi ta mixiolariai laguntasuna emateko asmoa zuen. 1943-2-27'an utzi zuen lur au, eta santuen antzera utzi ere. Gizaseme gartsu ta langillea.

BERE EUSKAL LANA.—Teresa bere amagandik ikasita edo, etzitzaigun ibiltari makala izan. Ala ere, Europa, Asia ta Amerika, mundu zabaleko zokondoetan zear urte askoz ibilli izan arren, ba-zuen egundo utzi eziñeko euskal kezka bere izate barru-barruan. Gazte zalarik argitara zuen euskerazko liburu bat, nun eta Valencia'n, eta gerora bere idazkietan eta «La Obra Máxima» aldizkarian batez ere, umetxoentzat idazten zitun kartetan sarri jartzen zizkien euskerazko esaldi gozoak.

Argitara zuen liburua: *Carmengo Anaije, cofradeentzaco Eskuliburua, ceñetan azalaurik aurquituco ditueen Carmengo Escapularijuari jagocazan gracia berarizcuac, oneec irabazteco equin-biarrac, aitaseme biren jardunian* (Valencia, 1888). 104 orrialde. Karmengo Amari bederatzi-urren bat ere ementxe dator, naikoa luze ta biozkiro egiña.

Sarreran onela dio: «Karmengo Eskapularijuaren one-raspena edo deboziñoia txito osagarrija ta graziaz aberatsa da, beraz egokija ta adjutua kristinauai ezagututen emotia bere aberastasun ugarijak. Onetara zuzenduten da euskerazko libu-

rutxu au. Bada, euki arren arrotzak liburu asko, zeintzuetan daukeezan azalduarik oneraspen onen ganeko jakinbiarrak, ez eukeen Bizkaiko euskaldunak nun eurak ikasi euren mintzoera edo berbeeta bakarrian. Augaiti, euskaldun bizkaitar maitiak, eskintzen deutsu zeuen adiskide zintzo batek liburu au, nun aurkitu daikezueezan Karmengo Eskapulariuren ganeko azal-daketa primiñazkueenak».

Ez darabil euskera baldana. Irakur zatitxo au.

»A. Azaldau deutsudaz, seme maitia, Karmengo Eskapularijo santuaren bitartez jaritxi leitekezan ontasunak, ta eurak entzunik, berez autortu dozu, txito apartekuak diriala. Baita agertu deutsudaz allagiñako grazi] ak jaristeko egin-biarrak, ta ezingo dozu esan, ez asko ez gatxak diriala ain mesede andijentzako. Orain adierazo gura deutsut, ez ditueela Karmengo anaije gus-tijak bardin grazija oneek jaristen; ez Eskapularijua danentzako berez bardiña ez dalako, ezpada batzuk darueelako bestiak baño oneraspen ta ardura geiagogaz. Ta zuk jaldn daizun zer egin obeto Eskapulariuren grazija andijak irabazteko, entzun gura badeustazu, izentauko deutsudaz gomuntagarri batzuk.

S. Esan egidazuz, aita, beinguan, ta jakin daikezu, atsegin ta gogo andijagaz entzungo deutsudala; bada Karmengo kofrade izatera erabagi nazan ezkerro, ez dot izan gura edozetarikua, benetakua ta ona baño».

Ba-ditu oraindik ogei bat euskerazko itzaldi ere. 1950'an, Aita Juan Bizente, Jainkoaren Zerbitzaria, Zoriondun eta Santuen maillara jasoteko bear diran lenengo urratsak eman nairik, Gazteiz'ko eliz barrutiko Auzitegian ortarako azterketa asi ta osotu ziran agiriak Erroma'ra bialdu ziranean, liburu ta itzaldi, ark idatzitako guztiaren aldaketak ere bialdu ziran.

(Ikus Aita Amallo, *Contemplativo y Apóstol*, Gazteiz, 1956; S. Onaindia, *Kardaberaz Aitari Omenaldia*, 129 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 254 orr.).

9.—JUAN IZURRATEGI ETA BERROSTEGIETA (1863-1938)

Beiñola, 1923'an, idazki saila ateratzeko asmoa artu zuen Izurategi apaizak, eta liburu orren *Irakurleari* deritzan aurre-itze-tan, onela idazten zuen Ariño'tar Joseba lekaideak: «Benetan asmo bikain da argia sortu eban nire aspaldiko irakasle jakintsu ta adixkide on Izurategi'tar Jon jaunak! Eta zelan jantzi ta atondu dauan bere biotz euzkotar jatorran erne yakon gogai eder ori, euzkaldunoi atsegin gozua argitaratuaz emoteko...!».

NOR ZAN.—Bilbao'n jaio zan Izurategi, 1863-8-22'an, eta egun onetan bertan bataiatu zuten San Anton elizan. Bere gurasoak: Martin, Ondarruko semea, ta Isidora, Elgoibar'ko alaba, orduan Bilbao'n bizi ziranak.

Izurategi'k merezi du leku egoki bat gure literaturan. Itzez ez-ezik, idatziz ere agertu zuen, eta zabaldu euskal errian, Kristoren itza. Azkue'k zirikatura edo, asi zan idazten. «Euskalza-le»-n agertzen dira Izurategi'ren lenengo idazlanak, eta «neure adiskide ta ikaslagun biotz-biotzekoa» deitzen dio lekeitiarrari. Ikaskide ta adiskide miñak ziran biok, eta Azkue'k eskatuta asi zan, itxura dabez, idazten. Gorliz'en zegoen arimazai, ta karta antzera idazten zuen, ango izparririk irtenenak bialduaz.

Euskal-lera umetatik zerabillen antza izate barruan. Orixe zalata, naikoa jasan bear izan zuen bizitza osoan. Euskera galduaz zijoa itxas egal artan, eta au ezin zuen irentsi. «Elizgizon nazan aldetik —idazten du—, alegiñik asko egiten dot geure euskera zarra, gozo, kutun da maitea zabalduateko; baiña eskola-maixuak eta gurasoak lagunduten ezpadeuste, zer egin dai-ke? Gurasoak euren etxeetan erderaz berba egiten dabe, ume-txuak eskolan eta eskolatik kanpora, euren jolasetan beste ain-beste egiten dabe, eta lurperaturik geratuten dira gure alegin eta indar guztiak» (*Euskalzale*, 1898, 39 orr.).

Oso langillea zan eliz-arazoetan. Ona nolako maiñak zera-bilzkiten orduan ere, beartsuai laguntzeko adibidez. «Urte bi dira eleiza onetan Done Antonioren utxa edo kaxak ipiñi zireala ta, Jaungoikoari eskerrak, —dio 1898-12-10'an Gorliz'tik egiñiko karta baten— euretan batu izan direan makur edo petetak igon dabe neure uste guztien gaiñetik; berreun ta geiago premiñadun lagundu doguz euren ézeukietan, esan giñaikeala, guztiz mesedegarria izan dala baserri onentzat kaxak ipintean artu genduan asmo donea» (Loc. cit., 395 orr.).

Ondoren Elorrio'ko txauburu izan zan urte askotan. Ser-molari errimega, Elorrio'n eta albo-errietan. Bere berbeta bizi, gartsu ta zorrotzarekin entzuleen biotzak irabazi oi zitun. Ezta gauza erreza urteetan eliztarren entzun-naiari eustea. Elorrio'n, ala ere, gizonezkoak aurren ziralarik, etzuten txauburuak meza nagusitan egin oi zien itzaldia galdu nai izaten. Beraz, ba-zuen ark biotzak erakartzeko zerbait edonork ez duena.

Orrek ere, baiña, askotan min ematen digu larru-mintzean, eta etsaiak sortzen. Izurategi'k ere, naiz-ta bere egunak edozeiñi on egiñez erreta euki, ba-zitun inguruan olakoren batzuk, eta azkenengo guda ostean espetxeratua izan zan: Begoña'n, Nanklares'en eta Dueñas'en atxillo urte bete ta erdi egin ondoren, Dueñas'en il zan 1938-11-30'an. Bere gorpuari antxe Aita Zistertarren iltegia lurre eman genion. Eta 1973-9-24'an, aren azurak Elorrio'ra ekarri zituzten.

EUSKAL LANAK.—Esan dugunez, itzez ta idatziz erakutsi zingun bere jakituria. Ez ote da orixe edozein apaizen ardura ta zeregiña? Idazle bezela, naikoa idatzi zuen, uzkuertz-gaiak geien bat, orduko izparringi ta aldizkarietan: «La Gaceta del Norte»-n, «Jaungoiko-Zale»-n, «Euzkadi»-n, eta abar.

Argitara eman zitun lanetatik ona lau:

1) *Umetxuen Jauna artuterako berbaldi liburrak* (1912). 44 orrialde. Bere apaiz-lagunai zuzendutakoa da, gero be iñoiz argitaratua.

2) *Jose Deuna'ren Bederatzi-ununa* (Zornotza, 1921). 25 orrialde.

3) *Jerusalem osterean semeak amari* (Zornotza, 1923). 208 orrialde. «Idazki-ereduak» da, itxura danez, liburuaren izenburua. Idazki sail bat duzu; zortzigarren orrialdetik 157^{raiño}, 1905^{garren} urtean Lur Santuetara egindako ibilkundean amari egin zizkion XLVI egiazko karta dituzu; besteak —46 guztira— gai ezbardifietaz egiñak dira. Eskutitz gisara ezta gure elertian askorik idatzi: zerbait idatzi dutenen artean Izurrategi dugu gaillenena. Aintzat artzekoa, beraz.

4) *Urteko igande guztietako Goizpar edo Ebanjelioak* (Bergara, 1934). 161 orrialde. 56 itzaldi, ez luze ez labur. Berrogeta sei urtetan egon zan txauburu, Gorliz'en eta Elorrio'n; urte oietan erriari egiñiko itzaldiok, uste zuen berak, beste apaiz askorentzat ere lagungarri izango zirala. Asmu bakar orrexek eraginda argitaratzen ditu. Bildurrak jota bezela dator, ez gaiari buruz, euskerari buruz baizik. Au dio berak; «Gaur euzkeriak aurrerabide andiak egin dauz, asko orraztu da; baña nik euzkera garbi garbi) an ezin argitaratu neikez, batetik ikastoletan ikasi ez dodalako, amaren magalpian baño, eta bestetik gorengo mallan dagozan (intelektualentzako) idazten ez dodazalako, berengo mailan dagozan erritar eta eliztarrentzat baño; auxegaitik doaz euzkera erraz, samur eta danak erraz aituko dabezela-ko» (*Itzaurrean*, 5 orr.).

Eta amaren magalean ikasia zuelako berak zerabillen izkera, ain erreza, garbia ta gozoa agertzen zaigu bere idaztietan. Ona zatitxo bat, Urte berri egunerako egin zuen itzalditik artua: «Urte barrija asi dogu, eta urte au emon deusku Jaungoikuak, ez zorakerijetan igaroteko, ez gaiztakerijetan ibilteko, ez nagerijetan egoteko, ezpada beragaz ondo balijaurik, onera andiak aterateko. Zer da ba urte barri onetan egin biar doguna? Lenengo eta bein lenagoko pekatuakaz damutu, utsegite guztijak osotu, Jaungoikuari egiñiko irañak ordaindu, eta bizitza

barrija artu eta berari jarrai azkeneragiño: auxe diño Euzkal-
erriko esaera zar batek be: «Urte barrija, bizitza barrija» (*Urte-
ko igande...* 29 orr.).

Idatzi zitun lanetan itz-berri zale dagerkigu; edo-ta bein-
tzat, bear ziranean erabiltzeko etzuen lotsarik. Baiña etzan be-
rea, «garbi-garbi egin bear dala-ta, askok oso biurturik damos-
kuen euzkera» garratza, «geure erriko neskatil eta mutillak da-
rabillen euzkera errez eta gozoa» baizik. Eta, izan ere, «erriaren
biotzeraño eldu gura badogu, ta gure idaztiak guztien, batez
bere baserritarren, eskuetan ikusi gura badoguz, auxe da bi-
derik egokiena ta artez-arteza, besterik ez».

(Ikus *Euskalzale*, 1898, 39 ta 395 orr. eta 1899, 258 orr.; L. Ake-
solo, BAP, 1964, 463 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1966, 144
orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 208 orr.).

10.—TXOMIN AGIRRE ETA BADIOLA (1864-1920)

Idazle trebe onengana eltzean dakargun berriz ere gogora
Orixe'ren aitorrera. «Ondarruar Agirre dugu —dio— orain-
daino literato edo antze-idazlerik garaíena. Aren egunetan baino
euskera ugariagoan, edatuagoan, landuagoan ari gara egun, eus-
kal-biziera ez ezik, edonolako arte ta jakin gaietan ari baitugu
gure izkuntza maitea. Alare, ua adinekorik ez bide zaigu sortu»
(*Euskal Esnalea*, 1927, 247 orr.).

BIZI-ZEAZTASUNAK.—Gizaki aldetik begiratuta, Txomin
Agirre apala zan arren, eder zitzaion bera munduratu zan erria,
ots, Ondarru aipatu ta erpiñeratzea. Izatez bera gaxoti-samarra
zan, baiña itxasaldeko arrantzaleen gorputz osasuntsua ta kresal
arteko burruka miresgarriak gogoratzean, alai ta arrai jartzen zi-
tzaion arpegia. Ondarrutarren aurka iñork ezer adierazten ba'-
zuen, beingoan jartzen zitzaigun aien alde; eta, alderantziz, aien
aldezko zerbait aditzean, poz-irria loretzen zitzaion ezpain-er-
tzean. Odolak odolari dei.

Ondarroa'n jaio zan Agirre, 1864-5-4'an, eta urrengo egu-
nean bataiatu zuten, Domingo Aszension izena ipiñiaz. Bere
aita, Manuel Bizente, Motriku'ko semea zan, eta lanbidez aro-
tza; ama, ordea, Mari Madalen, ondarruara zuen. Gaur ere,
Goiko kaleko 26'garrena duzu Agirre'ren jaiotetxea.

Gaztetxo zala, elizan eta Kristau-Ikasbidea ikasterakoan, an-
go apaizak guztiz irabazi zioten biotza, ta elizarako garra er-
ne zitzaion igarri gabe. Ortarako ba-zitun, baiña, eragozpenak: txi-
roak ziran bere gurasoak. Zoztorrak, alere, kemenak ditu eras-
ten. Eta ikusi nola bideak lautu zitzaizkion Txomin'i apaiz iza-
teko: Bilbao'ko Santiago elizan artzipreste zegon Mariano Jose
Ibarguengoitia jaunak (1888-10-31'an il zan), ondarrutar gaz-
tearen mendu ona ta buru argia aintzat arturik, berarekin era-
man zuen bizitzen, «bere mezautil eta lankidetro» izan zedin.
Apaiz onen ardurapean eta Elorrio'ko seme Silberio F. Etxeba-
rria (1898-4-2'an, Eibar'en illa) jaunak irakatsita ikasi zitun Agi-
rre'k latina ta inguruko ikaskizunak.

Ogei urteko zala Gazteiz'era aldatu zan eta ango apaiz-ikas-
tetxean ikasi zitun Filosofia ta Teologia; Filosofia ikasten urte
bete egin zuen, 1884'garreneko kursoa; Teologia ikasten, be-
rriz, bi urte, 1885-1887'garreneko kursoak. Karrera laburra egin
zuen Agirre'k, baiña Gazteiz'ko ikastetxean osotu zitun iru ur-
teotan nota oso ederrak atera zizkigun beti.

Ango nagusi, irakasle ta ikaskideen biotzak laster irabazi zi-
tun; ikasle gozo, eratsu, zintzo ta apala zalako, denak zuten
maite. Azkue, Izurategi ta abar, au da, euskera ta Euskalerria
maite zutenakin artu-eman barrukoagoa erakutsi zuen beti ere.
Azkue oso adiskide zuen. Izatez, ordea, bata (Azkue) odol-gorri
ta bestea (Agirre) odol-zuri ziran; Azkue sendo ta iraunkorago
lanerako, Agirre —«arpegi-zuri ta izakera bigundun»— egokia-
goa gizartean bizi izateko. Lekeitiarrak onela daitor: «Semina-
rioko urte alai aietan odol-gorri giñanok, sarberritan beintzat,
batean zutik bestean belauniko, okerreriatoaren baten ordaina

artzen genuen artean, Agirre odol-zurbilla etzan bein ere bide zuzenetik ateratzen, ta elizan izan ezik bein ere enuen belauniko ikusi» (*Itzaldiak*, Donosti, 1920, 72 orr.).

Aldiari berea emanik, ba-zioan gaztea gertatuaz apaiz egoki izateko noski. Eta, biotza birtutez edertua ta «gazterik umo» aurkitzen zala, onela artu zituen ordenak: Ile-mozketa, 1886-4-17'an; Txikiak eta Subdiakonutza, 1887'ko iraillean; Diakonutza, 1887-12-19'an, eta 1888-5-26'an Mariano Migel gotzaia-aren eskutik artu zuen apaiztasuna.

Bete zitzaion, beraz, umetatik zekarren ametsik zoragarriena: Kristo'ren ordezeko zan. Urkiola'n, zugatzez, arkaitzez eta loraz bitxituriko goi-alde artan eskeiñi zuen meza berria. Ondoren, Karrantza'ko erritxo baten illabete batzuk eginda gero, Zumaia'ko mojen kapellautzarako izendapena artu zuen; eta ementxe Karidadeko karmeldarretan, bai mojen ta bai barruko neskatoen kapellau izan zitzaigun ogetemar urtetik gora: txoko ontatik egin zuen bere arimazaintza ta euskal lana. Zumaia'n, ala ere, ez omen zan ezaguna euskal idazle bezelaxe, baiña sermolari on eta aitor-entzule jakituntzat omen zeukaten guztiak.

Izlari ona zan. Eta, Azkue'k dioskunez, bere errian Antigua deritzaion baseliza txukunean itz egin zuen lenengoz, meza berria emanda laster. Baiña toki ixilletan bakarrik etzan mintzatu, ospe aundiko itzaldiak ere euki zitun: 1898'an, esate baterako, Zestua'ko euskal jaietan egiña; 1900-9-8'an, Begoña'ko Ama koroatu zan egunekoa; G. Muxika'k dionez, Lur santuetara erromes-aldian Kalbario'rako bidean bota zuena; Beasain'en, Loinaz'ko San Martin'en birtuteak goraldtu ta auncüetsiaz elizaz kanpo aldarrikatu zuena; 1916'an, Bilbao'ko «Campos Eliseos»-en, lagunarte estuaren aurrean eukia, ta abar.

EUSKALTZAIN. ERIOTZA.—Azkue zanak sortu ta zuzendu zitun lenengo «Euskalzale» (1897-98-99) ta gero «Ib aizabal» (1902-03) asteen asteango albistariak. Lenengotik asi zan Agirre Azkue'ri laguntzen. Izan ere,

alperreko lana iduritzen, eliz-gizon eta euskaldun zanez, bere izkera sustraitik ikasi ta aoz idatziz bala-bala erabiltzea. Ba-zitun, diotenez, ortan bere kezak eta bein bere gotzaiari galdetu omen zion ea bere apaiz eginbideen aurka zebillen orrela egiñik, eta ark bide ortatik jotzeko esan zionean, oraindik gar geiagorekin, asmoz ta jakitez biztuagotua, ekin zion bere euskal arloari, idaz-lerroan batez ere. Zumaia'ra joan zaneke asi zan orduko aldizkarietan idazten: «Euskal-Erria», «Euskaltzale», «Ibaizabal», RIEV, «Euskal Eснаlea», «Jaungoikozale» ...

Naiz olerkiz, naiz itz lauz sarri idazten zuen. Eta ospetsu egin zan bere izena. Adiskide zitun orduko euskaltzale ta euskalari ezagunenak; beste askoren artean: Azkue, Kanpion, Etxegarai anaiak, Urkixo, P. Lhande, J. K. Gerra, S. Muxika ta abar, oso begikoak zituen. Ilundain, Sevilla'ko kardenal jauna, maiz joan oi zitzaion Zumaia'ra; Ortega y Gasset eta Zuloaga margolaria ta bilbotar Iturribarria olerkaria ere adiskide zitun. «Jaungoikozale» apaiz alkartean lenengotik emana zuen bere izena. Euskaltzale auekin naste, ainbat lan burutu zuen or-emen euskal jaiak antolatzen.

Baita 1918'an Oñati'n ere. Aurretik sortu zan Eusko Ikaskuntzak batzar nagusi bat, bere lendabizikoa, eratu zuen Oñatin, ta batzar ortan beste asmo batzuen artean, Euskaltzaindia sortzeko erabakia artu zuten. Batzarkide zan Txomin Agirre; geiago: euskera sailleko faldearen zuzendari. Azkue aukeratu zuten euskaltzain-buru, eta Kanpion, Eleizalde ta Urkixo lagun; baiña Agirre ere antxe agertzen zan beste euskaltzainen artean, 1919'-ko urriaren bostean aukeratua. Bere lan ederren ordaiña zan, aurki. Baiña maxkal samar zebillen orduko eta etzuen askorik iraungo. Euskaltzaindiren lenengo batzarraldietan bakarrik agertu zan.

Gaixorik zegon, auleriak joa. Ta 1920-1-14'an joan zitzaigun beste mundura. Olaizola zumaiarra, Bilbao'ko kanonigua, euki zuen bere ondoan azken-arnasa ematean, eta onek dionez, aren

azken itza «ama» izan ei zan. Garai artako euskaltzale mordoa izan zan aren gorpuari lurra ematerakoan. Gazteiz'ko Eliz-barrutiko illerokoak onela: «Joan dan urtarrillean, bizi izan zan lez santu-antzean, il zan Zumaia'n Domingo Agirre apaiza. Gazteiz'ko Eliz-barrutiak onegaz bere apaizetatik onenetako bat galtzen dau». {*Boletín Of.*, 1920-2-16, 111 orr.). «Euzkadi», «Euskal Esnalea», «Euskalerriaren Alde» ta «Jaungoiko-Zale»-k luze ta sakon eman ziguten aren eriotzaren berri. Ainbat omenaldi izan ditu arrezkero, baiña guztietan ederrena Ondarru bere jaiotzerriak, 1964'an, bere jaiotz-eunurte burua zala-ta egiña. Ondarruarrak lenago ere, 1934-6-30'an, berdin egin zioten; eta 1959'an, Bizkaiko Aurrezki-kutxak «Txomin Agirre» nobela sarria jarri zuen.

IDAZLANAK.—Idazle ugaria izan zitzaigun. Eta aren lan laburrak orduko aldizkarietan dagoz or-emen. 1964'an, Ondarruko omenaldia zala-ta, bilduma bat osatu nuen nik, «Ondarrak» deritzaiona; berton datoz Agirre-ren gertiduri batzuk, 22 olerki, ipuiñak, eleiz-gaiak eta kondaira-kimak. Baiña ezta bilduma osoa, sakabanaturik beste lan batzuk ere ba-ditu ta. Aren sermoirik geienak, berriz, ez dute oraindik argia ikusi.

Ona aren lanik beiñenak:

1) *A. Larramendiren bizitzaren berri labor* (Donosti, 1890). Donostiako Lore-Jokuetan sariztatua. «Euskalzale» aldizkarian ere eman zuen 1898'an, 388 orrialdetik aurrera.

2) *Joan etorri bat Erromara* (1892). «Euskalzale»-n dator 1899'garrenean, 90 orrialdetik aurrera. Antonio Arzak eta K. Etxegarai'ri eskeiñita dago. Zeatza duzu lan au, ertz askotatik begiratuta.

3) *Historia de Nuestra Señora de Iziar* (Donosti, 1895). Erderazko lan bakarra.

4) *Auñemendiko Lorea* (Bilbao, 1898). «Euskalzale»-k literatur-batzaldi bat iragarri zuen 1897'an, eta Txomin Agirre'-

ren irakurgai au ta B. Iraola'ren jostirudia izan ziran sariztuak. Bertan daukazu *Auñemendiko Lorea* lendabizikoz argitaratuta, 12'garren orrialdetik aurrera. Berau argitaratzen asteen, Azkue'k onela: «Irakurgai onen azaldariak, Agirre abadeak, auxe baiño beste euskerazko lanik egin ezpaleu bere, Auñemendiko Lora Riktrudis-ek euskalzalerik errimeenak eta geienak bizi direan tokira gooratuko leuke beren izena. Onetariko Ian asko baleukaz gure euskera ederrak, urte gitxi barru burua jaso al izango leuke». 1966'an, Auñamendi argitaldari etxeak euskeraz ta erderaz atera zigun, ale bitan.

5) *Kresala* (Durango, 1906). Bizkaierazko nobela au, Donostiko «Euskal-Erria» aldizkarian atalka agertu zan lenengo, 190'ran asita. Durango'ko argitalpena, beraz, bigarrenkoa duzu. Irugarrena Itxaropenak egin zuen 1954'an, Santos Etxeberria'ren marrakiz eta nere itzaurrez ornituta. Geroago ere Arantzazu'ko prantziskotarrak egiña dute beste bat. Erderaz, Bonifazio Etxegarai'k itzulia, Madrid'eko «El Correo Español»-ek atera zuen 1918'an. Eta pratsesez, P. Arburu'k itzulia, Biarritz'en azaldu zuten, 1958'an.

6) *Garoa* (Durango, 1912). 380 orrialde. Au ere lenengoz RIEV aldizkarian agertu zan, 1907'an asita. Bigarrenez, liburu bezela, Tolosa'n argitara zan, 1934'an, eta irugarren agerraldia obetua, Arantzazu Argitaldariak (Zarautz, 1956) egin zuen; baita laugarrena ere (Oñate, 1966), Aita Villasante'ren itzaurreakin.

7) *Ni ta ni* (Euskal Esnalea, 1917). Auxe zan Agirre'k, eriotz eldu zitzaionean, eskuetan zerabillen eleberria; Erdi-aroko goraberak euskaldunen artean, oiñaztar eta ganboatarren buurrak eraginda, laugarren nobela bat antolatu nai izan zigun.

8) *Larraldeko Lorea* (Iruña, 1918). A. Kanpion'en *La Flor de Lurralde* euskeraz. Au lenengo A. Kanpion'ek bere «Euskariana» seigarren saillean argitaldu zuen, eta gero Euskaltzaleak «Narraciones Baskas» (Zarautz, 1935) deritzaionean, 78'garren orrialdean.

9) *Ondarrak* (Bilbao, 1964). Agirre-ren idazlan autatuak. 261 orrialde.

L. Jauregi apaizak onela: «Euskerak idazle asko xamar izan ditu ta ditu gaur ere: baiño literato benetako gutxi oso. Denetan nausiena, nere uestez, *Garoa'ren* egille, Agirre apaiza» (*El día*, 1935-12-1 l'an).

OLERKARI.—Beñola idatzi nuen: «Agirre arima eder ta onera makur baten jaube da. Arima orrek ezirik eukazan bere joera ta griñak; onela aren barne baratzean geroago ta mardulago egiñaz joiazan onbidezko lorak dakarren zorion-aparra. Zorion alaia, zer da besterik otzantatuna, indar-neurri bardiña, men naroa baiño? Auxe dakusgu Agirre-ren izate osoan. Neurritz kanpo samiña datza, neurritz barrutik poza. Oreka ta bardiñetik sortu oi da ederra, barru egokitsuaren ispillu legez. Agirre-ren idaztiak bere arima neurritsutik darion lurrin ezti iraunkor dirudie. Edegi edozein liburu —*Aiñemendi'ko Lorea*, *Kresala* naiz *Garoa*—, ta orixe aurkituko dozu: arima minbera, eder-zale, gozo ta guria. Igali-zugatzak, barriz, bere ariko frutuak emon daroaz» (*Ondarrak*, 106).

Agirre'k itzi zizkigun iru nobelak ez daude bertsoz idatzirik. Baiña nork esango luke iru liburuok poesirik ez dutela? Gizamaitasuna, itxas-zorakorpena ta euskal baserrietako garo ta ire usai olerkitsua ez ote ditu gizonki kantatzen? Orrez gaiñera, ba-ditu Txomin'ek olerki goxo batzuk, gaztetan onduak batez ere. Donostiko «Euskal-Erria»-n (1890) atera zuen bere lenengo, *Ipuia* deritzaiona, zortziko nausitan egindako lau ahapaldiko poesi laburra. Gero «Euskal-Erria»-n eta «Euskalzale»-n argitara zitun besteak. Sariak ere eskuratu zizkigun: *Agure kantarekin* Arrasate'ko euskal jaietan, 1896'an; *Ai balekite!-rekin* Oiartzun'en, 1897'an; *Seaskatxo bat'ekin* Segura'n, 1898'an... (Ikus *Ondarrak*, 30 orr.).

Nolako olerkari ote? Irakur zazu K. Etxegarai'k dioskuna: «Ar zazute zeren eskuetan Agirre'ren idaztitxo bat, eta irakurri zazute. Irakurtzen dezutenean, ez da noski zuen biotza len bezela egongo. Barren-barrenen, len etzenuten sua ulertuko dezute. Zer dala-ta izango da ori? Zuen begien aurrean daukazu-ten idaztia olerkia dalako».

Iru gauza ditugu munduan kantagaiz gaiñezka: beian lurra, goian zerua ta alboan itxasoa. Agirre'k etzitun sapuztu iru gai-arrobiok. Izadiko ta barnean sorturikoa, gogai sendoz ta biotz-zauskada biziz jantzi zituen. Beraz, olerkari yaukal dugu.

IRITZIAK.—K. Etxegarai'k onela, aren olerkiaz egiñiko itzaldi batean: «Bere biotzean surik ez badu, nondik aterako du olerkariak besteren biotzean piztu bear duen garra? Ezerezetik gauzak sortzen oraindik ez du gizonak ikasi... Gure Agirre, oetakoa zan. Bere biotzean berotzen etzan itzik, etzan bere ezpañetatik ateratzen. Tximistaz etzan apaindutzen. Berak ematen zuen berotasuna apalagoa zan. Bigunki-bigunki biotzera sartzen zitzaigun, eta batere uste gabe bere mendean arkitzen giñan: olerkaria alai bazan, alai gu ere; olerkaria samiñ bazan, gu ere samiñ. Barrendik itza ez dator-kionari, orrelakorik ezin eskatu leikio» (*Itzaldia*k, 1920, 89 orr.).

Aita P. Lhande'k: «*Garoa* da gure Txomiñ'ek idatzi duan irakurgai ederrena, ta beiñere euskeraz idatzi izan dan ikusgarriena dala baditeke. Kondaira pollit mee baten inguruan egi-leak euskaldun nekazariaren bizitzako egikizun geienak josi ditu, ala nola, artzaigoia (I ta VII'g. buruetan), landako lanak (II ta IV), karobiaren berotzea (22'g. orr.), ogika ta ogi jotzea (23'g. orr.), eztaiak (50-5'g. orr.), aizkolariak (84 ta 103'g. orr.) ta abar. Gure oitura orieri lotuak diran euskerazko itz zarrak aditu ta bildu ditu. Ortik datorkio bere euskeraren garbitasun ta aberastasuna, Norbaitek iñoiz gure izkuntza txiroa dala bale-rasa, irakur ditzala *Garoa'ren* 3'garren orrian Agirre'k «otsa» esateko jarri dituan ogei itz berexiak» (*Itzaldia*k, 1920, 110 orr.).

Orixe'k: «Nai dunak nai duna besa: begitarte ona egin diote Agirre'ri euskaldunak, eta bai merezi ere. Euskera garbia ta ugaria du, ta naiz bizkaieraz, naiz gipuzkeraz, irakurgai ederrak utzi dizkigu: *Garoa*, *Kresala*, *Auñemendi'ko Lorea*. *Garoa'n* idaztankera belaxka-antxa gertatzen zait, emexkoa edo zain gutixko duena; *Kresala'n* zaintsuagoa: euskalkiari egotzi ditioke ori. *Garoa* bizkaieraz egin balu, aurki etzen ain usu irakurriko, ez agortuko; baino bizkaieraz balego, balinba, irakurle jakintsu denak eskerrago lioke» (E. E., 1927, 247 orr.).

L. Mitxelena'k: «Aukerakoa zan Agirre novelarako: begibelarri-sudur erneak zituen eta sumatzen zuena adierazteko esku arin ta zeatza. Or dauzka orrialde orietan, egia dan ala ez bere begiz ikusi nai lukeanak, Arranondo'ko kale mear, oker, aldapatsuak, itsasoaren (eta itsas-gizonen) zalapartak eta bazter guztietatik darion arrai-usaia. Eztut onenbestez esan nai Agirre'k etzuela barrena begiratzen. Gizonaren biotzeko izkutuen berri ere bazekien —etzuen lanbide txarra orretarako—, baiñan Pereda eta Rochelt'en gisa, sortzen zituen gizakiek etzuten gaurko noveletan ageri diran zenbaitek adiña azpil, biurgune ta zoko ilun» (*Egan*, 1954, 42 orr.).

A. Villasante'k: «Azken bolara ontan *Garoa* maxiatzea moda bezala biurtu da. Alako erromantiko kutsua artzen omen zaio. Nobela ortako lagun batzuei errealismu gutxitxo aurkitzen zaie-la. Idaztankera bera eta gauzak adierazteko moldea, astuntxoa, gaur maite dugun baiño patxada geiagorekin kontatua... Bai. Urteak ez dira alperrik joaten. Gaurko gizaldia eta ordukoa ere ez dira berberak. Gustoak eta modak eta bizikera bera ere izugarri aldatu dira. Gaur-gauzak motx eta artez esanak nai izaten ditugu. Trinko eta labur. Itz berdintsuen ugaritasun hori askotan aspergarri iruditzen zaigu» (*Garoa*, 1966, itzaurrean, 15 orrialde).

Zertan gera? *Garoa* ala *Kresala* ohea? J. San Martin'ek oraintsu: «Aituentzat eta gutxi jakiñarren zentzunez ondo begiratzen dakienentzat, ez dago dudarik *Kresala* ohea dana. *Kre-*

sala dogu euskeraz egin danik nobelárik onenetakua. Gaia, tar-tea, pasarteak, bizitasuna, gatz, errealidadea... Zer geiago eskatu geinke nobel bategandik? Indarra dauka, bai nobela beze-la ta bai izkuntzaren aldetik. *Kresala'n* azaltzen dan guztia da egilleak bizitakua. Bertako Tramana, Kitolis, Brix ta abar, bene-benetakuak dira. *Garoa*, barriz, motela da; bertako pertsonajie-tan ez dago *Kresala'n* bezelako egiazkorik. Ezaguna da egilliak berak bizi ez ebana ipiñi ebala. Ta alperrik emongo yakoz buel-tak, beti «pastiche» bat izango da. Agiri-agirian dago Txomin Agirre'k *Kresala* bere bizitzaren barruan eroiala, ta *Garoa* aza-lez. *Kresala'gaz* ez dautsa bere denborako nobelagilleeri zorrik. Arro erakutsi geinkean nobela da (*Boga, boga, Ondarroa*, 1964, maiatz- bagilla, aldizkarian).

Gamiz kritikolari argiak, ordea, «*Garoa*» irakurri ta gero, au diosku: «Izkuntzea ederra da. Garbizalea. Bere iztegian erdel-itzik ez da agertzen beren-beregi izan ezik eta orduan euskal-dun okerren jokerea agertzeko. Noizean bein itz barriak asma-tzen ditu, eta oneitarik batzuk ez dira errira sartu, esaterako: «Gaiztotegia» (espetxea), «gizadi» ta «gizarte» inguruko talde txikiak, «euritakoa» (aterkiñak), «oinzorroak» (zapatak), «senda-kiña» (osagillea), «izketartea» (alkar-izketa). Gaur be batzuk erabilten dituen itz-bikoteak sarri darabiltz: «aitzaki-maitzaki», «tipirri-taparra»... «Ez» aurrizkia be ba darabil; «ezbardinta-suna» («bardiñeztasuna» be bai), «ezezaguna»... Aditz-joko as-matuak noizean bein agiri dira: «badantzute»... Izlari guztiak ez darabille izkuntza bardiña. Erri-izkerea agertzen da noizean bein; bakarrizketa ederrak agertzen dira. Trebea da orretan. Zu-gatz bategaz alkar-izketa bat be agertzen da. Trebetasun au gaurkoa dogu. Eta alkar-izketak ugariak eta ederrak, zorrotzak eta ondo ebagiak dira... Eleberriaren barruan bertsoak be ager-tzen dira. Joskerea «*Kresala*»-n baiño ohea da, an utsen batzuk agertzen ba'dira, emen bat be ez... «*Kresala*» baiño asko obeto josita dago eleberri au, aria obeto eroana da. Baiña onetan be ba ditu, neure ustez, obetu legikezan gauzak»...

Onela amaitzen du, aldia, notingintza, tokia, zeazketak, gogaketak eta eritxiak, Txomin Agirre'k «Garoa»-ren orrialdeetan ereinak noski, aztertu ondoren: «Zer esan eleberri oneri buruz? Eleberri ederra ta bere «Kresala» baiño askoz obea dala. Geiago, munduko eleberri onenen artean, lenengoetariko ez ba'da be, mailla on baten jarri bearrekoa dala. Eleberri onegaz, gaur artean beintzat, gure eleberrigintzak gaiña lortu dau. Liburu eder au erderatzea ez litzake txarto izango, eta beste eleberri ospetsu asko baiño goragoko maillan agertuko leiteke elerti edo literaturaren kondairan» (*Agur*, 1973, 106 zenbakia, 8 orr.).

Esanak esan, entzun berriz ere A. Villasante'ri: «Joan-mendeko azken urteetan, eta gure onen asieran, zerbait berri nabari da gure literaturan. Pizkundea deritzaion abiadura aundi hori orduan asi zan. Aro berri bat, muga berri bat. Muga ortaz andiko eta emengo euskal idazleek alako lelze batek bereizten eta bitaratzten ditu. Gure Txomin Agirre, aro berriko idazleen artean sartu bearra dago, zalantza gabe. Eta aro berriko idazleen artean garaienetakoa dugu, garaiena ezpada. Or gelditu dira aren liburuak aro berrien bandera bezala» (*Garoa*, 1966, itzaurrean, 3 orr.).

(Ikus P. Lhande, RIEV, XI, 148-160; *Itzaldiak*, Donosti, 1923, 97 orr.; R. M. Azkue, *Itzaldiak*, 1923, 67 orr.; K. Etxegarai, *Itzaldiak*, 1923, 81 orr.; G. Manterola, *Yakintza*, 1934, 323 orr.; S. Onaindia, *Ondarrak*, Bilbao, 1964; I. Omaetxebarria, *Euskera*, 252 orr.; L. Mitxelena, HLV, 156 orr.; L. Villasante, HLV, 318 orr.; G. Muxika, «Euzkadi», 1920-1-28; «Euskal Esnalea», 1920, 17 orr.; J. Etchepare. «Gure Herria», 1922, 442, 631, 680 orr.; K. Iturria, «Garoa», 1956, itzaurrea; S. Onaindia, «Kresala», 1954, *Aurkez*; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.* 1951, 187 orr.; *Boga, boga*, Ondarroa, 1964; K. Etxenagusia, *Euskal Idazleen Lorategia*, 179 orr.; Mikel Zarate, *Bizkaiko Euskal Idazleak*, 1970, 122 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 246 orr.; A. Zubikarai, *La Gran Enciclopedia Vasca*, IV, 529 orr.).

11.—R. M. AZKUE ETA ABERASTURI (1864-1951)

Gogoa ematekoak dira gure mendi-buruak: Orhi, Aralar, Aizkorri Gorbea... Laurotatik jasekoena, baiña, niretako beintzat, Gorbea dugu; beronen erpin-gaiñetik ageri bait zaizkigu Bizkai, Gipuzkoa, Naparru, Araba, Burgos eta Santander eskualdeak, zoragarri oso. Olaxe, Gorbea'ren eduko agertzen zaigu Azkue zana ere euskal literatura zelaian.

Lekeitio, len arrantzale kabi bero ta gaur udatiarren atsedean txoko lilluragarri. Ementxe, uri.alai onetan jaioa dugu Resurrekzion Maria Azkue, 1864-8-25'an. Lekeitiarra zan bere aita ere, Eusebio Maria, euskal olerkari bere bizikoa; Mundaka'koa zan, ordea, bere ama Karmen, euskal lanetan semeari ainbat lagundu ziona. Nautika ikasi zuen iru urtetan, Lekeitio'n bertan; gero, bi urtez, batxiller ikasketak osatu zitun Bilbao'ko ikasgu edo Institutoan. Gaztetatik sumatu zuen eliz-deiari erantzuki, Gazteiz'en ikasi zuen Teologjia (1881-1885), ondoren Salamanca'n osaturik Idazteun, Patrologi ta Eliz-eskubidezko ikasteak, 1885-1888 bitartean. Azken urte onetan apaiztu zan eta bere jaioterrian esan zuen meza berria. Andik iru urtera, Salamanca'n bertan, Irakasle (Doctor) titulua lortu zuen Teologjan.

NOR ZAN.—Eder zaigun gizaseme bat azal ta barru noiakoa dan jakin nai izaten dugu. Noiakoa ote genduan, ba, Azkue soin ta gogoz? Ondo-ondotik ezagutu zuen N. Oleaga'k onela diosku; «Andia luzez, zabala, lerdena, sendoa, mardoa, txairoa, azal margo gorrizkaduna, osasuntsua zan Azkuenik ezagutu nebanean eta beragaz autu ta artu-emonetan asi nintzanean». Eta gogo izakeraz? Oleaga'k: «Adimen argia, bizia, zolia zan berea. Edozein gai zala, laster eta sakon aztertuten eban eta gunera eltzen zan, atzenengo ondorenak atararik». Oroimen arrigarriaren jabe zan, eta naimen sendoarena. «Setatsua bai, baña ez setatia; eztabai-

dako gaia ganoraz ta egoki azaltzen yakonean, bekian bere bu-
ruea makurtuten eta bere autu-lagunen aburura menderatzen». Baita iñoiz esan da arroa zala ere; baiña Oleaga'k onela: «Nor-
baitzuk, bere soin andi-zerden-zabala ikusirik, arroa ete zanen
susmoz egon zitekezan; baña etzan olakorik; bestela, oso apala
ta leuna zan» (*Euskera*, 1957, 8-9 orr.).

1897'an, Bilbao'n, Jardines kalean euskerazko eskola irasi
zuen; berton zeuzkan gaiñera euskal antzoki bat eta berak sor-
tu ta zuzentzen zuen *Euskalzale* (1897-98-99) asterokoaren lan-
tokiak. Berak eta E. Bustintzak, ementxe atera zuten baita *Ibai-
zabal* (1902-03) ere. Onez gaiñ, lan eta lan zebillen aldikada on-
tan, euskal-erdal, prantses Iztegian buru-belarri sartuta batez
ere: 1903'an Tours'era aldatu zan ango Mame etxeak Iztegi
nagusia atera zezan.

Bere teatru-taldeari euskal zaletasuna bizkortzeko ta, eres-
antzerki (zarzuela) txikiak atontzen asi zan, *Sasi-eskola*, *Viz-
caytik Bizkaira* ta onakoak. Baiña armoniarik etzekialako, bere
adiskideak eraginda ortan jarri zitzaigun; Bilbao'ko Kontser-
batorioan ikasi zuen lenengo Jose Saintz Basabe'rekin, Paris'en,
Bruselas'en eta Kolonia'n osoagoturik bere eres-ikasketak: Ale-
mania'n idatzi zuen *Daniel* bere len-oratorioa, ango olerkari gaz-
te baten itzakin. Geroztikoak ditu, esango dugunez, beste mu-
sika lanak.

Txit langille zebilkigun Azkue euskal arloan. Nazario Olea-
ga'k, onela: «Langille eredu Azkue jauna! Zenbait *Medalla del
trabajo* edo langille saritzat asmauriko deduzko ezaugarri ori,
emon ete yake gure erritar zintzo onek beste lan egin eztabeen
gizonai!» Eta beargintasun auxegatik, «ainbeste ta ainbeste eus-
kera lan eder egile zan ezkeru, 1918'an, Oñatiko Eusko-Ikas-
kuntzaren batzar nagosian, Euskalerriko lau Aldundien asmoz,
Euskaltzaindia sortu zanean, Euskaltzainetariko bat bera izen-
tau eben. Eta gero Euskaltzaindia eratu zanean, berari ezarri

eutsien geroago bere eriotzararteño eroan eban Euskaltzainburugoa» (*Euskera*, 1957, 10-13 orr.). Euskaltzaindiaren buru zala egin zituen lanak, asko beintzat, *Euskera* aldirokoan datoz.

Adiskide asko zituen or-emen. Ospe aundiko egin zitzaigun. Eta Paris'ko «Société Linguistique» deritzaion izkuntz-alkarteak berean artu zuen; 1922-5-20'an San Petersburgo'ko Jakintza-Bazkuneko egin zuten, eta 1928'an, Espaiña'ko gobernuak, Espaiña'n erabiltzen diran izkuntza guztien ordelariai sarrera eman zienean, «Real Academia de la Lengua Española» dalako Izkuntza bazkunean artu zuten.

Ezbear larri bat izan zuen 1951-10-14'an: Erribera kaleko bere betiko lantegitik, illunabarrean, Arriaga antzoki ostetik zear etxerantza zioala, Nerbion ibaira jausi zan. Langille batek beingoan atera zuen uretatik, baiña andik illabete baiño len, urte ortako azaroaren 9'an eraman zuen Jaunak berera.

AZKUE APAIZ.—Nazario Oleaga'k: «Azkue etzan, baiña, ereslari ta euskalari bikaña bakarrik. Abadea bere bazan, eta abadea be, ez edonor langoa, beste gaietan bezela, gaillen ta nabarmena baiño. Sinismen sendo, bizi, sakonduna; otoitzetan oneraspen andiduna, kristinauen arimen arduratsu».

Apaiztu ta laster Bilbao'n jarri zan euskal irakasle. Ori al zan bere goi-deia? Ez ote du apaizak beste zerbait egin bear? Ez ote du edatu bear Kristo'ren Itza? Bai; ortarako ere, orraitio, askotariko bideak dauzkagu. Lanbide bezela artu zuen irakastegiak aukeran bizi izateko lain diru ekarten zion: lan egin zezakean, beraz, narerik. Lan orri lotua bizita ere, tankera berezia emango zion bere apaiztasunari: apaiz-apostolutza bezela artuko zuen euskal lana; itzez eta idatziz, eta joan-etorritz, bere erriaren biotzeraiño eramango zuen Jaunaren erreinua.

Jomuga ortara zuzendu zitun bere kezka ta kemenak. Euskerari ta euskal fedeari erriak eutsi zezaion, alegiñak alegin egingo zitun. Erria eskolatu nai zuen *Euskalzale* ta *Ibaizabal* astero-koen bidez; aitzuta zeuden eliz-itzaldiak eta liburuxkak —Mo-

gel, Añibarro ta Ubilos'enak baitik bat— argitaratu zizkigun. Ainbat euskaldun ziran Bilbao'n, eta bertako elizetan, Santiago'n lenengo ta San Nikolas'en gero, euskerazko itzaldiak egin zituen aspertu barik; «an geunkan —dio Oleaga'k— gure Azkue zintzoa domekaro, San Nikolasen eleizean, goizeko bederatzietako mezan euskeraz sermogiñen». Gazteiz'ko *Cooperativa del Clero* aldizkarian ere, 1915'tik ara, berak asi zuen euskal atala bi meza-sermoirekin.

Besteak beste, zuzenbide berdiña eman zioten liburu askoren argitarapenai ere. Adibidez: *Jesusen Biotzaren illa* (Bilbao, 1901), 210 orrialdeko liburu ederra; *Lekeitioko Andra Mariari bederatziaurrena, Apaiz-ostegunetarako elizkizun eta otoitzak*, eta abar. Baita eliz-eresi Kristori, Andra Mariari, Josepe doatsuari... egiñak ere. Eta errietan naiz euskal jaietan eurrez aldarrikatu zitun itzaldiak: 1896-6-14'an, Markiña'n, Kuba'ko gerrea alik eta ariñen bukatu zedin, Karmengo Amari errukia eskaturik, egin ziran jai aundietan, Azkue'k parte artu zuen, eta ez gutxi; berdintsu, 1900'an ere Begoña'ko Ama koroatu zanean, zenbat joan-etorri egin zuen, musika saillean artan ere.

Apaiza zan aurrenik, eta ezurretaraño sartuta zeraman ein orrek bultz-eraginda osatu zitula, esan genezake, bere lan arri-garriak. Era askotaz jokatura eman dezaizkieke aintza ta dedua Jainkoari ta gizonai. Bitzuon zerbitzuan zegon aren arrata.

AZKUE TA ARANA-GOIRI.—Gogaikarri zitzaion Azkue'ri aldikada baten bere biran zebillen susmoa: bera ta Arana'ren arteko ar-emanetan gandu pixkat —gorroto (?), jartzen du berak— izan ote zan. Oartua zan, eta etziztaion laket. Lekeitiarrak berak euskal izenak zirala-ta egindako lanean dioanez, Arana-Goiri «aizkide», «gaste», «gusti», «lagi», «euzko» ta olakoak onartu ezin zitulako zan batez ere etsaitasun ori. Baiña surmur ori ondar gaiñean jasoa zala erakutsi nai du, iñoiz zerbait izan ba'zuten ere, gero adiskide onak izan zirala betiko garbi utzirik. Bi errazoi dakaz ortarako.

Bata: «1896'an argitara nuen nik —dio— liburuxka xume bat, *Proyecto de Ortografía* zeritzaiona, berau euskerazaleen menean ipiñirik. Itzok jartzen nitun sarreran: «Euskerazaleai: oraindiño Euskaltzaindirik antola ezin denezkero, bazkuna orren utsunea bete bezate or-emen sakabanaturik dauden euskaltzaleak- Erregu bizia dagituet onetarako guztioi: liburuxka au aztertu dezazutela astiro, ta bertan darabiltzatan berein puntuak ondoen derizkiozuen bezela erabaki ditzazutela. Ondoren, asmo onen egilleak, egiten dizkioten oarrak ikasi ta bakoitzak bere izenez izenpeturik bialtzen dizkioten errazoiak aztertutakoan, lan orri era berria eman edo-ta beste bat osorik berria egingo du. Baldintza auetan beste norbaitek bear bada, euskal ortografiaz liburu bat osatzea, bere gain artu nai baldin ba'luke, izenpetzen duen onek poz-pozik utziko lioke oraingoz artzen duen lekua».

Maiatzean idazten zuen au Azkue'k, eta Arana-Goiri'tar Sabin'ek iraillean argitara zuen 305'orrialdeko liburutxo bat, ots, *Lecciones de Ortografía del Euskera bizkaino* (Bilbao, 1896). Donosti'ko *Euskal-Erría'k*, Aita Arana'k eta A. Kanpion'ek orduan zerabilzkiten idazkerak aztertu ondoren, Azkue'k edaturri zuen *Proyecto*a orraztuten zuen: *r* (r, rr), *j* (Azkue, ds), *x* (Azkue, s), *tx* (Azkue, ts), *jakin* (jakin, yakin) ta olakoak, batez ere. Azkue'ren aldean zorrotza agertzen zaigu Arana-Goiri Fonetika ta Ortografi arauetan. Askoz aurrerago zebilkigun ibilli ere abandoarra, itzen ots, sorkun, etorki ta azterren gaiari buruz. Edestia dugu ziñaldari.

Bestea: Arana, 1897'an, Bizkaiko Aldundirako autesgai jarri zuten bere lagunak; zabalkunderako, alare, etzuten toki egokirik. Azkue'k ordea, esan dugunez, Jardines kalean zeukan bere lantegi berezia, naiko zabala, ta zati bat eskatu zioten antxe, iru bat asterako. Utzi zien Azkue'k bear zuten lekua. Arana diputadu irten zan. Egun batean, esker onez edo, Arana'k diotsa Azkue'ri: «Zer dogu, Azkue jauna?, zelan doa Iztegia?» «Andik laster —dio Azkue'k pozarren— berak lortu zuen ez dakit nik ze obari nik Institutoan neukan euskal irakastegirako».

Urteak geroago, bi itzaldi eman zitun Azkue'k, Aldundiko Kultura-Batzordearen erreguz, gure erri-musika gaitzat zuela. Onela zioan Azkue'k: «Beste ari bateko itzaldiak egitera ekan-duta gaudenok nekez utzi oi dugu, itzaldiaren bigarren asmo bezela edo, erakaspén (moraleja)'ren bat atera gabe. Gaurkoa galdera ontatik erneko da: nori zor diogu itzaldioek ospatzeko erea, eta zuok, aldun prestu ta adiskide maiteok, emen ikusi al izateko zoria?, eta beste garako batzuk Madrid'erako aldapa igo-tzea? Itz batean: nori zor zaio, Jainkoaren urrengo, euskal Piz-kundea bere agermen atsegingarri guztietan? Funtsean, oroz gaiñetik, Arana-Goiri'tar Sabin'i. Gora dezagun duinkiro aren gomuta. Eta, egin-bearrak eskatzen digunaren kontzientzirik baldin ba'dugu, ezpeitez joan bost urte Pizkunde onen eragille beinena izan zan Abertzale aundiari giz-iduri bat jaso-azi gabe» (*Acerca del Santoral Vasco*, 36 orr.).

Bi gizaseme aurrez aurre, alkarri lotsa erakutsi naiez. Itzo-kin eta era ontako eskabidea egiñaz, Azkue'k, aspaldi batetik muiñean zekarren arantz-izpia zusterkatu nai zuen, dudarik gabe.

AZKUE, EUSKALARI.—Irutan banatu genezake Azkue zana-ren lan eskerga: a) Euskalari; b) musikalari, eta d) idazle ta gai-biltzaille.

Euskalari ta gramatikalaria bezela lan izugarria burutu zuen. Zail egingo zaigu euskaldunoi aren goi-maillako lanari merezi duen garrantzia ezartea. Bera lakoxe gizona, goien-goienekoa izan bear ortarako. Ta etzaigu au zeregin erreza. Ona alare gogo oneko zerbait, sail auek beintzat aipaturik.

1) *Euskal Izkindea —Gramática Euskara—* (Bilbao, 1891). 401 orrialde. Bizkaiko Aldundiak bere pentzutan argitaldu zuen, oso ederki. Euskeraz ta erderaz dago, abe bitan. Gaztetako lana du, beraz okerrak izan bear. Lengoratu nai zuen bere euskera, aditzean batez ere, urteak irauliz aski puskatua iruditzen zitzaion eta. Gaur ere, 82 urte geroago, ez ote gabiltz ori berori egin

nairik? Gure euskerak ditun izkelgi-berezitasunak, anpulu baten eragiñez irabiatzen diran barazki antzera, nastu ta oretu zitezkeala uste zuen nunbait, eta olako izkelgi bateratu bat osatzeko asmoz idatzia dugu bere gramatika. Izkuntzalari batek edo bestek, irri egin zioten; E. Dodgson'ek, esaterako, au jaurti zion: «Ori ez da vascuence, ascuence baiño». Arrezkero, atzerritarren linguistika liburuak, A. Hovelacque'rena, adibidez, irakuri zitun, eta txukunkeriak albora utzirik, erriarengana jo zuen euskera jator billa. Esanak esan, alare, Azkue'ren len-gramatika ederld bíribildua da, guztiontzat bitxi jakingarritz betea. *Naiz, aiz, da, gara, zara, zarie* ta *dira* ordezt, beste aditz-forma jator auek darabilzki: *nai, ai, dai, gaiz, zaiz, zaize, daiz*. Eta auetatik datoztenetan dagi aldaketa ori, beste formetan etzuen ezer aldatu. Azkue'k beti idazten du, bai *Izkindean* bai *Morfologian*, *iatzu, iatzue* (*tzu* ta *tsu*); *daust* eta ez *deust*.

2) *Método práctico para aprender el vascuence bizkaino y guipuzkoano* (Bilbao, 1896), eta urte berean, geigarri bezela, *Clave de temas*.

3) *Proyecto de Ortografía* (Bilbao, 1896).

4) *El Euskera o el Baskuenze en 120 lecciones* (Bilbao, 1897). 147 orrialde zenbakiturik, eta beste 56 ainbarik. Euskeraz ta erderaz. Ajedrez arauak dakaz atzenean.

5) *Manual de Conversación* (Bilbao, 1901).

6) *Diccionario vasco-español-francés* (Tours, 1905-1906). Bi ale; lenengoak 561 orrialde eta 487 bigarrenak. Lan edererra; gaztetan egiña. Azkue'k, 39 urte zitula argitaratu zuen. Amabost urteko lana, berberak dioskunez; berak bakarrik burutua, eskerga ta obeto egin-eziña. Aurretik ere Larramendi'k, Novia de Salzedo'k, Aizkibel'ek eta, ba-zituzten iztegiak; baiña Azkue'k berri-berria eratu nai izan zigun, errotik kukutze-raiño berria. Ortarako, euskera jori, jator ta alagala erriak bait darabil, uraxegana jo zuen aspertu gabe; bestetik, euskal literatura zarra irakurri zuen, ainbat bitxi eder jasoaz bertatik. Gisa

onetan, aunitz esaera, itz, toki ta norki arretaz bildu ta irauliekin beterik daukagu bere Iztegia. Aurrekoak egin zuten bezela, Azkue'k etzuen ezer bere buruz asmatu, erritik eta liburu zarretatik jaso baizik. Erraldoi lana gizon batentzat, baiña Azkue'k gizonki aurrera eraman zigun. Iñoiz etzuela zeren bat ondo ulertu? Ba-litekena da. Itz bi edo iru omen dira olakoak, *arnari ta aron*, adibidez; itz biok gaur *frutu* ta *ara-ona* dabillena adierazteko darabilzkigu. Martin Retana'ri esker, berriz argitaratua izan da Iztegi eder au (Bilbao, 1969).

7) *Prontuario fácil para el estudio de la lengua vasca popular* (Bilbao, 1917). Garmendia ta Lagunen irarkolan. 160 orrialde. Iru zati dauzka: lenengokak 33 ikaskizun dakazki, ta bigarrenak beste 33 izkirimiri ta gertaliski. Gipuzkoako Diputazioari eskeintzean, gure izkelgien batasun miñak jota, onela dasa: «Gure euskera zar oni, aintzinako izkera guztiai bezela, umetsua izateak beronen bizitzea erruz erkintzen dio. Bakarra izan balitz, Araba ta Bizkai ta Naparroako uri ta urixka askotan etzan ilko. Bakarra balitz, euskaldun geienok ezkenduke adiskide artean erderara jo bear izango. Ezin bakartu dezakegu, batu bai».

8) *Diccionario de bolsillo vasco-español y español-vasco* (Bilbao, 1918). Liburutxo antzean argitaratua. Aurreratxoago atera zan Aita Bera ta Isaak Lopez Mendizabal'en erdel-euskel ta euskel erdel Iztegia (Tolosa, 1916), ta Azkue mindu egin zan, aiek bere lanez baliatu zirala uste zuelako; baiña J. Garate'k zer ontaz: «Etzegoan ain ongi Azkue zana, zionean Bera ta Lopez Mendizabal'ek egindako iztegi txiki polita, plagio edo lapurketa zala. Gutxik onestuko zuten iritzi mingor ori eta asko erabilli ditunak daki ongi ori. Au esateko ordua zan eta pozik esaten det. Oribera gertatzen zaio Farinelli-ri, antzeko gauzak arpegira botatzen dizkiola García Mercadal'i Espainia'ko ibiltariari buruz. Eztire onen lanak *plagio*, nere iritiz, eta gañera laguntza andia ematen digute ikasle txiki ta andieri» (*Gernika*, 1952, 5 orr.).

9) *Morfología Vasca* (Bilbao, 1923). 930 orrialde. «Euskera» aldirokoak ere azaldu zuen 1923-24-25'garren urteetan. «Liburu eder-ederra, N. Oleaga'k zionez; euskera sakon-sakon ikasteko ta berbeteen erabilli oi doguzan utsak eta oker esanak zuzentzeko, ikaspiderik onena eta egokiena». Bi zati dauzka: lenengo, atzizkiak (sufijoak) aztertzen dizkigu sustraiz ta astiro, 382 orrialdetan; bigarren, gramatika maillak edo esaldi zatiak sailkatzen ditu, izenak, izen-ordeak, izen-lagunak, aditz-ondoak, lokarriak, eta, atzenez, Bizkaiko aditza ainbat erakusbidez jantzita, argi ta garbi adierazten emanik. Iñork beronen laburpen bat osotu nai ba'lu, Pedro Puxana'k Bizkai-aditzaz (*Euskal Aditza bizkaieraz-Flexiones del Verbo vasco vizcaíno* (Bilbao, 1970) egin duen bezela, ementxe dauka gai-arrobi agoreziña.

10) *Neologismos formados a imitación de otras lenguas* (Bilbao, 1929). 30 orrialde. Au ta beste lan txikiak, geien bat, «Euskera»-n atera zitun lendabizi ta gero separata lez banazean. Onetaz beste lan bat ere osotu zuen euskeraz (*Euskera*, 1928, 128 orr.).

11) *Acerca del Santoral vasco* (Bilbao, 1933). 41 orrialde. Gero ikusiko dugunez, badu garrantzirik lan onek. Arana'ren *Deun Ixendegia* ikertu ostean, bere iritzia damakigu. Izenetan Arana'k 960 baldin ba'dakazki, doixtarak eta prantsesak bezela egingo luke; 100 bat aukeratu.

12) *Gipuzkera osotua* (Bermeo, 1935)- 184 orrialde. Bere *Morfología* osotzeko egin zuen lana, elburu bati begira beti: euskalkien batasuna; lendik ere ortarako egin zitun *Prontuario* ta *Argi Galdua*. Gipuzkoar izkelgia artu nai zuen eredutzat; ez gero gaur egunean itz edo idazten dan gipuzkera, osotua ta apaindua baizik. Nola osotu ta apaindu? Bizkaiko, Lapurdiko, Zuberoko ta Naparruko izkerak dituzten edertasun eta obekuntza bereziak gipuzkoar izkelgiari ezarriaz. Ortan saiatu zitzai-gun Azkue.

13) *El Vascuence y varias lenguas cultas. Estudio comparativo* (Bilbao, 1949). Bizkaiko Aldundikoak atera zioten. Lan jakingarria.

Beraz, ederto dio N. Oleaga'k: «Azkue jaunari aipamenik andiena ezarri eutsana euskalaritza izan zan zalantza bage. Azkue euskalari bardinbakoa izan zan, lanez eta balioz; ezta errikiderik ez eta atzerritarrik Azkue'k bestean euskera ikasketari lotua izan danik eta bere euskal lanen goragokorik» (*Euskera*, 1957, 11 orr.).

Garbiazale genuen Azkue zana. Ala ere, ez dugu aren lana geure iritzien neurriz epaitu bear. L. Mitxelena'k onela: «Azkue'ren xedeak eztira bear bada gureak eta xede orien arabera bear dugu juzgatu, ez geure xedeen neurrira. Aren ustez, erriak du bere azken itza, ez apaizak, eliz-gizonak izan arren euskal-idazlerik geienak. Etzegoen orratik erritik baztertua, bere burua ere, Tovar'ek bein erakutsi zuen bezala, erritzat zeukan, herritzat eta are populutzat. Eta erri zan ezkerro, eskubidea zeukalakoaan zegoen erriak erabilliak zuzentzeko, apaintzeko eta ainbestetan soiltzeko». Jokabide au oso zuzena danik ezin uka dezakegu. Eta darrai; «Garbi-giroa ere bere garaikoa zuen, ez berea». Egia ote? Garbi-giro ori edatu baiño len idatzi zuen ark bere «Euskal Izkindea».

AZKUE, MUSIKALARI.—Eder zuen Azkue'k euskal musika, ta gazterik asi zan berau ikasi, landu ta sakabanaturik zegoena bil-tzen. Zeinbat kanta zar bilduma arkolatu zitun; ez, lan au, nagusiena ezpada ere, ez da txiki-estekoa. Euskal eresi zarrak txortatzea besterik egin ezpa-lu ere, ondo irabazia zuen betiko izena. Ona, urtez urte sailkatuta, aren musika lanik beteenak:

1) *Euskerazko Eresiak*. Lenengo sailla; lau euskal musikazko ingurrazti (kuadernu): euskal abestiak, jatorrak eta erri-koiak, Azkue'k berak doiñukatuta.

2) *Eleizarako Eresiak*. Sei ingurrazti, eliz musikazko. Itzak euskeraz, latinez eta erderaz ere bai; doiñuak, berriz, jatorrak,

gregorianuak eta errikoia. Bi sail auetako lanak, lendik ere —«Euskalzale»-n eta antzerki txikietan— argitara emanak dituzu.

3) *Beste ingurrazti batzuk*: a) Jesusen Biotzari bi letani, b) Begoña'ko Andra Mariari zortzi oiua; d) Errosarioa euskeraz, argitalpen bi, bata orkestaz lagunduta; e) Andra Mariari oiua; f) Done Josepe'ri bederatziurrena, berriz Elosu'k (Durango, 1918) euskeraz ta erderaz azaldua: erdel itzak Lizarra'ko seme Arteaga'tar Jose Joakin karmeldarrarenak dira; g) Jesusen Biotzari oiua. Lan guztiok 1899'rako egiñak zitun; Azkue'ren izena euskal mugaz andik ere nabaria zan, eta Felipe Pedrell, katalan ínusikalari bikaiñak, zorionak ematen zizkion 1898-5-11'an zuendu zion kartan.

4) Ordukoak ditu baita: a) *Recordare* bat; b) *Katalin* eta *Nostalgia* zortzikoak; d) *Ahusky* erromantza; e) *Seaska utsa*, Selgas'en letraz egiña; f) Teresa Deunaren goi-bizitzaz *Asperenak*, euskeraz ta erderaz; koroa ta lau ahapaldi iru abotsetara; Aita Jose Domingo markina musikalariak dionez, itz eta musika ederto alkatu, «lan samurra oso, goi-argiz egiña»; g) *Te Deum*, iru abotsetara, eta h) *Apaiz-eguenetarako Ereserkia*.

5) *Eres-antzerki* edo zarzuela auk: a) *Vizcaytik Bizkaia-ra*; b) *Sasi-eskola*; d) *Aitaren bildur*; e) *Gainzabale'ko eiztaria*; f) *Eguzkia nora*, euskeraz; eta a) *Colonia inglesa*, ta b) *Pasa de Chimbos*, erderaz ta euskeraz.

6) Iru oratorio: *Daniel*, *Lamindano* ta *Andra Urraka*. Auk baiña ez dute oraindio argirik ikusi. Armonia ikasi ondoren antolatuak dira. Ta *Daniel* deritzaiona, Azkue'k berak aitortzen digunez, Kolonia'n antzeztu zuten.

7) *Ortzuri* (Bilbao, 1909-1910). 59 orrialde ditu, euskeraz ta erderaz. Iru ataletan eratua. Opera onen zati bat, ots, *Itxasora*, Bilbao'n aurkeztu zuten 1911-6-13'an. Jesus Guridi'k zuzendu zuen orkestra. Azkue bera Lur santuetara erromes joana zan. *La Gaceta del Norte'k* biaramonean esaten zuen: «Gai asko da-

toz *Ortzuri'ren* musikan, antzez-lagunai dagozkienak batzuk, eta sentipenak, gogo-egoerak eta gertakariak adierazten dituztenak, beste batzuk. Ba-dira errikoia ere, ta auen artean gogorazi dezagun arrantzalearen doiñua. Gai otaz Azkue'k ereslan interesgarria osatu du, eta barnean duen berritasunak zurtuta bezela utzi ditu entzuleak. Melodi ta doiñuak, ia denak, belaska ta trisiuraz beteak dira; baiña Azkue jaunak, bere lanean, itzalgarriro erabilli ditu, beren ixuririk galdu gabe, lili-ponpox eta eres-ikoti artean troxaturik. Adigarri zan, batez ere, abesbatzen musika bete ta dardargillea: oso txalotuak izan ziran».

8) *Urlo* (Bilbao, 1911-1912). 348 orrialde dauzka partitureak. Zubiria'ko kondeari eskeiñi zion. Musika ta letra —euskeraz, gazteleraz ta doitxeraz— bereak ditu. Bilbao'ko Dositeo etxeak Leipzig'en atera zuen.

Opera onek naigabe latzak ekarri zizkion Azkue'ri. Lan onen inguruan zati-erazi zitun ametsak ustel geratu zitzaizkion. Bi naiz irutan antzeztuko zalakoan zegoen. Barzelona'ko orkesta ekarri zuen, Lamote de Grignon zuzendari zala; bertoko *Euskeria* orfeoiak abestuko zitun taldeai zegozkienak. 1914-5-29'an antzeztu zan. Baiña zabalkunde urriagatik edo, jenderik etzan joan gutxi baiño. Abeslariak ere, batzuk gaixorik eta beste batzuk arin xamar gertatuak, etziran bear aiñako maillara iritxi. Operak berak ere ba-zuen bere mataza biurria: ogei ezaugarri-zerrenda (leit-motiv) sartu zitun; ekitaldi bakoitzeko gaiak etzu" ten batasunik edo doiñu-lerro jarraikorik. Biaramonean *Euzkadi'k* zioan: «Naspil leiza batean bezela durundu dagi orkestak. Nun dago melodi-lerroa? Geure kautan esan dugu; au ezta bein bakarrik entzutekoa. Berriz ere entzun bearko». Gaur bear bada ez litzakigu orren naspilla irudituko. Azkue, dana dala, antzokirako gizon trebe bat aurkitu etzulako edo Wagner'i urbillegitik jarraitu ziolako, porrot eginda gelditu zitzaigun. Eta agur egin zien betiko opera lanai.

9) *Cancionero vasco popular* (Barzelona, 1918, urterik gabe). 12 aletan. Lan izugarri bikaiña; onexek emango zion besterik egin ezpa-lu ere betiko izena. Jakin zazu beronen edesti pitin bat.

Euskalerriko lau Aldundiak, Araba, Bizkai, Gipuzkoa ta Nafarroa'koak konkurtso batera dei egin zuten 1912'an: sarituak izango ziran erri-kanta ta doiñuz osoturiko bi sorta oberenak; bata 5.000 peseta artuko zitun, eta 1.500 besteak. Urte beteko epea eman zan. Bi sorta agertu ziran batzaldira: *Vox Populi*, Azkue jaunarena, ta *Gure Abendaren Ereserkiak*, Aita Donostia'rena; lenengoak, 1.689 aire aozko ta 121 jo-gailluzko zituan; bigarrenak, 499 aozko melodi ta 24 jo-gailluzko. Azkue'k jaso zuen len-saria ta Aita Donosti'k bigarrena.

Musikalari biok ditugu txalogarri. Lan eskerga oni bere betea emateko, Euskalerrri osoa arakatu zuten. Eta, ain zuzen ere, euskal seme errime biok lan ori garai artan osotu ezpazuten, gaur bear bada maskaldua edo-ta galdua genduan gure erri-kantuzko meatz-obi aberatsa. Itzak eta musikea bera ere, iñoiz, ikuturen batzuk eginda geratu zirala? Ezta arritzekoa. Denok bai dakigu nolako aldea dagon eskualde batetik bestera naiz letretan naiz musikan, eta biltzailleak naitaez sorta berezi bat egiterakoan eskua sartu bear, iñausketak naiz beteketak egiteko. Erriaren biotzera jetxi ziran bi biltzaille sekulako auek, eta andik atera zituzten beren milla ta geiago abestiak. Araka bion euskal kantutegiak eta ikusi nolako arduraz osotuak dau-den. Bai ederki etorri daia Martin Retena'k azken urteotan eskaiñi digun argitalpena (Bilbao, 1968).

10) *Musika itzaldiak*. Iru auek beintzat ixillik laga eziñekoak dira: a) *Música popular bascongada* (Bilbao, 1901); b) *Música popular vasca* ta *La Música popular vasca y la griega* (Bilbao, 1919). Euskal Kultura Batzordeak argitaratuta, biak batera; eta gero *Cancionero Popular Vasco* dalakoan ere badatoz, 5'gn. orrialdetik aurrera; d) *La tradición en nuestra mú-*

sica popular religiosa; 1928'an Gazteiz'en ospatu zan Eliz-musika Batzarrean, zemendiaren 11'an, egin zuen itzaldia {*Crónica del Congreso de Música Sagrada*, Gazteiz, 1930, 281 orr.).

Aitor dezagun garbi: musika-zale izugarria gendun Azkue. Urteetan aren idazkari izan zan Nazario Oleaga'k dio: «Esan nei, Azkue'ren irudia zeatz eta osoan agertu dedin, bere eresi zaletasunak bere bizi guztian iraun ebala, larogetakaz urteak ebazala be, beste lanen atsedenez, sarri lan gelan eukan piano aurrean jezarrita, joten eta abestuten iñarduan eta» (*Euskera*, 1957, 11 orr.).

AZKUE, IDAZLE TA BITXI-BILTZAILLE.—Azkue'k gogoz jo-ratu zuen beste lan-sail bat falta zaigu oraindik. Idazle dugu, dudarik gabe; argitara zitun gertirudi, antzerki, itzaldi ta erlijio-gaiak aipatu digutu; baiña, ba-ditu olez gaiñ sei-zazpi liburu ere berak bere buruz sortu ta argira ekarriak.

Eta biltzaille dugu Azkue. Gure errian, zenbat ipui ta ja-zoera, esakera ta atsotitz, ume-kanta ta erri-olerki, oitura ta si-niskeri izan dan, eta dan gaur ere. Eta Azkue'k *Euskalerraren Yakintza* izeneko lau liburuetan jaso zizkigun bitxi oiek.

1) *Txirristadak* (Bilbao, 1898). 274 orrialde. «Euskalza-ie»-n argitaratu zitun irakurkizun barregarriak; lenengo pilloak 23 txirristada ta bigarrenak 18. Arin, errez, piper-miñez be-teak.

2) *Bein da betiko* (Bilbao, 1890) 128 orrialde. Bizkaieraz-ko elezarra. Au ere «Euskalzale»-n argitaratu zuen lendabizi.

3) Ainbat lan eder «Euskalzale» (1897-98-99) eta «Ibai-zabal» (1902-03) asterokoetan. «Txirrist», «Euskalzale», «Eke-ta» ta olako ezizenak erabilli zitun sarritan.

4) *Jesusen Biotzaren Illa* (Bilbao, 1901). 210 orrialde. Biotz Donearen inguruko gogarte ederrez ornitua. Bizkai'ko euskeraz,

5) *Ardi galdua* (Bilbao, 1918). 166 orrialde. Gipuzkeraz egindako nobela. 13 eskutitz dira gertirudi osoaren mataza poliki ariltzen dutenak.

6) *Itzaldiak* (Donosti, 1923). 1920'garren urteko jorraillaren 5'an, Txomin Agirre'ren omenez egindakoa, ots, *Agire, beretergoan* deritzaiona; naikoa lenago, *Jaungoikua eta Foruak*.

7) *Laminak Euskalerrian* (Bilbao, 1927). 29 orrialde.

8) *Euskera* aldirokoa, 1919'tik aurrera, Azkue'ren babes eta ardura goxopean ainbat lan eder azaldu dizkiguna.

9) *Euskalerraren Yakintza* (Madrid, 1935, 42-45-47). Lau ale aundi: 1'go., *Oitura ta Sineskeriak*, 472 orrialde; 2'gn. *Ipuin ta Irakurgaiak*, 479 orr.; 3'gn., *Atsotitzak, Esakerak, Aurren izkuntza, Ago-korapiloak, Goitzenak, Igarkizunak*, 411 orr.; 4'gn., *Erri-otoitzak eta Erri-olerkiak*: a) *Aldartezkoak*; b) *Dantzakoak*; d) *Edaleenak*; e) *Elizarakoak*; f) *Eskelarienak*; g) *Ezteietakoak*; h) *Gertaridunak*; i) *Illetak*; j) *Ipuiñak*. *Ostagikindea, Erriaren sendakintza, Aurren jolasak*, 456 orrialde.

Lan eder au osotzen bere ama izan zuen lankiderik aundiena. Itzaurrean onela dio, lan oso au Mari Karmen Aberasturi, bere amari eskeiñiaz: «Bai lau liburu onen orrialdeetan ta bai Iztegiarenetan bi mila bidar gitxienez, gai bata ta bestearen ondoan, iru izkiratxo onek irakurri dagikez: B-m. Bizkaia-Mundaka darakuse. Zortzi-amar gai ez, beste mila ta bederatzireun ta larogei ta amarrak, ama, berorren ezpanetatik neure belarrietara jatsiak dira». Beraz, ama-semeon lanak ditugu *Iztegia ta Euskalerraren Yakintza*, batez ere. A. Arrue'k: «Idatzi al du iñork sekulan gure errian Azkue'ren *Euskalerraren Yakintza* izeneko lau liburuekin neurtu litekenik?»

10) *Ipuiñak* (Bilbao, 1968). 248 orrialde. Azkue'k, gaztetan bereziki, ipuin, izkirimiri ta irakurkizun labur ugari osotu zitun; auek «Euskalzale»-n eta «Ibaizabal»-en datoz, oparotsu. Nik gertatu nuen ipuin-liburu ontan datozanak «Euskalzale»-tik artuak dira guztiak. Eta gaur ere, orduan niñoa bera diot:

«Azkue'k ementxe ustu euskuzan bere literatura bitxirik ederenak. Geroago be, ondo dakigunez, makiña bat gauza eder osotu ebazan, baiña aldizkari onetan, asteroko onetan irauli eban bere arima artista, eder-zalea; gozo ta bigun irauli be. Dala irakurgaietan, dala ipuin edo izkirimirietan, emen besteko errez-tasunik, ugaritasunik ez euskun gerora sekula be erakutsi».

11) *Grankanton arrantzaleak*. Azkue'ren lenen euskal lana, 1888'an Bilbao'ko Institutoan euskal irakasle izatea lortu nai izan zuenean maipurukoai aurkeztutakoa. Lekeitio'ko ipui bat du oiñarri.

12) *Ortzuri*. Nobela. «Ez dakit noztik egiña dauan —diosku A. Akesolo'k—. Euskeraz eta erderaz, bietara eginda daukana, bai. Eta erderazko ori argitaraturik dauko, Bergara'ko dominikoen aldizkari baten —«El Santísimo Rosario»-n noski—, oker ezpanago. Antxe bertan atera eban «Argi Galdua»-ren erderazko itzulpena bere, Bilbao'ko abade batek egiña».

13) *Latsibi*. Irakurgaia. «Ardi Galdua»-ren ondoren idatzi zuen. Onela A. Akesolo'k: «Berak Bizkaï'ko euskeraz egin, eta gerotxoago Gerard zanak giputz-euskeraz jarri eutson. Mezenasen bat noz agertuko, argitaratzeko dirurik nok emongo begira egon zan gero bere bizi guztian, eta ez zan agertu Mezenasik. Neuri itxi eustan bein, irakurteko, egun batzuetarako. Ari luzea dauko. Gerta-lekua: Bilbo ta Maruri-Mungia bitartean. Politika gaiezkoa».

14) *Kristo'ren Antz-bidea*. Azken aldian osotzen zegon lana. «Kempis poliglota» atera nai zuten nunbaiten, euskeraz ere bai, ta Azkue'gana jo zuten itzulpena egin zezan. A. Akesolo'k: «Bein baño sarriagotan ikusi neban lan au egiten, latíñezko ta euskerazko Kempis bat (Pi Abarena au) aurrean zituela». Gipuzkera osotuan eginda dago.

IRITZI TA OMENALDI.—Azkue, azkenik, konta ezin alako lan au dala-ta, beti dugu aomen aundikoa. Bere la-aren aurrean, mendi eskerga baten oiñean lez, zur ta

lur gelditu oi gara, ta ari buruzko gure iritziak beti dira arrimenari dagozkioenak. Orixe'k, esaterako, Iztegiagatik: «Amabost urteko lan arrigarria, euskera onaren iturria». Baita au ere: «Euskeraz ari geranok Azkue jaunari zor diogu geienik, eta Euskerak ere bai... Ark atera gaixoa bere zarpilletatik eta soiñeko apaññez jantzirik utzi».

Izan ditu omenaldiak ere, naiz-ta merezi duen aiñakorik ez. Il eta laster egin zitzaion bat, 1952'gneko abenduaren 10'an, 11'an eta 15'an, Bilbao'ko Ateneo'an: F. Krutwig, J. Gorostia-ga, A. Donosti ta Jose Domingo karmeldarrak itz egin zuten. 1953-1-4'an, ordea, San Bizente parrokiko aretoan, Antonio To-var'ek, Salamanka'ko Unibersidadeko buru zanak itz egin zuen, Azkue zanaren iker-lana goraturik.

1956-57'an ere berdintsu, Azkue'ren omenezko jaiak. Lo-tazillaren 30'an asi ziran: goizean Santiago Apóstol ikastetxean euskerazko meza ta itzaldia. Nazario Oleaga'ren itzaldia; Bil-bao'ko Koral Alkarteak abestu zitun Azkue berak doiñutu zitun eresi batzuk; gero, «Illeta», Escudero bera zuzendari zala, 250 kantari bizkaitar eta gipuzkoar inguruk eta Bilbao'ko orkestak parte arturik. Urtarrillaren 2'an, Luistarren aretoan, apaizak izan zuten batzarraldia, Bilbao'ko gotzaia maipuruko zala; auek itz egin zuten: Gregorio Maidagan, Juan Gurutz Ibargutxi, Jo-se Maria Olaizola eta Andres Mañarikua jaunak. Erregen egu-nean izan zan bigarren jaialdia, Coliseo Albia'n: Antonio Arrue'ren itzaldia, Euskaltzaindiko euskal ikasle ta teatrugilleak eta Olaeta'ren dantzariak egiñiko agerraldiak eta B. Enbeita'ren bertsoak. Goratzarre bikaiña.

(Ikus *Euskera*, 1919-1922, 19 orr., 1954, 29 orr., ta 1957, 5-54 orr.; *La obra de don Resurrección María Azkue*, Bilbao, 1952; *Gernika*, 1952, 4-21 orr.; S. Onaindia, MEOE, 1954, 315 orr.; *Egan*, E957, 1-2, 72 orr.; I. Omaetxebarria, «Euskera», 1959, 271 orr.; L. Mitxelena, HLV, 142 orr.; L. Villasante, HLV, 372 orr.; L. Akesolo, BAP, 1965, 35 orr.; K. Etxenagusia, *Euskal idazleen Lorategia*, 192 orr.; M. Za-rate, *Bizkaiko Euskal Idazleak*, 138 orr.; S. Onaindia, *Ipuñak*, Bil-

bao, 1968, 7-12 orr.; Auñamendi, *Diccionario Enciclopédico vasco*, III, 1971, 363 orr.; *Zeruko Argia*, 1964, dagonillak 9, 4 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, I, 409 orr.).

12.—MIGEL UNAMUNO ETA JAGO (1864-1936)

Oroi dezagun aurrenik J. Garate'k 1952'an ziona: «Irurogei urte igaroko ziren onezkero, sekulako burruka ikusgarri bat gertatu zala Bilbao'n. Iru gizon, iru euskaldun argi, garbi, azkar eta langille zakonak aurkitzen ziren toki baterentzat saiatzen... Ez da izan bein ere Euskal-Errian alako gizon azkarren elkar jokarik, buru eta adimeneko lanetan... Iru oiek ziren: Azkue, Sabino Arana eta Mikel Unamuno» (*Gernika*, 1952, 4 orr.).

Zer toki artu bear ziguten iru gizon argiok? Esan dugu gorago: Bizkaiko Aldundiak Bilbao'ko Institutoan iriki nai zuen euskera irakastegia, ots, katedra. Ondoxe ordaindua zan diruz, eta euskeraz irakastea ere gauza atsegingarria zan noski. Origatik, alegia, euskaldun jator oien leiaketa bizia. Unamuno'k, beraz, naita geroztik beste bidez ibilli zitzaigun arren, eta gazte urteetan osotu zitun euskal lantxoakatik, merezi du toki meartxo bat beintzat gure literaturan.

NOR GENDUAN.—Bilbao'ko alderdi zarrean jaio zan, 1864-9-29'an; an dago oraindik ere arlauza bat orren aitor-ekarri bezela. Antxe bizi zan, amar bat urteko, 1874'an karlistak Bilbao esiturik zeukatenean; an ikasi zitun lenengo asi-masiak, eta batxiller Institutoan. Madrid'era aldatu zan 1880'an, Jakintza ta Letrak bertan ikasirik lau urtetan. Irakasteko toki billa or-emen ibilli zitzaigun gero fruturik gabeko joan-etorri ta leiaketan; azkenez, 1891'an, Menéndez Pelayo ta Várela epai-maiko ziralarik, Salamanka'ko Ikastetxe nagusian griego irakaslaritza eskuratu zuen. Ela emen dugu, gero esango dugunez, betiko gurpillean sartuta Unamuno'ren barne-deia: antxe egin zizkigun zaiñak

eta bertan kokaturik, pozik dirudienez, irakasle ta nagusi, bizi-tzako egunik geienak igaro zitun bere emazte Kontxa Lizarraga ta seme-alaba ta illoben ondoan.

Unibersidadeko buru izan zan urteetan. Baiña politika goraberak zirala-ta, iñoiz utzi zuten kamus; 1914'an bai beintzat, eta gero ere, 1924'an, Primo de Rivera'k Fuerteventura (Karnarias)'era bialdu zuen atxillo; andik prantses oial-ontzi batean iges egiñik, Paris'en eta Endaia'n bizi izan zan 1930'rarte: bertsoz ta itz lauz asko idatzi zuen aldikada ontan, Europa osoan ospe andiko biurturik. Erkalak 1931'an berea zuen mai-xutzara ekarri zuen ostera ere. Guenez, 1936-12-31'an, Espai-ña'ko gerra asi-berri zegola itzali zan, Ortega y Gasset'ek esan zuenez, «ixil latzaren aroa» bere ondoren utzirik.

UNAMUNO, IDAZLE.—Oraintsu oraindik, atertu gabe, abes-ten zuten gazteak: «Ez gaude conforme...» Unamuno'k ere, an 98'garren urteetan, Baroxa ta Maeztu, bere errikideak, Azorin alikantetarra, A. Matxado ta Ganivet andaluziarrak, eta Va-Valle-Inclán galiziarra lagun zitula, era berean abesten zuen bere protesta kanta. Ez zetorren bat orduko erriketa ez idazketaz. Ta egoera aren kontra zebillen bere autu ta idatzietan.

Ogetamar bat urte zeuzkan idazten asi zanean; belu xamar. Baiña geroztik gogaitu gabe ekin zion idatz-arloari. Or bere liburu ugariak. Gai guztiak arrotu zizkigula esan genezake. Be-go emen, merezi dute ta, lan oien kontaketa laburra.

1) *Saiakera laburra*: «Ciudad y campo», «En torno el casticismo», «La vida es sueño», «El secreto de la vida», «Cómo se hace una novela», «Mi religión y otros ensayos», «Recuerdos de niñez y mocedad», «Andanzas y visiones españolas», «Paisajes del alma», «Lecturas españolas clásicas», «La lengua española en América», «Temas argentinos», eta abar.

2) *Saiakera luzea*: «Vida de Don Quijote y Sancho Panza» (1905), «Del sentimiento trágico de la vida» (1912), «La agonía del cristianismo» 1925).

3) *Antzerkia*: «Fedra», «Sombras de sueño», «El oro», «El hermano Juan o El mundo es teatro», «La esfinge», «Soledad», «Raquel», eta abar.

4) *Eleberria*: «Paz en la guerra» (1897), «Amor y pedagogía» (1902), «El espejo de la muerte» (1913), «Niebla» (1914), «Abel Sánchez» (1917), «Tres novelas ejemplares y un prólogo» (1920), «La tía Tula, San Manuel Bueno mártir y tres historias», eta abar.

5) *Olerkia*: «Poesías» (1907), «Rosario de sonetos líricos» (1911), «El Cristo de Velázquez» (1920), «Andanzas y visiones españolas» (1922), «Rimas de dentro» (1923), «Teresa» (1923), «De Fuerteventura a París» (1925), «Romancero del destierro» (1928), «Cancionero» (1953), ta abar.

Urduri, ausart, egizale amorratu, eztabaidari emana genduan. Txit jainkoti barruz zan arren, fede ta erlijio-kezkaz, larri ta ezin-egonez bizi izan zitzaigun beti, Bizi-naiak zekarren estu, illezkortu bearrean. Orrela egiñak dira aren liburu denak. Labor: mundu guztiak ao batez dionez, idazle izugarri dugu.

EUSKAL IDAZLE?—Geurez bait gera kontenta-gaitz, ez dakigu sarri zer nai dugun. Bizitz-asikera etzaigu errez geure egunak zear zoriontsu egingo gaitun aldapaz aurrez aurre aurkitzea. Argia zan Unamuno, ikasle meko izan zanik ez genezake esan. Bilbao'n bertan lortu zuen batxiller titulua, eta Madrid'en Jakintza ta Letrak (1880-1884) ikasi ondoren, gaiotan Doktor titulua iritxi zuen euskerari buruzko txosten batekin. Euskeraz ere ikasi zuen bere erria ta izkuntza maite zitulako. Baita olerkiak eta, or-emen argitaratu ere. Aren gaztetako euskaltzaletasunaren len-txinpartak. Zer gertatu zitzaion?

Unamuno oraindik ere irakas-aulki baten billa zebillelarik, Bizkaiko Aldundiak —esan dugunez— euskeraz irakasteko katedra bat eregi nai izan zuen; 1888-2-15'an iragarri zan batzaldia, ta urrengo epaillaren 31'an betetzen zan eskabide-epea. Ona aurkeztu ziranak: Azkue, Arana Goiri, Unamuno, Pedro

Alberdi, Eustakio Madina. Ikas-titulu ta lantxoren bat ere, eskatzen zan; Arana'k, Alberdi'k eta Madina'k etzuten ikas-agiririk ekarri, ta berez-berez aldabat utziak izan ziran. Unamuno, ordea, Irakasle (Doktor) zan, eta Azkue batxiller. Maikoak botoetara jo zuten, eta bion artean Azkue'k amaika izan zitun eta iru Unamuno'k.

Unamuno'k emen ere, lenagotik lau-bost urtean irakasteko aulki billa ibilli zanak, porrot egin zigun. Onek garraztu zuen, eta bizitza guztirako garraztu ere, bilbotar jakintsuaren biotza. Orduantxe eta gero, 1901-8-26'an, Bilbao'ko Lore-Jokuetan izan zuen solasaldian, gogoz raadarikatu zitun euskera ta Euskalerria. Arrezkero, oso-osoan, erdal bidetik joan zitzaigun. Azkue ta Unamuno, leiakide biok, lan ikaragarria egin zuten; Azkue'k Bilbao'n euskal errira begira ta Unamuno'k Salamanka'n gaztel errira begira.

(Ikus M. Arriandiaga, *Euzkerea*, 1933, 410 orr.; Goikoetxea, *Euzkerea*, 1933, 307 orr.; Goti, *Bol. Inst. Amer. E. V.*, 1952, 155 orr.; S. Onaindia, *MEOE*, 675 orr.; Iñurritza, *Unamuno ta Abendats*; L. Villasante, *HLV*, 341 orr.; *Gran Enciclopedia del Mundo*, Bilbao, 1964, 18, 619 orr.; E. Díez-Echarri y J. M. Roca Franquesa, *Historia general de la Literatura española e hispanoamericana*, 1.264 orr.).

13.—JULIAN ARIZNABARRETA BERRIZBEITIA (1864-1946)

Berriztar zintzoa Aita Jerman, karmeldar oiñutsa. Aundia zan buru ta biotz. Larra'ko prailletxe ontan amaika organu-soiñu eder jotakoa. Eta, beta zuenean, Bizkaiko errietan batez ere, euskerazko itzaldi ederrik asko egiña.

Berriz'en, ezpata-dantzari zume, zalu bizkorren eskualde sotillean jaio zan 1864-1-6'an. Bere jaiotz-egun au, egundo utsik egiteke, aundikiro jaitu oi zuen; Gabon-goizeko *Prima-n* Kalenda kantatzean asi ta Erregen osterartekoa, bene-benetan

jai-aro atsegiña zan beretzat, eta enparauontzat. Egun auetan, makiña bat kantu zoragarri ta organu-soiñu alai entzunak gaudede! Bere eguneko itzaldia, au da, Erregen arratsaldekoa, berak egiten zigun geienetan. Atsegiñez oroitzen ditugun poz-ernamiñezko uneak!

Karmeldar izan nairikan, Larra'ko komentu ontan eskatu zuen karmeldar jantzia 1880-7-23'an, urrengo urteko aguztuaren 24'an profesa egiñik. Ikasketa nagusiak Avila'n eta Alba de Tormes'en osotu ondorean, 1887-9-24'an artu zuen meza-ordena. Gerora, ementxe Larra'ko lekaretxe ontan igaro zizkigun bere bizitzako egunik geienak.

BI ZALETASUN.—Bi zaletasun edo griña zituen biotzean: 1) Musikaren goxoa, ta 2) Kristoren itza erein guraria.

Organu-jotzaille punterengoa zan musika landan. Nik beti ezagutu nuen atzamar bat gabe, makur ori gorabera berdin zantpatzen zituen gure koruko organu amultsuaren atzol edo tekla sail xillarrak. Amaikaxo aldiz aditu genizkion ango ta emengo musikulari ospetsuen lanak bizi-bizi jotzen. Gaur ere, gisa ortan jardungo du zeru-goietako atsedeen eztitan. Musika asko erakutsi zuen, gaiñera, bai komentukoai bai errikoai: letra ederra zuen, eta oraindik ere emen dauzkagu ainbat musika ta abesti ark eskuz idatziak. Nik ere —apalik daitort— dirala ogeta amazortzi bat urte itzulpen ez gutxi burutu bear izan nizkion, erderazko izkia zuten kantak euskeraz abestu zitzazkieten.

Pulpitu-griña zan bigarrena, Kristoren itza zabaldu naia. Etzegoen iñoiz geldirik. Barruan daramaguna berez agertzen, eta Aita Jerman'ek Kristo zeraman biotzean sustraitua, ta ezin egon iñolaz ere au agertazi gabe. Komentu barruan bizkorra zan, lege betetzaille zeatza; urte-sorta bizkar-gaiñ zuela ere, gaberdiko otoitzetan, negu ta uda, nola laguntzen zigun! Organista zalarik, egia esan, etzuen beta aundirik igande ta jaie-tan, baiña Garizuman maiz joan oi zan errietara, Kristoren itza ereiten. Izen ederreko izlaria zan; gatza ta piperra zerien aren

itzaldiai: txinpartak atera oi zitun pulpitu ta irakastegian, gaixo zeudenai zaurian jarriaz bear zuten osakaia. Aren itzaldi-paper pilloa dago Larra'ko komentu ontan. Bakartadekoa, San Jose'rena, Arimena, Santa Teresa'rena ta abar dira ark, Garizumaz kanpo, geien egin zituen itzaldiak. Ona zatitxo au, 1907-10-5'an Santa Teresa egunez egin zuen batetik aukeratuta;

«Jesusek ez eutsan iñori bere esan Teresari esan eutsana. «Zelan dozu izena?», itandu eutsan bein baten Jaunak; «Teresa Jesusenarena», erantzun eutsan Santiak; «bada ni Jesus Teresarena», esan eutsan Jaunak. Iñori bere ez dauksa esan Jaunak: «Zerurik egin ezpanen, zeugaitik bakarrik egingo neban». Iñori bere ez dauksa esan Jaunak, Teresari baño: «Niria dan guztija zuria da».

Deritxat, N. E. M., laarregi luzatu nazala pentsauko dozu-bela, neure Ama Santa Teresaren bizitza mirarizkuaren jazoe-ra batzuk esaten; baño alan da guzti bere amaitu daidan. Oh Teresa! Zu guztijori zara Jesusena; bada Beraganako amodijuagaz il bear dozu, eta onetarako Serafin batek amodiozko ez-patiagaz bijotza edegiten dautso, eta amodiozko gaixuagaz ilten dago. Baña lelengo erregututen dautsee bere alaba monjai, Jesus maite izateko, Marija Santisimari eta onen senar San Joseri deboziño aparteko bat eukiteko...

Il da Teresa. Baña, zer diñot? Ez dot ondo esan, Teresa etzan il, zergaitik eze bizi zan ilda: «ilten naz ilten ez nazalako», ziñuan Teresak. *Non poterat mori, quia vivens mortua erat*: il zan bizitzan, eta ezin il zeitekian erijotziagaz; il zan amodijuaren indarrez, eta orregaitik bere arimia uso zuri baten irudipian, ikusi zan Zerura igoten. Baña, nora deritxazube, kristiñauak, daroiela Aingerubak Teresaren arimia? Zeruko Martirijen lekura? Apostoluen Zerura?... Ez! Nora bada? Serafiñen Zeruko lekurik gorenera; bada amodijuak il dau, eta bardin da amodijua, zein Serafin Aingeruba, zein Teresa Karmengua».

Larrea'n il zan, 1946-1-19'an.

14.—ARANA GOIRI'TAR SABIN (1865-1903)

Naikoa maixeatua izan da A. Villasante, euskaltzale garai onek, ots, Arana Goiri'k euskera berriztatu nairik osotu zuen lanari buruz, bere Euskal Literaturaren Kondairan erein zituen iritziengatik. Baiña prantziskotar argi onek au ere idatzi zigun: «Indar bati bidea eman zion oroz gaiñetik. Indar ori egiaz gaur ere sentitzen dena, ta gure erriaren kontzientzia zain ta muin astindu duena, euskaidunoi geure izkuntza zaarra zaindu ta lantzera funski bultz-eragiñaz. Sabino'ren politikazko ta izkuntza-rekiko usteak ontzat ematen ez dituenengan ere daragian indarra, beroni aurka egiten dienengan ere sumatzen dan indarra noski» (HLV, 290 orr.).

BIZITZ-OSTOAK.—Gaur Bilbao dugun Abando'n jaio zan Sabino, 1865-1-26'an, San Bizente eliza ondoan Arana'tar Santiago ta Goiri'tar Paskuale senar-emazteak zeukaten etxean; zor'tzi seme-alabetatik, berau azkena. Lenengo ikaskintzak bertan asi zituen; baiña zortzi urteko zala, 1873'an, Laburdi'ko Getari erritxora aldatu zan bere ama ta bi anaikin: aita Ingalaterra'n zegon orduko, emengo karlatar guda zala-ta, uri artara iges eginda. Baiona'n egin zizkigun 1873-1875 arteko ikasiak; 1875-1876 artekoak, berriz, Donibane Lohitzune'n, azterketak Ondarribi'n egiñaz. Amaika urtekin, Abando'ra dator berriro, ta 1876'garren urteko ikastaroa Orduña'n asten du, jesulagunen ikastetxean; 1881'an, ordea, azkenengo ikastaroa bukatzen zegoelarik, il-zorian jartzeraiño gaixotu zitzaigun.

Urrengo bi urteetan, ondo sendatu arte etzuen ezer ikasi. Orduntxe asi zan, alare, bere sorterria ta sorterrir orren edertasunak ezagutzen. Ona aren bi amets, bizi osoan urduri erabilli zutenak: bere erria ta onen arima, euskerea. Bi amets oientzat izan zan zeukan guztia. Gaztetan ba-zituen nunbait bere illuntasunak, baiña bere anai Koldobika'k uxatu zizkion illun-matasok eta arrezkero etzuen dudarik izan aberriaren alde itsuan jokatzeko ta zeukan guztia —bizia ere bai— bere onez emateko.

Euskera arloan, aldiz, garai aretan así zan ikasten. Ortara-koan, euskaldun berriak egin oi dutenez, elizti-gramatika ta iz-tegi bitxi batzuk esku arteratu zitun: Van Eys olandar euskera-zalearen «Dictionaire basque-fran9aise» ta «Grammaire de la Langue basque», Azkue'k ere geroago naikoa erabilliak, eta abar. Amazazpi urte zeuzkan. Urrengo urtean il zitzaizkion aita ta anai bat. Sistada ederra aren biotz aularentzat.

Orrek eraginda edo, Barzelona'ra zuzendu zan bere ama ta anai Koldobika'rekin, eta ango Ikasgu nagusian osatu zuen 1883-84'garreneko ikas-urtea, Pilosofiari ta Lege-jakintzari ta Eler-tiari buruzko gai-oiñarriak ikasirik. Bitartean baita euskerari ere ekin zion jo ta ke, Kanpion'en «Gramática Bascongada de los cuatro dialectos literarios del Euskera» atera berri zanarekin oraingoan. Eta 1885'an, naiz-ta iru urte geroago argitara emana izan, «Gramática Elemental del Euskera Bizkaino», 200 orrial-deko liburua idatzi zuen. Ogei urteko zala, gogotsu lan egin zuen Balentin Berriotxo zaiñoparen gorpuzkondoak artzeko eliz-kizunak gertu ta apaintzen. Urte berean, au da, 1886'an argi-taldu zuen bere lenengo idazlana (*Euskal-Erria*, 1886-10-30'an, 361 orr.) ere, Euskaltzaindia sortzeko asmo-lana alegia. 1887'an, beste zer askoren artean, «Etimologías euskéricas» osatu zuen, eta ingurti ontan agertzen du Sabin'ek bere ikurra, azken-al-dean au bait du jartzen: «G. E. T. E. J.». Au da: «Geu Euz-kadi'rentzat eta Euzkadi Jaun-Goikuarentzat». Urte ontan il zitzaion ama, ta ikasketak etenik, Abando'ra etorri zan.

Ondorengo urteetan, il arte guztian, lan ikaragarria burutu zuen. Lumaz eta mingaiñez. Geroxeago aitatuko ditugun idaz-lanak albora itxita ere, ba-zuen gizaseme esnale ark zeri oratu. Goraka bearrez erauzia zan irrintziña, ta 1893-6-3'an batez ere, Larrazabal baserrian itzaldian adierazi zituen argi ta garbi bere asmoak, eta xede auek aurrera ateratzeko «Bizkaitarra» sortu zuen. Latz eta gogor dagerkigu Arana, euskal kontzientzia es-

natu naiean. Bera zan aldizkari orren jabe ta zuzendari. Ta bertoko lanengatik sarri izan zitzaigun saiatua, auzipetua, uxindua ta espetxeratua.

Jaungoikoa ta Lagi-Zarra zizun ikurritz, eta onekin erein zuen bere azia, ta lur girotuan erein ere, ernera bikaiña bait zekarren. 1894-7-14'an iriki zan Euzkeldun Batzokija, geroztik maiz iriki ta itxia izan zana. Onako baten Sabino ta beste aberkide mordo bat giltzape jarri zituzten eta orduan ondu zigun, Larrinaga'n aurkitzen zala, «Lenago il!» asten dan olerkia. Amets-azia ezpaita neke gabe erein ta erne-aztekoa. 1899-6-4'an *El Correo Vasco* egunerokoa sortu zuen; auxe izan zan lenengo abertzale egunerokoa, ta 103 zenbakiraiño iritxi zan. Arana'k berak idazten zuen ia geiena, ta *Bizkaitarra* ta *Baserritarra* bezin zirtolari zetorren. Eta, nabari zanez, urte artan bertan, irailaren 15'an, ixil-erazi zuten. Biotz-min auen artean, orraitio, ba zitun pozaldi txikiak ere; urte ortan, 1899'an, Bizkai'ko Aldundegiko aulkietan jarri al izan zuen; 4,500 bizkaitarrek bere alde eman zuten autarkia. Emendik ere bapo zigor-azi zitun artez ez zebiltzanak.

Urte auetan, osagillearen aginduz, Sukarrieta'n bizi zan, itxas-ertz lilluragarri ontako baserri baten. Berton ezkondu zan, 1899-2-2'an, Atxikallende'tar Nikolasa'rekin. Etzuten seme-alabarik euki. Etzegon lo orraitik. 1902-5-24'an, Ipar-Amerika'k Kuba'ri askatasun osoa eman ziolako, Arana'k, urrutidatzi batez, zorionak igorri zizkion ango lendakariari. Zorion-agur ura, alare, etzan ondo ikusia izan, eta egillea espetxera eraman zuten. Ordun, Larrinaga'n zegoen bitartean idatzi zuen, beste zer askoren artean, «Abertzale ezkondua espetxian» deritzaion olerki leuna.

Langille porrokatu beti, 1901'an «Euzkadi» iru-illabeterokoa ta «La Patria» asterokoa sortu zizkigun. Argitalpen bi auek, azkenengoak batez ere, iskanbil larregi atera zuen eta 1903'ko bagillean Bilbao'ko Udaletxeko abertzale zinegotziak ken-erazi ta abertzale-usaiko argitalpen guztiak ere debekatu zituzten.

Ainbeste buru-auste ta neke-lerrenez abandotarraren osasuna, gorputz eta arima sendoa izan arren, aulduaz zijoan oso; erriaren alde eman zuen zeukan guztia, beti neka-gaitz eta zintzo. Guenez, Sukarrieta'n il zitzaigun, 1903-11-25'an; gazte oindio, 38 urte besterik ez baitzitun. Bere gorpua an gelditu zan Kantauri egalean, eortzia, atsedean asean; aren gogoa, ordea, berak ainbat goretsi zuen Jaungoikoak artu zuen bere zorion betidani-koan.

BERE LANAK.—Naimen ermoaren jabe zan Arana Goiri, ta etzan iñoiz kikildu bizi-bidean jaiki zitzaizkion eragozpenen aurrean. Gogoko zitzaion azterketa lana ta ortan ari izan zan aspertu gabe: asaben izkuntza jaso ta bitxitu, ona aren elburue-tatik bat. Etzala erretz? Ez, noski! Baiña ark aurrera beti, zoz-torartetik zapart egiñaz. Gure euskalkien matasa ikusten zuen, eta lenengotan bizkaierari buruz osotu zuen lanik geiena: itxor-kun eta etimolojiz, gramatika ta eskola-liburuz, eleder ta musika-kaz. .. Euskeraz ta euskeratzaz.

Ona bere idazlanen erreskada ez-oso bat:

1) *Etimologías euskéricas* (Bilbao, 1897). Azken aldean au-jartzen zuen: «G. E. T. E. J.». Barzelona'n ikasle zala idatzia.

2) *Gramática elemental del euskera bizkaino* (Barzelona, 1888). 200 orrialde. Liburu au ere, iru urte aurrerago, ikasle zala osotu zuen.

3) *Pliegos euskeráfilos* —I— (Barzelona, 1888). Euskal gaiak azaltzen ditu.

4) *Pliegos histórico-políticos* —I— (Bilbao, 1888). Gure erraza ta edesti-auziak adierazten dizkigu.

5) *Pliegos histórico-políticos* —II— (Bilbao, 1889). Urte onetan asi zan «La Abeja»-n idazten ere.

6) *Pliegos euskeralógicos* (Bilbao, 1892). Amorrortu'ren irarkolan. Ari itz-sustrai lez aztertzen digu, 150 itzen sorkuna ta artatik datozten 11 toki-izen emanik.

7) *Bizkaya por su independencia* (Bilbao, 1892). 138 orrialde. Amorrortu'ren etxean. Lendik ere, R. M. Azkue'k zuzendu zuen «La Abeja» (1889-1890) illerokoan, erdia lez beintzat, argitaratua. Bigarrenez ere (Bilbao, Verdes, 1932) atera zuten. 199 orrialde.

8) *Reglamento de Euzkeldun Batzokija aprobado en Junta General al 15 de Julio de 1894* (Bilbao, 1935).

9) *Discurso leído... en Larrazabal el 3 de junio de 1893* (Bilbao, 1919). *Hermes* aldizkarian.

10) *Bizkaitarra* (Bilbao, 1893-95). Bagillaren 8'an agertu zan aldizkari onen lenengo zenbakia; 32 azaldu ziran guztiz.

11) *Lecciones de ortografía del euzkera bizkaino* (Bilbao, 1896). Amorrortu'ren irarkolan. 305 orrialde. «300 urrezko orrialdedun liburua» deitu zioten bere garaian.

12) *Tratado etimológico de los apellidos euskéricos —I—* (Bilbao, 1897). 128 orrialde. Amorrortu'ren irarkolan. «Pizkundia»-k argitaldu zuen berriro (Bilbao, 1930). 198 orrialde.

13) *Umiaren lenengo aizkidea Bizkaiko euzkeraz irakurtzen ikasteko* (Bilbao, 1897). Amorrortu'renean. 80 orrialde.

14) *Egutegi bizkaitarra (Bizkai'ko lenengua) 1897 Bizkaitar batek iratzija. I Urlia* (Bilbao, 1896). Amorrortu'renean. 48 orrialde. Urrengo urtean (1898), *Lenengo egutegi bizkaitarra (ormarakua)* (Bilbao, 1897) argitaldu zuen. Amorrortu'renean. 366 orrialde. Sakelerakoaz gaiñera, ormarako au arduraz eta jakintsuki osotua dugu. Ederra bene-benetan.

15) *El Partido Carlista y los Fueros Vasco-nabarro* (Bilbao, 1897). Amorrortu'ren irarkolan. Liburuxka bi, polemika latzekoal<. Ementxe aziagotu zizkigun bere egoak; ordurarte Bizkaia zuen erein-alor. Euskalerrri guztia du oraiganik; eusko seme danai eskeintzen die bere lana. «Euzko itza bakarrik darabildan guztietan —dio— bai naparra, bai bizkaitarra, bai gipuzkoarra ta arabarra bere artzen ditut, guztiak baitira euzko enda bat-beraren seme-alabak».

16) *Baserritarra* (Bilbao, 1897). 18 zenbaki agertu ziran, 1897-5-2'an lenengoa ta urte bereko dagonillaren 29'an azkena. Au ere, *Bizkaitarra* lez, goitik ixil-azia izan zan. Karlatarrak *El Basco* egunerokoa zeukaten beren iritziak zabaltzeko; Arana'k bere aldetik, aiei erantzuteko, beste au sortu zuen.

17) *El Correo Vasco* (Bilbao, 1899). Bagillaren 4'an lenengo zenbakia. Auxe dugu lendabiziko abertzale egunerokoa, ta 103 aleraiño iritxi zan. Arana'k berak idatzi zuen, ia geiena. Zorrotz darabil luma, zirtolari bikain; doai berdiñik gutxigan daurkikezu.

18) *Euzkadi* (Bilbao, 1901). Iru-illabeteroko agerkaria —gero illabete biñakoa—, jakintzaz, elertiz eta edertiz ornitua, Arana il ostein ere, Eleizalde'tar Koldobika zuzendari zuela, luzaro jarraitua. Ementxe atera ziran Sabino'ren iru lan guztiz jakingarriak: a) *Euzko itzak zer esan nai duen*; b) *Análisis y Reforma de la numeración euzkérica*, ta d) *Análisis y Corrección del Pater Noster del Euzkera usual*.

19) *La Patria* (Bilbao, 1901), asterokoa. 1901-10-27'tik 1903-6-28'raiño, guztiz 88 zenbaki. Onen ondoren *Patria* (Bilbao, 1903). Etzuen onek ere bizi luzea izan; 1903-7-5'tik 1906-1-13'raiñokoa.

20) *Libe. Melodrama histórico* (Bilbao, 1903). Bizkairaz. «Jelalde» izen-ordez dator. Etxabe'tar Alfredo'k jarri zigun erderaz. Geroago, Manu Sota'k ere antzokirako egokitu zuen; Verdes-Atxirika'renean (Bilbao, 1934) argitaratua. 44-109 orrialde.

21) *Artículos publicados en la 1.^a época de «Euzkadi», revista de Ciencia, Bellas Artes y Letras de Bilbao, por Arana Goiti'tar Sabin* (Bilbao, 1908). Elexpuru Anaia irarkolan. 286 orrialde.

22) *Deun-ixendegi euskotarra edo deunen ixenak euskeratuta ta ixentzat ezarten diran jayetako ixenan euskerazko ikurpenák, Arana-Goiri'tar Sabin'ak asmaubak egutegi bizkaitarra-*

rentzat Eleizalde'tar Koldobika'k egindako itxaurre bategaz Eusko Alderdi Jeltzalia'ren Euskera'ren Bizkai Batzar Ordia'k argiraututa (Bilbao, 1910). 83 orrialde.

23) Jauna'ren Nekautzia, Deun-Matai'ren Goizparraren legez (Bilbao, 1915). «Euzkadi» aldizkarian dator, XII, 138'garren orrialdean, eta «Euzkerea»-n, 1930, I, 334'garrenean.

24) Olerkijak (Bilbao, 1919). IX-113 orrialde. Eleizalde'tar Koldobika'ren itzaurrea.

25) Arana-Goiri'tar Sabin'en Lan Osoak (Buenos Aires, 1965). Baiona'ko «Sabindiar-Batza»-k irarrita. 2.478 orrialde.

Amaitzeko, Arana'k ba-ditu oraindik, bera ilda gero argitara ekarriak; ona bi jakingarriak oso: *Clasificación del Verbo bizkaino*» ta «*La Semana Vasca*».

EUSKAL ERAGILLE TREBE.—Liburu-lerro onetatik dakusguenez, euskal erriaren zoria ezagutu zuenetik barruan kilikari zerraman erri-maitasunari esker, euskerari ere, era askotara gero, bultzada izugarria eman zion, dudarik gabe. Berak ikasi ez-ezik, ainbat kezkatu zizkigun griña berdiñakin, eta ondorenez aren irakaspenak aintzat artuaz mordoka jaiki ziran or-emen euskaltzale gartsu ta bizkorrak. Eguzkia ez dabil bakarrik.

Orduan ere ba-ziran, euskeratzaz, gaur ditugun larritasunak. Euskera Euskalerri osoko izkuntza genuen len, baiña aspalditik galdua dugu eusko lur sail aundietan; Naparroa'n, Araba'n eta beste erkietako eremu zabaletan. Nola berriro euskaldundu sail auek? Al dana ote? Baietz uste zuen Arana'k. Guk ere orrela uste dugu. Nai gotorra bear, besterik ez. Edestia lekuko, gauza miragarriak egin dituzte nazio batzuk beren izkuntzan buruz: or israeldarrak. Gu ez ote gara orrelako nai bipillaren jabe? Beste gauza askotan, bai, nai duguna aurrera eramaten dakigunak gara.

Auzi onetaz diardu abandotarrak bere *Lecciones de Ortografía* liburuan. Gaur mintzatzen diran izkelgiai indar ematea nai zuen, bat bera ere albora utzi gaberikan; gerora, alare, soilla

izan ditekena. «Iñoiz —idatzi zigun— Euskalerri osorako euskelgi orokor bat beariko ba'litz, izkelgi ori eratzeo astia izango genuke». Bakoitzak berea landu ta indartuaz, ba, egin ditekena zan Arana'rentzat gaur galduta dagon eskualdeetan ere euskera sartu ta kemenaztea. Ta erria euskaldun biurtzeko lana nainoz egin dezakeguna dugu: ez jarri atxaki ta akiakuillurik. Ainitz bide ta era ditugu ortarako: euskeraz ikasi, irakurri, idatzi, geronek eta geure aurtxoai etxean eta kalean euskeraz mintzatu, zer eta nolako izkera dan adierazi, umeak ikastoletara bialdu, euskal-gaietaz kezkatu, idazleak ugaritu, kultura osoa erriari euskeraz eskeiñi. Asmo zindoz jokatu ezkeron, edonoiz da garai egokia euskeraren alde lan egiteko. Ederki esan zuen A. Ibiñagabeitia'k: «Soin eta gogo gure euskerearen barne-muiñetan murgiltzekoa, edonun eta edonoiz, itzez eta idatziz gure euskeraren eder eta unak erakusteko» naiznoizko abagunea dugu eder.

Onan naiz alan, azke naiz lotuak, erri-maitasuna dugu naitaez euskera jagon eta indar-azteko bide bakarra. Arana'k argi esana: «Euzkera ilten ba'da, abertzalerik ez dalako izango da». Orobat zesan Orixe'k ere. Doe orrek eraginda, geure gogo, nortasun, izate ta abar, euskaldunok nor garan jakitera iritxi gara. Auxegatik edo, bear bada, gaur saraiñago zaigu bizia, nor garan eta zer galdu dugun gure asabak baiño obeki dakigu-ta. Ontan, ba, guk uste baiño geiago zor diogu Arana'ri; berau izan ezpalitz, ziur asko, ainbat gauza ta balio aintzagarri galduak genitun onezkero; euskera bera ere, ark erria zuzpértu ta Azkue'k eta Txomin Agirre'k —eta besteak— idatziz eutsi ta altxatu ezpalute, lurperatua bide genduen onezkero. Abandotarrak eman zien baitípat aurrerakada itzala euskal balio guztiai: berak ondo zekusana, kementsu aldeztu zuen: dialektiku ta iritzi eusle bikaiñenatarikoa izan zitzaigun.

EUSKALARI.—Euskalariak, gure izkerarien inguruan, sail asko ikutu izan dituzte. Zabalen, orraitio, gure abandotarrak jo-

katu zuela esatean, ez dugu uste geiegikeriren bat diogunik. Ba ote da, izan ere, euskeran ark ikutu gabeko arlo ta ertzik? Itz-erro, joskera, gramatika, egutegi, irakur-liburu, santutegi, izen-degi..., zertaz etzan ua aritu izan? Eta beti lojika latzari lotua ari izan ere. Aren lanetatik nabari danez, euskal gaiak barnetik ikasi ta arakatu zituen. Arana'ren euskalari bezelako lanik ederrera au duzu: *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino*. Idazti giar zeatza. Liburu ontan jarri zituen oiñarriak gizon guztiz eskolatu batenak ezin iñundik iñora ukatu. Gurean ezta, ez aurretik ez gero, euskal ortografiari buruz olako lanik burutv duenik.

Lan ederra zalarik, naiz-ta bost bat urte lenago euskal ortografiatzaz naikoa idatzia izan, etzan iñortxo ere ausartu ari kontra egiten. Azkue'k orraitio, bere «Proyecto de Ortografía» argitaratu zuenean, euskal idazkerari buruz bere iritzia azaldu zigun. Arana'k erantzun zion, lekeitiarraren ainbat aburu gezurturik. Azkue, izan ere, euskal gai askotan maixu izanik, idazkera, itz-sortze, izpierra ta fonetika auzian atzeraxe zebilldgun. Ortarako, Arana'k ziona, eize-zakur antzera berezkoa bear. Azkue'k etzuen orrelako senik; Arana-Goiri'k, bai, lekeitiar jakintsuak maiz aitortu zuenez (*Lecciones... Apéndice II*, 225 orr.).

Arana'k bere idazkera egotzi zuen mundura, makiña berria zirudiana. Ona ote? Or ezmezak. Ortara orduko, inguruko izkuntzai begira ere asko ikasi zuen gai ortan. Lenbiziko urratsa zan eta barnean ozka zebilkion ezpai ori ez zitzaion arritzekoa. Berak osotua zala-ta beste gaberikan, baiña, etzion gero iñori sar-erazi nai bere idazkera. «Idazkera au —zioan— iñori sartu nai diodala uste izatea tentelkeri galanta litzake, euskeraz idazten duten guztiak eder zaien erea artzeko, azke dira-ta». Eza-gutu zutenak dioenez, apala zan Arana.

Indarrez etzuen ezer eratsi nai. Jakintza barrutian errazoaia dugu agintzaiUe, ez besterik, eta ortografi-auzian epai arteza damakigunik ezta erriaren zentzuna baizik. «Euzkeldun erriari egokien deritzan idazkera izango da beste guztien gaiñetik ja-

rriko dana». Onela mintzatu zan Sabin. Jokabide zentzunezkoa, noski. Bedi guretzat ere eredu ark irakatsia. Berebiziko zentzuna izan oi duen erriak muziñ ba'dagigu, zer guk iritxiko? Euskeraren ondamendia, ziur asko. Ezetz diñoana itsurik dago.

Zer da izkuntza baten idaz-agaka edo alfabetua? Izkuntzak bere baitan dituen gramatika-otsak adierazteko darabilzkigun ikur edo ezaugarri mordoa. Euskerak eukiko zuen, iñondikan ere, lenagoko batean bere ikur-sail berezia; baiña galdua noski, ta etzaukan Arana'ren egunetan idaz-alfabetorik. Uts-une au betetzeko euskalari ta euskal idazle guztiak espaiñerazkoa ta frantsesezkoa zerabilten gizaldi luzeetan. Oartuak ziran uts orretaz, eta Larramendi, Mogel, Aita Arana, Kanpion eta abar, atzeritar ots eta ezaugarri oietatik gure izkuntza garbitu nairik saiatuak genitun.

ORTOGRAFI-ARAUAK.—Arana'k, euskeraren idaz-oiñarriak ermotu nairik, Bizkaiko idazle zarrik onenak erabillitako ezaugarriak aztertu ta sailkatzeari eman zion lendabzi. Idazleok ziran: Kapanaga, Mogel, Añibarro, Pedro Astarloa, Prai Bartolome, Elgezabal, Olaetxe ta Uriarte. Aurretikoen iritziak indar aundia zeukan beretzat, «Aurretik daukaguzan gaiak ontzat artu bear doguz —dio—, eta ez dogu era barririk sortu bear aurrekoak markets, urri ta errenak dirala ikusi arte; era naiz sistema barri bat, bada, argarri dogu aurretiko etenak eta obenak zuzentzen datorrenean».

Idazle zarrok erabilli zituzten ots-ezaugarriak ikasi, aztertu ta banandu ostean, berari zuzen egokiena iruditu zitzaiona eman zigun bere *Lecciones* liburuxkan. Otsak eta ezaugarriak zer diran eta bakoitzari euskal idazkeran zer dagokion, ezin ederkiago aitzen eman zigun. Auzitan sartutako ots-ikurrak, auek ziran: *c* (ka), biguiña, tarteko *u* gabe; *ts*, *tz*, *tx*, *d*, *t*, *I*, *ñ*, ta *rr*. Auek artu zituen ontzat: *a*, *g*, *k*, *y*, *x*, *au*, *ai*; *e*, *d*, *t*, *ts*, *tz*, *tx*, *3*., *t*, *eu*, *ei*; *o*, *I*, *n*, *1*, *ñ*, *oi*; *u*, *r*, *r*, *s*, *z*, *ui*; *i*, *b*, *p*, *m*. Eta gutxiago erabilten diranok: *h*, *gh*, *c*, *s*, *f*, *v*, *H* au ezta Bizkaikoa; *gh*,

Markiña aldeko *j* da; *c* (*z*), itz erroetan gogoan artu bear dugu-na; *s*, *s* gogorra duzu; *f*. Arratia'n erabilten da, ta *p* endekatua besterik ez duzu; *v*, Orozko'n erabilia da, ta au ere *b* endekatua duzu iñolaz ere. Berrogei ots auetatik, amaika bokalak dira: *a*., *e*, *o*, *u*, *i*; *au*, *eu*, *ai*, *ei*, *oi*, *ui*, bikoitzak. Beste ogeta bederatzia, lagunduak edo konsonanteak dira.

Izki ta' otsok, gutxiago erabillitako seirak ezik, oso-osoan onartu zitun Euskaltzaindiak ere, 1920-1-8'an Bilbao'n euki zuen batzarrean, ain zuzen. Egun artako agiriak onela dio: «Idazkeratzaz yardun zan.geroxe. Eztabaida barik, izki-ikur aunitz egokietsi ziran. Bakar bat astiroago begiratu izan zan, «s» bustiari (eliztian esan oi dan bidez) dagokiona. Autarkitara yo-ta (autarki batzuk aurka zeudelarik), izki aren ikurtzat «x» autetsi zan. Beraz, Euskaltzaindia'k beretzakotu duan euskal abeze auxe da: *a*, *e*, *i*, *o*, *u*, *ü* (sudur-aboskientzat, euskalkiren baten bear balira, izki orien gaiñean marra txiki bat jarri), *b*, *d*, *d*, *f*, *g*, *h*, *i*, *k*, *1*, *ll*, *m*, *n*, *ñ*, *p*, *r*, *rr*, *s*, *x*, *t*, *tt*, *ts*, *tx*, *tz*, *y*, *z*. Euskaltzaindia'k gure izkerazko idazle guztiei eskatzen die, arren, ahal dalarik beintzat, idazkera auxe, ta besterik ez, erabili dagie-la» {Eusker, 1919-1920, 64 orr.}. Abeze au gaur euskalki guztietara edatua dago. Lau gangardunak —*d*, *tt*, *ll*, *ta rr*—, alare, ikusi dituzte berenak eta bost. Erriak ba-darabiltza, ta Arana erri-zale amorratua genduan. Gaur dan egunean, irarkoletan zoztorrak jartzen dituztela-ta, baztertu egin ditugu, beste *dd*, *tt*, *ll* *ta rr* bitxiok arturik. Gogo zintzoz jokatu ba'gendu, baiña, onezkero irarkola danak zeuzkaten irarki oiek. Gaur ba-ditugu Arana baiño jaldntsuagoak ere ta oek diotenez politagoajk dira arrotzok ark asmatuak baiño. Egia ote?

Orixe zurrak, *rr*'ri buruz, idatzi zuen zerbait. Toki askotan *r* bikoitza *s* biurtzen omen da; *r* bakarra luzatuz, *s* biurtu: *perro*, *pesso* noski. Ta luzatze au ezta gatzel-erderakoa bakarrik, euskeraz ere, Naparroa'n baitik bat, *r* ori *s* biurtzea arrunta dugu. «Orra or —dio ark'— *r*'tik *s* etorri. Arana-Goiri'k au jakin izan ba'lu, arrazoi au agertu zuen bere *r* bakarraren alde, gangarra

gaiñean dula. Jakinkizun utsari begiratu ezkerro, bi rr zaleek ez dute ezeren arrazoirik, «olako errik au egiten dula, gure zarrek ola egiten zutela» besterik. Edozer auzitan jakintsueri jara eman bear ba'zaie, jakintsuek *r* bakarraren alde atera dira. Fonetika gaiez mintzo diran artarako Revista guziek *r* indartsua egiteko *r* bakarra derabilte, gaiñean Sabiñenaren antzeko gangar batekin. Erri guzietako jakintsuek ortografi bakarra asmatu dute, bakoitzaren errikoarekin ongi ez ba'dator ere. Sala bedi nai duna *r* bakarra luzatzen, indarrrik egin gabe, ta *s* entzungo du» (*Gernika*, 1952, 170 orr.).

Gorago oar-azi dugunez, Arana'k Bizkai'rako bakarrik osotu zuen «Lecciones» dalakoan datorren idaskera. Alare, Euskal-erri danerako gogo zuen. «Euzkerak ez du —zioan— idaz-al-fabetu berezirik. Ditekena da bizirik edo illik nunbait izatea; baiña gaurkoz beintzat eztu iñork ezagutzen. Ai, ezagutuko ba'genu! Egi-egiaz au idazten duena ez litzateke atzenengo izango ua oso-osorik artuko lukena». Eta guenez euskera osoari, izkelgi berezi gabe, ezarri gura zion, ez berea gero, izkelgi bakoitzari begira egiña baizik: batasunerako bidean alegiñak erre beiñik-bein.

Arana'ren idazkerak, Euskaltzaindia testigu, arrera txeratsua izan zuen Euskal-erri guztian. Orduko idazle ta agerkariak aren esan-gurarira makurtu ziran beingoan, ederra ta lojikazkoa zalako batez ere. Bilbao'n baita izan zan —gauzak maiz beren ardatzetik atera oi ditugu-ta— «sabindar eskola», maixu aundia-
ren irakatsiak estuegi aurrera eramane zizkiguna. Gaur egunean, erruki izpirik gabe, naikoa arri bota diote eskola orri —edo batetek badaki zeri—; adar utsari maiz, bat-ere susterrera jo gabe. Maixuaren irakatsiak zeatz meatz eramate orrek, alare, mesede izugarria ekarri dio euskerari, Orixe'k esan oi zuenez.

ITZ BERRIGILLE.—Izkuntza batetik bestera alde aundia dago itz berrien arazoan: batzuk, gerkerak, doitxerak eta euskerak, esaterako, erreztasun aundia dute itz berriak naiz alkartuak era-

tzeko; latina erro dutenak, aldiz, eztute ezagutzen ainbesteko erreztasunik. Zer dira, baiña, itz berriak? Izkuntzaren gunetik oraintsu ateratako itzak. Gure izkuntzak ba-du ortan bere gaitasuna, zein berriak sortzeko zein bi itz alkarturik irugarren bat, egokia, eratu al izateko.

Nola sortu ziran itzak? Eta izkuntzak? Ez dakigu. Alere izkuntzetan dauzkagun itzak eta izkiak: txit zarrak dira. Asko, gaiñera, galdu egin dira, ta beste batzuk, urteen indarrez, zaartu egin zaizkigu. Arana-Goiri'k, gauza batzuetarako batez ere euskeraren urritasuna ikusirik, eta beste aldetik, urteak joan urteak etorri, sail askotxo erdel kutsuzko itzez josita daudela oarturik, berriak sortzeari ekin zion. Itz asko gaur zabal dabilztanak. Abandotarrak, izan ere, sen eta doai berezia zuen itz berriak asmatzeko: oraindik ez da iñor aren parera eldu barruti ontan.

«Lecciones» deritzan liburuan, bi Egutegietan eta len aipatu ditugun beste lan batzuetan itz berri mordoak datoz. Adibidez: «zenbat-ki», «abixen (aba-ixen), «aberi» (aba-erri), «abertzale» (aberi-zale), «eresti» (eres-ti), «ereserki» (eres-erti), «abes» (abo-eres), «abestu» (abo-erestu), «abesti» (abes-ti), «izkelgi» (izkera-ki), «batzoki» (batz-oki), «Goteun» (Gogo Deun), «edesti» (edes-ti), «olerti» (olde-erti), «idatzi» (atzi-erazi) ta abar. Arin egokiak dira geienean ark asmautako itzak, euskal izkuntzaren arimatik jalki-eraziak. Beste batzuk ere ibilliak dituzu soro ori landu naiean, Larramendi, Azkue, Aita Arriandiaga, esate baterako; baiña etzuten ortarako bear dan senik. Azkue'k nai izan zuen olako zerbait egin, baiña ezin; atsegin zitzaizkion bestaldetik Arana'k sorturikoak, eta bere Iztegi nagusian geigarri lez edo sartzeko, ari eskatu ere egin zizkion. Onela dio Iztegiaren itzaurrean: «Pedí para esta obra su colección al malogrado vascófilo Arana-Goiri» (XVIII).

Ala-bearrezkoa zan itzok sortzea. Ingurumariko izkuntzak etzeuden gibelera begira; euskera, bere ixil-zuloan irautekotan, laster zan betikoz itzalia. Auzokoen einan egokitu bearra zuen, edozer gaitarako itz berriak asmatu, zarrak piztu ta alkartuzkoak

eraturik. Etzan eziñik, gure izkera ortan aberatsa baita. Aurretikoak egin etzutena, beraz, geuk egin bear, jakintza gaiez eta euskal mordollo gabe jokatu nai zuten idazleak zeri oratu euki zezaten. Sabin'i millesker, gaur ez daukagu edozein sailli oratzeko ere olako eragozpenik.

Itz bat nundik datorren edo nola sortua dan igarteko eta berri bat lengoen tankerara asmatu ta osatzeko, berezko sena bear dugula, ezin dezake iñork ukatu. Gure aurretikoak —erriak naiz jakintsuak—' bazuten sen ori zerbait kozkondua. Begira euskal itz zar-zarro: «aizkora», «aitzur», «aizto», «arbel», «azpil» ta besteak. Eta toki-izenak? Gure asabentzat etzuen euskerak iñondiko ezkuturik. Eta oraingoan eztu gure artean iñork izan Arana'k aiñako trebetasunik euskal itz berriak asmatzen, Fonetika legeak zekizkilako labur txairoak dira ark sortutako itz berriak, euskal kutsua dariotenak.

Arana'k, bere ikasketak osatzerakoan, linguistikaz ere ondo jabetu zitzaigun antza danez, eta izkel-jakintzari dagozkion lege-arauak euskerari ezarririk, lan jakingarria burutu zuen. Itz ba-koitzaren jatorria, adierazpena —esan-naia— ta otsa —doiñua— sakonkiro artuak zitun. Itzak oro bi gai edo zati dituzte bear-bearrez: *adiera* (esan-naia) ta *erea* (azal-irudia). Adiera, zelan-bait esan, amasa, gogoa da, itza eratzen duena; era edo itxura, ordea, gai eratua. Adiera ideia duzu, sorkariaren irarpena adimeneari; era, ordea, ideiaren soin-adierazpena. Esan-naia, beraz, gauzaren ikur edo ezaugarria duzu; era —forma— ideia edo gogaiaren ezaugarria. Esan-naia adimenari dagokio, era berriaz gorputz-zentzunai dagokie. Erea bitan zatitzen da: *otsa* ta *idatzia*. Otsa belarriak artzen dute; idatzia, oster, zentzun artzailleak, ots, begiak eta ikumenak. Izkuntzarentzat naiezkoa da otsa; idatzia, ez. Otsa ba-daukagu euskeraz; idatzi berezirik ez, ordea. Antziña batean, ale ere, izango genun, txiñarrak, ger-karrak, godotarrak eta besteak bezela.

Gai ontan txit eskolatua zan-eta, Arana'k sortu zituen itzik geienak egoki, labur ta doiñutsuak dituzu. Ta, esan dugu, erri-

kutsuz eta senez asmatuak zeudelako igarri gabe artu zituen euskal erriak. Eundaka dira olakoak. Adibidez, nork ez du eza-gutzen gaur *aintza*? Len *gloria* esaten zana, gaur liturji ta zer guztietan *aintza* esan eta idazten dugu. Zer adierazten ote? Itza-ren otsa ba-dakigu zein dan, mingaiña aurreko ortz-ondoan eza-rririk ematen dioguna. Nola da eratua? *Ain-tza*, *ain* du lenengo zatia, *tza* bigarrena; *ain* eder, *ain* polit, esan oi dugu. Jaungoikoa, ordea, eder, aundi, jakitun, indartsu da, ta *aintza* esatean, Ark ditun gaitasun guztiok dakarzkigu gogotara. *Ain* itz-atala ba-zan lendik, baita *tza* atzizkia ere. Ta Arana'k *aintza* asmatu zigun *gloria* esateko. Ta tankera ortan beste guztiak.

Modu askotakoak izan ziran abandotarrak aztertu, asmatu ta eratutako itzak eta izenak. Baita euskal izenak eta abizenak ere. Eta Santuen izendegiari oratu zion, zurtasun ernez oratu ere. Ari zor diogu geroztik naikoa zabal dabilkigun Deun-izen-degia: izen-mordo batek euskeran du sustraia; beste mordo batek enparau izkuntzetatik artu ta euskal fonetikaz orniturik sail-la osatzen dute. Lan eder au, lendabizi, geroago liburuxkaetan argitara emana, esan dugunez, ormarako gertau zuen Egutegian argitaldua dugu. Errian uneraiño sarturik daukagu gaur. Euskerazko ainitz izen ditugu orain, gizonezkoenak eta emakumezkoenak, errialde guztietan ain zuzen ere, Arana'k euskal erroari jarraituz sortuak noski. Nork ez ditu egunero aditzen: Igo (Igone), Iker (Ikerne), Aintza (Aintzane), Iru (Iruñe), Alatz (Alazne), Garbi (Garbiñe), Gotzon (Gotzone), Josu (Josune), Iñaki (Iñake), Kepa (Kepe), Jon (Jone), Imanol (Imalone), Luken (Lukene), Joseba (Josebe). Eleizalde'k ederki idatzi zuen gai ontaz *Deun-Ixendegi euzkotarra* deritzan lanean.

Eusko abizenai begira, ordea, lan bikaiña osotu nai zuen arren, ezin izan zuen amaira eraman, gazterik il zalako. «Tratado etimológico de los Apellidos Vascos»-ek iru zati eukiko zitun; ona lenengoaren laburpena: 1) *Clasificación de los apellidos euskéricos*; 2) *Evoluciones de los apellidos euskéricos*; 3) *Legitimidad de los apellidos euskéricos*; 4) *Los apellidos eus-*

kéricos respecto al tiempo; 5) *Los apellidos euskéricos*; 6) *Ortografía de los apellidos euskéricos*, eta 7) *De la firma del euskeriano*. Auetatik bi atalño besterik etzitun bukatu; beste lan-sail osoa amaitzeke gelditu zan, eta iñortxo ere ezta arrezkero ari oratzen ausartu.

Abizen edo deitura auzi au beti ere txit garrantzitsua izan da gurean. Eta aurretik ere ba-ziran olako zerbait egin zutenak. Josef Frantzisko Irigoien'ek «Colección Alfabética de los Apellidos Bascongados con sus Significados» idatzi zuen, eta A. Federiko Pott doixtarak «Sobre los Apellidos Bascongados». Ordutik ona, baike, ugari erabillia dugu gai au. Baiña lanik sakonena, gaur ere, Sabino'k egiña dugu.

EUSKAL IDAZLE.—Aldatz gorako lana, egitan, euskaldun berri batek euskeraren joskeraz jabetu ta bere gogoetak arin ta txairo idazkortz puntaz ematea. Izan ditugu olakoak, baita gaur ere: A. Olabide ta Txilardegi baitik bat, beste askoren artean. Olako guztien maixu, alabaiña, Arana-Goiri izan genduan. Umetatik euskeraz etzekiala, amasei-amazazpi urteko zala, ikasi egin zuen. Ark bai naimena! Guk, ordea, mingaiñez adierazo oi dugu dakiguna ta geiago, gauzak itxulaztu ta gaitz-bidez emanik. Abandotarra egiazko bidetik ibilli zan aldioro. Erderaz osatu zizkigun lanik geienak, baiña berak diosku bost aldiz gaitz egiten zitzaiola erderaz ari bearra, ta ortan ba'ziarduen ere, euzkotarrak ulertu zezaioten egiten zuela, ez bere gogoz. Euskal ortografiaren azalpenak, bere oldez, euskeraz emango zizkigun.

Itzez ezta gizona neurtzen, egitez baizik. Au egiztatzeko ere, Arana'k euskera utsean ondu zituen lan auek: «Egutegi bizkaitarra», sakelerakoa, «Umiaren lenengo aizkidia», «Lenengo Egutegi Bizkaitarra», ormarakoa: berton datoz euskal izenak ere, geroago «Ixendegi Euzkotarra» izenez, ua ilda gero, argitara ekarria noski. Emen azaldu zitun «Olerkijak», eta «Libe» antzerkia, berdintsu, euskeraz zeuden. «Libe» ez dugu euskeraz

ezagutzen, baiña berak dio erderaz egin zuen itzulpenean euskerazkoa erderaz jartzen duela. Lan guztiok gizon landuarenak dirudite.

Beioa emen, merezi du-ta, ormarako Egutegian jarri zuen agurra. Onela dio: «Agur! Bigarren aldiz eltzen naz zeure eskubetara, irakurle maitia; baiña orain orma baten esegi nagijentzako gerturik natorke. Igaz era bat bakarrik neukan; aurtan bi daukadaz: bijok, bizkaitar zinduren eskubetarako; baiña bata, igazkua lakoxia, sakelean sartzekua; beste au, ormean ezartzekua. Baiña egija da, era bi orrek eukitiarren, nik itz-egiten dautzudana itz bat utsik dala, sortzen daun gogua bat dalako: gogo *Jaun-Goikua eta Lagi-Zarra'ren* zalia. Onek maitetan badozuz, neu be maiteko nauzu. Bestelan, uretara jaurti nagixu, gotzaiztozale ala arrotzaliaren eskubetan eztodalako nik ibilli gura. Abertzalia naz. Bizkaya da nire aberrija; et bere anayak, Araba, Gipuzkoa, Laburdi, Nabarra, Zuberoa ta Benabarra. Eta bere Jaun-Goikua».

OLERKARI?—Olerki-pilloa ondu zuen Arana'k, bere biotz saminduari askatasun pixkat emanez. Aurreko urteetan J. P. Rizal'ek eta geroago Mao-Tse-tung'ek egin zuten bezela noski. Ba-zekin, gaiñera, olerkia kantuari lotua zebillela ta eio zituen geienak erri kantu barnean moldatu zitun, au da, erriak abes-tuteko eran borobildu zizkigun. Zer abestu zuen? Gauza jakin bat ia beti: bere aberria. Etzan bere poesia errazoi gabeko ta astun, irudimenaren saio uts. Egi batek aragitutako olerkia nai zigun, ta egi ori erria zan.

Bereak ditu auek, «Olerkijak» liburuan datozten erara noski' I. Bost *ereserki*: 1) «Oñaz-Loyola eta Likona'tar Iñaki, Bizkaya'ren Zaindari deunari Bizkaitarrak», 1895'an egiña; 2) Oñaz-Loyola eta Likona'tar Iñaki, Gipuzkoa'ren Zaindari deunari Gipuzkoarrak»; 3) «Agur, Jaunan Ama» (*Ave, maris stella* euskeraz); 4) «Jai andi onetan (*Sacris solemnibus* euskeraz), ta 5) «Euzko-Abendaren Ereserkija». II. Zortzi *illots*: 1) «Gaurik baltze-

na»; 2) «Ene Ama!»; 3) «Oraingo Bizkai-bizkarrak», 1896'an egiña; 4) «Mendiko negarra», 1896'an ondua; 5) «Abertzale baten negarra»; 6) «Otseña zara»; 7) «Lenago ili», Bilbao'ko espetxean 1895'an egiña; 8) «Ene Aberrija!». III. Amazortzi *abesti*: 1) «Begoña'ko Ixar zerutarrari», 1895'an egiña; 2) «Ama goikuari», Gounod'en *Ave Maria* lez abesten da, ta lendabizi Sukarrieta'n, Abiña'ko Andoni deunaren eleizatxoan abestu zan, 1896'ko urtarrillean; 3) «Andera Miren garbijari»; 4) «Josu'ren Bijotzari Abestija»; 5) «Gabona»; 6) «Goxeko Ixarra»; 7) «Itxarkundia», goiz-abestia, 1896'an egiña; 8) «Ederra zara»; 9) «Ai, Mikel!»; 10) «Bizkaitarrak gara!»; 11) «Ken!»; 12) «Ai, Kepandon!»; 13) «Urkiola'ko bidian»; 14) «Boga, boga»; 15) «Abertzale ezkondua espetxian», 1902-6-3'an egiña; 16) «Ziñesmena!»; 17) «Astarloa'tar Paul-Kepa'ri», ta 18) «Didar bat aditu da».

Eleizalde'k onela itz-aurrean: «Goititar dabil beti, arranca egaz bezela, olerkari bikain aunen oldozkuna. Lurreko zirtzilkerietan ez dozu inoiz idoroko. Bere askua (kemena) orrelakoxea izan zan, eta asku ori egikunetan igarri bear, nai ala ez». Mamiñera jo ezkeru, guztiz sentikorrak ditu batzuk, illotsetatik «Mendiko negarra» bereziki. Eta ereserkietatik «Abendarena» ba'liteke, izki ta doiñu, munduko ederrenetarikoa izatea.

Azalari gagozkiola, etzuen ark rimarik nai. Ta, ain zuzen, bera izan zitzaigun lenengoa bertso zuritan idazten; alare, kantatzeko ziran ezkeru, rimaz osotu zituen geienak. Olerkiak neurtzeko ta, ark jarri zizkigun legeak darabilzkigu gaur ere. Itz bitan: Arana'ren olerkia giarra duzu indar aundikoa, biotz-odoltsuz gaiñezka egiña. Aldiz ari da latz, barru loak artuak esnatu nairik; aldiz xamur, kilikari, egarbera zebiltzan euskaldun urduriak atxiki gura-ta.

IRITZIAK.—Euskalerrria goi-goira jaso naiean, ertz askori ikutu zion Arana'k. Ez da, beraz, arrigarri utsak izatea. Auts-arrotze ikaragarria ikusi zuten aren egunak, ekaitza noski dena era-

man bear zuena. Aren jo bearrak, ba, naitaez euki bear akatsak eta utsak, etsaiak sortzeraiñokoak euki ere. Irakur bi aldetakoen aburuak.

Onela M. Zarate'k: «Utsak uts, bultzakada itzala emon eutson Aranak gure euskal literatureari; igongura andi bat emon eutson, euskera gorengo maillara jasoteko gogo bizi bat» {*Bizkaiko euskal Idazleak*, 117 orr.).

L. Mitxelena'k: «Besteak beste, lehen egin izan dena egiña dago, naiz gaizki egiña iduritu guri; lehen esana esana dago, oker esana dagoela baderitzagu ere. Ez gaitezen beti, ainbeste aldiz egin dugunez, uts, utsetik abia: lur landuan, naiz eta erdizka eta ezkax landuan, aisago ereingo dugu erein bear dugun azi berria» (Etxepare, *Olerkiak*, itzaurrean, 14 orr.).

N. Ormaetxea'k: «Arana gabe edo Arana'z leku ari izanak eta ari direnak badituzu, baino aren aldekoak naiz aitzikoak, naiz bitartekoak, naiz Arana-kukuak, ua dute eragile nola edo ala» (*Euskal-literaturaren edesti edo atze laburra*, Euskal Esnalea, 1927, 246 orr.).

Ibon Sarasola'k: «XIX-gn. mendeko azken urtetan, espiritu berri bat sortzen da euskaldungoari buruz eta, beraz, euskal literaturaz. Mugimendu hau, euskerari dagokionez, ez zen hasieran homogéneo izan, zenbait joeraz osatua baizik. Baina Julio Urkijok eta R. M. Azkuek proposatzen zuten soluziobide gehiago edo gutiago moderatuari, Arana-Goiriren joera guztiz garbizalea nagusitu zitzaion. Gertakaria bonen sustraia argi dago. Arana izan zen euskerari buruzko joera ideología politiko oso eta koherente baten barnean sartu zuen bakarra, euskal problema osoari soluzio orotar eta klar bat eman zion bakarra» (*Euskal Literaturaren Historia*, 50 orr.).

Zabala-Arana'tar J.-ek bein, euskerazko zenbakeraz idatzi zuenean, Arana-Goiri'k onetzaz zuen iritzia aztertuz, dio: «Abetan bere adimen zolia, sokun aundikoa, erakutsi zuan. Itxorkunak, ordea, egizkoak ote, Geyenak beintzat egi-antz aundia duten arren, egizkoak diranik ez nuke esango; gaya zail-

zalla bai-da, ta egi utsa arkitzen gaitz. Ortarako, aitatzen dituan aldakuntzak gertatu diranetz yakin bear; eta ori yakiteko nai ta naiezkoak diran antxiñako euskeraren aztarrenik ez degu, zorritzarrez. Aztarrenok iñoiz agertuko al dira!» (RIEV, 1928, XIX, 584 orr.).

Armendaritz'ek: «Dakikegunez, politikan ere hain sonatu izan zen gizon honek, euskararen arloan ere lan haundiak egin zituen. Haren eraginez, euskal estudioak ardura handiagoz hasi ziran hartzen; eta zeduzkan garbizale iritziak, oro bar, guretzat gaur egun zuzenak ez badira ere, ezin uka diezaiokeguna inondik ere, euskarari bestelako indar bat eman zionik, onerako gehienbat» (*Anaitasuna*, 1973, 261'garren zenbakia, 7 orr.).

* * *

Zail duzu, alegia, dena berriztu naiean utsik ez jaukitzea. Guk, iru gizaldi-erdi geroagotik, errezagoko dakuskegu aren lana, eder ta akats. Gutxi bizi izan zan, damurik; eta geienez gazetetan egiñiko lan asko arteztu egin oi ditugu, zerbait beintzat, garerdiko garanean. Aldiak asko erakusten, eta ark ere ez ote zukean aldaketarik egin izango, bizitza luzeagoa izan ba'lu? Lojika zalea zan oso, baita apala ere, ta ba-zekian iñoren iritzia aintzat artzen. Aren ondorengo batzuk —maixu zaleegiak noski— aurreregi eraman zituzten gaur uts derizkiegun zer batzuk. Baiña Sabino'ren lanari, zein politikan zein euskal arloan, etzaiagu errez akats esatekorik idorotzea. Esan dugu: naiko idatzi zuen euskeraz, bertsoz ta itz lauz, ta idatzi oiek ere ildo berriak iriki zituzten euskal literaturan. Baita aren eraso ta eragiñak, euskal idazle mordo bizkorra sortu ere. Gogora Lizardi'ren «Gure mintzo» olerkia, Arana-Goiri'ren oroiz ta eskarrez idatzia (*Biotz-begietan*, Bilbao, 1932, 162 orr.).

(Ikus K. Jemeín ta Lanbarri, *Biografía de Arana-Goiri'tar Sabin*, Bilbao, 1935; R. M. Azkue, *Morfología*, 295 orr.; M. García Venero, *Historia del Nacionalismo vasco*, Madrid, 1945, 230 orr.; A. Kanpion,

Hermes, Bilbao, 1919, azilla; P. Basaldua, *El Libertador vasco Sabino Arana y Gairi*, «Ekin», Buenos Aires; S. Onaindia, MEOE, 621 orr.; L. Mitxelena, HLV, 143 orr.; L. Villasante, HLV, 285 orr.; Kamara-ka (Solaun), *Alderdi*, 1962; P. Lafitte, *Sabin Arana Gairi: sa vie, son oeuvre, son influence*, «Gure Herria», 1966, 3, 145 orr.; M. Llano Gorostiza, *Azcue, Unamuno, Arana Gairi y el vascuence*, Bilbao, «El Correo Español-El Pueblo Vasco», 1957-1-6, 8, 9 ta 10; M. Zarate, *Bizkaiko euskal idazleak*, 114 orr.; I. Sarasola, *Euskal Literaturaren Historia*, Donosti, 1971, 49 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 95 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, I, 216 orr.).

15.—IJINIO GORROTXATEGI ALBERDI (1866-1939)

Aita karmeldarra. Berriz gizon ospetsuen erritxoan jaioa, 1866-1-11'an. Gaztaroan eziketa ona izan zuen. Eta gero, gauzak me ta indartsu jaurri oi ditun Jaunaren arnaspean, bizi-zertzelada pitiñenak izaten dira sarri gure giza-izatea onako edo alako bizi-moldera egokitzen dutenak. Dana dala, Ijinio gazteak goitar deia somatu zuen bere kautan. Eta ortarako latin ikasten asi zan: ba-zuen aukerarik errian bertan ere; Jose Maria Bastera, parroku jauna, eta Sebastian Gabiola maixua. Berriz'en bertan zeukaten auek gramatika, latin eta onakoak irakasten ziztuzten eskola. Inguruko errietatik, eta Gipuzkoa'tik, zetozten ikasleak parrastaka.

Nola etorri ote zitzaion Gorrotxategi gazteari goi-deia? Bizi-zertzeladak eragin aundia dutela aitortu dugu, ta alaxe da. Ospe itzaleko zebiltzan orduan, sermolari batez ere, karmeldar kapa zuridun bi, Aite Errapeil eta Aite Juan, beste batzuekin naste. Aien barne-indarrak eraginda artu ote zuen Karmen'era-ko bidea? Daitekena da. Orrelaxe egiñak ditugu beintzat beste batzuk ere: Juan Bizente Zengotita (1862-1943), Pedro Martin Gorrotxategi 18561926), Juan Uribarri (1860), J. Leandro Arginzonitz (1863), Julian Ariznabarreta (1864-1946), Benanzio Berasaluze (1864-1936), Jazinto Artalarrea (1863-1944), Niko-

medes Mendizabal (1869-1939), Frantzisko Artalarrea (1872-1936), Benanzio Arana (1874-1961), ta onen anai Bizente Arana Vijayapuram'en lenengo gotzai izana eta abar. Danok karmeldarrak.

Augatik edo origatik, gure berriztar gazteak karmeldar izan naia erakutsi zuen, eta goiz argitsu baten, 1882-1-20'an, Larra'ko aztetxera eldu ta Karmengo Amaren jantzia artu zigun. Gaur lako kezka ta duda-muda gaberikan, ementxe eskeiñi zion betiko jantzi zuridun Amari bere burua. Eta karmeldar legeak eskatzen zituzten eliz-ikasketak Burgos'en eta Markiña'n burutu zitunean, 1888-1-30'an mezakotu zan. Arrezkero bere bizitzaren egunik geienak Markiña'n igaro zitun.

Izlari errimean, erririk erri ibilli zitzaigun, aspertu barik ibilli ere. Beronen itzaldi moltzo bat ba-da Markiña'ko lekaretxean.

Markiña'n bertan azken arnasa eman zuen, 1939-1-13'an.

16.—BUSTINTZA'TAR EBAISTA (1866-1929)

Euskal literaturan «Kirikiño» goitizenez dugu ezagun. X. Gereño'k: «Zorionekoak, eurak mundu ontatik joanda gero, euren atzean zeozer ixten dabenak. Kirikiño'k bai itxi ebala itzal ederra mundu ontatik joanda... Kirikiño bizkaitarra zan. Bera izan bear da gutzat ejenplu. Bere bidea jarraitu bear dogu. Euskeraren bear izana daukagu Bizkaia'n. Euskera galtzen badogu, gure erriaren espiritua galdu egingo dogu. Euskera ez da gutzat izkuntza bat, bestelako izkuntza bat. Euskera da gure arima ta iñork, ezta munduko urre guztiagaitik, eztau bere arima saldu bear» (*Zeruko Argia*, 1966, urrillak 23, 1 orr.).

BIZITZ-OSTOAK.—Mugarra ta Untzillaitz bitarteko erri lerdan Mañari'n jaioa dugu Bustintza eta Lasuen'dar Ebaista, «Kirikiño», 1866-10-26'an. Bere gurasoak: Karlos ta Juliana. Munduratu ta bertatik bataio-urez kristautu zuten, Migel za-

patari deitua ta Josepa Iragorritza aita-amabitxi zitularik. Urkiola'tik beera gatoztela, erriaren erdian, ezkerretara daukazu Etxanoa, Kirikiño'ren jaiotetxe jaikia; gerora, Ebaista zazpi urteko zala, etxe au utzi ta zerbait goraxeago dagon «Zumelaga»-ra aldatu zitzaizun Bustintza sendia, etxe au erosi bait zuen aitak.

Erriko eskolan ikasi zuen lenengo, ta gero Durango'n: buru argiko zetorren. 1878'an Almansa (Albazete)'ra aldatu zan Bustintza sendi osoa, aitak bada an zeuzkan lendik ere anai bat apaiz eta arreba bat ezkondata. Kirikiño'k emen osotu zitun urrengo ikasketak, batxiller eta abar, gai guztietan gorenengo ikas-notak iritxirik. Amazazpi urtekin, ordea, Madrid'era joan zitzaizun Bideetako Ingeniero ikasteko asmoz, baiña karrera au utzi ta Jakintza ikastolan burutu zitun orduko ikas-saillak, 1891-6-17'an Fisika ta Matematiketan lizenziatu titulua lortuaz. Andik laster Siguenza'n dago, aintziñako Ikastetxe nagusi artan Elizak zeukan irakastegian Matematikak batez ere erakusten.

Madrid'en ikasteak egin zitun bitartean Aita Marin prantesaren etxean egon zan ostatur, beste zazpi ikasle lagunekin, auen artekoa zalarik Migel Primo de Rivera ere; baita bertan ezagutu zuen Martzelo Torrontegi, euskaltzale zintzoa: auxe zuen geienik txango-lagun, eta bion arteko autu ta izketa-gai: euskera. Orrela, euskal garra sortu zitzaion gaztetatik. Euskal arloan lan egin nai zigun, eta 1899'rantza, Siguenza'ri agur egiñik, Bilbao'ra etorri zitzaigun. Arrezkero guztian berton bizi izan zan, euskal gaiak korapillo sendoz lotu ta ekiñaz. Gran Via'n zegoen Montellano'ko Miña-Alkartasun bateko diru-goraberak eraman zitun arren, euskerari eskeiñi zion bere bizitzaldi osoa.

Erbeste zear zebilelarik ere borbor zeraman euskal lapikoa beroagotu egin zitzaion Bilboratzean. Azkue zanak bertatik artu zuen lagxmgarri bezela *Euskaltzale* aldizkarian; ementxe agertzen da Kirikiño'ren lenengo idazlana, *Zerutar bat*; ipuin labur polita, eundaka onen antzeko egingo zizkigun gero. 1902-3'ra

Kirikiño'k zuzendu zuen, Azkue'ren aginduz, *Ibaizabal* ager-karia; onen zuzendari zala il zitzaion aita, Karlos Bustintza, 80 urtetan, an Almansa'n, bere seme-alabak, Paulin apaiza, Franziska, Felix eta Ebaista oe-inguruan zituzalarik.

Idazle ez-ezik, irakasle bizkor ere izan zitzaigun. Bizkai'ko Diputazioak aldi aretan euskerazko ikastola bat zeukan, eta antxe irakatsi zuen Bustintza'k, lau urtean Azkue jaunaren ordezkari eta beste ogei urtean bere arduraz. Euskeraz tautik jakin gabe, zenbategi ikasi zuen errez ta nasai itz egiteko bestean. Orduko egun-ikastaroak gogoratuz, ona zer dioan emakume euskaldun berri batek: Euskai ikastolearen aldi gozatsu gomutagarria. Egun osoan, arratseko ikastola orduaren begira egoten giñean. Eta berau eldu baiño apurtxu bat lenago joaten gintzazan ara, Instituto zarrera, irakasle maitiagaz barriketalditxo bat egitera. Zelako gomutak dakarstazan burura bere eriotzak! Zenbat maite ninduan berak, eta zenbat nik bera!». Ta orrelaxe millaka ta millakak.

Egia osorik aitortzeko, auxe dugu Bustintza'ren lanik aipagarriena: euskera irakatsiz, bilbotarren biotzak euskal maitasunean ixiotu. Ori zan barruan zerabillen izatezko deiaren su-miñ zolia, ta dei orreri jarraituaz arek egiñiko lan ixil gozoaren ondorena ezta errez neurriaren ertz-barruan jarrea. Ikasleak maite zuten; eurakin etzan egundo ere irakasle, adiskide barruko baizik. Ikasle-irakasle arteko maitasun lokarri onen ezaugarri egiazkoak ditugu jaiero ta, ikastaro azkeneruntz batez ere, Bizkai'ko erri askotara egin oi zituzten ibiltaldi aitzu-eziñak; auetan agertzen omen zan Kirikiño iñoizkorik gizon txeratsu bioztunen, autu ezti pozkorrean lagunen biotz-adimenak alaitu ta argiturik. Bein, Aralar'ko puntan aurkitzen zan Bilbo'tik ara joandako euskaltzale pillo batekin; bere lagun eta artzaiñen aurrean baserri-izaeraz ziarduan izketan; entzule batek, aren jakituriz eta do-toretasunaz arrituta, esan zion; «Jaun au, ez dirudi, baiña baserritarra dala edonork esango luke». «Eta izan be bai —erantzun zion Kirikiño'k—; nainundik begiratu, baserritarra nozu, ba-

serritar utsa. Baserritarrak izan ziran neure gurasoak eta neure gurasoen gurasoak, belaunik belaun. Eta baserrian jaio nintzan neu be. Beraz, baserritar izate au ez dot nik iñun ez iñoiz ukatuko».

Orrez gaiñera, Azkue'ri iru izkuntzako Iztegi nagusia maimintzerakoan, asko lagundu zion. Lan arteko atsedena ere bear zuela-ta, urtero bere Mañari kutunean eman oi zuen illabete bat; orduan zeukan aukera egoki-egokia, zelai-une ta mendiak arakatzeko ta baserriz baserri ibillirik aietako biztanleen ao-ez-paiñetatik euskerazko itz eta esaera bitxi asko jasoteko. Orduan maitemindu ere egin zitzaigun, antza, ta 1909-9-25'an ezkondu zan bere illoba zan Basili Bustintza Ozerin'ekin. Andre aukerakoa bizi-laguntzat, euskaldun jatorra ta kristau obea. Ez zuten seme-alabarik izan. Basili oraintsuarte bizi izan da bere Zumelaga etxe dotorean.

1913-2-ran «Euzkadi» izparringia asi zan Bilbao'n; euskal atal bat zuen onek, edo izango zuen, oso garrantzitsua. Atal au zuzentzeko Kirikiño autatu zuten, eta emenxe jardun zuen, beti trinko ta txintxo, amasei urtez. Makiña bat lan eder idatzi zuen, egunik egun, eguneroko aren orrialdeetan! Errez, arin, piper-miñez zipriztinduak ziran bere lanak, eta irakurleak orri artara zijoazten jakin-miñetan. Orduantxe egin zuen guztiz entzutetsu bere izen-orde *Kirikiño*, ta arrezkero, goitizen orrekin dazaugu gure literaturan. Aurreragoko idazlanetan *Mañari*, *Bloa* ta *Boldro* ere erabili zitun

Izlari ere ba-zan, eta bikaiña. Euskaljaietan eta mitinetan sua zan aren itza, ta entzuleen biotzak ere sutan ipiñi oi zitun. Urte aietan guztiz euskaltzaletu zan gure erria, ta euskaltzaletze ori, Bizkaia'n artan ere, zatitxo bat bederen, berari zor diogu. Aren eragiña eguzkiaren pareko zan. Aundi ta txiki, danetaraiño zabaldu zan eragiña. Danak zituen maite, baiña gere izate ta arnasaren erro dugun euskaltzaleena batez ere Ark bai xamur itz egin umetxoai, auen biotz-adimenetan berak zeraman zerbait barren-azi naiez!

Noiakoa gendun gorputzez, Abeletxe idazleak onan: «Are-txa lez sendo ta lerdan. Bizar politex oso serioa. Betaurreko bi-ribillen orde, ilgoran illargi erdiak izaten daben irudikoak eroa-zan. Gure korbatearen lazo bat txori eginda, Soñez, jakituriz, izakeraz, bere bizikoa zan» (*Zeruko Argia*, 1966, urrillak 23, 12 orr.).

Baiña urteak parkatzen ez... Eta bein, Bilbao'n eukan lan-tegia uizi ta Mañari'ra joan zitzaigun Kirikiño, zartzaroko egu-nak atsedan goxoan igarotzeko asmoz. 1928'garren urteko irai-llaren 6'an zan. Nekaturik ere ba zegoen bear bada, ala eriotza-ren urbiltasuna somatzen ote? Dana dalarik, Goiko Jaunak be-tiko atsedenera eraman zigun. 1929-1-31'an. Mañari'n, bere etxe Zumelaga'n il zan gure gizaseme zangarra. Egun batzuk lenago, etxosteko baratzean zebillela arri batean laban egiñik erori ta ortik il zan Elizakoak artu ondoren. Kristau ta euskal-tzale bizi, kristau ta euskaltzale il.

EUSKAL IDAZLE.—Kirikiño'k asko idatzi zuen; amasei ur-tean etzun beste arazorik izan euskeraz idatzi ta irakatsi baiño. Eta idazkeran, goxo ta errikoi agertzen zitzaigun beti; irudimen ariñekoa zan, eta olako gazigeza ta gatz-ozpin biziarekin goza-tzen zizkigun bere lanak. Idazten asi zanetik elburu bat zeukan begi aurrean: erriarentzat idatzi. Gure erria etzan garai aretan gaur bezin eskolatua, naiz-ta gaur ere euskal gaietan orren ja-kitun ez izan; Kirikiño, beeraiño makurtuaz, erriari egoki zi-tzaiona ematen saiatu zan. Ezta egiteko aisa; idazleak idatzi dagi, erriak ordea irakurri; bi auek, idazlea ta erria, mailla ber-din xamarrera ekarri bear ditugu, bitzuan lana onuragarri izan daiten: ez bata gooregi ta bestea beeregi. Erriak, beraz, ikasi bearra du, goiko maillara begiratuaz; idazleak, al bait errezen idatzirik, erria izan bear du gogotan. Erriaren adimena argitu, erriaren biotza esanaren beraz duindu.

Kirikiño'k erria euki zun begipe, geure erria. Ta aintziñako erri guztiak lez, gure euskal erria eder-min zala ba-zekian; eta

ederra ipuiñez, alegiz, kontuz, bertsoz adierazi oi dugu geien bat, eta orrelako lanetan jarduna dugu mañaritar argia bere lan ugarietan. Jakituna izanda ere, gai mee ariñak, errez ulertze-koak idazten alegindu zan, bere pentsamentuak eta biotz-zauskadak lau-lau azaldurik. Eta ortik datorkie bere liburuai barruan duten biguntasuna, edertasun betea. Oindiño ezta euskal idazleetan ark aiña euskeraz idatzi duenik, naiz-ta Orixe bera ere asko idatzia izan. Eta ura bezin irakurria izatea ere nekez lortuko dugu.

Idatzi jakingarri oietatik ia danak *Euskalzale'n*, *Ibaizabal'en* eta *Euzkadi'n* argitaratu zitun. Urte batzuk dirala Mañari'ko erriak ari egindako omenaldia zala-ta, *Abarrak* (Bilbao, 1966) liburua atera nuen nik, 329 orrialdeko liburu mardula. Berton datoz mañariarraren *Abarrak*, *Bigarrenko Abarrak* eta Bilbao'ko Euskalzale'n, Ibaizabal'en argitaratu zitun lan guztiak. 1913'tik 1928'ra bitartean Euzkadi'n azaldu zitunak biltzeko daude oraindik. Ona bere lanak banaiz:

1) *Abarrak* (Bilbao, 1918). Grijelmo'ren Alargun —Semien irarkolean. 121 orrialde. Ogetabat ipui dira guztira, euskera ariñean egiñik. Itzaurrean dio: «Su andija egiteko, egur lodija ixetuteko, lenengo abarrari ezarten yako sua, ta onegaz ari gero. Irakurgaitxu oneik be gogo askotan sortu leye euzkeraz irakurteko zaletasuna. Txikijak, meiak, arin-ariñak, errazak, barru gitxidunak, geyenak barre batzuk eragitekuak ixanik, euzkeraz irakurten bape zalia eztanak onakoxiak atsegiñez artu leiz, ta eurok, abarrak lez, bere goguan sua biztu... Irakurgaitxu oneik geyenak jazorikuak dira; batzuk antxiñakuak, nik neure aitari entzunak, eta berak bere aititari; beste batzuk neuk batu dodaz or-emen neure aldijan; beste batzuk neuk asmauta be bai-dira, gustitara».

2) *Bigarrenko Abarrak* (Zornotza, 1930). «Jaungoiko-Zale»-ren irarkolan. 190 orrialde. Bilbao'ko Euzko-Pinzkundiaren pentzutan egin zan argitalpen au, ta Arantzadi'tar Ingartzi'ren

sarrera darama. 43 ipui ta 3 olerki dira guztira. Ipuiak aurreneko liburuan datoztenen antzekoak dira, mami ta azal ederki onduak, gertaera parregarri ta edestitxoz orniduta.

3) *Abarrak... eta abar* (Bilbao, 1966). Gráficas Bilbao'ren irarkolan. 329 orrialde. Esan dugunez, bi *Abarrak* eta Euskalza-le'n eta Ibaizabal'en argitara eman zituen lanak osorik datoz, lau atalño auetan bananduta: 1) *Euskerak*; 2) *Jakingarriak*; 3) *Bertsoak eta Izkirimiriak*, eta 4) *Albistak*. Garai artako izpar eta jazoerak datoz batez ere atalotan; gai jakingarrien artean gure mendietako areitz eta pago azpian datozen perretxikuak aita-tzen ditu, amasei lantxo joritan.

4) *Gastela-mutillak*. 1928-12-2'an, Euskal Esnalea'k eraturiko itzaldietan; egilleak irakurri zuen. *Bigarrenko Abarrak-en* azkenean ere ba-dator.

5) Kirikiño'ren ipuiak, naiz-ta ez osorik, sarri argitara emanak izan dira Euskalerriko aldizkari ta egunerokoetan. Euskaltzaindiak (Donosti, 1956) Bustintza'ren bost ipuiezko argitalpen bat egin zuen, bizkaieraz eta gipuzkeraz, A. Ayalde'ren marrazki ederrez apainduta.

6) *Teatru-sailla*. 1914'an antzeztu zan lenengoz Kirikiño'ren *Anton Berakatz* bakar-izketa; bere ipui *Azerijari azerija* da antzez-era emanik, eta sarri ta leku askotan aurkeztua.

7) *Lelo*. Alfredo Etxabe ertilariaren iru ekitalditako antzerkia, Bustintza'k euskeraz ipiñita.

8) *Txomin Arraio* (Bilbao, 1912). **Jose Elizondo'ren** kome-ria, mañaritarak bizkaieraz jarrita.

9) *Meza Barriya*. Abellino Barriola'ren ekitaldi bateko antzerkia, Kirikiño'k bizkaieraz ipiñi ta Bilbao'ko Euzkeltzale-Bazkuna'k argitara emana.

Naiz eztei bat zala, naiz bataio bat, edo-ta beste edozein motako jaieren bat, an zan beti ere Kirikiño'ren eskua, arduratsu ta laguntzaille. Erderatik ere ainbat lan pitin jantzi zituen euskal soiñekoz.

OLERKARI?—Ortarako gai izan arren, ez dakigu inoiz bertsolaritzan jardun zuenik. Bertsolariak zirikatzen, eratzen eta aupatzen, ordea, maiz ibilli zitzaizun. Bertsorik naiko idatzi ere egin zigun. *Euzkeltzale-Bazkunak* argitaldutako kanta-liburuetako kopla asko Kirikiño'k arteztu ta eraturik argitaldu ziran; ona batzuk: «Lora polita ontzijan», «Ene aberri polit ederra», «Aitonaren esana», «Jagi, jagi!», «Zetara ator ona?», «Ama zeu barik larri», «Anton Aizkorri», «Abestu biar dogu», «Gertu gagoz», «Negarrez ikusten zaut», «Deun-jonaz», «Oi txori polita», «Mendijan axia», «Len baño len itxartu zaiz»... Abesti xamur auetan utzi zigun, dardarti, bere poeta gogoia, su ta gar.

Santa Ageda kantak, gaur ere, entzute aundikoak. Beren izki ta letrea, orraitio, ezta ain goxoa, maiz baldar merkatza baizik. Kirikiño'renak dira aapaldi auek, aspalditik abestu izan diranak:

Aintzaldu daigun Agate Deuna,
 bijar da ba, Deun Agate.
 Etxe onetan zorijon utsa
 betiko euko al dabe...

1909'an peregrinazio eder bat egin zan Euskalerritik Lourdes'era. Ona emen, andik alde egikera, Andre Maria'ri abestuz zioten kanta, Kirikiño'k osotua: «Agur, Josu'ren Ama...»

Olerkari zelaian sari batzuk ere etxeratu zitun. 1901-8-26'an, Bilbao'n euskal jaietako Lore-Jokuak ospatu ziran; poesi saillean *Fides* gaiatzaz Bustintza'rena izan zan saria jaso zuena: Migel Unamuno izan zan olerki-batzaldi artako artezle.

Beste bein ere *Gure Herria*'k (1924) kopla-sariketa bat eratu zuen, lau sailletan banandurik: 1) Olerki arin laburrak; 2) kopla batzuk euskaldunen oitura ta jokoz; 3) Euskalerria ta euskera berariz goستن dituzten olerkiak, eta 4) Jainkoaz eea Andre Maria'z. Maruri'k, Sagartzazu'k, Enbeita'k eta Garbizu'k jaso zituzten sariak. Kirikiño'k ere berea bialdu zuen, eta *Gure*

Herria'k onela: «Bertzalde, sail berezi batean ezarri ditugu Kirikiño aipatuaren neurthitzak, gai berezi batekoak direlaketz. Saririk ez diogu eman Kirikiño'ri, bainan gure adiskideak nahiko du onhartu, orhoitzapentzat bederen, helarazi gogo dakogun Aipamen Ohorezkoa». *Nai dan lez}*... *Aal dan lez}* du izena 1924-7-16'an ara bialdutako olerkiak.

Bego emen iraizean bezela esanik: Kirikiño'k, bizkaitarra zala ere, gipuzkeraz nai lapurteraz egoki ta errez idazten zuela. Ikasbide ederra nunbait gaurko euskaltzale askorentzat, beren izkelgia baiño jakin nai ez duenentzat! Alde exkaxa baita izkelgi batetik besterakoa, zergatik ez ikasi danetik? Apur bat leia ezkeru, egin genezakena dugu.

IRITZIAK.—Asko aizatu dira or-emen Kirikiño'ren erri-idazkera ta estiloa. Beti txaloka esan genezake. Ba-ditu, egia esateko, bere akatsak ere; baiña, orren maixu aundiari diogun begiruneagatik edo, ez da iñor oraindik ausartu Mañari'ko euskal idazle aundiari ezain-izpi pitiñenik ere jartzen.

Aingeru Irigarai idazlari zorrotzak onela dio: «Kirikiño'ren idaztankera (estiloa) eredugarri dugu xaloki. Euskera garbia du, baiña gutxi ikasientzat ere aisa ulertzekoa; Bizkai-izkelgia darabil, mugaz emendikoen artean berezko gatz eta nabardura geienez idazten dana. Aldizka beste izkelgietako esan-itx eta jokerak —*itxi*, *utxi* ta *olakoak*— darabilzki, beti ere izkelgi-diferentziak geiegi aunditu gabe; geiegitze au bada, gure ustez, izkuntzaren zabalgundeari kalte dagiona dugu, euskera idatzia eratzeke batez ere» (RIEV, 1931, 226 orr.).

G. Garriga'k: «Gutzik bezela erabiltzen zuen erriko euskera, eta ateraldi zorrotz, itz goxo ta josterako ba-zuen gatz ta ozpiña. Kirikiño'ren *Abarrak* goraltzeko emen esan genezaken guztia, oso gutxi litzake izanez dana adierazteko. Euskaldun gutxi izango dira aren gazigezak txastatu ez dituztenak. Sarkutzak austeraiño parra eragiten dio irakurleari; eta aren kontakizunak, irakurriago ta geiago atsegin zaizkizu».

Jadarka'k: «...erriko izkeraren zabaltzaille bipil; oneri jakin zuen ematen bere irudimen joriaren biurkortasun eta esker osoa, onekin, beste iñor ez aïñean, euskaldun erriaren biotzaz jabetzera iritxirik».

L. Mitxelena'k: «Kirikiño'ren ipuiak, kondaira ta lillura, beren laburtasun eta gora exkax samarrean ere, kontatzaille azkarraren doai bereziak ez dizkigute aztu-azi bear; egilleak aueri esker, izan ere, maisu-lan txikiak burutu zizkigun gai benetsu ta, ala naiz, umore onekoetan».

Eusebio Erkiaga'k: «Kirikiño'k halako giroa sortu zuan gure izkeraren alde. Hainbat eta hainbat euskaldun jarri zituan euskeraz idazten. Orduan sortu ziran, erri-idazle izango ziranak, orduan «euskal idazleak». Kirikiño il ta urrengo urteetan, izan ere, gure izkuntzarentzat halako askatasun aize garbiagoa eratu zan ezker, euskaltzaletasunak garra artu zuan».

Azkenez, nik beiñola idatzi nuen: «Gaurko idazleok aintzat artu bear geunkean beste doai eder bat be ba-eban Kirikiño'k: begiramena, adei-legea. Asko idatzi arren, ak ez eban sekula iñor irainduko; gazte ta zarrakaz, eretxi bateko ta bestekoakaz, beti genduan begirune ta itzal aundiko; egundo etzan azpikeriz ibilli, ez lakatz ederrik sartzen. Xalotasuna zan aren jantzirik dotoreena. Txera ederrez artu oi zituan idazle gazteak, aitak seme barriari lez abegi samur egiñik. Oneik eskuz idazten eutsezan lanak, berak makiñaz idatzi, akatsak orraztu, joskera arildu, makiña bat bear alperreko (?) emon eutsoen. Bera, alan be, pozarren, euskal idazleak azkortu, indartu ta ugaritzeko egitekoari loturik».

Noizbait, alaz ere, asarre xamar idatzi zuen. 1919'an, Euskaltzaindia sortu zanean, esate baterako. G. Muxika'k, alkarte orri itsu-itsuan men-egin bear zaiola zioan idazlan baten. Kirikiño'k, ordea, ori zala-ta, latz idatzi zion gipuzkoar jakintsuari; baita gero bazkun artako zadorlari zan Aita P. Lhande'ri ere. Ez zetorren bat euskaltzaiñak erabakiak artu emateari buruz. Jokera onek, egia esan, bazkun orretan sartzeko ateak itxi zitzaiz-

kion; onek baiña etzion kalte aundirik ekarri, bere bidetik eta bere kontura lan egiteko eskuak zabalago zituen eta. Omenezko aulki ori gaberik ere, ospetsu egin zuen bere izena.

Bear aiñarik ezta ere, izan ditu bere goratzarreak. Azkena, 1966-10-23'an, Mañari'n bertan. Ua eguna! «Aiek arkaitzak inguru guzian, eta erria txori-kabi bat bezela erdi-erdian koka-tuta», dio N. Etxaniz'ek. An ziran Bizkaitik, Gipuzkoatik eta Naparroatik euskaltzalerik onenak. Meza ostean, bereala, Bus-tintza'tar Ebaista'ren oroitarria bedeinkatzea, «Gerediaga» al-karteak zuzenduta. Euskaltzaindiak bere oizko batzarra; baz-karia, bertsolariak, erria jaietan. Ondarru'ko Teatru-taldeak Ki-rikiño'ren antzerki bi eman zizkigun: *Anton Berakatz* eta *Atxu-ri'ko Milagrua*, azken au A. Zubikarai'k antzerkitarako antola-tua. Egun bete-betea.

(Ikus Jadarka, *Euzkerea*, 1929, 18 orr.; *Euskal Esnalea*, 1929, 29 orr.; A. Irigarai, *RIEV*, 1931, 226 orr.; S. Onaindia, *MEOE*, 643 orr. ta *Zeruko Argia*, 1966, urrillak 23, 12 orr. ta Z. A., abenduak 17, 3 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1960, 144 orr.; L. Mitxelena, *HLV*, 155 orr.; L. Villasante, *HLV*, 330 orr.; I. Omaetxebarria, *Euskeraz*, 310 orr.; E. Erkiaga, *Zeruko Argia*, 1966, urrillak 23, I orr.; N. Etxaniz, *Zeruko Argia*, 1966, urrillak 30, I orr.; K. Etxenagusia, *Euskal Idazleen Lorategia*, 204 orr.; M. Zarate, *Bizkaiko euskal idazleak*, 147 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 396 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, II, 177 orr.).

17.—AITA KANDIDO BASABE ERRETOLAZA (1867-1928)

Eusebio Erkiaga lekeitiarrak idazten du: «Lekeitiar izkeraz jardun arren, Bizkai-aldeko idazleen artean, mende onetan beintzat, aurrenengo mordoan jarri leitekezanen pare bere ezarri giñei Aita Kandido. Barruko nasaipidez ta atsegin pozkorrez adierazo nai dogu gaur. Mamiñean, gunean, egokiak izan zirean (Aita Kandido'ren) liburuok; jantziz ta azalez, mintzakeraz jatorrak ditugu» (*Olerti*, 1963, 3-4, 111 orp.).

BIZITZ-APURRAK.—Lekeitio'n jaio zan A. Kandido, 1867-10-3'an. Beronen gurasoak: Pedro Migel Basabe Agirre ta Mari Krutz Erretolaza Aberasturi, biok lekeitiarrak. Aitor dezagun emen: Lekeitio ta inguruak, ur ta lur ospetsu izan direan giza-seme askoren seaska izan ditugu. Bakoitzari berea.

Noiakoa izan ote zan A. Kandido seta ta menduz? Lekeitiarren bizitza ta euskal lanak mamin aztertu zizkigun E. Erkiaga-k onela dio: «Urduria ta eragiña, argia ta bizkorra izan zan bere bizitza osoan Aita Kandido». Eta gaztetako zeinbat zertzelada ere aitatzen ditu: «Sendi apaleko seme, dirudianez, mutiko zala an inguruan dagoan Olaldeko fabrikan ibilli ei zan. Txori-zale itsua zan, eta baso ta txaraketan eta mendi-bizkarretan ba-ekian arek nun egozan txori-lekurik egokienak. Amaika bidar ekin eutsen orretan, eta baita arraiñetan bere, gure Kandido-k eta gure R. M. Azkue'k, errikide ta txikitako lagunak. Ondo ekien mutü soster aek Oleta, aingirak artzeko toki aukurakoa zana, an zubipean-eta!».

Amalau bat urte zitula, Jaunaren deiari erantzunik, elizgauzak ikasten asi zan: gramatika ta latin Lekeitio'n bertan ikasi zitun Uribarrendarrak sortu zuten eskolan. Filosofi Gazteiz'en eman zuen, ango apaiz-mintegian. Ogei ta iru urtekin, ots, 1891-7-27'an, Loiola'n sartu zan jesuíta, Teoloji-ikasketak, Aita Txopitea aulestiarra maixu zuela, Salamanka'n egiñik. Azkenez, Filosofi-Teoloji-gaiak sakonagotuaz, *Doctor* titulua iritxi zuen jakintzazko arlo bi oietan. Aita Ogara-ta izan zituen ikaskide. Onewan, 1901-7-30'an, mezadun egin zuen Oña'n, Burgos'ko kardenal gongotzai zan Gregorio Mari Agirre euskaldunak.

Arrezkerokoan, «aren zeregiñik arduratsuen arimak bide oneratzekitea izan zan; aren lanik beiñena ta bikaiñena, izlarikuntza». Salamanka, Oña, Loiola, Gazteiz, Burgos, Karrion... egon zan ikastetxe guztietan arima-arduraz lilluratuta zebilkigun beti. Euskeraz ta erderaz ari zan, jo ta ke. Egotaldirik luzeena, egia esateko, Durango'n Josulagunen etxean, Gogo Iñarkunak emateko ta egiteko eregi zan etxean egin zigun.

1921-22 aldian 'Gazteiz'en bizi izan zan. Jesuíta batzuk, izan ere, Alfonso XIII'garrenaren aginduz, zeuden tokietatik aldatuak izan ziran: Aita Basabe, Gazteiz'era; Aita Horn Areiltza, Burgos'era; Aita Ibiñagabeitia, berdin; Aita Jose Larrazabal lekeitiarra, Donosti'ra, ta abar. Deusto'ko ta Orduña'ko komentak ixteko arriskuan egon ziran.

Eztugu akioan zertan ari izanik; A. Kandido arimazai gartsu bezain egizale genduan. Alegin aundiak egin oi zitun kristau dotriña irakasten, bene-benetako apostolu ta mixiolari bait zan. Erkiaga'k berriz ere; «Jente apal ta lauari Ejertzioak egiñarazoten ekiten eutsan batipat. Arrantzale ta nekezariak izan oi zituan sarritan bere artaldeko ardirik kutunenak. Eta orretan maisua zan, izlari leberra, arimazale itsua, zuur ta gurbilla, baiña egi biribillak esaten zale-zalea edonori bere... Gogoen izakera-neurri kontuan, sikologi zeretan, zolia ta artarakoa. Gizon-nezkoak ezagutzen zituan, eta baita emakumeak bere. Andrazkoezaz bai esan bere ark: emakumeak, okerrak eta gogorrak dira, auntzaren adarren antzekoak» (Loc. cit.).

Errietan naiz abadegei etxeetan ematen zitun Gogo-Jardunak. Orrelaxe ainbat urte ta tokitan. Eta edu ortan, bere arazoan zebillela gaixotuta, joan zitzaigun betiko atsedenera. 1927'an, Zeanuri'ko mixioetan, biotzeko gaitzak jo zuen. Oraindik ere amar illabete eman zizkion Jaunak, eta Loiola'ko bakartegian igaro zitun azken egunak, ango leio zabaletatik inguru ederrera ta goi-ortzira batez ere, adi-adi, jakiña. 1928-1-1 l'an, arratseko iru-iruretan iltamukoen argia biztu ta «euskerazko otoitxuak ezpan baltzituetatik eriozala ta kurutzeko Jesuseri alboko zaurian mun istu-istu egiñaz batera il zan.

IZLARI BIKAIN.—Ez, etzan bada-ezpadako gizaseme, azkar, jakintsu ta zuurra baizik. Barruan daukaguna eman ta zabaldu oi da, ez daukanak ezin eman. Bizkaia'n, Gipuzkoa'n eta Araba'n ibilli zitzaigun A. Kandido, aspertu gabeko izlari; Bizkaia'n batez ere, ezta ari aditu etzion erririk. Aren berbaldiak! Bil-

bao'ko euskerazko mixio edo belguntza (1918), Doniane elizan, Aita Florentino Ogara lagun zuela, astelen illuntzetik domeka goizerarte, ospetsua izan zan. «Zelan gero entzun be! —diosku A. Zubiaga'k—. Goizian goitzxu, itzartu ta oetatik jagitzerako, ollo gosetiai kortako atiak zabal-zabal edegiten ba'jakoez **eta** lurruna darion ore bero-berua or-emen banandu, naiz ta purra-purraka ekin ez, arein zaratia, olluena! Euren malladitik bana-ka-banaka erasteko betarik baga, urduri-urduri, zeññ lelen elduko, alkarren leian, ariñeketan, egaiz egiten dabe eta aita baten emonikua t'erdi irunsi ta garbitu. Geure izlari aonen entzuleak bere orobat egin eroien ba. Izan be berbaldigillerik benetari-kuena zan bera» (Aita Zubiaga, *Jesus'en Biotzaren Deya*, 1928, 124 orr.). Bularrean zeramazkin txingar-aleakin entzuleen biotzak pizkat sugartzen mutilla zan, bai!

Zorrotza zan pentsamentuetan. Irakur: «Egin dagigun beste gizon guztiak ezilkorrak dirala; zelan ibilliko ete litzakez? Ba neu bakarrik ilkorra izan eta euren jolas, jan-edan eta beste atsegiñetan eurakin batzanduko banitz, zer esango leuskide? Zetan zatoz gugaz? Zu etzara gutaikua, tira bakartegira, zurrari zeure gorputz ori, egin otoitz eta beste gauza on asko, laster il bear zara-ta! Alan da guzti be, jaramon barik, euren antzera biziko banitz, zorotzat ez nindukie artuko?» (Gogarteak, 127 orr.). Ur-azal gardenak barru garbia erakusten; euskera garbi apain onek be, egillearen jatortasuna ederki digu ikus-arazten.

IDAZLE.—Itzez ta idatziz, zaiñetako odolaz oretu zitun erriari azaldu bear zizkion ideia ta oldozkunak; garbi ta argi, bai, ezertariko mordoillo ta ganora-ezik gabe, biotzetik biotzerako jardunaren bidez, edonork irakurri-ala ulertzeko era errezean. Ori irixteko bi gauza bear: erria ezagutu ta onen izkera sakonetik jakin. Aita Kandido'k orixe erakusten dizu idatzita utzi zituen liburuetatik. Aren liburu batzuk;

I) *Ondo confesau ta comulgauteco iracazkizunac* (**Duran-**

go, 1910). Florentino Elosu'ren etxean. 266 orrialde. Baserrietarako meza-liburu egokia, Bizkaia'n oso zabaldua ta irakurria, euskera gozo txukunean.

2) *San Iñazio'ren Ejertziuetako Gogartiak* (Durango, 1912). F. Elosu'renean. 307 orrialde. Geroztik ere iru edo lau aldiz argitaratua. Jesus Biotzaren Deya'k, titulu onekin: *San Iñazio'ren Ejertzioetako Gogarteak* (Bilbao, 1926). 333 orrialde. Ta azkenez, idazpuru onekin: *San Iñazio'ren Gogo-jardunetarako Gogarteak* (Bilbao, 1963), Kerexeta'tar Jaime apaizak zuzendu ta atonduta. 192 orrialde. Liburu ederra.

3) *Eleiz-luburuchua, Jesus'en Lagundiko A. Kandido Basabe'k egiña eta latin eta euskerazko eleiz abestiakin beste batetik geitua* (Bilbao, 1912). 199 orrialde. Iru-lau aldizerañño barriro be argitaratua. *Berbaurrea-n* onela: «Euskaldun arimen onerako al nebanchuan biarrian asi nitzaneti sartu jatan gogua ispillu chiki baten lez ipinteko aurrian euren kristinau-kizunak, bizitza on baterako zuzen-bidia, ta batez be zelan ondo ta arin egin euren autorkuntz ta jaunartziak». Auxe duzu liburuaren mamia. Fonetika kontuan au dio: «I bizkaikua, bigungarria, kendu egin dot, alperrekua ta irakurtia nastauago egiteko baño eztalako. *Ge, gi*, izango dira erderazko *gue, gui*, ta beti *K*, edo nun gaur oituten dan lez; eta batzuentzat lenengotan gatx-samar bada, laster, oituagaz, erreztuko jake». Urte berean Durango'n ere argitaldu zuten, F. Elosu'ren etxean; 111 orrialde. Ta, 1914'an, berriz Bilbao'n; 159 orrialde.

4) *Jesus'en Biotzaren Jaureskundera (entronización)* (Durango, 1914). Elosu'ren moldiztegian.

5) *Andra Mariaren ezkutua, au da, Andra Maria'ganako Joputasunatzazko (esclavitud) eskutitza zoriondun Luis Maria Grignon Montfort'arrak egiña* (Bilbao, 1914). Alvarez'enean. 32 orrialde. Frantsesetik artez biurtuta dago, itzultzaileak jarriz zizldon argibide batzukin.

Ba-ditu beste lan asko ere, *Jesus'en Biotzaren Deya'n* baitik bat. Aldizkari au Jesus'en Lagundikoak sortu zutenean, ots, 1917'an, Aita Kandido ipiñi zuten artezkari. Eta urte mordoan beronek idatzi zitun ainbat lan sakon eta jakingarri.

IRITZIAK.—Iritzi-landara jo ezkerro, Erkiaga'rena duzu egiazkoena, A. Kandido'ren liburuetako eder-guna onexek ondoen jaso zigun eta.

«Idazle ona izateko —diosku— bear diran asmo ta zolitasunaz ganera, izkerearen ezaguera sakona bear da, ta izkera orren bidez egin, buruketak eta gogaketak. Jatorriari jaramon urri egiñaz, norbere iturburutiko askan egotaldi gitxi egiñaz, eta orde, auzoko iturritik zanga-zanga edan ba'dagi noiznai, idazleak emon legiskuna erdereaz izango da, euskerazko adabakiz egiñiko erdal-oialez eundua; ta ori, garbi-miñezkotar ameslaria izan, ala prestamu-zale amorratua agertu. Aita Basabe'k, bere irakatsia emon euskun arlo onetan. Ez da zillegi idazleak, erritar arruntak baiño izkera baldarragoa erabiltea, batez bere, itzurrenean; eta erriak ulertu ezin legiona. Aita Kandido-k izkera bizi, argi ta errimeaz erabilli eban betiro. Aditzean, joskeran legetxe, alé bakan ta ikasgarriak daukaz. Aditzeretan, belarrondoko galanta damosku oraingo aldiko idazleoi, arako apofonía dala-ta. Azkue-k bere *Morfologia-n* berariz jakiñerazo arren, orren barri izan ez dabenak, eurrez dira gure eskualdean» (*Olerti*, 1963, 3-4, 119 orr.). Apofoni da, adibidez, itz-amaian o dana *a* biur-tzea: *dautso*, *dautsa*; *dauko*, *dauka*; *yako*, *yaku*; *yakon*, *yakan*, eta abar. Auei «gramatika-gei barriren bat iraztean», *a* erabilli bear omen da beti: *dautsanean*, *daukazu*, *yakanetik*, *yakazan* eta ez egundo ere, *dautsonean*, *daukozu*, *yákonetik*, *yakozan* eta beste.

'Ba-darabilzki, aditzean batez ere, aintziñako forma batzuk: «dakusgu» «zakustaz», «dariat», «dariakuz», «ziraustsan», «yagokat», «eztakutsu», «nenkusan», «darraiokan» eta onakoak. Esanaldi apaiñak daukaz, or-emen ereinda. Gramatika lege ta

arauakin etzan zaillegi agertu. Egun aietako garrari zegokionez, ark ere itz berri mordoa du, baiña geienetan taket artean jarri zuen erdal ordezkoa ere. «Aren jardunok —dio Erkiaga'k— ez ziran izan eder-lanak, elederrari buruzko soillak direanak... Ari-men aldeko liburuak utzi zituan, ain zuzen, ta aldi artarako gu-nez egokiak zireanak... Ez eban jardun, beraz, idazle jaioak, ja-soak eta buru-eretxiak, euren kereaz ta estiluaz oi dituen ardu-ra ta buru-austeetan, Txukun-ikutua, gun fina, idazle-giarra ta iztun-etorria, ostera, nabarmen ta ikusgarri azaleratu euskun. Txalogarria, ba, milla bidar Aita Basabe, euskerari utzi eutsazan esku-erakutsi marduokaitik» (Loc. cit.).

Akatsik? Baita, naiz-ta oben aundikorik ez. «Dator gizona», «ba-dator gizona» esan bearrean; gerundio dalako asiera itsusi-samarrak: «Entzunik artzaiñaren deia», «artzaiñaren deia en-tzunik» euskera jatorrez dalarik; eta baldintza eretan: «ekarri izan ba'neban», «ekarri izan ba'neu» esan bearrean. Au ala ere ordukoen makurra zan. Gaur, orraitio, ez genduke olako utsik egin bear, dauzkagun liburuak —Azkue, Altube, Orixe— euki-rik berariz.

(Ikus M. Maria Zubiaga, *Jesus'en Biotzaren Deya*, 1928, 120 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1958, 45 orr.; L. Villasante, *HLV*, 365 orr.; N. Kortzar, *Cien autores vascos*, 83 orr.; Eusebio Erkiaga, *Oler-ti*, 1963, 3-4, III orr.; K. Etxenagusia, *Euskal Idazleen Lorategia*, 1965, 217 orr.; Mikel Zarate, *Bizkaiko euskal idazleak*, 159 orr.; Auña-mendi, *Literatura*, II, 394 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, I, 458 orr.).

18.—GORGONIO MARIA RENTERIA LENIZ (1868-1940)

Joan-etorrika erbeste zear ibilli zitzaigun arren, euskera txai-roa zeukan zein itz-egiketan zein idatzi zitun lanetan. Gizaseme argi ta urduria, atzerrian urrun-miñak kezkatua ta etxean lan-griñak aurrean erabillia. Ez zeukan beintzat lo egoterik.

BIZI-APURÑOAK.—Elantxobe ez duzu exkax gizaseme soti-
lletan. Ementxe jaio zan Gorgonio ere 1868-9-9'an. Bazter zo-
ragarri artan lenengo ikasketak osotutakoan, nautika ikasi ta
itxas-bizkarrak ezitzen asi zan. Azkarra baitzan, ogei urtetik gora
Filipiñas'en bizi izan zan ugarte artako Marina Merkante'ko
buru zalarik. Bere ogibidez gaiñ, ba-zuen zerbait biotzez maite
zuena: bere sorterría. Onela dabes «Urruntasuna» dalako oler-
kian:

Urrun daukat nik Euskalerría
joan dan aspaldi onetan;
asko ba'neban lenago maite,
geiago dot gaur maitetan.

Biotzak ezpaitu parkatzen, ugarte aietan urte mordoxka egin
ondoren, bere errira itzuli zan, ots, Elantxobe'ra. Adeitsu, sa-
mur ta on-bera agertu zan nun-nai ta beti. Alkate izan zan
Elantxobe'n, eta alkate zala, beste lan bikain askoren artean erri-
ko iltegi berria egin zuen, onen sarreran berak, atxurdiñean ira-
rrita idazpuru au ipiñirik: «Otoi bat eta gero arte».

Zurra ta sotilla zanez, 1916-1920 bitartean, Bizkai Buru Ba-
tzarreko nagusi izan zan; baita 1917-1920'ra Erkiko Aldun edo
Diputadu ere. Izatez abertzale zintzoa genuan, eta Aldunde-
giko zala gogotsu lan egin zuen Bizkai'ko langilleriaren alde,
beuron gizarte-auzi ta goraberak atontzen berariz alegindurik.
Aozko zabalkundeari ekin zion atertu gabe, ta diotenez, bere
aldiko izlaririk onenatarikoa izan zan euskeraz.

Azken gerratean Frantzia'ra joan zan iges, ta Baiona'n itza-
li zan bereak inguruan zitularik 1940-1-27'an. Bere gorpuzkon-
doak, ordea, Elantxobe'ra aldatu zituzten 1959'garren urtean.

EUSKAL LANA.—Erraian zitun nai, zizpuru ta eiagorak adie-
razten etzitzagun nakar ta gogo gaberikan agertu. «Euskalzale»
ta «Ibaizabal» asterokoetan idatzi zigun lendabizi: «Errebido»

erabilli zuen bere idazlanak izenpetzeko. Gerora, Bilbao'ko «Euzkadi» egunerokoan idatzi zigun, eta emengo lanak, geienbat, «Perularra» izenez firmatzen zizkigun; baita «Ekin» eta «Gudari»-n idatzi zitunak ere.

Filipiñas'en zegoela Azkue'ri bialtzen zizkion bere olerkiak, «Euskalzale»-n argitaratu zitzan. Auek datoz bertan. 1897'an: «Euskalzale-ri» (178 orr.). 1898'an: «Baserriko egun barria» (66); «Amarentzat» (83); «Lora bateri» (93); «Urruntasuna» (100). 1899'an: «Aretxari» (87); Trueba'renak: 1) «Zugatz deuntua» (91), 2) «Illen etxadia» (108), 3) «Su ondoan» (117), 4) «Batak besteari» (123), 5) «Deabrua eta Aingerua» (133); «Aberats nekezaria» (159); «Filipiñasti» (165). Danetarik 13.

«Ibaizabal»-en, ordea, auek datoz. 1903'an: «Ichasoari» (ilbeltzaren 25'an, 2'garren orr.), bere lagun itzaltsu Kalle Aran-solo abadeari eskeiñia; «Ibaizabala ta Bizkaitarrak» (otsaillaren 15'an, lenengo orr.), bere adisldde Ibiñagabeitia'tar Galo'ri Manila'tik opatua; «Urruntasuna» (maiatzaren 24'an, lenengo orr.), «Euskalzale»-n ere 1898'garren urtean, 100 gn. orrialdean datorrena; «Elanchobe-ri» (garagarrillaren 21'an, 2'garren orr.), bere lagun Ugalde'tar Alejandrorentzat; «Zure eskutitzari» (uztaren 5'an, lenengo orr.), Manila'tik 1903-4-28'an igorria; ta «Begoñako Amari» (abenduarien 13'an, lenengo orr.), Manila'n 1903-10-II'an egiña.

ZE MAIL EDO ERINGOKO OLERKARI ZAN?—Azkue jaunaren-tzat etzan purtzilla. Len-lana Manila'tik bialdu zionean, «Euskalzale»-n argitaratzeko noski, itz goxotan goersten zuen elan-txobetararak bilbotar aldizkari eragingarri onek zegian lana. Eta Azkue'k bere kautan: «Umeai egiten iakezan palaguak eta agurai egiñiko ariguriak edo osekioak legez artu daroaguz egiten iakuzan ondo-esanak: ezpanetan barrea, umeak legez, ta biotzean esker ona, aguren antzera, doguzala. Ez aaztu, urrunetako euskaldunak, zeuen Ama zaar onezaz» (*Euskalzale*, 1897, 178 orr.).

Eta andik urte betera lez, ere, «Lora bateri» bialdu zionean, onela dio; «Nok esango euskun Filipinas deritxen ugarte-bas-ter baten erneko zala euskaldun koblakari bat? *Errebido* ezi-zentzat artu daben onek, igaz bialdu euskuzan neurtitzetatik aurtengoetara eldu al izateko, asko igon bear izan dau. Jarraitu daiola lan eder oni ta gure ustez euskaldun koblakari arteko le-nengo lerroan ikusiko dabe gure ondorengoak» (*Euskalzale*, 1898, 93 orr.).

Ba-daki barne-sorburutik jalgítako intziri ta oiú-miñak eder-ki adierazten. «Aretxari» deritzaionean, adibidez, bere naigabe zolitua azaltzen du, Gernika'ko Zugatz «deuntuak» gizaldien zearkako kemena galdu duelako. Gisa onetan ari da kantari;

Sorterritik urrunean
biotza daukat naibagez
eta gomuta nai ta ez
beti zugandik urrean,
egunez eta gabean
nire begiak negarrez
zu ikusi nai zaituez

lenago ziñan antzean.

Euskaldunak alkar-alkar ikusi nai zituen; lengoen antzeko, bai, Aitor'en jarraile, etsai aurrean bildurtzen etziranen eduko.

Ikusiko ete ditut nik
atzera euskal semeak
euren umien jaubeak
arerioa neurturik?,
ikusiko ete ditut nik
iberoatar garbiak
izketa eta legeak
asabak legez maitaurik?

•

Intziri au egi biurtua ez ikusirik, negar-jario ditu bi begiak.

Nozko dira leorturik
jarriko nire begiak?
Noz jaio nintzan erriak
euren estuntzak ausirik?
euskaldunak baturik
bakezko besakadeak
anaia arteko aserreak
alde batera itxirik?

Aski bekigu emen olerki-atal auek aipatzea. Auetatik errez asma dezakegu nolako koblakari dugun. Ez zirtzila iñolaz ere, barne-gunez eta gaiñ-azalez bikainki onduta bait daude biribildu zizkigun guztiak. Bere alaba Jule bizkorra ari da aspaldidanik aren lan osoakin liburu eder bat gertu naiean. Orrela bedi aida baten.

(Ikus goian aitaturiko agerkariak, «Euskalzale», «Ibaizabal» eta «Euzkadi»; S. Onaindia, MEOE, 310 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 222 orr.).

19.—PANTZESKA BELAUSTEGI (1869-1957)

Aski ugaria genuan euskal literaturan apaiz argi au. «Tabira» erabilli oi zuen bere lanak izenpetzeko. Durango'n jaio, bizi ta illa.

EUSKAL LANA.—Erderaz ere zerbait egokitu zuen arren, ona beronen lan zerrenda alik eta biribillena, euskerazkoena noski.

1) *Bizkai-luteliztija* (Bilbao, 1914). «Euzkadi» aldizkarian dator, XI, 201 orrialdean. Ortze berton dator erderazko lan au ere: «De unificación euzkérica. Una opinión y un proyecto», 270'garren orrialdean.

2) *Anboto'ko Damia* (Zornotza, 1923). «Jaungoiko-Zale»-ren idaztiak. 16 orrialde, apaingarriekin.

3) *Goznanena erraza* (Zornotza, 1921). «Jaungoiko-Zale»-ren idaztiak.

4) *Esakun-txorta* (Donosti, 1925). «Euskal Esnalea»-n dator, XV, 173 orrialdean.

5) *Gaizkane* (Zornotza, 1925). «Jaungoiko-Zale»-ren idaztiak. 16 orrialde, apaingarriekin.

6) *Esakun-txorta* (Donosti, 1926). «Euskal Esnalea»-n dator, XVI, 25 orrialdean. Gipuzkoa'ko euskeraz.

7) *Gardoztokiko gogo gaiso-aldez bederatziurrena* (Bilbao, 1927). Verdes'enean. 27 orrialde.

8) *Oitura onuragiñak* (Zornotza, 1926), «Jaungoiko-Zale»-ren idaztiak.

9) *Sendi Deunari bederatziurrena* (Bilbao, 1928). Verdes'enean. 18 orrialde.

10) *Urkiola'ko Andoni (Antonio) Deunari bederatzi-unea* (Bilbao, 1926). E. Verdes'enean. 31 orrialde.

11) *Zugatza* (Bilbao, 1930). E. Verdes'enean. 20 orrialde.

12) *Orapil ala Gozorapil?* (Bilbao, 1933). «Euzkerea» al-dizkarian dator, 1933, II, 279 orrialdean.

13) *Zarrak zar* (Bilbao, 1935). «Euzkerrea»-n dator au ere: 1935, III, 783 orrialdean.

Idazkeraz aranatarra dugu, eta amorratua izan ere. Jakin-garria benetan Bizkai'ko lutelesti edo geografiari buruz osotu zuen lantxoa. Irakur zazu atalño au:

«—Zeintzuk dira uri Nagusijak?

—Nagusijena, goituriya, Bilbao (100.000 biztanle), Bizkai'ko amaboskarren Jaun López de Haro'tar Didaka'k irasi) a. Ondartza'ko egurastoldjan uriko ozterik geyen biltzen da; ixenak di-kurran lez, lenago ondartza baño etzan, gaur polito apainduta dago, baña. Gran *Via* ixenaz txaide ederra dau. Udaletxia ta Diputau-etxia uri gitxitan ikusten diran lakuak dira, bata baño bestia ederraguak eta ondo apaindubak. Txadonak ugari ta ederrak, batez be Deun Jagoba'rena. Bere egurastokijetan iru gomutaki dauz; bat Epaltza'ren alargun, Iturriza'tar Kasilde'ren

goraltzerako; beste bat uri irasliarenerako ta irugarrena neur-
tizlari bikain eta ipuinlari atseginkor Trueba'tar Andoni'rene-
rako. Ongitexiak be ederretarikuak dauz, batez be Basurto'ko
eritexia.

»Gañera, goguangerriak dira Orduña, Durango iru anei bat
notin artualeko elizpe ta Ezkurdi'ko egurastoki politan, euzkel-
tzale bikain Astarloa'ren antzekijaz, 5.000 biztanle; urak, naiz
edatekuak naiz osterantzekuak ugari be ugari, bultzi, tximist-
burdi ta bitxabalak edonorako. Biarba, uri au da Bizkai'ko po-
litena. Gernika, Batzar-etxe nagusi ta Zugatzaz ospetsuba;
4.225 biztanle. Markiña, 1.716 biztanle. Balmaseda, 3.220. Ber-
meo, 9.000, ta entzutetsuba da bere arraÑakaitik, batez be le-
batza. Lekeitio, Zaldibar, Somorrostro, Portugalete, Zornotza,
Algorta, Deusto, Josulaunen Ikastetxe nagusijaz.

»—Lugintzarik ba-da Bizkaya'n?

»—Bai, bai-da Bizkaya'n lugintza ta ondo aurreratuba, toki
gitxitan lez. Bilbao, Durango, Gernika ta Markiña aldietako lu-
ginak oso langilliak dira lurrari urte gustijan emon-erazota.

»—Zertzuk artzen dira Bizkaya'n?

»—Bizkaya'n gustitik artzen da. Gari, arto, lusagar, baraz-
ki ta abar; aspaldijon, barriz, lantzar ta bedartzeak ugaritubaz
duaz, igarri dabelako lugiñak orixe dala eskuartia geitzekua, abe-
riak lodituta.

»Matsa ta sagarra ainbat dago, lenenguaz txakoliña ta biga-
rrenaz Durango'ko zeyen, ta enparabetan be bai, guragaña sal-
duta gero, sagardao gozua, saneurri onian saltzen dana egiten
da, txakoliñak saneurri obia ixaten dau baña. Durango'tik Zor-
notza artian guragaña pipar artzen da. Asko da negurako euki-
teko pipar-ola bat bat-edo-batek ez iragitia, ikusita Logroño'ra
daroela, eurena baño obia dalako. Antziñetik, barriz, lurpetik
ataretan da bere olaetarako, baita atara bidaltzeko miatza. Bil-
bao'ko iztadarretik ixontzikadeak sarri juatan dira Doitxe ta
England'era» (*Euzkadi*, aldizkaria, 1914, 202 orr.).

Durango'n idatzia da, 1914-9-29'an. «Jaungoiko-Zale»-n, «Euzkadi»-n, «Euskal Esnalea»-n, «Euskalerriaren Alde»-n eta «Euzkerrea»-n idatzi zuen batez ere. 88 urtekin il zanean, lan-txo batzuk utzi zituen euskeraz ta erderaz.

(Ikus G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1961, 186 orr.; J. San Martin, *Escritores euskéricos*, Bilbao, 1968, 55 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, 1, 538 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 358 orr.).

20.—JUAN BAUTISTA ARROSPIDE OMAGOXEASKOA (1869-1952)

Muxika'ko osagille zenbait urte egin zituen gizaseme sotil au Busturia'n jaio zitzaigun, San Kristobal auzoan, 1869-10-7'an. Bere gurasoak: Jose Anjel, Busturikoa, ta Josefita, Kortezubikoa. Aitaren aldeko aiton-amonak: Juan Jose Arrospide, Busturikoa, ta Maria Josefita Gerekiz, Morgakoa; eta amaren aldekoak: Juan Omagoxeaskoa ta Maria Sarrikolea, biak kortezubiarak. Mariano Amunategi prailleak bateatu zuen biaramonean. Jesus Uruburu'k, Muxika'ko seme ta gaur Busturia'ko txaurburu jaun danak, 1973-10-18'an bialdutako zeaztasunak dituzu auek.

Gernika'tik urbil dagoen Muxika erritxoan egin zuen batez ere osalaritza. Gernika'ko alaba zan Tiburtzia Basabe'kin ezkondu zan. Nire *Milla euskal olerki eder* liburuak —baita San Martin'en *Escritores euskéricos*'ek ere— gaizki dakar busturiar onen bigarren abizena; «Basabe», bere emaztearena duzu. Ta abizen au aitatu dugun ezkerro, aipa dezagun emen orozbat Jon Arrospide Basabe, Muxika'n jaioa ta Gernika'n, Madrid'en, Paris'en eta Berlin'en sendakintza estudioak amaitu ondorean, Bilbao'n, biriki ta biotzekiko berezitasunean batez ere, oso ospetsu izan zana. Euskaltzale bizkorra gendun au ere, ta amaika joan-etorri egin zuen Bilbao'ko eleizetan euskal mezak jarri bear ziralata. Gazterik alde egin zigun, tamalez.

Iñor zintzorik baldin ba'da, zintzoa gendun J. B. Arrospide. Maitekorra oso. Zegokiona beteten alegiñik etzuen mozkindu, gaitzak atz-artean zeukana gorputz eta arima ezagutu, poztazi ta adoreturik. Bein, esate baterako, ama gaizki zeukan alaba batek esan omen zion: —«Emaiozu inyizio bat il ez daiten»—. Eta Arrospide'k erantzun: «Inyizio ori euki ba'nu, nire andrea ere etzan ilgo. Nik egingo dut alegiña; otoitz egingo dut, bai, eta zuek ere egin orixe, Jaunagan uste ona izanik».

Urkoai on egin bearrez bizi zan. Maite zitun euskal gauzak: lur, ekandu, lege, elizkizun, jolas, bertsolari ta abar. Gai otaz zekiena besteai irakatsi ta ematen etzan sekula zabar-zuri agertu: Kepa Enbeita, Muxika'ko urretxindorrari etzion gutxi lagundu osasunean eta argi-bidean. Arrospide'k zirikatuta egin zan Kepa batez ere bertsolari. Zenbat tokitara eraman zuen! Biak ibilli ziran sarritan, erriz erri, bata izlari ta bestea bertsolari.

Aitor dezagun, bai, euskaltzale porrokatua zan Arrospide, ta bertsolaritzari arnas eman ez-ezik, berak ere eio zituen neurtitz beroak. 1925-9-14'an, «Eskualzaleen Biltzarra»-k Axular'en omenez eratuta, euskal jaiak ospatu ziran Sara erritxo pertxenta orlegian. J. B. Arrospide'k eskuratu zuen Mayi Elissague Donibaneakoak eskeiñitako makilla. Zortzi ahapaldi ditun poema batekin irabazi zuen. Ona lenengo irurak;

Euskaldunak, zatozte ba gaur Sara'ko zelai aldera;
artu txapela eskuan eta jatsi belaunak lurrera,
eta pozaren pozaz pozarren begiraturik ortzera,
dedar; «Axular, Axular!, atoz jai ontan geure artera».

Orra nun laiño zuri eder bat agertutzen dan ortzean, ..
eta mendian zear or dator: Axular dakar gañean.
Eta Axular'ek eskutik atso zartxu bat eri antzean, '
ama-semeak dirudiela eritegira bidean.

Agur, Axular!, erritar zintzo eta mintzalle onena;
Agur, Axular!, ala bear-ta erriko seme maitena.
Agur, Axular!, euskal idazle bikañenetan irtena.
Axular!, zure «Geroko Gero» betiko betin aurrena.

Edozein elerti-bildumatan ez letorke mergal «Axular-Eguna» deritzaion poema poliki asmatu au.

(Ikus *Karmen'go Amaren Egutegia*, 1953, 74 orr.; S. Onaindia, *MEOE*, 1954, 849 orr.; J. San Martín, *Escritores euskéricos*, 39 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 331 orr.).

21.—JULIO URKIXO ETA IBARRA (1871-1950)

Au dio Luis Aranburu-Altuna'k: «Gizon handia zan Urkixo eta bere lanen itzala are handiagoa nabari daiteke egun ere. Inor gutti da gure kondairaren zehar, Euskal Kukurari hain besteko aupada eman dionik» (*Egan*, 1973, 1-6, 3 orr.).

BIZIBERRIAK TXIKIKA.—Bizkaitarra dugu J. Urkixo, sendiz karlista zan famili baten altzoan jaioa, ots, Deusto'n 1971-4-3'an, Jesuiten Ikastetxe nagusitik bertan. Ikasgu ontan ari izan zan bost urtetan ikasi ta ikasi; aita Julio Cejador izan zuen irakasleetatik bat, izkuntzalari ospetsua, Astarloa ta onakoen antzera izkuntza guztiak euskeratik zetoztela uste zuena. Onek eta garai artako beste maixu batzuk eraginda, ardura aundiz artu zuen J. Urkixo'k izkuntzen ikastea, eta amazortzi urte zitularik liburu bat argitaldu zigun berak ere: «Konils Volapukik» (Bilbao, 1889), Volapük izkuntzaz; esperantoaren gisakoa dugu izkuntz au, Schleyer apaizak asmatutakoa, lurbira osoan ulertua izan zedin. Ondoren Salamanka'n amaitu zitun bere ikastaroak, 1892'an lege-gizon bezela lizenziaturik.

Deusto'n izan zituen izkuntza zaletasunetik atera dezakegunez, Urkixo izkera orokor baten billa zebilkigun gazte-gazteta-

tik. Baiña, etxekoa ere etzala baztertuta utzi bear eta, Azkue'k eta Arana-Goiri'k bultzatuta itxura danez, euskeraz ikasten asi zan Deusto'n bertan, eta irakurri ta ulertzeko beste ikasi ere egin zuen. Gero, J. Vinson'en *Essai d'une Bibliographie de la langue basque* (Paris, 1891) ta *Les Eludes basques de 1901 a 1905*, eta Azkue'ren Iztegi nagusia eskuratu zitun. Eta onek ipiñi zuen osorik euskal alorrean lan egiten.

1894'an, Donibane Lobitzun'en ezkondu zan Bizenta 01a-zabal'ekin, eta bizitzarik geiena antxe eman zigun bere «Urki-xo-baita» deituan. Txit liburu zale zebillen orduko: erriz erri joan oi zan, politika atxakiz, or ta emen galdezka liburu zarren billa. Idazti asko aurkitu zitun baserri ta eliz-artxibuetan, Zaurautz'en batez ere. Orduantxe erosi zuen, gaiñera, oso-osorik Jose Manterola'ren liburutegi baliotsua; orrela J. Vinson'ek eza-gutzen etzitunak ere ainbat eskuratu zitun, eta orrelaxe, abe-ratsa bait zan, ezagutzen zitun idazti ta edizio guztiak etxera-tuz, azkenerako iñork izan duen euskal liburutegirik ederrena osotu zigun. Liburutegi ura, Urkixo il zanean, Gipuzkoa'ko Al-dundiak erosi zuen, eta gaur-egun euskaltzaleok daukagun al-txorrik bikiñena dugu.

1905'tik gora batez ere entzute zabaleko egiñik dabil bere izena. 1907'en RIEV —*Revue Internationale des Etudes Basques*, *Revista Internacional de los Estudios Vascos*— sortzen du. Espaiña'ko Kortietako Diputadu birritan izan zan, 1903'an eta 1932'an. 191 l'an *Euskalerrriaren Alde* aldizkariaren sortzai-lleen artean dago; 1918'an *Euskaltzaindia* irasi zanean, euskal-tzain dugu asiera-asieratik. Espaiña'ko «Real Academia de la Historia»-n lankide zan aurretik ere, ta 1927'an, Azkue ta biok, «Real Academia de la Lengua Española»-ko akademiku izenta-tu zituzten. Beste dedu-egite askoren artean, omenaldi bizi bat egiten zaio ta iru aleko dedu-liburua (Donosti, 1949) argitara-tzen da. Donostia'n ilten da, 1950-10-30'an.

EUSKAL LANA.—Aitor dugunez, bizitza guztian gogaitzerik gabe ari izan zan liburuak biltzen, aztertzen eta ikasten, egun-

doko idaztitegi eder baten jabe zalarik. Ba-zuen lan egiteko go-goia ere: bear-bearrezkoa noski. Au ere ba-zekin: euskal arloko jakituria euskaldunai zor zuela, ta zor ori ordaintzeko liburu oietan zeukana besteai emateko garra sortu zitzaion barnean. Zer egin ortarako? Nundik asi? Aurkitze baliotsuak egin zituen: Sara'ko Joanes Etxeberri medikuaren lanak idoro zizkigun Zarautz'eko komentuan; eta Axular'ren *Gero*, eta Beriain, eta besteak.

Aldizkari bat sortazi zuen euskaldun jakintsuak berariz bear zutena opatu al izateko. Euskaltzale ta euskalari asko ziran Euskalerrian eta Euskalerritik kanpora; baiña bakoitza zebillen bere bidetxigor berezitik zear, maiz bata bestearen lanik ezagutzen ez zutela; sasi-jakintsuak ere ba-zebiltzan beren jakin-uzta merke-xamarrik saldu naita. Benetako aldizkari bat bear zan ortaz, euskerari buruzko lanak —eta euskerazkoak— argitara emateko.

Xede au aurrera ateratzeko, RIEV sortu zuen. Langaillu onen bitartez, ziur zegoen bera, euskal landako azterketa lanai oiharri sendoak ipiñiko zizkien. Bera zan aldizkari orren jaun eta jabe, zuzendari ta banatzaille; edonork idatzi zezakean bertan, zentzunez ta jakintsuki, eta ain zuzen ere 1907'tik 1936'-rarte bertan datozten lanak taiuz, eraz ta zientzi-legez oldoztu ta egiñak dauzkagu. Etxeko ta atzerriko euskalari asko inguratu zitun. Atzerriarren artetik gogora izen auek: G. Lakonbe, asieran idazkari bezela asko lagundu ziona, J. Vinson, Jaurgain, Herelle, Meillet, Dodgson, Meyer-Lüke, Schuchardt, Linschmann, Winkler, Farinelli, Uhlenbeck, eta gaiñerakoak. 1922'-garren urtean, *Euzko-Ikaskuntza*-k bere aldizkarizat artu zuen.

Eta L. Aranburu-Altuna'k onela: «Iñoi ez halako bultzada izan zuan Euskal Kulturak, eta egun ere aupada haren fruitu gordin eta indartsua hasnaur daiteke gure artean». Eta arazo ontan egin zuen urratsik bereziena, au da, euskal jakintza ta kukurari egin zion mesederik aundiena, auxa izan zan: antziñetako liburuak, ots, aurreko gizaldietan idatzi ta erdi-galdu-

rik zeuden liburuak berriro argitara ateratzea, batzuk iñoiz irarri gabeak eta beste batzuk auts-artean umelduta zeudenak. Batzuk banazean atera zitun, liburu bezela, ta beste batzuk RIEV aldizkariaren orrialdeetan. Ona sailtxo bat:

1) *Obras Vascongadas del Doctor labortano Joanes d'Etcheberry* (Paris, 1907). Billaketa leratsuan zebillela —esan dugu— Zarautz'en aurkitu zitun saratar idazle azkarraren esku idatziak. Ale ederra, oso txukun irarrita.

2) RIEV aldizkarian eman zituen auek beintzat; Axular'en *Gero*; Beñat Etxepare'ren *Linguae Vasconum primitiae*; A. Oihenart'en olerki ta esanak; Zubero'ko seme Tartas'en *Oña hilceco bidia*; *Los Refranes y Sentencias de 1596* dalakoa; Zalgiz'en errefrauak; Aita Añibarro'k bizkaieraz ipiñi zuen *Guero Guero*; A. Juan M. Zabala'ren *Alegiak*; Grazian Adema'ren *olerkiak*; Txomin Agirre'ren *Garoa*, ta abar. Argitalpen auek txit garbiak dituzu, egillearen lana ematen dizu ezertan ere ikuturik egin gabe. Ontan omengarri dira euskal zelaian etengabe lan egin zuten J. Urkixo ta R. M. Azkue, eta gaur ere ortan ari zaigun J. M. Barandiaran ataundar jakintsua.

3) *Los Refranes de Garibay* (Donostia, 1919). Titulu onekin: «Refranero vasco», lenengo alea.

4) *Un juicio sujeto a revisión. Menéndez Pelayo y los Caballeritos de Azcoitia* (Donosti, 1925). Santandertar jakintsuak Voltaire zaletzat jo zitun, bere *Heterodoxos* deitu liburuan, Peñafiorida ta bere lagunak; Liburu edo iritzi orren aurka idatzi zuen J. Urkixo'k.

5) Beste ainitz lan, lendabizi RIEV'en atera ta gero separata bezela emanak: Ibarguen-Katxopin'en *Kronika*, Lelo'ren kanta ta besteak.

Langille alazokoa dudarik gabe, ta txalogarria dugu naiz linguistika ta bibliografi aldetik, naiz eta kondaira ta gizarte aldetik begiz jo, euskal gaiak ekarri zien onuragatik.

KANPORA BEGIRA?—Iñoiz edo beste esan da, baita idatzi ere, orokortasunezko aizeak berotuta zebillela, 1920'tik ara batez ere. Lendik egia, ba-zigun olako zerbait Volapük **salera** biribildu zunean, Europa guztirako bederik izkera bat bera gura izanik. Prantzia'n, adibidez, ikusten zitun bretoi ta oc-izkuntzak euskeraren antzera bizi eziñik, izkuntza sendo ta iraunkorragoak iraun-tresna guztiak zituztela ta besteak muga-ertz es-tuetan ito bearrez. Gaitz gogorrak oratu ta atxillotua **zeukan** gure euskera. Orixegatik, «Urkixoren barrena —dio L. Aranburu-Altuna'k— erdibiturik zen unibersalista eta euskaltzale zen alderditik. «Volapük» hizkuntza unibersala landu eta euskaraz hain iraunkorki borrokatu ziren biak, gizon bakarra osatzen zuten: Urkixo. Urkixoren jokaera eta salera asko aztertzean, ez genezake ahaztu bere gutizia bikoitza» (Loc. cit).

Ogeigarren mende ontan, gerra ta era askotariko zalaparpak dirala-ta, aurrerapideak ezeze, aldakuntzak ere izugarriak ikusiak gara aberri, enda, izkuntza ta olakoai buruz. Eta guztiok gara geure aldiko seme ta laster, lasterregi bear bada, joten dugu or-emen azaldu oi diran berrikeriak besarkatzera. Baiña J. Urkixo, aize-bolara orrek astindua, ots, Volapük **izkuntza** orokor orren alde arduraz jokatu zuena, izkuntza orren aurrelari-kin ibillia izan arren, azkenez amets-bide oietatik aldendurik, bere izkuntza —euskera.— landu, aztertu ta sendotze **lanari lotu** zan gogo ta zain. «Urkixo gizon praktikoa zen —**diosku berriz ere** alegieriar idazle gazteak— eta berehala jabetu zen hizkuntza haren arduraz ez zuela funtsik. Urkixok, hildo bereizi eta konkreto bat behar zuan, eta euskaran aurkitu zuan bere ezin egonaren atsedean. Euskaran aurkitu zuan bere gose eta egarrien osagarria. Euskarak errotu egin zuan. Eta nola bait ere Urkixok, Euskara bere hesi hertsiatikan at jarri zuan» (**Idem, li orr.**).

Labur: zabaltasun ondorio legez elebitza edo bilinguismua gura zuen Urkixo'k; geure baitan itoazi gabe, ingurumari ditugun bi zibilizazio izkuntzen erdian, euskera ere europear mailan gura zuen. Asmo au, baiña, nola iritxi? Beste izkuntzakin

artu emana ta bizikidetza izanik; daukagunetik emanaz eta ez daukaguna aietatik artuaz. Bearrezkoa zerizkion ortarako euskalkien batasuna. Zergatik ote doia galduten gure euskera? Ona: euskaldunok gutxi garelako, euskerak laguntzarik ez duelako, euskalki askotan zatituta dagolako, guk ere beraren alde egiazko ekintzarik ez dagigulako.

EUSKALDUN BERRI?—Gorago aitortu dugunez, Deusto'n ikasi zuen J. Urkixo'k euskeraz. Zerk eraman zuen ortara? Orduko irakasle batzuen izkuntza giroak, ziurrik asko. Beste askok ere orrela egin genduan ikasle giñala: maixuak zemai irarri dezake aurraren gogo-miesan.

Au ere, orraitio, aitortu bear dugu: naiz-ta euskera susterrez ikastea zailla ez izan, Urkixo'k etzuen iñoiz ere itz-egiteko beintzat erreztasun aundirik lortu. Ta idazteko? Ezta. Etzuen bein-ik bein euskal lan jator esatekorik egin. Au dala-ta iñoiz aitopen barragarri batzuk egin izan dituzte norbaitzuek. Idazle zaarren lanak mamiz ezagutzen zitula? Ditekena. Eta aien idatziai buruz eman zuen iritzia, beste zenbait euskaltzale jatorrena baiño egiazkoagoa ote? Emen errezki laban egin genezake. Beraz, obe guztiok ere zentzun geiagoz mintzatuko ba'giña; ez-jakiñez edo, orraitio, maiz ibilli oi gara arraiñari igerika erakusten.

Ala ere, bego emen au euskaldun berrien pozerako: badu ark erakusgai bat euskeraz idatzia, ta bertan aitortzen digu euskeraz idazteko duen gaiztasuna. 1910'an «Euskal Esnalea»-ren aginduz osotu zuten *Esku-Egundiya*; ementxe datoz garai artako 61 idazlek egiñiko lanak, baita J. Urkixo'ren *Zaharren erranák* deritzaiona ere. Luzea ez da-ta, irakur zazu osorik. Berak erabillitako ortografiaz doa.

«Ezta Euskaltzaletasuna gauza berria, hainitzek uste duten bezala. Iragan diren mendetan euskaltzale batzuk bizi ziren, eta hekien artean Claberia Apheza, guti ezagutua dena. Jaun hunek, Etcheberrico Joanese eskainiritako hitz neurthitzetan, erraiten dio:

Burlatzen naiz Garibaiez
bai halaber Echabez,
denak mintzatu baitire
erdaraz Eskaldunez.

Ezen zirenaz geroztik
eskaldunak hek biak,
eskaraz behar zituzten
egin bere historiak.

Eskaraz egin ditutzu
Etcheberri, zure obrak,
ohoratu nahiz zeure
ahalaz herritarrak.

Zer errefau eder baita
hitzkuntza arrotzetan
hura aditzera ematen
daroezu baretan.

guztia bereziki
Esker bada eta aithor
duzula berezia
zeren choratu duzun
herritarren mihia.

Egia handia da hori. Haurdanik euskara ikasi ez dugunek
ez detzakegu gure liburukoak euskaraz eskriba, baina Aitoren
hitzkuntza dakitenek, zergatik eskriba lezakete erdaraz?»

(Ikus Homenaje a don Julio Urquijo (Donostia, 1919); G. Garri-
ga, *Bol. Amer. E. V.*, 1950, 176 orr. ta 1957, 125 orr.; *Euskera*, 1954,
34 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 307 orr.; L. Aranburu, *Egan*,
1972, 1-6, 3 orr.).

22.—EIJENIO BENGUA AKORDAGOITIA (1873-1952)

Euskal idazle ta mixiolari. Nabamiz, Gabika ta Ereño, Arro-lapean egutera dauden iru erritxo, gaiñ-gaiñ *Maruelexa*, aintzi-ña bateko itxuraz gaztelu zarra dutelarik. Ementxe, Ereño'n jaio zan Aita prantziskotar au, 1873-3-4'an. Bere gurasoak: Gregorio ta Josefa. Umetxo zala Gernika ondoko Errenderi auzunera aldatu zan Bengoa familia, ta Eujenio'k antxe egin zituen bere len-ikasketak. Ondoren Aita San Frantzisko'ren ordenan sartu, bear ziran estudioak bukatu ta meza berria esan zuen 1901'an. Mixiolari ibilli zan ia bere bizitza guztian, Txina'ko Hupé Sortaldean batez ere; ainbat euskal lan idatzi zuen andik, Bilbao'ko «Ibaizabal»-en eta Donosti'ko «Euskal Eснаlea»-n baitik bat. Bere lekaide-probintziara itzuli zanean, Andaluzia'n bizi izan zan, Aita nagusiaren idazkari. Sevilla'ko San Buena-ventura komentuan il zan, 1952-5-17'an.

BERE EUSKAL LANA.—Gure aldizkarietatik ageri danez, ainitz mixiolari dituzu euskal miñak jota bizi ziranak. Eta nola-bait min orreri amasa eman nairik, idaz-egatsa erabilli izan dute ortarako. Aita Bengoa'k Txina'ko berriak bidali oi zitun, esan dugu, *Ibaizabal* (Bilbao, 1903) eta *Euskal Eснаlea* —«Txina'tik berriak»— aldizkarietara. Ona zatitxo au Txina'ko U-pe-tse'tik igorria; erri artara joan zanean, 1903-6-22'an noski, nolako arrera egin zioten aditzera ematen digu.

«Etxe atatik —dio— eleiz-alderaiño prozeziño baten antze-ra joan giñean. Lenengo joiazan bi edo iru bandera aundi batzukaz, euren urrengo beste gizon bat txupiñazuak botaten tres-na bategaz (aztu egin jat esatea; emen *bolandera* edo zizirikorik eztago, ezpada *tokoak* berakatz-txortea legez kordel baten ipinten ditue, ta su emonik ertz batetik ataraten dabe zarata bat, milla gizon era batera tiro-tiroka asiko balira legez, eta onelako *toko* edo tiro txortarik ezpadago, emen eztago fiestarik), bada onelakoak bere naikoa erre zituezan etxe atan eta bidean; baiña

eleiz-aldera eldu giñeanean, Somorrostro-ko atakean bere etzan izango emen zan lako tiro-tirokarik; bada zarata guztia, toko-txorta eta txupinazuakaz. Eskopetarik ez euken bi baiño, ta eurak Matusalen-en denporakoak edo antxiñagokoak, illinti edo metxa su emoteko bear dabeenak.

Orko errietan, adiskidea, Obispo jaunari berari onelako arreararik eztot uste egiten deutseenik; da gero esango dabe Txiñan txarto tratetan gaituela. Egia da txarrak (da emen geienak dira) eskubidea baleukee, samak ebagi ta biotza jan bere laster egingo leuskiguela. Orain iru urte makiña bat milla kristiñauri egin eutseen au; baita bost edo sei Obispo jaun eta beste Misioneru askori be». Bigarren abizenek izenpetzen zituen bere lanik gaienak.

(Ikus *Ibaizabal*, 1903, 87^{gn}. geia, I orr.; *Euskal Esnalea*, 1916, 177 orr. 1917, 179 orr., 1919, 19 orr. ta abar; L. Villasante, HLV, 317 orr.; Auñamendi, *Diccionario vasco*, IV, 458 orr.

23.—ZESAREO MIANGOLARRA ABERASTURI (1874-1958)

Gernikarra. 1874-5-7'an munduratua. Bere gurasoak: Aita, Gregorio Miangolarra Axuriagoikoa, Muxika'ko semea, ta ama, Manuela Aberasturi Renteria, Gernika'ko alaba. Apaiz-ikasiak bukatu ondoren, Bilbao'n bizi izan zan urteetan; eta, azkenek, Gernika'n Asilo Kaltzada deritzaneko kapellau zalarik il zan 1958-12-3'an, goizeko lauretan.

Erderaz ta euskeraz idatzi zuen. Euskeraz: *Artzain-abestijak* (Bilbao, 1912). Abestiok Bergili'ren Unai-kanta edo bukolikak dira, lendabizi «Euzkadi» aldizkarian urrenez urrengo argitara emanak noski. Erderaz: *Quejidos de mi salterio* (Bilbao, 1930). Gaztelaniazko poema sorta bat, latinezko batzukin nasteen.

Luzetxoa izanda ere, irakur zazu Polion deritzan laugarren egloga au. Bergili'ren ezagunena nunbait. Aur bat jaio da, ta

laster dator urrezko aroa, ta garaipena. Aurra aziaz dijoala, giza-izakera onduko da, ludia ere nare jarriko oso. Ederki biribiltzen ditu oldozkunak. Txasta:

«Beresietako Maitagarriak, abestu dagiguzan eresi mamin-tsuagoak. Ezteritxoet eder beti artzain apalen kantari, artzain-txuen kantak abestutekotan, izan beitez Konsulentzat alazokoak. Eldu zan oraiñezkero Kumas'go aztuak azaldutako aldi azkena: urte luzeak igazita itzuli dator garai zoriontsua. Oraiñezkero badator Neskutsa ta Satomoren aginmenak: zeru goitik jatsiko da enda barrija. Beraz, zu, burdiñazko gizaldija ezereztuta, urrezkoa ludi gustijan zabalduko daun Umeari, adi zakioz jaiotean, Luzine garbija; zure Apolo da orain agintari. Aintzak zeuri, Polion jauna, zeure konsuladu-aldijan irazango da garai ospetsu au, ta agertuko dira ille luzeak. Zure mendepean, gure oben-utsak geratu balira, laster, ludija azkatuta, ikaraturik iges egingo dabe. Berau izango da jainkuen odolekua, ikusiko ditu gizon ospetsuak jainkuen aldamenen, eta eritxiko yako euren arteko bat: eta gurasoen ekanduetan zainduko dau bere egapean ludi baketsua.

Eta zeuri, Umetxu orrei, eskiniko dautzuz lurak lelengo oparituak, untzorriak, berez erneta nunnai ta ugari, betilorea-gaz alkartuak, eta mollorika (akantu) atsegingarriakaz nastauta jazintoak. Esnez beteriko erro jatziakaz etxera biurtuko dira auntzak: leoitzarren bildur eztira izango ardiak: bitxiloraz erneko yatzu zatzan kumatxua bera. Pizti deungea galduko da: bedar gaiztoa galduko da, eta euren ordañez lekuan lekuan sortuko da Asiria'ko amomua.

Baña gizon txalogarrien landuak, eta asaben egiak irakurri, ta zenbaterañoa dan indarra ezagutzeko adiña dozunean, egun beratan galburu-landak orituko dira geldiro geldiro eldutez batean, sasilarretatik dindiliz mats-mordoak ikusiko dira, arte gogorak be eztia jarijongo dabela, ifiuntzia bezela. Geratu lirakez orraitino oben zarreko erpe txarren batzuk; edo ontzizakaz itxaso aratutera dabilkenen bat, edo urija arresiz inguratuko leu-

kenen bat, edo goldakaz lurra iraultzen ari litzakena. Aurkitu lirake bearbada beste Tifisen bat, eta gizon berarizkoak daroakezan Argos: izango dira gudaen batzuk, eta Akiles indartsuak joko dau barriro Troyara bidea.

Baña gizon garakua eldu zaizenean, ezta ikusiko itxasoan markarik (ontzi) geiago, ez itxasostekoakaz salerosietan dabilkenik, edonun da oparo aberaskijak idoroko diralako. Ezta izango goldakaz lurra zetan landu, ez zetan iñausi igitayaz mastia; ta basetxeko morrosko gordiñak basoratuko dituz, azkatuta, buz-tarridijak. Ezta izango ur gorritan artulea sartubearrik margoztutako; dabilatzan mendi) an margoztuko yakoz akerrari bere uleak naiz dala gorriz, purpurea bailitzan, naiz dala oriz basa-zafrana bezela, ta bildotsei bedarra jaten diarduen zelaian nabartuko yakez euren ule kizkorrak.

Oh, bazentoz lenbaitlen, egun senti ederrok! Bazentoz, geiago luzatu barik, txaluak jo ta aintzak esan daizuguzan, jainkuen jatorrizkoa zaran laztan ori, Jupiter'en endako seme itzaltsu ori! Ara, zelan dagon dardaraka, zure pozean, ludi gustija, zeruko odeietatik eta itxasoko ondarretaraño. Ene poza, luzatu albanei neure zartzaroka, ta bear nukean añako etorrija izan, zure gurendak abestu negikezan. Eleuskide irabaziko itzneurtuak abesaten ez Orpeo Traziokuak, ez Liñok, nai ta baldin lagundu batoni Kaliope beren Amak, eta beste orrei Apolo galantak. Pana bera, alkarren leian nigaz asartuko balitz, Arkadi zain gendukela, Arkadik emongo leuskit garaitz ziñalpena.

Asi zai, txikitxu ori, irribarrean ezagutzen zeure ama, amar illabeteko nekeak emon zeuntsazana. Asi zakit, polit ori; bestela, gurasoak irribarrerik egiten eztautsoen Umea, ez jainkoak artu gura dau maian, ez Junok magaltxuan».

(Ikus «Euzkadi», 1910, 376 orr.; Andima Ibiñagabeitia, *Bergili'ren Idazlanak osorik*. Bilbao, 1966, 23 orr.; J. San Martin, *Apéndice a Escritores vascos*, Bilbao, 1969, 26 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 361 orr.),

24.—ZIRILO ARZUBIAGA ETXEBARRIA (1874-1966)

Askotan etzaigu errez gizona dagianetik ebaztea: ez jakinez, edo ta gogo txarrez ere bai, gaur ta biar uts-egin oi dugu. Makurretan ez jausteko zintzotasuna ta iraupena bearrezkoak dira, noiznai ta nunnai. Gaitasun oiekin edertua genduan Zirilo Arzubiaga apaiza: apaiz bezela zintzoa, ta euskalduntasunez leiala. «Euskera bitartez, euskaldunen artean Kristoren apostolu ta kristiñautasunaren zabaltzalle adoretu, nekatu **eziñekoa**» **izan** zitzaigun.

BIZI-ZEAZTASUNAK.—Otxandio'n jaio zan 1874-6-22'an. Abade izan nairik, latiña ta gaiñerakoak, apaiz-karrera osotzen dutenak alegia, Zornotza'n ikasi zitun, Legutiano'ko seme zan Jorge arabar apaiz entzute aundia zuenarekin. Bizimodua ateratzeko edo, eskribau bati laguntzen ei zion goizero, ta arratsaldean —gaurko gazte askoren antzera— ikasgaietan arduratzen zan. Orrelaxe iru urtetan; eta gero, Gazteiz'ko apaiz-ikastetxean sartu zitzaizun.

Abaderatzarako bear zitun ikasiak bukatu ondoren, 1899-6-11'an artu zuen apaiz-maillako duintasuna, bere jaioterrian lenengo meza emanik. Azkue jaunak egin zion itzaldia, eta Arrese-Beitia'k, bertako olerkari erneak, «Neure adiskide maite Zirilo Arzubiaga-tar jaunari bere meza barriko egunean» deritzan olerki sentikorra eskeiñi zion. Ogetalau ahapaldi ditu lan orrek; ona bi, seigarrena ta zortzigarrena;

Lenengo aldiz ikusi zaitut, adiskidea,
Golgotan jaso eben Mesias zuk jasoten,
lenengo aldiz ikusi zaitut nik gaur altaran
ze eskubide andia dozun agertuten,
lenengo aldiz; «Jauna zuekaz izan bedi» gaur
meza-entzuleai begiraturik dei egiten,
ta eurak leial; «zure espirituz izan bekigu»
berealaxe zelan eutsuen erantzuten.

Lenengo aldiz emon deuskuzu benedeziñoa,
Jaungoiko aundi itzaltsuaren izenean,
irudituz ostarku eder zu ziñeala,
bere su eta gure erruen bitartean;
lenengo aldiz baita eskiñi bake dontsua,
zorionakaz lurrean bizi gu gaitean,
urte askotan egin daizula beste ainbeste
lotatik zoli goiz guztietan jagitean.

Onelaxe, aundikiro, neurtitz sail ederra abestuaz, poza ta mesede erreka opa dizkio Kristo'gandik, beretzat eta bere erriarentzat (Ikus *Euskalzale*, 1899, 187 orr.).

Arimazai arloari loturik, Karrantza baillaran bi urte egin zituen aurretik, San Esteban deitu errixkan. Beste urte pare bat bezela egon zan gero Orozko'ko San Martin eleizan. 1903'tik aurrera, Zornotza'n bizi izan zan gerraldirarte (1936), emengo parrokiko eginkizunetan batez ere.

1912'an —esango dugu— alkarte bat sortua izan zan Bizkai'ko abadeen artean-eta: «Jaungoiko-zale» bazkuna. Karda-beratz zanaren esana artu zuten ikurrintzat. «Euskerak burua jasotea, Jainkoak nai du». Bai, Jainkoaren naia da euskaldunai euskeraz mintzatzea, naiz eleizan naiz errian zer irakurri ematea. Bazkune onek ba-zuen izen bereko aldizkaria ere; «Jaungoiko-zale» illorokoa. Ta bion idazkari Zirilo Arzubiaga izan zitzaizun. Zornotza'n bere etxetik makiñatxo bat orri ta liburu argitaratu zitun euskaldunen artean zabaldu zitzaten. Gabirel Manterola, J. G. Eguzkitza ta J. G. Ibargutxi zituen batez ere laguntzaille bizkor. «Jaungoiko-Zale»-k aldizkari bezela 1912'tik 1932'rarte iraun zuen, urte onetan «Ekin' izenarekin asteroko biurtu ta 1936'rarte gisa ortan jarraiturik.

Berak gertatzen zitun gaiñera umetxoen dotriña-sariketak ere. «Erririk-erri, olako egunak atontzea zan Zirilo'k gogotsuen egiten eban lana —diosku Amuxalde'k—. Olako ume-jaialdi baten, umeen artean, dana poz eztitan aurkitu zan Arratiako erri

baten, 1936-ko garillaren emeretzian. Goiz atan, Lemona'tik aurrera joiala, bazterrak txapel okerrez oi baño betetago ikusi zituenean, ez eban bere biotz onak sutan asirik zan gerrate luze odoltsuaren usaiñik asmatu» (*Zeruko Argia*, 1966, uztaila, 31).

Usterik gabe sorturiko burruka zala-ta, erbestera jo bear izan zuen umetxo mordo bategaz, urte batzuetan Ingalterra'n bizi izanik. Irurogeta bi urte zeuzkan. Guda amaitutakoan euskalerriratu zan berriz ere, ta lengo lanari eldu zion gogo berotsu. «Zarata aundi barik —dio Amuxalde'k—, ixiltxorik, ori bai; baña txiri txiri, jo ta jo, ekin bai ekin, bere elburura beti. Ez eben atzeratuko ez urteen aztunak, ez nekearen gogaikarriak, ez askoren ez-jaramon eta erantzunik ezak».

Begoña'n zeukan bere lantegi berria, ta ogibidea: klaratar mojen kapellau zan eta auen etxean jarri zuen bere eguneroko bear-tokia ere; «Ediciones Religiosas» sortu ta ementxe jarri zuen beronen egoitza. «Nekeak neke ta miñak min, ikustekoa zan larogei urtetik gorako agure makur begi-zolia, Zabalbide'n bera, bere oin errenaz (errena zan bada), titirri tatarra, inprentarik inprenta, liburutegirik liburutegi, ezek nekatu eziñik, bere liburuak atera ta zabaltzen».

Egiteko ontan zebilela sarri ikertu nuen nik. Aren poza! Bere euskaltzaletasuna ta lanak aintzat artzen zirala jakitean, batez ere. Bakarrik lez aurkitzen zan, urteetan aurrera zijoan... Lagun gazte batzuk nai zituen, bere lanari ekin eta euskal liburu arazoa aurrera aterateko. Autu bikaiñekoa zan, iñoiz aspertzen ez ginduzana. Bizitzea igarri gabe urtu ei zitzaion; osasun ederra zuen, baiña urte-sorta eskerga bizkar gaiñean, eta nai ta ez, laster, munduari agur egiñik, besterako bidea artu bear. Izatez baikorra gendun, eta beti zebilkion loratan irribareara. Iñork galdetzen baldin ba'zion nola bizi zan orren luze ta alai, ortarako iru osakai zitula erantzun oi zuen: gutxi jan, ez iñoiz bordarik erre ta pozik lan egin.

Azkue'ri asko lagundu zion. Euskaltzaindi'ko urgazle izan zan.

Eta azkenez, Begoña'n bertan il zan 1966-7-11'an, 92 urte zitula. Goizean il zan, eta arratsaldean, ixil-ixillik, lurra eman zioten bere gorpuari Derio'ko iltegian. An datza, gorputzez, Zirilo Arzubiaga, «jaun agurgarria, euskal arloetako langille gogatsu ta ezin aspertua»; aren arimak, ordea, artua du aspalditik Goikoak guztiontzat gertu daukan betiko argiaren atsedena.

IDAZLE.—Liburu bezela argitaratutako lan jatorrik etzigun utzi On Zirilo otxandiotarrak; ia etzuen ortarako astirik ere izan. Baiña euskal idazle ona zan. Ederto zekien euskeraz, bere sorterriko ibar zabalean ikasita. Eliz-gizon egin ordukoxe, oraindik ikasle zala, asi zan «Euskalzale»-n idazten; 1897'garren urtekoa da bere lenengo lana.

Ba-dute piñerminā aren lumak ustu zizkigun izkirimiri, olerki, ipui, albiste ta besteak. «Arzubiaga», «Otzandio», ta alakoak beintzat erabilli zitun bere lanak izenpetzeko. Olerkari lez ere agertzen zaigu, ta ez txepetx gisako alegia, Arrese-Beitia bere erkidearen arnasaz baizik. «Mariari bere sorkunde garbian» deritzaionean, ona nola asten dan:

Amaitua da gaua ta Febok
buztartu dituz zaldiak,
abietan da bere burdian
ia igo dituz mendiak;
arro panparroi a ikustean
zabaltzen txipart argiak,
dakust benetan gaur dakazala
barri on ta pozgarriak.

Amabi aapaldi ditu neurtitz onek, eta danak borobildu zitun ederki, olako beaztopo ta eragozpen aundi gaberikan. (*Euskalzale*, 1898, 387 orr.).

«Jaungoiko-zale» ta «Ekin» aldizkarietan, berriz, lan ika-ragarria burutu zuenik ezin dezakegu ezetz esan. Artezkari ba-tek, iñork siñistu ezin bezelako buruko miñak artu bear izaten ditu askotan, bere ardurapeko aldizkaria ganoraz kaleratu dedin loari berari ere ordu ederrak kendurik.

LIBURU - ARGITARATZAILLE.—«Jaungoiko - Zale» bazkunak bere irarkola zuen, emen Zornotza'n, gero gerra denboran erre ta sakabanatua. Ogetalau urtetan konta ezin-ala liburu, olerki ta musika argitara eman zizkigun berak. Eta, besteak beste, lan geien orren ardatz Arzubiaga jauna izan zan. Onexek atera zi-tun J. Gurutz Ibargutxi abadearen idatziak: Bost liburu mardo, «Kristiñau-Ikasbide-Atzalbena» izenburutzat dutela.

Liburu-argitaratze ontan Kristau-Ikasbidea, dotriña zan ba-rrena geien irrikatzen ziona. Ta gudu aurretik eta ostean, Biz-kai eliz barrutiko apaizkideai erakustearen nekea alik eta bigun-tzearren, ainbat argitapen osotu zitun. Gerra ostean erbestetik etorri ondoan ere, bere ustez lanik bearrezkoena orixe zala-ta, zeregin orrexerri eldu zion gogotsu. Gazteiz eliz barrutiko do-triña agortua zan; beraz, ber-argitaldu ta zabaldu bearra zegoen, Bizkai'ko arimazaiak batez ere zer irakatsi izan zezaten. Errena izanagatik —barne-irritsak gorputzari sakatzen—, ainitz oinka-da eman zitun, ara jo ta ona jo; gaur Gotzaíagana ta biar apai-zengana.

Neka-gaitza bait zan, apurka apurka, joan-etorri guzti oien ondorena bere biotzak gura zuena eskuratzea izan oi zan. Etzuen zarata aundirik ateratzen, apal eraginkorra zanez; zaratea, izan ere, ezta gauzak eramateko giltza; ez dugu itz utsik bear, itz utsak ebakitzean keiñulari alper baiño ez gara, ta keiñuka ez dugu ezertxo ere lortzen. On Zirilo'k ba-zekien au.

Amaitzeko, «abade adintsu, biotz-gazte ta langille etengabe-koa» genduan Arzubiaga. Bein, 81 urteko zala, A. Irigoien'ek itz-aspertu goxoa euki zuen berarekin, eta azkenez galdetu zion Irigoien'ek: «Nola ikusten duzu gaurko euskal zeregiña?» Eta

Arzubiaga'ren erantzuna: «Bear dugu abadeak ardura apur bat ar dezaten. Predikaziñoa bakarrik ezta naikoa, irakurten ere zaletu bear da erria. Ortik dator kultura, ta gaiñera bear bearrezkoak dira liburuak fedea indartzeko eta obeto ezagutzeko. Leiduteko zaletasuna biztu ezker, liburuak ere ugaritu egingo lirake ta eskatu jenteak. Bestela erlejiñoak eztu iñoren bururik bear den bezala lantzen» (*Egan*, 1956, 2, 67 orr.).

(Ikus *Anayak*, 1939, I, 3 orr.; S. Onaindia, MEOE, 311 orr.; A. Irigoyen, *Egan*, 1956, 2, 64 orr.; L. Villasante, HLV, 393 ta 395 orr., ta *Euskera*, 1968, 280 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliografia*, I, 359 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 463 orr.).

25.—JUAN GARATE ZUBILLAGA (1874-1948)

Aita Juan Martin karmeldarra, Markiña'n jaio zan 1874-11-11'an. Larrea'ko komentuan artu zuen karmeldar jantzia 1890-12-3'an. Eta eliz-karrera amaitu zuenean, apaiztua izan zan 1898-3-5'an.

Txile'ko komentuetan bizi izan zan luzaro, arima-zaintzarí zoli jardunik. Arteza zan zer guztietan, eta txeratsua ta edonori on egiteko beti gertu zegoena. Gerra aurretik Logroño'ko lekeratxean zegoen, baiña 1937'an Frantzia'ra iges egin bear, eta an iraun zuen urte batzuetan. Azkenez Donosti'ko komentura itzuli ta ementxe il zan 1948-9-9'an.

EUSKAL IDAZLE.—Kanpotik ibilli zala ere, maite zuen euskal lurra, ta maite zuen berariz euskera, gure izkuntza. Naikoa idatzi zuen, bai bertsoz bai itz lautan, Bilbao'ko «Euzkadi» izparringian batez ere. Ta zentzunez ari oi zan beti, euskera goxo errezean. Ona zatitxo bat euskaldun berriai —Jemein'dar Keperin'i— zuzendua:

«*Euzkerea'ren* lengo zenbaki) an, poz-pozik, Aitz-Zorrotza'ko jayetan zure itzaldija irakurri neban. Au ederra! Euzkeraz argi

ta garbi. An esan zebanagaz gustiz batera gagoz. Geure asabeak, ikastedunak batez be, euzkeldunak ixan arren, jaurtika erabilten eben gure Euzkera gaxo au, abertzaliak etziran-eta! Aldi atan, gure irakaslia agertu zan arte, danok giñian erderazaliak, eta Euzkera gaxua, laban batetik, arin-arin jausten zan, baña len esan dodan lez, Jaun-Goikua'k bidaldu euskun, indarraz beteta gure Sabin, eta Aberrija gaizkatzia, laster erabaki eban bera zelan eguan ikusi ebanian.

Orduban, euzkotarrak garala ta beraz abertzaliak ixan bear garala irakatsi euskun; abertzaliagaz, Aberrija gaizkatuko dogula, Euzkerea maite ixaten, Aberrijaren maitasun bidia dala-ta; euzkeltzaliagaz bakarrik eztala naikua. Orregaitik, zuzen-zuzen dago, zuk esan zenduna; amaren altzuan Euzkerea ikasi ebenak, ez eben Euzkerea benetan maite ixaten ikasi, euren burubak abertzale egin arte... Zer diñosku onek? Sabin'ak esan euskuna: «Abertzaletasuna zabaldu egixu ta Euzkerea zabalduko da». Ondiño, Euzkerea abertzalien artian zabalagotu biar dogu, ia Euzkerea baño ez itz-egiten elduten garan eta orduan erraz igarriko litzake nortzuk diran euzkeltzale egokijenak» (*Euzkerea*, 1930, 452 orr.).

IZLARI BIKAIN.—Izlari errimea zan, ots, eliz-sermogille bizkorra; Txile'n eta Euskalerrian makiñatxu bat itzaldi eder egiña. Aldikada baten Aita Garate genduan olako jai aundietan mintzatzzen zana, euskaldunen jaietan batez ere. Iñaki Deunaren eguna, esaterako, ospe aunditan egin oi zan Bizkai'ko uriburuan, Euzko-Gastediak eralduta geienez.

Arako baten, 1930'garrenean, adibidez, Begoña'ko eleiz nagusia jendez bete-beterik zala ospatu zan Iñaki Deunaren jaia. Juan Azkuenaga'k esan zuen meza, Bartolome Ugarte'k eta Iñaki Orbea'k lagunduta. Valdes-Goikotxea'ren «Angelis» eliz eresia abestu zan. Aranbarri maixuak jo ta Orue Jon'ek korutik eta Ortuzar'tar Imanol apaizak beetik zuzenduta. Erri osoak abestu zuen. Eta gero itzaldia. Ta zelakoa gero! Aita Garate zan izlari. Ona zelan goratzen duen Enbeita'tar Imanol'ek:

«Garate'tar Jon Martin Abea, txonizlari errimia da gero. Alako itzaldirik! Erderaz egin eban; tira, erderaz asi zan, euzkeraz amaituteko. Berez danari, barrutik euzkotarra danari, azkenerako euzkeriak urten biar, baita, baita...!, miña euzkerarako lokarriz lotuta eukita be! Garate Abeak euzkeria, erderiagaz batera erabiltiak, euzkeria goi-gora jasota ipiñi eban, erderiaren urrengo oguzten euzkeria ba, zelaiko bedar erkiñen artetik, lerdan eta jori!, edurra baxen zuri ta eder agertu oi diran zitori-lilijen antzera agertu euskun-eta.

Iñaki Deuna asko goraldu eban, baña akatzak be idoro eutsozan; ez idoro bakarrik, idoro ta zeintzuk akatz ebazan be, argi ta garbi esan euskun-eta. Garate Abeak eztau miñian ugerrik egijak esateko, jauntxuben otsein ez edo, da; arek ba urari URA deituten dautso, ta ardaubari, ARDAUA. Garate Abea zer esaten daben dakijana da... Iñaki Deunari be akatzak idoro eutsozan, akatzak! Aundiki-zaletxuba ei zan, aundiki-zaletxuba Iñaki!, gaur-eguneko euzkotar askoren antzera. Ta, jakiña!, aundikijari eder egiten ibiltan ei zan... Baiña Iñaki Deuna, Urtziren otsein egiñagaz, bere aberkidiakaz be adizkidetu egin zan, eta Josu'ren Lagundija irasi eban, Urtzi-zaletasuna ta euzkotarren ixena ludiko baster gustijetara eruateko. Ludijan ixan Donerik entzutetsubena, Iñaki Deuna da! epaitu eban azkenian. Euzkotarra, Garate Abeak iñoanez, ixakeraz da azke-zalia, ta buztarriak min egiten dautso, min buztarriak!, batez be, neurri-neurri barik egin eta etxetik atazkoren batek ezarririko buztarriia ba-da» (*Euzkerea*, 1930, 423 orr.).

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 684 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 292 orr.).

26.—J. A. ETA A. «BIARGIN BAT» (...1902...)

Sasoi onetan Bermeo'n ba-zan idazle aski ona, baiña apala nunbait ez bait zigun bere izena azaldu nai. *Ibaizabal'en* asi zan

idazten, Kirikiño'k bertso-batzaldia sortu zitunean. 1902'n, zortzigarren geiean onela dio: «Gaur amabost jakin eragin genduan batzaldira etorri direan bertsoen artean lenengo saria ateratu dau Bermeo-ko J. A. eta A.-ek, zeiniek ipinten daben firmatza *Biargin bat*». Eta ondoren ematen digu *Taberneruaren bi-zimodua*, bermeotarrak onduta. Ona aapaldi batzuk;

Jagi da oetlk tabernerua
bere dendara joateko,
kopakada bi lenengo artuta
eguna ondo asteko.

Burua dauko goizian astun
atzoko ardauen indarrez,
etxeko danak altzau artian
beti daukazu diadarrez.

Iñor etorri baiño lenago
bótiUak daukaz beterik,
kaña ta anisez ondo ipiñita
maien ganian zutunik.

Indar andiaz emongo baleuz
bere edari apurrak
, kopa bategaz erdi orditurik
ausiko leukez musturak.

Errukiturik, bere auzuari
egin eztaion kalterik,
eztau ezertxu ak saldu gura
ur apurtxu bat bagarik.

Eta emen doazkizu beste zortzi aapaldi, guztiz politak, taberneruak nola ardaoa bataiatzen duen adierazirik. Jokoan ere ari da, ezeren ardura gabe; olan darama bere bizitza osoa, otoitz egiteko ta ilteko ametsik gabe.

Ainbat lan eder ditu *Ibaizabal'en*, Bermeo'ko albiste ta goraberak geien bat; aren edo onen bizimodua, izkirimiriak, igarkizunak, arrantzaleen istilluak... Txalupa baten ondamendia zala-ta, onela dio: «Txalupatxua topau dabe guztia egur, otzara, trabol, txamarra, soixe, ta beste guztiakaz bata besteari sokakaz lotuta, eurek arexeri eldu ta euren ganian zelanbait egon albairean...» Aurreko egunean eguraldi ederraz itxasoratu ta bat-batean izugarritzko ekaitzak arrapatu zituen; alere, bat ez txalupa guztiak etorri ziran portura. Urrengo egunean bat orren billa joan eta orrela aurkitu zuten, «amar gizon gazte gordin indartsuak itxaso gaiztoak iruntsita».

27.—«EUSKALZALE» ETA «IBAIZABAL» ALDIZKARIAK

Biok, Azkue'k eta Kirikiño'k zuzenduak. «Euskalzale» astean asteango albistari edergarritz eta eresi-lanez ornidua, iru urtetan —1897-99— atera zuen lekeitiar gartsuak. Azkenean isuna ezarri zioten, gogor xamarra, 100 pezetako multea, orduko prentsa-zeetasunen bat beteten etzuelako, ta lan guztiak euskeraz ta erderaz ematera beartu. Gero, bi urte ixillik eman ondoren, «Ibaizabal» sortu zuten bien artean. Kirikiño jarri zan zuzendari. Bizkaitarrez eta gipuzkoarrez egiña, igandero irtezen zan, 1902'ko ilbeltzaren 5'tik 1903'ko lotazillaren 27'raiño; 103 gei guztiz. «Euskalzale»-ren moldagintza ta liburutegia: Jardines kalea, 10 ta 12'garren etxeetan; eta «Ibaizabal»-ena: Dendari kalea, 19, Jose Astui'renean.

Bi aldizkarion asmoa berdiña izan zan. Onela dio «Euskalzale»-k bere lenengo orrian; «Erderazko gauzarik ezta ezer agertuko, guztia izango da euskeraz egina Onetarako alik garbien da errazen agertuko dira euskerazko berbaak. *Bentanea, sillea, pareta, confesinoia, primerako billetea, ferrokarrileko estazioia, habitazioiak, fondak, jardinak* eta euron antzeko berba

guztiak oraindixek pilotuten asiko gara; ta iru urte barru, lenago ezpada, euron ordezeko berba garbi ederrak zabaldu daizanean, su emongo iako erderakada-pilo orreri».

Eta elburua irikiagotuz, darrai: «Izenak berak diñoanez, euskerea zabaldutea izango da gure arazorik berarizkoena ta arduratsuen. Baita arimarako egi egokiak bere aleginez erakutsiko doguz. Ganera ipuinak, asmoak, ikusimakusiak, euskalerriko ta erdalerrietako albistak eta iazoeak; eta noizean bein *zirt zart* moduz da polito polito bear dabenari emotea bere izan leike» (*Euskalzale*, 1897,I gela). Berauxe zan «Ibaizabal»-en asmo ta xedea ere, eta ezingo du iñork ukatu al izango, bi albistariok aztertzeraz ezker beintzat, bai bata bai besteak zintzo bete zutela beren egitekoa. Gaur ere, gaurkoak eta guztiz jakingarriak dituzu oietan datozen lanak.

Idazleetan batzuk ezagunak dira, beste batzuk ez ain ezagunak. Ona «Euskalzale»-n geien idazten zutenak: Azkue, Txomin Agirre, Felipe Arrese-Beitia, Urruzuno, Maguregi, M. A. Antia, Iriondo, Etxegarai (K. ta B.), Iñarra, B. Mokoroa, S. Erkiaga, J. Artola, Zamarripa, J. K. Gerra, Z. Arzubiaga, J. I. Arana, E. Arrese, B. Iraola, E. Madina, J. Izurrategi, Gorgonio Errenteria (Errebido), Arriandiaga, Kanpion, Mokoroa, Frantzisko L. Alen, E. Bustintza, R. Gelbentzu, Irure, J. Larreta-Azolain, Zugazaga, Iturrioz, Jauregi, Otadui, Peña, Txistular, Unamunzaga, Urain, Peru, Ur-zale, Azkoitia, Amorrotsen Aistia, Arenaza, Barreneko Matxin, Bordagarai, Madinabeitia, Tertzadun bat, Zutagape, ta abar.

«Ibaizabal»-en, berriz, auek idatzi zuten: Azkue, Kirikiño, Felipe Arrese-Beitia, Emeteri Arrese, Pepe Artola, P. M. Urruzuno, R. Gelbentzu, Kaetano S. Irure, Simon Erkiaga, Akordagoitia, B. Iraola, Praisku Arriola, Enrike Elizetxea, Ramos Azkarate, Paulo Zamarripa, Jose Elizondo, Pedro Enbeita, Errebido, Eugenio Urroz, J. I. Uranga, Rosario Artola, Jenaro Elizondo, Manuel Enbeita, Ramon Illarramendi. Ta ez-ezagunago auek: Bermeo'ko Tertzaduna, Abade-Gaztea (Zumetza), Eloiz

Zarauz (Zumaia), Kurloia, J. Agirrezabalaga, Aitor-en Alaba, Larreategi (Eibar), Juli (Donostia), Redes (Gernika), Erramonetxu (Markina), Gregorio Mujika (Bergara), Juan Migel Orkolaga (Igeldo), Jose J. Alberdi (Bilbao), Atraka, Jose Ramon Jauregi ((Aretxabaleta), Egaña (Deba), Karlos eta Andres Amonnarriz (Tolosa), Saizar (Tolosa), Oregi (Durango), Markuerkia-ga (Ondarru), Jose Aballa (Azpeiti), Errota, Pedro Okariz, Izagirre (Errenderi), Arrue (Aretxabaleta), L. Oia (Zumaia), Pe-lío Agirre, Domingo Besaita-Ormatxa (Onbe), A. L. Aranbeas-koa, Jauregi Denbolinterua (Errenderi), Amallo Arri, Jose Gal-doz (Donostia), Muxulu (Durango), Akerra (Beizama), Luzio Azkona, J. I. Lezokoa, Leontzio Galdos (Aretxabaleta), J. M. Eleizegi, Florentino Abarrategi (Mondragoe), Iturrioz (Beasain), Josepa Antoni Aranberri, Ozkozel, Jose Berga, Irisasi, Izengor-dea (Tolosa), Barritsu, Enpla (Ondarru), Burduntzi, Gregorio Sasieta (Bergara), Erreka-Itxaso, Eleuterio Arozena (Lasarte), Benito Larrabeiti (Laukiniz), Eliztxori, Pantalion (Durango), Kukutxua, Artatxori ta Eliztxori, Tente (Azpeiti), Maria Oses (Mendaro), Praisku Amurrategi, Jose Migel Azkue (Donosti), Jose Maria Laborda (Usansolo), Nartzisa Gordobil (Mondra-goe), Txistu-Burni, Joxe (Lekeitio), Katillu-Kirten (Tolosa), Praiska-Antoni, Izarraitz, Jeronimo Elizegi eta Arrillaga, Goi-erriko Txoria, ta abar.

Esan dugunez, lan baliotsua guztion artean osotzen dutena.

28.—LEKAIME EUSKALTZALEAK

Leon Xlii'garren Aita Santuaren urrezko eztaiak zirala-ta, Euskalerriko idazle ta olerkariak ere, Kristo'ren Ordezkarigana-ko beren biotz-txera ta maitasuna erakutsi nairik, askoren artean egiñiko euskerazko liburu bat bialdu zioten. Liburu apaiñaren titulua: *Euskal-Erriak Aita Santuari* (Tolosa, 1887). Liburu on-tako poesi-lan askoren artean bizkaitar koplakariok ere —B.

Garita-Onandia, J. M. Ampuero, Isidoro Ruiz Arbulo durangarrak, Elorrio'ko Kapelastegí, Otxandio'ko F. Arrese-Beitia ta Ermu'ko Ezekiel Etxebarria— agertzen dira.

Baita Durango'ko Gaixotegiko San Bizente Paul'en alabak ere ipiñi zuten beren aletxoa, ta olerkizkoa ipiñi ere. Durango'n, 1887-6-2'an, izenpetzen zuten Sor Maria Joaristi, Sor Maria Josefa Albizu, Sor Maria Pagola, Sor Lorenza Etxebarria, Sor Frantziska Zendoia, Sor Maria Barbara Intxausti, Sor Josefa Arozena ta Sor Dazia Herrero monjak euskerazko olerki txukun bat, beren eskintzari bezela Leon XIII"garrenari (1810-1903) bere urrezko ezteguetan eskeiñirik.

Ona iru lauhoak osorik;

Zer da, Jauna, munduan guk dakuskuna?
Biraua ta pekatua zabalduzik;
Baña geiyen biotza minduten deuskuna
Da Zu ikustea larri ta estuturik.

Guri biotza poztuko deuskun gauzarik
Ez da ezer jazoko aurten munduan?
Bai, ospatuko dira pozez beterik
Zure urrezko ezteguak abenduan.

Igituko da orduan mundu guztiya
Euren eskinzariyak egiteko;
San Bizenteren Alaben gurariya
Da bizitza emon, zurea geituteko.

Lekaime danen artean egiñak ote dira aapaldi auek? Ala besteren batek, eta berak izenpetu?

(Ikus N. A. G., *Egan*, 1970, 1-3, 98 orr.).

29.—ETA BESTE AUEK

Euskalariak gaur, leenago bezela, begi-zoli dabilta paper zaar billa. Ta gutxien uste danean alboko sasitzatik edo saskara artetik jaiki ta egaz dagi oillagorrak; beste batzuk, maltzurak bait dira, luzaroan billa jardun arren, ez dute bururik azaltzen. Orrelaxe gure idazti zaar batzukaz ere; nunbait ba-dala, baiña ez agertzen. Oietakoak dira, bizkaitar barrutian, ondorengo batzuk.

1) *Bermeo'ko Debotoa*. Onela ezagutzen dugu XVIII'garren gizaldiko liburu baten egillea. Nor dugu? Ez jakin; baiña euskalariak aipatzen dute. Liburuaren titulu osoa, onela da: *Errosariyo, edo Coroa Santuban ofreciduco dirian misterioac: saspi gozocoac: saspi gloriosoac: erreparduric guero esaten dan moduban, Via Crucis, edo Vide Sagraduba Calvariyo pausuben ofrecimentubac, Acto edo equite, Fede, Esperanza eta Caridadecoac. Devoto batec, gustijac, apaindubac San Francisco Bermeoco, Venerable Irugarren Orden daco, seinnecc salduten daben libruchu au* (Bilbao, 1780). 94 orrialde. Nundik nora dabil idazti au? Aita Uriarte frantziskotarrak onela idazten zion Bonaparte'ri Markiña'tik, 1856-11-5'an: «Oraindik ez dut nere eskuetan Bermeo'ko Irugarren Ordenakoen «Errosariyo edo Coroa Santuba»-z (Ikus BAP, X, 236 orr.; Vinson, *Essai d'une Bibl*, II, 119 zenbakian; G. Lakonbe, RIEV, 1910, 41 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, III, 168 orr.).

2) *Echebacohecho cristinau edo familiyac equiteco esquin-tzariya* (Durango, 1844). 4 orrialde.

3) *Deboto batek*. Ez dakigu nor zanik, baiña liburu au argitaratu zuen: *Jaungoikoaren Ama Birjiña guztiz Garbiaren bizitza* (Durango, 1895). 66 orrialde. Durango'ko idazle Urkizu bera ote dugu? Onek, dakigunez, «Liburu Virgina Santisimien Errosario santuena» (Iruña, 1737) idatzi zigun. (Ikus A. Pérez Goiena, *Ensayo de Bibl.*, III, 429 orr.; *Euskal Literatura*, I, 236 orr.).

4) *Ezekiel Etxebarria*. Bigarren alean aitatur. An esanaz gain, auek ere idatzi zituen Donostia'ko «Euskal-Erria»-n: 1) *Olerkia*, Aita Santu Leon XIII'garrenari bere urrezko ezteietan (1888, XVIII, 229 orr.); 2) *Puntos oscuros en el verbo vasco* (1881, IV, 211 orr.); 3) *Sobre el apellido Guisasola y sus análogos* (1882, V, 226 orr.).

5) A. M. A. *Erkindea*, eskola txikiko umeentzat laburtsu eratua (Bilbao, 1900). Amorrortu, Kortina ta lagunak irarkolan.

6) *Bermeo'ko Tertzaduna*. «Ibaizabal»-en idatzi zuen onak (1902-1903), sarri samar, eta beti gatz-ozpiñez gainezka. Bermeo'ko izparkari lez genuen, anko goraberak, alkar arteko liskarrak, auteskundeetako otz-erakusteak, garbantz-errikoen muturrak, ots, «Enbidiako arkea sekula bete bagea» euskal esakunaren birako berriak, zeatz eta ederld batu ta eioak bialtzen zintuna. (Ikus *Ibaizabal*, 1902, irugarren gela, 3 orr.).

7) *Eusquerasco doctrine otsaindigoago* (Bilbao, 1849).

8) *Exercicio santua erregetaco Calvarioco* (Bilbao, 1849).

10) *Marijaren vijotz garbijaren cofradija pecatarijac...*

11) *Jesucristo gure Jaunac gizonaren eroste edo redención* (Bilbao, 1854).
noiagaii... (Bilbao, 1854).

12) *Doctrina cristiana en el vascuence de Llodio* (Londres, 1858). 81 orrialde.

13) *Gurutzetaco icustamenac, eusquerasco verba neurtubetan* R. E. *Durangeacuac ipiñita* (Gazteiz, 1864).

14) *Comunio Ordantzallea* (Gazteiz, 1869). 29 orrialde.

15) *Eguiquera onerazcoac gorde ta gueituteco nisiño santuen frutua* (Bilbao, 1885). 96 orrialde.

16) *Confesinoco ta comuninoco sacramentu santuac ondo pretauric artuteaco errege eta arguibideac* (1891). 464 orrialde.

17) *San Antonio Urquiolacuari bederatzi urruna* (Durango, 1896). 40 orrialde.

18) *Jesusen Biotz guztiz doaisua* (Durango, 1883). 68 orrialde.

30.—EGUNEROKO ETA ALDIZKARIAK

Garai onetan euskal arnasa gorde ta bultz-eragin zioten eguneroko ta aldizkariak aipatzea ere eder zaigu. Ona sail bat, Bizkai aldekoak bereziki.

—*El Bascongada* (Bilbao, 1813-14). Kandido Pérez Prieto'k sortu ra zuzendua.

—*Ariel* (Baiona, 1844-52). Txaho'k zuzendua.

—*El Lirio* (Gazteiz, 1845). R. Ortiz de Zarate'k arteztua.

—*Revista Vascongada* (Gazteiz, 1847). Erti ta jaintzazko aldizkaria. Bi ale.

—*Irurac Bat* (Bilbao, 1850-1882). Egunerokoa.

—*El Eco Vascongado* (Bilbao, 1861) Egunerokoa.

—*Laurac Bat* (Bilbao, 1873). Errepublikanuen egunerokoa.

—*El Nocticiario Bilbaíno* (Bilbao, 1875, 1936). Manuel Etxebarria Torres'ek sortua.

—*El Lau-buru* (Bilbao, 1877).

—*Revista Euskara* (Iruña, 1878-1883)

—*Fedeco propagacioneco urtecaria* (Baiona, 1877), urte askotan iraun zuena.

—*Beti hat* (Bilbao, 1880-83).

—*Le Journal de Saint-Jean de-Luz* (Baiona, 1881). Udar anaseerokoa ta bi illetik beingo bestetan.

—*Batasuna* (Bilbao, 1880-83). Karlisten egunerokoa.

—*Revue de Basses Pyrénées et des Landes* (Paris, 1883). Euskeraz, bearnesez, gaskoiñez eta frantsesez.

—Baiona'ko *La Revue*, *La Nivelle* ta *Le Pays Basque* (1883).

—*El Basco* (Bilbao, 1884-1898). Katolikuen egunerokoa.

—*Laurak-bat* (Buenos Aires, 1884).

—*El Aurrera* (Bilbao, 1885). Karlisten egunerokoa.

—*El Diario Bascongado* (Bilbao, 1890); «La Unión Bascongada»-ren orde z atera zuten.

—*El Diario de San Sebastián* (Donosti, 1873-1887). Zuzendari: Jose Manterola.

—*Apis* (Bilbao, 1888).

—*El Diario de Bilbao* (Bilbao, 1888-99). Liberalen egunerokoa.

—*Revista del antiguo Reino de Navarra* (Iruña, 1888). A. Kanpion'ek zuzendu zuen.

—*La Abeja* (Bilbao, 1889-90). Erti ta iakintzazko illerokoa.

—*El Nervión* (Bilbao, 1890-1936). Egunerokoa.

—*La Cantabria* (Bilbao, 1890-97).

—*La Galerna* (Donostia, 1890). Asterokoa, euskeraz ta erderaz Pepe Artola'k, J. Iñazio Uranga'k eta beste batzuen olerki ta izkirimiriak dakaz.

—*La Unión vasco-navarra* (1880-1890). Eguenrokoa.

—*La República* (Bilbao, 1890-1904). «El Norte»-ren ordez. Egunerokoa.

—*El Liberal* (Bilbao, 1891-1936). Egunerokoa.

—*El Fuerista* (Donosti, 1891-95).

—*Bizkaitarra* (Bilbao, 1893-95). Asterokoa: 32 zenbaki. Arana-Goiri'k sortua.

—*California-ko Eskual-H erria* (Los Angeles, 1893). Asterokoa, euskera utsean, J. D. Goytino'k zuzenduta.

—*La Baskonia* (Buenos Aires, 1893). Jose R. Uriarte'k sortua.

—*El Eco de Bilbao* (Bilbao, 1893). Asterokoa.

—*Indicateur general de Biarritz* (Baiona, 1893-1911), iñoizka izena aldaturik.

—*El Cántabro* (Tolosa, 1893). Karlisten aldizkaria, Frantziako Zeberio'k zuzendua; euskeraz eta erderaz.

—*La Unión Bascongada* (Donosti, 1893).

—*La Avalancha* (Iruña, 1894).

—*Boletín de la Comisión de Monumentos históricos y artísticos de Navarra* (Iruña, 1894).

—*Arenal* (Bilbao, 1894-8-12). Asterokoa.

- El Diario de Alava* (Gazteiz, 1895-2-5).
- El Porvenir Vasco* (Bilbao, 1896-1917). Arratsalderokoa.
- Biblioteca Bascongada* (Bilbao, 1896). Fermín Herran'ek zuzenduta.
- Euskalzale* (Bilbao, 1897-99). Asteroko albistari edergarri-duna. Dana euskeraz. Zuzendari; R. M. Azkue.
- Baserritarra* (Bilbao, 1897). Asterokoa, S. Arana-Goiri'k sortua; 18 zenbaki.
- El Vizcaino* (Bilbao, 1898). Egunerokoa.
- Lenengo Egutegi bizkaitarra* (Bilbao, 1898). Arana-Goiri'k atera zuen. 365 orrialde.
- La Voz de Vizcaya* (Bilbao, 1899-1902). Egunerokoa.
- El Correo Vasco* (Bilbao, 1899-6-4). Arana-Goiri'k sortua. 103 zenbaki.
- La Democracia* (Bilbao, 1899). Errepublikanuen asterokoa.
- Euzkadi* (Bilbao, 1901-1915). Arana-Goiri'k sorturiko agerkaria.
- La Patria* (Bilbao, 1901-03). Arana-Goiri'k sortu ta zuzendua.
- La Gaceta del Norte* (Bilbao, 1901-10-11).
- Ibaizabal* (Bilbao, 1902-03). Asterokoa, euskera utsean, Kirikiño'k eta R. M. Azkue'k zuzendua.
- El Diario de Navarra* (Iruña, 1903-2-25).
- El Pueblo Vasco* (Donosti, 1903). Rafael Pikabea'k sortua.
- Patria* (Bilbao, 1903-03). Sabino Arana-Goiri'k sortua. 130 zenbaki.
- Euskaria* (Buenos Aires, 1906-1921). Asterokoa, Juan B. Vicenty'k zuzendua.
- La Aldea* (Bilbao, 1904). Baserritarrentzat amabosterokoa.
- Irrintzi* (Buenos Aires, 1906). Illerokoa, N. Olariaga'k arteztua.

Gipuzkoa

1895-1920

«Euskaldunenak egin du, euskera galdu ezkeru, euskerak egin baikaitu euskaldun: Erri bezala irautekotan, euskera iraunerazi bear dugu, egunean eguneango iardunean, edonon eta edonoiz. Gure arbasoekin eta gure gurasoekin alkar gaitun biotzezko lokarria dugu euskera. Euskalerrian euskaldunak izango dira egun eta beti, zein bere etxeko nagusi ta jaun, euskerak irautekotan. Non gure ibar eta zelai ederrak baino obeki ikusiak? Euskerak euki baikaitu beste gizamota guzietatik bereiz, eta lengo euskaldun zindo ta zintzoen odol garbiak baitirau oraindiko gure zainetan. Nor euskaldun iatorra baino lainko-zaleagorik?»

(Zaitegi-Plazaola'tar Jokin)

LABURPEN

Eguzkiak danori berdin argi egiten digu, baita beroa eman ere. Ta indar-neurri berdiñak izan arren, nolako tartea zer batetik bestera. Au esan nai det: busti ta bero, berdintsu duen baratz-xerrenda baten, zergatik ikusi oi dira urteak zear lili guriak eta lili erkiñak? Danak ez al dute kaizu berean azteko bear dutena? Literaturan ere orobat gal-detu genezake.

Arakatzan ari geran urte-sail au berpizte naiarena dugu, zalantzik gabe. Dakarkigun berriz ere gogora Orixe'k esana: «Mintzatu zen Bizkaia, ta itzetik ortzera «inbido» otsegin zigun beste euskaldunei. Gogonduri ta buru-ernari gelditu zen alditxoaz Gipuzkoa, ta atzenik «ordago» iardetsi».

Egi utsa dio. Bizkaitik sortu zan argia, ta indarra; Gipuzkoa, alditxoaz buru-zut gelditu zan, naiz eta gero «ordago» bota. Zer esan nai du onek? Gipuzkoa'k buru ernari geratu zan bitartean, etzuela beste-lako idazlerik eman? Baliteke. Geroago, bai, ordagoka asi zanean, idazle bikaiñak jaiki ziran bere altzotik. «Ordago» arin bota zuela dirudi, alan ere; garai ontako giputz-idazle erreskada ezta beintzat ain urria, teatru-arloan batez ere.

I.º *Idazleak*.—Ez dira gutxi, gorengo maillakoak ezpaditugu ere. P. Orkaiztegi, Serafin Baroxa, A. Daniel Apaolaza, A. M. Zabala, P. E. Mortara, Jose A. Ugarte, J. K. Gerra, J. I. Lertxundi, Jose J. Kortazar, Inozenzio Munita, E. Arantzadi, L. Eleizalde, naikoa ugari ta onak ditugu. Baita apalago auek ere: Gaspar Oregi, Lopez Alen, F. Apalategi, J. M. Azkue Goñi, Toribio Iriondo, Meltxor Garai, M. Mujika, J. I. Garmendia, B. Landa, F. Apaolaza, Inazio Belaustegi, A. Zaloña.

2.º *Teatrugilleak*.—Bi menderen arteko garaiak bere emankortasuna erakutsi zuen teatru-zelaian. 1880'an M. Soroa'k girotuta, teatru-uzta joria zioan eme ta goratuaz. 1882'an, Donostiko Lore-Jokuen Batzarrek teatrolanik onena sariztutzeko asmoa artu zuen; eta sariketa oietatik sortuak dituzu geien bat euskal teatrua goi-erpiñean jarri zuten antzerki-idazle auk: *Marzelino Soroa*, esan genduaneez, ainbat sari beregandua; *Bitoriano Iraola*, Iruña'n eta Donostia'n sariak jasotakoa; Jose M. *Atesta*, Jose *Elizondo*, Marian *Arzak*, Bruno *Olazabal*, *Iribarren*; Pepe *Artola*, errikoseme txalo ederrez maiz loreztua; J. I. *Uranga*, eta Elias *Gorostidi*, 1895'an Zumaia'n ospatu ziran euskal jaietan sariztuak; B. *Mokoroa*, *Zapirain*, J. *Ganboa*, R. *Illarramendi*, A. *Barriola*, ta abar. Eta, guenez aipatua izan arren, guztion gaiñetik Toribio Altzaga nabari da, konta-ezin ala teatru-lan idatzi, antzeztu ta itzulitakoa.

Labur: onetxek dituzu euskal teatru modemuari asiera eman eta aurrera, loratze bikaiñean, eraman zutenak.

3.º *Olerkariak*.—Auetatik ere ez dira makalak, euskal bertsolari antziña batekoaren bidetik zebiltzanak noski. B. *Iraola*, K. S. *Irure*, Jose ta Rosario *Artola*, M. A. *Iñarra* oiartzuar apaiz gazterik illa, *Karmelo* ta *Bonifazio Etxegarai*, J. *Kasal Otegi*, *Enrike Eleizetxea*, *Ramon Gelbentzu*, *Emeterio Arrese* ta beste.

Inguruak beti kutsutu oi gaitu, ta olerkari auetatik ere batzuk, zerbait bederen, euskal poesian belu xamar Sartua zan erromantiku-eraz ari izan ziran. Baiña, egi dana aitortzeko, gure olerkariak lengo tradizio zarrari jarraiki ibilliak dira geien bat. Aro ontako bi olerkari, gaiñera, biak pixkaka pixkaka gurenduz joan ziranak, euskal poesi modemuari asiera eman ziotenak dituzu: M. A. *Iñarra* ta E. *Arrese*.

4.º *Bertsolariak*.—Bertsolariak ez ditugu emen, labur jokatzearren, gutxitan baiño aipatzen. Gai ontarako or dituzute «*Auspoa*» ta nire «*Gure Bertsolariak*». Bi aldiz gauza bera ez daukagu zertan esanik. Ala ere, bigarren alean *Bilintx* eta *Xenpelar* bezela, oorezko aulkian jarriko ditugu emen *Otaño* ta *Txirrita*, orduko bertsolaritzaren bi aita nagusiak.

5.º *Ipuilariak*.—Iru besterik ez ditugu aitatu: *Urruzuno*, *Arriola* ta J. *Larreta*. *Urruzuno* bera naiko genduan, orraitio, urte sail ederra osatzeko. *Ipuilari* umoretsua berau. Oker aundi barik esan genezake —dio A. *Arrue'k*— «*Euskalerrriak* idazle gutxi izan dituala, oso gutxi ere, *Urruzunok* bezela «umore» berezi ori beren lan-egiñetan irauli dutenak».

1.—PEDRO JOSEP ALDAZABAL MURCIA
(.....-1779)

Debatarra. 1728'rantza jaioa. Iruña'n egin zituan antza denez, eliz-kaskizunak, antxe mezakotu zan beintzat 1752-12-23'an. Gero, Deba'n bete zuen arimazaintza luzaro samar. 1775'an «Real Sociedad de los Amigos del País» deritzan alkartekoa zan. Gizon jakitun onetaz lenengo alean ere aipamena utzi genduan, baiña bioa emen zerbait geiago.

Nik eskatuta, gaur Deba'ko txaunburu dan Anastasio Arrinda'k aztertu ditu ango liburuak. Eta ona zer diostan: «Parroki ontako artxibuan aurkitzen dan *Hermandad Sacerdotal del Cabildo* deritzan l'go liburua aztertu det eta liburu ontan urte barruko goraberetan agertzen da Pedro Jose Aldazabal'en izena ere; 1750'tik aurrera 1778'raiño bere eskuz firmatzen du. Urrengoan, ots, 1779'an, Frantzisko Iñazio Emasabel'ek ematen ditu urteko kontuak, eta dio: «Eun erreal Emasabel jaunari, Pedro Jose Aldazabal'en eriotz ostean, erdi benefizioan sartu dalako». Ondoren datoz P. J. Aldazabal'en illetetako gas-tuak, ogitan eta ardaotan eralgi zana, ta abar. Beraz, emendik atera dezakegunez, 1779'garrenaren biran itzali zan Aldazabal.

IDAZLE.—Lau liburu idatzi ta argitara zizkigun, bat euskeraz ta iru erderaz. Ona:

1) *Ama Virjina Santísima Iciarcuaren bederatzi urrena... Debaco Beneficiadu, len bicarioak ateratzen debana. Beardan bezala* (1768). Bigarren irarkaldi bat ere izan zuen (Tolosa,

1790); Fermín Huarte'ren etxean. 33 orrialde. Antonio Arrue euskaltzaiñak adeitsu bialduta ikusi al izan dudanez, euskera polita du.

2) *Novena de la Santísima Virgen de Iciar... precedida de una breve noticia sobre su milagrosa aparición* (Tolosa, 1766); Mendizabal'en Alargunaren etxean. IX-24 orrialde. Goicoaren itzulpena duzu,

3) *Breve historia del más luminoso astro y brillante estrella de la mar, la Milagrosa Imagen de María Santísima de Iziar. Singularísima protectora de los navegantes, con algunos de sus prodigios, sacados de los escritos, que acerca de esta Santísima Imagen, dexó en su muerte el M. R. P. Fr. Joseph de Jesus Maria y Araquitzain, Provincial que fue de la Provincia de S. Joaquín de los Descalzos del Carmen, Difinidor G. por la de Indias, y Secretario del Difinitorio, que con otras muchas noticias adquiridas da a luz pública don Pedro Joseph de Aldazaval y Murguia, Vicario propio y perpetuo, que ha sido de las Parroquiales de La Real Iglesia Sta. María Matriz y Anexas de la N. y L. Villa de Mont-Real de Deva en la M. N. M. L. provincia de Guipúzcoa* (Iruña, 1767); Rada'tar M. J.'ren etxean. 253 orrialde.

4) *Compendio heráldico: arte de escudos de armas, según el método más arreglado del blasón y autores españoles* (Iruña, 1773); Rada'ren Alargunaren irarkolan. 283 orrialde. Onen antzeko argitalpenak urrengo bi urteetan ere agertzen dira.

(Ikus S. Onaindia, *Euskal Literatura*, 1, 210 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliiographia*, I, 100 orr.; N. A. G., *Egan*, 1970, 1-3, 99 orr.).

2.—JOSE INAZIO GERRIKO URKIOLA (1806-1883)

Zerain'go Aizpe auzutegian jaio zan Gerriko, 1806-7-30'an, Eengoetxea zeritzan etxean. Jesus'en Lagundian sartu zan 1827-

8-6'an. Eta Filosofia ta matematikak irakatsi zitun Madrid'en, an bertan eta Nivelles (Beljika)n jesuíta sar-berrien maixu ere izanik.

Gero, mixiolari ibilli zan euskal errian barrena, ta orduantxe idatzi ta argitara eman zigun, dirudienez, euskerazko liburu bat: *Misio Santuaren Oroipena Jesusen Compañiaco Misionis-íac eman zuena* (Tolosa, 1853). Sorarrain'ek dakarrenez, ba-da beste liburuxka bat ere, titulu onekin: *J. H. S. San Ignacio Loyolacoa Jesusen Companiaco misionistac eman zuen misio santuaren oroipena* (Bilbao, 1853); Delmas'ek atera zuen, eta 16 orrialde ditu.

1859'an Filipinas ugartera aldatu zan mixiolari. Lan ikaragarria burutu zuen an, arimen onerako. Bertan il zan 1883-12-23'an.

Aita Migel Maria Zubiaga jesulagunak euskeraz osotu zuen A. Gerriko'ren bizitza, baiña esku-idatzi ori galdu egin zan itxuraz, azken gerratean.

(Ikus J Vinson, II, 599 orr., 259 zenbakian; Xav. Baranera, *Cartas de Filipinas*, VI lib., 309-339 orr.; Sommervogel, *Bibliothèque de la Compagnie de Jesus*, III alea, 1917-18 bilduma; H. V. B., BAP, 1963, 97 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 87 orr.).

3.—PATRIZIO ANTONIO ORKAIZTEGI (1840-1924)

Andoain ez dugu, berriz esanik ere, euskaltzaleetan urria. Apaiz agurgarri ta egiazko euskalari au ere, angoa duzu; 1840-3-17'an munduratua. Artzain on bezela arima-zaintzan eta euskal arloan lan egin zuen etengabe bere bizitza osoan. Beñola nik idatzi nuen: «Azkarra, zuzena ta biotz onekoa; goikoak eta bekoak guztiz maite izan zutena. Euskaltzale porrokatua ta matematiko ernea». Garraxika dasa ori bere bizitzak.

Eliz-deiak barnea dardarazi zion ezkeror, ortarako estudioak osotu zitun Arantzazu'n, Iruña'n eta Gazteiz'en. 1865'an apaiz-

goa artu ta Sorabilla'ra bialdu zuten bertatik- Urte latzak ziran aiek: Isabel II'garrenak bere jaurlaritza utzi zuen, eta Juan Prim jeneralaren bitartez Italia'ko Saboia etxeko Amadeo'k artu zuen Espaiña'ko koroia; urte gutxirako alere, On Karlos'ek bada, 1872-5-2'an, Azkain'go oianetan zear Naparrua'n sarturik, Bera urian azaldu zuen ozenki bere burrukarako deia. Eta emen dauzkagu karlistak eta liberalak, euskaldun mendietan alkarri muturka, 1876'raiñü iraungo duen burrukaldi ta kizka gordiñean. Dorronsoro, Santa Krutz, Ollo, Lizarraga, Belasko ta ola-ko gerrari ta jeneralen egunak ziran. Orkaiztegi'k, ere, Santa Krutz apaizaren laguna baitzan, 1876'n, gerra bukatu zanean, Prantzira igesi joan bearra izan zuen.

Zana zala, Sorabilla'n egon zitzaigun aurrenik arimazai ta ondoren (1870) Altzo-Goiko'n. Gerra amaitzerakoan Elgoibar'-ko txauburu egin zuten, eta bi urte geroago (1878) Mondragoiko artzipreste. Etzuen emen luzaro jarraitu, 1880'an bada Tolosa'ko artzipreste izendatua izan zan, eta kargu orrekin emen bizi izan zitzaigun 43 urtetan; 1923'an laga zuen aginpide ori, ta urrengo urtean azaroaren 7'an il zan.

EUSKALTZALE.—Gogorazi dut jadanik, apaiz ta euskaltzale genduan Orkaiztegi, eta bi izantza auen bitartez oso errikoi gertatu zan Euskalerrian: ezagun-ezaguna zan Apaiz zan aldetik jator jokatu zuen beti, bere egitekoa arduraz aurrera eramateko bizi-adorerik beiñenak zirkin-azorik; bere begi-nini bezela maite zitun Tolosa ta tolosarrak. Eragin errimekoa zan-eta, askotan jarri zuen pakea eleiztarren etxe ta arimetan. «Gizaseme ona ta laua, zabalik zeukan beti —dio G. Zumuarregi'k— bere langela apal azpiz-gaiñekoa, arnas-billa zijoazkion mailla ta uste guztietako jendearentzat. Buru-ukale esku-zabal beti, amaika laztasun arindu zuen, ta naigabeak upelka gozatu».

Zernaitakoa zan, eta zemaik kezkatua zebilkigun, erriko auzi ta arazoetan, jakiña. Artzaiñaren ardurak ez al du dena artu bearra?

EUSKAL IDAZLE.—Tolosa'ratu ta laster asi zan idazten, 1882-190rra «Euskal-Erria»-n lanak argitara emanaz. Bilbao'ko «Euskalzale» (1899) ta «Ibaizabal»-en (1903) idazten du, eta «Euskal Esnalea»-n, 1908-09'ra batez ere, Tolosa'n ateratzen zanean; «Gipuzkoarra» (1912) asterokoan idazten du; orri aue-tan argitaldu zitun, *Biyarko Izperkiya* titulupean, urte guztiko igande-itzaldiak.

Otaiz gain liburu auek ere bereak dira;

1) *Jesus eta Mariaren billerakoentzat itz neurtubac* (Tolosa, 1881), Toribio Iriondo apaizak lagunduta. 128 orrialde.

2) *Txardin berriak* (*Euskalzale*, 1899, 346 orr.), bakar jos-taketa.

3) Lardizabal'en *Testamentu Zar eta Berriko Kondaira* (Tolosa, 1900), zerbait arteztu ta gain-ikutua egiñik. Oni jarri zion itzaurrean au aitortzen digu; «Euskerak erderen antzik ezertan ez du, baña beste gauzetan baño askoz gutxiago itz-elkartzen, itzak itzekin lotzen. Naiago nuke, nik nerez, Aitor-en izkuntza beingoan soildu, ondatu ta betiko galtzea gaztelani eta beste erderetako gorapillo ta joskeraz betea ikusi baño. Itz bakoitza garbitzea, edertzea, euskeratzea, ona da, nork ukatu?, bañan euskeraren *anima* bere jatorrizko joskeran dago. Au galdu ezkeror, euskera ez da euskera. Aspalditik egotzi zitzaizkan gure euskerari andik eta emendik bereak ez diran loturak, eta min ematen diyo bati euskaltzale batzuek lanean indarka, orretzaz azturik, ikusteak». Au ere gaineratzen du: «Euskaldunak! Gure euskerari ziñez eutsi dizaiogun! Au galdu ezkeror, gure sinis-pen-oiturak galdu dirala esan gentzake. Euskeraz jaiok euske-raz il gaitezen. Ondoren datozenentzat euskera gorde dezagun!»

4) Aita Mendiburu'ren *Otoitz-gaiak* (Tolosa, 1904) ere berak arteztu ta atera zitun iru ale ederretan.

5) *Observaciones para hablar y escribir tolerablemente en nuestro idioma euskera* (Tolosa, 1906).

6) *Sardin-saltzailleak eta Euskal-dantzak* (Tolosa, 1922, *Antzerki*, 27'gn. zenbakian). Teatru lana.

Kristau-Ikasbidea txukun nai zuen, eta olakoen itzulpen txarto egiñak gogoz zigortzen ditu liburuxka baten. Beronek ere osotu zuen onako bat euskera garbi ta egokian. Antzerkitxo ta dotriña-azalpenak, sarri edatu oi zitun, Eguberri jaiak zirala-ta batez ere, ikastetxeetako gazteak antzertu zitzaten. Labur: berak zeramana nai ta ez enparauai ere erantsi bear.

Itz-jostun ona agertzen zaigu beti. Ona zein ederko lotzen ditun ondorengo txatal onetako esaerak; *Txardiñ berriak* de-ritzan bakar-jostaketatik artuak dituzu.

«Biba gipuzkoatarrak
Biba Kantabria!
Kosta onek balio du
Munduaren erdia:
Legatz eta bixigu
Txardiña berria:
Ondo bizi izateko

Biba Euskalerria.

Castilla alde ortatik onera udaran asnas-billa datozen jende oiek, gure mendi biribil-txiki politai begira jarrita, goitik bera zearka zearka zillar bizia bezela datozen errekatxuak ikusita, probintzi au *paraiso* txiki bat dala diote. Ta nik ori aditzen dietedanean kantatzen diet: «Santa Agedatik Alzola-ra; Alzola-tik Deba-ra... atozte, atozte lenbait-len *bañu* gez-gaziak artzera. Ta ni Aia-tik barrena banua, banua txardiñak saltzera. Txardiñak, txardiñak; salerot-erdikoak!

Zarauz-tik Tolosa-ra,
Aizea bezela,
Arrai preskuarekin
Goizean goiz an gera.
Gu asten geranean
Bizi-biziak dira!
Sagardotei guziak
Irititzen dira.

Aizazu, Josiñazio: Sagardua edateko ta napar-txikia proa-
tzeko, txardiña berria bezelako plater piñik eztezu! Aizu, Prais-
ku: gerriku ori... jajai! ikusiko zenduke onoko mutil papar-
aundi, kolko-zabal, *papa-moskas* dirudian au? Zoazkit emendik
amonari txanpona kentzera; eztegu emen *barómetro* bearrik.
Aizazu, Josepiñazi: Josepantoni Goikoetxe-aundikoa sekulako
arrokeriakin danbolin-soñuan eztuela dantzatu nai. Orixen ger-
tatzen zale, enetxoa, gaurko egunean askori; Iru edo lau urte
Madrillen pasata or datozkizu sedazko soiñeko bata goante txu-
riakin, eztutela dantzatu nai baserritarrakin. Baiña ixil-ixillik
utzi nuan esan nionean; Panparroikeri asko ta errenta gutxi...
aundi-nai, baiña beti txiki-txiki... pasatzen zaio gaurko egune-
ko *polka* dantzariari. Orrelalco *polka-mimik* eta *panto-mimik*
etzaio komeni nekazariaren alabari. Orain biziak, orain! gatzik
gabeak! Iui-i-i-!

«Prantzian dana omen da,
Dana, arinkeria;
Baiñan asmakaietan
Badute grazia.
Aurreratua dago
Gure auzo-erria;
Orain bidaldu digu
Sistema berria».

Garbi-zale zan, eta aren lan ederrak ildo sakona utzi zuen
orduko aldizkari ta izparringietan. Izen-orde auek erabilli zi-
tun: «Oiparena», «O. K.», «Tinketean», «El Mismo». Mate-
matika gaiak ere eman zizkigun euskeraz. Euskera aldeko jaie-
tan parte artu zuen, Elizondo-n (1908), Lekunberri-n (1910)
eta abar.

OLERKARI.—Musaen zalea zitzaigun. Eta poesi-lan auek
beintzat bereak ditu: 1) *Arantzazu'ko Amaren Kondaira*, T.
Iriondo'rekin; 2) *Aita S. Mendiburu-koaren lenbiziko euntean*

(Euskal-Erria, 1882, 41 orr.); 3) *Donostian Manterolari* (Donosti, 1884, 59 orr.); 4) *Pekatarियari* (Euskal-Erria, 1886, 247 orr.); 5) *Kristauaren sinismena* (Euskal-Erria, 1886, 273 orr.); 6) *Gau Ondorengo egun antzari* (Euskal-Erria, 1886, 441 orr.); 7) *Tolosa eta inguruko erriyak milla zortzireun larogei ta sei-garren urteko agorrean, Loyolarako erromeriyen kantatzen dituzten neurt-itzak, Birgiña Ama Izaskungoari* (Euskal-Erria, 1886, 276 orr.); 8) *Ave maris stella euskeraz* (Euskal-Erria, 1886, 496 orr.); 9) *Txardin berriak* (Euskalzale, 1899, 346 orr.); 10) *Ordaintzerak* (Euskal Esnalea, 1908); 11) *Bagaramazki* (Esku-Egundiya, 1910, 91 orr.); 12) *Euskal dantzak* (Euskal Esnalea, 1914, 157 orr.). Adar-jotzaille bizi agertzen zaigu lan askotan.

Gure Orkaiztegi il zanean, bertako seme Arrese'tar Erneten olerkariak, oroitz-zurrian, lan sentikor au ondu zion.

Euskoen Ama negarrez dago,
 negarrez bakar-bakarti...,
 malko samiñak eldu zaizkio,
 poz-ate guziak itxi.
 Zoritxar beltza gaurko zoria...
 itun gaude, kupigarri,
 eriotzaren arnasak orain
 sugar maite bat itzali...!
 On Patrizio jaun laztangarriya;
 egizu zerutik argi,
 zure gogoak piztu gaitzala
 euskaldun geranak beti!

Aren eriotz-ostean, Tolosa'ko Udaletxeak, literatura sari bat jarri zuen, ots, «Orkaiztegi Saria».

(Ikus G. Zumuarregi, *Euskal Esnalea*, 1924, 230 orr.; *Jesus'en Biotzaren Deya*, 1924, 381 orr.; Jose Arana, *Euskal Esnalea*, 1926, 154 orr.; S. Onaindia, MEOE, 781 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.* 1955, 173 orr.; N. Kortazar, *Cien Autores vascos*, 33 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 29 orr.).

4.—JOSE MARINO ARRIETA (...1895...)

Onen lanak maiz agertzen dira *Euskal-Erria* aldizkarian, 1892'tik 1905'ra bitartean batez ere. Olerki aberkoietan saiatzen da, ildako adiskideen oroipenez ere banaka batzuk ondurik. Eta itzulpenak, ez gutxi.

Teatru landa ere jorratu zigun. 1896'an aurkeztu zan aurrenik Donosti'ko Teatru Printzipalean; *Umezurtza* drama saio bat zan, Juan Iñazio Uranga'rekin batera egiña, ta 1896-12-21'an emana.

Bilbao'ko «Ibaizabal»-en itz lauz osotuta ditu lan batzuk. Euskera errikoi, lau ta unkikorra du.

(Ikus *Euskal-Erria*, 1892-1905; *Ibaizabal*, 1902, 19'garren geia, 3 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskara*, II alea, 160 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 126 orr.).

5.—SERAFÍN BAROXA ETA ZORNOTZA (1840-1912)

Euskal idazle jatorra. Baroxatarrak, Araba'ko Peñazerrada ondoan dagon Baroxa basaurian dute belun-etxea. Rafael Martínez Baroxa Haro'n jaio zan 1770'an, eta Karlos IV'garrenaren garaian atera zuen etorki-agiria Gipuzkoa'n bizi izateko. Pio Baroxa Oiartzun'en munduratu zan 1808'an, eta onen seme Serafin Baroxa Donostia'n, 1840'an. Eta Serafin'en semea zan azkenez Pio Baroxa ta Nessi, osagille ta nobelagille ospetsua, 1872-12-28'garren urtean Donosti'n jaio zana.

Minetako injeneru ikasi zuen. Bere meatz-epaiketa lanak Riotinto'n asi zitun; meatz-zulo aueri gero, ingeles alkarte batek guna ta mamia atera zien. Geroragoan, Huelva'ko miñabien ardura ere izan zuen. Eta, atzenik, Bera urian il zan 1912-7-16'an.

Sorterritik urrun samar ibili zan arren, biotz-mamian beti zekarren ondo itsatsita euskaltzaletasunaren lera, eta nun-nai

bizi, asko idatzi zizun euskeraz ta erderaz. Erderaz, adibidez, ainbat ipui ta irakurgai orduko izparkarietan: *Gazi-gezak* —erderaz ta euskeraz—, *Mis ocho alojados, A los Auxiliares de Bilbao, Marcha de San Sebastián* eta abar.

EUSKAL LANAK.—1) *Gaci-guezac* (Donosti, 1875). 62 orrialde.

2) Manterola'ren *Cancionero Vasco-n* datozen olerkiak (Donostia, 1977). *Ai, au doloreal* ederki biribildua duzu baitik bat, lau aapaldikoa. Mariano Zuazabar'ek —injeneru au ere— ipiñi zion musika. Olerki ta musikari buruz au dio J. Manterola'k: «Biok Gipuzkoako seme, ta biok ondore ederrez landuten dute, origatik euren ogibideko ikasketa-lanak bazter utzi gabearian, bata olerkia ta besteak musikea. Baroxa'ren olerkia jator bikaiña da egiaz; gaiez naiz ebaki bereziz alemandar balada bat dirudi; musikeak, bere igiera (ritmu) ta amai doiñutsuz, berebat arabiar kantua ematen du» [*Cancionero Vasco*, 1877, II, 19 orr.).

3) *Almanaque bilingüe para el año 1879* (Donostia, 1878).

4) *Pudente* (Donostia, 1878), J. A. Santesteban'en musikaz. Lenengo opera edo euskal drama eresitua. Ekintza Riotinto'n gertatzen da, erromatarren garaian.

5) *Santo Tomaseco feriya* (Donosti, 1878). Berdin: *Nury* (Irun), *Hernaniri*, *Guetariarrai*, *Asto-contuac*, *San Marcosi*, *Cecen suscoa*.

6) *Il ritorno di Don Stefano*, zarzuela, ta *Mis ocho alojados*, erderaz.

7) Iruña'ko *Revista Euskara-n* idazten du.

8) *Hirni, ama alabac* (Iruña, 1882). Isturiz'en irarkolan. Bi ekitalditako drama, bertsoz; itz lauz erderazko itzulpena. 31 orrialde.

9) «Euskal-Erria»-n, 1880-1912'ra, olerki auek firmatzen ditu: I) *Asto-kontuak* (1880); *Madalenen arrazoia* (1880); *Arrats izugarria*] 1813'garren urteko abostuaren azkenengo ga-

bari (1880); *Sarjento zar dan bat zegoan* (1880); *Zezen-suzkoa* (1881); *Metamorfosis* (1881), Manuel de la Revilla'ren «Metamorfosis» olerkia euskeraz jarrita; *Jaungoikoari* (1881), Ahri-man'en «A Dios» olerkia euskeraz; *Donostiari* (1883); *Ez dago gaizki esana* (1882); *Puigcerdari* (1882); *Erriko seme donostiarr*a (1882), amalauko saritua; *Akelarren larunbata* (1883); *Azeria eta akerra* (1883); *Il da maisubal* (1884); *Juan Jose Santisteban musikolari il-berriaren oroimenez* (1884); *Bagera...* (1885), Donostiako martxaren letra; *Oroit bat Kalderon Aundiari* (1912), Calderón de la Barca'ren «Cuenta un sabio que un día» amarduna euskeraz, eta *Ai, au dólorea* (1912), lau seiko, bere olerkietatik ederrena bear bada.

10) Berak zuen Santisteban'en *Luchi* opera izkiz ornitu; berdin egin zuen 13 ekitaldi ditun *Amairu damacho* zarzuela-rekin ere, berak jarri zion euskerazko letrea.

11) Serafín Baroxa'k zuzendu zitun «El Urumea» (Donosti, 1879) ta «Bai, jauna, bai» (Iruña, 1883) izparringiak.

Poliki idazten du euskeraz. Umore onekoa zan bere idatzietatik atera dezakegunez. Bein, adibidez, ordu betetik gorako itzaldia egin zuen, A izkia zala-ta. Onela margozten dugu *Arrats izugarria!* deritzanean, 1813'eko dagonillaren gauean ingles, prantses eta abarrek Donosti erre ta suntsitzean egin zutena:

«Gizon ordi taldeak askai likitsan
 etxerik etxe dabiltz leian iñoren
 diru irritsan,
 onraren zale, burniz pasatu ondoren
 arpegi eman duen aita, semea
 edo gizona
 iltzen dagona,
 sentiturik batean agoni epea
 ta ansi triste larri bat deitzen diona».

Onelaxe, latz eta bizi dagi orduko lotsa ta ilkintzaren lauki erdiragarria, bederatzi ahapaldi luzetan. Irakur bukaerako au ere:

«Asaba zar gureak joanak mundutik,
Numanzitar errutsu aien modura
 bizia emanik,
igo ziñaten zuzen zeru altura!
Jaunak bere saria dizute ematen
 ordu ezkeror;
 bai, errauts bero,
martireak bezela igo ziñaten
sugar Donostikotik pasa ta gero!»

(Ikus *Euskal-Erria*, 1912 ta 1913; J. Manterola, *Cancionero Vasco*, 1877, II, 17 orr. ta 1880, 248 ta 320 orr.; J. Urkixo, *RIEV*, 1912, 569 orr.; S. Mujika, *Geografía P. V. N. Guipúzcoa*, 724 orr.; Jose Iriart, *Euskalerriaren Alde*, II, 749 orr.; S. Onaindia, *MEOE*, 363 orr.; N. A. G., *Euzko-Gogoa*, 1956, 98 orr.; H. V. B., *BAP*, 1961, 99 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, II alea, 162 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 174 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliografía*, I, 460 orr.).

6.—BIKTORIANO IRAOLA ARISTEGIETA (1841-1919)

«Euskal Esnalea»-k Iraola'ren il berria ematerakoan, onela idatzi zuen: «...Makiña bat ipui, izkirimiri ta gauza alai idatzita joan zaigu Iraola gizarajoa... Olerkiak idazten ere ederki zekien. Emen bertan agertu ziran *Euskalerriko txoriyak* eta beste asko. Idazti batzaldietan ere sari ugari irabazi zitun donostiar jator onek... Oso donostiarra zan Iraola. Donosti'ko euskera zan berea; Donostia zarreko ipui ta gertaerak ederki zekizkian; arrantzale, txardiñ-saltzalle, zeladore ta orrelakoak ondo ezagutu zituan... Il da, il onen 19'garren egunean. Urte asko zituan, bañan sendo ta tente zebillen oraindik».

BIZI-ZEAZTASUNAK.—Pasai San Juan'en jaio zan 1841'an; baiña Iraola gaztetxo zala Donosti'ra aldatu zan famili osoa, ta Biktoriano'k ementxe igazi zuen bere bizitza guztia. Azpeiti'ko alaba Katalin Alvarez'ekin ezkondu ta Legazpi kalean egon zan, beñola Pio Baroxa bizi izan zan etxean. Arri-idazkola edo litografia bat zeukan bere etxean eta, makiñak erabilteko, asto bat moldatzen zizun tipirrika barruko aterpe larriñean. Udaletxeko kontzejal izan zan bein baiño geiagotan eta olako kargudun zala, gaur uri aldea edertzen duten millazka zugatzak landatu zitezen eskatu zutenetariko bat Iraola duzu.

Gizakume men eta langillea. Eguneroko jardunari berea eman ondoren, idazteari oratzen zion guztiz jorantsu: litografi ta idatzi zeregiñean atertu gabe il arteraiño ari izan zitzaizun. Etzan bezuza ta erregalu zale. «San Tomasetan edo, iñor erregaluekin etortzen bazan, bera etxean bazan, ateondora joan, etorritakoari ostikoa eman ta eskalletan bera bialtzen zun bere erregalu ta guzi». Ez omen zan egurasten ibiltzen, alper-ontzizat ar etzezaten. Bein, 1899'an. Paris'era joan zan ango Erakusketa ikustera, ta globo batean igo ei zan,

Gorputzez lodi ta aitua zan. Urte askorekin ere, sendo ta tente zebillena. Donostia'n il zan, azkenez, 1919-9-19'an.

EUSKAL IDAZLE.—Idazlari ugaria duzu. Lanak argitaratzean, bere izen-abizenak ez-ezik, *Txuri* ta *Sei* izengoitiak ere erabilten zitun. 1880'tik asi zan Iruña'ko *Revista Euskara'n* idazten; errez, alai ta errikoi beti. Berein gai ta gauza urratu zitun bertsoz ta itz askatuan, baiña par-eragitekoak zitzaizkion begikoen. Orduko aldizkari danetan agiri dira bere lanak: «Euskalzale»-n, «Ibaizabal»-en, «Euskal-Erria»-n, «Euskal-Esna-lea»-n, «Euskalerriaren Alde»-n, «Baserritarra» ta olakoetan; Buenos Aires'ko «La Baskonia» bera ere Iraola'ren izkirimiri, ipui ta bertsoz baterik dago.

Irutan banandu ditzakegu aren lanak; a) *Kontuak*; b) *Olerkiak*, eta d) *Teatru-zatiák*.

a) *Kontuak*.—«Auspoa» bertso-bildumak (1962) ager-azien B. Iraola'ren *Oroitzak eta beste ipui asko*. 27 ipui dira guztiz, eta 1906'tik 1908'ra Donostia'n atera zan «Baserritarra» aldizkaritik artuta daude denak. Onela dasa sarreran: «Ipuiak ere asmatu oi zitun. Par-eragitekoak denak edo geienak. Artara zun bere joera. Emengo denak ere alakoak dira».

Ementxe jarri genitzake, baita, aren izkirimiri sail aderra ere, ateraldi zorrotz eta beste milla gauza alaiekin. Ona *Katea* deritzaion igarkizuna, polito biribilduta;

Igarkizun guzia
ezta ez, aria,
ezta kordela, soka,
ezta listaría,
baña katea dala
somatzen banazu,
orduantxean ederki
amolatu (?) nazu.

b) *Olerkiak*.—Iraola'ren olerki asko dauzkagu garai artako agerkarietan. Batzuk baiño ez aipatzeko, ona «Euskalzale»-n eta «Ibaizabal»-en datozenak. *Euskalzale* (1898-1899): *Nekazaria*, ogei aapaldiko lana, 1898'garren urtean Zestua'n ospatu ziren euskal festetan 80 pezeta ta bitezarra (diploma) irabazi zituna; *Ama baten negarra* —geroago Buenos Aires'ko «La Baskonia»-n ere azaldua— 80 makur ta bitezarra Zumarraga'n (1899) irabazitako moldaera. *Ibaizabal* (1902-03): «arrantzalea», «Kejak», «Dendan»; «Konsejari on bat», «Nexka ta periak», «Lore lotsati bati», «Nere kabien oñean», «Itsasoan», «Bide onez», «Ala ote da?», «Nere txakurra», «Bapo zio!», «Sardiñ saltzallia», «Utsa», «Anjelatxo», «Aritzaldeko alaba», «Elurtea», «Ama aurrari siaskan luak artzen», «Amaren naitasuna», «Gipuzkoatarren eta Erromakoen antziñako kondairak», «Uso gaxoa!», «Aita semiak», «Erretxinola», «Gaisuak!», «Ama titi», «Ama baten penak», «Juana eta Martiñ», «G».

Olerki liburu bat atera zuen: *Kontuchoak* (Donosti, 1886). 187 orrialde.

d) Teatru-zatiak.—Landa ontan ere saiatu zitzaizun, komeriak, zarzuelak eta bakar-izketa xaluak osoturik: «guziak alaiak, far-eragitekoak, joxemaitarren izaera agertuaz».

1) *Komeriak*: a) *Ardita beti ardit* (Donosti, 1884), Pelayo Castillo'ren «El que nace para ochavo...» euskeraz jarrita, 1884'an San Martin jaiak zirala-ta Iruña'n egiñiko batzaldian sariztatua ta 1889-12-26'an lenbizikoz aurkeztua; b) *Petra xardiñ saltzallia* (Euskal-Erria, 1888), 1886'an Sarriegi'ren musikarekin Donostiko Teatro Printzipalean len-aldiz emana; d) *Txomin Donosiiyan* (1892), D. N. Luzuriaga'k eresitua; e) *Onenzaro gaba* (Donosti, 1894), 1882'ko donostiar euskal lorejokuetan sariztutako ekitaldi bateko antzerkia; f) *Ergobiyan*, ekitaldi batekoa, 1902-12-2ran, Donostiko Teatru Printzipalean lenengoz jokatua; g) *Karmen, gaztain saltzallea ta Zeladore baten estuasunak* ekitaldi bateko jostailuak ere bereak ditu.

2) *Zarzuelak*.—a) *Bi itxubak* (Donosti, 1884), bertsotan, A. Barbieri'ren musikarekin; erderatik itzulua; b) *Pasayan*, 1888'ko euskal jaietan saritua ta Raimundo Sarriegi'ren musikaz, Donostia'n, lotazillaren 26'an, lendabiziko aldiz emana; d) *Leokadia* (Donosti, 1891), erderatik euskeratua, D. N. Luzuriaga'ren musikarekin; e) *Gabonetan*, «Euskaizale»-k sariztatua..

3) *Bakar-izketak*.—a) *Joxemaritarrak*; b) *Xordo* (Euskal-Erria, 1890), 1889-12-26'an Donostiko Teatru Printzipalean lenengoz antzeztua; d) *Pulpuba*, Donostiko Lore-Jokuetan, 1892'an saria eraman zuena; e) *Ixkiña Mutrikun* (Donosti, 1909); f) *Txokolo*; g) *Xardinak*...

IRITZIAK.—^Ezin dezakegu iñolaz ere ukatu idazlari jatorra dugunik. Ba-dute piperra Iraola'ren ipui, bakar-izketa, antzerki ta olerkiak. Nabarmena dugu olerkien artean *Euskalerriko choriyák* izenburuarekin «Euskal Esnalea»-n, 1912-1914, txori ba-

koitzari eskeiñitako bertsoak. Auek kantatzen dizkizu: «Erretchinola», «Txina», «Pintxana», «Txantxangorria», «Martin arrantzalia», «Mika», «Irrairra», «Txepetxa», «Enada», «Txirita», «Sosua», «Txoka», «Txiniskla», «Gurita», «Bordoa», «Iskiñosua», «Tariña», «Pirripiyua», «Lar txoria», «Pareta txoria», «Ontza», «Kukuba», «Belia», «Karnaba». Poliki osotuak dauzkazu.

Gregorio Mujika'k (*Euzkadi*, egunerokoan, 1920-11-10) au diosku: «Nolabait Bilintx'en gogoaren jarraitzaille izan genduan». Eta nik beñola idatzi nizun: «Goi-goikoak izan ez arren be, atsegiñez irakurri oi ditugu, olako zirrada gozo-eztia nabaituaz biotz barrenean». Eta gaur orrezaz gaiñera esango nuke B. Iraola'k, neurtitz askotan beñik-bein, gure Arrese-Beitia ctxandiotarraren antza duela.

(Ikus J. Vinson, *Essai d'une Bibl. Basque*, II, 634, 637 ta 651 orr.; G. Sorrain, *Catálogo...* 1.371 ta 1.244 zenbakietan; *Euskal Esnalea*, 1919, 192 orr.; *Euzkadi* egunerokoa, 1920-11-20; S. Onaindia, MEOE, 798 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1960, 96 ta 140 orr.; *Auspoa*, 9 alea; A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, Donosti, 1965, I, 44 orr. ta II, 169 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 236 orr.).

7.—KAIETANO SANTXEZ IRURE (...-1916)

Ez da idazle makala. Aren egunetan ere, euskerak iraungo ba'zuen, idaz-lanari lotu bearra zitzaien orduko euskaltzaleai, ta Donostiko ta Bilbao'ko aldizkarietan jartzen dizkigu Irure'k bere bertsozko ta itz-lauzko lanak. Ezelan ere ezin ixil-azi al izan zuen sorterrí miña, ta luma erabilliz utsitu zigun bere biotzondoa, esku trebez biurrituaz bertso-zerrenda apaiñak. Donostia'n bizi izan zan; baita il ere 1916-8-24'an.

Orduko aldizkari geienetan idatzi zuen, ta lan asko idatzi ere; au da: «Euskal-Erria»-n (1904-1915), «Baserritarra» zeri-tzanean, «Euskalzale»-n, «Ibaizabal»-en, Buenos Aires'ko «La

Baskonia'n... «Euskal Lore-Joku ta jaietara ere lan auek beintzat bialdu zitun: Zumaia (1900), *Aiton bat eta ni*; Oñati (1902), *Nere ametsak*; Elgoibar (1907), *Gure mendiak*; Donosti (1912) *Doákabeak*, eta abar. Berea du:

Ama euskera berdindutzeko
eztezu beste izkuntzik,
Ama euskera orain artian
dago guzien gañetik;
ondoretikan ibilli arren
etsai asko aspalditik,
beti onela bizituko da
etsaiari gogor eiñik.

Teatru-lan bat ere eratu zuen: *Azken beltza*. Zati bateko eres-antzerkia, melodrama; Donostiko Udaletxeak 1915'an antola zuen batzaldian saritua ta lenengo aldiz Donostiako Teatru Zarrean 1917-12-2ran antzeztutakoa.

Ba-zuen trebetasuna bertsuak gatz-pikorrekin txipriztatzen.

«Euskal-Erria»-n dator Rosario Artola'ren olerki bat Kaie-tako S. Irure'ri eskindua.

(Ikus J. Vinson, *Essai d'une Bibl. Basque*, II, 804 orr.; *Euskalzale*, 1899, 363 orr.; *Ibaizabal*, 1902, 4'garren geia, 2 orr.; *Euskal Esnalea*, 1916, 237 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1950, 127 orr.; S. Onain-dia, MEOE, 784 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, II, 170 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 191 orr.).

8.—PEDRO MIGEL URRUZUNO SALEGI (1844-1923)

Euskaltzale kementsu onen eriotz ostean, au zioan *Jesus'en Biotzaren Deya'k*: «Gure Pedro Mikel jaun agurgarria ta on-ona il zaigu. Jainkoak ala nai, ta bizitza onen betebearrak ondo bete ondoren, joan zaigu: danok uste degun bezela, ludi zirzil

onetik, amairik ez daukan aberri gozoaruntz. Elgoibartarra zan bera, ta bere jaioterriaren maitalle bikaña. Ia larogei urte bete zituan, berrogei ta amar baño geiago apaiztasunean, gogo-lan-ketan, alde guzi ta bazterretan onbidea erakusten ekin zituan, A ze sari ederra artu dun dagoneko! A zein gogozki laztandu dun bere Jainkoak alako apaiz agurgarri ta ongille au! Elgoibar'ko elizburu edo parrokoa izan zan aspaldian, baño zartu zanean, Mendaro'ko moiatxuen ardura zeukala, bizi zan».

BIZITZAKO ZERNOLAK.—Elgoibar'en jaio zan Urruzuno 1844-4-29'an, Arrabal kaleko llo'garren zenbakian. Bi gurasoak ere bertakoak ziran: Juan Bautista, errementaria, ta Manuela. Berdin aitaren aldeko aiton-amonak ere, Migel Urruzuno ta Lorentza Kruzelegi, biak elgoibartarrak; amaren aldetik, ordea, aitona, Frantzisko Salegi, Astigarribia'koa, ta amona, Josefina Antonia Mugertza, Elgoibar'koa. Pedro M. gaztetan nuntz bait Lesaka'n bizi izan zan, «bere ipui batzuk Naparroako erri ori dute gerta-tokitzat».

1870'an apaiztu zan, eta aurrenik Elgoibar'ko eritegian daukagu gaxoak zaintzen, gero bertako eliz aundian arimen argitzaile; azkenez, Kilimon erreka ertzean Mendaro'ko Garagartza'n izan zuen zar eta gazteen ardura, «mutil eta neskatxen aingeru izanik». Iriondo'tar Toribio'k Urruzuno'ren eztei egunean (1920-10-2'an) onela:

Ume-umetatikan
zure biotz dana
Jainkoari zendukan
oparo emana
Elgoibar ta Lesaka'n
ezagun ziñana,
apaiz egiñik igo
ziñan Jesus'gana.

Berarekin artu-emanan izan zuen elizgizon batek dio; «Apaiz asko joaten giñan beragana mesede eskatzera, ta sekula etzizgun ukatzen. Musikan ere bazuan bere apiziotxo. Eliz-kantak, gabon-agurrak eta beren bertsoetako laguntasuna, berak egiten zituan. Mojatxoak asko maite zituan; baita auek ere bera. Auzo-errietako organistak ere, askotan joaten ziran Urruzunogana, idazkien billa beren musikai jartzeko. Guziak lagun zituan. Etze-goan arentzat ez aberats eta ez pobrerik. Guziak berdiñak. Ta euskaltzale bezela, sartzen zan bere etxetxoan, da iskribitzen asten zan. Zenbat bertso ta zenbat ipui idatzi ote zuan! Makiña bat parre egiñak gera aren lanekin. Ta dana euskeraz. Gu-txi izango dira Don Pedro Migel ainbat lan gure euskeraren alde egindakoa».

Garagartza'n Agustiñetan egon zan kapellau. Eta ementxe zegoela osotu zitun batez ere bere ipuirik eta neurtitzik ederrinak. Bego esanik au ere: «Euskaldunen artean ez da oraindik sortu Urruzuno apaiz jaunak, bañon ipui geiago asmatu ta argitaratu dunik». Norentzat idazten zitun? Jakintsuentzat ez, ain zuzen; baiña bere erritarrentzat. Iruña'n atera zan Urruzuno'ren ipui liburuaren argitaratzailleak onela dio aitzinsolasean: «Euskaltzale, izkuntz garbi uts berri-zale bakarrik ba zera, garbi esango dizut, ez natorrela zuregana. Akats asko, itz ezezagun gutxi neregana arkituko dituzu-ta. Zuk, euskera ikasle aurreratua zeranak, jakintsuen izkuntza leun, txukun ta landua bear dezu. Ni ez naiz malla ortara iristen. Nere aitak txukundu ninduan bezelaxe nator. Ez diate pitxi sail billatu ta landurik ezarri. Erreka bazterrean jaio, ta erreka inguruan dabiltzan nekazari, arotz, argin, ermentari, ijito ta beste ez ikasi guzien izkuntz samur, errezez jantzia nator. Oiek errezez ezagutuko naute beraz, ta beren kidekoeri bezela abegi ona egingo al diate... Beste nere egiJdzuna da, euskaldun guzien artean irakurtzeko zaletasuna piztea. Ortarako gauz errezez ta atsegiñak bear dira oraindik. Gauza zail ta landuaz aspertu ta nazkatu egiten baitira euskaldun geienak. Lotsagarria bada ere, egia ezin ukatu!»

Egoki derizkiogu, izan ere, Urruzuno lakoxe idazleak ezagunazi nai izatea. Euskaldunok, beraz, zerbait zor diegu gisa ontako gizaseme gurenai.

EUSKAL IDAZLE.—Aitortu dugu gorago: beste iñor ez dugula izan euskal alorrean Urruzuno'k aiña ipui —bertsoz ta itz-lauz— mamitu duenik. Indar berezia omen zuen ipuiak asmatzeko, ta garai artako aldizkariak aren ipui ta olerkitxoak beterik dagoz: «Euskal-Erria», «Euskalzale», «Ibaizabal», «Euskal-Esnalea», «Baserritarra», «Jesus'en Biotzaren Deya», «Zeruko Argia», «Argia», ta abar. «Urruzuno», «P. M.», «Urzale» ta olakoak ziran bere, lanen azpian jartzen zitun izenabizenak. Ona lan oietako batzuk:

1) *Meza Santua zer dan* (Durango, 1915), Florentino Elosu'ren pentzura aterea. Martin Cochem'ek alemanez jarri ta beste izkuntza batzuetara ere itzulitako liburua, Urruzuno'k euskerara biurtu zuen.

2) *Anima ondo damutua eternidadeko gauzak konsideratzen*. «Zeruko argiya edo Ondo pentsatu!» berriya (Tolosa, 1921). Aita Baudranek atera zuena Urruzuno'k euskeraz.

3) *Gramatika parda ta Pilosopia* (Euskal Esnalea, 1921).

4) *Urruzuno'tar P. M.'en Ipuiak* (Iruña, 1930). Neketako Ama Birjiñaren irarkolan. 147 orrialde. 49 ipui.

5) *Euskalerritik zerura ta heste ipui batzuk* (Auspoa liburutegiak, 1961). 144 orrialde. 14 ipui.

6) *Iru ziri {ipui ta bertso}* (Auspoa, 1965). 144 orrialde. 21 ipui. Jose Mari Etxaniz Urruzuno, gure apaiz idazlearen illobaren itzaurrea dakar, ipuilariaren bizitzari buruz mojatxoak, apaizak, sakristauak, baserritarrak, argiñak, ijitoak diotena azalduaz.

7) *Ur-zale baten ipuiak* (Auspoa, 1965). 129 orrialde. 19 ipui. «Ur-zale batek» izenpetu zitun lanok «Euskal-Erria» aldizkarian datoz, 1890 urteaz lendik. Au irakur dezakezu itzaurrean: «Urruzuno'ren asi-berri garaiko lanak dira, eta bai one-

netakoak ere, gure ustetan. Eta ipui auek liburu onen erdi bat
aña osatzen duten ezkeror, izengoiti orretaz baliatu gera ipui
sorta oni izena emateko».

8) *Eliz-kantak* (Iruña, 1904). 70 orrialde. Iruña'ko Eliz-Bo-
letin'ak (1905, 127 orr.) dioanez, liburuxka ontako kantarik
geienak, Pedro M. Urruzuno'renak dira. Ikus A. Pérez Goiena,
Ensayo... IX, 511 orrialdean.

Urruzuno'ren lanak, izkera errikoian eta euskal umore bizi-
bizian eginga daudelako, merezi lukete argitara ekartzea.

IRITZIAK.—Entzun lenen *Jesus'en Biotzaren Deya'n*: «Eus-
kera ederki zerabillen nai zuenean. Baita noiz edo noiz errez
itz egin ere danoi zesana adierazi nai zienean!... Pedro Mikel
jaun ona zan, apaiz onenatarikoa, euskaldun bikaña, ta euskal
idazle argi oso ta mamitsua».

Antonio Arrue'k: «Urruzuno'k bere lan-eginetan erabiltzen
zituan izkuntza ta idaztanka erriko jatorrak ziran... Gaiñon-
tzean, eta *Euskal-umoreari* buruz, esan genezake oker aundi-
rik gabe, Euskalerrak idazle gutxi izan ditula, oso gutxi ere,
Urruzuno'k bezala *umore* berezi ori beren lan-eginetan irauli
dutenak: Mogel «Peru Abarka»-n, Domingo Agirre «Garoa»-n,
Bustintza ta... beste bat edo bi, geienaz».

G. Mujika'k: «Euskera errez, leguna du; mami atsegin,
gai labur, bixi ta alaiak guziak». Berriz ere: «Bere ipui, ger-
taera-esate, egi-antzeko gezurrezko asmaketa, ijito-kantu, senar-
emazteen alkarizketa, ta... ta gañerakoak ez dira errez aztu-
tzekoak» (*Euskal Esnalea*, 1930, ilbeltza, 21 orr.).

Aita L. Villasante'k: «Orrela dira Urruzuno'ren idatziak.
Euskera errez errikoiak oso, askotan gai arrunt eta parre-eragi-
Ueak zutointzat arturik. Ots aundikoak egin zaizkigu ijitoeri bu-
ruz osotu zizkigunak. Baiña aldizkariaten zabaldutako lan aun-
di ortan, ba-dira erlijiozko lanak ere; esan dezakegu, beraz, ark

nai zuena iritxi zuela, au da, erriak irakurria izatea. Eta au lortu zuen ark batez ere, erriaren izkuntzan eta menean zeuden eta atsegin zitzaizkion gauzak ziralako»,

K. Etxenagusia'k: «Izlari ona ez baiña, sermoi-idazle bikaiña ei zan. Idazle lez, *Ipuin-asmatzaille* joria, ugaria: orduko euskal aldizkaririk geienetan argitaratu zituzan ipuiñok, «Auspoo Liburutegiak» batu ta eskeiñi deuskuz barriro (nn. 5, 47, 51). Erriarentzat egiten eban, eta orregaitik bere euskera ta joskera oso erriko, bizi, argi ta aberatsak dira».

A. Irigarai'k: «Bidasotar izkelgiko esaerak eta itzak darabilzki Urruzuno'k, Lesaka'n bizi izan zan garaia oroitzuz bear bada».

(Ikus J. Biotzaren *deya*, 1923, 156 orr.; *Euskal Esnalea*, 1923, 114 orr.; A. Irigarai, RIEV, 1931, 642 orr.; *Urruzuno'tar P. M'en Ipuiak*, Iruña, 1930; S. Onaindia, MEOE, 418 orr.; L. Villasante, HLV, 323 orr.; *Egan*, 1957, 178 orr.; L. Mitxelena, HLV, 155 orr.; *Auspoo*, 5, 47 ta 51 zenbakiak; K. Etxenagusia, *Euskal idazleen Lorategia*, 158 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 283 orr.).

9.—ANTERO DANIEL APAOLAZA ARANGUREN (1845-1908)

Idazle ontaz San Martin'ek idatzi zigun beiñola: «Euskaldun izakera *itzetan lander eta egiñetan eder* egiazkoa bada, ez gera erromantikutarako jaioak, ta gaitz zaigu ere ori irentsitzea. Baiña, arritzekoa bada ere, gaurko idazle askok daramate erromantiku kutsua... Apaolaza, ordea, aurreratutako Barojatarra genduan. Eta Barojak bezela, ukatu ezindako euskotar gogoa zeraman bere barrenean txertaturik» (*Auspoo*, 8, 17 orr.).

BIZITZA.—Urretxua'n munduratu zan, 1845-1-3'an. Bere gurasoak: aita, Antonio Maria urretxuarra ta ama, Maria Isabel, Antzuola'koa. Botikariotzarako ikasi zuen Madrid'en, eta ango Ikastetxe Nagusiko «Caustro de la Facultad de Farmacia»-k

eman zion titulua, 1869'an. Urrengo urte-guenean bere botika jarri zuen Bergara'n; 1873-12-15'an, ordea, bertako alaba Felipa Azkarate Lizeta'rekin ezkondu zan,

Iritziz ta ideiaz, garai artan ondo ikusiak etziran liberal oietakoa genduan. J. San Martin'ek: «Bere botikak liberalen biltoki fama omen zuan; an biltzen bait ziran erriko liberal intelektualak, ta ori ez zan fama ona orduango Bergaran». Aundi-kiak oraindik indar asko bai zuten. Ta aundiki oiek, konserbadore bikain bezela, beti agertu izan dira lenari loturik». Antero, beraz, aurrera egin nai zuenetakoa zan.

Erriko agintaritzan ere sartua dugu, Naiz-ta agiririk aurkitu ez, 1881-7-2'an Bergara bertako alkate izentatua izan zan. Baiña bere iritziak, edo-ta izakera zital samarrekoa zalako, etzan luzaro kargu ortan egon. J. San Martin'ek berriz ere: «Ez dakigu arritzekoa dan garai aretan liberal bat izatea erriko agintaritzan, baiña arritzen ez gaituana da idea oietako gizonak agintaritzan asko ez irautea». Dana dala, urte orretan, zergaitik ez dakigula, utzi bere Bergara'ko botika, utzi baita bere konsejaltza —orrela agertzen da 1881-9-29'an—, eta botika ta guzti Antzuola'ra, bere amaren errira joan zitzaizun. Antxe, Antzuola'n il zan 1908-12-21'an.

EUSKAL LANA.—Onela darrai J. San Martin'ek: «Antzuola'n bakardade aundian bizi izan zan Antero. Bere ideak orduango Bergara'n ez baziran ontzat artzen, Antzuola etzan izan erri obeagoa. Berak jenio zital xamarra omen zuan eta bere emaztea ere ez omen zetorren zearo bat. Aurrerantzean etzuan Anterok bere buruarentzat, eta batez ere bere gogoarentzat, pakerik arkitu. Ingurukoak etzituzten bere ideak ongi ulertzen. Baiña, bere bakardadea eztitze alde edo, zartzarora, literatura-ri ekin zion txolarte libreetan».

Bakartadea ona da, beti ere, lanari ekiteko. Apaolaza'k ondo zekien euskeraz eta euskerazko lanak osatzean eman zion. Gisa ortan zertuak ditu ainbat lan jator eta itzulketa. Itzulien artean

bat *Patxiko Txerren*, arenetik gaur ezagutzen dugun bat-bakarra. Beste guztiak, liberalkeriz loituak ziralako edo, Antero il zanean, erre egin zizkioten bere senideak. Lan oietatik asko bertsoz egiñak ziran, antza.

Zer dugu *Patxiko Txerren* (Bergara, 1890) au? Trueba'ren «El Judas de la casa» euskeraz. Naiko irakurria; geroztik ere bost argitalpen ezagutu izan ditu. Itzulpen onek ba-du bere edertasuna; tokiz aldatzen zitun gertaerak, Galdames ta inguruak barik Antzuola aldeak agerleku egiñik. Gertaerak, gaiñera, laburtu egin zizkigun, «prosa arinduz, baiña gaia laburtu gabe». Trueba'ren idazkera astun xamarra zerizkion eta berak «eralgiz kendu zion zala». Eta eibartar idazle aitatuak: «Itzultzaille bategen orretarako eskubiderik ez badu ere, «El Judas de la Casa»-k, Apaolaza-gandik atera zanean asko irabazi zualakotzat gaude. Jatorrizko bera baiño ohea da irakurtzeko» (*Ibidem*, 17 orr.).

Bost argitalpen ezagutu ditu: 1) Bergara, 1890, Juan Lopez'en etxean; 2) *Ibaizabal*, 1903, 60 geia, 3 orr.; 3) Irun, 1915, J. Diaz'enean; 4) Donostia, 1917, Martin, Mena y C.a'ren irarkolan, «Euskal Esnalea»-ren separata bezela; eta 5) Auspoa, 1962, 8'garren zenbakian. Mikel Arrutza euskaltzaiñak ere itzuli zuen, Etxe-kalte (Bilbao, 1934) izenez Verdes Atxirika'ren irarguan argitara emana.

Esaera politak ditu, erriaren agotik jasoak; izkuntza apartekoa du, literaturarako guztiz jatorra. Azkue zanak lau bider aitatzen du bere «Morfologia»-n.

(Ikus Azkue, *Morfología*, 1923, 809 orr.; J. San Martin, *Auspoa*, 8, 9-19 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 164 orr.).

10.—ALFONSO MARIA ZABALA ETXEBERRIA (1847-1919)

«Benetako euskaltzalea zan —dio Euskal Esnaleak, Zabala'ren il berria iragartzerakoan—. Urteak gogo beroenak ere

oztu ta indar aundienak ere makaltzen dituzte, ta Zabala Jau-nak, zarra zalako, etzeukan orain lanerako bere gaztearoko ke-men eta indarririk. Gogoz, ordea, biotzez, egi-egizko euskaltza-lea zan orain ere. Zartzean lan-gaietan gazteai toki egin zien; gogoz, beti bezela, aurrekoen artean zijoan» (1919, 278 orr.).

BIZITZA-PUSKETAK.—Ezkioga'n jaio zan 1847-1-24'an. Ataundarra zan bere aita Pedro Manuel, eta Zegama'koa bere ama Josefa Antonia. Aitaren aldetiko aitonak; Frantzisko Iñazio, Ezkioga'n jaio ta Ataun'en bizi izana, ta Maria Santos Aran-buru, Ezkioga'ko alaba. Amaren aldekoak auk ziran: Andres ta Maria Fermina Berasategi, biak zegamarrak. Alfonso Ma-ria'ren gurasoak Zegama'ra joan ziran bizi izaten.

Gazterik sortu zitzaion eleiz-deia, ta Gazteiz'en burutu zi-tun apaiz-eskolak. Biurrikeri asko egiña omen dugu apaiz-gai zalarik. Esate baterako, ezin etsi iñolaz ere Zegama'ko jaietan errira gabe, ta, bein, ikastetxea utzi, kalera irten eta, dirurik ez bait zuen, kalean txakur-kume bat galtzarpean artu, saldu ta txanpon aiekin bultzikoa ordaindurik, errira etorri omen zan. Amak laster bialdu ei zuen berriz ere etorri zan bidetik.

Azkenengo gerratean karlistetan ibilli zan kapillau, «txapel txuri» ta «gizon bikain». Apaiztu ta bertatik Ondarrabi'ra bial-du zuten; gero Zegama'ra erretore. An aldikada bat egin ostean, Donostiko Artzai Onaren elizara etorri zan laguntzaille, ta az-kenez, 190ran, Ernani'ra erretore. Ementxe il zan 1919-8-11'an, gabeko amaiketan, garnu-odolez. «Zenbat jaiotze, ezkon-tza eta eriotz idatzi ote zitun Ernani'ko elizako agiri-liburuetan, Jaungoikoak bakarrik daki. Bere eskuz idatziak daude danak, iya bere eriotzako eguna arte» (*Auspoa*, 16, 22 orr.).

Euskal sua zeraman barrenean, eta egon zan erri guztietako zerbait daukate aren idaz-lanak. Ondarrabi'n Guadalupe'ko Amaren kondaira moldatu zuen. Zegama'ko izkera darabil ipui-ñetan batez ere. Donostiko integrista gazteriak eskatuta edo

«zer aurkeztua izan zezan egiñak» ditu bost-sei komeri. Maiz egin bear izan zun epai-maiko ere, Kanpion, Manterola, Otaegi ta olakoakin.

EUSKAL LANA.—Guda iskanbillak ito ziranean, laster asi zan euskeraz idazten; 1880'tik aurrera agertzen dira bere lanak Donostiko «Euskal-Erria»-n. Eta itz-lauz moldatu zitun bere kondaira, ipui ta komeriák.

1) *Ondarrabi-ko Ama Guadalupekoaren kondaira* (Euskal-Erria, 1884). Zillarrezko luma batekin sariztatua izan zan 1883'an Donostiko Lore-Jokuak antolatu ta Ondarrabi urian egin zan idatzi-batzaldian; urrengo urtean, 1885'an, Tolosa'n berriz argitaldu zuten: 103 orrialde. Geroago, Azkue zanak ere argitara eman zuen *Euskalzale-n* (1899, 281 orr.). 2) *Ipuiak*. Ipui asko urkuldu zitun. Umore-sail bat zeukan *Euskal-Erriak*, lenengo urteetan baitik bat, izen onekin bataiatua: «Neguko arratsetan su ondoan kotnu-kontari». Atal orretantxe idazten zuen Zabala'k, aldarte oneko. *Gabon gau bat* lanarekin saria eskuratu zuen 1887'n Donostia'n jaitu ziren Lore-jokuetan. Badu Goierriko usaia.

3) *Komeriak*. Euskal Esnalea'k: «Beste idazlan guziak baño obeto, antzerkiak egiten zituan Zabala jaunak. Erreztasun aundia zeukan ortarako, ta berez, indarrik gabe, ateratzen zitzaizkion burutik. Alaiak, atsegiñak, parreragilleak dira antzerki guziak...; or dabiltz erriz erri».

Ona batzuk: a) *Apari merke*, atal bateko komeria, Donostiko gazteri integristari eskeiñia ta bertan, 1911-1-6'an lenaldiz antzeztua; b) *Periyaren zalapartak*, au ere integrista gazteriari eskeiñia ta bertan 1911-12-17'an aurrenik emana; d) *Jauregi-erroiako astoa*. Bakar izketa (Donosti, 1912); integrista gazteen-tzat idatzi ta 1912-1-21'an lenengoz egiña; e) *Urruti-izketa* (Donosti, 1918); f) *Melitona'ren bi senarrak* (Donosti, 1918); azkenengo irurok Euskal Esnalea'k atera zitun.

Bera ere integrista bait-zan, alderdi oietakoek Donosti'n zeukaten talde azi xamarraren atsegiñerako egin zitun komeri auk ba-dute, egia esateko, gatzta ta piperra, gazterik osotu zizkigun ipui ta irakurgaitxoai ezer kendu gaberikan. Erritar ta bizkor ustu zizun noiznarik bere barren erosko ta josta-galea.

(Ikus J. Vinson, *Essai d'une Bibl. Basque*, II, 639 orr.; *Euskalzale*, 1899, 281 ta abar; *Euskal Esnalea*, 1919, 278 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1958, 95 ta 1961, 38 orr.; *Auspoa*, 16, 9 orr.; A. M. Labaien, *Teatro...*, II, 181, orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 45 orr.),

11.—PIO EDUARDO MORTARA (1851-1940)

Aita laterandar urduri au Bolonia'ko seme genduan, an bait zan argitara etorri 1851-8-27'an. Sendiz judutar zan; baiña, aur txiki zalarik, il arriskuan aurkitzen zala-ta, etxeko neska-meak bataiatu zuen ixillean. Gurasoak etzuten ori ondo artu ta Pio IX'garren Aita Santuak babespean zuela, aunditu zanean laterandarren komentura bialdu zuten. 1867'garren urtea zan, eta eliz-ikasketak bukatu ostean 1872-12-20'an apaiz-ordena artu zuen.

Orduko goraberek zirala-ta, eramankizun aundia bear izan zuen bizitzako garraztasunari arpegi egiteko: gurasoak eta gobernuak gerra gordiña leporatu zioten luzaroan: Italia'tik eta Frantzia'tik bota egin zuten. Ordun Espaiña'ra zuzendu zan bi lagun italiarrekin, eta beti gogotsu Chiclana, Kadiz'ko probintzian jaso zuten beren bizitegia, San Telmo izenez. Ondoren Euskalerrira etorri ziran eta an-or ta emen aztetxe (nobiziadu) bat eraikitzeke leku egoki billa alegiñak egin ondoren, Gazteiz'-ko gotzaiñak eskeiñita Oñati'ko Seminario txikia eramaten asi ziran, bertoko Ikastetxe ospetsuan noski. Laster ugaldtu ziran ikasleak: geroago Gazteiz'ko gotzai izandako Mateo Muxika Urrestarazu jaunak ere ementxe ikasi zuen.

Urteak joan urteak etorri, beren komentua ta eliza euki gura-ta, ortarako bearrezko ziran urratsak ematen asi ziran; eta gogotik lan egiñaz, Aita Mortara'k batez ere, 1891'rako etxe ta elizaren jabe biurtu ziran. Apaiz ikastetxe txikia Gazteiz'era aldatu zuen Piérola gotzaiak, eta Oñati'ko gaztetxoak eskola gabe gelditu ez zitezen, aurreko mendearen azken amar urteetan laterandar prailleak izan zuten erriko eskolen ardurea. Oneri buruz irakur Osa'tar Eusebio'k dioskuna: «Pio IX-garren Aita Santuak bere zaipean artzean bere izena ezarri zion judutar ume bat izan zen Oñati-ra bidea artu eta emen laterandar kanonigoen oiñarriak ezarri zituen. Judutar arek euskeraz ederkiki ikasi zuan iru illabeteen eta euskerazko itzaldiak barra barra egiten zituan... Arrezkero amaika Oñati-ko seme egin da laterandar apaiz. Ego Amerika eta Ipar Amerika zear zabaldurik dabilzan kanonigo geienak Oñati-ko semeak dira. Judutarrak azi ona erein zuan eta frutuak ugariak izan dira» {*Zeruko Argia*, 1967, urtillak 1, 9 orr.).

Aita Mortara, beti langille porrokatu, Euskalerrian ibilli zitzaigun 1910'raiño lez, ara ta Ona ostera asko egiñik ere. Erreztasun aundia zuen izkuntzak ikasi ta itz-egiteko; beraz, sarri dakusgu Italia'n, Prantzia'n, Inghlaterra'n, Polonia'n eta Ego Amerikan ere bai, mixioen aldeko laguntasun billa, izlari trebe. Aurragotxotik, ala ere, Bressoux-Lieja'n, Bouhay abatetxean jarri zuen bere egonlekua; andixik edatzen zuen, argi-ontzi ederra iduri, bere biotz ixiotuaren galda gorria, bai otoitzez bai mintzo kartsuz. Egun ederrak ikusi zitun, baita goibelak ere, orduko gerra ta istillu beltzak zirala-ta. Ogetamar urtez bizi izan zan oraindio, bere apaiz-lanari iñoiz ere muziñik egin gabe. Azken orduan ba-zuen gurari bizi bat: Italia'n il nai. Ortarako egin zituzten gertakizun guztiak, 1938-39'garreneko neguan Liguri'ra ekarteko alegia, baiña gain erori zan gudak asmo ura aurrera eramatea debekatu zuen. Bouhay'ko abatetxean itzali zan Aita Pio Mortara mixiolari nekagaitza, 1940-3-iran, 89 urtekin.

EUSKAL LANA.—Irugarren Errepublikak onarturiko legeak bide, Gipuzkoa'ra eldu zan Mortara, labur, Oñati'ra. Tokian tokikoa bear zalata, euskeraz jabetzeari bertatik asi ta, esan dugunez, iru illabeteen gure izkeraz jabetu zitzaizun eta, 1884'an euskerazko itzaldi bat egiteraiño jabetu ere: urrengo urtean argitaratu zan itzaldi ura.

Idazteari ere eman zion, eta 1888-1891 bitartean aren lanak agertzen dira «Euskal-Erria» amabosterokoan. Maite zitun gure gauzak, eta 1908'an olako dei samur bizi bat zuzentzen dio Euskalerrri osoari, ta Gipuzkoako Aldundiari bereziki, euskera piztu zedin asmo zabal baten barruan lan egin bear zala aolkatuaz.

Aita Pio'k ba-zekian bere sentipenak bertsoz adierazten ere. Nik nere olerki-bilduma osotu nuenean, aren poesi polit bat, *Arantzazu'ko Amari* deritzaiona, pozik sartu nizun bertantxe (*Milla euskal olerki eder*, 402 orr.). Dirudienez, begiko zitun Oñati inguruak, lurrez ta arimaz ta edertasunez. Eta guztion zaindari Arantzazu'n ikusten du euskaldunen erregiña, Andre Maria. Euskalerrriak ba-ditu —noiz ez?— etsaiak, baiña aitz gogorrak bezela dira eurok. Ala ere...

Betoz aize, euriak,
turmoiak orruka:
Euskaldunak ez dira
izango beldurka.

Arantzazu'n dugu arantzan Maria; euskal erriak izan ditu, ta izango arantzak ugari, barnetik eta kanpotik; baiña arantzan dagonak maite izanik, euskaldun erriak ez du federik galduko. Ez orixe!

Poliki ikasi zuen gure mintzaira, aren idatzietatik atera dezakegunez. Ez bildurtu, beraz, euskaldun berriok! Ark egiña, zergatik guk ez?

1886'an Durango'ko euskal jaiak, garillaren 24, 25 ta 26'an. Ogeta bostgarren eguneko meza nagusian euskerazko itzaldia, Aita Mortara'k egin zuen.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 402 orr.; irarkolako kajistearen aldrebeskeri ez-usteko bategatik, Aita onen bizi-zeaztasunak Serafin Baro-xa'ri ezarriak dauzkazu; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1957, 122 orr.; M. Unamuno, *Contra esto y aquello*, Austral, 144 orr.; Osa'tar Eusebio, *Zeruko Argia*, 1967, urrillak I, 9 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 223 orr.).

12.—DANIEL LIZARRALDE (1853-1923)

Tolosarra, 1853-4-1'an jaioa. Medikuntza ikasi zuen, eta Argentina'ko Tandil, Adrogué ta Buenos Aires'en ari izan zan osagille bezela urte mordoan.

Euskaltzale jator zurrian, Argentina'ko «Laurak-Bat» al-kargoko lenengo lendakari ordezeko izan zan. Entzute zabala ekarri zion batzoki ontan, euskal legezarrak ezer-eztu ta ken-tzen zala-ta, 1901'an eman zuen «Orain eta Gero» zeritzan itzal-diak. (Buenos Aires, 1901). «La Baskonia»-ren zuzendari 1902'-tik, Grandmontagne'ren ordezeko.

Buenos Aires'en il zan 1923'an.

(Ikus Gabin Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1950, 128 orr. ta 1953, 124 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 293 orr.).

13.—JOSE MARIA AGESTA (...1915...)

Donostiarra. Teatru-lanak osotu zitun, baita antzerki ta teatruari buruz iritzia ematen trebe jokatu ere. 1915'tik 1920'ra dozena bat antzerki-lan biribildu zizkigun, euskeraz: jostirudiak, zarzuelak eta komeriak.

Ona tituluak: 1) *Mutil koxkorrak*, gizasemeentzat bakarrik ekitaldi bitako zarzuela; 2) *Senargai ona*, komeria ekitaldi bitan; 3) *Zein da emen*}, bi ataleko antzerkia; 4) *Osagai ona*, aur-jostaillua bi ekitalditan; 5) *Pesiara*, aurtxoentzako zarzuela laburra; 6) *Jesu'ren Jaiotza*, iru jardun-aldiko aur-zarzuela; 7) *Auxen da eguna*, jostirudi bitxia ekitaldi baten; 8) *Prixkita*, ekitaldi bateko josta-antzerkia; 9) *Itxura ta ezer ez*, jostirudia ekitaldi baten; 10) *Ni bezelakoxia*, jardun bateko jostaillu; 11) *Sorgiña*, gizonezkoentzat jostaillua; 12) *Herodes'en jauregian*, ekitaldi bateko zarzuela.

«Luxe-mendi» ez-izena reabilli oi zuen sarri.

Bein baiño geiagotan egin zuen maiko edo epaikari olerki ta kantu batzaldietan; 1914-6-2'an Donostia'n, esate baterako, Miramar'eko aretoan eratu zan idazte, irakurtze, kantu ta kristau dotriñeaz nor geiagoan, kantu-saillan Agesta, Buenabentura Zapirain eta Silberio Zaldua izan ziran epaia eman zutenak.

(Ikus Antonio M. Labaien, *Teatro Euskara*, II, 173 orr.; Auñamendi, *Enciclopedia ilustrada del País Vasco*, I alea, 151 orr. ta *Literatura*, II, 309 orr.).

14.—FRANTZISKO ARRIOLA JUARISTI (1855-1911)

Elgoibar'ko seme genduan. Bere gurasoak: Alejandro ta Ana Mari, elgoibartarrak auek ere. Zarautz'en bizi izan zan luzaro, estazioko buru edo jefe zalarik; ementxe il zan 1911-1-26'an. Ezkongea.

Maite zuen bere izkuntza, ta lan mordoa argitatu zuen *Ibaizabal'en*. Zarautz'etik bialtzen zitun lanok, Praisku Arriola-k izenpeturik. Au ere Kirikiño'k egin zuen idazle, onen bertso- batzaldietara lanak bialtzen asi zan beintzat. Bigarren batzaldirako igorria dugu au:

Ardotegia degu
adierazi nai,
ara juan ezker
laister gera alai;
beñ gertatu giñian
nagusi ta morroi,
iñauteri egunez
egiñikan guk jai
ia ardo ona zuben
etxe artan salgai;
beriala erantzun zuan
taberneruak «bai»;
atera zazu dio
gure nagusiak
gelan dituzun ardo
bikañik guztiak.

Laister jarri zituan
bi ontzi betiak
eta guk gure eztarriak
legorak, tristiak
alaitu giñituen
jarririk bustiak;
andik aurrera ziran
gerekin nastiak.

Sartutzen egin degu
alegin ugari;
ardo ureztatu ark
ozpiña dirudi;
begiakin kiñuka
guk biak alkarri
eranta kolpe egiñik
atxur ederrari,

eta arrek baliatu
ozpin ta urari
osasun ta sakelen
bien kaltegarri.

Edu onetan idatzi zitun, iñoiz ere aspertu gabe, or-emengo izparrak, ipuiak, ele-meleak eta igarkizunak, bertsoz eta itz lauz.

15.—JENARO ELIZONDO (1858-1914)

Errenderi'ko semea. Bere gurasoak: Manuel eta Antoni, Errenderi'n jaioak. Zarautz'en bizi izan zan aldi batean, bertoko alguazilla zala; berton il zan 1914-7-22'an.

Ibaizabal'en idatzi zuen, 1903'an urtean. Euskal kezka jota zebillen au ere. 54'garren goian onela idazten du: «Badirra beste euzkaldun batzuek gaurko esnaera ikusi eta diotenak: sasoi onean asi dira IBAIZABAL ta bere jendea bear dutela bizitu euzkara, bada agonian edo albetan dagoan gaisua sendatzen zailla da, ori gertatzen da euzkararekin. Nik esaten diot erdalzale arro orri, beñere ikusi edo entzun ez al duen agonian edo albetan ustez zeuden gaxoak sendatu izan dirala, zergatik sendakin onak billatu eta eman dizkaten, eta guk eztaukagu sendakiña billatu bearrik, euzkaraz ernegatu eztegunak sendakiña daukazkigu eta saiatuko gera gaisoari ematen eta ziur gaude sendatuko degula. Ontarako samin asko eman bearrian arkituko gera, menturaz gerok artu ere bai, baña dana eramango degu Jaungoikoaren laguntzarekin gozotasunez» {*Ibaizabal*, 1903, 54 gela, 4'garren orrialdean).

Lan politak ditu, zentzunez egiñak.

16.~PELL0 MARI OTANO BARRIOLA (1857-1910)

Euskal senak urduri zekarren bertsolari gaillena. Ibiltan berebiziko gendunez, Ameriketara ondu zituen bere bertsorik geienak. I. Unzurrunzaga Aitak onela: «Bertsok zitun bere naigabe, urruti-min atsekabeen izkuntza maitea; or uzten zitun bere barru-gogamen biotzekoenak. Euskeraz eta bertsotan izaten zitun emengoekin artu-emanak; aitonak eta osabak jatorki erantzuten ziotela» {*Pedro Mari Otaño'ren Bertsok*, 1959, 12 orr.).

BIZITZA.—Zizurkil'en munduratu zan 1857-1-26'an. Bere gurasok Juan Pedro ta Juana Batista izan ziran, eta aiton-amonak, Pedro Mari Otaño ta Mikaela Lasa, bertsolariak auek ere, Joxe Bernardo bere osaba bezela; gaur ere ospetsuak dituzu Ameriketatik 1889'an oneri bialdutako 22 aapaldiko zortziko nagusiak; baita itxasoz bestaldetik etxeratu zanean, Errekalde'ko ate-aurrean bota zituenak ere. Bai, aitona, Pedro Mari Otaño —«errekalde zarra» ta «Larraul'ko baria» deitzen ziotena—entzute aundiko bertsolaria garai aretan, eta Mikaela Lasa amona, bertsolaria berau ere ta ez edozelakoa. Osaba, ordea, Joxe Bernardo, orduan jairik jai bertsolari ibilli oi zana dugu, kantari azkar-azkarra.

Otaño familia, Pedro M. gazte zalarik, Zizurkil erria laga ta Donostiko Amara kalera etorri ziran bizitzen. Emen lanean asi zan, baiña gauzak ez irten berak nai bezin ondo; beste aldetik naikoa eraman bearra zeukan Euskalerria odola zeriola ikusiaz. «Au da txoria gari tartean goseak egon bearra», diosku berak. Eta naskatuta bezela, beste euskaldun asko lez, Ameriketara joan zitzaizun. Arako ontzia Pasaiko kaian artzean, jendetza aundia, Txirrita bera ere bai, agur egiten joan zitzaion. San Polikarpo eguna zan, 1898'ko urtarrillaren 26.

Bitan egin zuen Ameriketarako joan-etorria. Ona baten Mari Madalen Alberdi'rekin ezkondu zan Donostiko Jesus'en Bio-

tzaren eleizan: sei seme-alaba izan zituzten. Argentina'n bizi izan ziran geien bat, Buenos Aires'en eta Santa Fe probintziko Rosario urian. Buenos Aires'eko «Laurak bat» gizartean euskal gaiak erakutsi zitun, baita «Zutik» gizartean itzaldi bero txalotak egin ere. Emeterio Arrese'ren adiskide miña zan.

Rosario Santa Fe urian il zan 1910-5-5'an, itxura danez. Euskalerrira biurtzeko asmotan zebillen, baiña uste gaberik, etxeko eskeillaretatik jausita artutako kaskako batek eraman zigungun beste mundura, 52 urtekin.

EUSKAL LANA.—Bertsolari leunetarikoa zan Otaño, errai baruraino iristen zana. Ez zuen eztarri ona; edozer kantatzen asi orduko eztulak ematen zion, diotenez, eta «katarro» deitzen zioten. Auxegatik edo, Otaño'k idatzi egin bear izaten zitun bere bertsoak. I. Unzurrunzaga'k au: «Bertsoak idatzi beararak, bestela baiño apaiñago orraztera beartzen zion. Orrezaz gaiñera mundu asko ibillitako gizona zan eta orrek asko erakusten du. Otaño'ren bertsoak gutxitan arkitu oi diran jakin, armoni, olerki dariote ta kezka izaten naiz batzutan Pello Mari'ren zenbait bertso olerki ala bertso ote diran» (*Ibidem*, 6 orr.).

Bi liburu utzi zizkigun, berak argitara ekarriak:

1) *Artzai mutilla* (Buenos Aires, 1906). Euskal opera, Felix Ortiz eta San Pelayo'ren musikarekin Buenos Aires'en (1906'an, Eugenia Teatruan) lenengoz antzeztua.

2) *Alkar* (Buenos Aires, 1904). 82 orrialde. Bertso bilduma, geroago ere (Donostia, 1930) bigarrenez argitaratua. 1959'an, berriz, Zarautz'ko «Kulixka Sorta»-k 33 poesiko ale bat eskeiñi zigun, Otaño'ren bertsoz osotua.

Bi liburu auek ba-dute ezin-ukatuzko une goxoa. *Alkar-en* —gero *Pedro Mari Otaño'ren Bertsoak*— datozen lanak izkera garbi, errez, oparoan dagoz; biotz-ondo ta sentimentuz gilgil dauzkazu, esaterako, «Aitona giza-gaixoa», «Anaitasuna», «Aita-semeak»... Euskera, il-zorian ikusten zuen eta itxasoz andik bizita ere, gogor eutsi nai dio. Ederki darasa Basarri'k:

O, Pedro Mari, zure bertsoak,
urrezko letratan daude,
ta irakurtzen ari geranak
ezti miazkatzen gaude.
Biotz osoa agertzen dezu zuk,
etzenduan ezer gorde;
atseden gabe lan egiteko
gure izkuntzaren alde...
Ai, Europa ta Amerikan gaur
Otaño asko baleude!

Amaika euskaldun ba dago egon ere Euskalerritik urrun!
Aberri miñak esetsia zebillen Otaño. Artzaintzan arrantxu on-
doan, onbu eder bat duela aldamenean. Eremu ikaragarri artan,
bere erriko pago ta aritz tantaiaak ditu gogoan; eta itzal aun-
diko intxaurra. Onbu aren sustrai gaiñean jartzean bere jaiotz-
etxeko intxaurpean dagola uste du gaixoak. Onela abesten digu:

Nere lagunik maitatuena
Ombu laztana, zu zera,
argatik nator zure kolkora
ni malkuak isurtzera,
iduriturik naramazula
atariko intxaurpera...
Beti izango zaitut gogoan
baiñan joan nai det oster, a,
Euskal lurreko zuaizpe artan
nere ezurrak uztera.

1897'an, Oiartzun'go euskal jaietan Otaño'ren *Anaitasun-
Pakea* neurtitzak jaso zuen bertsolarien sailleko lenengo saria.

(Ikus K. Etxegarai, *Euskal-Erria*, 1906, I, 236 orr.; S. Onaindia, *MEOE*, 405 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1955, 161 orr.; J. Un-
zurrunzaga. *Pedro Mari Otaño'ren Bertsoak*, Kulixka Sorta, 1959, 31-32
alea; L. Mitxelena, *HLV*, 133 orr.; ta «Egan», 1960, 118 orr.; S.
Onaindia, *Gure Bertsolariak*, 1964, 231 orr.; Auñamendi, *Literatura*,
II, 164 orr.).

17.—JOSE ANTONIO UGARTE (1860-1935)

Aita prantziskotarra. Angiozar'en jaioa, 1860-3-16'an. Eliz gizon izan nairik, 1883-6-20'an artu zuen Frantzisko deunaren jantzia, urrango urtean —bagillaren 21'an— profesa egiñik. Legeak eskatutako ikaskizunak amaitu ostean, 1889-10-6'an apaiztu zan.

Kementsu lan egin zuen Ordena barruan, San Frantziskoren Irugarrengoen alde berariz; Kantauri probintzian auen Ordez-kari izan zitzaigun 30 urtetan gutxienez. Kargu onek erakutsi zion edo beartu zuen larderia ta kemen izugarrizko gizona izaten: Konpostela'ko, Madrid'eko Irugarren Ordenakoen batzarretan esku artu zuen; eta Euskal Erri barnean ere ainbat lekutan —Tolosa, Zarautz, Bergara, Segura, Donostia, Aia, Itziar, Zumarraga, Beasain, Durango, Gernika, Estibalitz, Lekunberri— eratu zitun Irugarrengoen batzar bereziak, ots eskergadunak beti ere.

Beste asmo bat ere bere garaian eta berak bultzatuta, egiztatu zan: gaur ain ederto lanean ari dan Arantzazu'ko irarkola (1920) sortzean, etzan nagi ibilli ura antolatzen eta arnas ematen.

Zarautz'en il zan 1935-5-7'an, 75 urtekin.

EUSKAL LANA.—Euskeraz ta erderaz idatzi zigun, ia dana Irugarren ordenakoai buruz. Ona liburuetatik batzuk:

- 1) *Lezoco Peregrinacioraco Cantac* (Tolosa, 1900).
- 2) *Irugarrengoen Irakaslea* (Zarautz, 1917). Aldizkaria duzu, Irugarren ordenakoentzat urte-mordoan argitara ekarria. Aita Ugarte ilda gero ere, Tolosa'n atera zan aldikada batean, Aita Leon Madariaga'k eta Aita Juan Ruiz Larrinaga'k atera ere, Aita I. Omaetxebarria'k eta A. Demetrio Garmendia'k lagunduta.
- 3) *Aita San Frantziskoren Irugarrengoentzat Eleiz kantak* (1918), gipuzkeraz eta bizkaieraz. Badu beste antzeko bat ere.

4) *Zeruko Mana gozoa* (Tolosa, 1924). 816 orrialde. Ongi artua izan zan, bederatzi milla ale bi urtean saldurik. Bi urteren buruan, beraz, bigarren aldiz argitaratu zuen, titulu onekin: *Zeruko Mana Gozoa, Irugarrengozat Eleiz-liburua* (Zarautz, 1926). 740 orrialde. Juan Ayerbe'k egin zion sarrera ta Urnie-ta'ko arimazaiak ziona aitatzten digu bertan. «Lenengo aldiz —dio— argitaratzean liburu eder au, esaten nuen gauzik bearrrena otoitz gogotsua egunero egitea dala. Eta orretako zale-tasun bizia sortzen dala irakurtze onak goizero buruz erabillita. Irakurtze egokienak ugari liburu onetan zeudelako, uste nuela irakurle asko ta asko izango zitubela. Ala gerta da. Bederatzi milla liburu bi urtean saldu dira. Beraz, ondo irabaziak dauzka egilleak anima zaindarien txaloak» (*Sarrera*, 7 orr.).

5) *Lore Sorta edo San Frantziskoren 3'gn. Erregla*.

6) *Bederatzi-urren batzuek* (Tolosa, 1928). 76 orrialde. Zazpi bederatzi-urren datoz: 1) *Jesus'en Biotz maitagarriarena*; 2) *Praga'ko Jesus Aurrarena*; 3) *Iru Avemariena*; 4) *Miraria!*; 5) *Ama Mariari... noiz-nai beragandik mesede aundiak iristeko*; 6) *Ama Birjiñaren Zeruratze ta Koroatzeari*; eta 7) *Arantzazu'ko Andre Mariari*.

NOLAKO EUSKERA?—Erriz erri ibilli zitzaigun predikari, ta baliteke izlari lez izkera ozen xamarrekoa izatea, gizon gartsu, eratu ta azkarra baitzan. Aren euskera errez ta berdintsua da, garbi ta bizia.

(Ikus J. Vinson, *Essai d'une Bibl. Basque*, a 249; Sorarrain, *Catálogo...*, 651 orr.; Ruiz Larrinaga, *Homenaje a la seráfica Provincia de Cantabria*, 153 orr. ta abar; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1952, 191 orr., 1960, 141 ta 1961, 89 orr.; N. Kortazar, *Cien Autores vascos*, 94 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 509 orr.).

18.—JUAN KARLOS GERRA (1860-1941)

J. K. Gerra'k euskal olerki zarrai buruz egin zuen itzaldian au aitortzen digu: «Donostiarra naiz, Santa Mari'ko pontean

bataiatuba... bañan emen, Irutxulueta eder zoragarri ontan jaio banintzan ere, izatez basatiar jaio nintzan, eta gazterik biurtu nintzan basora, nere gurasoen jatorri zarrera, eta an bizi naiz berrogei urte aubetan, Udalaitez'eko aize garbiak amasa zabalgaz arturik eta bere indarragaz ango izketa nere aboan darabildala... euskera gordiña, bertako arkaitzak bezin gogorra eta latza» {*Itzaldiak*, Donostia, 1922, 116 orr.),

Donostiar zan, bada, J. K. Gerra, jaiotzez; baiña jatorriz Arrasate aldekoa. Nikolas Gerra Goenaga, Felipe II'garrenaren zenbalari izana Urretxu'ko Gerra-Aundia etxekoa zan, eta onen ondorengoa genduan gure Gerra. Jatorriz basatiar zala orixegauk diosku, urikoak leiñu argiakoak bai liran! Otsak otsari ta odolak odolari lez, barne zekarren baso-ariak dei egiñik bear bada, Arrasate'ra etorri zitzaizun gazterik, eta ementxe bizi izan zan, baita il ere, 81 urtekin.

Lege-gizona —letraua— zan, eta gaur ere ango jendeak dionez, amaika buru-auste, korapillo askatuaz, erriko ta erri-ingurukoai laguntza baliotsua eskeiñi zien. Aski lerden zan gorputzez. Bizarra uzten zuen. Eta etxetik irtetean, bere emaztearekin irten oi zuen geienetan.

BERE LANAK.—Lirain idazten zuen dala erderaz dala euskeraz. Itzaldi goxoak mintzatu ere bai. Euskeleerriko gauza zartzale porrokatu zan eta bertoko, ots, Erdi-Aroko une illunik asko argitu zizkigun. Arlo onetan burutu zuen lanagatik guztiz es-timagarria dugu Gerra: gure arteko ikurdi, eraldika ta leifiugauzetan aituena lez jotzen dute gaur ortan jakitun diranak.

Ikusi atera zitun lan batzuk: r

ERDERAZ.—1) *Estudio de Heráldica vasca* (Donosti, 1918); 2) *Viejos textos del idioma. Los Cantares antiguos del Euskera* (Donosti, 1924): baita *Euskalerriaren Alde'n* ere; 3) *Ensayo de un padrón histórico de Guipúzcoa según el orden de sus familias pobladoras* (Donosti, 1928); 4) *Armorial de linajes bas-*

congados (Geografía del País vasco-navarro dalakoan argitaratua); 5) *Oñacinos y Gamboinos. Rol de banderizos* (Donosti, 1930); 6) *Ilustraciones Genealógicas de los linajes bascongados contenidos en «Las Grandezas de España», compuestas por Esteban de Garibay* (RIEV, 1908-1912, ta J, Kerexeta'ren *Diccionario onomástico y heráldico vasco* (Bilbao, 1970) dalakoan geigarri bezela).

Liburu auetan aipamen berezia merezi digu *Viejos textos* deritzanak. Iru zati dauzka lan orrek; a) oiñaztar eta ganboatarren arteko liskarrak zirala-ta mamitu ziran *kanta zarrak*; b) *illeta eresiak*, garai artan ildakoren bat goratzeko egiñak, eta 3) *gerta kantak*. Nundik jaso zituen? Garibai'ren lanetatik, Ibarguen'en kroniketarik eta Puerto de Hernani ta Floranes'en edesti-idatzietatik. A. Villasante'k onela; «Gerra jaunak lan onekin mesede ikaragarria egin die bai izkuntza kondairari bai euskal literaturari. Begi aurrean jartzen dizkigu geure aurretikoen bizi-laukiak, baita olerkari, eleberri egille ta antzekoai goiargi iturri izan ditezken gaiak txairoki azaldu ere».

Mogel eta Humboldt doixtarak beren garaian argitu zuten *Lelo'ren kantu*, esate baterako, luze ta sakon aztertzen digu J. K. Gerra'k. Kantu au baliteke aurretiko aiek zioten bezin zarra ez izatea, baiña Gerra'k dionez, bizkaitar batek, Txanton Bedia'k bíribildua dugu gudu-abesti ori; lan osoak, bada, Bizkai'ko izkelgi usaia ta jasa du. Onela Gerra'k; «Liburuai eta iztegiai begira naikua lan egin ditut alper-alper» (*Itzaldiak*, 128 orrialde),

Ipuiaren asiera ta zeaztasunak poliki adierazten dizkigu. Troia'tik garailari biurtu zan Agamenon'n kondaira edestu ondoren, au dio: «Kontu guzi oiek Italia'n zabal eta sarri aitatzen ziradenean, ibilli zan toki aietan, eta Alemania'n eta Flandes'en ere bai Arratia'ko zaldun pizkor bat: Txanton Bedia, Zirarrus-ta'ko nagusiya. Karlos V'garren enperadoaren morroya zan, eta oso maitatua. Eskutitz batean Erregek deitzen dio bere morroi leyal eta maitatua. Orrek, nere ustez, euskerara biurtu nai

izan zuan Agamenon'en kondaira eta otu zitzaion esatea Lelo zala euskaldunen gudalari azkar bat, aide-nagusien buru, eta erromarren aurka gudan ari zan bitartean bere emazte Tota adiskidetu zala Zara deitzen zan gazte batekin, onek Lelo gudaritik etorri zanean il zuala Lelo, eta euskaldunak naigabeturik bota zituztela erritik kanpora arrika Tota eta Zara, eta Lelo'ren izenak beti-betiko iraun zezan erabaki zutela kanta guzien asieran aipatutzea bere eriotza negargarriya. Ortarako itz banakatuak bere asmoaren erara maneatu zituan. Ala geratu zan euskerazko kanta zarra euskaritxoa guztiz eraldatua. Eta onen ondoren asmatu zun eta jarri zun bere egilleak Kantabriarren kantua» {*Loc. cit.* 124 orr.). Lan garrantzitsua.

EUSKERAZ.—Ikusi dezakegunez, lirainki idazten zuen bere asaben mintzairan ere. Eta gisa orretan dauzka bi lan beiñik-bein: 1) *Ama Birjiña Aranzazukoaren Kondaira* (Donostia, 1890). 34 orrialde. Azkue'k ere argitaldu zion «Euskalzale» (1899, 14, 19, 35, 56, 59 ta 71 orr.) aldizkarian. Donostiko Lore-Jokuetan sariztatu zioten lan au; 2) *Arrasateko dragoia* (Euskalzale, 1897, 90-99 orr.). Lan polita; 3) *Gure Olerki zar-zararak* (Euskal Esnalea'ren *Itzaldiak*, 1922).

«Euskal-Erria»-n, «Euskalzale»-n, RIEV'en eta «Euskal-erriaren Alde»-n datoz batez ere Gerra'ren idazlanak. Ba-ditu poesiak ere.

J. K. Gerra'ren euskera noiakoa zan jakin dezazun, irakur ondorengo txatala, *Ipui zarrak. Arrasateko dragoia* dalakotik artutakoa: «Santxo Abarka napartarren Errege eta Gipuzkoako Jaun zan aldietatik ezaguna zan Arrasate: erri aberatsa, biztanle langillez betea; almindun-ormaz gogor barrutitua eta gaztelu garratz batekin ondo gordea; orduan Leintz-ko ibar guztiaeren buru. Bere inguruko lurak estaltzen zituen meatz ugariak, bere mendietako agor-ola eta erreka basterretako ola-masukarietan burdia eta galtzaidu biurtzen ziradenak, eman zioten beste aldamenetako erri guztien gaiñ nagusitasun egiazkoa. Au da, la-

naren bidez, besoen indarrakin, bekokien izerdiaz eta buruko zentzuna pizkortuaz, nobleki irabazten dan ondasuna. Jainkoak bedeinkatzen du, egiñik ondasun ori lana bezin iraunkorra. Orregatik zintzoen etxeak, gauza gitxiareldn bada ere, beti txutik ikusiko dira. Nagienak berriz eroriko dira ezereztasunean» (*Euskalzale*, 1897, 90 orr.).

(Ikus *Euskalzale*, 1897, 90 ta 99 orr., ta 1899, 14 ta abar; J. Urkixo, RIEV, XV, 380 orr.; *Itzaldiak*, 1922, III orr.; L. Mitxelena ta A. Rodríguez Herrero, BAP, 1959, 371 orr.; L. Mitxelena, *Textos arcaicos vascos*, 66 orrialdetik aurrera; L. Villasante, HLV, 355 orr.; G. Mujika. Juan Carlos Guerra, «Euzkadi» egunerokoan; S. Onaindia, MEOE, 403 orr.; *Euskera*, 1953, 35 orr.; Auñamendi *Literatura*, III, 233 orr.).

19.—JOSE MANUEL LUXANBIO «TXIRRITA» (1860-1936)

Bertsolari askoren aita bezela dugun ezkeror, merezi du Txirrika'k aipamen goxo bat. Ernani'n, Urumea ibaiaren sakonean datzan Latze baserrian jaioa zan, 1860-8-14'an. Ementxe bizi izan zan amairu bat urterarte. Zazpi neba-arreba ziran. Geroago, Erreenteri aldeko Txirrita baserrira joan zan bizi izaten famili osoa. Etxe ortatik datorkio ospetsu egin zuen izena.

Etzan orduan nolanaiko basetxea. Aita Zabala'k onan: «Txirrita antziñako baserria da. Baserria ez ezik, antziñako jauregi zarra ere bai. Zabala ta aundia da, eta euskaldun etxe bezela, guztizko tankera jatorrekoa. Lendabizi bere egutera aldeko alderdia agertzen da. Alderdi ontan bi arkuzko ate dauzka, bata dana borobilla, bestea puntaduna. Oien gañean alde batetik besteraño, etxeari aurre guztia artzen dion balkoia, bere zurezko baranda zarrarekin. Balkoi-peko pareta guztia arrízkoa da, goikoa berriz ladrilluz ta abe zarrez egiña. Goien, tellatuaren eretzaren parean uxozentzako zuloak ageri dira. Ipar aldean, atzeko aldean, beste arkuzko atea du, ta San Markos aldean ere bes-

tea. Barrenean berriz, ukullu zabala, jiran saeta-zulo bat edo beste duela, mandioa, ta ontan tolarea. Ederra da, batez ere, balkoitik ageri dana: inguru guztian berdez jantzitako muñoak. Aietan an ta emen baserriak. Ta atzean mendiak: Aiako Arria, Urkabe, Bianditz, Landerbaso, Aldurako gaña...» (*Auspoa*, 18-19, 22 orr.).

Baserri ontan lan egin zuen Txirrita'k luzaro xamar; baiña egun batean nekazaritza utzi ta argintzan asi zan. Toki askotan ibilli zan: Donostia'n, Bilbao'n, Zaragoza'n, Prantzia'n... Eta ibilliz asko ikasten baita, makiña bat mañaz jabetu zan bizi-modu berri ortan. Ortik piztu zitzaion, ain zuzen, berezkoa zuen bertso-indarra. Mutil zarra zan, eta ezkongai izate onek aukerako gaia egokitu zion par-algara ederrak ainbati eragiteko.

1897'an ots aundiko jaiak ospatu ziran Oiartzun'en, utzai-llaren 3'tik 7'ra bitartean. Bertso-saioan Pello Errota, Elizegi anaiak, Saiburu, Esteban Eiola, Artzaia, Lexo, Joakin Urbietta ta Txirrita ari izan ziran; azkenik, Txirrita ta Pello Errota geratu ziran txapeldun.

Garai artako bertsolari geienen adiskide zan. Pello Mari Otaño'rekin berriz barru-barrukoa. Onek azkenengoz Ameriketara joateko, 1898-1-26'an, Pasaiko kaian ontzia artu zuenean, an zan Txirrita ere, ta ari agur egiterakoan bota zituen bertsoak bai samurrak! Pello Errota, Gaztelu, Txintxua, Artzai Txikia, Saiburu, Erauskin, Pello Zabaleta, Prantzes-Txikia, Jose Bernardo, Telleri-Txiki, Elio ta olakoekin amaikatxo kopla ondu zizkigun.

Gaia? Orduan, sagardotegi ugari zan Gipuzkoa'n eta Bizkaia'n, eta olakoetan abestu oi zitun, eztarria legun ta barnea dardar, bere biziko bertsoak. Arrasti, gau ta goiz osoak eman oi. Zorrotza zan bere erara. Ona gertaera bat. Bein Ondarribi'ko sagardotegi baten aurkitzen zan bere lagunakin; bare bi ikusi zituzten aurrean, bata zuria ta bestea beltza. Sagardo-erronda egin zuten apustu, zein bate lenago eldu alako lekura: bera bare beltzaren alde ta lagunak zuriaren alde. Zer egin zion

Txirrita'k bare beltzari ariñago egin zezan? Ur-tantoak bota aurretik, errezago irixtatu zedin. Onek irabazi zuen. Eta Txirrita'k lagunerik: «—Baiña, ez al zenekiten bare zuria baiño motelagorik ezer ez dala?».

Gisa ontakoa zenun Txirrita, beti aoz-aozko bertsotan, ateraldi bikaiñez bere koplak omitzen zituna. Gomutan dugu oraindik ere 1935-1-20'an Donostiko Kursaal antzokian ospatu zan Bertsolari-Eguna. Bertsolari auek artu zuten parte: Basarri (Zarauz), Zepai (Errexil), Txirrita (Alza), Txapel (Azpeiti), Lujanbio (Alza), Abarrategi (Bizkaia), Telleri-Txiki (Errenderi), Nekazabal (Zarauz), Sarasola (Antigua, Donosti), Mintegi (Ordizia), Erauskin (Ordizia), Kortatxo (Itziar), Zabaleta Pello (Errenderi), Zabaleta Juan (Errenderi), Sorozabal (Aiete), Etxeberría (Aiete) ta Uriarte (Bermeo). Basarri'ri eman zioten lenengo saria; baiña Txirrita'ren bertsoak ere goi-goi geratu ziran.

Urrengo urtean berdin, 1936-1-19'an, Bertsolarien eguna. «Victoria Eugenia» antzokian ospatu zan. Bertsolari auek artu zuten esku: Zepai (Errexil), Dargaitz (Osondo), Etxeberría (Andoain), Harriet (Aldude), Uztapide (Zestua), Lujanbio (Errenderi), Mutuberría (Eltzaburu), Txapel (Azpeiti), Iriarte (Irurita) ta Txirrita (Alza). Basarri'k zuzendu zuen saioa. Txirrita'ri eman zioten lenengo saria. (*Yakintza*, 1936, 20'garren zenbakia).

1936-3-22'an, Errenderi'n, omenaldi ederra egiñik, makilla eman zioten. Eta, azkenez, zaartua, Gaztelu-ene zeritzan Alza'ko baserri baten bere arreba gazteenakin bizi zala, Goizue'ta'ra bertsotan egiten zijoala gaixotu ta 1936-6-3'an il zan.

(Ikus «Auspoa», 18-19, Txirrita, MEOE, 1.162 orr., ta *Gure Bertsolariak*, 311 orp.).

20.—JOSE GASPAR OREGI (...1899...)

Donostia'ko Artzai Ona deritzan elizan luzaro egon zan arimazai. Bere gisakoa omen zan, eta zaartxo zalarik, iñar-kirten bat erabilten zuen, diotenez, eusgarri bezela. Zeukan diru guztia gaur Donostiko eliz nagusi duguna jaso ta berriztatzeko eman ei zuen.

Euskaltzale zan osoz oso, ta entzute ez gutxikoa. Ospe aundia edatu zuen Maria Kristina erregiñak Donostia'n; eta udaldietan, Aiete jauregian zegoela euskeraz ikasten asi zan, bertakoekin artu-emana izan nairik. Oregi apaizak eman zizkion ortarako bear zitun asi-orraziak. Bein batean, aipu danez, Oregi Astarloa zalea izan eta, Erregiñari esan omen zion: —«Gaur, Erregiña, Adan'ek eta Eba'k paradisuan itz-egin zuten izkuntza erakusten asiko natzaizu». Izutu omen zan Erregiña. Oba ez!

Au zala-ta, onela idazten Genaro Elizondo'k, 1902-12-23'an: «Donostiako albistari batean irakurri det jaun Jose Gaspar-ek erregiñari egin dion eskutitza gure euzkara doatsuaren gañean, esaten diola beste askoren artean gure izkuntza maitagarria dala Paradisoko izkuntza. Poztutzen da biotza ekustean jaun Jose Gaspar Oregi bezelako apaizak gure euzkara itzalgabearen alde; bai, apaiz jaunetan dago euzkarari indarra emateko biderik onena. Ara emen izpillu ederra jarri Oregi jaunak jarraitu nai dubenari euskararen alde: ziur egon euskara gorrotatzen dubenak, ala berean egingo ditubela apaizak» (*Ibaizabal*, 1902, 52 gela, 4'garren orrialdea).

Barrukotasun beroa zuen orduko euskaltzaleekin. E. S. Dodgson ingelesak, adibidez, bertso batzuk eskeiñi zizkion lapurtarren izkeraz onduak «Oregiko Jose Gaspar Donostian dagoen apez jaunari donkituak» dio berak. Amar bertsoko poesi alaia duzu, gauzarik gorenena itz ausartez irabiatzen ditula. Ona:

Apostoluen gainean Pentekosten egunean,
Jautsi ziraden mien artean gurea ala zen?

Baietz jardestekoa galde ori irudi da:
 Biotzetan dela garra Mariaren agurtzera?
 Espiritu Saindu Jainkoa! begira darokuzula
 Mariaren Euskara! ura gabe ez deus gara!
 Victoria Reginari irur ogei ta amazzpi
 Garren sor eguna dala, Biarritzen nagoela,
 Mendekoste igandean, goizeko laur orenetan,
 Jaunaren baiaz kopiaek egin dititzut Dodgson-ek.

Oregi'k ondo ezagutzen zuen gure izkuntza, ta, itz neurtuz
 batez ere, lan doiñutsuak utzi zizkigun, sakon eta giartsu egi-
 ñak. Amar ahapaldi ditu, adibidez, *Zeruko giltza* deritzaionak;
 irakur zazu lendabizikoa:

Iriki nairik daude zeruak! Otoitz umilla da giltza!
 Biotzetikan otoitz gozoak ezpañak iriki bitza,
 Jaungoikoari egiteko, bai, gure erreguen eskintza,
 Aingeru ederrak beren egoak astindu nairik dabilta!

Euskal-Erria'n azaldu zitun geien bat bere lanak. Olerkiak,
 gaiñera, zortziko nausitan egiñak daude, ia denak. Ozentsua bait
 genun.

(Ikus *Euskalzale*, 1899, 158 orr.; S. Onaindia, MEOE, 389 orr.;
 J. Artetxe, *Camino y Horizonte*, 147 orr.).

21.—TORIBIO ALTZAGA ANABITARTE (1861-1941)

Donostiarra. *Aguztuaren 31* deritzan koxko zaleen kalean
 jaio zan 1861-4-16'an, urteak aurreratuz, euskal teatrugillerik
 bikaiñenetakoa izango zana. Euskaltzaindikoa.

Anai arteko gerra (1873-1876) bitartean mugaz bestekalde-
 tik, Ziburu erritxoan bizi izan zan, batxiller karrera ere bertan
 osoturik. Antxe asi zan antzerkiak egiten: amairu urteko muti-

ko zala, Marzelino Soroa'ren agindupean *Iriyarena* komeria lenengoz eman zutenean, Altzaga'k ere parte artu zuen. Antxe idatzi zuen baita bere aurrengo antzerkia: *Aterako gera* (1888); saritua, maiz antzeztua ta amabi aldiz beintzat argitara emana dugu berau. Altzaga'k geroztik 30 bat lan egin zizkigun.

Ekaitz-zaparrada ondoren Donosti'ra itzulirik, euskal joerazko antzerki-mota guztietan esku artu zuen. Santa Maria'ko elizsaletan eta katoliku biltokietan, eurotako bazkide eragille baitzan, makiñatxu bat gau-batzar eta jolas eder, berak bere pentzutan eratuta sarri, ospatu zuen gazteen artean. Aren komeri, jostailu ra operak euskeraz ziran beti.

Are geiago: Donostiko izkera-jardunen eskolako zuzendari izan zitzaizun bizitza guztian, eta bertako Lore-Jokuak eta «Euskal-Erria» aldizkaria ere, zati baten beintzat, bere ardura-pean ibilli ziran. 1930'an erri-omenaldi eder bat izan zuen Donostia'n. Eta atzenez, urtez abailduta, bertan il zan 1941-5-27'an.

TEATRU-LANAK.—Buru belarri euskerari emana zebilkigun, baiña atsegin zuen teatrua, ta berak erakusten zien antzezlariai nola bete bear zuen bakoitzak berari zegokion papera. Idatzilari buruz, gorago esan dugunez, 30 bat lan antola zizkigun, itzuliak eta jatorrak. Ona A. M. Labaien'ek damakigun izenzerrenda, komeri, zarzuela, bakar-izketa ta abar, danetatik zerbait:

1) *Aterako gera* (Donosti, 1888). Ekitaldi bateko komeri Donosti'an 1888'eko Lore Jokuetan sariztatua, ta Teatru Zarean 1888-12-26'an lenengoz antzeztua.

2) *Martin Tiñaku* (Donostia, 1888).

3) *Santo Tomas feriya* (Donosti, 1894) Ekitaldi bateko antzerkia. 1892-12-30'an lenengoz aurkeztua.

4) *Txanton Pipperri* (Leipzig, 1899). Iru ekitalditako opera. Bonabentura ZapiRAIN'en musikarekin. Donostiako Biltoki katolikuan 1899-1-6'an lenengoz emana.

5) *Anboto*. Argitaratu gabe. B. Zapirain'ek jarri zion musika. Iru ekitaldi ditu. Lenengo biak Donostian 1906-7-12'an antzeztu ziran, euskal jaiak zirala-ta; osorik Bilbao'ko Arriaga teatruan eman zan 1909-5-20'an.

6) *GU kornamenti*. Argitara gabe. Ekitaldi bateko opera barregarria, B. Zapirain'ek erestuta.

7) *Asentxi ta Kontxexi* (Donosti, 1914). Neskatxentzat alkar izketa. *Euskal-Erria* aldizkarian dator, «A. Darra»-k izenpeturik. Ordizia'n aurkeztu zuten lendabizi, 1914.

8) *Bemaiño'ren larriyak*. (Donosti, 1923). Ekitaldi bateko tarte-solasa. Donostiko Teatru Printzipalean eman zuten 1915-12-21'an.

9) *Oleskari barriya*. Argitaratu gabe. Jardun bateko tarte solas irrikoia. Donostiko Teatru Zarrean 1915-12-2ran lenengoz emana.

10) *Etxietan* (Euskal-Erria, 1918). Neskatoentzat alkar izketa. Donostiako Teatru Printzipalean 1923-1-20'an lendabizi emana.

11) *Txibiribiri* (Donosti, 1922). Ekitaldi bateko tarte solas parregarria. Donostiako Teatru Printzipalean 1918-2-11'an egiña.

12) *Ramuntxo* (Auspua, 1961). Iru ekitaldiko komen, baikoitza launa laukitan zatituta. Rodrigo Figuerola'k egiñiko lana euskeraz atondurik. Donostiko Teatru Printzipalean antzeztu zan lenengoz, 1920-2-16'an.

13) *Biozberak*. «Izarra» bilduman dator. Jardunaldi bat du. Donostiko Teatru Printzipalean emana 1920-12-21'an.

14) *Andre Joxepa Tronpeta*. Argitara gabe oraindik. Iru ekitaldi dauzkan sorgin-komeri, ekitaldi bakoitza zortzi laukitan bananduta. Donostiko Teatru Printzipalean antzeztu zuten lenen, 1921-2-7'an.

15) *Eleizatxoko Ardazlea*. E. Gorostidi'ren «La hilandera de la capilla» euskeraz. Iru jarduneko drama, jardun bakoitza iru laukitan banatuta. Donostiko Teatru Printzipalean egin zan aurrenik, 1922-1-20'an.

16) *Arpuxa kalean*. Argitaratu gabe. Bakar izketa. Tolosa'ko teatru-zineman aurkeztu zan lenengoz, 1922-6-5'an.

17) *Bost urtian* (Donosti, 1929). Bi jarduneko antzerkia Donostiko Teatru Printzipalean 1922-12-21'an emana.

18) *Zalaparta*. Argitara gabe. Jostairudi parregarria, ekitaldi baten. Donostiko Teatru Printzipalean, 1923-12-21'an, aurrenik egiña.

19) *Amantxi* (Donosti, 1924). Bi jardunaldiko antzerkia. Donostiko Teatru Printzipalean eman zan lenengoz, 1923-12-21'an. «Euskal Esnalea»-k ere argitara zuen, 1924, 25-33, 44-54, 73-79 ta 87-96 orrialdeetan.

20) *Tantarrantan*. Argitara gabarik. Iru ekitaldi ditu. Donostiko Teatru Printzipalean 1923-12-21'an aurrenik antzeztua,

21) *Zanpanzar*. (Tolosa, 1932, *Antzerti'n*). Jostirudi irri-garria, bi jardunetan. Donostiko Teatru Printzipalean 1924-3-3'an lenengoz emana. .

22) *Neskazar*. Argitara gabe. Jostirudi irrikoia, iru ekitalditan. Donostiko Teatru Printzipalean eman zan lenengoz, 1924-12-2ran.

23) *Irritsa*. (Donosti, 1926). 72 orrialde. Eusko-Ikaskuntza alkarteak argitaratua. Shakespeare'ren *Macbeth* trajeria duzu euskeraz. Iru ekitaldi dauzka ta itzaurrea. Donostiko Teatru Printzipalean eman zan lenengo aldiz, 1924-12-2ran.

24) *Burruntziya* (Donosti, 1931). «Izarra» bilduman, 22'-garren zenbakia. Jardun bateko antzerkia.

25) Beste auek: a) *Babalora*; b) *Mutilzar*; d) *Urdallko*; e) *Gizon ona*; f) *Osaba*; g) *Ezer ez ta festa*, M. Soroa'rena berriztuta, eta abar.

Teatru-lan guztiok, gerora ere, 1926'ra baitik bat, sarri emanak izan ziran, eta Victoria Eugenia antzokira zijoaztenak

gogoz txalotu oi zituzten. T. Altzaga'ren lanak ba-dute egiazko olako zer berezia, ta berak ere, 1915'tik aurrera, ots, garai artan Udaletxeko ziñegotzi zan Abelino Barriola'k sustatuta Euskal Iztunde-Ikastola sortu ta buru jarri zutenetik, lan ikaragarria egin zuen euskal antzerkiari adore berria ezarten. Beraz, ezin dezakegu au uka: euskal teatrua, bai lanez bai ekitez, goi-gai-Uurreraiño iritxi zala egun aietan.

Antzerkiak ba-du guna, ba-du egimena. Baita gaur ilko ez ilko daukagun euskerari bear duen osakaia jarteko ere. Antzerki bitartez, ederto lan egin dezakegu geure mintzairaren alde. Ta egin bear dugu: teatru-lanak ugalduez, aurrenen, eta errietan emanez, urrengo. Gisa ortan iñarrosiko dugu euskal giroa, ta euskera zabal-azi. Irakur oni dagokionez zer dioskun Biona'k (Gregorio Mujika'k): «Nere iritziz, antzerkiena, onenetako bidea da euskera zabaltzeko. Irakurtzeko gogorik ez dutenak ere, *komeri* bat ikustera pozik joaten dira. Irakurtzeko astirik ez dutela esaten dutenak ere, antzerkia ikustera joateko astia artzen dute. Ta irakurtzen ez dakitenak? Oiei, begietatik ezin sartu zaiete euskera: belarrietatik bai ordea» {*Euskal Eснаlea*, 1919, 117 orr.). Beste orrenbeste esan dezakegu meztara datoztenengatik eta bertsolariai aditzen daudenengatik ere.

IRITZIAK.—Teatru-gille ontzat jo izan dute beti T. Altzaga. Sail orretan gaur ere oberena dugula dirudi; zabal dabillena da iritzi au, ta ezin dezakegu ukatu zentzuz ta pixuz betea dugunik. Altxor ederra bai aren lan osoakin egiñiko sorta!

«Orix»-k onela: «Euskal-teatroa Altzaga'k oial-zapietatik atera digula esan diteke; oiñez ere ederki erakutsi dio, ta bide sendoan yarri; kozkortuxe ere egin dala esan genezake, ta edozein erritako teatroaren maillera laister igoko dan uste ona dugu» {*Bol. de Estudios Vascos*, 48, 33 orr.).

«Elertizko alderdi onak —dio A. M. Labaien'ek— eta bere lanen drama-balioa oraingoz beintzat ebazten asi gabe, lan oekin teatru xume bezin biziari aparteko indarra eman zion, du-

darik gaberikan. Tepsis'en euskal gurdia ibillian jarri zuen; tolesgabe ta aspaldikoa izango da bear bada, baiña euskal antzez ertiaren azalpen eta osotasunerako bidea zabalduz, bultza da ederra eman ere bai. Literaturazko edo edertasun aundiko lanak, zori txarrez liburutegietako ixil-zokoan geratzen diran oietakoak baiño lenago, lan bizi errikoia goak bear ditugu, teatru-ertiaren asieran batez ere, jendeak bere giroa mamituta ikusi dezan, au da, bere esku mendean dauden agerpen, buru-auste ta korapilloakin kezkatu, poz-arazi ta alaituta nabaitu dedin. Auxe da, nere ustez, Toribio Alzaga'ren teatrua; olaxe bultz-eragin dio aurrera euskal antzerkiari, baita gaur egunean beronek duen arnas aundiari ere, osertz edatuago ta asmo jai-kiagoetara saka-egiñik» (*Teatro Euskara*, 1965, I, 51 orr.).

Eta L. Mitxelena'k: «Toribio Alzaga'k —donostiarra au ere Soroa ta Baroja bezela— gipuzkoar teatruaren edertasuna jasotzea iritxi du, bere errikoizatea kendu gabe alegia, antzerki jator zerrenda eder galantaz eta beste itzulpen batzuekin (*Macbeth*, *Ramuntchó*)... Komeri atsegiñak idazteko bere aurretikoak baiño teatru-zentzun, irri-gatz eta antzez lagun bakoitza nordantzeko begi ohea zeukan» (HLV, 139 orr.).

(Ikus *Euskal-Erria*, 1899, 504 orr., ta 1916, 261 orr.; «Orixe», *Bol. de la Sociedad de E. V.*, 1930, 31 orr.; *Auspoa*, 6 ta 29 zenbakiak; G. Zapiain, *Toribio Alzaga y el teatro vasco* (Donosti, 1955); A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, 1965, I, 48-51 ta II, 155 orr.; L. Mitxelena, HLV, 139 orr.; L. Villasante, HLV, 391 orr.; Jesus M. Arozamena, «Donostia» *Capital de San Sebastián* (Donosti, 1964); Auñamendi, *Diccionario*, A. Amuzti, 559 ta *Literatura*, III, 225 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliografia*, I, 130 orr.).

22.—JUAN INAZIO URANGA BERRONDO (1863-1934)

Bere aldiko gizona. Ikastetxe ta onako zarata gaitz gabe, ainbat euskal gauza eder aurrera eraman zitun, berez zuen jakituriaz baliaturik.

Errenteri'ko seme izan arren, amabost urtetik Donostia'n bizi izan zan San Jeronimo kalean; eta ementxe il zan 1934-4-24'an. Bizar-kentzaille zan langintzaz; ontan eta idazten eman zuen bere biziaren 71'raiñoko guztia.

Euskal idazle txit ugaria. Olerki, alegi, izkirimiri, jostaketa ta osterantzeko artikulu, eunetik gora izango dira «Euskal-Erria»-n datozenak. Aldi aretako girotan zebillen bizi-bizi, M. Soroa'k, Artolatarrak, Gelbentzu'k, Elizondo'k eta besteak sorturikoan noski, konta-ezin beste jostiruri, komeri ta lan berezi sortu ta argitara eramank.

Olerkari ta antzerki-idazle gendun, bai, batez ere. «Euskal-Erria»-n, «Euskalzale»-n, «Ibaizabal»-en eta «Euskal Esnalea»-n agertzen dira aren itz-lauzko naiz bertsozko lanak.

IDAZLE.—Lan polita egin zuena. Eta nolako sariak eskuratu zituen. Ona batzuk: 1887-12-26'an Donosti'ko Lore-Jokuetan bere olerki «Urtearen lau erak» jaso zuen saria; bere «Ama Euskera»-k 1890'garren urtean ere. Donostiko Udalak eta Aldundiak eratu zuten jaian Uranga'ren «On Antonio Okendo-ri bere talluntzaren aurrean» irabazi zuen saria, 1894-12-21'an; berdin 1899-9-16-17'an Zumarraga'n ospatu ziran euskal jaietan ere, bere «Enadaen alkartasun maitatiya»k artu zuen accetit, eta 1902-9-27'tik aurrera ospatu ziran jaietan ere accetit merezi izan zuan bere «Uda berriya» lanak. Eta orrelaxe Irun'en (1903), Ordizia'n (1904), Donostia'n (1906), Kanbo'n (1907), Ernani'n (1909), Azkoiti'n (1910), eta abar.

Antzerki-saillean bereak ditu auek: 1) *Aritzaren zumo gozua* (Donosti, 1896). Jardunaldi bateko drama-saioa, Donostiko «Euskaldun Fedea» bazkunak zuen jaialdian Tolosa'n (1896-4-5) lendabizikoz antzeztua; 2) *Umezurtza*; drama saioa, Jose Marino Arrieta'rekin batera idatzia, ta Donosti'n (1896-12-21) aurrenik emana; 3) *Manu* (Donosti, 1901); jardun bat du; Zumaia'ko euskal jaietan sariztatua, ta Donostia'n (1900-12-21) lenengoz aurkeztua; 4) *Ero algara* (Euskal-Erria, 1908); 5)

Amets bat dirudi] (Euskal-Erria, 1909); bakar izketa; 6) *Euskaldun bat* (Euskal-Erria, 1909); bakar izketa; 7) *Au mundua!* (Euskal-Erria); 8) *Ostatuan* (Euskal-Erria, 1909); bakar izketa; 9) *Maitasuna* (Euskal-Erria, 1909); bakar izketa; 10) *Gizon galanta* (Euskal-Erria, 1909); bakar izketa; 11) *Osasungaya* (Euskal-Erria, 1909); barrizketa; 12) *Nekazariya* (Euskal-Erria, 1909); alkar izketa; 13) *Mari-Mielka* (Euskal-Erria, 1910); bakar izketa; 14) *Mami* (Euskal-Erria, 1910); bakar izketa; 15) *Nere diruak* (Euskal-Erria, 1915); bakar izketa; 16) *Zein da nere zala?* (Euskal-Erria, 1915); bakar izketa; 17) *Sorgiñak* (Euskal-Erria, 1915); bakar izketa; 18) *Aideko txoriya* (Euskal-Erria, 1916); bakar izketa; 19) *Mari* (Euskal-Erria, 1917); bakar izketa; 20) *Manu dantzari* (Euskal-Erria, 1917); bakar izketa.

Bakar izketa auek ez dagoz gaizki loturik, bizi ta giar euskerara garbi ariñean baizik. Eredu dugu ontan. Apain letozke auek denok bilduma pertxenta batean.

Olerkari bezela txairo opiltzen zitun bere bulkoak. Irakur, merezi du-ta, *Autsa* deritzan onen bost aapaldiak.

Xinist gentzake dala guztia iduripen bat bizitza,
Zeñaz iñola ezin liteken iñor egiazki mintza:
Lan bearrian arkitzen danak urruti oi du agintza,
Estalirikan dagon laudare ark duen bezela intza.

Gure bizitzak iduritzen du dala urrezko baratza,
Al litzake kendu ezkerora lan egin bear garratza.
Egunak nola oi du berekin lagungarritzat arratsa?
Bizitz gureak ere ala du zuzengarritzko ardatza.

Bizieraren luze laburra ezin liteke neurtu,
Bada askotan jakintsuenak ditu lan onek bigurtu;
Gure iduri txoro guztiak oi dira amets biurtu,
Jela gogorra oi dan bezela aize epelakin urtu.

Zergatik gera gure bizitza maitearekin jostatzen?
Eta zergatik jarritzen gera gauzik onena jokatzten?
Makurtzen gera asten danian indarra zerbait ukatzen,
Ikusirikan nola dijuan asnase ona bukatzen.

Gure emengo biziera da bestearekiko utsa,
Betikotasun ederrarekin ote niteke ni kutsa?
Azaltzen zaigu oso illunki eriotzaren bisutsa,
Gorputza illik biur dedien lendik zan bezela, autsa.

Oar ontaz ere: ogibidez bezargin izanik nolako artistak ziran
gure euskaldun zarrak, esan nai nizun.

(Ikus J. Vinson, *Essai d'une Bibl. Basque*, II, 665 orr.; *Euskalzale*, 1897, 327 orr. ta 1899, 371 orr.; *Esku-Egundiya*, 1910, 94 orr.; S. Onaindia, *MEOE*, 377 orr.; A. Aizola, «Egan», 1963, 4-6, 247 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 41 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskara*, 1965, II, 179 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 502 orr.).

23.—JOSE ARTOLA ELIZETXEA (1864-1929)

Pepe Artola, neurtizlari fiña, Donostia'n jaioa duzu, 1864-1-4'an, eta San Bizente elizan bataiatua. Gurasoak: Ramon eta Manuela.

Zer bizimodu izan zuen? Ona Aita Zabala'k; «Pepe ta bere bi anaiak (Pako ta Ramon) aitaren bizimoduari segitu zioten, linternero ta pintatzalle. Denda Puyuelo kalean (gaur Fermín Calbeton) zuten, gaurko *Restaurante Rodil'en* aurrean. Bakoitzak bere lana artu zun. Ramon linternero zebillen tellatuetan ta guzi. Pako dekoradoak ta orrela egiteko. Pepe, berriz, etxez etxe kristalak, ispilluak ta paretan papera jartzeko. Pintatu ta barnizatu ere bai. Langille batzuk ere izaten omen zituzten bere mende. Artista xamarak izan bear zuten. Bein aita ta iru anaiak Frantzitik deitu zituzten Baiona edo Burdeos aldeko eliz bat pintatzeko» (Auspoa, *Ustez lagun detan*, IV, 11 orr.),

Zizurkil'go alaba Joakina Urkola'rekin ezkondu zan 1887-10-29'an. Bi alaba izan zituzten: Rosario ta Modesta. Azken au jaio ta laster il zan. Pepe alargundu ta berriz ezkondu zan Zaurautz'ko alaba Gertrudis Gartxotenea Larrañaga'rekin: bi alaba euki zituzten, Ramona ta Pepita.

Donostiko alderdi zarreko saltza guztietan sartzen omen zan, nagusiakin zein umetxoakin beti alai ta umore oneko agerturik. Etzan antzerki-idazle bakarrik, baita antzezlaria ere Donostia'n bertan eta errietan, bere papera ondo egiten zekiana. Musika gauzetan ere aitua gendun, Orfeoi donostiarran eta Bandan esku artzen zigun; eta osteras asko egin zituen ara ta ona Orfeoiakin, Zaragoza'ra, Paris'era, Bilbao'ra, Toulouse'ra, Barzelona'ra ta abar. Etzekin iñori ezetzik esaten, eta orduko musikalaria askori lagundu zien euskal letrak jartzen: Otaño'ri *Suite Vasca*'rako, Usandizaga'ri *Mendi-mendiyan'erako...* «Euskaldun Fedea» alkartearen su-emaie.

Bizitz azken aldera begi bat galdu zuen, lauso-laiño urraketa zala-ta, Berezkoren ordezkari kristalezko bat jarri zioten. Eta iñork esaten ba'zion: «Kaixo, Don Pepe!», berak erantzuten zuen: «Ni ez naiz Don Pepe, geratu nintzalako begi-pe».

Donostia'n il zan 1929-4-20'an, 65 urtekin.

EUSKAL-LANA.—Amazortzi urtekin asi zan idazten, eta etengabe ekin zion orrela bere bizitzaldian. 1880'tik 1918'ra bitartean makiñatxo bat ipui ta bertso atera zuen Donostia'ko «Euskal-Erria»-n. «Euskalzale», «Ibaizabal», «Ttun-ttun», «Baserritarra», «La Galerna», «Pueblo Vasco», «La Brecha», «Novedades» ta Buenos Aires'ko «La Baskonia»-ren atea zabal zabal zeuzkan bere lanak ateratzeko.

Bertsoz idatzi zuen geien bat. Eta folio neurriko 580 orrialde utzi zituen bere eskuz idatzita. Bere idazlanak kopiatzeko oitura zuen urtean, nun eta noiz argitaratuak ziran ere jarririk. Auetatik sail bat *Auspoa*'k azaldu zigun, Pepe Artola'ren lana beste liburu batzuk osatzeko ere arrobi aberatsa zala gaitzera-tuaz.

Bereak ditu antzerki auk: 1) *Legorreko arrantzalia* (Donostia, 1898). 44 orrialde. Jostirudia, bakar eta bi zati atal berean, bigarren aldeara Zestua'n irabazitakoa; 2) *Bixente* (Donostia, 1901). 52 orrialde. Jostirudia bi egintzetan; 3) *Xabiroya* (Donostia, 1903). 40 orrialde. Jostirudia, jardun batean; itz neurtu ta itz laburrean dago. Oñati'ko euskal jaietan sartitua. Eta bakar izketa auk: 1) *Praixku* (Donostia, 1902). 2) *Pello kirten* (Donostia, 1906); 3) *Motxa erriyan* (Euskal-Erria, 1913), Elgoibar'ko euskal jaietan (1907) sariztatua; 4) *Joxepa ta Bittori* (Euskal-Erria, 1909, 166 orr.); 5) *Maria Iñaxe nerea* (Euskal-Erria, 1912).

Onez ostean, kontu, izkirimiri ta ateraldi zorrotz ontzaille bezela ere omen aundia irabazi zuen; arte-gaietan aitua genduan, eta olako zerbait zan tokian, an zegoen Artola ere. «Euskal Esnalea»-k bein (1921) omenaldi ederra egin zion Donostia'n. '

(Ikus *Euskal Esnalea*, 1921, 117 orr.; S. Onaindia, MEOE, 353 orr.; L. Villasante, HLV, 441 orr.; *Auspoa*, 4'garren zenbakia; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1961, 188 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskaro*, I, 42-45 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 407 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, 341 orr.).

24.—ROSARIO ARTOLA ELIZETXEA (...1896...)

Dakigunez, Pepe Artola'ren arreba ta Ramon Artola Larrañaga koplari joriaren alaba dugu emakume euskal idazle argi au. Sendi osoa gendun, eskierki, bame-muiñeko olerki-senaz oartzen ziranak.

Aita ta nebaren jitari jarraituaz, 1887'tik lez asi zan idazten, bere bizitzan ainbat olerkitxo txanbilen buruturik. Goxo ta bizi adierazten dizkigu beti bere sentipenak. Irakur 1889'garren urteko otsaillean mamitu zuen *Nere guitar-choari* deritzaiona:

Nik gitartxo bat baidet
maite eta lagun,
au juaz pasatzen det
denbora txit legun;
nola denok grazi bat
zerbaitetan degun,
berarekin pentsatzen
nago gau ta egun.

Eta onelaxe beste iru aapaldi, oso ederki aren emakume-biotzak eginda. Gitartxoarekin ba-du naiko festa, triste dagoanean ere bera du pozgarri, «soñua juaz eta gañera kantari», ezta kezkarik, ez goibeltasunik, berarekin bai du «zorion guziya arkitzen».

Zer ote zuen kantagai? Biotzak zemakiona, ta emakume-biotzak batez ere ixurki asko ditu dariela, baita Rosario'renak ere. Ta Jainkoa kantatu zuen, eta Andre Maria; lorak eta txoriak kantatu zitun, eta saguak, astoak, katuak, axeriak, erriko xemeak..., bere anaiak, A. Arzak, F. Lopez Alen, J. ZapiRAIN, Migel Salaberri, M. Soroa, R. Sarriegi kantatu zitun; baita udaberria, umezurtza, urtebeteak, naigabea ta zoriona ere.

Txoragarria zan, bai, bere gitartxoari ateratzen zion soiñua. Eta soiñu xamur orren oiartzun meiak zorarazten zizkigun bazterrak. Errosario'ren koplak legunak irakurriaz, onela abestu zuen bein B. Iraola pasaitarrak:

Onen bertsoak eta ipuiak
naukate beti zorutzen.
Dama izanik, gure izkuntza
zer asko duben maitatzen!
Onen izena paperen batek
diran aguro aitatzten,
nere biotza, triste ba'dago,
pozkidaz da betetzen.

Ipui eta neurtitz, berrogeitik gora dituzu «Euskal-Erria»-n bakarrik dauzkazun aren lanak. Sariak ere eskuratu zitun; esate baterako, Oñati'ko euskal jaietan (1902) bere *Aranzazuko Ama Birjiñari* deritzan olerkiari aipamen dedugarria egin zioten; Irun'ekoetan (1903) bere *Ama Birjiña Guadalupekoari* deritzanak irabazi zitun berrogei pezeta ta bitezarra; Donostia'ko Lore-jokuetan (1913) bere *Ama Birjiñari* eman zioten saria.

Sendikoak ondo alkar artzen zutenak ziran. Baita bertso-lanak alkarri eskaiñi ere bein eta berriz: aitak —R. Artola-k— bat beintzat *Nere alaba Rosario-ri* (Euskal-Erria, 1894) eskeiñi zion; Rosario'k bere anaia eskeiñiak bi ditu; *Anayari ongi-etorria* (1891) ta *Nere anai Franzisko-ri bere egunean* (1889). Pepe'k ordaiñez, zortziko txiki au atera zion;

Gure arrebatxua
: polit egokiya,
neskatxa jakintsua
biziro aundiya,
guztiz liraña eta
b e g i r a g a r r i y a , .
aingerua dirudi
goitik etorriya.

(Ikus *La Baskonia*, Buenos Aires, 1899-9-10; S. Onaindia, MEOE, 358 orr.; *Auspoa*, 4'garren zenbakia, 82 orr.; Auñamendi, *Diccionario Enciclopédico*, III alea, 87 orr., ta *Literatura*, II, 309 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, I, 344 orr.).

25.—MIGEL ANTONIO INARRA (1864-1898)

Idazle azkar au il zanean Azkue zanak idatzi zuen: «Iñarra biotz andikoa ta burutsua izan da: gogamenetan sakona, esakeretan illun samarra, egikeretan biurri bakoa» (*Euskalzale*, 1898, 158 orr.).

Gazterik kendu zigun Goikoak euskal arloan ain gogotsu lan zegian apaiz ernea. 33 urteko zala, gar erdikoa noski, utzi zuen gaizko eremu au, ezpirituzkoen egoitzean zorion bete-beteaz jabetzeko. Itxaropentsu zetorren eta damuz esan bear naitaez.

Oiartzun'go «Etxe txiki» deritzan etxaguntzan jaio zan, 1864-9-28'an; urrengo egunean bataiatu zuten. Bere gurasoak: aita, Frantzisko, Oiartzun'go semea, ta ama, Maria Zeledonia Mitxelena, ere oiartzuarra.

Baserri aberats artan igaro zitun bere aur-egunak; ba-zeuzkan ugari belardiak, lanak eta muiñoak begien asegarri; jolasleku ederrak ere berdintsu. Elizarako mendua erakutsi zuen txikitatik: jaiegun arratsaldetan, bere kideko mutil kozkonduak jolasari ziarduelarik, bera bezperetara joaten omen zan. Gurasoak ortan etziotan andarririk ez eragozpenik bideratu, barne-senari betetasuna ematea, albait, ondo dagola-ta.

Urbilxe zegoen —Urnieta'n— apaiz jakintsu bat, elizarako griña zuen gaztetxoari lenengo asi-orraziak eta latiña erakutsi zizkiona: Antia jauna. Au izan zuen lenengo irakasle, ta gero Oñati'ko apaiz-ikastetxean eman zitun filosofia, ta azkenik Gazteiz'en amaitu zuen eliz-karrera. 1891'an olio santuz igurtzi ta apaiztasuna artu zuen, andik laster Durango'n meza berria emanik. Geroztik Pasaia'ko Doniane elizan egon zan apaiz-laguntzaille. Eta arima-zaintzan eta euskal barrutian zirti-zarta ari zitzaigula, 1898-4-26'an, balbe zitalak keiñu egiñez eraman zigun bestaldera.

Naparroa'ko Diputazioak aurreko urtean, ots, 1897'an, euskal irakasle on bat autatu nairik, batzaldi edo konkurtso bat egin zuen Iruña'n; ara jo zuen Iñarra'k ere, beste laukin batean, baiña ordutik kanpora. Azterlariak, bostak ongi maxiatu ondoren, M. A. Iñarra aukeratu zuten nai zuten egitekorako. Oiartzuarra, alare, gaixorik zebillen eta irakas-aulki ura artu aurretik eraman zigun Jaunak bere atsedenera.

EUSKAL LANA.—Ikasle zala asi zan idazten. Azkue'k onan: «Ezin esan-alako beste dira beren lumatik urteniko euskerazko irakurkizunak».

Donostia'ko «Euskal-Erria»-n agertu ziran bere lenengo lanak. Gero, Bilbao'ko «Euskalzale»-n. Ona «Euskalzale»-n datozen olerki, ipuin, izkirimiri ta irakurgaiak. 1897'an: «Euskalzale-ren artezkari jaunari», «Zabal zabal», «Zer egin!», «Ezaguera», «Esaiera berriak», «Izkirimiriak», «Somaketa», «Maiatz-azkeneko Salbatorez», «Sinis eresia», «Berri bi», «Asmo mamitsua», «Euskerazko proga», «Ikaskuntzak», «Leenkeria», «Legazpi-ri», «Ama Teresaren biozketak», «Izen-kontua», «Lan ederra!», «Buruzkuntz bi», «Sukalde-sendagaiak», «Gerta-argia», «Eritzi bat», «Umiltasunezko itzak esate ituztenen gaiñean», «Sortze garbia», «Jesus Aurrant». Eta 1898'an: «1.000.800.90.8.», «Toki onean», «Pake-zorionak», «Beti asto», «Mozorroa», «Txirrist-entzat», «Jose Santua», «Doloretako Amari», «Jesusen neke-eriotzan», «Gazte aingerutarrari». Beste ainbeste ba-ditu «Euskal-Erria»n. Buenos Aires'ko «La Baskonia»k ere argitara zizkion batzuk, «Arrantza» eta «Lan ederra!» baitik bat, 1907'garren urtean.

Burutsua zala esan digu Azkue'k. Agerbiderik? Ainbat igarizunetan zorrotz azaltzen zaigu. Berak asmatuak dira, beste askoren artean, esakun giar auek ere:

- Ura dabillen tokian, ixtilla maiz.
- Arrizko makilla, kraskakorra.
- Bost beatz eskuan, ta eskurik ez.
- Iltzeko bezperan, oraindik bizi.
- Odei artetik eguzkia, ta galtzaren zulotik larrua.
- Ni barrenan ba'nago, etxea utsik ez.
- Ozka-zaleak bere lepoari bekio.
- Mairik seguruena, ankik gabea.
- *Idiak* koipea eman, ta adarrak eman.
- Ur zuria baiño ur utsa garbiago.

- Arantzak eldu ta larrak itxeki.
- Ederrak aztu ta ubela gelditu.
- Ur-oilloak ankak beltz, garbi guzia txuri ez.
- Zelairik ez, ta astoa saltzeko.
- Barea joanean, zaldia egonean baiño leen iritxi.
- Ziria eskatu, makilla eman ta aia artu.
- Senarra txingarra, emaztea ezpala, beti etxean sua piztua.
- Diru batek otsik ez, ta gutxik asko.

OLERKARI.—Berezkoa zuen eder-sena. Ta idatziz eio ziz-kigun lanak eder-bitsa dariotela daude guztiak. Esakeretan illun samar dala? Ez dugu danok adiera berdiña ta illunxeak geiago gara argiak baiño. Gogaiak zerbel samar uztea, gaiñera, jakiñez ta naiz naira egin oi dugu askotan, gaur batez ere. Iñarra, beraz, aurea artua dugu.

Aren olerkiak poliki taiutuak dira. Irakur alegitxo au, ao-go-zagarri.

Amu-arrai liraña,
ur-begi garbian
pilst-palast egiñez
goizaren argian
zabiltzana, esazu,
zeren bildur zera?
bada ni ikusita
gorde egin zera?

Ai! ai! ori galdeera!
Zure antzekuak
beren esanez, onik
onenetakuak,

atzo egon nenguan
eta ikustian
arria ta jotzera
erauntsi zirian.

Nik zer egiten nion?
traba edo miñ eman?
Ur juanaren gañian
egon ba nenguan!
Orra bada gizona
naiz zu ura ez izan
zergatikan esanik
siniste ez dizudan.

*Jantzi berexgaidunik
daramanak, arren,
arren, begira beza,
zer egiten duen,*

Lorailleko mao gorria iduri, bizialdi laburra izan zuen. Euskal literaturarentzat itxaro ta ustantza bikain zana gazterik itzali zitzaigun; alare, egin zuen lanagatik, ondo merezia du berton dagiogun aipamen gartsua.

(Ikus *Euskalzale*, 1898, 158 orr.; S. Onaindia, MEOE, 366 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 81 orr.).

26.—KARMELO ETXEGARAI TA KORTA (1865-1925)

Etxegarai munduratu aurretik, lauso ta triste omen zegoen euskal egoera; edesñiaren otsa ixillik, zerraldoan otz eta geldi. Goiz batean, baifia, K. Etxegarai jalgi zan, eguzki bezela, gure gauza zarren iraultzaille. Orrela kantatzen du E. Erkiaga'k:

Gure Erri zarraren kondairagillea,
laru lerinduen irakurzalea,
anaien burruken adierazlea,
gure gauzetara gogo-esnalea
zure lanetan dot mardulik, alea.

Bai, naiz-ta guk ere ark Euskalerriaren eta Aitor'en izkuntzaren alde egiña erdi aztuta euld, lan ikaragarria egin zuela lau aizetara zabal-azi bearrean aurkitzen gara. Esker ona zor diogu euskal alorrean ainbeste leiatu zan gizaseme argituari. Nor bere artean kiribildu ta lan egitea, bizitza osoan bear bada, ba liteke ospeari norbere gogoz agur egitea: K. Etxegarai, berriz, bere bizi guztian egon zan zurkuiilu ixillean euskal lurrari ta beronen gauzai lotua ta eratsia. Etzan txalo-min, eta beste askok —berton jaioak noski— gure gauzak erderaz adierazi ta goraltzera jo oi dutelarik ere, Etxegarai'k ementxe lan egin zuen apal eta biziro. Eredü bikaiña!

BIZITZ-APURRAK.—Azpeitin jaioa dugu, 1865-7-3'an. Joakin Etxegarai, bere aita, pasaitarra, Zumaia'ko portuan kapitain zana, 1880-4-26'n il zan, eta ezeren laguntza gabe geratu ziran aren alarguna, ama zarra, alargunaren aizpa bat eta bi seme: Karmelo, amabost urteko mutikoa, ta Bonifazio, bi urte egindakoa. Zer egin? Karmelo, egia esan, mutil argia zetorren, baiña gazte zan oraindik ezer egin al izateko. Santander'en bizi zan Joakin'en anai bat —Karmelo'ren osaba, beraz—, gizon eldu ta zurra, saldu-erosiari emana. Onek berean artu zuen mutila, ta beronen adimen argi-zoliaz konturaturik, kultura zabal baterako bear zitun ikasketak osotu zitzan erreztasun guztiak ematen asi zitzaion. Mateo Lopez Carbajal'ek irasitako ikasguan sartu zuten eta antxe ikasi zitun Karmelo'k, 1880-1882 ikastaroan, ekonomi politikua ta ingeles izkuntza, ta urrengoan, prantsesa; ta iru jakin-gaiotan lenengo saria eraman zuen.

Ezbearra berriz ere: osaba il zitzaion 1883'garrenaren erdi-rantza ta Zumaia'ra etorri bearra izan zuen etxekoen artera; ta orra gure gaztea ikasteak laga ta etxekoai lagundu bearrean. Edu ortan zegoela, Zumaia bertako elizburua zan Manuel Beobide'k lagunduta, Euskal Lore-jokuen ofizinan bear egin eta zerbait irabazten asi zan. Luis Maria Eleizalde zan bazkune ortako buru ta onek Aldundiari eskatuaz, ango artxibuaeren zai jarri zuten Etxegarai. Ortan asi zan lanean, bizitza guztikoan nunbait, eta gogoz asi ere: egunetik egunera obeto ikusia zan, eta diruz ederki ordaintzen zioten zegian lana.

Artxibua ta liburutegia atondu ta zaindu ez-ezik, kondaira ikerpen asko ere osotzen zitun Etxegarai gazteak. Eta Diputaziokoak au ikusirik, Madrid'era bialdu zuten ango artxibu ta idaztitegiak arakutzen. Ara joan zitzaigun 1892'gnekko ilbeltza-ren azkenerantza, Iker-gaiez antxe idatzi zuen bere lenengo liburua, Euskalerriko gauzakaz zer-ikusia zuten dokumentuak begi aurrean zitula: «Investigaciones históricas referentes a Guipúzcoa», Gipuzkoako Diputazioak 1893'an argitaratu ziona. Beste liburu batzuk etorri ziran ondoren, eta guztiok txit ospetsu egin zuten sail ortako lanetan.

Azkenez, Bizkai'ko Aldundiak batez ere ortara bultzatuta, Bizkai'ko, Araba'ko ta Gipuzkoa'ko euskal probintzietako Kronikari izendatu zuten K. Etxegarai. Izendatze-agiriaz jabetu ordukoxe Gernika'ra aldatu zan, eta ementxe, egotzi zioten arloari oso-osorik lotua, erioak atzaparra ezarri zion arte iraun zuen. Bien tartean amaika paper zar astindu zuen, liburu meta galant bat ere idatziaz. «1925'garren urteko dagonillean —G. Muxika'k dioskunez— Orozko, Orduña, Menagarai ta beste arabar toki batzuk ikertzero urten zan, ango artxibuetako edesti-gai billa; baiña ortan zebillela gaitzak artu zuen bat-batean. Bere lanari ekin zion, ala ere. Gaitzak, orraitio, geiago egiñik, etxera itzli bear izan zuen. Gero, betikoa... sendagilleengana, oea, berri lazgarriak, gaitza aurrera, azken urren naitaez-

koa. Azaroaren 4'an, arratsaldeko bost t'erdietan il zan. Eta 6'an lurra eman genion Gernika'ko illerrian, begiak zekusena siñistu eziñik gu geratzen giñala».

Euskaltzaindikoa izan zan. 1922'an Eleizalde'tar Koldobika il zanean, K. Etxegarai izentatu zuten aren ordezeko, ta andik iru urte barru Karmelo itzali zanean, onen anai Bonifazio egin zuten euskaltzain. Karmelo'k Euskaltzaindian sartzerakoan irukurri zuen «Iru Mogel'etzaz» deritzan lan ederra.

Bere omenaldiak izan ditu. Bat, esaterako, 1928-4-3'an, Eusko Ikaskuntzak antolatuta Azpeiti'n ospatu zan, eta bertan, Santiago kaleko 7'garren zenbakian, idazkun au jarri zitzaion: «Karmelo Etxegarai jauna etxe onetan jayo zan 1865'ko Uztailaren 3'an. Bere erriaren jakintza aldezeko adimen gogotsuari oroimen au eskeintzen dio Eusko-Ikaskuntza'k».

ZER IDATZI ZUEN.—Auxe zan K. Etxegarai'k euskal Aldundien aginduz burutu bear zuena: 1) Euskal kondaira gaien berri Diputazioai eman; 2) Fidel Sagarminaga'ren oiñordekoak Bizkaï'ko Aldundiari emandako liburutegia zaindu ta atondu, eta 3) gure artxibu ta idaztitegiak obeto antolatzeko bear ziran bi-deak adierazi. Iru zerok, danok dakigunez, ondo baiño obeto bete zituen. Eder zitzaion, izan ere, Euskalerriari buruzko edes-ti-lana.

Asko idatzi zuen, eta beti ederto, erderaz ta euskeraz. Liburu batzuk bakarrik aitatuko dizkizut emen.

a) *Erderaz*: 1) *Memoria presentada a la Diputación de Guipúzcoa sobre organización de archivos* (Donostia, 1891); 2) *Los vascos en el descubrimiento y colonización de América* (Donostia, 1892); 3) *Investigaciones históricas referentes a Guipúzcoa* (Donostia, 1893); 4) *Las Provincias Vascongadas, a fines de la Edad Media* (Donostia, 1895); 5) *Trabajo de un Cronista* (Bilbao, 1898); 6) *Archivos municipales de Guipúzcoa* (Donosti, 1898); 7) *Apéndice a la obra «Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa» de D. Pablo de Gorosabel* (Tolosa, 1901); 8) *De mi País, miscelánea histórica y literaria* (Donostia,

1901); 9) *El maíz. Conferencia acerca de la época en que se introdujo en el País Vasco y la influencia que tuvo en sus costumbres* (Donostia, 1905); 10) *Iztueta* (Donosti, 1905); 11) *Introducción del Cristianismo en el País Vasco* (Donostia, 1905); 12) *Los Archivos municipales como fuentes de la de Guipúzcoa* (Donostia, 1905); 13) *Monografía histórica de Villafranca de Guipúzcoa* (Irun, 1908); 14) *De mi tierra vasca* (Donostia, 1917); 15) *Informe acerca de los documentos referentes a la historia vasca, que se contienen en archivos públicos* (Donostia, 1919); 16) *Monumentos religiosos de Guipúzcoa* (Donostia, 1921); 17) *Monumentos civiles de Guipúzcoa* (Donostia, 1921); 18) *Vizcaya* (Barcelona, 1921); 19) *Compendio de las Instituciones forales de Guipúzcoa* (Donostia, 1925).

Ontaz gaiñera, eundaka orrialde kondairazko, literaturazko, kritika ta iritzi emate ederrez beterik daudenak osotu zitun iñoren idaztaiak itzaurreak jartean ere. Azkenik etziran gutxi izan or-emen irakurri zitun itzaldiak. Ogeitamar bat aitatzen dizkigu G. Muxika'k.

b) *Euskeraz*: Bai, euskeraz ere lan bikaiña egin zigun Etxegarai'k, guk asko ezagutua ez izan arren. Amabost urtekin asi zan euskeraz idazten, Santander'en aurkitzen zala. Auxe duzu andik igorri zuen lenengo lana: «Eguzkiyaren irteera ta Mogeltar izkribalari bikaiñei oroipena» (1882-11-10); 12 aapaldi dira zortziko nausitan, ederki egiñak. Gizonki agertzen du egunsentia, izadiko sorkari guztien bizinaia ta poza kolore ñabarrez margozturik. Ur azpitik jaikiaz dator eguzkia.

Uren azpitik azaldutzen da
 izar danetan nausiya,
 bere urrezko errafiekin
 lilluraturik guztiya;
 apaingarriro jantzitzen ditu
 zeru mirari garbiya,
 itxaso aundi orrolariya
 eta lorezko zelaya.

Aztertu gabe dago oraindik azpeitiar olerkariaren euskal sailla. Ta oso eskerga da Etxegarai'k gaztetan egindako euskal lana. Elgoibar'ko osagille ta euskaltzale leuna genduan Antonio Arrillaga'k emanda badut nik emen 333 folio aundiko liburu bat, makiñaz idatzia, ark or-emen euskeraz —«Euskal-Erria»-n, «Euskalzale»-n eta «Euskal Esnalea»-n— argitaldu zitun lanakin ornidua. Lanok, itzaurre batzuk kendu ezkerro, gaztetan egiñak ditu, batzuk jatorrak, bere-bereak, eta beste batzuk itzulpenak. 1882'tik 1893'ra bitartean osotuak ditu: etzuen egiago bertsorik egin. Ona biotatik batzuk.

1) *Jatorrak*,—Esan dugu, iru aldizkaritan idatzi zuen K. Etxegarai'k. a) *Euskal-Erria'n*: 220 olerki ta 23 lan askatu argitara zitun euskeraz; baita erderaz ere 20 lan. Euskerazkoetatik 18 beintzat sarigarri izan ziran Donosti'ko, Bilbao'ko ta Iruña'ko batzaldietan. b) *Euskalzale'n*: 1893'tik aurrera etzuen bertsorik borobildu, baiña lan auek argitara zitun (1897-1899): «Peru illegorri», «Euskalduna», «Jose-Mari», «Pasaitarren gauzak», «Izkirimiriak», «Zerbait» eta «Motxailen kontuak», 1897'an; «Auñemendiko Lore (itzaurea), «Pasaia», «Nekazari edo lugiñen Anaikidea», «Txurruka», «Malko bedeinkatuak», «Antxiñako gertaerak eta Euskal-Erria», 1898'an; eta «Antia», «Aur Jainkotia!», «Gurasoen zigorra», «Aitor-en etorrera edo Euskalerriaren asiera» ta «Jesus estalpean», 1899'an. d) *Euskal Esnalea'n*: «Esnatuko al gara?», «Ongi itz egitea», «Enada eta beste egaztiak», «Ondo egiña dago», «Egalariak», «Segurarrai», «Nora goaz?», «Esna gaitezen!», «Pernando amezketarra».

Besteok ere aipagarri dira: «Donostia'ko Puerca», ango euskal jaietan saritua; «Indalezio Bizkarrondo», «Bilintx», Lore-Jokuetako batzarrean sarizatua; «Donostia'ko Euskal Itz-jostaldien batzarrea», Eibar'en saritua; «Domingo Agirre, Olerkaria», 1920'n egiñiko itzaldia; «Euskalerriko itxas-gizonak, 192rgneko itzaldia; «Otaegi, euskal olerkaria», Ondarrabi'ko

euskal festetan (1925), saria irabazi zuen ikas-lan kritikua; eta, guenez, gorago aitatu dugun «Iru Mogel-tarrak» (Euskera, 1926).

2) *Itzulpenak*.—Atsegin zitzaien erbesteko literaturatik artutako poesi laburrak batez ere euskeraz jartea. Ona batzuk; Selgas'enak, «Celos», «El álamo blanco», «La inocencia», «Sé bien venida primavera hermosa!», «La adelfa», «El amor y el olvido», «La virtud», «Chist!», «Perlas y lágrimas»; Prai Luis de Leon'ena, «Al salir de la cárcel»; J. Coll y Vehí'ren «Al Sagrado Corazón»; William Wordsworth'ena, «The oak of Guernica»; Nikanor Zubikaldai'rena, «Niño divino»; J. E. Hartzenbuch'ena, «El cangrejo» ta «La libertad aparente»; Sofia Ormaetxe'rena, «Al Niño Jesús»; Donibane Gurutze-koaren «A Cristo Crucificado»; Joakin Rubio y Ors'ena, «Postes de sol», boskarrena, ta abar.

Beste batzuk euskeraz egin eta gero erderaz jarri zizkigun, dozena bat inguru guztiz: «Euskal-Errira», «Arrigorriaga», «Argi baten billa», «Andeka», «Otsoa eta arkumetxoa», «Larrosa-toxa»...

NOLA IDATZI ZUEN.—Etxegarai'k badu poesi batzuetan, XIX'garren mende erdiaurretik batez ere ia mundu guztiko literaturan nausi izan zan erromantiku aizearen eragiña. Baiña pixkat bakarrik. Ba-ditu baita eskola aren antzera goi-argi laiñotan ta sentipen arroskoz egiñiko elezar eta ipui luze samarrak —«Aitor-ren etorrera», «Euskaldunak eta kartagotarrak», «Gurasoaren zigorra», «Antxiñako gertaerak», «Euskaldun bikain bat»—, eta beste. Etxegarai'ren lana, ala ere, bulkoz betea da, ta biotz-ondoiz bizia. Erromantikuen osteko olerkaria dugu azpeitiar gaztea, gaztetan bait zitun osotu ark bere poesi-arnasak.

Arrese-Beitia'ren eskolakoa genduan zerbait, baiña ez osorik. Selgas (1822-1882), olerkari ots aundikoa, erromantikuen etsai ta «lilien kantari», atsegiñago zitzaien andiputz eskolako aiek baiño. Ta, ain zuzen, Etxegarai'k badu gaztelar poeta leu-

naren antza: erreztasuna, asmamen bizia, muin goxoa. Ederki dio R. Intzagarai'k: «Iñork baño obeto ikusi zituen Amaren lurralde ta alorrak: Euskalerriko lorategiak, Euskalerriko gari-meta ori-oriak. Zugatz, aritz ta ametzak, jauregi eskaratz-urren asabak ereinak, zeazki ezagutzen zituen; ta edesti akedunak edozein orritan tarte-martez uzten dituen alde murririk, Etxegarai'k bete zituen, edo lorez, edo gariz edo tantaiez» (*Euskal Esnalea*, 1925, 222 orr.).

Neurtizlari bezela onan ikusten du «Orixe»-k: «Markiña'ko euskal-jaietan oraino ume zelarik sariztatu zutenean, itxaropen zuten euskal poeta bikaina aterako zela Etxegarai. Gaiekoa zen poesirako, bere gainerako idaztietan noizpenka nabari denaz, Gaia egokitzen ba zekien, izkuntza berez etorritsua zizun, esae-ra txukuna, neurtitza erreza eta ongi ebakia. Zergatik utzi zion poesi egiteari? Eztakigu. Mingarri da bere bizieran geiago ez ari izaitea» (*Euskal Esnalea*, 1927, 235 orr.).

Euskera bikaiña zerabillen zein joskeraz zein iztegitz.

(Ikus J. Manterola, *Euskal-Erria*, 1882, 493 orr.; G. Muxika, *Euskalerraren Alde*, 1925, 403 orr. ta *Homenaje a C. Echeagaray*, Donosti, 1928, 677 orr.; J. M. Estefania, *Euskalerraren Alde*, 1926, 129 orr.; R. Intzagarai, *Euskal Esnalea*, 1925, 221 orr.; J. K. Gerra, *Euskalerraren Alde*, 1925, 441 orr.; J. Urkixo, *Euskalerraren Alde*, 1925, 416 orr. ta 1926, 129 orr.; A. Kanpion, *Euskalerraren Alde*, 1928, 153 orr.; F. Etxegarai, BAP, 1950, 469 ta 1951, 417 orr.; S. Onaindia, MEOE, 383 orr.; L. Villasante, HLV, 329 orr.; K. Etxenagusia, *Euskal Idazleen Lorategia*, 201 orr.; Auñamendi, II, 296 orr.).

27.—JOSE ELIZONDO LOPEZ (1865-1943)

Tolosarra. 1865-9-14'an jaio zan. Tolosa'n garai aretan batez ere nabari zan euskal giroari amor egiñik, gaztetxo zala antzerki-zaletu zitzagun. Bere bizi-unearen erdirantza nunbait, 191 l'an, idazten asi zan «Euskal-Erria»-n, «Euskal Esnalea»-n eta «Vida Vasca»-n baitik bat. Orla jarraitu zuen 1929'rarte. 1943-4-18'an il zan, 78 urtekin.

EUSKAL LANA.—Zernaitan ari izan zan, olerki, ipui ta axo-lazko lanak taiuturik. Sari galantak ere eskuratu zizkizun: 1907'an, adibidez, Elgoibar'ko jaietan, «Udabarriko goiz bat» (*Ibaizabal*, 1902, 17 gela, 2 orr.) aipatu zioten; Eibar'koetan (1908), «Eibargatikan» deritzana; Segura'n (1911), euskal ope-ra gaian, Jose Eizagirre, Emeteri Arrese ta Jose Elizondo izan ziran saria artu zutenak; Zarautz'koetan (1912), «Larrosa ta Lauziri»; Donostikoetan (1912), «Ontza eta Gitza»; Donostiko Lore-Jokuetan (1916), lotazillaren 25'an, «Joaire» deritzanak aipamena merezi izan zuen.

Alaz eta ere, teatru lana zuen oroz-gain begiko, eta ontan ekiña dugu. Irakur:

1) *Idartzako jauna* (Donosti, 1907). Egintza bateko jostirudia. Elgoibar'ko euskal jaietara aurkeztutako 27 lanetatik bat, saritu ziotena.

2) *Amets gozuak* (Donosti, 1910). Ekitaldi bateko antzerkia. 1909'an Ernani'n egindako euskal jaietan sariztatua.

3) *Alkate ona* (Donosti, ta Bilbao, 1912). Antzerkia. Bilbao'ko Euzko Gaztedijak 1911'an iragarri zuen teátru-batzaldira gipuzkeraz idatzi ta *Aztiya* tituluarekin bialdu zuen, bigarren saria irabaziaz; Bilbao'n *Txomin Arrayo* izenarekin agertu zan bizkaieraz. Donostiako teatru Printzipalean eman zuten lenengo aldiz, 1912-12-2ran.

4) *Atsegea*. Drama. 1813'garreneko eun urte-betea zala-ta, 1913'an Donostiko Udalak eratu zuen batzaldian sariztatua.

5) *Atzertokiya*. Egintza bateko komeria. Donostiko Teatru zarrean antzeztu zan lendabizikoz, 1916-3-6'an.

6) *Dollorra*. Iru ekitalditako drama. Donostiko Udaletxeak 1916'an antolatutako batzaldian sariztatu ta urte berean, lotazillaren 21'n lenengoz emana.

7) *Omena*. Iru egintzetan komeria. Donostiko Udalak ospatu zuen batzaldian, 1917'an saritua.

8) *Il nai ta il ezin*. Egintza bateko jostirudi.

«Zuretik ezpala» dio gure esakune zarrak. Idazle oneri bu-
ruz ere ez datorkizu gaizki onako esana: ba-zuen zura, egurra
ta ez makala. Aise darabil luma zemai adierazteko, ixurbera
dugu oso. Nik MEOE-an apaiza zala ipiñi nuen oartzaka. Bego
au ere.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 788 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E.* V.,
1956, 62 orr. ta 1957, 186 orr. ta 1958, 143 orr.; A. Maria Labayen,
Teatro Euskaro, II, 166 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 249 orr.).

28.—FRANTZISKO LOPEZ ALEN (1866-1910)

Donostiarra. 1866-1-9'an jaioa. Donosti'ko Udaletxeko li-
Ait'a lez semea ere, Udal-idaztitegiko zuzendaritzatik bizi izan
zan; bidenabar uriburuko kronikalari genduan. Kondaira gau-
zetan txit aitua izanik, Gipuzkoa ta Donosti aldeko gauzetan
baitik bat, «Real Academia de la Historia» ta «Bellas Artes de
San Fernando»-ko laguntzaille izentatu zuten. Donostia'n itzali
zan, antza, 1910-7-24'an, 44 urte baiño etzitularik.

IDAZLE.—Donostiko «Euskal-Erria» aldizkarian idatzi zuen
batez ere, erderaz ta euskeraz.

Ona erderazko batzuk: 1) *Okendo'ren biografi bat* (Donos-
tia, 1894); 2) *Iconografía biográfica de Gipúzcoa. Galerías de
Guipuzcoanos* (Donosti, 1898) dalakoan azaldua; 3) *Estudio
histórico-artístico del convento de San Telmo* (Donostia, 1905);
4) *Memoria artística de San Sebastián y descripción de las
Fiestas Euscaras* (Donostia, 1906); 5) *Biblioteca Municipal de
San Sebastián* (Donostia, 1908).

Eta euskeraz. 1) *Josecho* (Donostia, 1896), euskal poema
«La Voz de Guipúzcoa»-n argitara emana; eta 2) olerki ta beste
lantxo asko «Euskal Erria»-n, «Euskalzale»-n, «Ibaizabal»-en,
«Esku-Egundiya»-n eta abar. Ona «Esku-Egundiya»-n atera
zuen *Gure izkuntza* deritzaiona, euskerakiko maitasunez borbor,
«Euskal-Erria»-ren Zuzendari zala egiña.

«Emen eta an, euskerarekin au edo ura egin bear dala ari-
tzea baño zenbat ohea litzakean guziok euzkeraz itzegitea. Ala,
aditzera emango genuke gure euskera zarra banetan eta biotze-
tik maite degula.

Gauza samingarrria da askotan eta maiz ikusten deguna:
menditik datozen gizon ta emakumeak, uri aundietan bizi dira-
nean, mendiez eta euskaraz errazki aztutzea, basterrean uzteko
gauzak balira bezela.

Entzun bedi euskera, mendietan ezezik, uri aundietan ere.
Itzegin bezate euskeraz, nagusiak ta morroiak. Euskeraz euskal-
dun guztiak mintzatzen badira, euskaldunak dirauten artean,
euskerak iraungo du. Eta euskaldunak, antziñatik datoz, eta
urrutiko egunetaraño iritxi bear dute. Euskaldunak iraungo du-
te beti, beti, beti. Iraun beza berekin, gure euskera zar maita-
garriak. Bai, milla bider, bai!» {*Esku-Egundiya*, 1910, 47 orr.).

Olerki-konkursuetan 1887'gnko lotazillaren 26 «Teatro
Principal»-ean ospatu zan neurtitz-batzaldian asi zan sariak ira-
bazten bere *Atzo ta gaur Donostiari* lanarekin, eta gero 1888
(Kanbo, Gazteiz, Donosti), 1889 (Donosti), 1890 (Donosti),
1891 (Yurreta), 1893 (Azpeiti), 1894 (Azparne), 1895 (Ezpele-
ta), 1896 (Arrasate, Maule), 1897 (Bilbao, Oiartzun), 1898
(ġestua), ta abar, atera zitzaizun sari-irabazle.

Beste griña bat ere ba-zuen; gizaseme landua zanez, margo
ta kolore ertiaren ixilpekoak ere ba-zekizkin naikoa ondo: mar-
golari genduan. Bere itzaldi ta lauldak ederezeko, ainbat irudi
marraztu zitun. Bereak ditu sail onetan Donostiko Udaletxe
zarreko ormak, amazazpigarren gizaldiko jazokunakin apaintzen
dituzten pintura-lanak.

(Ikus *Euskal-Erria*, 1910; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1952, 123
orr.; S. Onaindia, *MEOE*, 400 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 166
orr.).

29.—FRANTZISKO APALATEGI (1867-1948)

Sarri itandu oi dugu. Benetako euskaldun ote naiz? Zertan ikusi ote liteke ori? «Nik uste dut —dio Peli idazleak—, Euskal Herriaren alde egunero, astero, hilero, urtero, bakoitzak al duanean, ordu batzuk sartzen ez dituana, benetako euskalduna ez dela. Beronek euskalduna dela esango du, baina «ez da» esango nuke nik» {*Zeruko Argia*, 1973, urriak 14, 3 orr.).

Apalategi Aita jesuíta genduan, Donostia'n jaioa 1867-10-29'an. Amazazpi urtekin sartu zan, 1884-8-7'an, Jesus'en Lagundian. Eliz-ikasteak amaitu ta apaiz egin ondoren, Valladolid'eko jesuiten ikastetxean urte asko eman zituen Kondaira irakasle. Azkenengo urteak, alaz ere, Loiola'n igaro zitun: osasunez makal xamarra izan zan biziera guztian. Loiola'ko santutegian artu zuen betiko loak, 1948-2-24'an.

EUSKAL LANA.—Naiz eta erbeste zear ibilli, ba-zuen barnean gorde-eziñeko sua: euskaltzale zan guztiz zintzoa. Eta beti, eskuan luma, gertu ta prest zegon edozein gertakari naiz ipui jasotzeko. Aita Zabala'k onako pusketak bildu ta «Auspoa» bilduman eman zizkigun titulu onekin: «Euskal mutillak armetan!» Karlista ta liberalen bigarren gudako istilu ta goraberak aizatzen ditu geien bat. 1922'garrengo urtea ezkeror, ortan saiatua dugu, au da, ari ta oni aspertu gabe galdezka garai artako berri mordo galantak batu zizkizun, bere ingurrazti ta kuadernoetan.

A. Zabala'k itzaurrean onela: «Euskerazko zeozer ere argitaratu zuen, bañan bere euskeraren aldeko lanik onena oraingo au dala uste degu... Gaur agertzen diranaz gañera, beste orrelako asko bildu zitun. Argitaratuko ditugu oiek ere... Kontaeraz gañera beste paper ta berri asko bildu zun. Orain Gipuzkoa'ko Diputazioan daude bere paper danak. Paperaz gañera karlisten gerrateko oroipen asko bildu zun. Orain oiek San Telmo'n daude».

Euskera ona darabil: bizi ta labur azaltzen ditu or-emengo joan-etorriak. Garbizale gendun, itxuratan. Aita Zabala'k: «Noizean bein badaude itz batzk gerran ibillitako agure zar aiek iñola ere esango etzituztenak. Adibidez: «karlotarrák», «izki-llu»..., Ez ditugu iñola ere ikutu nai izan» (13 orrialdean).

L. Mitxelena'k au dasa: «Ezta noski gauza bera Pirala baten liburu larriak irakurtzea eta Aita Apalategi'ren kuadernoetan barrena sartzea. Eztira emen ikusten ez gerraren gora-beera andiak, ezta arkitzen ere egintari ta buruzagien asmo eta ustean berririk. Bada ordea besterik, Pirala'k eztakarrenik: egun emen eta biar an, nola eta zertarako eztakiela geienetan, dabillen edo darabilten soldaduaren nekeak, naigabeak, usteak, pozak eta damuak... Norbaitek novelaren bat egin nai baldin balu garai ortaz obeko du «Auspoa»-koei eskerrak eskuetara dizkiguten joskurarik gabeko oar oek irakurri bestelako liburu lodi asko baiño. Eta historia egin nai duenari ere, barrengo eta ziñezko historia baldin bada, eztio kalterik egingo oriek astiro ikustatzek (*Egan*, 1961, 1-3, 144 orr.).

(Ikus *Auspoa*, 3'garren alea, 1961, n orr.; L. Mitxelena, *Egan*, 1961, 1-3, 144 orr.; J. San Martín, *Escritores Euskéricos*, 1968, 28 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 291 orr.).

30.—EMETERIO ARRESE TA BAUDUER (1869-1954)

A. Ibiñagabeitia'k onelan: «Nork ez du gure artean Arrese ezagutzen? Antxiñatik aren olerkiak atsegin-eztitan irakurtzen. Gazterik olerkari apaiñak darion argi-xotillak beretu gindun, eta nere biotzak zirrara osasungarrienak nabari oi zituen aren neurtitz ozenak darion poesi goitarra urrupatzean» (*Euzko-Gogoa*, 1949, Uztaila-dagonila, 27 orr.).

Tolosa'k len eta orain asko esan nai du gipuzkoar bizitzan —kapitala izan zitzaizun garai baten— eta euskal literaturan. Bertakoak dazauguz ainbat gizakume jator: XV'garren, esate-

rako, euskal foruen alde lan txalogarria burutu zuen Domenjon Andia, tolosarra genduan, oiñaztar eta ganboatarren arteko takela, liskarkeri ta istilluak ixillerazten alegindu zana; Migel Aranburu, Gipuzkoa'ko probintziko lege ta enparauak artez jarri zituna, ta onen seme Jose Basilio —Villafuertes'ko kondea— guda-gizon gartsua, ta Felipe Dugiols, Filipinas'en egintsari aundiak burutua; P. Eleizalde, Karlos V'garrenaren kutuna; Eugenio Azkue margolaria; Pablo Gorosabel (1803-1868), Gipuzkoako kondairan buruz ainbat liburu eder osotu zituen; Alfonso Idiakez, Karlos V'garrenaren idazkaria; Modesto Letamendia, musikalaria leuna; Juan Sagues eta Martin Zatarain tailugilleak. Eta gaurkoen artean: Eduardo Mokoroa musikalaria; Ramon Artola ta Ramos Azkarate bertsolari ta teatru-gilleak; Baleriano Mokoroa ta onen seme Justomari, euskaltzale porrokatuak; Antonio Maria Labaien antzerkilari goxoa, Antonio Zabala, bertso-argitaratzaille bizkorra, eta besteak. Eta auen artean aulki berezia merezi du Arrese'tar Emeteri olerkariak.

BIZITZ-ZEAZTASUNAK.—Tolosa'n munduratu zan Arrese, 1869-3-3'an; il ere bertan il zan 1954--4-7'an. Aita tolosarra zuen, baiña urte mordoak Gazteiz'en igarotakoa; ama, berriz, etorkiz prantsesa zala ere, Gazteiz'en sortua. Tolosa'n, Aita Eskolapioetan ikasi zitun bere len-asi-orraziak; irakasleak, alaz ere —diotenez—, ez zitzaizkion txit begiko izan, ikastaro aietako egunak gibelmin pixkat utzi bait zioten biziera guztirako, noski.

Euskaldunok sorteri maitale ez garanik ezin liteke beingoan ukatu. Geiegitan, ordea, etxe-lokarriak autsi ta zori-eske dauz kagun urrutiko itxas-bidetaz ibilliak gara, gisa ontako arrotzak bezin azkar, nik uste. Itxasoa maitagarritz edertua iduritzen zai gu, ta asagokoa negarrik gabe, pitxi gordegaillu. Ipur-dantzari ta zori-zale biurtu oi gara, onik onenean.

Edu ontakoa dugu Arrese. Lan jakiñerako baiño andik ona, aldiak zer ekarriko, bidalari jarduteko zima ta sen geiago zuen

iñola ere. Bere izakera urduri, ameskor, arranguratsuari amor emanik, lur berriak ikusi naiean, oindio gazte, Ameriketarako bidean jarri zitzaizun. 48 bat bider igaro omen zuen Atlantik itxasoa. Zergatik orrenbeste joan-etorri? Pelota-zale ere ba zan, eta lenengo Habana'n eta Merida'n, eta gero New York'en eta Buenos Aires'en eta abar, frontoiak jaso, alkarteak sortu ta euskal pelota zaletasuna Ipar eta Ego Ameriketan zabaltzen alegindu zitzaigun. Lan oei mamia ateraziaz, buruko min artean izanik ere, dirutza ederrak eskuratu zitun; sosa, ala ere, edo ezkurra, labankor izaki, Arrese maiz aurkitu zan itxasoa igarotzeko ere sakelean txintxiñik gabe.

Arrese'n bizitza etzan samurra izan. Ia beti garraztu xamar zebillen, bere poesi-lanetatik ere agertzen zaigunez. Gizartetik igeska lez ibilli zan, berez biozti ta adeitsu zalarik. Ezkongai bizi ta il zan, eta onek ere, litekena da, beaztun poxi bat ipiñiko zion bizi-bidearen bi egaletan. Gizasemea, baiña, Jaunak etzuen egin bakarrik bizi zedin, eta utsune ori zerbaitekin bete bear. Erri-miñak joa zebillen, bere olerkietatik dakusgunez; bazuen beste elgai bat, gazte urteetan batez ere: giza-bizia eman zion «ama». 1903'an, Habana'n aurkitzen zala il zitzaion; ii-berria artu zuen egun berean idatzi zuen *Ama* deritzaion poesi samurra. Etorkizun obe billa urrutiratu zan Euskalerritik. Une zorigaiztokoa, ziñez! Eta dio:

Geroztik ez det iñoiz arkitu
iñoiz ez lengo pakea;
damu garratz ta zatilariyaz
ergeldu zait megopea.

Orain urruti, amarik gabe, tristura illungarriz beiñere kentzen eztanez ingurratuta. Gau-giro larria!

Ama zan lenaz nere penaren
sendakai on txit biguna,
ta ura gabe gaur ezin nezake
garaitu bizitz astuna.

Ama, bizia eman ziona utzita, joan zan urruti. Ta orain malkotan dago semea. Jaunari diotsa:

Jauna, barkatu; penaz aitu da
ni gabe soil arki zana!;
il da lo negon irten-goizean
alboraturik nigana,
muxu emanda ezpail tarte
malko bat utzi ziranai

Eta berriz ere bakartadea, sorterriko mugaldea buruzko irudipenez ase; «eritu baten antzera» egin nai luke bere jira, zorabio ta kezka artean, «uts-utsa dagon kabira». Eta amaren puxkak dauden obi gainean otoitz egin «zeruetara begira».

Zerbait dau olerkaria, izan ere, kezka utsa besterik ezta, Arrese'k, bere giza-ama ez-ezik, sorteri-ama ere maite zuen; eta, ez baita noski arrigarri, orren kezka ere larri zerabilen. 1895'an asi zitzaigun idazten «Euskal-Erria» ta «Euskalzale» aldizkarietan, baiña aurretik ere ba-zitun poesi-lan batzuk, *Aurrrera* !, adibidez, bertso-paper bezela, 1886'an Tolosa'ko Gurruixaga-ren moldiztegi azaldua. Erromantikuen garaia berantza zijoan iratz batean, eta gurean, gure literaturan, Azkue ta Arana-ren aro kezkatia —pizkunde giroak— zegan erlantz-dirdira.

Tolasarraren olerkiak bietatik du zerbait. Laister oartzen gara aren lana irakurriaz, ark ba-duela gure len-bertsolarien kera ta erromantikuen kutsu berezia, barrokantza oben egiñik. Gerora, urteak joanik, Lizardi, Orixe ta Lauaxeta-ren bidera jo zuen, igarteko bestean. Joera guztiok urratzean agertzen zaigu txit minbera ta biotz-ukigarri naiz zar-zale naiz izadia goratuaz ozen ta barrenkoi. Olaxe, bidenabar, sorteria kantatzen du, bere zer guztiakin, gero ta gartsuago, itxasoz andik dabillega batez ere. Euskera aldetik Arana-Goiri-ren eskolako genduan.

Are geiago; ama ta aberria eman dizkigun Jainkoaren kezka bizia zebilkion tai gabe izate barrenean koskalari. Noiz edo bein arpegira bota zioten bere Jainkoarekiko axolik eza. Zertako iritzi eske? Misterio uts ez al da giza-barnea? Biziera orron ta iperloka sarri izan oi da, ez gogo ez soin, ardurarik ezerako bide pitzatua. Arrese'n biotza, alaz ere, amagana zijoan unero, ordu larrietan baitik bat; berak onela;

Jainkoa'ren urren ama guk ordu
zailetan aipa deguna.

Gure olerkariak ortaz Jainkoari dei zegion lenen, ta amari gero. Izatez nolakoak geran jakiteko, idatzietara jo oi dugu; Arrese'ren poesietan eurrez didorogu Jainkoaren aipamena. Aita Salvatore Mitxelena'k eman zizkion azken orduan eliz-sakramentuak, eta, giza-bizitza Jainkoaz ta gizarteaz aseari al giñoan bukaera emanik, goirantza jo zuen «illak bakarrik entzuten duten izkera maitagarrian» ama zanari adieraztera bere «koita gu-ziyak».

Pello Otaño (1857-1910) bertsolariaren adiskide barrukoa zan, onek eragin bait zion euskera ta olerkigintza maite izatera, 1887'garren urtetik ain zuzen ere. Urteak joan urteak etorri, Buenos Aires'en egin zion ikertaldi bat; eta, 1952'an, Donostiako uriak Pedro Mari'ri opatu zion goratzarre-omenaldian Arrese'k irakurri zuen txerazko itzaldia.

Bizitz azkenerantza Donosti'n bizi izan zan luzaroan; 80 urte zitularik alaz ere, Donostia utzi ta Tolosa'ra aldatu zitzaigun. Ementxe il zan 1954 jorraitaren 7'an, 85 urteko.

EUSKALDUN OLERKARIA.—Pixu aundiko olerkaria da nereztat Arrese tolosarra, ezta sekula ere alabaiña bear bezelako arduraz aren lana aztertua izan. Egia aitortzera ezkeroz, ba-ditugu beste poeta batzuk ere orrelaxe erdi-azturik utziak, sakon bezin zabal aztatu ta ikasteak merezi luketenak noski. Itz neur-

tuz bestera ere idatzi zuen zerbait, baiña aren lanik beiñena bertsogintza izan zan. Orduko aldizkarietan —«Euskal-Erria», «Euskalzale», «Ibaizabal», «Euskal Esnalea», «Aranzazu», «Eusko-olerkiak», «Yakintza» ta «Euzko-Gogoa»— irakurri ditzakegu aren poesi errotsuak. Eta argitaratu zitun liburuetan.

Lanok geien bat Ameriketara mamitu zizkigun; arat-onat zebillela, egon-ezin gordiñak jota egiñak, gaztelar olerkari J. Ramon Jiménez baten antzera noski. Barneak zer xeatu, uraxe dardarazten zigun bertso-kordetan. A. Ibiñagabeitia'k au: «Ya-kiña da, olerkariak bere barneko auziak ere azalera bear dituala gogo-giro betea irakurlearen baitara aldatzeko. Gaurko olerkariak aidorki nabarmentzen ditute barne-muinak urra oi dizkien auzi latzak, gureak aldiz, argi ta apalki, gogoz irakurriko lukenak atzemateko eran. Arrese'k poesi-indar berbizikoa txertatu dio gure euskerari. Orta gutxi izan dira gure artean ain lan ederra egin duenik. Aren eskuetan poesi-tresna egin-egiña duzute gure izkera: apain, egoki ta neurrikoa; pin eta zailua» (*Euzko-Gogoa*. 1952, 7-8, 28 orr.).

Iru liburu dauzka argitara emanak:

1) *Nere Bidean* (Tolosa, 1913). 200 orrialde. Tolosa gundul-etxeak berak ordainduta egin zuen argitalpen au, 1913'garren urteko erri-jaietarako bezuza bezela. Emeteri'k berak itzaurrean: «Aspalditik neukan nere bakar-aldietan ernetako amets-loreak sorta batean bildu ta argitaratzeko asmoa. Bañan ez dakit noiz arte egongo nitzan ala beti asmotan, baldin Tolosa'ko zaindari dauden Batzarkide jaunak nere buruko txokotan ipurtargien antzera illunean zeuden gogotar egazale gaxoak: aldi oberik etzitzaiekien aurtengo Euskal-Jaiak, emen ospetu bear diranez, dakartena baño».

Olerkiok nola gatzatuak diran ere, argi ta garbi dio: «Udazkeneko txori-negarrak orbel tartean banatzen diran bezela goititz-osto zurbil oietan mintsu dijoaz, ez dakit nora!, nere biotzeko eresirik geienak. Ez arritu; neke gabe, arin txoro, pozezko lorategian pinpilinpauxen eraz nebillela zirudin garaian poz-

eztia baño aldi geigotan arkitu izan det zorigaitzeko lixtorra. Toki gorde ta irixpide zallean dago nunbait bizitz ontako ezti leun ori».

Irurogei ta amabost dira guztiz liburuan datozen poesi-lanak. Gorago aitaturiko agerkarietan azaldutako banakaren batzuk ba-datoz berton, baiña geienak berriak dituzu. Gaia? Danetik: Basajaun, maitagarri, sorgin eta onakoak eder zaizkio; Sarasate, Elozegi, Tolosa, F. Dugiols, Pello Mari Otaño, J. Zabala, Etxeberria'tar Pello goratzen ditu; beste batzuetan abes-teko eskatzen dizkieten letrak jartzen ditu, edo-ta album baten jartzekoak; ba-dauzka par-neurtitzak ere, ziri-jardunak eta abar. Onakoak gatzatu zitun 1900-1907 bitartean, Habana'n zegoela alegia.

2) *Txindor* (Donostia, 1928). 158 orrialde. Irakurleari diotsa: «*Nere bidean* aspertu ezik ostera len bezin ameskor eta zaletsu ibiUi naizen aldiko gora-berak idazti batean ezarri ta beronekin gaur zugana abegi on esker nator. Emen darakustan olerki-sorta belaxka izan arren, nere gogozkiko arduraz urri ez dago beintzat. Ez ere txindor gaxoa ixil-ixillik, otzikaraz eta soraio beti, lei bero maitetsu batek papartxo noizik-bein igi erazten dio. Neurtitz oek, beraz, onespén-gai izan al balitezke, nere arazoen saritzat lortu nezaken ordañik aberatsena orixe litzake: euskalzalearen biotzari deika alper-alperrik ibilli ez naitzela jakitea. Idazti onen bidez ortaraño iritxiko baldin banitz, zorionean Txindor...».

Irurogei ta sei poesi dira guztiz, ederki landuak. Maite ditu mendiak: Aralar, Uzturre, Aia, Ulia... Maite ditu lorak eta pinpilinpauak, itxasoa eta itxas-errietako arraunketak... Eta illun-abarreko itzal-zoria, ta negar otoitza. Atsegin zaio euskal izen politak asmatzea: «Maitiñe» lilien aizpa, «Izartxune» beti poz-jario ikusi nai lukena, «Zorentxu» begi-sorgin, «Maitagar» egodun aur itsua, «Abiñe ta Xumelar», «Aratziñe» mendiko ixillaren ama txuri, ta abar. Eder du baita illak goratzea: Jose Ganboa, Orkaiztegi, Patrizio, Larunbe'tar Rafael, K. Etxegarai.

3) *Olerki berrizte* (Zarautz, 1952). 111 orrialde. Berrogei ta bi olerki guztira. Adiskide batzuk zirikatuta diosku, olerki zarretatik berezitako mordoska bat antolatu zuen, 83 urte zeuzkala. Ona berberak itzaurrean: «Alperkerizko lastai bigunean etzinda ote negon edo zenbaitek ala uste izan arren, aldapa gogor zalletik ibili naiz. Gauz bat bi bider esan besterik ezpalitz, nekez ari bearrik ez nuen izango, errexean jardun eta nere arazoari laister azken emango nion. Aundi da baña olakotan gerta zaidana: garai batean idatzitako neurtizkiek argira jaso ta andik urte batzuetara akatsez itxusituak ikusten ditut. Ori dala-ta beren zimurrik agerienak igurtzi, aldaketa bat edo beste egin, us-tez beintzat egoki xamar ezarri ta ona emen, liburu txiki on-tan, oraingo nere langintza».

Egin zitun, bai, orrazketak bere lanetan. Baiña txukunago utzi ote zizkigun? Baliteke ezetz. Len-argitalpenean zeuden lez obeki agertzen dira, bear bada. Askotan gerta oi: berezko lanak apaiñagotzen ari oi gara, ta egin ziran uneko berezetasuna moztu egiten diegu, zeuden baiño baldanago utzirik. Beraz, akats eta guzti ere, berriz argitara nai ditugun lanak obe dakigu lenean utzi, ezertariko orrazketa gabe. Azal ta muin, begoz erdi-une-txoan ekarri zuten mardultasun sotillean. Artistaren lana, orrai-tio, beti dugu eder, ta Arrese'k eskeiñi zigun olerki berrizte oneri ere, lena berriro apaindu beararak oker aundirik ekarri zionik, ezin dezakegu aitortu.

Bertsotan idatzi zitun urrengo lanok ere.

TEATRU-GILLE.—1) *Aiton baten eriotza* (Euskalzale, 1898). Bakarrizketa duzu bere adiskide Jose Artola'ri eskeiñia. Tolosa'n osotu zuen 1898-1-4'an. Gizonki edesten ditu aitonaren azken-uneak. Felipe Arrese otxandiotarraren *Anjela* gisa berean egiña dago.

2) E. Mokoroa'ren *Sentierak* operak, 1900'garren urtean Iruña'n lendabizi aurkeztu zana, E. Arrese'ren letrea darama. Gero ere, *Leidor* tituluz argitaratu ta antzeztua (1936) izan zan.

3) *Zara* (Tolosa, 1913). Bertsotan egiña; iru ekintza ta azken zati bat ditu. Eduardo Mokoroa'k jarri zion musikea, ta zati batzuk beintzat, Tolosa'ko euskal jaietan (1913) ango abeslari taldeak abestu zitun. Liburuxka, «Euskalerriaren Alde»k saritua izan zan 1911'an Segura'n ospatu ziran euskal jaietan. Polita da, ta «Nere bidean» liburuarekin (175-201 orr.) argitaldu zuen.

NOLAKO OLERKARI?—Esan dugu: gutxi bat beintzat erromantizismuaren jarioz kutsutu, naiz-ta berandu xamar. Gizonak larogetabost urtean aldakuntzak izan oi ditu, ta, ezta batere arrigarri Arrese'k, azken aldera, zerbait pentsakeran eta idazkeran jantzi berriekin apaindu ba'zizkigun. Gizakumeok, orraitio, gaztetan artu kulturak eta azierak ematen dionean iraun oi du iñundikan ere.

Uxu ta ibilkoi zanarren, beti zuen astia zerbait idazteko. Begi zorrotza zeukan eder aldetik, baita arima sentikorra ere. Oar-azi dugunez, ba-zuen ortan zenbait arrotz olerkari iper-lokaren antza, bai ibillaldietan bai osotu zitun kopla-lanetan. Arrese'ri bere neurtitzak irakurriaz igartzen zaio nolako barrena zuen, bertsoetan utsitu ziguna nunbait. Euskalerritik kanpora ibilteak ere zerbait lagunduko zion gauzai itxura ta iduri geiago ematen, naiz-ta, nik sarri idatzi dudanez, berton euki zer ugari senti dezakegun eder-galea nola ta zerekin ase-azi ta okitu.

Iritzietara jorik, L. Villasante'k onela: «Federiko Zabala'k ederki esan duenez, Arrese erromantizismo ostekoa deitu deza-kegunaren jarraitzaille da; giro au, ain zuzen, eunki ontako lenengo bi amarkoetako euskal olerkarien artean ere ainbat zabaldutakoa noski. Oni begira Lizardi dugu posromantizismua erabat gainditu zuena».

A. Ibiñagabeitia'k: «Doai bat bereziki bulartzen zitzaidan aren poemak barna: izadia bete-betea kolore goxoenaz inguratirik. Gaur ere izadiaren olerkari dala esango nuke Arrese. Ez ordea izadi soil ta legorrena, bere gogo-giro, arduraz, sendi-

menduz oretutako izadia damakigu olerkariarena baizik. Bere biotzondoaren ukitura bizitz ta arnasaz jazten dakian poeta garaiarena. Ez da ez auxe beti ere eginkizun, eta poeta guzien ez dagoelako ainbeste ta ainbeste olerkari antzu ta aspergarri gertatzen zaizkigu. Natura ta naturazko oro norbere gogo-giroz erne-arazren dakian olerkaria olerkari gaillena noski. Eta ortan maizu andi ageri zaigu Arrese'tar Emeteri» (*Euzko-Gogoa*, 1952, 7-8, 27 orr.).

Izadia, egitan, poesi-bizitasunez kuin-kuin agertzen zaigu. Ez du adimenik, ez du zentzunik, baiña ba-du ederra Jainkoak ikusiz bakarrik ereiña. Onan zioan poeta batek: «Nere biotzetik irtetzen dan otoi'tza, adimenik eztun izadiaren pil-pilla du-zu». Olerkariak izadia, adimen gabea baldin bada ere, biozdu'n egiten du. Irakur Arrese'ren «Nere basetxean», «Lore-jai», «Ulia», «Kayuak», «Itxaso», «Artzaiaren abestia», «Txantxan-gorria», «Gau eder», «Basatiaren oiua», esanaren agerkai be-zela.

Entzun berriz ere Andima'ri: «Lur au —dio— argiz ikus-ten du gure olerkariak eta lur ontan, ortzi urdin ta itxas apartsuz inguratutako lur ontan, bere jauregia dauka oraingoa eta gerokoa ere. Maragall'eri beste ainbeste gertatzen zitzaion, eta ala ageri du «L'Oda al infinit» deritzan olerki giartsu artan. Olerkari au ere ludiaren edertasunak txundituta zeukan, ementxe egin gogo luke bere jauregi jatorra eta betikorra, urdin ta legorrenen bitar-tean. Arrese'k ere naikari berbera ageri du bere olerkietan, eta gogo luken bezin argi adierazten ez ba'digu ere, irakurle ika-siak laister atzeman dezake aren gogo barneko karnaba. Ez dut esango panteista danik, bai ordea munduaren, izadiaren ederrak menperatu olerkaria: antxen du bizitoki, antxen amets-kabi. Gorago? Galde-atz (interrogante) nabari bat islatzen da Arre-se'ren olerkien gainean» {*Loc. cit.*}. Ona elantxobetarrak dioa-naren agerkari bat, «Kayuak»-en laugarren aapalditik artuta:

Noizik-bein alde xamar
ugina lertzen dan batez,

apar arroaz beren
lumak busti ez ditezen
bai arin goitu, bai errez!

«Iñor bukolikoa —diosku Uxola'k—, iñork mendiei, basoei, bidexkei, txoriei kantatu baldin ba-dio gurean, iñor ori Arrese izan da. Pertsona ezagutu bear dala-ta gaurko olerkizale modernistak pertsoneri gertatzen zaizkioten antipoesiak sudurretatik sartu nairik badabiltzaozkigute, poesi ori egiten ez dutenei atzeratuak eta mundu gabekoak esanaz» (*Zeruko Argia*, 1969, 3, 20, 12 orr.).

Eta J. Artetxe'k: «Emeterio Arrese olerkari benetakoa zan. Olerkari jaio zan. Ortzen dago olerkaritzako giltza. Olerki doai goi graziaz ikutua izateko edo ez. Lenengoak, olerkiak egingo ditu; bigarrenak berriez, plomua baiño pixuagoko idazti-antze-koak» (*Zeruko Argia*, 1969, 3, 16, 3 orr.).

(Ikus A. Ibiñagabeitia, *Euzko-Gogoa*, 1952, 7-8, 27 orr.; S. Onaindia, *MEOE*, 828 orr.; L. Mitxelena, *Aranzazu*, 1954, 201 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1954, 120 ta 1959, 47 orr.; L. Villasante, *HLV*, 1961, 382 orr.; P. J. Bitáño, *El Bidasoa*, 1955-1-22, 10 orr.; J. San Martín, *Escritores Euskéricos*, 1968, 37 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, I, 307 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 335 orr.).

31.—JOSE MARIA AZKUE GOÑI (1869-1938)

Errenderi'ko seme, an baitzan jaio 1869-8-3'an. Gaztetatik barnean nabari izan zuen goi-deiari baietz esanaz, Asis'ko Franzisko donearen jantzia artu ta saio urtea osoturik, profesia egin zuen 1892-2-6'an. Eta eliz-ikasketak burutu zitunean, apaiz-ordena eman zioten 1899-3-13'an.

Lekaide gazte sartu-berrien maixu izan zenun, baita Probinziko nagusiaren Aolkulari ta komentu batzuetako nausi ere. Arantzazu'n itzali zan 1938-2-20'an.

EUSKAL IDAZLE.—Liburu pranko atera zitun euskeraz, geienak erderatik biurtuak. Argitalpenok, N. Kortazar'ek dioskunez, milla ta zenbait orrialde osotzen dituzte, ta gizakume askok irakurri izan ditu aien lerro jakingarriak. Ona titulu batzuk:

1) *Aita Frantzisko Donsuaren ta bere praillien loratxuak* (Tolosa, 1923). 361 orrialde. Itzulia.

2) *Gurutz-Bidea* (Arantzazu, 1923). Portu-Mauricio'k egiña, euskeraz.

3) *Zarauzko Zaindari Pelayo Donearen Bederatzirurrena* (Zarautz, 1924).

4) *Asis'tar Frantzisko Donearen bizitza* (Bilbao, 1925). A. J. M. Santarelli'k egiña, euskeraztuta.

5) *Fadua'ko Antonio Donearen bizitza* (Bilbao, 1929). B. y Gil'ena euskeraz.

6) *Garbitokiko Animen Bederatzirurrena* (Bilbao, 1931). Dotxao-Uriguen'en etxean. «Azalez ta mamiz garbi ta txukuna: ederki irarria, ta argi ta errex idatzia» dala dio G. Muxika'k.

7) *Hungria'ko Isabel Donearen bizitza* (Zarautz, 1931). 63 orrialde. Euskeratua.

8) *Horta'ko Salbadore Donsuaren bizitza* (Zarautz, 1932). J. Fourget'ek egiña, euskeraz.

9) Beste auk: *Antoniotarren esku-liburua* (Tolosa, 1923), *Aita Jose Donearen Bederatzirurrena* (Bilbao, 1928), *Andra Mariaren Sortze Garbiari Bederatzirurrena* (Bilbao, 1928), *Ama Nekatsuaren Bederatzirurrena* (Bilbao, 1929), ta abar.

NOLAKO EUSKERA ZUEN.—«Loratxuak» idaztiari Lizarralde'tar Jose Adrián Aitak, Euskalerriko Andre Mariaren irudiai buruz liburu orren bikaiña osotu zuenak, egin zion itzaurrea. Onela dio bertan:

«...Gure euskera samur jatorrak egoki adierazi leiken ezertxorik bada. *Aita Frantzisko donsuaren eta bere Fraillien Loratxuak dira*. Eztia baño gozoagoak, esne zuria baño leunagoa zan biotzetik erne ta Frantziskoren aotik usai atsegingarria za-

baldu zuten Loratxuak dira; maitasun uts-utsa ama baten aotik jaioa dirudin izkuntza da gure ezpestelako euskera, bata bestentzako egiña izan bazan ere, etziran obetogo etorriko. Beste aldetik berriz, aspalditxo esan zan euskaldunen izakerak Frantzisko santuaren eta bere Prailliengandik datorkien kutsu edo txerta on bat badula. Nik ganeratu nezake, sinismendunak eta benetan Jainkozaleak diran euskaldunen bear onak Frantzisko santuaren eta bere Fraillien Loratxuai egoki erantsi leizkenak dirala. Etzuan beste asmorik izan, nik maite-maite dedan Aita Jose Mari Azkuek, Loratxu oiek euskerara biurtzeko burubidea artu zuanean, kristau euskaldunen biotzak Frantzisko santuaren erara jartzea baizik. Izlari atsegiña da bera, sermoiegille txukun, beroa, liburutxu au eta beste batzuek euskerara egoki baño egokiago aldatu dituana. Lan setosoan saiatu da, baita euskerazko irakurgai ederrenetakoa gertatu ere egin digu».

Atsegiñak dira «Loratxuak» dalakoan datozen irakurgai guztiak; ederki azaltzen du Asistar Santuak zein izaki mintzodunekin zein mintzogabeekin zuen uste ona. Gozoki-zatiak agoa bezela ezitzen digute biotz-barrena loratxo irakurgarriok.

(Ikus *Euskal Esnalea*, 1931, 22 orr.; Juan Ruiz Larrinaga, *Homenaje...*, 188 orr.; L. Villasante, HLV, 317 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 90 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*, I, 409 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 209 orr.).

32.—TORIBIO IRIONDO (...1881...)

Euskal idazle leuna duzu. Asko ez, baiña zerbait idatzi zuen itz lauz ta neurtuz. Donostia'ko «Euskal-Erria»-n agertzen dira beronen lan batzuk, 1881-1912. Bilbao'ko «Euskalzale»-n lau lanok dauzkagu. *Maiatzeko loreak* (1897, 156 orr.), *Jesusen Biotz Jainkoari Letaniak* (1899, 188 orr.), *Getariarrak* (1899,

256 orr.), eta *Bila joan eta gabe etorri* (1899, 270 orr.). «Ibaizabal»-en ere agertu zitun beste batzuk. Iriondo'ren ordezt, *Irisasi* goitizena erabilli oi zuen.

Idazle ona dugu. Ona, adibidez, *Bila joan eta gabe etorri* deritzaion lana.

«Eizezale gazte batek bi eper arrapatu zituan, eta pozez beste bere bi laguni berri au eman zien, esanaz, etxeko leioan zinzilik zeuzkala beste egun batean jateko asmoarekin. Lagunak au aditu zutenean, elkaturik, pentsatu zuten, gau artan, ixil ixillik joanta, bi eperrak xixkatu bear zizkatela, eta ala eiztaria oeratua izango zala uste zuten orduan, joan ziran biak aren atarira, eta abiatu ziran kaiñabera luze baten puntan kandelatxo bat piztuta, erretzen eperrak zinzilik zeuzkan lokarria, oik beera erori zitezen. Eiztaria ordezt etzegoan lo; baizik somatu zituan xixtalariak zertan zebiltzan, eta ixiltxorik leiora joanta, aize-eman, eta itzali zien kaiñaberaren puntan zerabilten kandelatxo. Kaiñaberadunak berezko aizeak itzali uste izan zuten, eta bigarren aldiz kandelatxo piztuta, lengo lana bera egin zuten; baiña berriz ere leioko eiztariak itzali zien. Irugarren eta laugarren aldiz orobat gertatu zitzairen. Asperturik orduan kaiñaberdunak bata besteari esan zion: Alperrik ari gaituk, aize txarra zebillek.

Au entzun zuanean leioko aize-emailleak, bozt eder eta garbiarekin era onetan bersoa bota zien:

Kandela-kaiñaberak
dabiltzan artean,
aize txarra izango dek
leio bitartean;
eper oiek jatea
nai dezutenean,
etorri, aize txarrik
eztabillenean.

Eta bi xiskalariak lotsaturik, makur-makur egiñik, erantzu-teko almenik gabe, eta eperrik ere gabe, ango aldiak laister egin zituzten.

Maiz oi dana mundu onetan.

Billa joan, eta gabe etorri».

Liburu au ere argitaratu zuen: *San Juan Bautistaren bederatziurrena* (Tolosa, 1892). Itzulpena. 29 orrialde.

OLERKARI.—Errez ta goxo matazatu zizkigun olerkitxoak ere, ormengo aldizkarietan argitara emanak. Koplarik geienak uzkurtz-zelaikoak ditu, Andre Maria'ri eskeiñiak nunbait. «Euskal Eснаlea»-k, 1910'an, bere *Esku-Egundiya* atera zunean, orduko idazle garaien artean agiri zaigu Iriondo'tar Toribio ere, bere *Agur Erregiña* olerkiarekin. Azalez ta mamiz goragarriro egiña duzu-ta, bego emen gazikor bezela, zatiño au.

Agur Erregin
goien-goiena,
poz bikañena
guretzako,
Zu zera beti,
Ama maitea,
zuzenbidea
zerurako.

Ederrak dira
zure begiak,
maitagarriak
dira guztiz,
itzul itzatzu
beti gugana,
Ama laztana,
txit errukiz.

P. M. Urruzuno'ri, 1920-10-2'an, bere jauparitzako urrezko eztaietan ondu zizkion zortziko txikitan egindako amalau aapaldiak ere, doiñutsu ta utsik gabe kateatuak daude.

(Ikus J. Vinson, *Essai d'une Bibl. Basque*, II, 653 orr.; S. Onaindia, MEOE, 416 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 194 orr.).

33.—JUAN MANUEL LERTXUNDI TA BAZTARRIKA (1870-1925)

Tolosarra duzu euskaltzale bakan au, an balizan jaio 1870-11-24'an. Eskolapioetan sartu zan gazte zala, Aragoi'ko probintziakoa zan Peralta de la Sal (Hueska)'ko komentuan lenengo ziñitzak egiñik. Ia beti, gaztetan batez ere, Euskalerritik kanpo ibilli zitzaigun eta ez da arritzekoa umetan zekien amaren magaletiko izkuntza aitzu ba'zitzaion ere.

Eliz-ikasketak amaitu ta 1894'an mezakotu zanean, Zaragoza'n eta Jaka'n irakatsi ta arimazai egin zuen bost urtetan; 1898'an Argentina'ra joan zan, eta 1903'an Txile'ra; 1908'an Euskalerrira itzuli zan, eta 1911'rarte Iruña'n bizi izan zan, eta 11'tik 18'ra Barbastro'n; andik Tolosa'ra etorri zan 1918-5-25'an, gaixorik biotzetik eta arnas-estu gogorrakin: zazpi urte ta erdi ementxe igaro zitun oraindiño, ta azkenez berton il zan 1925-12-8'an, arrats-beran, amarrean eortzia izanik.

Egon zan ikastetxeetan, matematikak, fisika ta frantses izkuntza irakatsi zitun.

EUSKAL IDAZLE.—Zoria gidari mundu zear ibilli bear izan duten euskaldun askori lez umetako euskerea aitzu, edo beintzat, erdi-aitzu zitzaiola esan dugu. Baiña, alere, egiazkiro maite duguna ezin errezki geugandik uxa. Ori gertatu zitzaion A. Lertxundi'ri ere: barneegi zaiñafc egiña zekarren gure izkuntza, urrunaren erdoiz, osoan beintzat, aitzu al izateko. Ikasi egin zuen obeki, ta sustraiz ikasi ere. Eta lan ederra egin zuen euskal alorrean. Txalogarri dugu ontan. Ona bere lan auek;

1) *Poli ta Pello, bi euskaldun bikain da zintzoen kondaira* (Donostia, 1910). 176 orrialde. Irakurgai polita, Argentina'ra joandako euskaldunen inguruan osotua.

2) *Euzkal-iztiya —Gramática baska—* (Donosti, 1911). 327 orrialde. Baroja'ren irarkolan. Era berri ta pollit batez adierazten da bertan euskal aditza. Onen aurretik doaz, baita, atziz-

ki-andana ta itzaldiaren zatiak: mugitza, izena, izengoia, berezena edo izen-ordea, aditzkoia, bat-gillea ta esartea. Euskeraz ta erderaz dago; gerora etorri diran gramatikalariai izan dute, aurki, nun ikasi. Euskeraren alde egindako lan au, an Txile'n zegoela, lagun batzuk bultzatuta, asi zan pixkaka pixkaka osetzen, gero Iruña'n euskal irakasle zala argitaratu zuen, ango Diputazioaren diru-laguntzaz. Argitara orduko Tolosa'n apaiz-buru zan Orkaiztegi'tar Patrizio A. jaunari eraman zizkion «euskal aditz-laurkiak» ikusi zitzan. Eta Orkaiztegi'k, bere aldetik, onela zioan; «Pozik, eta osoro pozik, ikusi det Kalasanz santubaren seme Lerchundi-tar Juan Manuel-ek argitara emateko asmoan idatzi duen euskerazko Gramatika ederra. Ementxe dakust euskal-aditza oraindano iñork, nere ustez, aldatu ta askatu ez duen lez erakutsiya. Besterik ezpalitz ere, esker ugariyak zor-ko dizkagu Lerchundi Aitari bere lan eder onegatik». 1910'garren urteko agorrean zan.

3) *Gauzen Ikaskizunak umientzako* (Bilbao, 1925). Editorial Vasca'ren irarkolan. 121 orrialde. Durango'n eta 192rgarren urteko agorrean Euskaltzaindiak izan zuen lenbiziko Idazti-batzaldian saritua. Lan ederra. 34 ikaskizun dira guztiz, andik onako goraberak, lugintza, olkintza, sal-erosketak eta abar aurtxoan izketa arruntean argi azaldurik. Azkue ta Zabala-Antxietat'tar Joseba Tolosa'ko sendagille jaunari eskeiñi zion liburu au. Onela diotsa: «I izan aiz neretzat txikitandiko laguna: ikastoletan eta ire etxean alkarrekin ikasten ibilli izan gaituk gure aurtzaroan: emendik aldendu ta luzaroan urruti bizi ta gero, berriz Tolosa'ra etortzean, i arkitu iñutan beti bezela atsegin da maitetsu itzala: eta gaur, gaitzak jo ta makal samar arren, oraindik bizi banauk, ire maitetasun eta zaintze jakintsu bidez, bizirik natxebillek. Jaunak, bear eta nik nai ala, ordaindu dezaizkikela zor dizkiaten laguntzak!»

4) *Umetxoentzat*. Ipui mordoa duzu, «Euskal Esnalea»-n 1911-1923 bitartean argitara emana. Ba-zekien nolako gauzak

maite dituzten umetxoak; baita nolako izketa eder duten ere; ta olaxe, goxo ta bizi adierazten ditu gairik zaillenak ere.

Joskera jatorra du; lasa darabil aditza, ezertariko oztopo gabe; nai zuka ta naiz ika. Euskal aditza ondo erabilteak ba-du bere garrantzia, naiz-ta geiegikeriak edozer gauza lez au ere zakartu.

Guenik, A. Villasante'k au idatzi zuen: «A. Lertxundi'ren euskera, geienez, onesgarri ta legezkua da, izen-arazoak zenbaitetan itz trabatsu ta ulergaitzetara daraman arren». Aranata-rra dugu.

(Ikus Y. Alzaga, *Euskal Esnalea*, 1914, 406 orr. eta 1925, 257 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1958, 93 orr. ta 1959, 47 orr.; L. Villasante, *HLV*, 396 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 47 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 307 orr.).

34,—MELTXOR GARAI TA ELEXPURU (1870-1950)

Aita kaputxiñoa, ordena barruan Eskoriatza'ko Meltxor Maria zeritzana. Erbestetik ibilli izan arren, euskal idazle ere bai. «Irugarren Ordenako Zuzenbidea» argitara zuenean, au aitortzen zuen Bilbao'ko *Jesus'en Biotzaren Deya-k*: «Ondo dakigu euskaldunok gure artean diran langillerik sutsu ta bizkorrenetakuak dirala Aita Kaputxinoak. Orregatik asko zor diegu Frantzisko Donearen seme zintzo onei. Eta *liburutxo onekin* zorra geitu egin zaigu. Izkera garbi, erraz eta gozo gozoan egiña dago; eta Irugarren Ordenakoentzat txit egokia ta bear bearrekua da. Irugarrendarrak ez diranak ere asko ikasi dezateke Aita Meltxio-rreren esanetan» (*J. B. Deya*, 1924, 245 orr.).

BIZITZA PUSKAK.—Eskoriatza'n jaio zan 1870-1-6'an. Eta amazortzi urte zitula, 1888-8-1'an, Ondarrabi'n, Amute'ko kaputxiñoen komentuan artu zuen praille jantzia. Urte ortan bertan, nobiziadua amaitu baiño len, Bilbao'ra, Basurto'ko lekare-

txera eraman zuten eta antxe bukatu zuen azte-urtea 1889-5-5'an iru botoko eskeintza egiñik. Ogetabat urteko zala, ordenako nagusiak mixiolari bialdu zuten Karakas'era, ta antxe sagaratu zan 1892-5-10'an, Erroma'tik baimena lortu ondoren. Eliz-ikas-teak amaitu zitunean, Marakaibo'ra joan zan, an berberak jasotako komentu berrian lau urtez beintzat nagusi izanik.

Euskal errira biurtu zan 1904'an eta Agintari nagusiaren zadorlari izentatu zuten; ondoren Amute'ko ta Salamanka'ko komentuko buru izan zan. 1907'an, Venezuela, Puerto Rico ta Kuba'ko fraille kaputxino guztien nagusi egin zutelarik, 1907-1910 bitartean eginbide ortan jardun zuen; 1910-1913'an, Karakas'ko komentuko nagusi-ordezko ta Venezuela guztikoen aolkulari egiñik, euskal errira itzuli ta Ondarrabi'ko ta Donosti'ko etxeetan egin zitun egotaldi batzuk, eta 1921'tik 1936'rartekoa Ondarrabi'n eman zuen, txandaka nagusi ta nagusi-ordezko bezela, ta beti Irugarren Ordenakoen zuzendari.

Gerra zala-ta, Gipuzkoa'tik Naparroa'ra bota zuten, lenengoz Iruña'n, gero Sangotza'n eta atzenez Muskaria (Tudela)'n bizi izanik. Ementxe il zan 1950-12-5'an. Iltzear zegoela, «Oi!, zein gozoa dan iltzea», esan zien bein ta berriz ingurumari zituena praille lagunai. Larogei urte ta amaika illabete egiñak zituen. Amar urtetik gora igaroak zitun Muskaria'n azken egonaldi onetan; jendeketa gaitza joan zan bere progu ta ilkizunetara.

EUSKAL I ANAK.—Euskerazko lanetan berandu astea, Euskal-erritik kanpora bizi zalako izan zan; euskal lurrera zaneokxe, ordea, euskeraren alde lan egiteari eman zion. Irugarren Ordenako zuzendari zala, eskutitzak eta gaiñerako paper eta batzararak, dana euskeraz egin oi zuen. Irugarrendarrentzako elizabestiak ateratzen zitun, beti euskeraz; baita areintzako lege ta araudiak izkera garbi, jator, errezean ere. Mintzatu ta idatzi beti euskeraz egiteko oitura zuen. «Zeruko Argia» (Iruña, 1918) argitara bezin laster, asi zan idazten euskera errikoi ta garbian.

Ona argitaldu zitun liburu batzuk:

1) *Crónica de las Misiones Capuchinas en Venezuela, Puerto Rico y Cuba desde el año 1891 hasta el de 1909* (Caracas, 1910). 114 orrialde. Ego-Amerika'n mixiolari zebillela egiña.

2) *Iruugarren Senidetza* (Donosti, 1924). Iñaki deunaren irarkolan. 362 orrialde. Ondarrabi'n aurkitzen zala isotu zuen Iruugarren Ordenako senide ta beste kristau guztientzat oso ego-kia. Mailla ortakoak jakin eta egin bear dituzten gauza guztiakin ornidutako liburu aukerakoa. Azkenerantza, 215'tik 322'ra, abesti pillo galanta dakar, soñuaz eta soñu gabe.

3) *Abestiak* (Donosti, 1924). 36 orrialde. *Frantzisko Doneari*, A. Donosti'k eresitua; *Eguberrietarako*, A. Meltxor'en eresia, A. Elduaen'ek ereskidetua; *Jose Doneari*, A. Meltxor'ek eresia ta A. Elduaen'ek ereskidetu; *Antonio Doneari*, berdin, eta abar.

4) *Iruugarren Ordenako Zuzenbidea* (Donosti, 1924). Iñaki Deunaren irarkolan. Gero, berriro, Irun'en atera zuten 1935'an, L. Valverde ta lagunak irarkolan.

Olakoxea izan zan Eskoriatzar Aita Meltxior: mixioetan zegoenean, mixiolari; Euskalerrian, oster, mixiolari ta euskaltzale. Argi ta errez idatzi zuen.

(Ikus *Jesus'en Biotzaren Deya*, 1925, 155 orr.; Aita Felipe de Fuenterrabia, *Ensayo Bibliográfico...*, 1900-1950).

35.—MARTIN ARANBURU (...1895...)

Deba'ko medikua. Manuel Bago Agirre lankide zuelarik, *Manual de higiene y medicina popular* (Bergara, 1895), idatzi zuen, gazteleraz ta euskeraz. 308 orrialde.

(Ikus Auñamendi, *Literatura*, II, 126 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliografía*, I, 426 orr.).

36.—MATEO MUJICA ETA URRESTARAZU (1870-1968)

Osma'ko, Iruña'ko ta Gazteiz'ko gotzai izan zan urrengoz urrengo. Nun-nai euskaltzale agertu zitzaigun eta, baztertxo apal bat bederen merezi du gure literaturan.

Idiazabal'en munduratu zan 1870-9-21'an. Gazteiz'ko apaiz-ikastetxean luzaro egon zan irakasle, ta eliz-barrutiko *Boletin*-aren zuzendari. 1918'an, Benedikto XV'garrenak Burgo de Osma'ko gotzai izentatu zuen, eta urte berean, maiatzak emeretzi zitula, Aita Santuaren ordezkaria, Gazteiz'ko gotzai Leopoldo Eijo ta Garai ta Madrid-Alkala'koa zan Prudenizio Melo Alkalde alboko zitularik, erri-agintari ta eliztarrez Gazteiz'ko katedrala bete-beterik zegoela, sagaratu ta Osma'ko gotzaigoia eman zitzaion. 1923'an Iruña'rako izendatu zuten, eta 1928'an, Gazteiz eliz-barrutirako. Bai errepublika egunetan, bai gerra bitartean eta ostean, gorriak ikusi bear izan zituen. Iñor mindu nai ezak urrean, ondoren naigabetsuak ekarri zizkion, eta izan du bere jokabideak zer esanik naiko. «Oso-osoko gizon kementsu agertu zala, esango nuke —idatzi zuen Jexus Gaztañaga'k—. Zuzenbiderako sen aundikoa. Zerk eragingo zion bestela, zerk eragingo, berak egindakoak zuzentzera. Goien dagonak, agintzen ari danak, ba-du arrixku aundi bat: guzti-guztiak iges egiten ez dioten arrixkua: zuzenbidea baño beren agintea mai-teago izateko arrixkua» (*Zeruko Argia*, 1968, azaroak, 10, 6 orrialde). Egizale ta zuzena zan, bai, ezmezik gabe. Urte mor-doa, adiñeko ta itsu, Zarautz'en igaro zuen, eta atzenez berton itzali zan 1968-10-27'an, 98 urtekin. Gazteiz'ko eliz nagusian obiratu zuten, «berak zaitu eta zenbait aldiz itz egin zuan elizan, alegia», dio Jose Lasa'k.

EUSKALTZALE.—Gaztetatik zekarren amak irakatsi zion euskeraganako joera. Ta goi-kargu askotan ibilli arren, naiñoz agertu oi zuen barnean zeraman zaletasun orren kurkutza. Ikus bere lanik beiñenak:

1) *Kixote'ren XUVgarren atala*, euskeraz (Gazteiz, 1905). J. Apraiz'ek argitaratu zion.

2) *Mateo Mujika jaunaren eliz-itzaldia* (Donosti, 1911). 1911-9-24'an, Segura'ko euskal jaietan, Gazteiz'ko katedraleko kanonigu irakasle zala egindakoa.

3) *Mujika ta Urrestarazu'tar Mateo Iruña'ko Gotzai jaunak bere eliz-barrutikoai egiten dien Artzai-eskutitza* (Iruña, 1925). «Acción Social»-ko irarkintzan. «Jantzi ederrez apainduta» omen zegoen; beraz, an ta emen argitara eman zuten.

4) Donostia'ko «Argia»-k atera zuen eleiz liburu *Argi Donea* zala-ta idatzi zuena. (Ikus *Jesus'en Biotzaren Deya*, 1925, 147 orr.).

5) Gazteiz'ko gotzai zala *Boletin'ean* agertazi zitun Artzai-eskutitzak. 1928-6-17'an eliz-barruti ontako gidaritza artu zue-nean, bere menpekoai egiñiko lenengo eskutitza euskeraz izan zan (*Boletín E.*, 1928, 440 orr.).

Izkera ona zeukan. Ona Segura'ko itzalditik arturiko zatitxo au:

«Soziedadean. *nagusitasun* eta *mene* aundia jarri zuben Jaunak. Gauzak eta pertsonak, bizitza ta eriotza, batzuetan beintzat, soziedadeak bere menpean izan oi ditu. Jaungoikuak egin zuan gizona, nai ta nai ez bere anayakin bizi bearrekua; ortarako erakutsi zion izketan, ortarako eman zizkion lureko ta espiritu-ko gauzetan ain premi aundiyak.

Jaungoikoak beti eman ditu goikuak eta bakuak gobernatze-ko lege txit ederrak; beragatik, Jaungoikuak eskatu du, eta guk berari zor diogu, bakarrik eta denak batian, izkutuan eta agirian, kulto edo begiraun donea, aldegun onena».

(Ikus *Euskal-Erria*, 1911, 357 orr., ta 1918, 434 ta 440 orr.; *Euskalerriaren Alde*, 1911, 583 orr.; *Euskal Esnalea*, 1918, IIO orr., ta 1929, 31 orr.; J. Arrue, «Aranzazu», 1923, 3, 214 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1955, 166 orr.; *Zeruko Argia*, 1968, azaroak 3, I orr. ta 10, 4 ta 6 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 481 orr.).

27.—JUAN IÑAZIO GARMENDIA BERRONDO
(1863-1918)

Beste euskaltzale errime asko lez, Errenderi'n sortu zan J. I. Uranga 1863-10-24'an, eta biaramonean bertako Santa Maria elizan bataiatu zuten. Gurasoak: aita, Manuel Joxe, Aizama'ko semea, ta ama, Kandida, Irun'goa.

Aldizkarietan maiz xamar agiri dira J. I. Garmendia'ren euskal lanak: irakurgaiak, bertsoak, ipuiak eta beste. Jaso zitun sariak ere; adibidez 1907-7'an, 27'tik 30'ra Elgoibar'en ospatu ziran euskal jaietan, bere *Euskal-Erria ta Guipuzkoa-ko bei aberen obetza* izan zan saritua. Urrengo urtean (1908) Eibar-koetan ere, bere lanaren gaimenak eraman zuen saria. 1910'an, Azkoiti'n, aren *Gure familin eziera* aipatua izan zan; 1911'an, Segura'ko euskal jaietan, ango euskeraz osotu zuen bere lan *Segurako euskeraren ichura berezia* izan zan sarigarri. Berdintsu 1912'an Donosti'n ospatu ziranetan ere, bere *Ichasoa* lanak jaso zuen saria; eta, azkenez, 1917-12-21'an Donosti'n egiñiko jaietan, 20 euskal lan aurkeztu ziran eta Garmendia'ren *Euskal-eche* lanak deduzko aipua merezi izan zuen.

«Euskal Esnalea»-n sarri datoz aren ipui, esan arrigarri ta autu-mautuak. Ba-du, zenbaki-gaiez, beste lan sakonagi bat ere.

Ona aren ipuintxo bat, *Bakoitza'ren Buzkantz*a deritzana:

«Bizitu zan Oñati'n izen goitiz *Bakoitza* deitzen zioten gizon bat. Igande otz batez meza nagusira zijuala, sartu zan ostatu baten eta eskatu zituan katillu bat salda ta txiki bat ardo, ta eseri zan sukaldean su-ondoan. Etxekoandreak alde egin zuan gelara. Ardi-lope edo buzkantz asko egosten zeuzkan pazi aundi bat zegoan laratzetik zintzilik, eta aietal<o bat artutzeko gogoia etorri zitzaion *Bakoitza'ri*. Txapelaren bean erabiltzen zuen bulda-paperean bilduta artu zuen gerrikopean, artarako egokien ikusi zuen lopea.

Etxekoandrea etorri zanean, *Bakoitza'k* ordaindu ziozkan salda ta ardua, ta jua zan elizara. Lapurkeriatzaz egin zuan

egun artan sermoya apaizak. Ala zion: —Bakoitzak berak daki ondoen zer, nun eta nola ostu duen, eta jabeari bere gauza biurtu gabetanik barkamenik ez dauka... Au entzutean *Bakoitzá*'k erantzun zion: —Ori be jakiñ al dau? Ara, emen lajazen dixot bere ori, ta gura dauena egiñ beza beorregaz».

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 795 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 311 orr.).

38.—BALERIANO MOKOROA SOTO (1871-1941)

Tolosarra zalarik ere, Bilbao'n eta Donostia'n lan egin zuen urte mordoan. Zintzoa egiazki bere langintzan. Izatez seta onekoa; mazal agertu oi zan izketan, euskera erre, bigun bizian beti.

BIZI-ZEAZTASUNAK.—[^]Tolosa'n munduratu zan 1871-4-14'an. Justo Mari Mokoroa, gure gaurko euskal idazle bipilaren aita; eta, ez dago zertan esanik, gaztetatik zion griña beroa euskerari, Tolosa'ko Mokoroa'tar guztiak bezela. «Etzan estudianta-ko gizona —diosku Justomari'k—, bere eskola-lagunen artean lenengo maillan agertu bazan ere. Bizi-bearrak iñori barkatzen ez, eta gure aita buru-belarri saiatu bearra izan zuan bereai mundu ontan aurrerapide on bana emateko».

Mutilletatik asi zan teatruan lan egiten; 1895'an, esaterako, Ramos Azkarate'k Tolosa'ko iñauterietan bere *Ijituen kontratua eta ezkontza* deitu antzerkia agertu zuenean, antxe genduan Baleriano ere antzezlaria bezela. Azkue zanak *Euskaltzale* irasi zuenean, bere ondora dei egin zion, eta antxe, Bilbao'n, gogotsu lanari emanda bizi izan zan agerkaria itzali arteño. Gerorantza, ala ere, etzuen beta aundirik izan idazteko. Tolosa'n il zan, 1941-4-16'an.

Kristau bero bezin euskaltzale gartsua azaldu zan beti ta nun-nai, Ura il zanean, bere seme-alabak au jarri zuten oroiki-

zunean: «*Zerura noa* esanez utzi gaituzu, ordua iritxi zaizunean. Burutua zenduan zere eginkizun lurrekoa, eta lasa zeunden aspaldidanik, deiaren zai. Or joan zatzazkigu begietatik, zere bizitza ederraren saria jasotzera. Ain gogo barrendik maite izan dezun *Jainko Aundia*, bera izango dezu Azkengabeko Sari. Aoa beteko kristau jator, fede sendokoa, otoitz-gille asper-eziña, edozeiñi on eiteko noiznai prest ziñana; zenbat ikaspide eder eman ote diezu, ezagutu zaituzten guziai, zere denboran! Zenbat anima arki ote da, zuri eskarrak, zeruan! Zure bizitz-eriotzen erraiñuak argi egiñik, zere pausoen ondotik jarrai gakizkizula munduan maite izan zaitugunok, Zeruan berriz ikusi arte!» Garai artako beste euskal idazle askogatik ere, orobat esan dezakegu.

EUSKERAZKO LANAK.—«Euskalzale» aldizkariaren orrialdeetan B. Mokoroa'ren zenbait idatzi agertzen dira, ipuiak, irakurgaiak, ele-meleak, olerkiak eta lan itzal aundikoak.. 1898-1899'an, batez ere, guztiz langille dabilkigu euskera arloan. Gerortik berdin, naiz-ta ainbesterik ez, idatzi zuen or-emen, teatru-lanak berezild. Ona garaianak:

I) *Damuba... garaiz* (Tolosa, 1897). 37 orrialde. 1897'ko uztaillean, 3'tik 7'ra, euskal jaiak ospatu ziran Oiartzun'en; ba-ziran indar-neurtzeak ere idazleentzat, musikalarientzat eta bertsolarientzat, Donostia'ko Euskal-itx jostaldien Batzarreak Aldundiaren gurariz eta babesez jarrita. Egitarauak, 6'garren puntuan, onela zion:; «*Eun pezetdko sari bat eta bitezarra*, jostairuditar moldaerik onena, itx-neurtu edo larrietan eta Gipuzkoako euskal izkeran egiten duenari, gaia izan litekela ala negargarri nola pozgarri motakoa». B. Mokoroa'k jaso zuen sari au. 1909-12-21'an antzeztu zan lenengo aldiz Donostia'ko teatru printzipalean. Eta bere seme Justomari'k au: «**Garai artan**, etzan orain bezelako gauzarik bialtzen sari-billa! Ori ere aitortu bear degu,.. Ordun ezagutzero eman zuan bere izena Gipuzkoan; eta ori dala bide dei egin zion Azkuek ere bere ondora».

2) *Aitortu egin bear!*, edo *Guraso baten esíuasunakl* (*Ibaizabal*, 1902). Komeri polita. Ekintza bakarra du, ta amairu irudi. J. M. Mokoroa'k: «Damuba garaiz»-en eta «Aitortu egin bear» izeneko bigarren teatru lanean ikusten da garbi, zer ta-juzko gizona zan, zentzuz, biotzez eta gogo-giroz; burutik bea-tzetaraño ko kristau-euskaldun jatorra. Gizarteko joan-etorrietan, ezagutu zuten guztiak ao batez esango lizuteke nik baño obe-toago, gure aitaren ondoan etzala arpegi goibelik iñon-asko ikusiko: ain zan iztun egokia, esale argi ta atsegiña, goieneko naiz beeneko maillakoe kin noiz-nola jarduteko- doai bereziduna» (*Eskutitz batean*).

Ederki moldatzen ditu gaiak. Eta «Euskalzale»-n bakarrik, «Euskal-Erria»-n eta «Ibaizabal»-en argitara zitunak aitatu ez arren ere, 1898'garren urtean 36 lan ditu berak, eta 1899'ga-rrenean, beste 30 bai beintzat. Bizi-bearrak nola muskiltzen ditun sarri gaitasunik bikaiñenak.

KOPLARI.—Itz-neurtuz ere idatzi al zigun? Bai, ta ez gutxi! Aitaturiko aldizkarietan dauzkazu mordoka. Jario aundiko eus-ker a du kopletan ere. Sakon eta giarrak dituzu aren oldozkunak, ideiak; esan nai duena garden esaten dizu, iguiñik gabe uler-tzeko gisan. Gorputz-bizia eman zion ama ederki goersten du, eta sendikoak eta erritarrak; eta euskal oitura zarrak. Irakur *Oitura zarrak piztu* deitzen duenetik iru ahapaldiok:

Euskal-izkuntza maitea,
daukagu zauriz betea,
seme doillorak nai dutelako
Ama lurpean sartzea.

Ama laztana, Ama biguña,
Ama erru gabekoa!
Zure bularra edandakoak
kendu naiean lepoa...

Entzun utsak erdibi lezake
biotz arrízkoa!

Nola ez irten erraietatik
naigabezko deadarra,
nabaiturikan Ama gaxoal
begi-barrendik negarra?

Ez, etzuen bere euskera ixekaz eta farraz betea nai. Esna-
tzeko danok —dio— ta begiak zabaldu, aintzin-oitura garbiak
xuxpertu ta zabal-aziz. Otxandio'ko Arrese-Beitia aundiaren
antzera, eztu nai «euskera gabe» bizi.

(Ikus *Euskal-Erria*, 1897, 375 orr.; S. Onaindia, MEOE, 791 orr.:
A. M. Labaien, *Teatro Euskara*, II, 174 orr.; Auñamendi, *Literatura*,
III, 232 orr.).

39.—JOAKIN LARRETA (...1883...)

Ipuizale genduan noski; orrela dagerkigu beiñik-bein bai
Iruña'ko «Revista Euskara»-n eta bai Bilbao'ko «Euskalzale»-n.
Lenengoak *Amikuzeko Zubiya* saristatu ta argitara eman zion,
eta bigarrenak *Lartaun* irakurgaia azaldu. Ao-gozo bekizu
ondorengo zatitxo au:

«Illun dago guztia Ernion. Illun zerua, goibel eta izarrik
gabe. Illun lurra, ez osto, ez lore, ez lurriñ. Eta inguruetako
baso, oiartzun eta landak baiño illunago, Kantabriatarren agin-
tari ausarditsuaren anima. Guda-gizonak dabiltza, batetik bes-
tera, ixilka mintzatuaz. Andre eta aurrak berriz, zer igaro dana,
ezin jakiñez. Noizean bein, irteten da agintariaren txabola edo
bordatik gudarien bat; zeña abiatzen dan jauzika, amildua be-
zela, goitik beera, iñori ezer esan gabe; irixten da beeko erre-
kara, eta gero, etsai Erromatarren artetik barrena, galtzen da
Aia-mendiko baso marduletan.

Illunabarrean irazekitzen dute su aundi distizari bat Er-nioko tontorrean, eta andik piskabatera, berez bezela, pixtutzen dira inguruetakoko mendi muturrak. Urrengo egunean, eta urren-go eta urrengoetan, iristen dira inguruetakoko anaiak, Lartaunekin batzarre edo billera guztiekiko bat izatera» (*Euskalzale*, 1899, 33 orr.).

Lan auek diotenez itzulpenak ba'dira ere, poliki moldatzen zaigu egillea nai duena azaltzeko.

(Ikus *Revista Euskara*, 1888, 243 orr.; *Euskalzale*, 1899, 33, 43 la 53 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 128 orr.).

40.—JOSE BENTURA LANDA (1871-1955)

J. M. Lojendio'k onela: «Araba'ko Nanklares ondoan ba-da-go Ollabarre esaten dioten erri koskor bat. Gauza ikusgarri gutxi du erriak. Nekazari-etxe batzuek eleiz inguruan bilduta, gari saillak an ta emen sakabanaturik, aize zorrotza neguan, eta uda-ko bero galda, legorra ta lur egarri ugari. Nekazari zintzo aiek, asko maite zuten beren apaiza, argia, jakintsua ta biotz onekoa zalako» (*Egan*, 1956, 2, 55 orr.). Ementxe, luzaro bizi izanda gero, il zan J. B. Landa apaiza, 84 urte beteta. Adin oneko zala, ara joan zitzaigun osasunaren billa, gaizki bait zebillea

Ura etzan alere Ollabarre'koa; gipuzkoarra zan, Itziar'en munduratua, naiz-ta umetatik Tolosa'n azia izan. Eliz-karrera egin eta apaizgoa artu zuenean, Aretxabaleta'n eta Aulestia'n eman zitun urte batzuk arimazai. Ondoren Deba'ko bikario izendatu zuten, eta andik laster (1919) Bergara'ko apaiz-buru edo artzipreste. J. M. Lojendio'k: «Gizon ikasia, euskal izlari bikaiña, ongi ezaguna —gero ta geiago—Gipuzkoa'ko bazta-rretan. Eta bat batean, osasunerako aize garbiagoak bear zi-tuela-ta, orra, berak nai-ta, Bergara'ko Arziprestia, Ollabarre'ko apaiz biurtua! Ementxe bizi izan zan il arteraiño».

EUSKA1.TZALE.—Izlari jatorra zan. Eta Ollabarre'ko neka-zarien artera bizi izaten joan aurretik, ainbat itzaldi eder euskeraz egiña genduan, Itzaldiakaz liburu bat osatu zigun, titulu onekin: *Euskerazko landarak. Euskerazko Itzaldiak. Gure Zeru-ko Ama Maria euskeraz goraíuba* (Bilbao, 1907), Elexpuru'tar anaiei etxean argitaldua dago, ta 221 orrialde dauzka. Orduan Gazteiz'ko «canónigo lectoral» zan Mujika'tar Mateo jaunari eskeiñia dator; onela dio: «Euskerazko Landa-rak» izentzat ipiñi diotan lan txiki au, donkitzen diyot, biotzetik alaere, nere Meza berriyan lenbiziko itzal-diya egoki egin zuan lagun maite, euskaldun azkar ta Apaiz jakintsu Beasain'go seme Mugika-tar Mateo jaunari».

Mujika'k egin zion itzaurrea, erderaz. Bene-benetan txalotzen du Landa'ren liburua: «Ez dakit nik zer jazoko dan —dio— nik Deba'ko arimazaiaren len-liburuari buruz eman dudan saio ta aburua, euskaltzale *errukigabeak* beren iritzi zorrotzaren galbai estutik igaro-aztean; baiña oiek beren iritzia bota bitartean, utz nazazute *Euskerazko Landarak-en* egileari, Gerriko, Astarloa, Agirre, Axular, Lardizabal, Untzueta, Iturzaeta. Mendiburu, Mogel ta beste onelako euskaldun maisuen artean, lekua ematen».

Euskal izlariengan oartzen ditun oker bi saiatzen ditu ondoren: «Gaitz bi dauzka gaur gure Euskerak, gure paregabeko izkuntzak. 1.º: Ez dakigu, ez dugu ikasten geure euskera; ez dute ikasten ondo, ezta erdizka ere, eleiz-zerbitzuan ortara bear-tuta daudenak eurak ere. 2.ºgarren: Ikasi, jakin eta jabetu gabe itz egiten da euskeraz, ta erakutsi; baiña askotan txit gaizki itz egiten da, ta irakasten, eta gure esukaltzale eskergarrietatiko batek, errazoi aundiz alegia, salakuntza izugarri au egin digu: «geuk, apaizok daukagula errua euskera alperrik galtzen baldin ba'da».

Liburuak darabillen gaia, irakurgarria duzu. Ogeitamar itzal-di dira, «guztiz egoki ta atsegiñak». J. M. Lojendio'k: «Ondo asmatuak eta ondo neurtuak. Bere euskera berriz, erreza, legu-

na, aberatsa, etorri aundiko iztunari dagokion erakoa. 1906'garren urtean ez zan itz egiten, orain itz egiten dan tankeran. Ez euskeraz, ezta erderaz ere. Ba-dira Landa jaunaren itzaldietan, gaur erdal-usaidunak iruditzen zaizkigun esakera batzuek. Baiña esakera oiek, neurritz erabiltzen ditu berak, izkera gozatu ta arindu naiaz bezela» (*Loc. cit.*, 56 orr.). «Ogeitamar itzaldi bere 224 orrietan dauzka. Guztiak gure zeruko Ama Mariaren ederkunak jakinduri ta maitasun aundiaz abestutzekoak dirade» (*Jesus'en Biotzaren Deya*, 1918, 63 orr.).

Ona ataltxo bat erakusburutzat, «Ama Birjiñaren bigarren laria» deritzaion 22'garren itzalditik artua; «Maria —deitzen dio bere senar garbiak—: aguro ibilli bearrean gera, Herodes-ek il nai digun Jesus izkutatzeko; errege gogor au, laister asiko da gure Umetxoaren billa, ta bere atzaparretan erori ez dedin, oraintxe bertan irten bear degu Egiptoruntz. Oh, kristaubak; nork neurtu lezaken Mariak oraingo aldian artu duan estutasuna! Itz-aurre gabe, argi ta garbi bere senarrak gaubaren erdian albiste au eman zionean, idurituko zitzaion Mariari atal inguruan zeudela Jesus il nai zutenak. Oh, amaren estutasuna, ta Mariak izandu duan ordurik gaziena! Inguruan zeuzkan zapitxuakin alik onduen Jesus estali zuanian, geiagoko prestaera gabe, igesi dijuaz Ama-Semiak, Jose Santua laguntzalle dutela» (*Itzaldiak*, 151 orr.).

«Esku-Egundiya» dalakoan ere Landa'ren *Itxasua ta biotza* dator, Deba'n, 1909, egiña. Aditza nasai darabil, ezertariko oztopo gabe. Joskera ona du. Gauzak eder-aldeetik begiztatzen ditun arima gartsua saiatzen dute aren idatzia. 37 urte zitun Landa'k liburu au osotu zuenean: etorkizun ederra zeukan ñir-ñirka. Mujika jaunak ere ba-zuen geiago idatziko zuenaren itxaropena. Baiña etzuen, guk dakigunez, beste ezer argitaratu. Tamal aundiz artan ere! «Goizegi ixildu zan —dio Lojendio'k—, baño Debako eleiz korupean, bere euskera gozoaren soinuak ez dira oraindikan itzali».

Aintziñako euskal liburuen izkera mordoillotik iges egiñik, XX'garren gizaldikoen antzera, jator bezin errikoi ari zaigu.

(Ikus J. M. Lojendio, *Egan*, 1956, 2, 55-57 orr.; L. Villasante, HL V, 313 orr.; S. Onaindia, *Kardaberaz Aitari Omenaldia*, Donosti, 1972, 121 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 342 orr.).

41.—SIRO ALKAIN (...1896...)

«Euskal-Erria» aldizkarian idatzi zuen, baiña erderaz.

Auxe argitaldu zigun euskeraz: *Iruchulo zar. Donosti berri* (Donosti, 1896).

(Ikus Auñamendi, *Literatura*, I, 574 orr. ta II, 126 orr.).

42. JOSE JUAN KORTAZAR SEGURA (1864-1925)

Leintz arru edo araneke erri garbai Eskoriatza'n jaioa dugu, 1864-5-16'an: biaramonean bataiatu zuten bertako Pedro deunaren eliz nagusian. Gurasoak Felipe Mari, Eskoriatza'ko semea, ta Maria Mikaela, Zarimuz'koa, izan zituen; aiton-amonak, ordea, aitaren aldekoak: Biktor Kortazar, Oñati'koa, ta Maria Kerejazu, Garagartza'koa; eta amaren aldekoak: Andres Segura, Zarimuz'koa, ta Maria Mikaela Bengoa, Aretxabaleta'koa.

Lenengo ikasketak bere errian egin zituen eta gero, elizgizon izan nairik, Oñati'ko Ikasketxean eta Salamanka'n, emen Irakasle edo Doktor titulua jadetsirik. Apaiztuaz bat, Angiozar'era bialdu zuten eta ementxe bete zigun bere apaiz-arazoa amazapi urtetan. Gerokoz Gabiria'n egin zituen baita urte batzuk, eta azkenez, Argentina'ra jorik, an egon zan arimazai 1919-9-8'raiño. Bere errira itzuli zanean, Orue ta Kortazar sendiak

Eskoriatza'ko eliz nagusian zeukaten kapellautzaz Jabetu zitzai-gun, eta ortik bizi izan zan, biotzeko miñez eritua ain zuzen, 1925-4-11'an Jainkoak beragana dei egin zion arteiño.

Odol bizikoa omen zan. Buruz argia, gauzak laster ulertu ta atzemateko gaitasun aundia zuena. Izketan zorrotza, ta umore txar aldietan ba-zekien piper-miña jartzen. Kiriotsua, iñoiz to-teltasunera ere eldurik. Azken urteetan, oian zegoelarik, etxean zeukan illobak idazten zizkion berak idaroki ta esandako eskuti-tzak; eta, bein, Argentina'n zeukan senitarteko bati karta egi-ñik, onela esaten ei zion: «Gauza eztan senidea ta ebakitzen eztuen aiztoa, galduta ere, zer doakigu?» Arazoren bat eskatu ta bete ez ziolako, zesaion orrela.

EUSKAL LANA.—Angiozar, Bergara gaiñean eta Elgeta'tik urbil xamar dagoen errixka duzu. Beste orduz omena izan zuen, Ele-gamendi'n Andre Mariari eskeiñitako elizagatik eta bertoko aritz soin ikaragarriidunagatik. Ementxe egin zuen Kortazar apaizak ere lenengo arimazaintza.

Eta ementxe zegoela idatzi zuen bere *Sermoe liburua* (Ber-gara, 1903), urteko igande ta jai guztietako itzadiakin. Berga-ra'ko «Santísimo Rosario»-ren moldiztegian atera zan. Ale bi ditu, lenengoak 434 orrialde dauzkala, ta bigarrenak 348.

Garai artako euskera du, oraindik landu gabea, joskera er-del kutsuzkoan egiña. Iztegia, orraitio, arri-bitxi askoz jantzia du. Akats-doe auek dituzte izan ere euskal idazle askotxok, len-goak batez ere: ikasketak geien bat erdel-liburuetan egiñak di-tuztelako, erdel sunda dariela poliki euren joskeran; baiña eusko gogoaren jabe izanik, amaren magalean edoski zuten euskera dakitelako, gogo orrek igarri gabe ere bere iñarrak uzten euskal liburuak moldatzerakoan. Baita erderaz arita ere. Or Unamuno, Pio Baroxa ta abar.

(Ikus Auñamendi, *Literatura*, II, 128 orr.).

43.—FRANTZISKO APAOLAZA AZKARATE (...1897...)

Gorago esan dugunez, Antero Apaolaza Bergara'n eta Antzuola'n bizi izan zan bere botikarekin. 1873'an ezkondu zan Felipa Azkarate bergaratarrarekin, eta bi seme —Frantzisko ta Erroman— eta iru alaba —Isabel, Frantziska ta Luisa— izan zituzten. Azkenengo bi alabak, ots, Frantziska ta Luisa, Oñati'ko Santa Ana komentuan lekaime sartu ziran.

Semeetatik lenena, Frantzisko, Oñati'n mediku izan zan luzaroan. Baita, bere aitak ortara bultzatuta bear bada, euskaltzale ere. Bertsoz eta lan politak mamitu zizkigun. Irakur, adibidez, *Euskal-Erriari* deritzana, MEOE olerki bilduman daukazuna.

Ifar-aldera ikusten du poliki Euskal Erria, itxaso gaziaren egalera; mendiak eta ibarrak dakusazke ostoz ta lorez txit apainduak, eta auen artean banakaturik, etxeak, uso zuri gisara. Argia nun-nai, ta poza.

Itzal otzanaren ezkutatuak			
iturri	garbiak	begira	non-nai;
artzai lirain,	galai bortitzai		
eskañiaz	señalpena-lekuak.		

Ondoren, begiak Gemika'runtz zuzenduaz, Arbola deuna dakus ostorik gabe, zauriz josia. Ona aren garraxia:

Ainbeste mirabillen erdian
 arras zauritua, osto gabea,
 begira zaiogun arbola ari;
 ta guzti-guztiok Euskal-Errian
 ai!, arbola orren bertezardea
 eskatu zaiogun Jaungokoari.

Ba-zekian bertsoak nola berdindu.

(Ikus S. Onaindia, *Milla Euskal olerki eder*, 394 orr.; Juan San Martin, «Auspoa», 8'garren alea, 10 orr.).

44.—J. KASAL OTEGI (...1890...)

Bere aldiko seme leial, «Euskal-Erria»-n idatzi zuen 1890'tik 1897 bitartean; baita Bilbao'ko «Ibaizabal»-en ere zerbait, *Aur kontuak* (1902) baitik bat.

Ba-zerabillen oindio izate barruan azkenengo karlatar generateko zertxobait; onen errenkura beintzat ondorengo laukoe-tan abesten digu;

Guazen, anai maitiak, Gernika aldera,
argal dagon Arbola mardul-araztera;
guazen arin makillak menditik artzera,
eta etsai guztiak berari kentzera.

Errukarria dago aspaldi onetan,
ostoz ezin jantzirik bere adarretan;
indar guztiak galtzen asi da zañetan,
bañan euskal-semeak ez etsi oraindikan.

«La tradition du Pays Basque» dalakoak argitaldu zuen *Gure Ama maitia* (1899) deritzan olerkia, frantsesera biurtuta.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 381 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 126 orr.).

45.—INOZENZIO MUNITA ARIZMENDI (1874-1958)

Onela dio euskal esaera zarrak: «Baso ta ibaia, auzo; au ez duan etxea, gaizto». Emen dugu Munita, «Euskalerrian ezaguna, jaioa ta azkarra zuaitz eta baso-kontu ta arazoetan, ainbat lan eder egin duen jaun eta apaiz agurgarria». Euskal lurraldeko zugatz zarrak akitu ta pipiak jorik ikusita, gaztañadiak, areztiak eta pagadiak galtzen zijoaztela oartuaz, itxaspiñua, «insignis»

ta beste ari naikotako landarak, aien orde, ondo zetoztela ikusirik, ortan saiatu zan gogotik, leku askotan piñu-sail ederrak sartu-aziaz. Beraz, Kalamu azpiko Aginaga erritxoan deitzen ziotenez, «piñu-abadia» genduan Munita.

BIZI-ZEASUNAK.—[^]Tolosatik leku erdira lez datzan Leaburu'n jaio zan, 1874-12-27'an. Baserritarra noski, ango «Mitxelena» basetxean munduratua zanez. Eliz-karrera egin zuen, 1900'garren urtean lenengo meza emanik. Eibar'ko aldean dago Aginaga elizaz, eta Eibar'ko parrokiko apaiz-laguntzaille joanberrienak erabilli oi du ango eliza. Troka onetako elizara joan zitzaigun erretore Munita. Oso langillea zan; eliza baldar eta kanpantorrea erloju barik aurkitu bait zituen, biak apainduten alegiñez alegiñak egin zizkigun aratu zanetik. Baita, apaizlanak albora utzi gabe, garai artan gaztaiña ta aritzetan zebillen auts-zuri edo erdoiak zegizkin kalteak zerbait arindu naiean, Adan de Yartza lekeitiarrak —XIV'garren mendean Gonzalo Perkaiztegi emaniarrak artoa lez, onek piñua sartu zuen Euskalerrian— Bizkai'ko leku askotan egin zuena berak ere burutu nairik, Aginaga ta inguruetan piñu-sail aundiak sartu-azi zituen.

Andoain'era aldatu zuten 1908'gn urtean. «An ere —irakurtzen dugu *Gure mendi ta oianak* liburuaren sarreran—, bere eleiz-lanak utzi gabe, jarraitu zuan mendi-zugaitz lanetan. Bertako ta inguruko baserritarrak berotu, ta mendi-sail galantak landarez bete zituan. Adibidez bat aitatu degu: Andoain'go Sorabilla auzoan *Aitz-beltz* izena duan mendia. Lagun batzuek alkartu arazi, mendia erosi ta piñuz josi zuten. An egin zan aldaketa! Eta eman du iñork uste ez bezelako aberastasuna» (*Gure mendi ta oianak*, 8 orrialdean). Emen, orraitio, mendi-zugatzak ez-ezik, fruta zugatzak ere ugari zabaldu zitun.

1937'an, Arama'ra aldatu zuten, Zaldibi, Altzaga, Isason'do ta Ordizia tartean daukagun erri politera. Etzien emen ere bere lanai utzi, ez elizakoai ez mendikoai. Len gaztañadi igertuz

ta ote zakarrez josiak zeuden mendiak, gaur lengo itxura goibela galdu ta piñudi gazte-ederrez dotoretuta dauzkagu. 1950'an omenaldi samurra egin zioten aramatarrak beren bikario jaunari; erriko semetzat artu zuten, olakoetan oi danez, erakusgai sotil bat eskeiñirik. Orrez gaiñera, Munita jaunak zugatz-berritu zuen *Baso-beltz* zeritzan mendiari, izena aldatu ta, arrezkero, erri-paperetan ere *Munita-baso* izango da.

Arama'n bertan eman zuen azken amasa, 1958-10-25'an, 84 urteko zala.

EUSKAL LANA.—Bakoitzak du bere griña: baita Munita'k ere. Baserritarra izanik, alazoko ta atsegin zitzazkion baserrigaiak. Umezekarren joera ori, ta Adan de Yartza piñu-mota bereziak Ameriketatik ekarriaz Zenarrutza aldean batez ere sartzen si zanean, bera ere ortan arduratu zan; ez, ezin zuen ikusi soil-soil mendirik. 1784'an, erri-buruen aginduz, zugaitz zenbatza (estadistika) bat osotu zan Euskalerrian, 5.322, 665 aritz eta tantai, 4.771.602 pago ta 894.683 gaztaiña aterarik. Gaiñontzeko arte, makal, astigar, altz, zumar, urki, intxaur, sagar, madari, gerezi ta besteak etziran sartzen zenbaketa ortan.

Esan dugu: Munita'k maite zitun euskal mendiak, baifia ez gero zugatz gaberikan. Auxegatik idatzi zuen bere lan ederra: *Gure mendi ta oianak* (Tolosa, 1952), Mugerza'ren moldiztegian. 159 orrialde. Frantzisko Labaien'ek egin zion itzaurrea, mamitsu ta arrullo, egillearen bizitz-zeaztasunak eta liburuaren guna ederld aitzen emanik. «Zertarako lerro auek? —galdetzen du ondoren egilleak ere—. Ez dakit zenbat bider asi ta utzi ditudan. Norbait asiko al dalakoan, eta iñor asten ez. Bes-tetik utsune aundi bat ikusten; gure mendi ta basoen ondamena ezin ukatu; zuaitz-gabeko erria, erria galdua dala jakin; laster surtarako egurrik gabe; ate-ondoan txakur-txabola bat egiteko ere makilik gabe izango ez ote geran bildur bear; laster iturriak agortu-ta, errekek leortu-ta... Ta, geldi egon? Ori ezin» {*Gure mendi ta oianak*, 13 orr.).

Amabost atal dauzka idaztiak. Ona: 1) Gure mendi ta oia-nak; 2) Arbolak etsai asko ditu; 3) Nola zugaitz-zaletu gizona?; 4) Zualtza ain bearrekoa ba'da, zer zuaitz-mota erabilli bear da?; 5) Piñua. Lerra (Erretxindunak); 6) Piñuaren gaitzak; 7) Sekuoia-zugaitzak; 8) Pedro Ziga zanaren Bertiz'ko etxaldea; 9) Nekazarien nagusi-maizter arteko ezda-baida zuatzari begi-ratuta; 10) Erri-gizonai zerbait esan nai; 11) Artzaikin itz-aspertu bat; 12) Auntzak eta basoak; 13) Zotz eta abar; 14) Azitegi-muntegiak nola eratu?; 15) Irakurleari azken agurra.

Jakingarri-jakingarriak dira atalok, onentzat naiz arentzat. Ederki sailkatu ditu gaiñera gauzak: atsegiñez irakurten da libu-rua, asi ta amaitu. «Ibillaldi gozo ta atsegiñak egin ditugu —diosku egileak—. Bai zuaitz ederrak ikusi ere. Ederrak be-netan Leitza'ko gaztain eta izaiak; Lekeitio'ko aritz eta «insig-nis amona»; Tolosa'ko zedro ta Lawson zipresa; Albiztur, Ataun da Lizartza'ko pagoak; Arama'ko zuaizti gazte-lirañak; Ondarroa'ko «insignis» sail bikañenetakoa; Bertiz'go Ziga jau-na zanaren etxalde zoragarria. Ogia, ura ta sua eskeintzen diz-kigute. Ez al da ala? Baita, edertasuna, alaitasuna, pakea ta osa-suna ere» (*Loc. cit.*, 153 orr.).

Euskera garbi ederra darabil, utsik ezagutzen eztuna, itzez zein joskeraz. A. M. Labaien'ek: «Euskera jori ta errikoian idazten du; erabat argi ta aratza». Ona zatitxo bat:

«Len zuaitzik batere ez dagon lur soil eta leorrean aritz landarea alperrik bezela aldatuko dezu. Aritz ta naiz pagoak lur leor eta soillik ez du nai. Laudare oiek biak lenengo urtetan beintzat babesa nai dute. Lendik zuaitz zarrak izanda ere babes pixka bat egiteko gaitz erdi. Bestela kaxkabetx txoriari eusteko aña ere nekez egingo zaizkitzu. Izatekotan errekontotan edo lur eze ta gizenetan etorri liteke beste babesik gabe.

Aritz edo pago zalea bazera, lenago esan zaizu. Piñuarekin asi. Piñuaren babesean aritza naiz pagoa etorriko zaizu. Ugari antzean bada, bi illara piñu ta illara bat aritza edo pagoa; ta orduan zure asmoak or nunbait beteko dituzu.

Baño goazen aurrera. Beste asko ere bai ta zu ere txanpon zale xamarra ote zeran nago. Ta, txanpon zalea zeralako, etzaitut makülaz joko «esku zikiña» ez bazera. «Eskuak zikinduta» ekartzen diran txanponak «zorigaiztokoak» bai orain da bai gerorako. Etzaite izan beñere orretakoa. Zuzenez irabazten oso da bidezkoa. Bada menditik txanpona ekarri nai badezu eta azkar, insignis piñua bezelakorik ez dezu». {*Gure mendi ta oianak*, 106 orr.).

ri

IRITZIAK.—A. Maria Labaien'ek iritzi emate bikaiña egin zion beiñola, onan ziótsalarik: Euskera ugari errikoian idatzita dago liburua... Ale polit au bezuza duzu euskal literatura maite dutenentzat, idaztiak barnean ditun lerroengatik eta darabillen idaztankera jator, eskertsu ta mendi-kutsu gozoagatik» (BAP, 1952, 262 orr.).

Aita I. Omaetxebarria'k: «Liburu au zugatzak dakazkigun onura ta emaitzai begira egiñiko jarduna duzu, ta mota askotako landarak, ots, aritz, arte, pago, lizar, intxaur, gaztaiñ, piñu ta abar, nola landatu egoki asko adierazten digun irakasenez beterik daukagu. Gipuzkera idatzia; izkera naikoa garbian, baiña arrunt eta argia ere bai» (*Euzkera*, Zarautz, 1959, 257 orr.).

(Ikus Antonio M. Labaien, *Munibe*, 1952, 259 orr.; L. Villasante, HLV, Bilbao, 1961, 399 orr.; N. Kortazar, *Cien Autores vascos*, 24 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 359 orr.).

46.—ENRIKE ELIZETXEA ARRIETA (1873-1947)

Errenderi'ko seme; 1873-7-14'an jaio zan, egun berean bateatua izanik; bere gurasoak Juan Maria ta Maria Josefa, biok Errenderi'koak. Bere jaioterrian il zan, 1947-3-29'an. 1895-1904 bitartean naikoa idatzi zuen Donostiako «Euskal-Erria»-n eta Bilbao'ko «Ibaizabal»-en. Aldizkari auetan agertzen dira aren biotz-zauskadak. Etzan, noski, idazle punterengoa, baiña ba-

zeukan gatza ta ozpiña ipuiak, bertso-lerro yaukalak eta igarkizun politak eio ta biribiltzeko. Kirikiño'k eta Azkue'k pozik argitaratzen zituzten aren lantxoak, «Ibaizabal»-en batez ere.

Gizonok geien batean aundi-zale gara: urlia onako jatorrikoa da, sandia arakotik datorkiguna. Ala ere, arrokeriak baiño igali obeak ez ote ditu ekartzen apaltasunak? Begira, beintzat: idazle au, beste askotxo legez, seaska apalekoa dugula dirudi, beronen idatziak irakurri ezker. Ta orratik nolako bitxiz jazten dizkigun! Gure literaturan oraiñarte aipatu ere ez da egin beronen izenik, eta ala ere ainbatzu lan argitara zituen bere garaiko aldizkarietan. Usai gozoa izan oi du, bai, oroldi arteko bioltxoak ere.

EUSKAL LANA.—Donostia'ko «Euskal-Erria»-n asi zan idazten; 1895'an agertzen da bere lenengo lana: *On Antonio Oken-dori*, olerkia. Gero, beste 17 lan, olerki, ipui, izkirimiri, goral-tza ta abar.

Azkue'ren «Euskalzale»-n etzuen idatzi, baiña bai, eta ugarri, «Ibaizabal»-en. Ona zerk eraginda asi zan. Kirikiño zan, Azkue'kin batera, bilbotar agerkari «Ibaizabal» zeritzaionaren artezkari, ta bere 6'garren gelan, 1902-2-9'an, bertso-batzaldiak iragarri zituen. Bertsolarientzako gaiak aldizkariak berak jarriko. Lenengo gaia au izan zan: «Taberneruen bizimodua». Batzaldian esku artu nai zutenai aste beteko epea ematen zitzairen. Au ere esaten zuen: «Ez etorri, mutillak, negarrez edo serio; bertso alai edo alegreak egin eizuez». Zein-geiagoka auek etziran Euskalerrian entzute aundiko ziran bertsogiñentzat, ez-egagunentzat baizik.

Bigarren batzaldiak gai oni buruzko bertsoak eskatzen zitun: «Tanbolinteruen bizimodua». Ainbat lan eldu ziran Bizkaitik eta Gipuzkoatik, baiña «euron artean bi dagoz ederto egiñak eta biai lenengo saria emotea erabagi dabe batzaldien ardurea daukeen jaunak». Gregorio Muxika ta Errenderi'ko Enrike Elizetxea ziran bi auek. Aurrerantzean, idazlan ugari azaldu zuen «Ibaizabal»-en, 1902-03'garren bi urteetan beñik-bein.

1902'an auek agertzen dira: 1) *Tanbolinteruaren bizimodua* (11 geia, 3 orr.); 2) *Ipuiak*, bertsoz: a) *Aizak Praisku*, ta b) *Joxe Lorentxo* (11 geia, 4 orr.); 3) *Aguazillaren bizimodua* (13 geia, 3 orr.); 4) *Neskazarrak* (15 geia, 2 orr.); 5) *Ori griña!* (16 geia, 2 orr.); 6) *Asto jabea* (17 geia, 4 orr.); 7) *Iru lapurrak* (18 geia, 2 orr.); 8) *Zakur gaixua* (18 geia, 3 orr.); 9) *Neskazarrari* (19 geia, 1 orr.); 10) *Karabineroak* (19 geia, 2 orr.); 11) *Nola...* (20 geia, 3 orr.); 12) *Mutilzarrak* (23 geia, 3 orr.); 13) *Arkakusoa* (24 geia, 1 orr.); 14) *Erreteriatik* (25 geia, 3 orr.); 15) *Aizeri bi!* (25 geia, 4 orr.); 16) *Sargenúa eta soldadua* (26 geia, 3 orr.); 17) *Mendiz-mendi* (26 geia, 3 orr.); 18) *Gau batean* (26 geia, 4 orr.); 19) *Bein* (27 geia, 4 orr.); 20) *Olloak eta arrautzak* (28 geia, 1 orr.); 21) *Egia ote da?* (28 geia, 3 orr.); 22) *Jauregi danbolinteruari* (29 geia, 3 orr.); 23) *Mutil pizkorra!* (30 geia, 2 orr.); 24) *Ordikeria* (31 geia, 2 orr.); 25) *Erreteritik* (32 geia, 3 orr.); 26) *Gizon sinisgatx batek* (34 geia, 4 orr.); 27) *Igarkizunak* (36 geia, 4 orr.); 28) *Bat bi* (38 geia, 4 orr.); 29) *Bein topatu zuten* (39 geia, 4 orr.); 30) *Amagiarrereba eta sua* (40 geia, 2 orr.); 31) *Baí-bi*, igarkizuna (41 geia, 4 orr.); 32) *Gaitzik aundiena...* (43 geia, 3 orr.); 33) *Zijoazela* (43 geia, 4 orr.); 314) *Erreteritik* (44 geia, 3 orr.); 35) *Erreteritik* (44 geia, 3 orr.); 36) *Igarkizunak* (45 geia, 4 orr.); 37) *Ez dute ilko* (49 geia, 3 orr.); 38) *Erreteritik* (50 geia, 3 orr.).

1903'an, ordea, auek: 1) *Karidadea* (53 geia, 3 orr.); 2) *Igarkizunaren epaiak* (53 geia, 4 orr.); 3) *Erreteritik* (56 geia, 3 orr.); 4) *Erreteritik* (57 geia, 3 orr.); 5) *Erreteritik* (59 geia, 2 orr.); 6) *Erreteritik* (61 geia, 2 orr.); 7) *Beti euskaldun* (62 geia, 1 orr.); 8) *Erreteritik* (63 geia, 4 orr.); 9) *Donostiko Brechan gertatua* (65 geia, 2 orr.); 10) *Urte askuan* (66 geia, 2 orr.); 11) *Izkirimiriak* (66 geia, 4 orr.); 12) *Bi gezurti* (71 geia, 2 orr.); 13) *Albiste pozgarriak* (73 geia, 2 orr.); 14) *Izkirimiriak*, bertsoan (73 geia, 4 orr.); 15) *Propositu firmea* (76 geia, 2 orr.); 16) *Sagardotegian* (78 geia, 3 orr.); 17) *Gertaera bat* (80 geia, 2 orr.); 18) *Santa Maria Magdalena* (81 geia,

1 orr.); 19) *Itxasoan* (82 gela, 2 orr.); 20) *Errenteritik* (85 gela, 3 orr.); 21) *Errenteritik* (86 gela, 2 orr.); 22) *Errenteritik* (88 geia, 3 orr.); 23) *Ama Birjiña Guadalupekoari* (90 geia, 1 orr.); 23) *Errenteria* (92 geia, 4 orr.); 24) *Gerra ta pakia* (95 geia, 1 orr.); 25) *Euskal-frantzesai*, berrogei pezetako saria ta bitezarrira Irun'en irabazitakoa (99 geia, 2 orr.); 26) *Santo Tomas eguna Donostian* (102 geia, 3 orr.).

Erdiak lez olerkiak dituzu, ta besteak, igarkizunak, Erren-deri'ko izparrak, ipuiak eta abar. Poliki daki luma erabilten. Orduko oiturak ere txairo dizkigu mamitzen. Ona, eredu bezela, zati au, *Sagardotegian* deritzan lanetik artua:

«Ezin ukatu liteken gauza da zezenak, dantzak, biltoki edo teatroak, kafeak eta beste gañerako festa guztiak dituztela beren aldeko jende edo eskudatariak, pozez utziko lutekenak mundu-ko edozein gauza, berak maitatzen duten jostaketa ura baño.

Ori bera gertatzen da sagardo zaleakin ere. Ez luteke trukatuko ezerengatik sagardotegiko alkia. Oso euskaldun gitxi izango dira, parerik gabeko gure edari ederrarekin beren eztarri legorrak bustitzen ez dituztenak, eta egunero ordu bat edo beste kupel inguruan igarotzen ez dutenak, batzuek umore ederrean kontatuaz askotan sinistu ezin litezken *bolak*, besteak jokatuaz tokan sagardotegi atarian baso edo edontzi batzuek; edo belar berde eta presko gañean eserita, kazuela aundi jakiz betetako baten inguruan; eta ez gutxi bertsolariak batbatentan moldatzen dituzten bersoakin gozatzen algara galanki egiñaz, bada gauza jakiña da bersolariak beti topatzea sagardotegi guztietan.

'• Ezin eskatu diteke au baño berdintasun geiago iñon ere. Sagardotegian denak dira berdiñak. Boina, blusa ta abarketa-dunak ikututzen du bere ukalondoakin, txapela, txamarra ta zapataduna, eta batek ustutzen duan baso artan bertan edaten du segituan bestiak, urez betetako tiñakuan sartu-atera bat bakarra eginda, eta pozik kupelategiko atean txanda etorri ta arrapatzen

danean, basoa naiz ez izan betea, batak eta besteak bulkaka erdi ustutzen dutelako! Eta au beti gertatzen da saltzen dagon sagardoa ona danean» (*Ibaizabal*, 1903, 78 gela, 3 orr.).

Merezi luke lan guztiak bateratu ta «Auspoa» bilduman edo, argitara eroatea.

(Ikus «Ibaizabal», 1902-1903'an; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia*. III, 120 orr.).

47.—INAZIO BELAUSTEGI ITURBE (1873-1952)

Apaiza. Urretxua'n jaioa, 1873-7-30'an. Bere aitamak: Jose Aingeru ta Anastasi. Gazteiz'en il zan 1952'an, 79 urtekin, eta bere jaioterrian lurra eman zioten.

EUSKAL LANA.—Euskeraz ta erderaz idatzi zuen. Eder ziztaizkion euskal erriko gizaseme langille ta argiak, eta auek goratu zitun baitik bat bere idazlanetan. Donosti'ko «Euskal-Erria»-n azaldu zizkigun bere lanik geienak, 1899'tik 1905'ra. Ona batzuk:

a) *Euskerazkoak*: Lenengo, 1899'an, iraillaren 16 ta 17'an euskal jaiak ospatu ziran eta Inazio Belaustegi'ren lan auek izan ziran sarituak: 1) *Zumarraga-ko erri eta bere seme ospatsuben kondaira eta doqyák* eta 2) *Antigua-ko eleizachoaren Kondaira* (Euskal-Erria, 243 orr.). Gero, 1900'an, Zumaia'ko euskal jaiak, iraillaren 22'tik 24'ra, Lore-Joku Batzordeak eta Gipuzkoa'ko Aldundiak eratuta. Erri osoak ospatu zitun jaiok; erri-sarreran lore ta abarrezko uztai aundiak jarri zituzten onelako idazkunekin: «Bizi bedi euskera.—Gipuzkoako ekautari jaunari —eta Euskal itz-jostaldien Batzarreari— Zumayako erriyak». Eta besteok: «Erbesteko anayak: Ongi etorriak zaitezteela Zumayako euskal festetara». Era askotako saioak egin ziran: bertsolarienak, idazleenak, irakurleenak, aurren irakur-idazleenak, dantzarienak,

aizkolarienak eta abar. Idazleen artetik, Iñazio Belaustegi'ren *Zumaya-ko erri ta bere gogoangarri'en kondaira-k* artu zuen lenengo saria.

b) *Erderazkoak*: 1) Antonio Trueba. *Estudio crítico biográfico* (Euskal-Erria, 1900); 2) *Apuntes necrológicos*. D. Justo Artiz y Aizola (E. E., 1900); 3) *Euskaros ilustres*. D. Francisco Ignacio de Lardizabal (E. E., 1901); 4) Echegaray, C: *De mi país* (E. E., 1901); 5) Gamboa, J.: *Aitona, Aitona!* (E. E., 1902); 6) Gorosabel, P.: *Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa* (E. E., 1902); 7) Lizaso, D.: *Nobiliario* (E. E., 1902); 8) *Un bascongado y el autor del «Quijote»*: Ipiñarrieta y Cervantes (E. E., 1905); 9) *El Bardo Euskaro Iparragirre* (Durango, 1920); 10) *Noticia histórica de la Villa de Zumárraga, con la biografía de sus hijos ilustres* (Tolosa, 1900), eta abar.

(Ikus *Euskal-Erria*, 1900, XLII, 530 orr. ta XVIII, 257 orr.; G. Gariga, *Bol. Amer. E. V.*, 1952, 189 ta 192 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliografía*, I, 538 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 331 orr.).

...

48.—ARANTZADI ETXEBERRIA'TAR ENGARTZI (1873-1937)

Donostia'n jaio zan 1873-4-16'an. Lege-gizona. Tolosa'ko eskolapioetan ikasi zitun lenengo ikaskizunak eta asi-masiak, gero Salamanka'n eta Deusto'n Eskubide ta Jakintza-elertietakoak osoturik. Gipuzkoa'ko Diputazioan letradu izan zan Bilbao'ra aldatu zan arte.

Idazle punterengoa, erderaz batez ere. Zorrotz darabil luma. 1907'an asi zan atertu barik idazten; euskal erriketa, gure jatorki-etxe ta baserri-arazoak, euskal gizarte auziak ziran biotzez maite zitunak.

Auek dituzu aren idatzirik beñenak:

1) *La Nación Vasca* (Bilbao, 1918); Grijelmo'ren irarko-

lan. 195 orrialde. 1931'an argitaratu zuten berriz ere. Arana-Goiri'ri eskeintzen dio liburua, onela mintzaturik: «Ezpazindun Goiko-Jaunak bidaldu, euzko erria gaizkatzeko, aberritik urrun izango giñan gaur, gure ama zoragarri onen eriotziyan, parre ta algara jariyo, ero batzuek lez... Zuregatik aberriaren magal gozuan gaude gaur, bere umiak lez, ama bakarra maitatzeko; ta euzko semiak bere eskubidiak eta bere aintzaren aldez biar danari ekiteko». Pizkundia Euzko-Argitaldaria ager-azi zuen.

2) *La Casa Solar vasca* (Zarautz, 1932). 324 orrialde. Paul deunak Timoteo'ri idatzi zizkion itzok artu zituen gai-burutzat: «Beretarren eta batez ere etxekoen ardurarik ez dunak, siñis-teari uko egin dio, ta siñisgabekoa baño gaiztoagoa da» (Tim., V, 8). Zortzi ataletan ederki asko aztertzen ditu euskal etxeari ta abizenari buruzko gorabera guztiak.

3) *Ereintza* (Zarautz, 1935). 351 orrialde.

«Euzkadi» egunerokoan atera zitun millaka asko artikulua. «Kizkitza» izen-ordea erabilli oi zuen geien bat. Ederto zekin euskeraz; libururik, ordea, etzuen euskeraz argitara eman, naiz-ta bai liburu-sarrerak, omenaldiak eta abar. Txasta ezazu *Esku-Egundiya-n* datorren gure eleari buruzko apurño au, «Maite degu» deritzana:

«Euzko-abendaren elia dalako, Euzkadi'ren elia dalako, maite degu euzkera. Euzko-odola, Aberriyaren izakera, gure iza-kera, arrotz-kutsu guztiyagandik zaindu dubelako; itxaso loitsu-bak-gandik, gatz apur bat bezela, osorik, jator, abenda eder au, euki dubelako, euzkera maite degu.

Euzko azkatasuna, gure lurrari berez zor zayona, erri guz-tiyan artian, gure Euzkadi'ri zuzen, agurgarri, txalogarri azal-tzen laga diyon azkatasun ori, zaindu dubelako, maite degu euz-kera. Gure oitura bikain errugabiak, zaindu ditubelako, euzkera maite degu. Sinismen katolikua, Euzkadi'ren sinismena, Ara-lar'ko elurra bezin zuriya ta garbiya, Itzarraitz'ko arkaitzak be-zin sendua, Erniyo'ko baso loria bezin atseginkorra, Aitzkorri

tontorreko aide mía bezin osasungarriya, euzko soro, ibar, arro, erriyetan, zaindu dubelako, maite degu euzkera» (*Esku-Egundiya*, 1910, 73 orr.).

Bilbao'n, zeinbat urtetan lan egin zuen uriburuan, itzali zitzaigun, 1937-2-12'an, 64 urteko zala.

(Ikus *Esku-Egundiya*, 1910, 73 orr.; Auñamendi, *Diccionario Enciclopédico vasco*, II, 249 orr., ta *Literatura*, III, 186 orr.; *Bizkaiko begiragarria*, Bilbao, 1934, XVIII orr.; *Libro de Oro*, 1934; *Euskalerriaren Alde*, 1931, 281 orr.; *Euskal Esnalea*, 1930, XX, 125 orr.; *Hermes*, 1919, III, 415 orr.).

49.—PEDRO LUIS ZALOÑA (1873-1944)

Gizakume argi eragillea. Aretxabaleta'n sortua dugu 1873-2-10'an. Mutiko zala onbideral<o deia somaturik, prantziskotar jantzia eskatu zuen, 1889-3-20'an praille ziñitzak egiñaz. Eliz-ikasketak azkar bezin egoki bukatutakoan, apaiz-mailla artu zuen 1897-4-3'an.

Gero, irakasle bezela, jakintza (filosopia) erakutsi zien urteetan ordenako ikasle gazteai; auen azle ta maixu ere izan zitzaigun. Orretzaz gaiñera, sei aldiz komentuko nagusi ta birritan Aita Probintzialaren Aolkulari, ots, Definidore.

EUSKAL LANA.—Euskal sailletik pixkat aldendutako zeregiñetan ia beti ibillita ere, etzuen bere amak erakutsitako euskera gozoa aitzu, eta al zuenean euskerari ekiten zion, itzez ta idatziz. Ona aren lanik ozenenak :

1) 1918'an, Zarautz'eko komentuan irakurri zuen *Itzaldia* (*Euskal Esnalea*, 1918).

2) *Birjiña Arantzazukoaren Kondaira ta Bederatziurrena* (Bilbao, 1903). 96 orrialde. Bigarrenez ere argitaldu zan titulu onekin: *Arantzazu'ko Ama Birjiñaren Kondaira ta Bederatziurrena* (Arantzazu, 1921). 120-V orrialde. Itzaurrean au dio egi-leak:

«Kondaira ez da luze-luzea; baña zuri, Arantzazu'ko gertaera miragarriez, zerbait berri emateko naikoa bai, liburutxo au lodiegi aterako zitzaidan bildurrak gauz asko ixil-erazo badizkit ere,.. Ezer ez dutela balio esango dezu, eta bidez noski; baña, barkatu, errurik geiena nerea ez da-ta; goiko agindua artaratu ezpanindu, nik ez nuala iñoiz nere luma moldakaitza paperean ezarriko, ondo daki Jaungoikoak. Gañera, jakizu, liburutxo au idazti-batzaldietan saria irabazteko egiña ezta, Arantzazu'ko Ama Birjiñaren jayera Euskalerrian geitu ta zabaltzeko baizik; eta zure biotzean Ama maitagarri onenganako debozioa piskabat geyago sutu ta irazekitzen badu, euskaltzale ergel guzien esamesak ardura gabe naukate.

Baña orregatik, Kondairan dagokionez, neronek asmatutako gauzen batzuek emen arkituko dituzunik, ez uste izan. Ez, idatziko dedan guzia, Arantzazu'ko kondaira ta idazti zar da berrietatik, kontuz eta arduraz, aterea izango da; eta orañagoko gertaerai dagokienez berriz, neronek ikusi dedana edo galdetuta idoro ta agertu dedana, bakarrik, aitatu det. Beragatikan, gezurrik edo ipui konturik emen jarriko dedan bildurrik gabe, bazauteke».

Euskera gozo, arin ta txukunean idazten dizkigu Arantzazu'ko gorabera guztiak. Arantzazu ezta edozein mendi, edozein toki, santutegi bat baiño; ara doazten erromesak, beraz, ba-dakite nola jokatu bear duten.

(Ikus Juan Ruiz Larrinaga, *Homenaje...*; *Ibaizabal*, 1903-11-22; L. Villasante, HLV, 317 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1961, 41 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 259 orr.).

50.—RAMON GELBENTZU TA IRIBAR (...1897...)

Donostiarra dugu bi gizaldi uztartean olerkia txiraian ze-riola bizi izan zan gizakume au.

1897'tik 1915'ra bitartean Donostiko «Euskal-Erria» aldizkarian atera zitun bere idazlanak. Bilbao'ko «Euskalzale»-n, os-tera, olerki auek argitara zizkigun, 1898'an; «Auxen da buru-nastea!», «Lagundu al degun arte», «Txoritxuen naia ta una» ta «Maitea». Eta «Ibaizabal'en», (1902-03) auek; «Euskera bizi dedilla», «Zer naitasuna», «Euskal-Erriko Aritza», «Rosario Artola», «Ez daude etorririk berriz Donostira», «Kirkirrak», «Fida adi!», «Soldadu baten etorrera», «Agur Oñati-ri», «P. M.'ri», «Kanpo santuan», «Aur zoragarriya!» ta «Mundu zora-garria».

Esku-bizkorrez era-bitxituta dauzkazu denak. Ona, adibidez, zein xaloki azaltzen digun alargunak eta umezurtzak munduan dituzten sentipenak.

Aur txikia nintzanean
amatxoren magalean,
besarka eta muxu artean
egoten nintzan pakean;
maite nuan biotzean,
bai nik bera ere nerean.

Baten kontu kontari
amak esan ziran neri:
«Zuk illabete izan baiñan len
aitak muiñ emanik zuri,
joan zan itsasora larri...
Ta ezta oraindik etorri...!»

Geroztik nik begiak
nere egunen egille ura
ikusteko egarriak
etxeratzen nau larriak...
Ta erresatzera biak...!

Ta gauero, uste osoz gaiñezka, otoitz dagite amak eta semeak; baita txaluparik kaian sartzen baldin ba'da, aren ondoren ama ta biak abiatu ere. Ta aitarik ez ikustean, arra dute barnean ozka. Gomutagarri lez, ba-du umezurtzak irudi eder bat.

Oroitza oso polita
daukat aitaxok utzita;
bera da Aita San Antonio
lora fiñez estalita;
gelan an daukat jarrita
oroitzen didala... aita!

Ba-ditu beste lan bitxiak, *Ibaizabal'en* eman zituen igarkizunak batez ere. Ona zer *da-ka* asten dana.

Bata, bia ta laua
izanik *gaztea*
zer zeran esan eta
ba-nua bestea.

Irua eta laua
gañera da *lua*
eta azkenik dezu
dena *Gaztelua*.

Azkue ta Kirikiño'k jartzen zituzten onako batzaldiak, jaikingarriak noski.

Garai aretan ospatzen ziran euskal jaietako norgeiagoka askotan irabazi zuen saria. Azkoiti'ko jaietan (1910) azkena, bere *Gajua* lanarekin.

(Ikus S. Onaindia, MEOE, 391 orr.; Auñamendi, *Literatura* II, 193 orr.).

51.—LUIS ELEIZALDE BREÑOSA (1873-1923)

Eleizalde'tar Koldobika Bergara'n jaio zan 1873-6-9'an. Lenngo ta bigarren ikaskintzak bere errian osotu zitun; batxiller ikasten ere berton asi zan, gero, 189rtik 1894'ra Zaragoza'n amaiturik; goi-ikasteak Zaragoza'n eta Madrid'en egin zizkigun, Lizenziadu titulua lorturik. 1905'an, Gazteiz'ko Ikastetxe nagusian matematika-irakastegia iritxi zuen norgeiagoka larrian. Bizkai'ko Diputazioak, baiña, bertoko ikaskintzaren arduradun jarri zuen andik lasterxe, ta Bilbao'ra etorri bearra izan zuen bizi izaten. Pozik etorri zan Bilbao'ra, batez ere, berak esan zuenez, «emendik jalgitzen zan euskal bizitzazko eragin sendoagatik».

Euskal arlo guztitaz kezkatu, ementxe bizi izan zan langille, eriotzararte bizi ere. Orduko euskaltzale danakin zuen armana. Urte luzeetan berak zuzendu zuen Arana-Goiri'k sorturiko «Euzkadi» aldizkari mamitsua. 1907'an asi zan RIEV-en ere idazten. Politika iritzietan, gaztetan karlatarra ba'zan ere, gero abertzale porrokatu egin zan, euskal erriari zion maite-sua aurrera eramateko batez ere. Euskaltzain izentatu zuen Oñati'ko batzarrean, 1918-9-5'an, Azkue, Kanpion eta Urkixo'rekin batera, guztien abotsez. Idatzain egin zuten. Ondoren etorri ziran gaiñerakoak.

Bilbao'n il zan 1923-7-24'an, eta bere gorpuari Bermeo'n lurra eman zioten.

BERE EUSKAL LANA.—Ainitz urtetan izan zan «Euzkadi» aldizkariaren artezkari; ainbat iritzi-emate, arte-kontu ta zer bikain askoz gaiñera, lan asko atera zituen bertan, beti sakon eta maixuki. Axe izen ordea erabilten zigun sarri. Ona erderaz ta euskeraz azaldu zuenetik sailtxo bat:

a) *Erderaz*: 1) *Apuntes para una teoría de las figuras circulares* (Madrid, 1904); 2) *Notas acerca del léxico y de las flexiones simples del P. Mendiburu en su obra «Otoitz gayak-»* (RIEV,

1907); 3) *Raza, lengua y nación vascas* (Bilbao, 1911); 4) *Morfología de la conjugación vasca sintética* (Bilbao, 1913); 5) *Países y razas* (Bilbao, 1914); 6) *Landibar, cuadros novelescos del País Vasci* (Gazteiz, 1918), 378 orr.; 7) *La lucha por el idioma propio* (Bilbao, 1919); 8) *Cuatro Conferencias* (Bilbao, 226 orr.); 9) *Metodología para la restauración del Euzkera* (Bilbao, 1919); 10) *El problema de la Enseñanza en el País Vasco* (Bilbao, 1919), «Primer Congreso de Estudios Vascos» deritzan liburuan datoz bi lanok; 11) *Listas alfabéticas de voces toponímicas vascas* (RIEV-en daude 1922'tik aurrera); 12) *De la Conjugación sintética* (Euzkadi, 1914, 2 orrialdetik aurrera). Onez gaiñera, euskerari buruzko lan ugari azaldu zitun «Euzkadi»-n, «Jel»-en, «Riev»-en5 «Euskal Eснаlea»-n eta abar.

b) *Euskeraz*: 1) Walter Scott'en *Halidon Hill - Halidon Murua* (Bilbao, 1912), «Euzkadi» aldizkarian; 2) «Esku-Egundiya»-n datorren *Ortze-gayak* (Irun, 1910) lana; 3) *Kisto'ren Antz-bidea*. Kempis euskeraz. «Euzkadi»-n (1913) datoz zati batzuk; geiegi darabil bear bada aditz sintetikua, bestelan ondo itzilita dago; 4) «Euzkadi» aldizkarian azaldu zitun olerki batzuk (MEOE, 797 orr.); 5) *Zaldi baltza* (Euzkadi, 1914, 317 orr.); 6) *Gurutze Deunaren Bidea* (Bilbao, 1917), Porto Mauricio'tar Lonarta Deunak idatzi ebanaren lez. Bizkaieraz. «Jaungoiko-Zale»-ren idatzia, Grijelmo-Alargun eta semien irarkolan argitaratua. Jesus'en Biotzaren Deya'k onela: «Euskera garbi ta argiaz idatzita, biotz barru-barruraino sartzeko otoitz-gai ederak daukaz» (1917, 127 orr.).

Indair aundia izan dute gure literaturan Eleizalde'k osotu zizkigun lanak. Berebiziko garrantzia ezarri zion aditz gogor, sentetikuari; geiegi bear bada. Gaur gutxi baiño ez ditugu orre-la jokutzen, aintziñako euskal idazleak nasaia go jardun zuten arren. Aditz trinkoa larregi erabilteak bere makurrak ditu, itxurara danez; olerkian ala ere, asko laguntzen du aditz orrek, au da, *dakust* —ikusten dut—, *dager* —agertzen da—, *naror* —erortzen naiz— ta antzekoak. Baiña ontan ere apurka jokatu bearra

dugu, gogaikarri egin ez gaitezen. Eleizalde'k uste zuen aditz guztiak dutela joko sintetikua, bokalean edo j'rekin asiak ba'dira beintzat; *artu'úk*, adibidez, *dari* —artzen dut—, *erorri'tik naror* —erortzen naiz— dagi berak.

Itz bitan, gizon jakintsua genduan Eleizalde'tar Koldobika. Berau il zanean, J. Urkixo'k onela idatzi zuen: «Bere eriotzaz, Eusko-Ikaskuntza'k euslaririk onenatariko bat galtzen du, Euskalerriak gizaseme buru argi bat, eta prestutasunez orbangabea, eta guk langille bizkor ta adiskide on bat» (RIEV, 1923, 697 orrialde).

Eusko-toponimi-saillean buru-belarri sarturik zebillen azken urteetan. Baiña Balbe txarraren berdingilloak pitzatu zion lepoa, ustekabean noski.

(Ikus J. Urkixo, RIEV, XIV, 695 orr.; *Euskal Esnalea*, 1923, 139 orr.; *Euskera*, 1919-1920, 24 orr.; *Euzkadi*, egunerokoa, Bilbao, 1934-6-16; S. Onaindia, MEOE, 797 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1960, 65 orr.; L. Villasante, HLV, 325 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 280 orr.).

52.—R. I. BASTERRARENA (... 1899...)

1899'ko iraillaren 9 ta IO'ean euskal jaiak ospatu ziran Aramaio'n. Ugari batu zan jendea, bertako kale ta bazterrak bete-bete egiñik. Otxandio'ko abestalde batek Gorriti'ren *si* bemoleko meza abestu zuen. An zeuden aber-gorri ta zurdabereen jau-beak, lasterkari, zantzolari, albokari, bertsolari, txistulari, gorulari, aureskulari, ezpata-dantzari, pedardun eta gaiñetikoak. Onela dio gertaera ura jaitzeko egin zan egitarauak.

Bertso-auzian R. I. Basterrarena'ren *Uxo zerutar bat'ek* irabazi zuen lenengo saria. 77 bertso ditu poesi dalakoak. Ba-du egilleak irudimena, ta jasa, koplak biribiltzen. Irakur lerro auek erditik lez artuta. Olerkariak Usoa dakus zeruan, eder, zoragarrri. Norantza doa? Igaro ditu, lurbira zear, baso ta landa, ibar ta erritalde asko.

Eta dijoa txori laztana odol beltzen albotik,
 batak besteak baiñan aguro bidea igaro nairik.
 Itsaso zabal neurri gabea utzi du ere atzetik,
 ta al dakizute uxo ederra non arkitzen dan geldirik,
 bere egoak ondo poliki bizkar gaiñean itxirik?
 Al dakizute nongo asmoaz jetsi dan egan zerutik,
 ote dan iñon txoriarentzat lurbira denan lekurik,
 uxo ederrak merezi duen ostatu berdin gaberik?...
 Non gelditu da uxo laztana elur margoaz jantzirik
 zeruko albistak dituelarik zintzilik bere mokotik?
 —Euskalerrian... ta dagoela bertan luzaro oraindik!

Emen ere bat geiago, esan bear, nor dan ez dakiguna.

53.—ETA BESTE PUSKETA AUEK

Azal-erzka begiratu ezkerro, ba liteke gora aundirik ez izatea
 pusketa auek; guk, ala ere, geure literatura osotu nai baldin
 ba'dugu, gizaldiak zear idatzi dan guztia berebiziko axolaz jaso
 ta gorde bearra daukagu. Aipamena, beraz, merezi dute ondoren
 jarriko diran lanok.

- 1) *Cembait santuaren bicitzac* (Donosti, 1843).
- 2) *Ama Santa Teresa de Jesus carmengo erligioaren re-*
 komentuan bertan santuki il zan 1956-6-20'an, 82 urtetan.
- 3) *Calbarioac bisitatzeco orado egoquiac* (Tolosa, 1899).
- 4) *Eusquerazco manuala sacramentuen gañeco erakusal-*
diac (Bergara, 1850). 238 orrialde.
- 5) *Maria Santisimaren mayatzeko illa...* (Bergara, 1850).
 135 orrialde. 1861 eta 1877'an ere argitaratu zan.
- 6) *Aldareco sacramentu chit santuari* (Donosti, 1856).
- 7) *Jesusen Biotz sagraduaren honran* (Tolosa, 1857).

- 8) *Maria Santisimaren amodio ederraren nobena* (Tolosa,
- 9) *Visita egunerocoac aldareco sacramentu sanñiari* (Tolosa, 1859). Alfonso M. Ligorio'rena. 264 orrialde. 1867 ta 1883'an ere azaldu zan.
- 10) *Mutilchoai beren animen oneraco* (Azpeitia, 1864). 84 orrialde. Berdin, *Doncellai aviso chit on prochugarriac* (Azpeitia, 1864) eta *Errosario chit santuaren devocioa* (Azpeitia, 1864) ere. A. M. Claret'enak irurok, euskal apaiz batek euskeraz jarrita.
- 11) *fubileoaren liburuchoa nun azalduac dauden...* (Donosti, 1865).
- 12) *Amorezco eta dolorezco Jesucristoren pausoac* (Tolosa, 1865). 57 orrialde. 1869, 1875 ta 1882'an ere azaldua.
- 13) *Santa Genovevaren vicitza antziñaco demboretaco condairen ederrenetaco bat* (Tolosa, 1868). 140 orrialde. 1882 eta 1889'an ere argitara emana.
- 14) *Cristinauvarentzat perla ederra* (Tolosa, 1877). 146 orrialde. 1877, 1882, 1884 ta 1886'an ere azaldua.
- 15) *Euskal umiaren ceruraco laguna* (Tolosa, 1879). 234 orrialde.
- 16) *Euskal-izkribatzalleen indar-neurtzea* (Donosti, 1879). 48 orrialde.
- 17) *Euskerazko itz-jostaldiak* (Donostia); 1880, 1881, 1883, 1886, 1887, 1888, 1889, 1890 ta 1891'an agertu zan.
- 18) *Jesus eta Mariaren billeracoentzat itz-neurtuhac* (Tolosa, 1881). 128 orrialde.
- 19) J. M. J.: *San Joseren atsekabe eta atsegiñak* (Donosti, 1882). 110 orrialde.
- 20) *Aldareco sacramentu chit santuari ta Maria...* (Tolosa, 1883). .,
- 21) *Guizadiaren eta batez ere ichas-guizon izar eder eta*

laguntza heretacoa dan Ama Virginia Izar-coaren condairachoa (Tolosa, 1884). 392 orrialde. Frantzisko Maria Gorostegi'k euskeraz jarria.

22) *Ceruco arguiya edo ondo pensatu! berriya* (Tolosa, 1885). 250 orrialde. Migel Ulzurrun'ek euskeraztua.

23) *Manterolari* (Donosti, 1885). 64 orrialde. Askoren artean.

24) *1887 garren urterako egunaria* (Donosti, 1886). 44 orrialde. Urrengo urtean ere atera zuten.

25) F. Zuloaga: *Kontuchoak* (Donosti, 1886). 187 orrialde.

26) *Euskal-Erriak aita santuari* (Tolosa, 1887). 50 orrialde. Leon XIII'garrenari, bere urrezko eztaiak zirala-ta, eskeiñitako olerkiak gipuzkeraz, naparreraz ta bizkaieraz.

27) *Aita San Antonio gloriosoaren bicitza* (Tolosa, 1889). 56 orrialde.

28) *San Joseren zazpi igandeetako jayera* (Tolosa, 1890). 338 orrialde.

29) *Cristauaren eguneroco ejercicio edo escu-liburua* (Tolosa, 1890). 438 orrialde.

30) *San Inazio ta bere Eche Santuba edo Loyolako Berriak* (Tolosa, 1891). 50 orrialde.

31) *Maria Virginia dolorezcoaren letaniac* (Tolosa, 1891). 84 orrialde.

32) *San Miguel goiangeru excelsiscoaren...* (Tolosa, 1891). 46 orrialde. J. L. A. J. A.'c egiña.

33) *Cristaubaren aingura...* (Tolosa, 1893). 261 orrialde.

34) *Ceruco izarra, ceñetan argituten...* (Tolosa, 1893). Bi ale: lenengoak 239 orrialde ta bigarrenak 223.

35) *Purgatorioco arimen novena* (Tolosa, 1894). 41 orrialde.

36) *Josecho, gure biotz guztiko seme maite maitegarriari* (Donosti, 1896). Bere gurasoak. 31 orrialde.

37) *Errosario chit santuaren devocioa Trajanopolis-co Jaun D. Antonio Maria Claret-ec erderaz ipiña, eta apaiz jaun baten agunduz eusquerera itzulia* (Azpeitia, 1864). 38 orrialde.

38) Zirilo Erkizia. Etzuen askorik idatzi, baiña ba-ditu olerki batzuk Donosti'ko «Euskal-Erria» aldizkarian; adibidez: *Astua, euliya eta armiarma* (1888, XVIII, 29 orr.) eta *Ill zan* (1889, XXI, 184 orr.). Ikus S. Onaindia MEOE, 393 orrialdean.

34) *Ernani-co Abade Jaunak euskeraz ta erderaz, igaro dan illaren 26-an asko eta askoren aurrean esan ebana, gure Foruen alde eta onen arerio eusqueldunac gaitic* (Durango, 1905). Soloaga'ren moldiztegian. Alfonso Maria Zabala'rena omen da abertzaleen aurkako itzaldi au.

35) *Erru gabeko Birgiña Amari bere sortze garbiyaren fedeko aitormenaren berrogoi ta amar-garren urteko jubiliyuan, Donostiyako San Bizenteko beraren Billerako alabak kantatu laudariyuen oroimena* (Donostia, 1904). 15 orrialde.

36) *Escabide birauen kitugarriaco* (Azpeitia, 1888). 6 orrialde.

Bidaso 'z andikoak

1895-1920

«Euskeraren batasuna egitea, urte askotarako lana dala edonok dakus; baña urte askotarako diran lanak, urrengorako itxi barik, biar baño gaur asi obe da. Garean euskaldun gitxi-gitxok, beste izkuntza indartsu bi darabillezan erri andiz inguratuta gagoz; ertz guztiak artu dauskuez, alde guztietatik euskerari saka ta bultz egiten dautse. Orrelan gagozala, geuk euskaldunok ondo alkar artu barik, geure indar oro euskeraren alde lotu barik, luzaro eutsi ta iraunazoko dautsagula uste daunak, begiak zabalik ames dagi.-»

{J. B. Eguzkitza, 1921)

LABURPEN

Gabiltzan euskal literatura aro au, Frantzi aldean beintzat, etzitzai-gula ain emakorra izan, aitortu edo salatu genuen goraxeago. Ta egia dugu. Garai ontako giroa, esan barik doa, etzala batere aukerakoa, ez erlijioari begira, ez elertiari. Gorriak, Paris'eko iraultzaz arro, usu ta basati zebiltzan euskal erriko ipar aldean ere; triskantza ederrak burutu zituzten, or eta emen. Gaitza, izan ere, mendiz beerako arria izan nunbait; ona, berriz, beetik gorakoa bezela. Ta, ez dago zertan esanik, zuriak beti zuur ezpa-dabiltza, gaitzaren goitik beerako zakarrak laster ditu zapaltzen eta suntsitzen onaren zugatz-enbor sendoenak ere.

OIARTZUN LARRIAK.—Giroak, nola dan, lagundu edo-ta poxelu egin oi du literatura-landan: pake-eztitan nare bizi izateak askotan loa ekarri oi du, eta orduan obe da farrastatzen gaitun idizil baten zartakoa. Beste aldetik, egon-eziñak ekarten digun giroa, toki jakiñik gabe, aratonat ibilli bear ba'dugu, ez dira une egokiak lan sakon eta asmutsuak aurrera eramateko.

Emeretzigarren gizaldiaren azkenerantza auxa zan ipar-aldeko euskal errien egoera, katolikuei eta batez ere prailleai buruz. Guztiz artaga zebiltzen auek, noraezean, Paris'etik zetozen oiartzunakin: dana zan zemaia, zigorra, zeuden etxeetatik egotzi bearra. Askok ez zekiten zer nai zuten ere.

Hiriart-Urruti apezka, onela idazten zuen, 1900'an: «Asko aldiz entzuten duzu, aho beretik, nor edo zer bera egun goresten eta bihar gaitzesten. Egun *fuera*, bihar *biba*. Egun ahotaraka laudorio eta espantu, eta bihar?... Bihar xakurrentzat ere ez on. Holako goiti beheti zenbat ez da ikusten bazterretan?» (*Eskualduna*, 1900-12-21).

LAU OLERKARI GOI-GOITIKO.—Aro au, alere, etzitzaigun urria izan olerkaritzan; lau poeta, gaillen esan genezake, sasoi ontakoak dituzu,

bi eliz-gizon eta bi erritar. Zaldubi duzu lenena, «orduak eta orduak bere erria goratzen» jardunik, ari askotako neurtitzak mordoka eio zizkiguna. Bigarrena K. Bekas duzu, J. Barbier'en ustetan, Euskalerriko poetarik onenetarikoa.

Beste biak ere, Ibarrart eta Etxamendi, gure poesi-antoloji geienetan agertzen dira. Aurrena, zapatari zenuen ogibidez, ainbat kopla ozen ta giarren egille. Bigarrena, Jean (Mañex) Etxamendi, Ezterenzubi'ko semea; bere sortetxean nekazaritzari lotuta aunditu ostean, ogei bat urteko zala, Ameriketara ezkur billa joan eta lendabizi Kalifornia'ko oianetan egurgin eta gero Nevada'n artzaia eta azkenez bere erriko alkarte, auzapez, 1895'tik 1954'ra ainbat olerki eder gurutzatu ziguna.

ITZ LAUZ.—Prosaz etzaigu aldikada au, liburuetan beintzat, aurreko mende-gurpillak bezin oparatua izan. Iru erakusburu ba-ditugu, alere, bazter utzi eziñak: Basili Joanategi, Martin Landerretxe ta Hiriart-Urruti.

B. Joanategi praillea duzu, beneditarra. Ordu txarrak, urduriak ikusi bear izan zituen. Etziran ondo ikusiak, eliz-gizonak eta prailleak batez ere. Gaitza saiatzen zuten, eta au beti zaigu gogaikarri. Ederki Hiriart-Urruti'k: «Gaizki bizi denak ez dezake aldean ikus, ez jasan, ongi eta zuzenki bizi dena. Itzal zaio. Ken-ezozue poxolutik».

Martin Landerretxe'k, bere bizitza luzean, lan ixilla baiño gotorra burutu zuen. *Fedearen hedamenerako urtekaria* zeritzana, bi illabete-tik bein, berak atera zigun urteetan. Langille amorratua.

J. Hiriart-Urruti, ordea, maixutza bikaiña egin zuen ipar aldean, idazle ta kazetari onenetarikoa zalarik. «Euskualduna» astekaria zuzendu zuen urte askotan.

OPERA TA POEMA EGILLE.—Aipa ditzagun ontan ere euskaltzale zoli bi: Piarres Harispe, *Karmela*, iru ekitalditako drama, bertsotan ondu zuena; ta Eztebe Decrept; iru opera antolatu zizkigun onek: *Maitena*, *Amatxi* ta *Semetxia*. Euskal operaren asikiñak nunbait.

Auen ondoren betor beste euskaltzale mordoxka bat ere, etxeakoak eta kanpokoak osotua: J. Jaurgain, Amaud Abbadie, J. B. Darrikarrere, B. Konstantin eta onen iUoba Albert, G. HéreUe, Amaud Agirre, J. Xoribit, J. Hegi, K. K. Uhlenbeck, J. Saroihandi ta P. Broussain.

L—GRAZIAN ADEMA, «ZALDUBI» (1828-1907)

Au naiz ura zein-nolakoa dan jakitea, nork ez ote du eder? Adema'z onatx zer dioskun Orixe'k: «1907'garrenean aldegina dugu mundu ontatik euskaldun begi-begiko au. Ezinutzia da naski poetaetan, eta Lafontaine euskalduna izendatua; baino edozein aritarako ere biguina duzu; irakasteko, beroarazteko, irri eginarazteko. Lau zatitara ditezke aren poesiak: Katiximako kantak; alegiak; beste gisako poesi batzuk... badaldt idatzi zuela gainera itz-neurketaz edo bertsoetaz ,eliz-himnoen neurriarekin euskal neurtitzena bekaldetzen zuela. Berak agitz yaioki egoki zuen Asklepiade-neurtitza gure izkuntzara. Ikus *Jesusen azken-afaria*» (Euskal Esnalea 1927, 214 orr.).

BIZI-ZEAZTASUNAK.—Lapurdi'ko Senpere errixka txanbeliñean munduratu zitzaigun Adema, 1828-4-14'an. Arrotz-deitura zeraman bere aitag, Leen-Agintaldia jaustean, Goi-Garona'tik Lapurdi'ko errixka ortara bait zan etorri. Bere amagandik ikasi zuen euskera. Larresoro'n osatu zituen lendabiziko ikasketak, eta Baiona'ko apaiz-ikastetxe nagusian gaiñerakoak. Elizanburu olerkaria izan zuen ikaskide Larresoro'n, eta onekin egin oi zitun bertso-saioak jolasaldietan batez ere; saio auetatik jalgitakoa omen du *Boltijurrak* deritzan abesti ospetsua, eztenkada zulagarriak alkarri emanik. Elizanburu'k utzi zuen ikastetxea azkenik, Adema'k ordea Baiona'n bukatu zitun bere ikastaldi nausiak, euskal musari agur egin gaberikan bukatu ere; 1851'an, an egiña du *Martin eta Katalin*.

Apaiztasuna 1853-12-17'an artu zuen. Artez Larresoro'ko Ikastetxe txikira bialdu zuten maixu. Emen urte bete eginda, Hazparren'go bikario izendatua izan zan 1854'an: alai ta langille, ainbat mesede egin zion errixka oni. 1858'an batez ere sukar-ustela (tifusa) agertu zan Azparren'en, famili batzutan iru ta lau ere galdu zituztelarik: Zaldubi'k, ezen beldur gabe, lan izugarria burutu zuen izurrite artan. Jendeari poza ekartzeko, pilota partidak eratzen omen zituen; eta gaitz-aldi artan il zan *Gaskoina* pelotariak iltzeko ari-arian aurkitzen zala, ospatu zan jokuaeren gorabera guztiak zeazki eraman omen zituen. Dana dala, erriari biotzez lagundu ziolako, izen aundiko biurtu ziztaigun.

Lacroix apezpikuak, 1860-5-26'an, Baigorri'ko erretore izendatu zuen. Eta an ere, eguneroko lanari lotua, zein elizan zein apaiz-etxean, bere egitekoa zeatz betatu zuen. Lumaz ere ez zegoen geldia. Antxe ezagutu zuen Otxalde bertsularia, ta onekin batera osotu zuen 1867'an *Xuriko* kantu abrea, ezeukian bizi ta bein bakarrik ongi janagatik il zan zakur gaxoaren kon-daira kupigarria. 1872'an Atarratze'ko apaiz-buru aukeratu zuten, eta onela idazten digu P. Lafitte'k: «Zuberotarren artean —enda alai, gozo ta kartsua—, Zaldubi oso pozik aurldtzen zan: lenengotan, bear bada, ango izkelgiaren musika tartaiñak naasi ta lardaskatu zion lapurtar joskeraren aunditasun belaskara oitutako belarria; baiña gutxi iraungo zuen onek, eta atsegingarri biurtu zitzaion ango erretxiñol izkeran moldaturiko euskal pent-samentuak aditzea».

Baiona'ko ohore-kalonje egin zuten 1875'an, eta azkenez, tituluzkoa 1890-7-10'tik ara, katedralean. Len ospe aundiko zana gero ta errikotasun indartsuagoa ardietsiaz zioan. Euskaltzale amorratu zanez, ementxe asi zan, asti geiago bait zuen, bere euskerazko lanik ederrenak antolatzen. ere. Ta onek, aren entzute-izpiak mugaz onantza ere bialtzen zitun, eta, ain zuzen ere, 1892'an, Azpeitia'n ospatu ziran euskal jaietan omenaldi ederra eskeiñi zitzaion.

Egin-nai zarra dugu euskera idatziaren batasun estuago bat lortzea. Ortan zebiltzan, gaur bezela, zerbait ziran euskal idazleak. 1901-7-16'an batzar bat eratu zan Endaia'n; gaia: 1) *Euskal ortografiaren batasuna*, ta b) *Euskal Akadémiá sortzeko xedea*. Azkue'k eta beste euskaltzale batzuk, Vinson'ek, Dodgson'ek, Charencey'k, Abartiage'k eta bestek eratua zalako, uts egin zuten. Baiña ospatu zan batzarra eta «Euskal Elerti Bazkuna» —Federación Literaria Vasca— Federation Littéraire Basque zeritzaiona irasi ere bai. Alkarte onen buru Adema Jarri zuten. Onela: Lendakari: Adema; lendakari-ordeak: Kanpion, Arana; idazkari: Guilbeau; diru-zai: Hiriart; aolkulariak: Azkue, Gerra, Arbelbide, Broussain. Bigarren batzarra Ondarrabi'n ospatu zuten 1902'an, euskal ortografiaren batasuna irixteko asmoz batez ere; baiña geroago Euskaltzaindiak beretzat artu zuen idazkera, Arana-Goiri'k batzar artara aurkeztua, batzuen mukerkeria zala bide, etzuten orduan ontzat eman. Lendakariaren erruz, dirudienez, Broussain'ek Azkue'ri zuzenduriko idazki baten irakurtzen dugunez, ez bait zuen jakin gauzak goxo ta gizalegez eramaten. Olerkari goxo izanik ere, trebetasunak uts-egin onako eztabaida bidea egokitzeke. Adema'k, alare, aspalditik zekarren numbait euskal akademi bat sortu naia, ta onetan txalogarri dugu; 1894-4-1'an onela idazten zion Azkue'ri: «Nik, berrogei eta hamar urthe huntan egin kanta eta neurthiz hoberenak laster argitaratuko ditut Jainko onak bizi eta osagarri ematen badarot. Gisa bat edo bertze holako asko lan banuke oraino egiteko: bainan aspaldixkoan adinak eta osasun eskasak nagokate bethi gibela. Hil baino lehen, eta On Abadía jauna hil baino lehen nahi nuke Akademia edo jakintsueri eskuara bat baginagoka Frantziako eta Espainiako Eskualherri guzientzat. Damurik hainbertze Eskualduneri, Fedea, odola ta bihotza flakatzen, hozten eta arrotzen ari zaizkote. Zer lastima!» (Euskera, 1957, 335 orr. . . .)

Ondarrabi'n beste bilkura bat egitekotan ziran; baiña molokot egin zuen. Noren erruz? Ez dakigu. Aranakeriz il zala esa-

tea, errexu dugu. Bi alderdietako joan-etorri, eskutitz eta goraberak zeatz aztatu ezkeroz, aranatarak aña erru izan zuten besteak ere. Dana dala, Arana Goiri ilda gero ere, amabost urte igaro ziran Euskaltzaindia sortu orduko. Arana'k demokrazi bi-detik eraman izan zitun batzarra ta idazkera arazoa; besteak, mugaz andikoak bereziki, gurago zuten goitik beera egiñikako batasuna. Eta temazko auzietan gu euskaldunok, mutillak gara! Bi alderdietakoak boikot egin zioten euskal idazkera batuaren aukerari. Broussain'ek onela idatzi zion Azkue'ri, 1902-2-6'an: «Ni itz berean nago beti. Bermeo'ko eta Bilbo'ko *tarr-dun* guztiak eskubidea izaten badute Ondarrabi'ra joateko edo beintzat beren botoa igortzeko, e'naiz joango. E'naiz bakarra etshean egongo naizena. Arbelbide, Daranatz, Hiriart-Urruty, Darricarrère eta askok eta askok gogamen berbera daukate. Norbaiten erruz edo paltaz gure Congreso gaizki irtetzen ba'da egongo gera ezer egin gabe Academia sortu edo jaio arte. Academia'k egingo du Adema'k ta Guilbeau'k ezin egin duten lana» (*Euskera*, 1957, 377 orr.).

Ondarrabi'ko batzar eguna baiño len, beste bilkura batzuk ospatu nai izan zituzten. Onako bat Donostia'n egin zan. 1902-3-9'an au idazten zion Broussain'ek Azkue'ri: «Egun aratsaldean Arbelbide'k bildu gaitu bere etshean Darricarrère, Daranatz, Lassalle, Hiriart eta ni elgarrekin erabakitzeke zer egin beharko dugun Donostian egun Guilbeau'k eta Adema'k onesten badute Sabino'ren eritzi berria. Atzo Adema gizagaishoa gurekin zen gogoz eta treinean sartu da bihotza sehede onez betea, baina Donostia'ra orduko ez ote da beste bat bilakatu-tuko? Beldur gira Arana'k menturaz bere hitz ederrez bereganatu-tuko duela. «Shori-buru» erraiten deiegu hemen Adema beza-lako gizoner eta ba'dakizu zoin aldakorra dan shoria... Cam-pion'en baitan ezarria dugu gure sinheste guzia. Uste dugu hark azkarki buru eginen dakola Arana'ri» (*Euskera*, 1957, 379 orr.).

Euskaldunoi maiz gerta oi zaiguna gertatu zan orduan ere: norberak barik, eskuikoak amor egin dezala. Geroak, orraitio, Arana'ri eman dio errazoa: esan dugunez, Euskaltzaindia sortu zanean, 1918'an, ia osorik artu zuen onek, ark, Sabino Arana'k, 1901'an, ordukoz beintzat Bizkairako nai zuen euskal ortografia, edo idazkera berezia. Aurretik ere, egia esan, Broussain'ek berak, esaterako, ber-aldatu dugun idaz-ataletik dakus-gunez, X (sh), tx (tsh) ta olako batzuk izan ezik, dena artu zuen, begi-itxutan, abandotarrak asmatu zuen idazkera. Orduko jite berberak: eraginda, gaur —berandu gero! — zer gutxi batzuetan ari jarrai ibilli gogo ez dutenak ere, zabal ta arrai aitortu bear lukete aren xede arteza, adimen-argi zorrotza.

Baiona'n il zan Zaldubi 1907-12-10'an. Senpere'n eman zioten lurra aren gorpuari, arras atsegin izan zitzaion lurrean noski.

IDAZ-LANAK.—«Kalonje onaren bereizgarria da, izen ere —diosku P. Lafitte'k—, euskaldun dan zernairi dion maitasuna, eta, agoa biotzaren ixuritik mintzatzen dan ezkeror, orduak eta orduak igazi zitun bere erria goratzen, bere aita naiz etxea goratu oi duen aurraren segurantza xaloz». Adema'k, ain zuzen, bere olde-jariorik ederrenak eta oroitzapenik goxoenak paperean utzi zizkigun, eta, jakiña!, idatziak dirau —*scripta manent*— esan oi danez.

Itz neurtuetan idatzi zuen geien bat Zaldubi'k, ondo-ren esango dugunez; baiña baita itz lauz ere, euskeraz ta prantsesez. «Eskualduna» asterokoak Adema'ren lan-mordoxka ederrak ditu. Olerkiak, ordea, ia denak, RBPL —*Revue des Basses-Pyrénées et des Landes*— Paube'koan, Donosti'ko «Euskal Erria» eta RIEV'en, Bilbao'ko «Euskalzale»-n eta Baiona'ko «Gure Herria»-n argitaratu zituen. Itz neurtuz beste, aipagarri ditu liburuxka auek: a) *Euskeraz*: 1) *Eskualdun Pelegrinaren bidaltzailea* (Baiona, 1877), 181 orrialde; 2) *1875'an Jubilan urthe sain-*

duan Bazco biharamun eta hirugarrenean Lourdesen eta Betharramen Escual herritik pelegrin drenen othoitzapena (Baiona, 1875), 72 orrialde 3) *Escualdunen Lorudeco cántica* (Baiona, 1875), 30 orrialde; 4) *Eskual herrico Eliza bestak* (Baiona, 1898), 8 orrialde. Eta b) *Prantsesez*: 1) *Les Traditions du Pays Basque* (Paube, 1887), itzaldia; 2) *Notice sur le feu de Paume au Rebot, jeu national des Basques* (Baiona, 1894), 14 orrialde; ta 3) *Curiosités de synonyme basque japonaise* (Baiona, 1906), «Semaine de Bayonne» zalakoan 1906'ko iraillaren 19, 26 ta 29'an argitara emana.

Ba-du esku-idatzi txit bakan bat ere: *Livre de raison* deritza. Egunkari bezela duzu, 30 bat urtez, egunero zerbait, zeatz eta meatz idatzia. Bertan jartzen dizkigu; eguneko giroa, eguratsa, aizeak nora jotzen duen; egunero artu ta egiten ditun bisitak, gorabera ta jazokunik irtenenak; or-emengo eleski ta zeapen txanbeliñak, gertakizun bitxiak, oar dotoreak... Esku-idatzi au, ezta oraindik, liburu bezela, argitaratua izan; baiña merezi luke, 1875-1907'ra bitarte urduriaz jabetzeko batez ere. Maite zitun Euskalerriko oitura ta lege-zarrak, eta euskal-jai, jolas eta kirolak; 1887'an Maule'n mintzatu zuen itzaldian, adibidez, euskaldunen elezar eta tradizioak goígoi jartzen dizkigu. Gure pelota ere maite zuen, eta joku onen zeaztasunak agerrazi ez-ezik, bertso biziz ondurik utzi zigun Perkain'gandik Ottarre'ganaiñoko pelotarien edestia.

Ba-zuen oraindik beste lan bat, azken urteetan burutua. 1896-eko agorrillaren 22'an, Azkue jaunari idatzi zion, Baiona'tik: «Bi urthe huntan lan handi batean ari naiz. Geografia edo luziazalde bat dut hasia lehengo demboretako eta oraiko, eskuara izenak dakharzketen herri, mendi, ibar eta ibaien dictionario edo hiztegi bat izanzen dena. Ekhaldeko (Ekhi aldea, oriens, Chaldea, ur chaldeorum) baditut mila baino gehiago jadanik bilduak. Afrikakoak, Italiakoak, Frantzia eta Espainia bamekoak ere ehunka. Gure oraiko zazpi Eskualherriakoak oraino biltzekoak ditut. Ziberoko, Basa Nabarreko eta Laphurdiko

berrien izenak baditut, bai gure departamenduko kartan, bai gure Diosesako ordoan» (*Euskera*, 957, 337 orr.). Eta bertan darrai: «Nik bi izen edo firma baditut; bat Adema ene fami-liakoa gauza edo eskribu serioetan, eta aphez gisa Elizakoetan ezartzen dudana; bertzea Zalduby gauza profano edo politika-ko edo kantu irri egitekoetan agertzen dudana». _____

OLERKARI.—Soiñez eder genuen Adema, arimaz ederrago, Gorputza dugu, askotan beintzat, harnearen izpillu; beste asko-tan ez. Baiña senpertarragan bat zetozten, txibista leunez ezkon-duta, azala ta barrua. «Aren izpiritu jakin-miñak, oroimen itzal-gabeak lagunduaz, oro nai zuen labur, errez ta soil, dena argia-go ikustearren noski. Soiltasun onen ondorena alde batetik to-lesgabetasun jostagarria zan, eta bestetik onako moztasuna bere olerki-jarioan: laburtasun ugari ta joria, baiña ez beti luzeera gabea; ele-murritz urbil, baiña iñoiz ere ez irudimen sortzaille gabekoa. Etzan izan egiazki irudimen aundikoa, ezta ertilari ausarta ere: politika lanetan izan zitzaigun bakar-bakarrik ausar-ta. Beste aldetik, aren neurri, era ta egiña! Aren ingurraztiak, kuadernuak, kaligrafi, apaindura ta azal-ederketaren eredu di-tuzu. Eta ardura au ezta kanpotikoa bakarrik; bere bertsoetarai-fio sartzen da, ta darabiltzan itzak astun-ariñean ikusi, neurtu ta edertuak dira beren tokietan ipiñi aurretik; berdintsu dagi itz lauz idazten duenean ere».

Zaldubi'ren oler-lana aski zabala duzu. 30 bat kopia gorago aitatu ditugun aldizkarietan argitara emanak zitun bizi zalarik ere; baiña geienak argitara gabe zeuzkan ingurraztietan dotore-dotore idatzi ta eratuak. Ura il ostein, baiña, sail batzuk bederen argitara zituzten Baiona'ko *Eskualduna*'k eta Donosti'ko RIEV'-ek. *Eskualduna*'k, 1908-09'an, zenbaki auetan eman zizkigun: 1085, 1091, 1094, 1096, 1098, 1105, 1107, 1114, 1119, 1122, 1125, 1127, 1130, 1133, 1135, 1137-1147, 1159, 1164-1175, 1177, 1178. Eta RIEV'ek onela: 1908, II, 83-94, 203-213, 284-296, 410-420, 602-610, 757-774, eta 1909, III,

103-109, 226-233, 396-400. Zazpi zatitan banandurik datoz: I *Eskual Herriko* Eliza Bestak (83-90); II *Pilotariak* (90-94); III *Cantiques sur le catéchisme* (203-213); IV *Cantiques* (284-296, 410-420, 602-610); V *Pables* (757-775); VI *Autres poésies profanes* (1909, 103-109, 226-283); VII *Chants patriotiques* (396-400).

Lenengo sailla duzu ugariena. Ta ditekena da, ederkien egiñak izatea ere, bulkoz ta gogaiz bikain ornitu ta beteak. Elizkentak irutan zatitu ditzakegu: Santuen omenezkoak: bere sorterriko zaindari Petiri donea, Atarratzeko zaindari Lutzi, Zuberoren guztiz ospetsu dan Garazi donea, San Josepe, Salle'tar Juan Bautista, Asis'ko Frantzisko deuna, San Bernardo ta abar goratarrez abesten ditu, Ungria'ko Santa Isabel'en bizitza ta beste batzuk ere maixuki goستن ditu. Baita Jainkoa ere, ta Irutasun santua ta aingeruak, eta Kristo gizon egiña ta Andre Maria, ta izadia... Lafontain'en erara biribilduriko alegi sailla, ederra duzu benetan. Zemaitakoetan, berriz, anitz motako lanak dauzkazu: orain Ameriketara doan euskaldunari jipoia berotzen dio, nekazaritzaren atsegiña txalotzen du ondoren. *Amazo* deritzaionna edozein antolojitan agertzeko aiñakoa zaigu. *Ameriketara bidean* (1854), *Bettirisantz* (1975) ta *Biba Errepublika* (1876), satira zorrotza orduko errepublika zaleen aurka, poesi-batzaldietara aurkeztuak dira. Azkenengo augatik, maikoak, naiz eta ederki osotua zala ezagutu, etzioten saririk eman, ausartegia zalako.

Aberri-kanten artean daude euskal lurra ta gauzak goستeko egiñak. Auetatik nabariena auxe duzu: *Zazpi Eskualherriek*, euskal batzarretan oiukatzeke egiña; 1882-7-2ran abestu zan lendabizi, Donibane-Lohitzune'ko euskal jaietan. Ona errepika ta bi aapaldi aurrenak:

Zazpi Eskual-herriek bat egin dezagun,
Guziak bethi, bethi, gauden gu Eskualdun...

Agur eta ohore Eskualherriari:
Lapurdí, Basa-Nabar, Zibero gainari;
Bizkai, Nabar, Gipuzko, eta Alabari.
Zazpiak bat besarka lot beitetz elgarri.

\ Haritz eder bat bada gure mendietan,
Zazpi adarrez dena zabaltzen airetan.
Prantzian, Espainian, bi alderdietan:
Hemen hiru'ta han lau, bat da zazpietan.

Bigarien datoz euskaldun pelegrinaren «bidalzailea» ta go-
rago aitaturiko bestea; Zaragoza'ra, Konpostela'ra, Palesti-
na'ra, Erroma'ra, Lurde'ra, Betarrame'ra ta abar ziran bidezku
auek, ta liburuotako kantarik geienak Andre Maria'z egiñak di-
tuzu. *Bat, Uholde baten pare*, esaterako, ezagun-ezaguna da,
zazpi aapaldikoa, 7/6'etan. Ederki datorkigu, gaur ere, seiga-
rren koplai dioana:

Lehengo fede hura/ berritz pitz dakigun,
O fidedunen Ama,/ zuk gaitzatzu lagun.
Bai, Eskualdunek hemen hitz-eman dezagun
Beti zinez izanen/ garela fededun.

Irugarren maillan datoz gaiñetikoak, dotriña azalduaz osotu
zitunak batez ere. Il aurretxoan lan onetan zebillen oraindik;
dotriña guztia. bertsotan adierazi nai zuen, baiña Kredoan Kris-
to'ren Nekaláan geratu zan bere lan baliotsua. Doiñutsuak
dira auetan Eguen Santurako *Adora dezagun*, Ostiral Santurako
Oi Gurutzea, ta. bestea.

Noizik beinka, bertso-paper antzera ere, atera zitun lan ttipi
batzuk; adibidez: *Euscaldunec Aita Saintuari* (Baiona); *Eskual-
dunen kantika* (Baiona, 1892); *Eskualdunen sortherriko kantua*
(1892); *Gauden eskualdun* (Baiona, 1893), Azpeiti'ko euskal
jaietan saritua: *Gorputz Sainduaren Sakramentua* (Baiona,

1889); *Jondoni Petiri edo Piarres Apostoluaren kantika* (Baiona, 1899); *Pilotarien kantuak* (Tours, 1890); *Sakramendu Saindua* (Lille, 1894); *San Josepen kantika* (Baiona, 1891); *Santa Grazi edo Engraziaren kantika* (Baiona).

IRITZIAK.—Guk esatekoak, Adema'z, esantxe ditugu. Onez gaiñera, denak ederretsi izan dute Zaldubi'ren olerkia batez ere. Jean Etxepare'k onela: «Bazuten haren ezpainek zerbeit, zerbeit erraiteko! Batzuetan ezin athertu, chaharra baitzen eta chaharra baino gehiago... koblakaria. Zer nahi bazekien Eskual-herriaz, Eskual-herriko ohitzez, sinestez, jaidurez, Eskual-herriko chokoetan aditzen diren hizkuntza bereziez. Ez dut uste nehork maitatu duen Eskual-herria bihotz kartsuago batekin eta ukan fede gehiago gure etorkizunean» (*Buruxkak*, 2 irartaldi, 95 orr.).

Orixek onan: «Euskera garbia dizu, yaioa, erraxa, bakuna, funtsezkoa edo itz alferrik gabea, leguna, erritarra. Gogoetarik goraenak eta biotzaldirik bizkorrenak gisaz agertzen ditu. Aindiko Euskalerri osoan kantatzen ditute Zaldubi'ren kanta batzubatzuk. Neurtitz ederretan adiarazten zituen erligioneko egiak eta nahikariak. Euskaldunik beroenetakoa, gure ikuntzen eta mintzoaren aldezkari goria.: «mintza gaitezen eskuaraz; iskríba dezagun eskuaraz» (*Euskal Esnalea*, 1927, 214 orí).

P. Lafitte'k: «Grazian Adema kalonjea Elizanburu'ren lagun miña genduan. *Boitijurak* ari eskeiñi zion berezki. Ezagunak dituzu apaiz-olerkariaren kanta-alegiak, berezko ta landuak oso; baiña aren trebetasunak batez ere kantuetan didiz dagi, ots, *Adora dezagun* edo *Kurutzea*, edo-ta aberri gcratzarre *Zazpi Eskualherriek* eta olakoetan. Olerkari gutxik emiten du euskeraz olako kemen-zirriada: ezer goxoagorik ez da, ez kementsuagorik ere» (*Le Basque et la Littérature...* 53 or.).

Nik beiñola: «Euskal elerti-saillean, goi-goi arria daukagu: asko idatzi eban, ta gizon landu lez idatzi be. Jatez be, bere

olerkiak zein olerki guriak! Euskera errez, sakon, jorian, zelako esangura giarrak!, zelako biozketa gartsuak damoskuzan!» (MEOE, 597 orr.).

Aita L. Villasante'k: «Aregan neurri, era ta oso egiñaren aukera ikusten da nun-nai. Adema'ren bertsoetan itzak arretaz aztatu, neurtu ta leunduak izan dira. Kantatzeko egiña izan da aren bertsoa, baiña textua du musikaren argi-oiñarri. Letrari gaiñera inportantzi izugarria ezartzen ziola dirudi. Bein eta berriz orraztu oi zitun bere poemak. Aren antzea au duzu: bertso errazak engaraz ta doitsu eio. Eta biotz eskerga bat zegoen antze (arte) uzkur guzti au indar-azten, apaiz-biotz zabal, sakon, ederbera ain zuzen ere» (HLV, 193 orr.).

Ibón Sarasola'k: «Poeta famatu ta bertsolari trebe» (*Euskal Literaturaren Historia*, 114 orr.).

(Ikus J. Vinson, *Essai d'une Bibl. Basque*, I, a 417, 491 ta II, 646, 656, 725, 767, 793, 794 orr.; Jcan Etxepare, *Buruxkak*, 1910, 5 orr. eta «Zalduby Aldudan» kapituluan, eta *Beribilez*, 1931, 9 orr.; J. B. Daranatz, *Euskalerraren Alde*, 1914, 134 orr.; RIEV, 1908, 121 orr.; N. Ormaetxea, *Euskal Esnalea*, 1927, 214 orr.; J. Artetxe, *Caminando*, 1947, 41 orr.; P. Lafitte, *M. le chanoine Gratien Adema* (Baiona, 1933) eta *Le Basque et la Littérature...* 53 ta 69 orr.; S. Onaindia, MEOE, 557 orr.; *Euskera*, 1957, 334 orr.; Auñamendi, II, 157 orr.; Joan Bilbao, *Eusko Bibliographia*, I, 28 orr.).

2.—BASILIO JOANNATEGI (1837-1921)

Orixe'k: «Au dut euskal idazleetan maiteena. «Eskuara ederrarengatik aipatuak diren liburu batzu» irakurri izan zituen bere orien antolatzeke, ta «berriz herri ibili ere bai (herria) nola mintzo den». Geroz Aita Yoannategi'ren *Sainduen Bizitzeak*, ederki idatziak izateko bidea badute. 1876'garrenean argitara zituen *Ehun bat Sainduen Bizitze*, eta jendea geiagoren eske zegokion. Idazkera biguna, ixurbera, argia du. Ondikoz!, aren

liburuak ere ez dabilta edozeinen eskuetan; baino bein eskue-tara ezker, txoratzen du Yoarmategi'k» (*E. Esnalea*, 1927, 207 irr.).

BIZITZ-ERRAINUAK.—Mugaz andik, izan ere, Frantzia'ko iraulketa ta jazarpenak zirala bide baitik bat, aldikada luzean ixil xamar euki genitun ango euskal idazlariak, bai eliz-gizonak bai eta osterantzekoak. Adema, Joanategi, Hiriart-Urruti ta ola-ko banaka batzuk kendu ezkeroz, urria izan zitzaigun emeretzi-garren mendearen azken-aldia.

Isuritz'en jaio zan Joanategi, 1837'an. Eliz-karrera amai-tu ostean, 1862'an apaiztu zan; gero, Sara, Altzai ta Uharte-Mixe'ko arimazai izan zan amazortzi urtetan. 1880'an, bost urte aurretik (1875) sort-erazia izan zan Beloke'ko bakartegian gor-de zitzaigun; emen, urteak joan urteak etorri, sartu-berrien maixu izan zan, tarteka erriz erri ere izlari ibillirik. 1903'an, Frantzi'ko goraberak zirala-ta, Combes ministruaren erlijio-erasoengatik, Beloke'ko beneditarrak Lazkau'ra etorri ziran iges-ka. Baita Jaonategi Aita ere. Ementxe il zan 1921'an, urtez eta igali umotuz, zugatz eder antzera, bete ta abaildua.

EUSKAL IDAZLE.—Naiko idatzi zuen bere bizialdi ez mo-txean. Ona oek bederik:

1) *Ehun bat Sainduen bicitcea* (Baiona, 1876). 439 orrial-de. Beneditar sartu aurretik, 39 urte zitula, argitara zuen idatzi au.

2) *Ceruraco bideric errechena argitaratua* (Baiona, 1887). 156 orrialde. Ligorio'ko Alfonso Maria deunak erlijioso bizitza-ri buruz osatutakoaren itzulpena duzu, egoki ere egoki xuri-berritua.

3) *San Benoaten bicitcea* (Baiona, 1887). 180 orrialde.

4) *Sainduen Bizitza* (Baiona, 1890). 537 orrialde. Garai artan gotzai illaren ordeiz eliz-barrutia zaintzen zuen Intxauspe kalonjeari eskeiñia duzu. Aurreko liburuetan baiño euskera ohea

darabillela uste du egilleak, frantses ez dakiten euskaldunen antzera mintzo dala, asko ikasi bait du erriz erri ibilli ta aspertu gabe idazti zarrak irakurriaz. Ale onek urte barruko lau illetako santuak baiño ez dakazki.

5) *Bihotz sacratuaren hilabethaco escu-liburua* (Baiona, 1894). 335 orrialde. Bigarrenez ere azaldu zan au, 1912'an.

6) *Sainduen Bizitzea, II zatia* (Paube, 1900). Bigarren ale au lenengoa baiño medarragoa duzu, ta maiatzeko ta bagilleko santuak artzen ditu bakarrik. Emen geratu zan Urte Kistarra, etzuen geiago argitara eman, osoa idazteko asmoa zuen arren; Frantziako matxiñada txipristiñak bide, bear bada, aren xedeak urratutik gelditu ziran.

7) *Fedeco Propagacioneco urtecari edo Fedearen Propagacioneco herriac urtheca ematen dituen*a (Baiona, 1877'an asitatu), Bi illabetero agertzen zan, eta Aita Basilio'k osotu zuen urte mordoan.

Euskera bizi-bizia du, argi ta aratz aitzen emanik bere buruxkak eta asmaketak. Ixurbera omen aren izkera, ta orrela duzu; garbia, baiño adi-erreza. Azken aldian batez ere Bizkai aldean asitako euskaltzaletasunak joa zebillen apika, ta orrexegatik idatzi zigun garbi ta ederki. Erririk erri ibilli zitzaigunean gaiñera beti zeraman, dioenez, aldean ingurraztia ta antxe jarri oi zituen erriaren agotik jasotako itz eta esaera bitxiak.

Azkue ta Kirikiño'ri atsegin zitzaien A. Basilio'ren idazkera, ta bein, 1902-9-3'an, Aita Joanategi'ri Urruña'n, ango euskal jaietan, saritu zioten *Eskuara* lana, bizkaieraz ipiñi ta «Ibaizabal»-en argitaratu zuten (1902, 40 gela, 1 orrialdean). Euskeraren baitan egñiko lan ederra duzu.

OLERKARI.—Askorik ez, baiña arean saiatu zan bertsoetan ere. G. Lertxundi Aitaren *Kantikak* deritzaion kanta-liburuan dator bat, *Ogia gorputz* esana. Zortzi aapaldi dauzka, gotor birribilduak. Onatx 4, 5 ta 6'garrenak:

Ogia da dena itzali
aldarearen gainetik,
orai ez da hemen ageri
iduri hutsez besterik.

Ezin daite ikus, ez hunki
itxura hutsez jauntzia,
bainan sinets halete zinki
Jesus hor dela guzia.

Zeru goran jarria dago,
berdin hemen aldarean,
gu bere ganat altxatzeko
gutara jausten denean.

Bere idaztietatik atera dezakegunez, arima ezti baten jabe
genuen Aita Basilio; noizka bakarrik aurkitzen diran txori kan-
tari goxoa.

IRITZIAK.—Orixe'k: «Laphurdi'ko idazleen guna ta mamia
berekin du. Euskera garbia, baino adi-erreza. Iketa edo toketa
egoki darabil».

P. Lafitte'k: «Basilio Aitak euskera garbia du, baiña apur
bat beartua: joskera kilikorra geiegi erabiltzeak batzuetan nastu
oi du irakurlea, ta ziur asko auxegatik gogor artua izan da iñoiz
aren labur-izan naia. Askok zor dio ari, alere, euskal elertiak»
(*Le Basque et la Littérature...* 59 orr.).

(Ikus J. Vinson, *Essai d'une Bibl. Basque*, 1, a 480, 631 bis, 633 ta
674 orr., eta II, 630, 660, 744, 80x ta 804 zenbakietan; N. Ormaetxea,
Euskal Esnalea, 1927, 207 orr.; G. Lertxundi, *Kantikak*, 1948, 188 orr.;
S. Onaindia, *MEOE*, 458 orr.; L. Villasante, *HLV*, 193 orr.; P. La-
fitte, *Le Basque et la Littérature*, 59 orr.; I. Ormaetxebarria, *Euskera*,
194 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 272 orr.).

3.—PIERRE (D)IBARRART (1838-1919)

Bego lenengo ta bein Etxepare'k bere *Buruxkak* liburuan koblakari ontaz diona: «Ezagun da zer koblari den; erran nahi dut hoberenatarik dela, ez baita orobat Eskual-Herrian nehor nausitzen zakonik, non ez diren Elizanburu eta Zaldubi. Gozoak dira haren bertsuak; asetzen daukute beharria; ez datxikite ele alperrik». Oso-osorik egia ezpada ere, errez ateratzen da emendik nolako balio bikaiñak ditugun sarri euskal lurralderik izkutuenean. Gure olerkari nausienak olaxe izan dira; eskola aundi gabeak bear bada, baiña berezko ixuriz —buru ta biotz—oparoak.

BIZITZ-ZEAZTASUNAK.—Jatsu'n munduratu zan, 1838-2-13 edo 15'an, goizeko zortziretan. Ez dakigu ziur zein egunetan jaio zan: eliz-paperetan, antza, 13'an agiri da, ta erriko pape-
retan orde, 15'an. Zalantza pixkat bada bere izen-abizenai bu-
ruz ere; izenari gagozkiola paperetan Pierre agiri da, baiña adi-
ñeko adiskideak Piarres zeritzen beti: izengoitiz, *Bettiri*. Abi-
zenez, deituraz naiago ba'duzu, dudamuda geiago da: Jatsu
erriko jaio berrien liburuan Dibarrart dator; elizakoan eta ez-
kontzakoan, oster, Ibarrart; aurretikoen il-arrietan berdin,
Ibarrart.

Zer egin zuen aundia azi bitartean? Onen bizitza ongi az-
tertu zigun P. Lafitte'k au diosku: «Gauza guti dakigu bathaio-
tik eta esposatu artinoko haren goiti-beheities; ontsa altchatu
zutela, eskolan eta katichiman ibili zela, bai: ez haatik ez noiz
ez nola jalgi zitzaion koblaka artzeko dohain berezia. Ahaideak
diotenaz, ttipi-ttipia zelarik oraino, etchekoek mahian baten
gainerat hupatzen zuten, eta han gogoratzen zitzaizkon zirto
eta atheraldiak kantatzen zituen bertsu-ichuran emanik, adi-
tzaile guzien jostagarri! Gerochago ostatuan behar zen trebatu
eta bertze bertsolariekin norbait bilhakatu: orduko famatuenak

ziren *Etchahun* chaharra, *Borddale*, *Athillo*: *Otchalde* adintsu zen Ibarrartekin eta biziki laket zuten buruz-buru artzea. Hemezortzi urthetan Donapaleon kantatu zeun *Eliza-besta*».

Montelimar (Drôme)'n egin zituen zazpi urte soldadu. Lan-arte luzeak izan zituen liburuak irakurri ta erdera ere poliki ikasteko. Abots ederra zeukan eta, iñoiz esan zioten teatru-sailla zetorkiola txit egoki, eraztuna beatzera bezela; ark orraitio irri egin zien orrela mintzatzen zitzaizkionai, «bizi modu hori harrochko eta erhocbko» bait zan bere iritziz. Errira itzulirik zapatain jarri zan, 1867-11-19'an bere lengusiña Mariane Darré'kin ezkondurik. P. Lafitte'k: «Piarres-ek ez zuen baimenik galdegin kusiarekin ezkontzarakoan: ezkontza ez zen bali; ondoko urthetan ikasirik sakramendurik gabe zirela, berriz itzuli ziren biak elizarat, makur horren chuchentzerat. *Garnier* jaun erretorak benedikatu zituen beien agintza berriak, *Marie* ta *Jeanne Darré* zituztelarik lekuko».

Egun batean, tobera-mustra zala-ta, Baigorri'ra dei egin zioten bertsu egitera. Erretor etxeari urbil-urbila jardun zuen bertsoetan. Leio ostetik begira zeuden erretor-bikarioai atsegin izan zitzaaien bertsolariaren abotsa: *Barnetxe* zan erretor eta J. B. Etxegarai bikario. «Zer nahi den, bi aphezek galdegin zioten nahi zuenetz Baigorriin chantre sartu. Baietz, eta Jatsu alderat utzirik, Baigorriat jin zen bere zapatain-tresnekin, eta emaztearekin».

Baigorri'n, beraz, 44 urtez xantregoa atxiki zuen. Ementxe jaio zitzaizkion iru aur ere, alaba bat eta bi seme. Ana, geroago Baiona'ra ezkondua; Frantzisko, Mokokain'darrakin Txile'ra joan eta 21 urtekin an illa; Juan Leon, Baiona'ko aduanan nau-si, marranta tzar batek 25 urtekin itzalia, ta Baigorri'n eortzia. Arrezkeroz, dolu astunpean, illunik bizi izan zitzaigun Pierre. Alere, aurrera ari zan kantuz. P. Lafitte'k: «Nola utz, alabainan, hain maite zuen eliza chaharra? Eliza horrekin bat egin zen: hartan zituen errotik finkatuak bere orhoitzapen hunkigarri

gehientsuak, haurren bathaio, komunione eta gaineratikoak; seme bat ere bazuen, hor, eliza horren itzalpean ehortzia».

Azkenez, «bihotzeko eritasun batek ondarra inharrosirik», Baiona'ra aldatzea erabaki zuen, bere alaba ezkonduaren ondora. «Azken egunak griña iragan zituen: suhia gerlan zen lau urthe hartan. Piarres Ibarrarti etsigarri zitzaion hain luzaz bakarrik gelditzen hiru emazteen sustengu: alaba ta bi alabaso zituen bere geriza-pean. Hala iduri. Egia erran, heiek zuten maite-maiteki arhatzen eta sustatzen». 1917'eko uztailean il zitzaion, Baiona'n, bere emaztea. Eta bera ere, andik bi urtera, 1919-5'an, eraman zuen Jaunak, atsekabe gabeko argi-erreñura.

KOBLARI ERNE.—Illunbe omen gizonaren bizia, noizik bein kukuka bezela irri-parrak ñirñir egiñik ere. Ibarrart'ena, ziuarki, orrelakoa izan zan, kantuz ta penaz iragana. Bame-giro au, orde, oso egokia izan oi da bertsotan jarduteko. Urduri ta kez-kaz josiak ditugu, geien bat, egiazko bertsolariak. Ez duenak ezin eman lezake, ta gizartean arnas berria piztu oi dutenak kez-kaz zanpatuak ditugu geienik. Jatsutarrak gaztetatik zekarren ausaz bertsotarako zaletasuna. P. Lafitte'k: «Gazte-denboran bertsulari gisa abiatu zen besta, zintzarrots, toberatan. Hitza aise heldu zitzaion, pikoa aiseago, diotenaz. Ez zen ozar atrebitu betarik: itsuskeria hastio zuen. Bainan ez uste izan horrengatik koblari idor samina zela: ez, hurbiltzekorik ere: jostakina zen, irri-gura; eta zaharrak orhoit dira haren atheraldi bakhar zon-baitez».

Bertsolarien izena, ta beren esan, zorrotzak, ez dira errez aitzutzekoak. Gure erriak ez du azkar aantzi oi barrua maiz dardaraz jarri dion koblariaren gomuta. Orrez gaiñ sarri oi ditute gertaera apaiñak ere. Ona bat Ibarrart'i jazotakoa; P. Lafitte'k kontatzen digu, erriaren agotik artua: «Tobera batzuen karietara, Ibarrart ekar-arazi zuten Jatsutik Kanboko emazte bertsulari gazte baten lagun. Biek bertsutan behar zituzten «sujeten» ihakinak egin. Ibarrartek andrea bildu beharra zuen sei

edo zazpigarren bertsuan. Zazpigarrena aspaldion emana zen, ba eta hamekagarrena ere, eta bertsularisak amor ez eman nahi, «komentuan sartuko dela, serora beharra dela» eta holako. Ibarrrartek ez zakien nola athera atheka hortatik; bet-betan oharturik bertsularisak gerri nasaia zuela, edo norbaitek ohart-arazirik, huna non andreaki kobla hau botatzen dion burutik behera ;

Komentuan sartzea zer chede saindua!
Hoherena golkian daukazu, gaichoa!
Hango borta hertsia da ontsa zaindua.
Birazka han sartzeko nun duzu gogoa?

Aldi hortan mututu omen zitzaion emaztekoa, jendea karkailaka irriz ari zelarik, ethendua!»

Txantre sartu zanez gero, etzan plazetan agertu; Barnetxe erretorrak galazi omen zion. Ala ere, «adixkideen artean, bazkaltierren alegeratzeko, ala bataio ala ezkontza egunetan, ari zen zonbait aldiz koblaka, arnoa lagun». Bere oskitegian ere atsegin zuen kantaka aritzea, zarrak eta bereak ber-esan eta abesturik.

BERTSO-LANA.—Ibarrart'ek bere bertsorik gorenenak, «astiz eta asmuz, luma eskuan», etxean egiñak ditu, ez arnotegi, bigira ta aurki-leku bazterretan. P. Lafitte'k 18 kanta eman zizkigun, 899 bertso guztira, titulu auekin: «Eliza besta», «Artzaintsa mendian», «Aitak eman zerautan», «Itsua eta sastrea», «Miche-lengo zubia», «Mendigaineko Mariaren Baigorriko chantrean», «Libertatearen amodioa», «Eskualdunak», «Eskual-Herria eta Eskuara», «Aita zuhurra eta hirur semeak», «Udazkena», «Uso saretan hatzemaña», «Aitaso baten solasak bere ilobaso chumeari», «Eskualdun soldadoak», «Ikhazkin mendian», «Negua», «Eztei ederrak Eskual-Herrian», «Orgogozo jaun-anderei 1899-ko maiatzaren 30-ean».

Emeretzi urte zituen Donapaleo'n «Eliza besta» abestu zue-
nean. Zazpi koplakoa duzu olerki au, poliki moldatua. Eliz-jaia
zan ospatzen, erriko zaindariaren eguna; eliztar guztiak daude
zuri-gorritan jantzita, «bestalierrak» lerroka elizaraturik. Etxe-
ko andreak baita bazkari ederra apailatzen ari ere. Bigarren ko-
plak onela:

Xikiro beltz ederra bere adarrekin
Barda bil izan dugu irri ta farrekin:
 Salto brikoka,
 Buruaz joka
 Atzo lagunekin;
Orai azpiki-saltsa badugu harekin...

Eta bigarrenak:

Hau da arno gozoa, ezti ta azkarra,
Espainiatik jina, berenaz nafarra:
 Basoak jorik
 Ondo husturik
 Dezagun ohora!
Zahagi tontor hori egun ez da sobra.

Zoragarri dugu goiz-giroa, ta are geiago egun argitzea men-
di bizkarretik ikusia. Zer zorion! Amar koplak ditu «Artzaintsa
mendan» deritzanak; onek azaltzen du mendi-gaiñak berekin
duen poz-atsegiñaren ederra. Ona laugarrena:

Argi-hastean histu orduko artizarraren argia,
Nik ikusten dut iguzkiaren agertzen miragarria,
Bainan oraino ilhun dagozi zelhaiak eta herria;
Ohean dago ezin atzarriz hiritar gazte nagia;
Nola ezagut dezake handik hemengo neure loria?

«Libertatearen amodioa»-n, berriz, askatasuna abesten du:

Eskualdun garbi batek othe dauka deusik
Libertatea bezain gauza aberatsik.
Ez, ez, harentzat ez da deus hain baliosik
Zorion hortaz baizik ez baitu ametsik,
Hori gabe ez duke bizitze urusik.

Ez dakit, ala ere, gaur egia litzakenik bigarren aapaldiko
esan au:

Munduko gaztelurik den ederrenean,
Lausengu, jan-edan on, guzien artean,
Eskualduna ez dauke han, bertzen menean,
Nahiago du izan librotasunean;
Mendian berak egin etchola batean.

Eta, jakiña, sariak ere eskuratu zituen olerki-batzaldietan. 1879'an. Donostiko Udalak eta Aldundiak elkarrekin eraturiko poesi-konkurtsora aurkeztu zuen *Xinaurria eta Xoria*, lapurtarrez ondutako alegia. Bederatzi kopla dira, bostekotan. Gaia Esopo'rena da, «Cicada et Formic» deritzana: Lafontain'ek —La cigale et la Fourmi— eta gure Samaniego'k —La cigarra y la hormiga— beren izkuntzetan jarria. Lendik ere, euskeraz sarri erabillia duzu: Bizenta Mogel'ek «Txindurria eta txirris-ka». Iturriaga'k «Txitxarra eta txingurria» eta Goietxe'k «Ttiritita eta xinaurria». J. Manterola'k (*Cancionero Vasco*, 1880, 3 sailla, 106 orr.) iru izkuntzatan —euskeraz, prantsesez eta gazteleraz— argitaratu zigun.

Euskal jaiotan ere saria eraman zuen: 1881'an, Sara'n len-saria (*Ikhazkina mendian*), 1884'an. Sara'n berriz ere, lenengo saria (*Uso saretan hatzemaña*), 1893'an, Ustaritze'n, lenengo saria (*Artzaintsa gazte baten bozkarioak*), eta 1896'an, Kanbo'n, len saria (*Aitasa baten solasak bere ilobaso chumeari*).

Ekziti ta doiñutsuak dira Ibarrart'en olerkiak, itz alperrikorik gabe. Ez dator gaizki, alai ere, Etxepare mirikuak dagian oar au: «Baditeke ez duten bihotzari min egiten atseginarekin edo beren argiaz lilluraturik uzten izpiritua; bainan hunkitzen gituzte gure gizontasunean, jende gehienak bide hortaz hatzemaiten di-tuztelarik. Irakurle hanitz baduke horrela Ibarrartek ttipietan, bierartekoetan, eta bertze hainbertze bederen adixkide».

Eder zitzaion bertso luzea: 7/6, 8/7 darabilzki geienik, zeatz landuta naiz erdiko etenez naiz azken berdin amaitzez.

(Ikus *L'Avenir des Pyrénées*, 1896-8-27'an; J. Manterola, *Cancionero Vasco*, 3 sailla, 106 orr.; Jean Etxepare, *Buruxkak*, 1910; J. Ithurriague. *Un peuple qui chante*, 64 orr.; P. Lafitte, *Herria* ta separata, 1948, ta *Eusko Jakintza*, 1948, 681 orr.; S. Onaindia, MEOE, 515 orr.; L. Villasante, HLV, 305 orr.; Col. Auñamendi, 53, *Fantasia y Realidad*, 1967; Auñamendi, *Literatura*, II, 233 orr.).

4.—MARTIN LANDERRETXE (1842-1930)

Itxas-erraiak gorderik ditun urre-bitxi antzekoz beteta dauz-kagu, oraindik ere, gure euskal izkelgiak. Olakoak jasoten ibillia dugu, urteak dirala, Martin Landerretxe apezka. Jainko-gizon zanez, arima arduratan zaletua zebilkigun beti, maratz eta kez-kati; sorterriari dagokionez, euskaldun jator, ikasi ta jaso, baz-terrik bazter ari izan zan arduratsu.

Onetaz ere, beste askotaz bezela, beiñola A. Olabide'k ida-tzi zuena, esan dezakegu. Ots: «Ixilikan Jainkoak barnetik gizo-naren burua argitu ta biotza eragin dezake, berez ta bitarteko-rik gabe gurekin jardun nai duan bakoitzean. Baña norbait bere ordekozat aukeratu ta zeruko argia Errian zabaltzera igortzen duaneko, orren mintzo ta itzak dire Erriak beretzat duan Jainkoaren argiz piztutako zuzia. Euskaldunei argi egiteko auke-ratu danak euskeraz ezpa'leki, zuzi itzali ta alperra izango li-tzake. Ta ezin igarri det ori baño elgaitz gogorragorik Jainkoa-ren aserreak bidali litzaigukunik» (*Euskera*, 1921, 36 orr.).

BIZITZ-IZPIAK.—Busunaritz (Benabarre)'n jaio zan 1842-7-26'an. Bere ikaskintzak Hazparne'n osotu zitun aurrenik, 1857'tik 1859'raiño; gero, Larresoro'ko apaizgaitegi txikian, 1859'tik 1864'raiño, eta atzenez, Baiona'ko apaiz ikastetxean eta berriz Larresoro'n 1864'tik 1869'raiño; urte ontan apaiztu zan Irutasun deunaren bezperan. Irakasle egin zuen ondoko urteetan 1873'raiño ta gero, iru urtean Maule-Leixtarre'ko apaiz-ordeko, ta Aiziritz eta Oragarre'ko artzain 1880'tik 1891'raiño. Ondoren, osasunez gaizki zebillela-ta, apaiz oitua geratu zan, Biriatu'n, Getari'n, Donibane Lobitzun'en eta guenez Ezpeleta'n bizi izanik.

Arima zaintzatik azke geratu arren, etzion euskal lanari utzi, len baiño ere sendoago oratu baizik. Itzez ez-ezik, lumaz ere egin dezakegu lan arimen alde, ta M. Landerretxe'k bere bizi luzean lumaz ere lan bikaiña osotu zigun. Arekin eta onekin ar-emanan izanik etzuen gutxi ikasi, ta, etxeko andre aiola-tsuak lez, ipar aldeko euskalgietatik batez ere, zenbat itz zahar, esaera, kanta, igarkizun ta beste, bildu ta sailkatu zizkigun! Oi ez bezelako oroimena zuen, diotenez, ta aren lana erabat jakingarria dugu, ta edozein euskaltzalerentzat iturri garden, ugari ta ziurra. Onela diosku G. Lakonbe'k.

Bere eskuko gelditu zalarik ere, apaiza zanez, etzan alperzulo bizi izan. 1892'tik geroz berak euskeratu ta argitaratu zuen *Fedearen Propagazionea* zeritzaiona. Bestalde, maite zuen euskera, ta berau zaintzeko, bere ustez, euskaldunen kemenak bildu bearra ziran oro. Besteak beste, ortarako antolatu zan gorago aitatu dugun Ondarrabi'ko euskal biltzarra, 1901'an antxe bait zan sortu ta oiñarriak ipiñi, ain zuzen ere, Martin Landerretxe'ren arioz, gaur ere indartsu daukagun «Eskualzaleen Biltzarra», euskerari eutsi ta zabaltzeko ardura izango zuen alkarte berria. Baita berau, ots, M. Landerretxe izan zan alkarte onen idazkari betierekoa, ta gero ta dizditsuago aurrera egin zezan inñortxo baiño geiago alegindu zana.

Euskaltzaindia sortu zanean, Lapurdi'ko izkelgiaren urgazle lez, Martin Landerretxe izendatu zuten, 1919-10-5'an. Irailla-ren 21'an Eusko Ikaskuntza'k, Julian Elorza Gipuzkoa'ko Al-dundiko buru zalarik, batzarra euki zuen euskaltzain berriak aukeratzeko. Besteak beste, J. Blaise Adema apaiza, Baiona'ko kalonjea ere aukeratu zuten, baiña onek, ango eliz nagusian naiko lan zuela-ta, etzuen onartu izendatze ura. Eta, 1919'eko urrillaren 7'ko batzarrean, «orren ordeiz Broussain eta Lhande'k eskatu zuten —dio *Euskera'k*, 1919, 50 orr.—Martin Lande-rretze, lapurtar apaiz, ta *Eskualzaleen Biltzarra'éko* idazkizaiñ jauna izendatua izan zedilla. Ta guziak, autarkiz, onetsi zuten». Eta urrillaren 26'ko batzarrean, Donostia'n, Gipuzkoa'ko Al-dun-jauregian ospatutakoan, «Azkue'k Landerretxe'ri ongi-eto-rrizko agurrak eman ondorean, onek, Lapurdi'ko euskera gar-biz, Euskaltzaindia'ri eskerrak biurtu zizkion».

Arrezkero, zintzo zintzo, agertu oi zan alkargu onen batza-rretara, beronen lan eta txostenetan esku eragikorra izanik. Egin-egiñean, Euskaltzaindiak Bilbao'n ospatu zuen billera baten on-do-ezak eman, garai artan bizi zan errixka Ezpeleta'ra eraman eta antxe, andik egun gutxiren buruan itzali zan, 1930-1-29'an. 88 urte zeuzkan, etengabeko lanean eraldiak.

EUSKAL LANA.—Asteroko ta agerkarietan daude, sakabana-turik alegia, Martin Landerretxe'ren idazlanak. Bildu ta zabal-tzea, merezi lukete. Lan auetan dager aren biotza: gizaseme on, apaiz jator, euskaltzale zintzo, langille aspergaitz. Mende betea doi-doi egin zigun euskal erriari ta beronen izkuntza beneraga-rruari lotua. 1891'tik asi zitzaigun batez ere euskal sailleko bear-gin zoli ta antsiduna. Ona bere lan batzuk:

1) *Fedearen Hedameneko Urtekaria* —Annales de la pro-pagation de la Foi— (Baiona, 1891-1930). Bi illabetetik bein, urtez urte, atera zuen 50 bat orrialdeko ingurraztia. Laburdieraz idazten zuen, euskera «zaharxean». Eta, G. Lakonbe'k dioanez, «Landerretxe'k lan auxe besterik burutu ezpain ere, euskal-tzaleen aldetiko esker-erakutsiaren duin eskubidez dukegu».

2) *Aphurka zakar eta herri, ahurtara hat eskuararen alde* (Baiona, 1905). Liburuxka, Antonio d'Abbadie'k eraturiko batzaldietan saritu zizkieten lanakin eta or-emengo eguneroko ta aldizkarietan azaldu zituenakin osotua. Danetik duzu berton, naiz liburu-azterketak naiz izkuntza-gaiak.

3) RIEV agerkarian ba-dira zenbait lan, Landerretxe'k 1907'tik asita egiñak. «Euskera»-n berdin, 1925'ean eta urrango aleetan, artikulua mordoan agertu zuen, erriz erri batu zituen esaera, atsotitz eta zuur-itzez.

4) Baita idatzi zuen Baiona'ko «Eskualduna» ta «Courrier de Bayonne» agerkarietan ere.

5) *Grammaire hasque*. Argitara gabe. 1860'an irakasle zala egiña, argitaratzekotan zeukan, baiña Landerretxe'k zoritxarrez —Lakonbe'k diosku— etzuen egungo ere bere iritzi atzeratuak utzi ta linguistikari buruz bereziki bide berririk artu nai izan, eta bere bizi-atzenerantza etzuen gaztetako lan ura interesgarri ikusten argitara emateko.

Olerki batzuk ere osotu zizkigun.

Nor bakoitzak du bere jit berezia, ta orixe agertu oi dugu geure izakera ta idazlanetan. Gaztetan artutako eskolak ere ez digu gutxi laguntzen. Dana dala, P. Lafitte'k, M. Landerretxe'ren lanari, batez ere «Fedearen Hedamentua» deritzaionari gain-giroki begiratzuz, au dio: «Euskaltzain zaharra urteetan ari izan zitzaigun itzez-itzezko biurpenak burutzen, Jainkoaren on-nak zalantzik gabe, baiña euskal jeniotik aski urrutiratuak» (*Le Basque et la Littérature*, 61 orr.).

Ona, adibidez, nolako euskera zeukan jakin dezazun, *Kasti-Hako Blanka erregiña* deritzan lana, 1909'eko azaroan Donibane-Lohitzun'en egiña:

«Blanka, Kastillako alaba, Frantziako erregiña zen. Artha handiz altxatu zuen Luis bere semea. Ez zuen aldiz batez ere onhetsi haren haurrari bertze emazteki batek bularraren ematea. Nola behin nekatuxe zelarik, lo on batean baitzegoen eta printzea kexatua baitzen, gortheko andre handi batek eman zioen

bularra. Erregiñak ordean, atzarri zelarik, galdetu zuen haurra, eta ezagutu batzuen ez zela gose, behar izatu zioten aithortu bularra hartua zuela. Eskerrak ematetik urrun, Blankak, erakutsi zuen gaitzitzen zitzaioela, eta, eria ezтики haurrari zintzurrerat emanik, goiti arthik-arazi zioen esnea, zioela: —«Zer uste duzue, ala Jainkoak eta naturalezak eman darotaten amatasuna, den gutienik ereman dezadaten onhestekotan nagoela?»

Printzeari, adimenduratu zen ordutik, maiz adiarazi zioen hitz hau; —«Nere haurra, badakizu maite zaitudala; bainan halarik ere nahiago zintuzket erregetasunaz eta biziaz gabetzen ikusi, ezen ez eta bekhatu mortal batez obendun». Haur maite hari behar zituen erakuspenen emateko, hautatu zituen erresumako gizon ahalik zuhurrenak eta Jainkotiarrenak. Goizdanik hararazi nahi zioen bertute guzien urhatsa. Hala hala, Printze hura izatu zen *San Luis* errege, Frantziako errege distirantena». (*Esku-Egundiya*, 40 orr.).

(Ikus Aztertzeale, *Euskal Esnalea*, 1930, 19 orr.; G. Lakonbe, RIEV, 1930, 652 orr.; S. Onaindia, MEOE, 1094 orr.; L. Villasante, HLV, 304 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1955, 167 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 418 orr.).

5.—JEAN JAURGAIN (1843-1920)

Arras eskolatua genuen euskal lurreko gaietan, ikurdi —eraldika— ta edesti saillean batez ere; ots, euskal kondaira ta literaturari buruzkoetan oso jakintsua. Zuberoarra zan jatorriz; 1870'an franko-prusiar gudan parte artua. Karlista gerratean, ordea, Iruña'n aurkitzen zan Paris'ko eguneroko baten kazetari; eta, noizkoa alperrik ez galtzearren. Naparruko artxibuetako paper zarrak aztertu ta aietatik berririk beiñenak jaso ta antolatzen alegiñak egin zizkigun.

Olerki-batzaldietan jo ta ke laguntzen zion Abbadie jaunari, ta, ain zuzen ere, bera franko-prusiarren arteko gerrara joan

zanean, etzan olako poesi-jairik ospatu. Euskal festa ta antze-koak eratzen beti aurrelari agertu zitzaigun. Urte askotan izan zan «Eskualzaleen Biltzarra»-ko buruzagi eta alkarte onek oi duen bazkaria berak asten zuen, egundo utsik egiteke, edu artako jaialdiari zegokion euskal kantu aberkoiez. Madria'eko «Real Academia de la Historia»-ko lankide ere izan zan. I

Ona emen argitaratu zitun lan batzuk:

1) *Arnaud d'Oihenart et sa famille* (Paris, 1885). Berri asko damazkigu mauletar lege-gizon jakintsuaren baitan. Euskaltzale onen lanik bikaiñena dudarik gabe.

2) *La Vascome* (Paue, 1898-1902). Bi zatitan. Euskalerriko dukego ta erreinuetzaz ari da, nasai ta edakor.

3) *Jean de Tartas* (RIEV, 1907, I, 125 orr.).

4) *Le Nouveau Testament de Liçarrague* (RIEV, 1907, I, 288 orr.).

5) *Quelques Légendes Poétiques du Pays de Soule* (1897).

(Ikus J. Vinson, *Essai d'une Bibl. Basque*, II, 706, 795, 797 orr.; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1951, 187 orr.; 1952, 122 orr.; 1957, 178 orr., eta 1960, 144 orr.; Jorge de Riezu, *Flor de Canciones populares vascas*, 18 orr.; L. Villasante, *HLV*, 414 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 272 orr.).

6.—ARNAUD ABBADIE, KALONJE (1843-1915)

Onen aipu ariñeko bat, lí'garren alean (231 orr.) utzi genuen arren, bego emen ere beste zertxobait geiago.

Larresoro'n irakasle; 1893'an, adibidez, ikastetxe artan agertzen zaigu Hiriart-Urruti, Larralde, Lile ta beste batzuekin. Etzan izan maixu txarra, J. Etxepare'k beintzat, irakasle-andana ura goretsiz eskualde guztiko jaunik argituenak zirala aitortu zigun.

Arnaud Abbadie'ri buruz, berezkien, au dio: «Aphez bat, osoki apheza zena; —gizon bat, lurrak gutisko hazten duen be-

zalakoetarik: —eskualdun laborari-seme bat Eskual-erria bere itzalaz hartu duena, laborantza jakintsuen argiez bezanbat bere esku-lanaz goratuz eta maitaraziz: —idazle bat, eskuara zahar-raren mami gozoa hamabortz bat urthez *Eskualdunean* amul-tsuki ezagutarazi daukuna: —haurren, aitamen, aphez lagunen buruzagi zuzen, zuhur bat; aita on bat jende beharrentzat: horra nor eta noiakoa zen Arnaud Abbadie!» (*Eskualduna*, 1929).

Goraltza berdiñak dagizkio P. Lafitte'k ere. Nun-naitik so, gaillena dala diosku: aren pentsamenduak ez du egundo ere jau-zi ta zapartik; aren idaz-tankerak gutxiago. Argi ta garbi, labur ta errez idazten ditu bere asteroko lanak, nekazaritzak bear ditun aurrerapen guztiai ikututxo bat egiñik.

Eskualduna astekarian idazten zuen batez ere. Bere gaiñ zeukan «Laborarier» deitu orri-atal berezia.

Bi liburuxka ere argitaldu zituen:

- 1) *Aphezac soldado* (Baiona, 1890)
- 2) *Jesus Kurutzeari iltzatua* (1892).

(Ikus J. Saint-Pierre, *Gure Herria*, 1928, VIII, 11 orr.; P. Lafitte, *Le Basque et la Littérature...*, 68 orr.; L. Villasante, *HLV*, 196 orr.).

7.—JEAN BAPTISTA DARRIKARRERE (1844-1927)

Uztaritze'ko seme; an munduratu zan eta Saint-Denis'en il. Ziurtasun osoaz, ala ere, ez dakigu gauza askorik euskalari onen bizitzeari buruz; ez aurretikoak ez guk, ez dugu oraindik uztariztarraz iker-lan esatekorik egin. G. Lakonbe'k eskuratu zigun beintzat aipamen labur bat; onela dio: «Duela illabete batzuk il da Saint-Denis'en, 83 urtekin, J. B. Darrikarrere. Aita kaskoina ta ama euskaldunagandik Uztaritze'n jaioa, aur txikitxo zala frantses, kaskoin eta eskuara ikasi zitularik, bizi-tzako zer-nolak utzi ezkeroz, irabazi bikaiña atera al zezakean iru izkuntza jakite ortatik. Zoritxarrez, baiña, lenengo irakas-

kintza besterik etzuen artu, ta aduana-zaingoa edo aministrado-rekuntza asi zuen, ontan kapitain maillara iritxi zalarik ere» (RIEV, 1928, XIX, 156 orr.)

Ori ta guzti, aski jakintza lan burutu zuen, euskal arloan baitik bat. Ongi zetozkion atsedent-tarte ta asti-une guztietan ari izan zitzaigun bere ezagutze ta jakite-sortak gero ta geiago azi-azten. Irakurtzen etzitzaigun iñoiz aspertzen; Baiona'ko liburutegian zeuden Duvoisin eta Harriet'en idaztiak eskuratu zitunean batez ere, lapurtar idazle zarrak baitik bat, iñork ez omen ditu J. B. Darrikarrére'k bezanbat erabili; gibel aundi ta eramankizun ikaragarritz Leizarraga'ren *Testamentu Berria* (Rochella, 1571) ta L. L. Bonaparte'ren *Le Verbe basque en Tableaux* (1869) eskuz idatzi zizkigun.

Gurean bai itxorkulari ta etimolojistak ugari! Bai etxekoentzat bai arrotzentzat, barruti zabal, tentagarria izan da. Makiña batek oker egin du onetan, iltzeari buruan barik gerrian emanik. Darrikarrere ere bide ortatik saiaturia dugu, ta uste bitxi bat sartu zitzaion buruan: euskera, bere gardiz, indo-europear izkuntza zala. Eta, ainbat esan eta aolku bestera artuagatik, ortan ari izan zitzaigun bere berrogeta urtetan. Bere tesis aurrea eraman nairik, euskal itzak aztertu bearrean, zati txikietan banandu oi zitun, eta berak sustraiak deituak, uste zuen, indo-europear izkuntzan arkitzen zirala. Nola itsutu liteken! Eta itsumen au ezta uztariztar onena bakarrik! Ala ere, euskalari porrokatua zan, eta orixegatik Eusko-Ikaskuntzaren lenengo bazarrean bertan (Oñati, 1918) parte artu zuen.

EUSKAL LANA.—Itzen jatorriari buruzkoak izan ziran J. B. Darrikarrére'ren idazlanik geienak. Barne daramaguna errez us-tu oi dugu ta, 1885-7-19'eko «La Nivelle» egunkarian atera zuen bere aurrenengo lana, *baitha* itzaren inguruan ain zuzen ere. L. L. Bonaparte'ren lan bat aipatzen zuen bertan, ain gogo-ko etzitzaiona, ta Bonaparte'ren erantzuna laster izan zuen. Or-

duantxe asi zan, batez ere, bere iritzia agirian azaltzen, liburuxkak idatzi ta argitara emanez. «La langue basque et les idiomes aryens» (1885) izan zan lendabizikoa ta 1924'gokoa bere atzena.

Ba-zuen orrez gaiñera beste lan bat ere esku artean: paper adierazle bat barreatu zuen 1900'garrenean iztegi berri bat iragarritz; iztegi ark —*artzi* itzeraiño iritxi zan— itz-sorkun aldrebesak zeuzkan gorabera, ba-zuen bere alderdi egoki ta onurakorra ere. Baiña etziran askorik izan arpidetu ziranak, eta lenengo 176 orrialdeak baiño ez zitun argitaratu. Geroagoan, 1912'an, berriz ere beste iragar-orri bat zabaldu zuen, baiña oraingo aldiz liburuxka bat bera ere etzuen atera.

G. Lakonbe'k au gaiñeratzen digu; «Darrikarrére'k, bere etimoloji-kezkak aztu zitunean, gaur ere tinko dirauten lan interesgarriak eman zizkigun: aren iztegi amaitu gabeen guttikiko aurre-ezagutzetan datozten fonetika ta ortografiazko oar-kizun bikaiñak, ark Tartas'en *Onsa hilceco bidia* RIEV aldizkarian berriz ateratzean eman zizkigun gramatikari buruzko argibide baliotsuak; baita ark RIEV ontan azaldu zitun ipuiak ere, izkera arruntaren zelanbaiteko erakusgaiz orniduta daude. Darrikarrére'k euskal estudioai zerbitzu ederra egin zien gizaseme azkar baten oroitzu utziko du, baiña, asierako gerta-lan sakonik etzuelako edo, ezin atzeman izan zuen zegokion neurria».

Tartas'en liburua, ots, *Onsa hilceco bidia*, zuberotarrez ondua ta 1666'garren urtean lendabizikoz argitaratua, bigarrez atera zigun J. B. Darrikarrére'k RIEV aldizkarian (I, II, III ta V) aurrenik eta separata bezela (Paris, 1911) ondoren. Azkenengo 35 orrietan gaiak dakazki: 1) *Onsa hilceco bidia'ren* egillea, Joan Tartas, Arue'ko erretora; 2) ori zein izkelgitan idatzi zan; 3) napar-amikuzetar izkeraren berezitasun batzuk. 4) irar-utsak zuzentzen. Labur: ainitz argibidez ornidurik egiñnikako argitalpena duzu.

Iztegille bezela Azkue'k aipatzen du Darrikarrere bere Iztegi nagusiaren sarreran (XIII orr.), eta P. Lhande'k (X orr.V onek gaiñera, bere iztegia, tipografi-era argi baten bitartez, itz

guztiak beren sustrai edo beintzat jatorrizko itzaren inguruan bildu nai izan zizkigun, Van Eys'ek eta Darrikarrere kapitainak egin zuten gisan.

Ona aitaturiko iztegiari jarri zion titulu osoa: *Hitztegi heus-kara Frantziako eta Espainiako erderatart itzulija. Nouveau Dictionnaire-basque-français-espagnol* (Baiona, 1900). 176 orrialde. Markiña'ko Rafael Murga Mugartegi jeneralak lagundu zion; «avec la collaboration du general D. Rafael de Murga de Mugartegui» dio.

Ipuiak RIEV'en atera zizkigun: 1) *Eresiak eta hipuinak. Ixkoa nausi lan-gosea eta bere mutileri bizkarreko larruaren khentzailea* (1907, I, 320 orr., eta 2) *Zazpi-izarrak, zazpi-auntzak, idi-ohoinak, itheohoinak edo idi-uhuiñak deitzen diren izar andana hartazko eresietarik batzu* (1912, 224 orr.).

Frantseses liburuxka asko atera zitun, linguistikari buruz geienak, euskeraren izkuntz-aideak, jatorria ta fonetika aztertu nairik batez ere. Baita REEV, «Baiona'ko Bulletin de la Société des Sciences, Lettres, Arts et d'Etudes Régionales de Bayonne», «Bulletin de Biarritz-Association» eta olakoetan ainbat idazlan

(Ikus G. Lakonbe, RIEV, 1928, 156 orr.; L. Villasante, HLV, 92 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 394 orr.; Jon Bilbao, *Eusko-Bibliographia*, II, 538 orr.).

8.—JEAN BAPTISTA CONSTANTIN (1847-1922)

Emen daukagu, beste askoren artean, euskal idazle ixil bat; zuberotarra berau. Santa-Grazi'n sortua dugu, 1847-9-5'an. Atarratze'n itzali zan, 1922-1-6'an. Irakasle, *Eskualzaleen Bil-tzarra-ko* lankide.

Nekatu barik idatzi zuen *Eskualduna* ta beste agerkari ba-tzuetan. Gaur ere, tamalez, iñork txortaratu gabe sakabanaturik daukagu aren lana. Danetatik baliotsuena, auxe dugu nunbait;

«Harrichabaleten bizia», *Eskualduna'n* atera zuena. Nor genuen Harrixabalet ori? Apez ospetsu bat. Beronen inguruan ainbat kondaira ta erri-ipui eio ziran: Engrazi Pelento, Etxahun koplari famatuaren emaztea ere onen illoba zan, anitz buruko min ekarri ziona noski.

Ipui, elezar eta gorabera guztiak Konstantin'ek bildu ta molda zizkigun. Zubero'ko izkelgi barruan idatzi zuen, naiko gazigeza ta pipermitsu.

(Ikus L. Villasante, HLV, 304 orr.; San Martin, *Escritores euskéricos*, Bilbao, 1968, 63 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 167 orr.).

9.—CHARLES BECAS (1847-1911)

Ainhoa'n sortu zan, 1847-7-26'an, erriko elizari aurrez-aurre datzan Yoniorenea etxean. Gurasoak eta aurretikoak ba-zuten izen ona errian; eta famili ontatik jalgiak ziran, zugatz- ondolik altxuma lez, bi elizgizon: Charles bata, Yoniorenea'ko len-semea, ta Alberto bestea, Azkain, Donibane-Garazi, Ziburu, Esterenzubi ta Urkarai'n arima-zaintza egiña.

Karlos, Larresoro'n eliz-karrera osotu ta apaiztasuna artu ondoren, Baigorri'ko bikario izentatu zuten, bi urte berton egiñik. Kargu berdiñaz lan dagi, gero, Biarritz'eko Martin devma-ren elizan, zortzi urtetan. 1883'an Ahetze'n daukagu, eta pozik bere poesi baten dioanez:

Gure bizia daila goiti ta behiti,
Enetzat seurik hola gertatu da beti.
Baxinarren bi urte, Miarritzen zortzi,
Nahi nuke Ahetzen hil eta ehortzi.

Etzan emen luzaro egon; Bidarte'n daukagu, bada, andik laster arimazai. Erroak zitun ia egiñak Ahetze'n, eta artzaiñen artzaiñak deadar:

Hots, mugi hadi hortik hordi tzar alhaina
Eta has'zak, Bidarten, laugarren kanpaina!

Ahetze etzuen iñoiz burutik utziko, baiña azkenez bukatua
zuen bere arat-onat ibiltea. Kaskoiñen itxas-egalak atzeman,
ementxe bizi ta ilko da Bidarte'ko txaunburu. Onela kantatzen
digu:

Zahartzerat zaukaten enetzat Bidarte,
Hemen ere apezak badik begitarte!
Biloak zuri, bainan, gogoz beti gazte...
Hola iraunen diat agian hil arte!

Bai, ementxe il zan 1911'eko dagonilleko igande batez. Bere
gorpuari, ordea, Ainhua'n eman zioten lurra. Biak lur zoraga-
rri, bai bizitzeko eta bai il ostein atsedena artzeko.

OLERKARI.—Euskal-Erriko poeta onenetarikoa dugu Bekas.
Onela dio J. Barbier jaunak 1926-2-8'an Baiona'ko Ikastetxe
nagusian ainhoatarraren omenez esan zuen itzaldi ederrean.
Juvenal maiz irakurri zuela diosku, edo-ta *ego-aizeak*, euskal-
dunen sorgiñak zabaldu ta indar-azi zizkiola irudimen-egoak.
Dana dala, Ahetze'n zegoelarik (1883) ondu zuen bere lenengo
olerki-lana. Alai, ortzargi ta josta-zale dagerkigu geienik. Etorri
oparotsuko; «txinpartak atera ditun urgoria» dio J. Barbier'ek.

Sei sailletan banatu ditzakegu K. Bekas'en olerkiak: 1) *Bizi-
tzazkoak*; 2) *irri-eragilleak*; 3) *jainkotiak*; 4) *apez-sartzeak*; 5)
aldakerak, eta 6) *isla-erraiñuak*. Azter ditzagun banaka.

—Lenengo auekin bere bizitza adierazten du bizi ta arrai.
Apaiztu ta laster, esan dugunez, Baigorri'ra, Baxenabarre'ko
mendi tartean datzan errixka zoragarriara bialdu zuten apaiz-
lagun. Onela kantatzen du olerkariak:

Ordenatu ta laster fama zen etorri,
enetzat hautatua zutela Baigorri.

Bihotza altxaturik ene Jainkoari,
Harek nahi lekurat gan nintzan bikari.

Ara joan zan, eta pozik itxura zanez; baiña lendabiziko
gaua etzuen ongi eman. Onela dabes:

Lehendabiziko gaua, oi, zer gau dorpea!
begia ezin hetsiz, utzi nuen ohea.
Orhoitzapen goxoez bihotza betea,
gau ilhunari nion emaiten elhea.

Olaxe kantatzen dizkigu Baigorri'n, Ahetze'n, Biarritz'en
eta Bidarte'n egin zitun egunak.

—Bertso ariña zuen geien bat, Oxobi'k bezela, ta olan age-
ri zaigu irri-eragilleetan batez ere. Adiskide asko zituen, eta
auekin poz-eztitan aurkitu oi zan. Euskaldunok oitutzen dugu-
nez, jan-edate galantak ere antolatzen zituzten; eta au ez-ezik,
jan-edanera dei egitea ere bertsoz eratu oi zuen. Ona bein Mar-
tin Landerretxe, euskal idazle ezagunari dei egiterakoan, oni
igorri zion laukoa:

Gure ezkila ederrak ez du ikasi latin;
halere ederko jotzen du talantan, tilintin.
Egun, ene partez dautzu, erraiten: «Hola Martin!
ez ahantz larunbatean aurkitzea gurekin».

Eta gero, ederki jan eta edatean, edontziak alkarri eskeinka,
eta ertzak ikutuz, onela darrai;

Nork bada erran dezake, balitz ere barbera;
«Arno onetik ez edan, trixtatzen dik sobera!
Ez, ez, hunek, omen dauzka, suhurren arabera,
zaharrak beti gazte ta bihotzak alegara!»

—Apaiza zan, eta apaiz ona, bere egitekoa zegokionez betetzen zekina. Aren musa elizkoia izan bear, alabearrez. Neur-titz jainkotitan badu bat Axulai mendi gaiñetik Lapurdí zaintzen duen Ainhua'ko Amari egiiko 20 koplako olerkia. Au dio:

Kapera maite,
erran dezaket
zure ikustea
zaitala laket!

Eta euskaldun fededunak Ainhua'ko Amari berari egiñak ditu orrelaxe eskari kartsuak. Enparauak ere poz berdiñez ikusi nai ditu ta dei dagie gazte ta zaar guztiai, guraso jainkotiar, ume, beilari, arotz eta mariñelai: denak nai ditu Amaren magalpe goxoan bilduta.

• '.. Bidarte'n bada beste kapera bat, «Uronea» deritzaiona; oni ere eskeintzen dizkio koplak batzuk. Lourdes'ko Ama ez zu aantz, ta «Ama, eskualdunak egun zure oinetan daude» ta abar, Gabe ondoko mirarigille aundiari arnas biziko bertsoak eskeiñi zizkion.

Nekazariak goratzeko egiñak ez dituzu kaskarrak, ezta Flement eta K. Bordes jaunak eskatuta, 190ran ondu ta geroztik Donibane-Lohitzun'eko elizan sarri kantatu oi dan abesti txairu au ere:

Munduan ez da soseurik,
ez eta bake osorik,
etsai gaitzenak garhaiturik
zeruratzen da bakarrik!
Halere, ez izan beldurrik!
Boz batek dio zerutik:
«Ezin gal daiteke nihondik
Maria maite duenik!»

—Aurkari izateak ba-ditu bere alderdi onak; danari burua makurtuaz, baietz esatea, ez da egoki. Aurkari porrokatua genuen Unamuno bilbotarra: uste bitxi, paradoxa ta gezur-antzez betea iruditzen zaizkigu sarri aren i'datzi zorrotzak. Baiña mamiñan, aurka egin naia, ezta besterik, ortik sortuaz gauza atsegin-garri asko. K. Bekas ere gisa ortakoa zan, eta ainbat gauza interesgarri utzi zizkigun. Adiskideen arteko batzar bat, adibidez, oiñarri arturik makiñatxo bat koplá eder osotu zitun. Fortabat jauna, esate baterako, Arrangoitz'etik Sara'ra aldatua izan zan, eta Bekas'ek onela kantatzen:

Apezpikuaren manuz etorri da Sararat
Denek maite, estimatzen dugun Murde Fortabat.
Hunen orde jinen ziren, bai naski, eta zenbat!...
Batto behar eta nola hatzeman holako bat?

Baita abesten ditu ango lagunak egin zizkien ikustaldiak ere.

Nahiz itsaso begia urrun dagon Saratik,
Fortabat ikusi gabe ez naiz egonen batik!
Hunen ganat helduko naiz traba guzien gatik,
Behar badut ere salto egin Larrun puntatik!

Ez ditu gutxi taiu ontan ondutako koplak, goxo ta sarkor noski.

—Aldakerak —varietés— ere ba-ditu, urlia ta sandiaren goratarrez egiñak. Urrengo aapaldi onek, oso-osoan margozten du Bekas'en izakera: ez du bere bertsoz iñor zaurituko, ez saminduko; bai, ordea, irri ona ezpan-ertzean loretu.

Beltza duk ankrea, bainan nihor ez du zikintzen;
Ene lumak du xixtatzen, ez du nihor larrutzen.
Ahul... salda, biperminak hori ez badu ontzen;
Ez-deus koplá, hirri ona ez badu merke saltzen.

Onelaxe, larruko gabe, xixtatzen ditu Ainhoa'ko erretore jauna; Girón bidartarra; Aiherre'ko Julen Hegi, «pottoloa»; Mixel Dibildox, Alduden eta Iriburu'n erretore izana; bere anai Albert Bekas, Urkurai'ko etxaundurua, eta Larrondo jauna.

—Isla-erraiñuak —silouettes—, orduko apaiz ospetsuai eskeiñitako irudi txiki biziak dira. Era ontan goratzen ditu Donibane-Lohitzune'ko Elizage erretor nausia, Biriatu'ko Imatz, Haristoi, Dolhagarai, Leon, Duclos, Lille, Hiriart-Makola, Diharsarri, Juantxuto, Etxeberri, Marzelin Oihenart, Murde Rostand, Paris'etik Kanbo'ra etorria, Arbelbide kalonjea. Larra Gaston eta besteak. Hazpandarrak ziran Lizarraga anaiak, bata Getari'n erretore egona. Ona koplariak diona:

Hazparneko seme dire Lizarrage anaiak;
Ez hala hulako, bainan biak kalonje gaiak.
Gaitzak ere behar tuzte aintzin-gibel nasaiak...
Alabainan. barrikaren arabera uztaiak!

Ona, azkenik, Hiriart-Urruti kazetari izen aundikoari egiña.

Murde Hiriart-Urruti, huna azken pertsua,
Bai ongi izerditurik, zuretzat moldatua:
Axularreldn baituzu jakitate bertsua,
Mintzaira erdi-kaskoinak zagozka nardatua.

Aomen larrikoak izan dituzu, baita, *Martin Koxe* napartarra ta *Santsin* lapurtarra. Lenbizikoa, bein (1896), Larresoro'ko ikasle zarrak eraturiko batzar batean, Abbadie jaunaren aurrean abestua izan zan; eta bigarrena, *Santsin*, Bekas'en lanik oberena nunbait. Igande illuntze batez, *Santsin*, etxerakoan, erdi ordi itxuraz, txakur batek izututa bear bada, zelaira jausi ta gixajoa nekez etxeratu zan. Auxe duzu aski gai Bekas'en jit irrikoiak poliki euskal bertsoz moldatua. Olerki-lan au, 1897-8-

15'tik 22'ra Donibane-Lohitzun'en ospatu ziran euskal jaietan saritua ta *La Tradition au Pays Basque*'k (Paris, 1899) argitara ekarria duzu. Irakur lenengo aapaldia;

Igande ilhuntze batez,
etxea alde zohala,
erroz gora erori zen
Santsin, zabal zabala.
Izarrak nihon ez ditu
ikusi han bezala.
Ilhargia ferekatuz
gan zen gan berehala.

Onelaxe 9 aapaldiraiño. «Bizitasun aundiz emana dago —dio J. Barbier'ek—, ondo egiña, ederki bukatua; origatik da niretzat K. Bekas'en lanik ederrena». «Manex Artzaina» ta abar ere orren maillakoak dira.

Labur: «Bertsulari», «koplari» ta «ditzolari» genuen Bekas: bertsolari goxo, koplari samur ta ditzolari zorrotz. Aren neurtitzak, naiz goiarnaskoak naiz lur-gaiez onduak, beti dituzu bigun, eder. Bego J. Barbier'ek dioskun au ere: «Aren satira, egillea bera bezin maitagarriak, nik soil-soilki diot, beti dutela estalki bikain nabarigarria. Nabartua du izkera ere, irudi oso berezkoz gaiñezka; aberatsa du baita azken bukatzea, rima, doiñutasunez eta ots-izen alai, sonatsu ta poz-emaillez beterik».

Ainbat olerki eman zizkigun «Gure Herria»-n (1921-24). *Harrazpi* ta *Harrixabal* izen-goitiz ere izenpetzen zitun bere lanak.

(Ikus J. Barbier, *Gure Herria*, 1926, VI, 279, 321, 418, 472 orr., ta Auñamendi Bilduma, 53, 105 orr.; Gabriel Lertxundi, *Kantikak*, 1948, 402 ta 404 orr.; S. Onaindia, MEOE, 1088 orr.; Martin Elso, *Gure Herria*, 1966, 84 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 168 orr.; Jon Bilbao, *Eusko-Bibliographia*, I, 528 orr.).

10.—M. ETXEGOIEN (...1804...)

Maule'n erretore izan zan onek liburu au argitara eman zigun: *Uscara libria confessioniaz, commnioniaz, eta Meçaco Sacrificio saintiaz, bicitceco erreglamenteu bateki, cougni juntaturic beita Jesus Kristen passionia* (Baiona, 1804); 296 orrialde. Bigarren aldiz ere azaldu zan (Baiona, 1834); 321 orrialde.

11.—JEAN ETXENIKE (...1871...)

Euskaldunon argaltasunak ezaguturik, Frantzia'ko matxiña-da zaleak ere bertsoz jardunak dira euskaldun semeak beren aldera eraman nairik. Bertsolari onek beiñik-bein bere paperak egotzi zitun kalera. Ona bi ezagunak;

- 1) *Cantu berria* (Baiona), 17 aapaldikoa.
- 2) *Cantu berriac, bandera gorriaren gainian* (Baiona, 1871). 12 aapaldi.

12.—GEORGES HERELLE (1848-1935)

Jatorkiz Champagne'koa zan arren, Baiona'n bizi izan zan.

Ango ta emengo literaturak, Erdi-arokoak bereziki, ederto ezagutzen zitun. Euskerari buruz, ordea, naiko mugatuak zitun bere ezaguerak eta jakintzak. Euskal gaiak zorarazten zuten, alere, ta euskal teatrua sustraiz ikasi ta ikasi, pixkanaka gai on-tan euskalarien artetik jakintsuneetariko bat bilakatu zitzaigun. Zubero'n, agirian, antzeztu oi ziran antzerki ta pastoralak iñork baiño obeto aztertu ta sailkatu zitun, beuron jatorria, iturriak, bertsogintza, esku-idatzia, musika ta dantza, au da, gure teatru zaharrari zegokion dena sakonki ikasi ta aditzera emanik.

Gai oni buruzko lanik geienak RIEV agerkarian atera zitun. Baita, andik kanpora, auek ere: 1) *Les Pastorales basques* (Baio-

na, 1903); 2) *Etat des manuscrits de Pastorales basques* (Paris, 1905); 3) *Les représentations de Pastorales basques* (Paris, 1907); 4) *Canica et Beltchitine* (Paris, 1908), irri-antzerkia, euskeratik frantsesera lenengoz itzulita; 5) Baiona'ko «Bulletin de la Société des Scienres, Lettres et Arts» zalakoan: a) *Le thédtre comique des Basques* (1925); b) *La représentation des Pastorales basques a sujets tragiques* (1923); d) *Les Pastorales a sujet tragique considérées littérairement* (1927), eta e) *Réper-toire du thédtre basque tragique* (Baiona, 1922-28).

Erbesteko izkuntzetatik itzulpen batzuk ere osotu zitun, adibidez: Blasco Ibañez, d'Annunzio ta beste batzuk frantsesera biurtu zitun, idazle auen izena erbestean ere entzutetsu egiñik.

(Ikus L. Villasante, HL.V, 403 orr.).

13.—ARNAUD AGIRRE YRIBARNEGARAI (1850-1932)

Bigarren alean aitatu dugun euskal idazle azkar, Mixel Eli-zanburu'ren —Salletarren artean Anai Inozenzio zanaren— lana Azparne'ko ikastetxean jarraitu zuen Lasailleko Anai bizkorra. Bai ark bai onek, lengo gizaldiaren amaieran eta onen asikieran batez ere, amaikatxo euskaldun gazte eskolatu ta gizon egin zituzten!

Sendiko izena Arnaud Agirre zuen; Salletar zala, oster, *Juvenal Martyr* anai. Jatorriz Tolosa'koa, gipuzkoarra izanik ere, Heleta'n (Baxenabarre, Iholdi'k urbil) jaio zan 1850-2-1 l'an Ahan Txoko etxean. I. Lopez-Mendizabal'ek, alere, Tolosa'n jaio zala diosku, Errementari-kaleko Burruntxalieta etxean; askotan alkar ikusi zutela, ta olako baten bera Tolosa'n sortua zala aitortu ziola: daitekena da: artxibuak ikusi bear (BAP, 1959, 3, 355 orr.).

Lasalletarren Lagundian sartu zan 1864'an, Bordele'ko etxean jantzia arturik; geroago, 1878'an, Pibrac'en egin zuen profes. Azparne'ko ikastetxean Inozenzio Anaia'ren orde z-

zendaritza artu aurretik, leku askotan irakatsi zuen: Uztaritze'n (1865-68) bi alditan, Paube'n (1871), Plaisance'n (zuzendari, 1879-80), eta Azparne'n askotan (1868-69, 1871-79, 1880-92, eta zuzendari, 1902-11). 1911'tik aurrera Donosti'n, Gallarta'n, Irun'en eta Maule'n lan egin zigun. Maule'ko Aguerria'n il zan, 1932-2-7'an, zaarren etxean, azken urteak eman zituen tokian.

Odol-aiurri onekoa zanez, bizi izan zan leku guztietan osorik irabazi zitun ikasleen eta fraide-lagunen biotzak. Bizi-legez arteza ta giza-arauz onbera, ezta arritzekoa aomenak bere izena ego-gaiñ erabilli bai zion ere.

Barrunbe-osin ixillean zirkinka zitun griñetariko bat zuen euskaltzaletasuna. Ta maiz erne-azi zizkigun, azala urratuaz, seta urduri orren kimuak: Baiona'ko «Eskualduna» asterokoan idatzi oi zuen, euskeraz. Iztegi bat ere argitaratu zigun: *Vocabulaire trilingue français-espagnol-basque* (Baiona, 1899). Lamaignère jaunaren irarkolan. 224 orrialde. Azparne'ko ikasleentzako osotu zuen, batez ere, iru izkuntzazko iztegi au; an danetik bait zeuden ikasleak, frantses, euskaldun, espaiñarrak.

Onez gaiñera, or-emen bildutako erri-kantaz osotu zuen bilduma bat; 1901-11-9'an, Broussain'ek Azkue'ri idazten zion: «Je vous apporterai le 18 a Fontarrabie le recueil des chansons populaires du fr. Juvénal» (*Euskera*, 1957, II, 364 orr.). Nun ote da gaur bilduma ori?

(Ikus Lizundia, *San Marcial*, Irun, 1958, I, 25 zenbakia; H. V. B., BAP, 1959, I, 73 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 455 orr.; Jon Bilbao, *Eusko-Bibliographia*, I, 60 orr.).

14.—PIARRES HARISPE (1854-1925)

Lapurditar apaiz langillea. 1884'tik 1886'ra Donostiko «Euskal-Erria»-n ematen ditu bere lanak; idazle atsegiña. 1886'an ementxe (*Euskal-Erria*, 2'garrena, 47 orr.) argitaratu

zuen *Karmela* ere, iru ekitalditako drama, bertsoan. Ementxe dator Aldude'ko Perkain eta Kanbo'ko Azantza amazortzigarren gizaldiko pelotari izen aundikoak aizatzeke egin zuen olerkia. Kanbotarra atera zan txapeldun, eta olerkariak biziki goratzen du bertso txairoetan. Irakur aapaldiok, 3/6'tan:

Azantzako semea nik ez dut mendratzen,
Bere parerik ez du pilota botatzen;
Bai, bainan Perkain hori ez zuen lotsatzen,
Plaza guziarentzat bera aski baitzen!

Hek zazpi joko eta gurek bederatzi;
Halere Lapurtarren plaza ez zen aski,
Hasarrean bezala trebesian beti:
Urguiluz nahi zuten guri irabazi!

Orai betetzen ditu bederatzi urte,
Eaigorrin trufa hunik egin ziraukuten:
Gure gasna-sariak joan zinituzten...
Ordainak baitiaguk, hor konpon zaitezten!

Orai, Lapurtar jaunak, zuer zer zaitzue?
Monedako etxea hurbilxko duzue;
Eskasten bazaitzue, hartarat zoazte,
Ukaiten baduzue... harturen duzue!

Lau aapaldiok irakurri-ala, naitaez aitortu bear: «Onek ba-du gurpilla bertsoak ontzeko!» Izan ere, barru ta kanpo ederki biribilduak daude. Gogoko zaigu *Karmela* irakurtzea. Perkain aldudetarra baitik bat, izen zabaleko pelotari zan, eta, Piarres Harispe'ren lana oiñarritzat arturik, frantsesez egiñiko antzerki bat ere —*Perkian* izenez— osotu zuten, Paris'eko Opera antzokian eman zutena.

Berea du *Ainhua* (Paris, 1892), euskal nobela ere. Eta lapur-erara biurtu zuen *Chanson de Roland* dalakoa.

Idazle ontaz au dio P. Lafitte'k: «Harispe olerkari jainkotia izan zitzaigun: ugaria, noski, ta bere lanik bakaiñena *Karmela duzu*».

(Ikus J. Vinson, *Essai d'une Bibl. basque*, II, 791 orr.: Philippe Veyrin, *Les Basques*, Baiona, 1942, 218 orr.; P. Lafitte, *Le Basque et la littérature*, 53 orr.; S. Onaindia, *MEOE*, 465 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskara* II, 168 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 307 orrialde).

15.—JOSEP XORIBIT (. . . . -1922)

Azparne'ko seme. Larresoro'n egin zitun ikaskintzak. Maite zuen leialtsuki bere lurraldea, ta sarri mintzatu oi zan izlari lez jendearen aurrean; baita idatzi ere, bere lapurtar izkeran. 1922'ko urtarrillean il zan, naikoa gazte.

Ezta, ez, burutu zuen euskal lana arbuiagarri. 1892'an, Xoribit'ek, Arbelbide'k eta beste batzuk atera zuten *Hazparneko Kalbarioa* deritzan liburua; 1913'an Biarritz'en eman zuen itzal-di eder bat, *La chanson basque* gai zuelarik; urte berean, Baiona'ko «Société des Amis des Arts» alkartean beste bat (RIEV, 1913, 1 orr.). Diputadua ere izan zan.

«Gure Herria» (1921) sortu zanean, berak idazten digu lenengo agurra. Ez da luzea ta, ona osorik:

«Zuen ganat heltzean, irakurtzaile maiteak, iduritu zait agur bakhar bat etzela aski. Hartakotz, koplariaren gogoari jarraikiz, diotzuet: «Agur, jaunak, jaunak agur, agur t'erdi». Baina zer derasat? Huna nun nere agur hau bertze baten gapeluaz emaiten dautzuedan. Zeren *Gure Herria* da zueganatzen dena, eta hura da zueri mintzo. Zer da *Gure Herria*}... beira berari. Zer nahi othe du?... Gazte batzuen gogotik atheratu aginbide egiazko bat bethe eskualdunen arima zaharra bethi egon dadin phizturik. Arima hura da gure arrazako lehen haurraren obakoa bizitu duena, eta gar saildu batez berotu duena. Eta

eskualduntasun horren itzul-inguruak, bidexkak, harat-hunatak, barneko mamia eta bihotza nahi dituzte beren gordelekutik jalarazi. Halaz ezagutuko ditugu gure aberastasun gehienak. Lurpean dagon urre ehortziari nork erranen dio ontasuna? Ontasun bilhakatzeko haintzurak behar du agertu.

Gure Herria izanen da haintzur hura. Hari esker, beraz, ezagutuko ditugu behialako ezkiribitzaileak, eskuara goratu dutenak, eskualdunen oitura zaharrak, arbasoek kantatzen zituzten neurthitzak, bien erran xuhurra, iphuin irrigarriak, eta gure mintzai aspaldikoa, ithurburua ezin aurkituzkoa daukana. Gisa hartarat ere, gure beharrietan joko dute aitaso bai eta amasoek entzun ttunttunek; gure begiak ikhusiko dituzte lenengo mutxikolariak, errebotlari aiphatuak, ttikiek irakurtzen dituztelarikan sorgin kontuak. Horiek hola, atsegin har dezagun eta *Gure Herria* agur erraiten daukunaz geroz ihardets dezogun»: «Ehun urthez». Nik aldiz diozuet: «Gu kondatzaile».

(Ikus J. Vinson, *Essai d'une Bibl. Basque*, II, 653 orr.; *Gure Herria*, 1921, 7 orr., 1922, 3-5 ta 6-7 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 279 orr.).

16.—JEAN HIRIART-URRUTI (1859-1915)

Apat-Etxabame'k, 1959'an, kazetari bizkor onen urte-urre-na zala-ta, onela idatzi zigun: «Aurten betetzen dira 100 urte izen horren idazlari andia sortu zela Hazparne-n, Joanesederrae-nean izeneko etxean. 1886'garren urtetik, asieratik, ESKUAL-DUNA astekariaren leen buruzagia hil arteraiño, berak abia-arazi zuen eta bidatu. Berak idazten zuen asteoro leen lerrotako artikuloa, herriko euskara eder, aberats eta garbi hartan» (*Egan*, 1959, 185 orr.).

BIZI-ERRAINUAK.—Hazpame'n jaio zan 1859-1-30'an, Azketa auzotegiko «Joanes-ederra» zeritzan etxean. Txomin edo

Dominique'ren anai bizkia. Garai artan Hazparne'n apaiz-laguntzaille zan G. Adema'k bateatu zuen. Erriko eskolan leen-ikasketak egin ondoren, Larresoro'n eta Baiona'n osotu zizkigun eleiz-karrerakoak. Gero, 1881'an, Larresoro'ko irakasle izendatua izan zan; urrengo urtean, Ducellier gotzainak eman zion Baiona'n apaiz-ordena.

Andik laster asi zan idazten, 1887'an, «Eskualduna» sortu zanean batez ere. Eta Hiriart-Urruti'ren bizi osoko lana astekari onen orrietan daukagu, lan sendo, giartsu ta aspertu gabea. 1907-12-25'an kanonigu izendatu zuten, G. Adema kalonje il berriaren ordezeko. 1901-02'an, euskal ortografi zala ta etzala izan ziran goraberetan parte artu zuen, zearka beintzat; mugaz andikoak, bada, emengo batzuekin batera, goiak eta beiak astindu zituzten, ikusi dugunez, aranatarren asmo ta burubideai kale eragiteko.

Baiona'n il zan, gazte oraindik, 1915-11-4'an. Hazparne'n lurra eman zioten bere gorpuari.

EUSKAL LANA.—Bigarren alean aitatu dugun Jean Ithurri apezaren *Grammaire basque* (Baiona, 1895) osotu ta argitaratean asko lagundu ba'zuen ere, liburu bezela ez zuen ezer argitara ekarri; bai, ordea, eundaka artikulua eder, «Eskualduna» kazetan bereziki.

Emeretzigarren mende azkenerantza Frantziak jasan zuen iraulketa gordiñak Euskalerrian ere, ipar-aldekoan baitik bat, izen zuen bere oiartzuna. Erlijio aldetik batez ere, gorriak ikusi bear izan zituzten ango erriak eta eliztarrak. Iraultzailleak bizkor zebiltzan, gure errian ere beren ideia ta aurrera naiak guneraño sartu gurarik. Ortarako, 1886'an, «Le Réveil Basque» zalakoa sortu zuten Baiona'n; bestaldetik, baiña, euskaldunak ere etzeuden lo ta, urrengo urtean, «Eskualduna» atera zuten. Asteroko onen buruzagi Hiriart-Urruti izan zan asieratik il arteraiño. «Le Reveil Basque» lez, izkera bikoa zan «Eskualduna» ere, euskeraz ta frantsesez erdizka. Urteak joan urteak etorri,

ala ere, «Eskualduna» osorik euskaldundu zitzaizun. «Reveil» laster itzali zan; «Eskualduna»-k ordea bizi luzea ta joria izan du, ta gaur ere aren erro-muskil «Herria» bizitza mardulaz agiri zaigu.

Errian eta idazle zaarretan ikasita, ederki zekin Lapurdi'ko mintzaira. Eta zuzentzen zuen asterokoan eman zitun lanak euskerara dotore, bizi ta ugarian biribilduak daude. Duvoisin kapitainaren «Laborantzako Liburua» irakurriaz ikasi omen zuen idazkortza azkar ta pipermintsu erabiltzen. Baita erriari atsegin zaizkion gaiak aukeratzen ere. Aren lanak orduko giroa jakinazten digute bizi-bizi, 1887'tik 1914'raiñoko giroa bai beintzat. Eta aspaldikoak izanda ere, ba-dira gai batzuk eta idazkera batzuk egundaino gaurkotasuna galtzen ez dutenak. Auxe atzeman nai luke idazle onak.

Ikusi zuek, irakurle, diodana egia danentz. Irakur zazu «Errepublikak» deritzaion lana.

«Adiskide batek izkribatzen dauku, harritu dela, iragan astean, *Eskualduna-ren* lehenbiziko artikulua irakurtzearekin. Ez dugu bada, gure ustez, deusere erran egarik eta zuzenik baizik. Erran dugu Aita Sainduak kontseilatzen gituela, bakearen gatik eta erlisionearen gatik, Errepublika on bat onets dezagun. Egia erran dugu.

Erran dugu onartzen dugula guk kontseilu hori. Erran dugu orai baino lehen ere, gure baitarik eta aski erakutsi dugu, nor diren gure etsaiak; ez gituela gu Errepublikaren izenak izitzen. Erran dugu Errepublika ona izan dezakegula, baldin bozkatze guzietan gizon zuzenak, zuhurak, giristinoak izendatzen badiugu. Hori egia ote da, ala ez? Hala ez bada, zoazi adiskidea; errozu Aita Sainduari, ez dela xuxen mintzo. Guk nahiago dugu haren eta gure hitzean egon.

Zer bada? Orai *xuriak gorri* behar ote gira bilakatu? —Ez dugu hori erran; ez eta hitz erdirik ere ez dugu erran, hortara dohanik. Gure adiskidearen arabera, gaizki egin dugu Aita Sainduaren letra laburzki aipatzea. Behar ginuen beraz letra hartarik

zati handi bat bederen eman... Zertako ez letra guzia, osorik, zabal zabala? Bazuketen gure irakurtzaleak behingo lan, letra luze horren burutik buru irakurtzen. Ez; ez dugu nahi izan sobera lan hartu, ez eta eman nehoi. Oxala asteen behin *egia bat, bakar bat* ongi sar-arazten ahal baginu gure *Eskualdun* irakurtzaileen buruan!

Azken aldian ahal bezen laburzki eta garbiki eman ditugu hemen Aita Sainduak igortzen dauzkigun bi kontseilu. Kontseilu horietarik lehena da, gorago aipatu duguna: Errepublika on bat onestea. Kontseilu hori zor ginuen gure adiskideri. Eta, ez gure izenean, baina Aita Sainduaren izenean, ezarri dugu hemen eta egun berriz ezartzen lañoki den gutieneko gibel-bel-durrik, ez itzulikarik gabe. Hanbat gaixtoago hori ongi ez zaionarentzat.

Eta aldiz Aita Sainduaren bigarren kontseiluaz ez omen dugu aski erran. Gure adiskidearen arabera, Errepublikaz sobera mintzatu gira; *eta ez aski* orai artinoko Errepublika hunen lege tzarrez eta egitate tzarrez. Barkatu, jauna. Huna, hitze2 hitz, zer erran dugun egun zortzi; «Framazonen eskuetan gira. Framazon horiek bere ahal guziak egiten dituzte Prantzian erlisioneari erro guziak moztu nahiz. Guri dago ahal guzien egitea gaixtaginer jazartzeko. Dugun elgar adi, elgarri esku eman giritino guziek, framazonak eta herriko kontseiluetarik kanpo ezartzeko. Behinere ez dezagun bozetan indarririk eman erlisio-nearen kontrako lege tzar horien kentzera ariko direla zinez hitz-eman nahi ez duten gizoneri».

Xetasunetan sartzeko denbora dugu. Etsaiek emanen daukute aski eta sobera okasione hortako. Goazin elgar adituz, bederen adiskidekin» {*Eskualduna*, 1892-3-4}.

IRITZIAK.—Izadian begiz dakusgun lur-pendiza, ederra baldin bada, ezin dezakegu bestelakoa danik esan; berdintsu idazlan baten ere. Hiriart-Urruti'ren lanak irakurri dituzten guztiak bikaiñak dirala esan dute.

G. Muxika'k onela: «Jaun onek ainbat, gure ustez, ez du beste iñork euskeraz idatzi. Ainbeste gaietzaz ez beintzat. Estu-estuan esan dezakegu, jaun au izan dala orain arte euskerak izan duan «periodista» bakarra. Lendabizikoa bai beintzat» (*Euskal Esnalea*, 1915, 284 orr.).

P. Lafitte'k: «Aririk landako idazlea izan zitzaigun, autu ta alkar-izketa zorrotz-zartatsutik eraso koskalari, leiatsu ta truíalarira aldatzen zana, idazkera erabat errikoi ta txukun-amultsuan. Esku-jokari bat izan zan Onaren zerbitzurako. Are geiago: bera izan zan gaiñera belaunaldi osoko maixua; berak erakutsi zion oni euskeraz bene-benetan pentsatzen, frantses itz-jarionen esteku ta korapilloetan matazatu gabe» (*Le Basque...* 68 orr.).

Joseba Intxausti'k: «Historizale eta euskal literaturzaleak ahantz ez genezakeen luma zuen Jean Hiriart-Urrutik... Idazle gutik ekar dezaiguke garaiazen histori testigantza jakingarriagorik. Euskal Herrian, hazpandarraren luma egunean eguneko kezketan blai eginda ari bait da lenean». Ibón Sarasola'k: «Prosalari paregabe, Iparreko idazle askoren maisu eta gidari».

Azken urteotan Hiriart-Urruti'ren lanez ornitutako bi liburu apain atera dizkigu «Jakín» liburu sortak. Bata: «Mintzaira, aurpegia: gizona», P. Lafitte'ren sarrera luze batelón (222 orr.), eta bestea: «Zezenak Errepublikan», Hiriart-Urruti bere garaiazen kritiku (212 orr.).

(Ikus G. Biona, *Euskal Esnalea*, 1915, 284 orr.; P. Lafitte, Col. *Aintzina*, Baiona, 1944, 5-10 ta 56 orr.; A. Irigarai, *Egan*, 1959, 185 orr.; L. Villasante, HLV, 195 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 177 orr.; J. Sarasola, *Euskal Literaturaren historia*, 117 orr.).

17.—JULIEN HEGI (1860-1930)

Idazle gertatu al izateko, euskal idazle batez ere, batetik edo bestetik jo egin bear, egazkada luze-zabalean naiz motz-labu-

rrean; baiña goragoko mailla batera igotzen saiaturik. Mendi-
gaillurra irixterakoan egin oi duguna noski: beeko urratsaz goi-
koa gurutzetu. Eta mendigoizaleak gaiña jaresten duen bezela,
idazleal< ere bere antzekoai tamaiña artzen die,

GIZONA.—Aiherre'n sortua dugu J. Hegi apez, 1860-10-
14'an. Larresoro'n egokitu zitun lenengo ikasteak, ondoren
1875'an Baiona'ko ikastetxera igarorik. 1885-7-12'an apaiztu
zan, eta ondoren, urte bereko iraillaren 19'an Zubero'ko erritxo
Santa-Grazia'ra bialdu zuten apaiz-laguntzaille. 1889'an Ain-
hoa'n daukagu kargu berdiñaz; gero Uztaritz'en, eta berriz ere
Santa-Grazia'n, orain erretore. 1903'tik 1924'ra, ogei urtetan,
Beskoitze'ko erretore izan zan; atenez, Arrokuaga'koa. Emen-
txe il zan, 70 urte zitula, 1930-6-4'an.

Noiakoa ote genduen soiñez? Lodi xamarra zalako edo,
«pottolo» esaten zioten. Bein K. Bekas'ek onela osotu zigan
aren irudia:

Jainkoak eman derauzku ikusteko bi begi;
Nik batekin eta urrun ezagutzen dut Hegi.
Higi bai, baina deneri ez baititake segi!
Dio: «Ez joan lasterregi, etzaut hori zilhegi.

Gero, ordeaz, ageri danetik lenaz damuturik, onela goratzen
du basauntz pareko Auñamendi bizkarra gainditzen ikustean:

Musde Hegi ezin segi! Oi, oi, oi, zer gezurra!
Horren haundi othe diren nago zeru'ta lurra!
Merezi baitut miletan hauts dezadan sudurra,
Dugun hil hunen samurra, antolatuz makurra.

Hara, «Ahuñe» gain hartan nun doan Musde Hegi,
Lezeek izitu gabe saltoka begiz hegi.
Ahuntxaren pare Hegi!... Egia bethi egi! !!
Ordokian bai mendian, Hegi ditake higi...

Apaiz ona genduan Hegi, umore ona jarioka zuena. Giza-seme zintzoa, arimazai arduratsua, euskaltzale fiña. Guztiak maite zuten. Argibiderik? «Abendoko azken igande batez —diosku P. Lafitte'k—, ezkontzez zuen solasa eta huna nola zen mintzo: —Giristiano maiteak, aurthen ezkontzak herri huntan iru lerro-lerro. Zer ari zauzku bada gure gizon gazteak? Ba, funtsean, batere ez naiz estonatzten eta arrazoin dute. Arras ergelean ditugu neskak, karakoillak bezela, etxe guzia soinean».

Euskaltzain urgazle izan zan, Donostiko batzar baten, 1919-10-26'koan aukeratua.

EUSKAL IDAZLE.—Maiz ezta ere, Baiona'ko *Eskualduna* as-terokoan idatzi oi zigun, luma bizi-biziaz beti. Liburuxka au argitaratu zigun gaiñera: *Andredena Mariaren hilabetia eta Arrosorioco hilabetia* (Baiona, 1890); 196 orrialde. Geroago ere P. Lafitte'k azaldu zuen berriz. Idazle beronek argitaratu zizkigun, *Gure Herria* agerkarian, beste bi liburuxka auek ere: 1) *Julien Héguy* (1930), 247 orrialde, ta 2) *Julien Héguy apheza* (1930), 312 orrialde. Ona zatitxo bat *Gure Herria'tik* artuta:

«Gaztelondoko herrian *Pampi* ostalerari emaztea eri gaizkitu zako. Kattin maitea hil behar zankola naski, *Pampik* hiru auzo herrietako hiru mirikuak ekhar arazi ditu. *Bizkarrotz* herriko mirikuarekin kontsulta baten egiteko. Horra beraz hiru miriku arrotzak eta *Bizkarrotz* criaren aldean. Eria untsa ikhar-tu eta, lau mirikuak badohazi beste barne batetara eriari zer egin dezoketen elgarrekin hitzartzeko. Bainan zaharrenak dio ordu berean: Zer zautzue? Ene arabera *Kattin-ek* ez du eska-purik, abantxu dela daukat, bihar goiz artio irauten badu, mun-duko goren. Hea zer zautzuen?

—Uste diuk ba xuxenean hizela. Gure arabera ere sobera ere sobera hartua duk ihardokitzeke. Horri erremedio emaitea debaldetan dukek, bainan halere, *Pampi-ri* ez iduriarazteko...

—Ez niz zuen jakitateari bihurtzeko ari, dio orduan *Bizkarrotz-ek*, bainan eztut uste eria hoin aphal dugula, eta daukat, Kattin sendo araz dezakegula,

Ezetz eta baietz, gure lau mirikuak hor bizi bizia hizkatzen dira. Beren kontsulta izkirioz ezarririk, papera aurtihikitzen dakote *Bizkarrotzi*: To, egin ezak ahal dukana, eta gorde nahi daukukan jakitate berezi zonbait balinbaduk, balia hadi, guk berriz ere zioguk *Pampi-ú* emaztea etzakola nehundik ere sendotzen ahal. Hiru mirikuak badohazi kanpo, *Bizkarrotz-entzat* gaizki eta gaizki deasatela.

—Ikhusi duzue tonto zar hori, Guk eztakigunik badakikeela uste othe du?

—Zer nahi duk?, hori bethi hola izana duk. Eskoletan elgarrekin ginitian, eta nausiak zerbeit galdatzen zankonean, sekulan hitz bat etzezakean erran, astophutz horrek» (G. H., 1930, epail-jorrail, 174 orr.).

(Ikus P. Lafitte, *Gure Herria*, 1930, 247 ta 312 orr.; L. Villasante, HL.V, 305 orr.; Col. Auñamendi, 53, *Fantasía y realidad*, 137 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 427 orr.).

18.—KRISTIAN KORNELI UHLENBECK (1866-1950)

" Ona izkuntzalari, linguista errime bat. Beronen iritziak zentzuz emanak dituzu beti. Izkuntz-zelaian errez laban egin deza-kegu, arretaz ibilli ezik. Jakintsu au, alere, bere lanetatik dakusgunez, munduko izkuntzetan osó aitua izan arren, kontuz ari izan zitzaigun beti ere baipeñ borobillak emakeran. Atsegiñez irakurtzekoak dira bere lan jakingarriak.

Olandar argi au Haya'tik urbil dagoen Voorburg urian jaio zan, 1866'an. Hugonote famili batekoa zan jatorriz. Leyden'eko Ikastetxetik irakasle zan izkuntzetan; Olanda'ko gobernuak Errusi'ko artxibuak ikertzera ere bialdu zuen. 1892'an Amsterdam'en daukagu sanskrito erakusten, eta antziñako germandar izkuntzak ere bai. 1910-iran oin belzdun indiotarren eskualdera egin zizkigun osterata batzuk aien izkuntza ikasi ta aztertzen.

Olanda'ko Zientzi-Akademikoa izan zan, ainbat izkuntza lan argitara emanaz, indo-germandar eta amerikar zelaikoak batez ere.

1888'tik baitik bat, euskera ikasteari ere eman zion; bere Maixu tesisa ere euskal izkeratzaz egin nai izan zuen, baiña maikoak etzekiten euskerarik eta beste gai bat aukeratu bear izan zuen. Ipar-Amerikako indiotarren izkuntzak ikastean, aiek eta euskera kidetzen jarduna dugu. Orrela idatzi zigun: «Le caractère passif du verbe transitif ou du verbe d'action dans certaines langues de l'Amérique du Nord», J. Urkixo'k frantsesez ipiñita RIEV (XIII, 399 orr.) aldizkarian ager-azia. Eta onako beste asko, bai RIEV'en bai *Eusko-Jakintza'n*, batzuk prantsesez eta beste batzuk espainieraz; esate baterako, aipagarriak dira: «Características de la gramática vasca», «La lengua vasca y la lingüística general», «De la possibilité d'une parenté entre le basque et les langues caucasiques», «Contribution a une phonétique comparative des dialectes basques», eta abar. Onek eta arek argitara emaniko liburuak zirala-ta ere, argi ta garbi azaldu zuen bere iritzia an eta emen.

Euskaltzaindiak, 1919-10-26'an, Donostiko Aldundiaren jauregian euki zuen batzarrean euskaltzain deduzkotzat autatu zuen, Tolosa'ko P. Orkaiztegi, Gratz'ko Hugo Schuchardt eta J. Vinson'ekin batera.

K. K. Uhlenbeck Suiza'n il, Lugano-Ruvigliana urian, 1950'an.

(Ikus *Euskera*, 1919, 54 orr.; RIEV, 1925, 85 orr.; Espasa-Calpe, 65, 830 orr.; L. Villasante, HLV, 405 orr.).

19.—JEAN SAROIHANDI (1867-1932)

Jatorriz eusko odolekoa zan arren, Vosgos departamentuko Saint-Maurice-sur-Moselle'n jaio zan. Lenbiziko urteetan bere asaben izkuntzaz ezer arduratu ezpaitzan ere, gero 1913'tik

aurrera, Zubero aldean eman zituen aldikada batzuk zirala-ta, euskal gaiez axolatzen asi zan, geroztik gure aditz arrigarriari buruz naikoa idatziz ere emanaz.

J. Urkixo'ren esatez, Saroihandi etzitzaigun sekula ere euskalari aundia izatera eldu ta aren baipenak sarri airera artu bear ba'ditugu ere, ba-zuen ark zer askotan zentzuna, jakitatea. Etzuen betarik izan euskeraz ta onen zirkin-zulo guztiekin bear bezela jabetu al izateko. Ez da asko, beraz, orrela gertatzea.

Egia aitortzeko, alere askotxok uste duen baiño lan bikai-ñagoa egin zigun euskal barrutian. Euskal aditza errotik ikas-tean, onek ba-zeukala uste zuen bere jokoan antziñako forma edo era artzaillerik ere.

Idatz-lanetan, berriz, Oñati'ko Batzar nausira artikulu sakon bat igorri zuen, eta Gernika'n, 1922'an, berberak irakurri zuen Oihenart'ez osoturiko lana, zati bat beintzat RIEV (1922) ager-karian ere eman zuena. Agerkari ontan ba-ditu beste lan ba-tzuk oraindik, 1920, 1924 ta 1925'an bereziki.

Zubero antzerki-pastural bat ere argitaldu zuen: *La Pastorale de Roland* (Baiona, 1929).

(Ikus R. Gallop, *Los Vascos*, 1955, 237 orr.; L. Villasante, HLV, 408 orr.).

20.—ETIENNE DECREPT (1868-1938)

Baiona'n sortu zitzaigun 1868-11-1'an. Paris'en ikasi zuen Apain-Ertiak —Arts Decoratives— dalako Ikasguan. Apain-margolari izan zan bere aita bezelaxe, eliza askotan margogin-tzan jardunik. 1900'an, aita il zitzaionean, Lapurdi'ra biurtu zan.

Euskaltzale gori, urte-pilloan bera izan zan «Eskualzaleen Eiltzare»-ko buruzagi. Bidarte'n itzali zan, 1938-5-8'an.

EUSKAL LANA.—Etxe ta eliz apainketari lagarik, biotzak eta etxe-barneko gorabera biziak pintatzen eman zituen astiune ta txolarte atsegiñak. Iru opera ondu zizkigun. Ona:

1) *Maitena* (Bilbao, 1909). Partitura osoa. Ekitaldi bitan. Itz neurtuz eta larriz. Ikusi RIEV, 1910, 151 orrialdean. Charles Collin'ek ezarri zion musikea, ta Bilbao'n antzeztu zan aurrenik Campos Elíseos deritzan teatruan, 1909-5-29'an, ondoren Gazteiz'en, Iruña'n eta Donostia'n ere emanik. Gero ere maiz aurkeztua: Endaia'n (1913), Madrid'en, Melilla'n zauritutakoen alde (1928), Hossegor'en (1930) eta Donibane-Garazi'n (1931).

2) *Amatchi* (RIEV, 1914, 84 orr.). Pastoral, bi ekitalditan, itz lauz eta bertsoz. Collin'ek eresitua. Bilbao'ko Korala zan 1936'an emateko, baiña etzan antzeztu guda-iskanbillak zio.

3) *Semetchia* (1921). Au ere Collin'ek eresitua. Donibane Lobitzun'en eman zan lenengo aldiz. Baiña etzuen izan *Maitena*'k bizkaitar uriburuan eta beste tokietan izan zuen antzeko txalo jotetik. Bigarren zatiak ez omen dira egundo ere onak, eta *Semetchia*'k, egia esateko, azken txarra izan zuela aitortu bear.

Alan eta guzti ere, ez daude gaizki iru opera auek. Jarraitzaille askorik ez dute izan, zoritxarrez, baiña eurok izan ziran euskal opera asi-berriari bultzada ederra eman ziotenak: ondoren etorri zitzaizkigun J. M. Usandizaga'ren *Mendi-mendiyan*, Azkue'ren *Ortzuri* ta *Urlo*, Guridi'ren *Mirentxu* ta *Amaya*. E. Mokoroa'ren *Leidor*, F. Escudero'ren *Zigor*...

Idazle bigun, sentibera zenun.

IRITZIAK.—«Maitena» operari buruz batez ere, ainitzek idazkortza aizatu zuten: F. Gascue, G. Lakonbe, G. Muxika, Aita Lhande ortan ari izan zitzaizkizun. Bego, guztion orde, G. Muxika'k dioskuna: «*Maitena* antzerkitza (libretua) euskeraz pentsatu ta idatzia izan zan, au da, euskal operai dagokien izkera bakarrean, baiña adierazi-naiak beartuta edo, esan-

zatiak gatzalaniaz jartzea obe zala iduritu zitzaien Koraleko zuzendaria!, eta lan au bilbotar idazle Alfredo Etxabe'k egin zuen... *Maitena'ren* mataza errez, argi ta jakingarria, biotza erdiratzen duena duzu. Antzez-notin guztiak ederto ikusi ta esku neurrizko ta jakintsuz ebakiak daude. Atsegin zaizkigu oso jardun-gaia ta beronen azalpena. Decrept ongi atera zan. Ori da gure iritzia ta entzuleena».

(Ikus F. Gascue, «*Maitena*». *Ensayo de crítica musical* (Donosti, 1909), 17 orr.; G. Lakonbe, RIEV, 1910, 333 orr.; G. Muxika, *Euskalerriaren Alde*, 191, 1913, 66 ta 67 zenbakietan; P. Lhande, RIEV, 1914, 138 orr.; S. Onaindia, MEOE, 482 orr.; G. Garriga, *Bil. Amer. E. V.*, 1957, 94 orr. ta 1959, 48 orr.; A. M. Labaien, *Teatro Euskara*, II, 164 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 212 orr.).

21.—PIERRE BROUSSAIN (1869-1920)

Azparne'n jaioa dugu 1869-7-3'an. Larresoro'n osotu zituen lenengo ikaskizunak; gero Akiz'en eta azkenik Bordele'n «Tivoli» zeritzan Aita jesuiten ikastetxean. Eder zitzaien sendakintza ta Paris'en ikasi zuen. Karrera bukatutakoan, bere jaioterria itzuli zan, bertan sendagille jarririk.

Azparne'n «laster bere erritarrak auzapez edo udalburutzat autatu zuten, ta ardura ori amalau urtez guzien gogora betez geroz, azkenik, euskaltzaiñ izendatu zutenean, bere sail berriari obeto jarraitzeko, utzi zuan; baña alere, erritarrerri laguntza emateko, Aldun edo «kontseillari geien» gelditu nai izan zuan. Azpandar guziak betiko aren itzaldi ederrez oroituko dira, batez ere ango illerrian, igaroko azillaren l'an «Gudako illez» egin zuanaz. Oraindik il baño len egun gutxi zala, Ezpeleta'n bildurikako nekazarien aurrean itzaldi eder bat eman zuan «arbola landatze bearraz». Itzaldi oriek besteren batek eskutiztu edo berak argitaratu eztitualako tamal negargarria da. Agian, utzi dituan euskal txartelen artean bere euskera ederra ezagutarazi

dezaketen apurka batzuk aurkituko ditugu, ta bitartean gure biotzean gordeko degu aren maitetasun eta euskalduntasunaren oroimena» (*Euskera*, 1919-1920, 34 orr.).

Baiona'ko «Eskualduna» agerkariak ere, P. Broussain'en eriotza biaramonean onela idatzi zuen: «Ezagutu duten guziek badakite zenbat zen gizon ona, chehea, mintza-errecha, zuzena, ichila, espantu gutikoa, gozoki eta lañoki guzien meneko emaiten zena. Bereziki gerlako egunetan, zerbeit berri edo chehetasun edo laguntza galdez herrikoetcherat zoazin Hazpandarrek ez dute ahantzia... Hazpandar egiazkoek bezala, erlisioneari hainitz atehikitzen zion, ez bakarrik ahoz, bainan bere urhatsetan ere. Baitire erlisione maite dutenak, bertzeentzatharek, bertzeentzat on dena beretzat ere hala zeukan... Ez dakit baditekenetz nehor hori baino gehiago atchikia gure Eskual-herriari. Maite zuen Eskual-erria bere mendi zelai eta itsasoarekin, bainan bereziki maite zuen bere mintzaira choragariaren gatik».

EUSKALTZAIN.—Ondo zekien euskeraz. Eta ainbat lan idatziak zeuzkan Baiona'ko «Eskualduna» asterokoan batez ere. Eta Euskaltzaindia jaio-berri zalarik, P. Broussain ere, 1919-9-2rko batzarrean, Txomin Agirre, Adema (illoba), R. Intzagarai, Jose Agerre, J. B. Eguzldtza, Aita Olabide ta P. Lhande'rekin batera, euskaltzaiñ aukeratua izan zan. Jaur-sail eta iztegi-saillean egin zizun lan: euskera batasunari buruz batzarkideen artean egin zan azterketa-lanean A. Kanpion eta P. Broussain'ek jokatu zuten sakonkienik. Txosten au *Euskera-n* (1920) argitaratu zuten.

Euskaltzale askorekin ar-eman barrukoa izan zuen. Azkue'rekin kartaz euki zuena *Euskera-n* (1957, 346-388 orr.) dator; ogei bat eskutitz dira. Oietatik atera dezakegu nolako euskaltzale zintzoa zan; nola jokatu zuen beti, baita Endaia'ko ta Ondarrabi'ko euskal ortografiari buruzko batzarretan ere. Zorrotz jokatu zizun auzi orretan. Euskaltzaindiak, 1920-3-24'an, Bil-

bao'n ospatu zuen batzarrean, eguneroko kiriari jarraituz, an egin ziran oarretatik bat auxe dakar *Eusker*a-k: «Broussain jaunak /'ren abots eta idazkeratzaz itzezin zigun, berak gai orretzaz idatzitako lana azaltzen zigularik. Lan orretan auxe zion: «I, dan bezela, edukiren nuke bizkaitarren eta zuberotarren j frantsesa agertzeko ta aldagailu aren batekin (J. J.) bizkaitar zonbaiten, napartarren, benapartarren eta lapurtarren *d* adierazteko. Gipuzkoarren *jota* agertzeko *jh* edo *hj* erabil al liteke». Au edo erantzun zioten: «Naita euskeratzaz egingo diran lane-tan, abotsen litxak adierazteko, izki oiek eta geiago bear izan, erriarentzako idazkietan orrenbeste ikur-era biltzeak, naste ta kaltea lekarkela» (*Eusker*a, 1920, 68 orr.).

Arpegi alai ikusten zuen Euskaltzaindia Azparneko alka-teak, eta etzuen etsairik ingurumari gura. Iñoiz agertu zan in-tegrista antzean ere: 1919-10-7'an, Euskaltzaindiak Donostia'n ospaturiko batzarrean Broussain'ek bere lanldeai eskatu zien «iñoiz Euskaltzaindia'ri aurkazko Lagundi'ren bat an edo emen jasoko balitz, orerri oraindanik bere izen eta laguntza betiko uka zezatela. Ta guziak, gogo biotzak bateraturik, Euskaltzain-dia'ri ziñ ori eman zioten». Olakorik, gaur, geiegitxo dalakoan gaude.

(Ikus *Eusker*a, 1920, 33 orr., ta 1957, 346 orr.; L. Villasante, HLV, 215 orr. ta abar).

22.—ALBERT CONSTANTIN (1873-1957)

Lenago aitatu dugun J. B. Konstantin'en semea. Zubero lurraldeetako Izpura'n sortua noski, 1873-7-22'an. Atarratze'n itzali zan 1957-4-30'an. Osalaritza ikasi zuen, eta Atarratze'n egon zan mediku ia bere bizitza osoan.

Aitak beste etzuen ziurrik idatzi, baiña lan batzuk bederen atera zituen Baiona'ko «Gure Herria» agerkarian. «Eskualza-leen Biltzarra»-ren buru-ugelak ere berak eraman zitun ur-teetan.

(Ikus Juan San Martin, *Escritos euskéricos*, 63 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 356 orr.).

23.—MANEX ETXAMENDI (1873-1960)

Bertsu-ontzaille, ta egundaiñokoa.

GIZONA.—Nolakoa zan? P. Lafitte'k au: «Azken denboretan metra eta hirur-hogoi-ta-hamabortz zentimetra gorako norbait zen, bilo xuria, begiak urdin, begitarte luzean, larrua argi, sudurra ez handi ez ttipi. Ez zuen indar gaitzekoa iduri. Itxuren arabera buru-lanetako gisako izanen zen esku-lanetako baino, biziak hautua eman balio. Ez zen halere xoko batean muxitzekoa: zinez laborantza eta hazkuntza gogokoak zituen, eta funtsez heieri emana zen, molde berriak estimatzen zituela. Ihiztari ernea zen, ala urtzoka, ala erbika, ala berdin basurden ondotik. Igerikari ona, urpeka bazabilan arraina bezala, arrain-keta. Nahiz pilota-jokoa eder zitzaien, ez zen behin ere bera pilotaria izan. Libertimendu gisa musean laket zuen eta, diotenaz, ez beremaleziarik gabe. Salatu daukute «gizon pollita» zela: gogo erne argia, oro zentzu; artetan irriño batekin zirtolaria, gaixtakeriarik gabe; baketiar deliberatua, edozoin nahigabe ixil-ixilla jasaiteko prest, ez nahiz bera zinkurínaz ari izan eta are gutiago nehor ere deusetan bortxatu. Hots, errotik gizona! Fededun suharra, bertzalde: pentsamendua, elea, bertsua aise lertratzen zitzaizkion erlisione-gaietarat. Urratsak ere bai; bere azken hogoi urtetan segurik, erran daukutenez, ez zuena egun guzietan kominiatzen bere animaren hazteko?» («Auspoa», *Manex Etxamendi*, 109-110, 18 orr.).

Garazi-Eiheralarre'ko Ezterenzubi'n jaio zan 1873-5-20'an, «Xadainia» laborari-etxean. Ogei bat urte zituela Ameriketara joan zan, Wyoming eskualdera; gero, Nevada'ra artzain, eta andik «bere bertsuetan emanen du bizitze garratz horren berri; oiha-beltz, desertu, hartz-lehoinen orroa, ohoin basa..., ukanen du zer aipa!» 1899'an itzuli zan bere errira, ta 1900-4-26'an ezkondu zan «Marie Ampo deitu herritar batekin». Amar seme-alaba euki zituzten. Ezkondu ondoren ere lau urte (1905-1909) Nevada'n igaro zitun artzain, diru pizkat egitearren.

Berriz etxeraturik alor-lanetan eman zuen bizia. 1920'tik aurrera, berak eskatuta, giltzain jarri zan elizan. 1929'an, ordea, erriko kontseiluan sar-arazi zuten, eta kontseiluak ondoren auzapez izendatu zuen. «Auzapez zeno —diosku P. Lafitte'k—, gauza pollita ikus zitaken Ezterenzubin: elizan Mañex jaun mera giltzain gisa jaun erretoraren mutil, eta herriko etxean jaun erretora jaun meraren meneko, segretario izanez!» Amar urtez (1934-44) Garazi'ko zindikatean erriko gizon ere izan zan. Bere azken amabost urteak alargun eta gaixo-xamar igaro zizkigun. 1960-4-28'an il zan, «xaharren minbiziak» jota.

BERTSU-ONTZAILLE.—P. Lafitte'k: «Mañex Etxamendi ez da behin ere tipus-tapas ahotik hortzera bertsuka ari izan, gure plazetako bertsulariak bezala. Alde batetik boza ttipia zuep, eta bertzetik ez zen hortako bere buruari fida». Orraitio, naiz-ta astitsu ta gauaz sarri bere bertsuak ondu, pillo ederra utzi zigun. Nevada'n zegoelarik asi omen zan bertsuak ateratzen, eta gaur ezagutzen diran bere zarrenak 1895'an, 21 urteko zala, urte berriz egiñak omen dituzu, ta azkenak 1954'an egiñak.

Aldizkarietan datoz ark ondutako bertsorik geienak: «Eskualduna», «Euskal-Erria», «Eskualdun Ona», «Gure Herria» eta «Herria»-n aurkitu ditzakezu. Baita beste batzuk ba-dituzu bakar lez «Eskualdun kantaria», «Gure Almanaka», «Errepi-kan», «Milla euskal olerki eder» ta beste liburu batzuetan.

Bere lanak sinatzeko izen eta izen-orde aukerabilten zituen: *Mañex Etchamendy, M. E., Mañex Artzaina, Bortuko Aita-txi*».

Nolako idazkera ote zuen? Oraintxe bi urte (1972) argitara zigun «Auspoa» liburu-bildumak garaztar bertsu-ontzaillearen lanik geiena, ale eder batean, P. Lafitte jaunak prestatua. Aren idazkerari buruz onela dio: «Nahiz erotik garaztarra zen eta bere eskualdeko eskuara ezin poUikiago zerabilkan, bertsuetan aise lerratzen zitzaion luma Lapurdiko mintzairerat eta hizkuntzak nahasten zituen. Berdin baliatzen zituen: *maitea* eta *maitia*; *jin* eta *etorri*; *igorri* eta *bidali*; *anderer* eta *anderei*; *zeie* eta *zaiote*; *gare*, *gira*, *girade* eta *gaituzu*; eta holako zonbat! Zonbait aldiz kantak manatzen zion bertsua; bertze batzuetan ez dugu arrazoinik ikusten: beharbada uste zuen kostatarra ospatsuagoa zela, baxenabartarra baino? Nork daki?».

Zer kantatzen zuen? «Jainkoa, sor-lekua, familia, bakea, batasuna, adixkidantza, artzaingoa, laborantza, leialtasuna, nor bere hartan segitzea, biziaren errespetua, urrikalmena, berriaren zerbitzua, ohiduren begiratzea, bertzeak bertze». Gaiok, berriz, funtsezkoak ziralarik ere, «prediku-aireño» bat zuten ia beti. Labur: Mañex'ek ondutako bertsuak sarkor, erne ta eztiak dituzu, atsegiñez entzun naiz irakurtzen diranak.

Adiskide talde batek Donibane-Garazi'n, 1958'an, jai ederra ospatu zuten bere omenez. Luis Dasaance «Eskualzaleen Biltzare»-ko buruzagiak urrezko medailla bat ipiñi zion paparran. Medaillak alde batetik Ama Birjiñaren irudia zeukan eta bestetik itz aukeratuak: «Mañech Etchamendy Bertsolarien Aitasori. 1958». Sariak ere jaso zituen.

(Ikus J. Ithurriague, *Un pueple qui chante*, 62 orr.; S. Onaindia, MEOE, 1.127 orr.; J. M. Satrustegui, BAP, 1962, 3, 251 orr.; P. Lafitte, *Mañex Etxamendi*, «Auspoa», 109-110; Auñamendi, *Literatura*, III, 422 orr.).

Beste idazle ta euskal lan auek ere aipagarri dituzu, Kristo'k apostoluai esana gogoraziaz: Colligite fragmenta, ne pereane...

1) *Andre-dena Mariaren botherea, edo Salve Regina, San Alfonso Maria Ligorio bedatuki cheatua* (Baiona, 1854). 346 orrialde).

2) *Sacramendu sainduaren liburua...* (Baiona, 1856), berriz ere 1885'an argitara emana; 271 orrialde.

3) *Elicaco officioetaco escu-liburua* (Baiona, 1858). 452 orrialde).

4) *Heren odreco escu-libria igande bestetaco officio berriekin* (Oloron, 1860). 207 orrialde.

5) *Tierceren escu-liburua* (Baiona, 1862), berriz ere 1870'an azaldua. 124 orrialde.

6) Etxeberri apaizak, *Guiristinoa indulgencien gainean argitua* (Baiona, 1863), berriz ere 1389'an argitaldua; 54 orrialde.

7) *Guthun apostolokoa...* (Baiona, 1864), 33 orrialde.

8) Larresoro'ko P. Jaurretxe'ren *San Joseperen ilhabetea edo marchoa conxecratua...* (Baiona, 1872). 234 orrialde.

9) Ana Urruti'ren *Jondane Phetiriren epitriac* (Baiona, 1873), berriz ere 1887'an argitaratua. 35 orrialde.

10) P. Etxeberri'ren *Maria bekhatuic gabe concebituañ escaincen zaion lorefloc...* (Baiona, 1877) 160 orrialde.

11) *Almanaca berria edo egunaria ilhabete gucietaco demboraren indicacionearekin eta bertce asco, erran zakar, dicho eta ichtoriorekin* (Baiona, 1897). 24 orrialde. Gero ere argitaratu zan: 1880, 1881 ta 1882'garren urteetan Baiona'n; 1884'an Orte'en, eta 1885'an Donibane'n.

12) *Almanak berria edo Ziberouko eta Basa-Nabarreko egunaria* (Aube, 1887), 30 orrialde. Geroztik ere urte-pilloan argitara emana.

13) *Miguel Garicoitz aphezaren hicitzea* (Baiona, 1882). Jean Etxeberri Kanbo'ko bikarioak egiña. 36 orrialde. 1892'an berriz ere.

14) F. Jauregi'ren *Gramera berria* (Buenos Aires, 1883). 126 orrialde.

15) *Eskualdun almanaca* (Baiona, 1884). Urrengo iru urteetan ere argitaldu zan; 1887'koa, Biarritz'en.

16) J. Vinson'ek, 1884'ren urtheko egunaria eskuaraz emana (Paris, 1884). 120 orrialde.

17) *San Francesen hirugarren ordenaco edo tierz ordreco esculiburu berria* (Baiona, 1885). 72 orrialde. Berriz ere atera zan 1888'an; 112 orrialde.

18) A. Mendiondo: *Elicaalatco guthuna tchipiac* (Baiona, 1885). 312 orrialde.

19) *Almanak uskara* (Paris, 1887). 31 orrialde. Urrengo lau urteetan ere agertu zan.

20) *Eskualdun gazetaren almanaka* (Baiona, 1888). 44 orrialde. Baita ondorengo iru urteetan ere.

21) *Ruthen libria...* (Baiona, 1888). Zuberotarrez. 33 orrialde.

22) *Etor bedi zure erresuma* (Baiona, 1889). 30 orrialde.

23) *Isoard Annecyko Jaun Aphezpikuaren irakaspena gïristinaen...* (Baiona, 1891). 70 orrialde.

24) *Misionetako eta erretretako kantikak* (Baiona, 1891). 134 orrialde.

25) *Giristino legea laburzki* (Baiona, 1892). 162 orrialde.

26) Ana Urruti: *Evangelio saintia Jesus-Kristena, Jondane Johaneren arabera* (Baiona, 1873). 130 orrialde. 1888'an azaldu zan berriz ere.

27) *Fedegábeen haurren erosteco debocionea guiristino-tasuneco yaun aphezpecu guciez onhetsia, gomendatua eta gue-riçatua deitzen da hartatasun sainduaren obra* (Baiona, 1891). Lampaignere alargunaren moldiztegia.

28) *Maria Birjiñaren hilabetia* (Paube, 1894). 274 orrialde.

29) *San Frantses Xavierekoa Indietako...* (Baiona, 1894). 16 orr.

30) *Aranzazuco Misterioa. Miracuillu hauc tradituac dire Españolañic Aranzazuco Misterioaz mintzo den liburutic, hainitz guizon handi etazuhurrez aprobatutic, eta tiratuac asco miracuillen artetic* (Baiona) P. Fauvet'en irarkolan (Ikus «Aranzazu» aldizkaria, 1922, II, 145 orr.).

31) Louis Etxeberri (1853-1907). Zuberoarra. «Réforme Sociale», «La Tradition au Pays Basque», «Biarritz-Thermal» eta olakoetan idatzi zuen frantsesez, eta naikoa idatzi ere. Euskeraz ere ba-ditu idaztiño batzuk: 1) *Botzkako Katichima* (Baiona, 1889); 2) *Catichima laburra hautuen edo electionentzat* (Baiona, 1889); 3) *Mauleko Arrondisamenduco Yaun boz emailleac* (Baiona, 1889); 4) *Ziberouko artzagner* (Baiona, 1889), ta 5) *Ziberouko laborarier* (Baiona, 1889). Auteskunde paperak dituzu.

32) Yoanes Garaztarra. Olerkari. Ona beronen poesi batzuk: «Zuberoa Dona-Paleoko bestetan» (Baiona, 1903); «Auzki» (*Euskal-Erria*, aldizkaria (1904, 200 orr.); «Ezkountze bat Santa Grazian» (Baiona, 1907); «Makila» (*Euskal-Erria*, 1906, 113 orr.); «Gernikako Arbola», «Atarratzeko Phestetan» (Baiona, 1908); «Larrazkena», Doniane Garaziko bestetan (Baiona, 1912).

Naparroa

1895-1920

«Izkuntzak, emakume gauzak bezala, bere joan-etorri eta berriketan berekin ditu. Gaurko egunean, mendi bat go-rena dela adierazteko teilatu esan oi dakio. Ala, Europako teilatu, mundukoa, eta beste. Gure aurrekoak gallur esango zioten. Era ontan, Eskualerriak Auñamendi du teilatu.

»Baño, Auñamendi ez da esaera arin baten itzalpe eta babesleku bakarrik guretzat; izan ere, bi aldetik bere bizkar-ezurraren inguruan gero ta geiago koropilatuz dijoa Eskualerria. Anaien elkarrengandik berexteko emana, gure lokarri oberena.

»Naparroak, batez ere, eskual idazle jatorren arrobia du mendialde ura. Ez dira asko, baño lehen maillakoak: De-chepare, eskuarazko lenbiziko liburuaren egillea; Axular, Urdazubiko seme ospetsua, eta Ibañeta inguruko Manezaundi; auñamenditarra du Naparroak bere eskual idazle nagusien irukoa».

(J. M. Satrustegi, 1967)

LABURPEN

EUSKAL GIROA.—Il edo biziko eztabaidan etzaigu sori, ez lege, gibelarentz egitea: aragoko mugan begiak adi, aurrera!, esan bear da beti. Ale onek zerbait erakusten digunez, olaxe jokatu zuten gure probintziak, Bizkaia eta Gipuzkoak ezezik, baita Arabak eta Naparroak ere, guziaren gain kondaira orriak aztertuz ta euskera landuaz. Mugaz andik bertsu. Zazpi euskal lurraldeok, beraz, batera zebiltzan beuren gurdiari lotuak, bakoitzak bere-bere zituen zerak ere zokoratu barik.

Zernaitako itzaldi, erri-jai ta olakoakin giroa arrotu zan, aundiki ta txiro, kapeladun eta txapeldun, goiko ta beeko, danak bai zuten eskua artzen; lore joko ta festak ospatzen ziran or-emen euskal gogoari eragiteko nunbait: Iruña'n, Elizondo'n, Bera'n, Donoztebe'n. Iruña'n bazan alkarte jator bat ere —«Asociación Euskara»— giro orri bultzakada bikaña ezarri ziona noski. Ontan, besteak beste, Artur Kanpion eta Juan Iturralde y Suit ziran aurrelari. Kanpion'i buruz onela J. A. Irigarai'k: «XIX'gn mendeko mugimendu honetan baitaezbadako buru ta gidari Arturo Campion iruñ-semea izan zen..., deus baino gehiago sortzaile eta gidaria; urte parrasta batez Nafarroako mezularirik jatorrena; uharte bakarra bainan sendoa. Historiari buruz, Campionek ixuri itur-buruetara jo behar da, Nafarroaren kondairari dagokion atalean bereziki,.. Haren irudia besteren artean erraldoi baten antzera zaigu eta domaia da gaurko nafarrek ez duten behar lukean bezala haren obra ezagutzen» {*Euskera eta Nafarroa*, Iruña, 1973, 74 orr.).

ARTURO KANPION.—Kanpion'ek etzuen bere erria gibel ikusi nai, eta aurrerakuntza berezian egokitu naiez, lenango zeuzkan doi-pitxi ta balio guztiak aizatu gura zizkion, lena begipean zuela etorkizuna eratu zezan. Euskera kontuan artu gabe, ordea, ezin dezakegu euskal erriko txokorik ezkutuenik ere aurrera eraman: euskera, gure asaben izkera baita bizia damakigun tresna.

Auxe zeraman Kanpion'ek bere muiñaren barren-barreneraiño sartuta. Berak ez zuen, egi osoa aitortzeko, askorik euskeraz idatzi, baiña aunitzi eman zion ortarako bidea. Eta ezgauza edo txirtxilleria al duzu au?

BI EUSKAL IDAZLE GUREN.—Bata Enrike Zubiri, «Manezaundi» duzu, Luzaide'ko semea, «idazle aberats eta joria». Fermín Irigarai, «Larreko» bestea, Auritz'eko sendagille izen aundikoa. Lenengoak baxenaparreraz idatzu zuen, ipar-napar-garaikoaz bigarrenak. Biak ederki. Eredugarri ditugu biak, gizaseme bezela ta idazle zurrian.

BESTE BATZUK.—Napar sail onetan datozten besteok ere ez utzi al-bora. Ebaristo Txurruka'ren izena orriotan ikusirik, esango duzu bear bada: «Txurruka ere euskal idazle?» Baita; idazlea da idatzen duena, ta Txurruka'k ere bere-berea du zerbait, eta asko idatzi ezik ere, ikasbide polita damakigu; edo-ta, ez al du ezer balio munduan zear aratonat, ia etengabeko joan-etorrian, ibilli ta euskal garra barruan eraman eta azaltzeak?

Or duzu baita Krutz Goienetxe apaiza, baztandarra, itzez eta egitez aspertu barik euskal zelaian jokatu zuena; or Aita Elizondo kaputxinoa, izlari trebe ta idazle oparotsu; or Aita Ibero ta A. Etxalar jakintsuak, ezker-eskui zeuzkatenak eusko-suz adoretu nairikan. Eta or, azkenik, Biela koblaria, su-txingar urtika.

,1,...

1.—EBARISTO TXURRUKA (1841-1917)

Bide, erreten eta kaietako maixua. Batez ere Bilbao'ko portu ta nasako lanak zuzendu zitun bitartean, aomen txit aundia iritxi zigun Motriku'ko konde onek.

Izu (Naparroa)'n jaio zan 1841-10-26'an. Bi urteko zalarik Motriku'ra aldatu ta emen asi zituen bere ikasteak, gero 1857'tik ara Bergara'ko Mingitegian osoturik; 1857'tik 1863'ra Madrid'en daukagu injenieru ikasten. Karrera bukatu ondorean, Murtzia'n eta Balentzia'n egin zituen lenengo oar-ikasiak (probak) eta gero Gernika'ko ubidean sei illebetetz; Puerto Rico'n egon zan ondoren beste sei urtetan; 1873'an itzuli zan bere aberrira, ta 1877'an Bilbao'ko portuko lanen arduradun izendatu zuten.

Berari zor diogu gaur Bilbao'tik itxaso zabaleraiñoko nasaren apaindura guztia. Naiz-ta lan arrisku aundikoa izan, aurrera eraman zuen ark ezeren zalantza gabe, ta ogeta zortzi urtean guztiz berriztatuta, ederki, utzi zuen, bertoko salerosketa ta itxas-ontzien sar-urtena oso ugariturik. 1908'an laga zuen kargu arduratsu ura. Ainbat titulu ta ezaugarri eman zizkioten. 1917-4-3'an il zan.

Euskal idazle ote? Euskal Esnalea'ren «Esku-Egundiya» (Irun, 1910) datorren *Antonichu* olerkia, 1909'ko azaroan Bilbao'n izenpetutakoa, berea du. Ona oso-osorik:

Atso bat nuen ezagutu nik
Txit gaztea nintzanian,
Motriku aldetik irten gabia
Bere bizitza guztian.

Bein joan omen zan geldirik geldi
Arribiñeta gañera:
An eserita, arri gañian,
Jarri omen zan begira.

Andik Izarraitz ta Anduz mendia
Agertzen dira txit ondo;
Lastur ere bai, zorionezko
Itxuran asko geiago.

Gure atsuak, ainbeste mendi
Agerian ikusirik,
«Jesus, au mundu aundia» esan
Zuen txit ikaraturik.

Ikus *Esku-Egundiya*, 1910, 45 orr.; *Euskalerrriaren alde*, 1917, 258 orr.;
Auñamendi, *Literatura*, II, 193 orr.; Espasa-Calpe, 17 alea, 721 orr.).

2.—ARTURO KANPION ETA JAIMEBON (1854-1937)

Gizaseme gotor auxe duzu, dudarik gabe, Naparroa'n langillerik aundiena ta Euskalerrrian aundienetakoa. Beraz, emere-tzigarren gizaldia amaitzerakoan, euskal kulturak nolako egoera zeukan eta nolako jokabidea artu zuen jakiteko, bear-bearrekoa duzu idazle gaillen onen eragin arrigarriaz jabetzea. Aitor dezagun ezer baiño len: idazlari trebe, izkuntzalari bikain, lege-gizon argi, iritzi-emaille zorrotz eta edestilari zurra ez-ezik, izlari politiku garbai, erlijio aldeze goragarri ta aberri iritzi zabaltzaille porrokatu ere izan zala. Idazle bezela, euskeraz zer aundirik idatzi ezpa-zigun ere, gaztelaniaz gorengo maillakoa izan zan.

GIZONA.—Iruña'n ikusi zuen lenengo bizitz-argia 1854-5-7'an. Buru argia ta naimen sendoa zitun, eta biok batean, lotura giarrez alkarturik, langille bipilla bilakatu zan. Iruña'n bertan, Oñati'ko Ikastetxean eta Madrid'en biribildu zizkigun ikasketak, 1876'an Lege-jakintzan Lizentzi-mailla lorturik. Maitasunak, esan oi danez, aditzera eramaten, eta aditzeak jakintzara. 1833-1839'garrenge karlista gerra ondoren, Naparroak ere bere eskubide geienetan aski moztuta ikusi zuen bere burua; dirua-ren askatasuna geratzen zitzaion bakar-bakarrik. 1872-1876'an, berriz, bigarren karlista gudatean, giro benetan txarra zegoen Madrid'en euskaldun Foru inguruan. Kanpion ikasle zan orduan, baiña konturatu zitzaigun gaitz ikaragarri artaz, eta orduantxe asi zan idazten, ots, ainbat lan eder onduko zizldgun luma azkarrari eragiten: batxiller ikasten zegoela idatzi zituen lenengo artikuluak.

Izate barnean ondo sarturik zeraman bere lurra, bere Naparroa, Euskalerrria, bereak zitun gauza ta agerpen guztiakin. Orduko giro latzak bultzatuta, ainbat aldizkari sortu ziran «Revista Euskara» (1878-83), «El Arga» (1879), «El Navarro» (1881), «Lau-Buru» (1882), «El Aralar» (1894)... Guztiotan sartu zuen sortzerakoan eskua, baita ondoren anitz lan idatziaz lagundu ere. Garai artako jakintsuak, euskal zelaikoak bereziki iruñ-sume ernearen gaitasunaz oarturik, laster egin zitzaizkion adiskide: d'Abbadie, L. L. Bonaparte printzea, Jaurgain, Duvoisin kapitaina, R. M. Azkue, Arana-Goiri, Unamuno ta besteak. Bere erriaren izkuntza euskera zala-ta, orduantxe asi zan euskeraz ikasten.

Lenago baten bere erria zer zan jakin nairik zebillela, bein, Iruña'ko Cámara de Comptos, napartar kondaira agiririk geienak dauden artxibuko atear iriki zizkioten, eta ango paper zaarretan aurkitu zuen altxorra, izugarria izan zala diosku berak. Antxe zegoen, oraindik ikutu gabe, Naparroako edestia, bere erritar zangarrak antziña baten egin zuten guztia. «Larrutx (pergamino) oiek —dio— gertaturiko gauzak zekarzkidaten,

joan garaiakin ar-emanen jartzen ninduten. Lilluragarria, egiaz! Aldundiko idaztitegiak zoramenik zoragarriena ekarri zidan». Or gizon trebe bat lanean. Amaikatxo gauza eder aterako zan gero artxibu ortatik!

Bere bizitzako urterik berezienak lumari eratxikiak eman zituen Kanpion'ek. Aztertu, ikasi ta idatzi, or bere biziko lana. Xede bakanak zuzen-azita noski: euskal izatea jagon, zaindu nai zuen, bai Naparroa'n zein euskal erri osoan. Euskal izatea —euskalduntasuna— da Kanpion'entzat guztia, izan edo ez izan, bizitza edo eriotza. Naparroa ezta euskaldun bere amasa, bere gogoaz galtzen baldin ba'du: ez dezala, arren, galdu. Olakorik gerta ez dedin, napar kontzientzia esnatu nai digu. Kezka onek adoretzen ditu, txiki naiz aundi, aren idatziak, aren itzaldi, elezar, nobela, itzaurre ta dana, ortara zuzendua duzu: odolean borbor daukana jartzen du idazten ditun lerroetan. Bizkaia'n, Araba'n eta Gipuzkoa'n beste batzuk osotu zutena, Kanpion'ek Naparroa'n dagi; joanaren oroiak bizkor-azi gaitzan, Aitor'en seme leiñargien amasa, goraberak eta kondaira begi aurrean ipiñi. Lena, izan ere, lanerako berogarri zaigu beti, akuillu ta aurrerabide.

Edu ortan lan egitean —nola ez?— jaiki zitzaizkion ortik eta emendik aurkalariak ere; danentzat zeukan erantzuna Kanpion'en luma zorrotzuak. Eta eguzki antzo dizdizka zegoen aren euskaldun zuzia. Ondorioz, 1893'an diputadu edo ordezkora zuten Naparrutik ango integrista alderdikoak; iñoiz integrista izan ez arren, argi ta garbi mintzatu zan katolikotasunaren eta euskal foruen alde Madrid'eko kortietako batzarrean. Ortaz ere, eztabaidakari egin zitzaigun, zorrotz-zorrotza ta zirtolaria; bere idatziak arrezkero sarkorrak dira, ao biko ezpata bezela, suar eta oldarkoiak. Idazten duen guztiari —kondaira, eskugo, izkuntza, sozioloji naiz musika— ezartzen dio berak dardarti barru daraman lege-zarreakiko griña berezia. Emen bai erakusten digula Kanpion'ek buru argiz ta biotz berroz aberasturiko gizaseme batek noraiñoko lana egin dezakean.

Ondorioz baita toki askotan egin oi zioten leku: 1904'an, berak zuzendu zuen Irun'en «Eskualzaleen Biitzarra»; J. Urkixo bizkaitarrak RIEV sortu zuenean, bere ondora deitu zion; berau izan zan «Euskal Esnalea»-ren buru, ta «Euskalerriaren Alde» deritzan aldizkarian, berak bere idatzietan maiz izengoi bezela erabili oi zuen «Euskal-Erriaren alde» jarri zioten; 1918'an, «Eusko-Ikaskuntza»-k deduzko buru izendatu zuen, eta urte berean Euskaltzaindia sortu zanean, euskaltzain oso egin zuten; Espaiña'ko «Real Academia de la Historia»-n, «Academia de Ciencias Morales y Políticas»-en eta «Real Academia de la Lengua Española»-n, euskal saillean, urgazle izan zitzaizgun.

Etzan egundo ere politika zale agertu, euskaltzale amorratu baizik. Gaztetan etzitun antza gaizki ikusi izan errepublika saioak, baiña gerora eusko foru zaletasuna tinkatu zitzaion izate muiñean, eta ortik, eusko lege zarretik bizi ziran erriketa joerak bakarrik ikusten zitun begi onez: abertzaleatasunaren alde-rako jokabidetik zebillela, maiz bota zioten arpegira etsaiak; eta, izan ere, orrela idatzita daude «Blancos y Negros», «Itzaltzu'ko koblakaria», «Erraondo'ko azken danbolintero», «La Bella Easo», ta beste batzuk; ainbat itzaldi ere elburu ortara zioazten.

Atzenez, ezta arrigarri, konta ezin beste liburu ta paper zar ikuskatu zituzten begiak, igali-zugaitz bati adarrak lez, akitu egin zitzaizkion Kanpion'i, ta azken urte mordoa itsurik eman zuen: begi-izar edo ilundura zeukan, baita goxoeri ere, ta osagilleak ezin zioten ezertxo egin. Ez bere lurrik, ez beretar mai-terik ikusi gabe, gau illunean bizi izan zan, urtez ta matxuraz aztun. Neguan Iruña'n egon oi zan, eta udaran Donosti'ko Ategorrieta'n, bere Emilia-enea etxean. Azken egunetan, gerra zala-ta, gorriak ikusi bear izan zituen. 1937-9-5'an itzali zan Iruña'n, 83 urtetan. Ederki Latxaga'k: «Euskaltzale onekin dauz-kagun zorrak ez ditugu ondo ordaindu».

ZER IDATZI ZUEN.—Kanpion, esan dugunez, idazle oparotsu ta ugaria izan genuen; aro artako izparringi, eguneroko ta libururik geienetan agertzan da bere izena. Oso zail dugu, beraz, bere lanen zerrenda zeatz bat osotzea. Lan oietatik bi ta irutan argia ikusi dutenak ere naikoa izan dira. Dana dala bioa emen, merezi du-ta, aren lan garrantzitsuenetatik lerro zeatzena; erderazkoak lendabizi ta euskerazkoak gero.

a) *Erderazkoak.* 1) *Consideraciones acerca de la cuestión foral y los carlistas en Navarra* (Madrid, 1876), 36 orrialde; 2) *Contrastes, cuadro de costumbres* (Iruña, 1882), 82 orrialde, K. Otaegi'k euskeraz jarria, ta Donostia'n sarituriko elezarra; 3) *Ensayo acerca de las leyes fonéticas de la lengua euskara* (Donosti, 1883), 68 orrialde; 4) *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara* (Tolosa, 1884), 795 orrialde, gaurko linguistikari erantzunik, edozeiñen aurrean lotsakizun gabe erakutsi genezaken euskal gramatika; 5) *Victor Hugo, Semblanza* (Tolosa, 1885), liburuxka; 6) *Don García Almorabid. Crónica del siglo XIII* (Tolosa, 1889, eta Zarautz, 1936), 360 orrialde; 7) *La batalla chica del Sr. Nocedal* (Iruña, 1893), 89 orrialde; 8) *La Abuela*, poema txikia (1893), Elsa Otten'ek biurtu ta doitxeraz ere argitaratua (Berlin, 1893); 9) *Euskarianas*, amabi sail 1896'tik 1934'ra argitaratuak, elezar eta edestisaioak; 10) *Los orígenes del Pueblo Euskaldun. Celtas, Iberos y Euskaros* (Donosti, 1897); 11) *Blancos y Negros. Guerra en la paz* (Iruña, 1898), 382 orrialde; 12) *Discursos políticos y literarios* (Iruña, 1907), 315 orrialde; 13) *Defensa del nombre antiguo castizo y legítimo de la lengua de los baskos* (Paris, 1907), 27 orrialde; 14) *La Bella Baso* (Iruña, 1909), bi ale, 266-274 orrialde; 15) *Popachu, ipuia* (Bilbao, 1910), 10 orrialde; 16) *De las lenguas y singularmente de la lengua baska como instrumento de investigación histórica* (Bilbao, 1919), 41 orrialde; 17) *Informe... a la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del Euskera* (Bilbao, 1920), 20 orrialde; 18) *Narraciones baskas* (Madrid, 1923), 201 orrialde; 19) *Itzaldiak*: Bil-

bao'ko «Centro Vasco»-n emana (Bilbao, 1901), Donosti'ko «Centro Vasco»-n emana (Tolosa, 1906), Gernika'n emana (Gernika, 1908), Iruña'ko «Centro Vasco»-n emana (Iruña, 1914), Errenderi'ko Batzokian emana (Donosti, 1914), Gernika'n emana (Bilbao, 1920), Iruña'ko Gaiarre Antzokian emana (Iruña, 1922).

b) *Euskerazkoak*. Gaur edonori azpiak jan oi dizkiogu, baita izen ona beztu ere. Euskal arloan, adibidez, onek euskeraz idazten duela ta ezin diogu jipoia berotu gabe utzi; ark erderaz badagizki bere jardunaldiak, laster izango du nork maxiatu. Il edo biziko auziari, naiz euskerazko naiz euskal sailleko beste edozeiñi ekitean, ez genuke ainbeste liskar ta buruauste arrotu beai. Kanpion beintzat orrela uste zuena duzu: alegiñak egin zituen euskeraz ikasteko, ta polito ikasi zuen, baita zenbait lan euskeraz ondu ere, baiña bere erria, Naparroa euskera gabe ikusirik, zerabillen izkerara jo zuen bere iritzi ta biotz-zauskadak beretarrai adierazo ta zeuden lo-zorrotik, al ba'zuen beintzat, astindu tV ateratzeko. Jardunbide ori guk ere ez genuke gaizki artu bear

Euskera ikasiaz idatzi egin zuen Kanpion'ek; or bere Gramatika ederra, ta beste lan batzuk: Ona bere euskal lanak:

1) Euskariarak (Bilbao, 1896) deritzan lenengo alean, lan auek dauzkazu euskeraz: a) *Agintza*; b) *Orreaga*; d) *Denbora anchiñakoen ondo-esanak* eta e) *Okendoren eriotza*. Azkenengo biotatik lenengoa «Euskal-Erria»-n (1883, IX, 517 orr.) eta «Euskalzale»-n (1897, 225 orr.) eta Beñat Idaztiak «Narraciones Baskas»-en (1935) ere argitaratu zan, eta bigarrena Azkue'k eman zuen bere *Euskalzale* (1897, 295 orr.) albistarian, eta aurretik *Euskariana* (1896) dalakoan.

2) *Gure sinismen oso-oso* (Euskal-Erria, 1888, XVIII, 40 orr.).

3) Sartu-aurrean (Euskariana, II, 1897, 252 orr., ta *Narraciones baskas*, Donosi, 1935, 19 orr.). Ivan Lourgueneff errusitar poetak ondutakoV<Atari» poemaren itzulpena.

4) *Malaxka ta Akuliña* (Irun, 1910). Tolstoy errusitar idazle bikaiñaren ipuia euskeraz jarrita. «Esku-Egundiya» deritzan liburuxkan dator, 42'garren orrialdean.

5) 1904'an *Eskualzaleen Biltzarra*'k Irun'en izandako' bileran alkarte orren buruzagi bezela zuzendu zuen euskerazko itzaldia (Baiona, 1904).

6) *Idazki bat* bederen, Azkue jaunari zuzendutakoi (*Eus-ker*a, 1957, 319 orr.).

7) *Itzulpenak*. Kanpion'en lanak ez dute izan, foru-zale amorratu agertzen zalako edo, bear luketen aiñako edadurarik. Ala ere, argitalpen asko bai izan dituzte, ta itzalpeiñak ere ez gutxi. Esaterako, *Denbora antxiñakoen ondo-esanak* prantsesera biurtu zuen Fuché-Delbasc'ek, *La Abuela* ta *Pedro Mari* doitxeraz jarri zitun Elsa Otten'ek, *Blancos y Negros* ere doitxeraz Karl Voigt'ek; Baztandar batek euskeraz ipiñi zoen «Azquen nafartarrac» (Revista Euskara, 1878, I, 251 orr.), Y. Zinkunegi'k «Erraondo'ko azkenengo atabalaria» (*Euskal Esnalea*, 1926, XVI, 82 orr.); J. M. Mokoroa'k «Erraondo-ko azken danbolinteroa» (*Euzko-Gogoa*, 1952, III, 13 orr., ta 1955, VI, 40 orr. ta Bilbao, 1958). Txomin Agirre'k *Larraldeko Lorea* (Ėuskariana, seigaren sailla, 1918, ta «Narraciones baskas, III, Donostia, 1935, 78 orr.); *Itzaltzu'ko koblaría*, («Euzko-Gogoa», 1954, V, 81 orr.); Larrañaga'k *Izkuntza ta Abenda* «Euzko-Gogoa», 1959, X, 23 orr.); Y. Zinkunegi'k *Yan-Pier* /«Euskal Esnalea», 19-27, 78 ta 103 orr.), eta beste batzuk. «Pecio Mari» ta «Itzaltzu'ko koblaría» antzokirako ere egokituak izan dira.

NOLA IDAZTEN ZUEN.—Itzak ez, baiña/egiñak ditugu leku-ko eder. Gozo ta olerkitsu ari oi zan Kanpion euskeraz ere. Ona zatitxo au, *Okendoren eriotza* deritzanetik artua.

«Dama María de Lazkano, leioaren ondoan zegoen. Maia-tzak, zelaiak loraz eta arbolak ostoz estali izan zituen, baiño oraindik oztxo egiten zuen; orregatik sukaldea egur igarrez eta lodiz ondo ornitua.

Egun artan asi zan goizean goiz euria, istan bat atertu gabe. Ulia-mendiko tontorretatik errekek amiltzen dira saltoka; zeru-goiean, argia iltzen ari da; lurrean laino ubelak eta itzal beltzak ibarretatik eta ibai ertzetatik geldi geldi igotzen dira, lurreko osoaren zurtasun eta urdintasun guziak borratu naiez. Gau eta egun, bata bestearen kontra gogorkiro jazartu dute noski, eta eguna, bere etsaiak garaitu diolako, mundu onetatik ote badijoa, bere lots aundia ezkutatzeko. Argi-gutxitu ura, argitasunaren azken agurrak dirudi; etxea, aizeak erabillia dararatzen da, eta leio zabaletatik sartzen dira gelara itxaso ase-rretuaren orroi izugarriak.

Bat batetan, neskame gazte batek atea idikita, itz egin zuen onela: —Andrea, andrea, berri onak dakarzkiz, berri onak...

—Zer den, Praska, burutik jauzia aizan?

—Ez, andrea, ez; berri onak dakarzkiz...

—Noiz arte, emakumea, egongo aiz esanaz «berri onak dakarzkiz»? Esan itzan, bein betiko, berri oriek, nik jakin ditzadan.

—Nagusia eldu da; *La Capitana* eldu da; portua, Jendez betea da ango deadarrak!, ango txaloak eta pozgarritzko ojuak! denak atsegiñez zoratuak dirudite...

—Bai ote? Ene Andre Eirikiña Maria! nere senar maitea eldu da? eta biotzak ez zidan ezer esaten! Zorionekoa milla eta milla aldiz gaurko eguna. Uste nuen, ez nuela inoiz ikusiko! Urtetan aín aurreratua! eta beti itxasoan! beti etsai amorratuen artean! Baiño, egia da, Praaka, aditu dedana? Nola, noiz artu den berri maitagarri ori?» {*Euskalzale*, 1897, 227 orr.).

Egia, egia, euskeraz idazteari eman ba'lioken, nolako lanak osotuko zizkigun Kanpion aundiak! Baiña geiena erderaz egiña izanda ere, ikasi nai baldin ba'dugu, utzi zizkigunarekin aski dugula deritzait.

(Ikus G. Muxika, *Euskalerraren Alde*, 1922, XI, 273 orr. eta *Los titanes de la cultura vasca*. I, Auñamendi bilduma, 155 orr.; J. Zugazagoitia, *Algunos escritores vascongados*, Bilbao, 1920, 10 orr.; Larre-

ko, *Euskal Esnalea*, 1930, 213 orr.; K. Etxegarai, *Blancos y Negros-en* itzaurrean, Donosti, 1934; G. Garriga, *Bol. Amer. E. V.*, 1954, 85 orr., ta 1957, 124 orr.; J. Artetxe, *Caminando*, 81 orr.; A. Irigarai, *Euskera*, 1953, I, 32 orr.; A. M. Labaien, *Euzko-Gogoa*, 1954, V, 163 orr.; J. Altadill, *Euskalerraren Alde*, 1930, XX, 247 orr.; F. Arozena, BAP, 1958, XIV, 455 orr.; A. Pérez Goiena, *Ensayo de Bibliografía navarra*, 1964, IX, 709 orr.; L. Villasante, HLV, 347 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 187 orr.; Jon Bilbao, *Eusko Bibliographia* II, 208 orr.).

3.—KRUTZ GOIENETXE ELORGA (1866-1925)

Baztandarra dugu, Elbetea'n, Baztan ibai ertzetik eskuitara, berrogetamar bat etxe dituen errixka politean munduratua. Santa Krutz eliza du nabarmen nunaitik begiratuta. Ementxe jaio zan K. Goienetxe apaiza, 1866-9-13'an. Bere gurasoak: aita, Frantzisko Goienetxe Zelaieta, Elbetea'koa, ta ama, Maria Josefa Elorga Etxandi, Elbetea'koa au ere.

Eleiz-deia barrenean oarturik, Iruña'n ikasi zitun ortarako gaiak, eliz-ordenak 1890'garren urteko garizumako bostgarren igandetik asita Iruña'n bertan arturik. Euskeraz ondo zekian, eta ikasi bitartean antza, euskaltzale porrokatu egin zitzaigun. Gero, Naparro alde guzeian ibilli zan, aspertu barik, euskeraren eta euskal gauzen alde kementsu lan egiñik. 1908'an Anza ta Elizondo'ko euskal batzarrak eratzen jo ta su agertu zitzaizun; berdin, 1910'an ere, Lekunberri'koa gertatzen. «Euskal Esnalea»-k ospatu zizkigun batzar auek.

Etzan, ziurki, iñoren agotan ibiltea eder zitzaiona: atsegi-ñago zuen ixilleko bizi-moldea. Orrela, ez bestelako zarata gabe, bere arima-zaintzan jarduna dugu urte mordoan. Barruan bolbol zebilkion euskaltzaletasuna ere, orraitio, iges egin oi zion dizdizka, ta Azkue zanak bere Iztegi nausia osatzeko gai billa erriz erri ibilli zitzaigunean, auxe aukeratu zuen inguru aietako izkelgiak aztertu, ikasi ta kidekatzeko batez beste. Iztegiaren itzaurrean (XI) aipatzen du Goienetxe ere, Gorosurreta'rekin batera, Baztan ibarreko laguntzaillen artean.

Maia edo Amaiur'eko parrokiak arduratu zan 190rgarren urtearen azkenerantza. Eta ementxe zegoelarik, 1920'an, urixka ortan oroigailu eder bat jaso zutenean, beiñola askatasunaren alde bizia eman zuten napartar gizurenai, K. Goienetxe'k onetsi zuen arrizko gomutagarri ura, euskerazko itzaldi gartsu ta ozenaren ondoren. Beste ainbeste egiña dugu, 1923'an, Doneztebe'n antolaturiko euskal egunean ere.

Napartar Irakasleari (Doctor Navarrus) buruz lan interesgarri bat osotu zuen, beste idazti batzuen artean; baiña ez dakigu argitara zuenik.

Euskaltzaindiak, 1920'garrenean, idaízi-euskerea bat egitea egoki zala-ta, galde-mordo bat bialdu zien bere lankideai; askok erantzun zuten; oien artean zan K. Goienetxe ere. Bai, onek ere iduripena eman zuen 1921-1-27'an Elizondo'tik igorri zuen lantxoan.

«Nire iduripena —dio—, deusgutikoa bada ere, al bezain lañoki eta garbi emanen dut. Guzien gogorako gauza litzake, eskualdun guzien artean, odolez bat garen bezalaxe, eskualera bat bakarra izatea. Eta, nork asma ortarik etorriko litzaizkigun ondorio onak. Untan ez dakust neor eztabada zerbait izateko arraiskurik. Bañan erran bearko baitugu, naski, aspaldiko itz neurtzaleak ziona: *Video meliora, prohoque, deteriora sequor: dakust obeagorik, baita oberenetaz tirriatzen ere, aatik ttipisagoekin gelditu, bearko*. Gai untan, nere iduriz, onbera gertatzen da. Ikusten dugu denak oberena litzakela eskual-era bat artzea; bañan denekin gelditu bearko. Zergatik? Ara zergatik. Urrats orren ematea gauza zalla, nekosa eta eskuarentzat kaltegarria izan laikelakotz.

«Lanpide zalla eta nekosa da ori: ori egitekotan bat bear genuke artu. Zein? Ezta errez erabakitzea. Eskualdunek buru gogor aire bat badugula darasate bazterretan; ori ez ala izanta ere, au bai egi aundi bat da, eskualduna atxikia dela bere gau-

zei, baita bear ere; eta ez luke neork naiko bere amaren al-
tzoan ikasitako *era* bazterrerat uztea, zokorat igortzea» (*Euskera*,
1922, 97 orr.).

Amaiuk'en itzali zan K. Goienetxe, 1925-4-29'an.

(Ikus *Euskal Esnalea*, 1925, 98 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 48 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 304 orr.).

4.—FELIPE ETXEBARRIA HERNANDORENA (1866-1942)

Beintza-Labaien'en jaio zan 1866-2-5'an. Beronen aita ere, Alejandro, Beintza'koa zan, eta ama, Erasun'goa. Buenos Aires'-era aldatu zan gazte, ta an ikasi zuen eleiz karrera; an luzaro xamar arima zaiñean ari izanik, bere jaioterrira itzuli zitzaigun. Gaixotia zalako, «Argentina-enea» etxea jaso zuen emen, bere bizitzako azken urteak nareago igarotzearren. Ementxe il zan 1942-3-8'an.

EUSKAL LANA.—Gauza bat maite dugunean, naiz-ta zoriak iñarrostita arat-onat ibilli, ez dugu errez geure biotzetik astin-tzen. Eziña dugu. Olako zerbait jazo zitzaion Etxebarria apaizari ere: Argentina'ko eskualdeetan etzitzaion aztu bere mintzaira. Eta berriz etxeratu zanean, idazteari ekin zion. Orrela erakus-ten digu beiñik-bein.

Ona bere liburu bat: *Bisitac oldareco Sacramentu Santuari gure Ama Birgina Mariari eta San Joseri...* (Tolosa, 1926). Mugertza'ren irarkolan. Alfonso Maria Ligorio deunaren *Bisi-tak* dira, euskeraz jarrita. Euskera ona du, ta bere erriko izkel-gian osotua dago.

(Ikus Auñamendi, *Literatura*, III, 235 orr.).

5.—ENRIKE ZUBIRI GORTADI, «Manezaundi»
(1867-1948)

Ez gara guztiok berdin geure adimen eta biotz eragiñak emakeran: urliak onela adierazi oi ditu bereak, eta sandiak arela, izatez eta izanez aski diferenteak bait gara. Au ez zitzaigu gizar-tean bakarrik ageri, idazleetan oraindik garbiago, nik uste. Nolako aldea batetik bestera! Onek onela dakusa gauzak, eta ark bestera; adierazi ere, onek samur, leun, bizi; beste ark, ordea, zakar, ez berezko. Zergatik ote? Idazleak berak ba al daki? Goxo idazten duenaren kideko izan nai luke, baiña ezin du.

Zubiri'k errez, oparotsu ta mazal idatzi zigun; aatik oso txalotua dugu gurean utzi zigun lana.

GIZONA.—Garazi ta Luzaide, gaur bata Frantzi ta bestea Espaiñi, alkarren urbil daude, Arnegi tarte dutelarik. Beñola, «Ibañeta'tik beherakoan, Luzaide'ko alderat yaustian, Garazi'ko bideari buruz zoazilarik», jipoia ederki berotuta eraman zuten Karloman agintari zabalaren gudariak. Toki egokia da emen or-tarako. Onela Zubiri'k: «Mehargune hertsia, erreka xumetik ezker eta eskuin malda xutak eta legunak; barri xee eta legar-tsualí. Eta gainak arkaitzez brikatuak, doi-doa xutik egoiten ahal direnak iduri» (*Orriaga-ko gataska*).

Mendi tarte ospetsu ontan, Luzaide'n sortua duzu Zubiri. Beronen bizitza etzan lar zalapartsua izan, baiña bai aberatsa, andik naiz emendik begiratuta lits askoduna. Donibane-Garazi'n egin zituen bere ikasteak; garai artako gerrak girala-ta an bait ziran bizi bere gurasoak; ondoren Paris'en egon zan margolaritzaz jabetzen, eta etzan pintatzaille txarra izan, aurkintzak, irudi-antzak, edesti ta elezar puskak eta margozkiak berarizko eraz zirri-borrotzen; Iruña'n, Napparroa'ko Aldundiko aretoetan dagoz taiu onetako margo-lan batzuk: «Azpilikueta», «Napar-roa'ko Karlos III'garrena», ta abar.

Pintatzetik bizi izan zan zati bat, eta J. M. Satrustegi'k dios-kunez, agintzen zizkioten lanetatik ere laguntza ederra zuen,

bere inguruan jaun aundia zan eta. Margo-lan mordoa egin zuen, eta gaur bere illoben eskuetan izan bear dute. Au ere ba-diosku Satrustegi'k: «Ontan ere etzitzaizkion beti gauzak zuzen atera. Ezkontzekoa zan ilobarendako egina zuen Luzaideko ikusgai bat, bere erriko ayundamenduari utzi zion, ezkontza nastu ta. Eta bestalde, berriz, Naparroko Dipuiazioak agindu ta egindako «Oliveto», ilobaren eskutara joan zen saria ordaintzen etziotelako» (*Zeruko Argia*, 1967, urrillak 29, 12 orrialde).

Izar beltza omen zuen gaiñean. Eta au «kontuan iduki behar da —dio Satrustegi'k— bere nortasuna ziñetik ezagutzeko. Bere illobak erreak dituzte andregaiarekin izan zituen artu-emanen idazkiak. Uts aundia! Ba omen ziren bertsuak ere! Eta gero, auspotako eritasunez joana maite zuen neskaxa; etzen iñoiz eskondu».

Elertia ere, edo ederkerari zegokiona beintzat, antxe Paris'en ikasi zuen nunbait, bere lan bikaiñetatik atera dezakegunez: artista ikasi antzo bait ditu jartzen esaldietan, gauza bakoitzari zer dagokion uraxe adierazi ta aitzen ematen bearturik.

Paris'tik euskal erriratu ta Iruña'n jarri zan egotez, ango Antze ta Lanbide Eskola'ko irakasle. Urte mordoa egin zuen arazo ontan. Azkenez, berton il zan 1943'an.

EUSKAL IDAZLE.—Fiña zan idazten, bai erderaz ta bai euskeraz. Euskerazko lanak orduko aldizkingi askotan agertzen zaizkizu. Bestelako gaiak ikutzen ditu, errikoia eta jantziak, dala jazoera naiz kronika bat, dala ipui naiz edesti puskak, jori ta atsegin benapar izkelgian errez, trebe darabil bere idazkortz bitxia. Gizatiar lantze ta kultura bikaiñaren jabe zanez geroz, dagizkin antz-irudi, kontatze, berriketa ta enparauak antze ta artearen muiña sakonki dakianaren erara moldatzen dizkizu. Baiona'ko *Eskualduna'n* eta Iruña'ko *La Voz de Navarra'n* idatzi zuen.

Oraintsu arte agerkarietan sakabanaturik egon diran lanokin, batzuekin beintzat, liburu batzuk ere osotuak dituzu. Ona bi: 1) *Euskalerriko Ipuiñak* (Iruña, 1957), eta 2) *Prosistas navarros* edo *XX-garren mendeko Najarroako euskal idazlariak* (Iruña, 1958); Aingeru Irigarai'k egiñiko idazlan-bilduma duzu au, Iruña'ko «Principe de Viana»-k argitara emana. Ogeta bederatzi lan daude berton Manezaundi'renak. Ona tituluak: «Bernat Dechepare», «Kokotz arraintzaria», «Oroitzapen zaharrak», «Orreagako gataska», «Ruarte de San Juan», «Piarrexen izialdura», «Auritzeko ferietatik», «Martin Azpilicueta», «Xoría bere ohantzerat», «Hiru behien zerga», «Boryel pertsularia», «Tresna txar bat», «Artzaina yaundua», «Iruñeko itzulia», «Bazterretxetarrak karrikan», «Orreaga-ko beilak», «Olite-ko gaztelua», «Gizon perestu bat», «Iruñe zahar eta berri», «Eskuararen idazteaz», «He moxtea», «Udatik udazkenerat», «Zuberoko eskuara», «Donibaneko merkatan», «Sanferminetarat», «Ihauteri karakotxak», «Gure aurkintzak», «Aro gozoaz» eta «Napoleonen bidia».

Danetik da, ikusten duzunez. Emen, gertatu zerbait edesten dizu: «Orreagako gataska», «Hiru behien zerga», «Olite-ko gaztelua» ta abar; an, erri-gaiak ditu oiñarri; «Kokotz arraintzaria», «Auritzeko ferietatik», «He moxtea», ta abar; beste an, kultura gaiak: «Eskuararen idazteaz», «Gure aurkintzak», «Zuberoko eskuara», ta abar. Ona, presaka bezela, «Eskuararen idazteaz» deritzaiona: ..

«Lerro hauk abiatu baino lehen, yuan daila aitzinetik aitor-men bat, deblauki errana, gaitzikorrek ez dezaten uste beien makur zuzentzaile edo kizikatzaila nizala bakarrik. Aitortzen dut nik ere denen arabera baditutala nere hutsak, eta nere herriko baserritarren ondoan, mintzaiari doazkon trebetasunetan, anitz ikastekotan nizala; bai eta ere beien artean yakintsun hoberenarekin baino geiago argitzen dutala, baldin iluntasun zonbait izaten badut.

Anitzek uste dute eskuaraz untsa idazteko aski dutela hizte-gietako hitz guziak yakin gogoz eta apuñatik. Eta ez da batere hala. Ene ustez bitzen ikastea bezain beharrezekoa da aditza eta berboa, egindura, eta itzuliak eskualdunki ibiltzea, zeren eta hitz batek, hitzaldi batean erran nahi duena, beste batean, bera lekuz kanpo da, funtserik gabekoa.

Ikusbide anitz ezar nezazke, hemen, bainan irakurleak enea ez ditene herabez, ez ditut lerro hauk luzatu nahi edadura haundiskoa emanik ene oharrerri. Buru-austeak izan ditut zonbait aldiz idazki batean hitzaldi bat ezin arras ulertuz, bere itzuliaren ilundura ezin argitaratuz, xuxenki yakiteko zer erran nahi ote zuen, eta ardurenik azti batek bezala bere mamia atera beharrez. Hortakotz erran dezagun berriz ere, behin betikotz, baitezpadako eta ezin utzizko beharra duela urte guziz iragaitea ahalden epe luzena herri eskualdun huts batean, baserritarren solaseri iarraikirik, eskuara garbi, trebe eta gurbil ikasi nahi duenak. Liburu- en ikasgaien eta errint-erakasleen ondotik hori behar luke egin guziek, urtean behin. Zer mirakuluzko oputzak, zer mozkin nasaiak ez lezazkete bil! Uzta ederragorik ez dezakete amestu.

Nihauri gertatu zautana erraiten dautzuet, irakurleak; eta ene ikasbidea yarraikirik zihaurek, froga zinezkete nik erranak. Eta lerro hoen ondotik erran behar dut aspaldian gogoan nuen *Irular* gure adixkide idazleaz. Bere eskuara arras laket zait: garbia, ernea eta bakuna, bian gisa goxokoa eta argia, nun mendiez bi aldetako eskualdunek ulertzen ahal duten errexki, dremendenik neketasunik gabe. Eta arrigarriago dena: eskuara ikasi omen du, ez amaren besoetan, bainan mutiko tarrotua zelarik. Ez daiteke sinets bere eleketa eta idazkieri oharturik, ez dela haren sor-mintzoa. Barka nezazu, *Irular*, zure matelak gorriarazi baditut izpiño bat; bainan egia erran behar da oroz gainetik, lausenguakalde bat utzirik. Nolako aita, halako semea» (*Prosistas navarros*, 93 orr.).

Darabillen idazkerari begitu ezkeror. A. Irigarai'ren oarrok jakingarriak dituzu: Benaparru sarkaldeko izkeraz idazten du, Kintoa'n, Amegi'n eta Orzaize ta Baigorri'ko ibarretan mintzatzen bezela; baiña Garazi'ko aditz-era *xu* —*ez dixit* (dut), *artu nixin* (artu nuen)— txerazkoa ere ba darabil noizik bein. Baita auek ere: *girea?*, *duzia?* galderak ere; eta *buru-buria*, *sartu-sartiko*, Baztan'en eta beste toki zenbaiten lez; amasdun *h* ere bai, naizta geiegikeri gabe; ez du *baiño* idazten, *baino* baizik. Itz berriak ere sartzen ditu, baiña bakanka, geienak erritik jasoak bait darabilzki.

IRITZIAK.—Ez zaigu, ez, oartzeke iralkitzen idazle ona. *Iru-lar* idazle bikaiña duzu, ta Manezaundi oartu zan, konturatu ziztzaizun ortaz; baita gu ere luzaidetar xaloaren luma zorrotzaz. Orixegatik, onen lanak irakurri ta aztertu dituzten danak itz goragarriak eskeiñi dizkiote.

Zubiri'ren lan pilloa bildumatu zuen A. Irigarai'k onela: «Bere idazkera egizale batena duzu, ta goi-argi jario ederrekoa; bere izkera berezkoa, itzetan aberatsa ta erri-mintzairaren benebenetako aldakia. Iñoiz arkitu liteke makurren bat, baiña beste izkuntzetako idazle klasikuak ere, gramatikalariak esan dutenez, izan dituzte beren makurrak».

Eta P. Lafitte'k: «Segur gira liburu berria agradatuko zakotela eskuratuko eta irakurtuko duten guzi-guzieri».

A. Villasante'k: «Idazle onek bildu digula esan dezakegu bere albiste, berri-emate ta kroniketan, euskaldun-frantses idazleak duten gatz, zirta ta txairotasun guztia».

N. Alzola'k: «Asko idatzi eban euskeraz, gai ugari eta atsegiñak erabili ebazan idazte orduan, edertasunak ikututa geienetan. Kirikiño gogoratzen jata neuri Manezaundi aitatzean. Pintatzaillea zan idazte orduan be sarritan luzaidarra. Kolorea, bizitasuna, ibiltea, bizitzaren inguru ta giroa emoten ekiana zan bere lauko-oialai: edertilari osoa».

K. Etxenagusia'k: «Manezaundi'ren izkerea, Luzaide'koa izanik, baxe-naparroako euskalkikoa da; beti be oso errikoia, bizi bizia, esaeratan jatorra ta aberatsa. Atsegin aundiz irakur-tzen dira aren artikulua polit eta umore onez orniduak».

J. M. Satrustegi'k; «Zubiri eskual idazle ona da. Etzion di-rurik eman, eta bai naigabe ugari, bere lumak. Obeita amaseian Luzaiden zen eta eskualtzale izatea arrisku aundiko gauza zai-teken; bere lagunak bildur aundia sartu zioten beintzat. Gizajoa baserri zoko batean sartu ta egon zen ez dakit zer bekaturen bildurrez. Ortan gelditu zen izialdura guzia».

Eta Jose Anjel Irigarai'k: «Oi Garaziko euskeraren xarma! Manezaundik ez derabilla besterik, eta ederki alafede. Euskera-zalea zen eta euskera jatorraren aldekoa»,

Labur: esaeretan ugari ta joskeran jator duzu E. Zubiri.

(Ikus A. Irigai, *Prosistas navarros*, 1957, 9-13 orr.; A. Arrue, *Egan*, 1958, 238 orr.; L. Villasante, *HLV*, 367 orr.; I. Omaetxebarria, *Eus-ker*a, 207 orr.; N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 1966, II orr.; P. Lafitte, *Herria*, 1958; K. Etxenagusia, *Euskal Idazleen Lorategia*, 213 orr.; I. Sarasola, *Euskal Literaturaren historia*, 1970, 124 orr.; Auña-mendi, *Literatura*, III, 251 orr.; J. A. Irigarai, *Euskera eta Nafarroa*, 1973, 82-85 orr.; J.M. Satrustegi, *Zeruko Argia*, 1967, urrillak, 29, 12 orr.; N. Aizola, *Egan*, 1967, 18 orr.).

6.—PABLO FERMIN IRIGARAI GOIZUETA (1869-1949)

Idazle izena «Larreko» zuen. E. Erkiaga'k au, sarrera beze-la: «Literatura zelaietan bazkazale ez zirudian arren, halaere Larrekok lan polita utzi zigun, eleder-joera aztarnaz ornitua... Euskerarenganako zaletasun hortan, atxikia ta zintzoa izan zen. Umezaroan eta gaztezarroan ez zuen izan mende, agiri danez, arbasoen mintzaira. Horregatik, haren nekea etengabea izan zen, beti ikasten, beti kezketan izkera jatorra, garbia, egokiena, bere esanetara makurtu beharrez. Horra hor argi Jarri, «Larreko»-ren

izkera zergatik ez zen, ez bere sorterrikoa ta ez Baztanekoa. Beste izkelgietariko emaitzak bildu baizituen, bere estilu bakan hori borobiltzeko» (*Egan*, 1970, 1-3, 7 orr.).

BIZI-ZIRRINTAK.—Auritz —erderaz Burguete—, mendi-gailurrez esituriko zelai zabalean datzan erritxo liraiña duzu. «Baso galantak bertan —diosku Latxaga'k—, eta iturri goxoak nunai. Aizea bai bikaiña, toki alaia, laiño zuria ateratzen danean Auñamendiko usaia bertaraiño ekartzen du». Orreaga daukazu bertatik urbilxe.

Ementxe, lenago «Maistronea» ta orain «Martin Zurgin» deritzaion etxean jaio zan Larreko 1869-1-25'an. Bere gurasoak: aita, Ramon, Iruña'ko «Asociación Euskara»-koen lankide ta Iturralde ta Kanpion'en sasoikoa, auriztarra zan jaiotzez; ama, berriz, Josefa Goizueta, Doneztebe'koa. Auritz'eko guztiak bezela, etxe ederra da Irigarai sendikoena, gerra aurretxoan —1933— berriztatua. 1969'an Larreko'ren eun urte-burua zala-ta jarria, oroigarri txairo bat dauko aurrean; 1973-6-21'an, Korpusti egunean, andik ibiltzean, pozik ikuskatu zuten nere begiak.

Aita eskola maixua bait zan, era egokia izan zuen ikasteko. Lenengo ikaskizun eta asi-masiak Auritz-en bertan artu zituen; goragokoak, Iruña'n eta Zaragoza'n egiñik; osa-jakintza ondoren Madrid'en osatu zuen, mediku ta ebaketari titulua 1892'an arturik. Bere ogibide ortan Bidasoa'ko Bera'n ekin zion lenda-bizi, gero Irurita'n jarraituaz; geroago, Iruña'n bizi izan zan eriotzararte, Barañain dalako Naparroa'ko Gaixotegi nagusian, lan eta lan.

Bego emen Latxaga'k dioskuna: «Gizon bezela, oso ona ta ziñezkoa zala esaten dute, Kristaua egizkoa gaiñera. Sendagille bezela egindako lanegatik Naparroak zorra aundiak ditu berari ordaindu bearrak. Gaxotegi berria gizon onen bidez egin zan eta ango zuzendaria izana da. Ebakunzlari edo zirujano bezela lana egiten zuan eta esan dezakegu Naparro osoa bere eskuetan igaro dala. Bere gaxoakez dute aztu; oraindik gutxiago bear-

tsuak. Bere seme-alabak ba'lira bezela artzen zituan. Bere lan-bidean oso argia omen zan. Gainera, nola ez?, euskalzale sutsua genuen ta idazle benetakoa» {*Nafarroa euskal arrobia*, Donosti, 1973, 179 orr.).

Beraz, gizon bezela ona ta maitekorra genuen; askotan, ala ere, geuk jakin gaberik edo, etsai ixillak izan oi ditugu. Baita Larreko'k ere. Onela didaz E. Erkiaga'k: «Orain ogetamairu urte, anai arteko burruka luzea asi zenean, nork ez ditu-ta, Irigarai zaharrak ere, ba zituen etsaiak, noski. Haren kaltetan, behin eta berriro izan ziren salakuntzak. Hoiien berri, gobernadoreak eman omen zion obispuari: hain zuzen, hunen etxeko mirikua «Larreko izaki. Obispuak eman zion jardespena gobernu-gizonari —Untsa ezagutzen dut Irigarai mirikua. Baiña, erran ezadazu, otoi, Nafarroa osoan, haren pareko gizon onak, zenbat ote ditugun...» (*Egan*, 1970, 1-3, 4 orr.).

Udara garaian Aragoi'ko Pantikosa'ra bezain sarri jotzen zuen Auritz'era, toki eder oietako aize gozotsuz bere gibel-erraiak asetzera. Auritz'en, bere kale, frontoi, eliza ta bazter ederrakin, ba-zuen nun egurastu; baita ba-zeukan euria zanerako etxebarne atsegiña. Barrunbe au ezitia iruditu zitzaion N. Aizola euskal idazle zeatzari, ara egin zuen ikustaldi batean. «Kanpora urten barik—dio, suburuko gela zeazturik— keia bertan gordetan dauban kanpai-antzeko zulo biribil aundi bat dauko sua egiten dan lekuaren ganean, pare-parean. Jesarleku txiki pillo bat umeentzako, illaran iminita orma kontretan, eta aspal-dikoak ei dira. «Larreko» beorretan, jesarleku orretan jesarriko zan, mutil txikia zala. Eskaratzeko tresna-ontzi asko ormetan eskeita, garbi-garbi eta dirdiratsu. Buztiñezko eta lurzurizko platerak eta toskak, onek be antxiñetako denboretan zul gorrixkeagaz egiñiko arasa eder batean. Udaetan «Larreko» idazten egoten zan maia («*osaba Fermín heti izkiriatzen bizi izaten zen*», udaetan Auritzen egoten zanean, jakiña). Museu txiki bat da gela aundi au» (*Egan*, 1967, 19 orr.).

: Iruña'n il zan, 1949-9-3'an, 80 urte zitularik.

IDAZLE.—Ia bizitza guztian osagintza lanez lertua ibilli arren, andik edo emendik ateratzen zигun asti pixkat kulturazko gaiak aztertu ta buru-biotz jarioka idazlan politak bururatzeko. Euskeraz ta erderaz idatzi zuen; euskeraz, Baiona'ko *Gure Herria'n* eta Donosti'ko *Euskal Eснаlea'n*, Bilbao'ko *Euzkadi'n*, Iruña'ko *Napartarra'n* baitik bat, eta erderaz, Iruña'ko *La Avalancha'n*, *El Eco de Navarra'n*, *La Voz de Navarra'n* eta beste.

a) *Euskerazkoak*. Ezaguna dugu A. Irigarai'k osoturiko *Prosistas navarros* edo *XX-garren mendeko Nafarroako euskal idazlanak* liburua; Manezaundi ta Larreko'ren lanak datoz. Bederatzí dira Larreko'renak, lendik or-emengo agerkarietan sakabanatuta zeuzkanetatik artuak.

Ona tituluak: «Euskaldun bioztuna Mexicon», «Azkena», «Nafarroako euskal esakerak», «Orreagan», «Eskuara eta toki izenak», «Apendizitis», «Edarikoa», «Erronkariko uskaraz», «Sendalari baten argiak». «Euskaldun bioztuna Mexicon», irakurgai luze bat da, ederki egiña; «Nafarroako euskal esakerak», 1926'an emandako itzaldia *Euskal-egunetako Itzaldiak* deritzan idaztían daukagu; «sendalari baten argiak», ordea, erderaz idatzi zuen liburxka baten laburpena duzu euskeraz. Aipagarri dugu Euskaltzaindiak, 1923-9-7, 8 ta 9'an, Doneztebe'n eratu zuen Euskal-Eguna ta lenengo egunez arratsaldean Irigarai'k Lakoizketa'z mintzatutako itzaldia.

Aitortu dugunez, Irigarai'ri, aur zala ere euskeraz jakin arren, Zaragoza'n eta Madrid'en Lizenziadura atera bitartean igarotako urteetan erdi-aztu egin zitzaion zekien puska. Ezta arritzekoa. Baiña Baztan aldean osagille zalarik, laster konturatu zan euskerak zuen garrantziaz. Eta berriro ekin zion gogotik bere mintzaira ikasteari. Ta nola ikasi gero! Bide bi artu zituen ortarako: erria ta liburu zaarrak. Onela dio berak;

«Euskerak, izkuntza guztiek bezala, bere dituen bideak eta orkoiak ditu; bide oriek, euskaldun garbien artean dagozi: idazti zaharretan ere bai. Orain, lehen bezala, euskera garbi ikasteko, erdara ez dakiten euskaldunekin behar da ikasi, edo erdaraz

zerbait jakinik ere, gogo, pentsamoldea euskaldun duteneldn. Huntaz landara, euskaldun garbi, ikasiak dira nagusienak guri irakasteko. Ez bakarrik itzeginez, baizik eta beren idazti eta irakurgiaz. Euskararen erro garbienak, euskaldun xaharretan daude. Gramatikaz eta irakurtuz xoilik, beinere ezta euskaldun garbienen joera erdiesten. Entzunez, aurrek ikasten duten bezala asi nintzen ni ere.

«Baiño orduan, norbaitek ohartuarazi zidan nere deiturak eta nere jatorriko leku-izenak, erri hartakoak bezala, euskarazkoak zirela. Orduan, argitasun handi bat egin zen nere gogoan, argi ta garbi ikusi bainuen nere izatea euskaldun dela, eta nere arbasoen izkuntza *euskara* izan dela. Orai, gure gogoak arrotzu ondoan, egin nai dugu euskara bat gure orkoi eta moldetara, eta hori ez da bide zuzena. Gure gogoak biurtu behar ditugu euskeraren moldetara. Aldi untako euskal idazle geienen gaitz makurrena, erdalera dugu».

Askotariko gaiak erabili zituen: kronikak, berri emate jakingarriak, nobela laburra, euskera, sendakintza, feminismua ta abar. Sinismen andikoa zan, elizkoia ere bai. «Feminismoaz» dalako an au dio Andre Maria'ri buruz: «Aldiz, Amaberjina (Jainkoak) bere amatzat berexi zuelarik, ez da izan sortu direnetan, hura baino handiagorik, ederragorik eta sainduagorik». Alderdi au ere interesgarri duzu: maite-maite zuen bere erria, itzez eta egitez; gure jendeak eta lurraldeak zoratzen zuten.

Bere idaztankera beti duzu jaso. Edo obeto, A. Arrue'k dioskunez, «jasoa bakarrik ez: giarra ta, aldi berean, ugaria ta argia. Baña, batez ere, jatorra, erriak antziñatik erabiltzen dituan esaeretan ta joskeran errotua» (*Egan*, 1958, 239 orr.). Alíube'tar Seber'ek laket zituen Irigarai'ren esaera bitxiak: bi aldiz beintzat aitatzen du bere «Erderismos» liburuan.

b) *Erderazkoak*. Or-emen argitara zizkigun lantxo laburrez gaiñ, iru liburuxka auek ere atera zituen: 1) *Topografía médica del valle de Baztan* (Iruña, 1905). N. Aranburu'ren irarkolan. 5-78 orrialde. Beiñola Baztan ibarrean osagille izan zan Simo-

nena Irakasleak egin zion itzaurrea, ta onek dioanez, egilleak ondo ezagutzen du ibar artako euskal errazaren egoera, ta batzueri geiegi iruditu arren, etsimen-tanta sotiliez goibeldua datza; 2) *Guía médica del asistente a moribundos* (Iruña, 1945). Euskeraz ere eman zituen erdel-idaztiño ontako ezagutzak. Onela dio: «Apez ordenatu berriak, eri-handietara eta azkenetan daudenetara deituek, sendakintzako erakaspén zenbeit on lukeke jakitea». Origatik osotzen du liburu au; 3) *Guía médica del intérprete de milagros y favores* (Madrid, 1949). Marañoñ medikuaren itzaurrea dakar. Era askotara gera eri, ta Irigarai'k, eritasun auek, naiz gure erriarena naiz pertsona batesa izan, denak jarri nai ditu sendabidean. Edu onetan berak: «Eri-handi batek, *ezagutza* edo *burua* nola daukan jakitea, garmendu andiko gauza da. Ilundua ezagutzeko bideak bilatu nai ditut eta ahal dutan argiena».

IRITZIAK.—Lizardi'k maite zuen Larreko. Eta bego lenda-bizi aren iritzia. «Urli» (Orixe) adiskide erre-minduari erantzunik, au idatzi zuen beñola: «Larreko'ren iritzia maiz txorrotxegiak iduritzen zaizkidan arren, gizonez maite det; idazlez ederresten; abertzalez, gorasarre dagiot. Bikaintasun olez nere eskuek ez ukitzeko diñan goitia ez balego ere, ille urdiñaren-ganako itzal samurra bear nuke aski. Aren aurrean bai, atera dezakegu txapela biok, eta beste zenbaitek ere. Itz oietxek zor nizekizun, aiton burutxuri; ta artaratu nauen abagunea atsegiña ez izanda ere, ongi etorri bedi, biotza lasatuaren ordaiñez» (*Itz lauz*, 114 orr.).

Eusebio Erkiaga'k: «Idazleak, gai sakonagoak eta goragoak izango ditu; baiña ez du eskubiderik izkera bera, erriak baiño traketsago ta illunago ta aldrebesago bilakatzeko. Lanak daramazkian gaiak eta laguntzailleak eta gorabeherak nola alkartu, idazleak jakingo du, noski; halarik ere, idazleak, ari dan izkuntza, darabilen izkera zaitu, gorde, osatu ta txukun agertu behar duela uste dugu, beste errietako idazle gailenak eta az-

karrenak egin duten bezala. Beste alderdi bat, eta «Larreko»-rengan goragarriena ta axola nagusikoa, bere saileko gaiez, euskaraz idatzi izana: osasun gaiak, miriku arloko jakingarri zenbait, garbitasuna, edariak, gizonen eta emakumeen lanak, eta abar».

Latxaga'k: «Euskera ondo zekin eta nafar euskeraz idazten zuan. Euskal elertia aberastu zigun. Beste askoren artean or-txen ditugu bere bi lan bikaiñak, «Euskaldun Bioztuna Mexi-con» eta «Feminismoaz».

K. Etxenagusiak: «Auxe zan Larrekok euskerearentzat nai eban jatortasuna: ez itzetan, esaeretan baiño, erri-erriak ain uga-ri ta gozo erabilten dituan esaera aberatsetan».

Eta, guenik, Jose Anjel Irigarai, Larreko'ren illobak, Mane-zaundi ta biok gogoratzen ditula, au dio: «Manezaundi, ipuin eta holakorik idatzi zituen luzaidar idazle aberats eta joria, eta «Larreko», auriztar sendakina, hura bezala ameka artikulio eta kolaborazio idatzia. Lehenbizikoak baxe-nafarreraz zuen izki-riatu, Luzaide, mintzairaz, zeharo Baxe-Nafarroa bai da; biga-rrena, aldiz, ifar-nafarra-garaikoaz aritu zen».

Guen-gaiñez oindio E. Erkiaga'k: «Ez zuen iñoiz burua ez izlaritzat ez idazletzat jo. Aldi hartako «euskal idazlea» zen, xoilik. Izenordez geienbat lanean ari ziren errikoseme apal haien artekoa, albistak igorri, iruzkiñak egin, asmoak agertu, erriaren alde eta izkeraren alde jardun».

(Ikus A. Irigarai, *Prosistas navarros*, itzaurrean; L. Mitxelena, HLV, 154 orr.; L. Villasante, HLV, 368 orr.; N. Aizola, *Egan*, 1967, 18 orr.; K. Etxenagusia, *Euskal idazleen Lorategia*, 226 orr.; A. Pérez Goiena, *Ensayo de Bibliografía navarra*, IX, 561 orr.; E. Erkiaga, *Egan*, 1970, 1-3, 3 orr.; Auñamendi, *Literatura*, III, 297 orr.; *Latxaga* (Jose Maria San Sebastian), *Nafarroa euskal arrobia*, 1973, 179 orr.; I. Sa-rasola, *Euskal literaturaren historia*, 124 orr.; J. A. Irigarai, *Euskera eta Nafarroa*, 1973, 82 orr.).

7.—RAMON MENENDEZ PIDAL (1869-1968)

Naiz-ta gure euskal lurretik sortzez bederen naiko urrutikoa izan, galiziar onek merezi du gure literaturan ere omenezko aipua. Beraz, bego ementxe.

Gizaseme jakintsu au La Coruña'n jaio zan 1869-3-13'an. Jakintza ta Edertiak ikasi ondoan, 1893'an iritxi zuen Doktor titulua, 1899'tik aurrera Madrid'eko Ikasgu nausian irakasle izanik; 1901'tik Real Academia'ko lankide, 1925'an espaiñar Izkuntza batzar orren Zuzendari izendatu zuten, 1936'rarte kargu ortan iraunaz; 1947'an berriro eman zioten kargu bera, ta eriotzararte jarraitu zuen zuzendaritzan. 1968-11-14'an il zan.

Agitz langillea ta gai askotan ikasia genduen. Liburu mor-doa argitara zuen. Oietatik aipagarrienak: *La leyenda de los infantes de Larra* (1896), *Crónicas generales de España* (1898), *Poema del Cid* (1908-11), *Poesía juglaresca y juglares* (1924), *españoles en la Historia* (1947), *Los españoles en la Literatura* *Orígenes del español* (1926), *La España del Cid* (1929), *Los Españoles en la Literatura* (1949), *Romencero hispánico* (1953), ta abar.

Euskaltzain urgazle izan zan 1919'garren urtetik; eta Euskaltzaindiak 1968'eko otsaillean ospatu zuen batzarrean, deduzko euskaltzain izendatu zuten. Merezia nunbait, euskal kulturaz ainbat lan eder osotu bait zigun: «Roncesvalles», «Vitoria y Las Casas», «El idioma español en sus primeros tiempos», «Toponimia prerrománica hispana», ta abar.

Baiña euskal izkuntzaren inguruan burutu zuen lanik obere-netarikoa, aurretik egiñiko mintzaldi ta antzekoakaz antolatu zigun bilduma da, ots, *En torno a la lengua vasca* (Madrid, 1962).

(Ikus San Martin, *Euskera*, 1968, 284 orr.; *Gran Enciclopedia del Mundo*, 12, 958 orr.).

8.—NIZETO BELTZUNEGI MENDIBE (1871-1946)

Errazu, Baztan ibarrean aurkitzen dan nappar errixka txairoa; ementxe munduratu zan Beltzunegí, 1871-12-22'an. Eta berton il zan 1946-11-13'an.

Iruña'ko «La Voz de Navarra» egunerokoan idatzi zuen nai-koa.

(Ikus Auñamendi, *Literatura*, III, 270 orr.).

9.—PASKUAL BERNARDINO BIGURIA TA OZTA (1871-1932)

Aita kaputxinoa, Elizondo'ko Frantzisko, Baztan ibar eder artako uri apaiñean bait zan munduratu 1971-5-20'an. Iruña'ko apaiztegian osotu zituen ikasketa guztiak, 1894-12-22'an, an bertan mezakoturik. Jarraian Ultzama ordoki edo lautadan dztan Lizaso erritxoko erretore izendatu zuten; an sei bat urte egiñik, kaputxiñoetan sartu zan, 1902-5-27'an iru botoen eskeintza txikia egiñaz.

Kaputxino zalarik, laster asi zan erriz erri itzaldiak egiten eta mixioak ematen. Predikalari bezela oso ona izan zan, bere bizitza guztian atertu barik ara ta ona ibillirik; jendeari txit atsegin egiten zitzaion bere agotiko itza. Etorri ugarikoa zan, euskera errez ta garbian.

Ondarrabi, Irun'en naiz Donosti'n, egon zan toki guztietan Irugarren ordenakoen Zuzendari izan zitzaigun, euskera ederrean elizkizun atsegingarriak egiñaz. Orrelaxe bere bizitzako egunetan. Ala ere, laster, oraindik zaarra etzala, eraman zuen Jaunak: bein Donosti'ko kaputxinoen eliza berriztatzen eta goratzen ari zirala, bera ere gora begira zegoelarik, orra-or, uste gabe, goi-goitik beeraiño erori ta andik egun bat edo besteren

buruan, Elizako guztiak artuta, zerura egatu zan 1932-7-4'an, 61 urteko zala. Eriotz orduan, euskeraz bakarrik egitea nai zuen.

BERE IDAZTIAK.—Ainbat idatzi zuen, edozein euskaldunentzat, izkera garbi, errez ta ixuri aundikoan. Ona argitaratu zizkigun lan batzuk:

1) *Kristaua here pont-elizan* (Tolosa, 1910). 567 orrialde, Lopez'tar Eusebioren etxean; urrengo urtean ere (1911), Lopez'enean, bigarren argitaraldia egin zan, orrialde berdiñakin. Pont-eliza parrokia duzu. Ta titulu azpian, au dio liburu onek: «Iruña'ko Lorenzo Doitsu-ko arim-artzai argi Zelayeta-ko Marzelo jaunak bere eliztarrentzat egin eta Elizondo-tar Prantrisko Aita kaputxinoak euskeratutako eliz-liburuba». Berton dator kristauak bear duen guztia, oneraspen, geienetako bederatziurren eta beste gai asko, baita elizan abestu bear diran soiñu-eresiak ere. Erderazkoaren izena; «El cristiano en su Parroquia». Zelaieta onek ba-ditu erderazko beste zer batzuk ere (A. Pérez Goiena, *Ensayo de Bibl. nav.*, 733 orr.).

2) *Lore usaidun mamitsuak* (Tolosa, 1922). Gipuzko-Argitaldaria. 265 orrialde. Irakurgai goxoak. «Zeruko Argia»-k onela goratu zuen: «Euskeraz gaur arte argitaratu dan liburu-rik atsegiñenetakoa da auxa. Atsegiña, euskera erraza ta oso erraza dakarrelako alde batera, ta bestera berriz dakarren irakurgai guztia, bizitasunez bete-betea dalako. Esana egokia, esakera erritarra ta erakusten duen guztia, euskal usaiduna. Ez duzu itz berri ez-ezagunik arrapatuko, ezta ere erderazkorik. Sail bata bukatu orduko, bestearen gogo sortzen du, len irakurritakoak uzten duan atsegiñak, agoan eta biotzean dirautela» (1922-6'an, 95 orr.).

3) *Eliz kantak* (Iruña, 1926). Gai askotako eliz-abesti sorta polita.

4) *Loretegi berria* (Iruña, 1932). Aita kaputxinoen etxean. 406 orrialde. «Txiki»-ren marrazkiakin. R. M. Azkue'k, egiten

dion itzaurrean, au dasa: «Izkera erraza eta garbia darabil. Gu-txitan ikusten dana, ezta egia, irakurle? Erdalitzik ezta agiri, bear bearrekoren bat izan ezik. Euskera garbi ta txukunean idat-zia dago, eta gainera ulerterrezean. Loretegi berri oni usain ederra dario. Izanak eztu izena gezurtatzen. Gai asko darabiltz-ki, yakingarri eta onurakorrak geienak, eta bakoitza ederki azal-du ondoren, amaitzat, irakaspen egoki bat ateratzen du... Nor-baitek esan dezake: loretegi oni usain onik darion eztakit, baina itzaurlariak liburu egilea goratu nai duela ageri du beintzat. Olakorik balitz, ona zer erantzungo nioken. Akats bat edo beste, nun ezta arkitzen? Gizonen egintza guztietan. Beraz emen ere bat edo bestetxo izan bear, baina ainbeste egokitasun eta eder-tasun artean akats txiki oriek ezkutatuak gelditzen dira».

Zergatik derizkio liburu oni «Loretegi berria»? «Lore usai-dun mamitsuak»-en antza duelako. Ez dituzu berdiñak, baiña lenengoan dakartzkin irakurgaiak ba-daude berri ontan ere; lu-zaturik datoz, ala ere, ba-ditu berri-berriak ez gutxi, ta ipuiñak eta iruzkiñak. Beraz, argitaraldi berriztu ta geitua duzu.

Gutziz arretaz egiñiko lanak dira. Ona «Txarrak bai? Onak geyago...» deritzaionetik zatitxo bat. Ikus nola edesten duen antziñako gure erlijio senaren ezaugarri eder bat.

«Elizakoak eraman bear diranean —idazten du— gauz eder-bikañak ikusten dira. Ura begirapena! Bai arreta aundia! Eli-zakoak daramazkian apaiza topoz-topo arkitzen badute, beiak, astoa, txerriak, dakazkiten abereak gelditu erazi, baztartu, bada-ezpadan eutsi, ta bereala belaunikatzen dira. Ori guztia giza-se-meak txapela erantzi-ta, emakumeak berriz sudur-zapiatz, edo bestela, burua estalirikan.

Soro, larre, baratz, etxe baztarretan daudenak oartu ditezten, eliz-mutillak txilintxa jotzen du, ta etxeakoandre edo etxekoalaba bereala kuxara joango dira, *Kandelera* egunean bedeinkatu era-zi zuten kandela leiora aterako dute, piztuta. Al dutenak, dijoan etxeraño lagunduko diote, al badute argiaz, gañerakoan argirik

gabe; ta ezin joan diranak, belaunikaturik otoitzen bat egingo dute gaxo dagoanaren alde, ta lanean geldituko dira.

Eriaren etxera iristean, giz-emakume batzuek sotoan egongo dira, guztiak argi bana eskuan dutela, ta ango garbitasun eta begirapena ere ikusgarriak dira. Alde batera sagardo-upela, auts eta armearma sareak kendu berriak; bestera gabelak, belarrez beteak; biyen tartean lurra, garbi garbia. Abere guztiak zerbait jaten, Jaungoikoa etxean dagoan bitartean marruak eta kurrinak egin ez ditzaten. Etxeko atean egon oi dan zakurra, aundia ta ikaragarria, mutil mardul-indartsu batek dauka, lepotik elduta, okuillu baztarrean, saunkarik egin ez dezan.

Gora igo ta, oe batean eria, maindira ta buruko zorroak garbi txukunak dituala. Ondoan mai bat, eliz-mai zapi zuri batez estalita, bear diran guztiak gañean dauzkala, guztia apain eta ondo. Zorionez, Jaungoikoari dagokiona ondo ikasia daukate, ta aldi oietan barrengo sinismen eta asmo onak oso erraz agertzen dira. Zergatik au miñez daudenean? Osasun garaiean eliz-gauzak zintzo ta ondo egiten dituztelako; ta urruti bizi badira ere, Meza, Aitorpen eta Jaun'artzerako alde-alde bizi diranak bañon obeto moldatzen, diralako. Au, bai, egi ederra!

Orain galdetzen det: Akatsak edo oitura onak? *Agur-sailla* (Errosarioa) basetxetan bañon obeto non? Eta gañerako oitura onak? Baserritar guztiak abetan irautea Jaungoikoari nai dakiola! Oitura oiek galtzen badituzte (galtzen baditugu), guztia galduta dago» (*Loretegi berria*, 365 orr.).

IRITZIAK.—1922'an, «Lore usaidun mamitsuak» agertu zanean, *Argia*'k, Donosti'ko euskal asterokoak, onela goraldtu zuen: «Ze usai gozo, atseginkor ta asegarria, lore oiek ematen dutena I Ta ze irakurgai eztitsa, xamur ta mamitsuak! Dakarren euskera ere egokiagoa ezin izan ditekena da: argi ta garbi idatzia».

Azkue'k itzaurrean; «Izen politagorik, zein? Baina izana ezta atzera gelditzen. Azala edo estalkia eztatik noiakoa yarrikodion; mamiña, barrena, ederra du beintzat».

Yakintza aldizkariak: «Darabillen euskera errez, naro, jator ta edozein euskaldunentzat ulergarria duzu. Gozo atsegiña batez ere, egillearen asmoa umetxoentzat irakurgai interesgarri bat egitea zan eta. Ipuiñak, izkirimiriak, kontakizun eztiak, luma zoragarritz adierazota» (1933, 158 orr.).

(Ikus *Zeruko Argia*, 1922, 7, 95 orr.; *Yakintza*, 1933, 157 orr.; L. Villasante, HLV, 397 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 454 orr.).

10.ERRAMON GOIKOETXEA OROKIETA (1873-1909)

Naparroa'n, Oltza udal-barrutiko Ibero'n jaioa duzu, Aita Ibero kaputxinoa 1873-8-3ran. Bilbao'n egin zuen profesatxikia 1880'an, eta Lekarotz'en nagusia, 1892'an. Bertan irakatsi zuen Etxalar'ko Aita Eusebio'kin batera, Aritmetika ta Algebra irakatsi ere. Oso lagun miñak ziran Aita buruñurdun biok, eta sarri egurastu oi ziran alkarrekin Baztan ibarreko bazter zoragarrietan zear. Aita Eusebio'k maiz esaten omen zion A. Ibero'ri: «Bordariok egiten duten izketa, orixe dek gure mintzaira, euskaldunen mintzaira». Ortik asi zan gero euskera ta euskal erria ezagutu ta maitatzen. Baiña maitasun orrek eraman zuen illobira ere.

Iruña'n, uritik at dagoen kaputxinoen komentuan aurkitzen zan Aita Ibero, 1902'an. Aralar'ko Mikel Goi-aingerua Iruña'ko katedralera jetxi zutela-ta, jendeketa izugarriak eliza betetzen zuela, Ibero aitak egin zuen itzaldia, gotzaiaren eta kanoniguen aurrean. Azantz aundia atera zuen itzaldiak; baita izlaria auzitegira eraman ere: Lizarra'ko Arantzadi lege-gizonak aldeztu zuen, eta epailarien erabakiz itzaldian etzegon ezer ere errudunik.

1903'an Lizarra'n daukagu, komentuko nagusi ta mutiko praillegaien zuzendari. Emen Serafindar Ikastolan lan egin zuen, lema onekin: *Instaurare omnia in Christo*; baiña euskal kultura barruan. Or-emen etsaiak zituen, orraitio, bai Iruña'ko

itzaldiagatik bai mutikoen zuzendari zalako: jendeak, ez barrukoak ez kanpokoak, ez zuten ulertu gure A. Ibero. Eta urrengo nagusien aldaketak etorri ziranean, 1906'an alegia, nagusitza utziazi ta Iruña'ko komentura bialdu zuten, andik laster Teruel'ko Hija'era. Antxe il zan 1909-9-ran, bere 36 urtetan. «Bera ta berak ereindako azia lertu, zapaldu, ito naiez... goitik eta betik, ezkerretik eta eskubitik eraso zioten, atzerrira bota zuten, ixillerazi zuten, naigabez il zuten. Ta oraindik bere illo-bitik altxatuko ote zan bildurrez zeuden...» irakurten dugu orduko idatzia baten.

IDAZLANAK.—Ibero Aitak ez zuen euskeraz ezer idatzi; baiña erderaz osoturiko lanen bidez eragiera sortzaillea izan zuen. Ona bi liburu:

1) *Sermón predicado en la catedral de Pamplona el día 8 de abril de 1902. Fiesta de la Dedicación de aquella santa iglesia, y ante la imagen de San Miguel de Excelsis (Iruña, 1902).* Erize ta Gartzia'ren irarkolan. 16 orrialde.

2) *Ami vasco* (Bilbao, 1906). E. Artetxe'ren irarkolan. 94 orrialde. Geroztik ere argitaraldi asko egin izan dira; baita euskeraz ere. «Ami» ori, gerkerazko abd'ren edo agk'en lenengo ta azkenengo izkiak dira. Idaztia bera, orde, eusko irakatsiz «argi, eder ta sakon» osotua da.

(Ikus *La Avalancha*, 1902-3-2; *El Porvenir*, 1902-4-13; *Mensajero Seráfico*, Madrid, 1909-10-1; Felipe Fuenterrabia, *Ensayo Bibliográfico de la Provincia Capuchina de Navarra-Cantabria-Aragón* (1900-1950); Errenderi'tar Erraimunda Aba, *Olerkiak*, 42 orr.; A. Pérez Goiena, *Ensayo de Bibl. nav.*, IX, 442 orr.).

11.—EUSEBIO ELZAURDIA ZUBIETA (1874-1956)

Aita kaputxinoa. Etxalar'ko Eusebio Maria, erri ortan bait zan munduratu 1874-12-16'an. Amaika urtetan, Santander'ko

Montehano'n kaputxinoak zeukaten ikastetxera joan zan, an Latin eta Filosofia ikasirik Aita Ibero'rekin batera. Laster azaldu zituen oi ez bezelako adimena ta oroimena.

Griña berezia zekarren izkuntza zaarretarako; eguzki aldekoak ikaslera batez ere. Naparroako jende ikasien artean laster edatu zan Etxalar Aitaren izena. Marfillezko kutxa bat zegoen Iruña'ko eliz nausian, gaiñean itz batzuk zeuzkana, ta ordurarte iñork ere irakurri aal izan etzituna. Etxalar Aitak irakurri ta azaldu zuen idazkuna, arabe izkuntzaren bidez (*Boletín de la Comisión de Monumentos históricos y artísticos de Navarra*, 1921, XII, 58 orr. eta 1935, XIX, 235 orr.).

Lekarotz'en bizi izan zan luzaro, ango gazteai erakusten gogotsu jardunik. Laket zuen, aatik ere, euskal gauzak aizatzea: euskerari txit lotua egon zan beti; euskeraz idatziriko paperik, libururik, aldizkaririk ez zuen irakurri ta azertu gabe utzi. Ango ikasleetan ere eragiera itzala izan zuen; orduan asia zan euskaltzaletasuna sortzen, euskal aldizkariak agertzen, eta Etxalar Aitak auek irakurtzen zizkien ikasleai, ikas orduetan. Ikasleen artean olan jaiki ziran Elduaie'n go Toma, Errenderi'tar Erraimunda, Donostia'r Joseba Andoni, ta bestea.

Oraindio naiko gazte zalarik, gaixotu ta irakasteari utzi bear izan zion bein da betiko. Bere gelan sarturik, orduak eta egunak igaro oi zituen, irakurleari ta otoitzari emana; eliz-kondaira ta euskal liburuak benetako atsegiña ematen zioten. Lekarotz'eko

IDAZLE.—Aita Etxalar'en jakituria izugarrizko sakon, zabal ta argia zan, euskera ta euskal erriari buruz baitik bat. Euskeraz etzuen esatekorik ondu; erderaz, bai, bi lan auek beintzat:

1) *Disertación sobre el análisis e interpretación de los nombres toponímicos vascos* (Barzelona, 1911), Frantzisko Carreras y Candí katalanak zuzenduta argitaratu zan *Geografía General del País vasco-navarro* dalakoan —Provincia de Navarra— 1049'tik aurrera datorrena. Lan eder, mamitsua, gizase-me jakintsu batek osatua.

2) *Voces vascas en el Fuero de Navarra* (Iruña, 1920); Iruña'ko «Boletín de la Comisión de Monumentos históricos y artísticos... de Navarra» deritzaionean azaldu zan lan jakingarrri au, 1920'tik aurrerako zenbakietan.

Ez da, beraz, arrigarri orduko euskaldun ikasiak, Urkixo'k, Kanpion'ek, J. Altadill'ek eta beste batzuk, euren zalantzetan, Etxalar Aitagana argi-eske jotzea.

12.—JOSE TADEO BIELA LOPEZ (1875-1935)

Elizondo'n sortua dugu Biela, «Dolatxea» deritzaion etxean. Lesaka'n eman zituen bere aurtzaroko egunik geienak, bere osaba Frantzisko Biela organu-jotzaille omen aundikoarekin. Onek zirikatuta noski, eliz-karrera egin zuen, Filosofiako irugarren urteraiñokoa. Etzuen aurrera jarraitu. Abots ozena zuen eta Iruña'ko Orfeoian sartu zan abeslari. 1895'an ezkondu ta Elizondo'n bizi izan zan beti. Azken urteetan batez ere, euskerrari osoro ertsia zebilkigun. 1935'an utzi zigun mundua, oraindik ez zaar ez gazte, garerdiko zala.

Olerki arloko lanean belu asi zan arren, su-txingar biziak zeriozkan kopla-mordotxoak ondu zizkizun. Donosti'ko *Euskal-Erria'n* eta Irun'go *El Bidasoa'n* daude. Bereak ditu auek: 1) *Peritxar ene adiskideari*; 2) *Juan Karrikaburu-ri*; 3) *Euskaldunak*; 4) *Aunitz urtez*; 5) *Eguberri gaba*; 6) *Amaya maite*; 7) *Umezuma'ri*.

Latindar klasiku batzuk ere itzuli zituen; Obidio'ren zer-bait, adibidez, eta Bergili'ren «Titir eta Melibeu».

Sariak ere beregandu zituen. Oraindik orain itzalia dugun Jabier Lazkoz, Ziga'ko txauburuaren adiskide miña genuen.

(Ikus N. Kortazar, *Cien autores vascos*, 84 orr.; Auñamendi, *Literatura*, II, 511 orr.; Joan Bilbao, *Eusko-Bibliographia*, II, 14 orr.).

13.—BESTE IDATZI BATZUK

—*Eliz-kantak Euskalerriko elizatarako oso egokiak* (Iruña, 1904). Aranburu'ren irarkolan. 68 orrialde. Kanta geienak P. M. Urruzuno'renak dira. Ikus A. Pérez Goiena, *Ensayo de Bibliografía navarra*, IX, 511 orr.

—*Fededun guztiyari Aita Santu Pio IX'garrenac Elisa santaren larritasun andiyaren erdiyan escari samur gomendatuac bere seme obedico batec eusquerara itzulia* (Kalahorra, 1861). M. Sanz y Gómez'en irarkolan. 16 orrialde.

—*Cristavaren Icashidea, Aita Gaspar Astetec eguina cein centzatuva eta berretua agertzen da euscarara biurtua* (Iruña, 1880). Lorda'ren moldiztegian. 67 orrialde. Urte berean atera zan erderaz, gerora sarri bezela; Erasun eta Labastida'ren irarkolan. Orduan goterki ontan gotzai zegoen Pedro Zirilo Uriz ta Labairu'k ba-zuen ardura, napar goi-aldeko euskaldunakin ere. «Icasbide au ez daiteque moldizquiratu —dio sarreran— Obispoaren baimenic gabe». Lendik ere bigarren alean esana utzi genuen legez, Damaso Legaz Laurenzena (Arizkun, 1838-12-11; Iruña, 1902-11-17) dugu dotriña onen itzultzaille. Goterkiko «Boletín Oficial'ak, 1881-3-21, zioanez, ordurarte argitaratutakoetatik osoena zan. Eztu berak izenpetzen, egillearen alde otoitz bat eskaturik.

—*Doctrina Cristauaren Catecismo, guciz ongarri eta argitu D. Antonio Maria Claret, Trajanopolisco Arzobispuac escriptua eta consagratua Espaiñiatico Patrona Maria Santisimaren Conceptio guciz garvtari Navarraco sacerdote batec uscarara viurtua, here eta nai duten gucien servituraraco eta moldiztatua Iruñean, Obispo jaunaren eta Alcartasun uscaren onbaimenarequin* (Iruña, 1881). Regino Eskansa'ren irarkolan. 12-135 orri-alde. Jose Erasun, Saldis'ko erretoreak egiña da, Damaso Legaz'ek egin zion sarrera laburretik ateraten danez. (Ikus J. Vinson, *Essai Additions et Conceptions*).

(Ikus J. Vinson *Essai Additions et Conceptions*).

NOR ETA TOKI-IZENEN
AURKIBIDEA

- Abando: 8, 92, 93.
 Aberasturi: 83.
 Adema: 17, 141, 302, 303, 304, 305, 306,
 307, 309, 312, 317, 346.
 Agesta: 200, 201.
 Agirre (T.): 11, 25, 26, 29, 58, 60, 61,
 63, 64, 65, 67, 68, 83, 141, 357, 376.
 Ahetze: 333, 334, 335.
 Ainhua: 336, 343.
 Akesolo (L.): 84.
 Alberdi: 9, 89.
 Almansa: 115.
 Altube (S.): 129.
 Altzaga (T.): 18, 216, 217, 220, 221.
 Altzola (N.): 385, 388.
 Amaur: 379.
 Amorebieta: 30, 44.
 Amutxategi (J. M.): 40.
 Anboto: 27.
 Añibarro: 39, 72, 101, 141.
 Apalategi: 243, 244.
 Apaolaza (P.): 276.
 Apaolaza (A.): 183, 192.
 Arama: 278, 280.
 Aramalona: 32, 294.
 Araba: 10, 18, 27, 42, 69, 81, 98, 108,
 367, 372.
 Arana (Aita): 101.
 Arana (B.): 113.
 Arana-Goiri: 9, 11, 12, 13, 17, 25, 34,
 40, 43, 72, 73, 74, 77, 86, 88, 92,
 93, 95, 97, 98, 99, 100, 103, 104,
 105, 107, 109, 111, 139, 247, 305,
 306, 307, 371.
 Aranburu (M.): 263.
 Aranburu-Altuna: 138, 140, 142.
 Arantzadi (E.): 118, 286.
 Arantzazu: 32, 63, 289.
 Arbelbide: 305, 306.
 Arginzonitz: 112.
 Arburu: 63.
 Areatza (Billaro): 45.
 Ariño: 55.
 Ariznabarreta: 112.
 Arkimedes: 10.
 Amaud Agirre: 302, 341.
 Amaud Abbadie: 3128, 329.
 Arratia: 45.
 Arrasate: 52, 64, 174.
 Arrese-Beitia: 25, 27, 28, 29, 30, 32,
 33, 149, 161, 239, 270.
 Arrese (E.): 178, 244, 245, 246, 249,
 254.
 Arriaga (J. K.): 42.
 Arriaga (E.): 42, 43.
 Arriandiaga: 43, 104.
 Arrieta (J. M.): 179.
 Arriola: 201.
 Arrospide (J. B.): 15, 136, 137.
 Arrue (A.): 85, 191.
 Arrutza (M.): 194.
 Artalarrea: 112.
 Arteaga (J. J.): 79.
 Artetxe (J.): 254.
 Artola (P.): 18, 29, 127, 222, 224, 225,
 245.
 Artola (R.): 226, 228.
 Artzubiaga: 26, 149, 152, 153, 154.
 Arzak: 29, 227.
 Astigarra: 32.

Astarloa: 40, 51, 101, 272.
 Atxerre:
 Atxikallende: 93.
 Atxiki: 45.
 Ayalde (A.): 119.
 Axular: 140.
 Azkain: 174.
 Azkarate: 18, 267.
 Azkoaga: 27.
 Azkue: 9, 10, 15, 25, 26, 29, 30, 40, 44, 52, 55, 59, 60, 61, 69, 70, 72, 73, 74, 75, 76, 78, 79, 81, 82, 84, 85, 86, 88, 89, 93, 100, 103, 110, 115, 116, 124, 129, 131, 139, 141, 149, 158, 194, 228, 230, 247, 267, 282, 291, 292, 305, 308, 319, 325, 331, 342, 355, 371, 376, 395, 397.
 Azkue (J. M.): 254, 256.
 Azparren: 304, 341, 342, 344, 345, 346, 356, 358.
 Azorin: 87.
 Azpeitia: 183, 233, 304.
 Baiona: 29, 130, 304, 307, 318, 340, 346, 357, 359, 389.
 Baigonri: 318, 334, 335.
 Barbier (J.): 334, 339.
 Barinaga: 48, 52.
 Baroxa: 9, 14, 18, 87, 179, 183, 192, 221, 275.
 Barriola (A.): 119, 220.
 Barzelona: 80.
 Basabe (K.): 123, 125, 126, 127.
 Basterra (J. M.): 112.
 Basterrarena: 294.
 Basoa: 28.
 Beasain: 60.
 Begoña: 43, 44, 56, 60, 72, 155.
 Bekas (K.): 302, 333, 334, 337, 339, 350.
 Belaustegi: 135, 285, 286.
 Bera (Alta): 76.
 Berasaluze: 112.
 Bergara: 84, 193, 207, 271, 292, 369.
 Beltzunegi (N.): 394.
 Bengoa: 25, 27, 145.
 Bermeo: 37, 156, 168, 292.
 Berriotxo: 93.
 Biela: 368, 401.
 Bidarte: 333, 334, 335, 336.
 Bidaso: 17, 29.
 Bilbao: 12, 15, 16, 32, 36, 42, 44, 55, 59, 60, 61, 62, 70, 71, 85, 86, 88, 89, 92, 94, 102, 114, 115, 116, 117, 119, 120, 130, 145, 154, 186, 213, 225, 261, 267, 188, 290, 292, 367, 389.
 Blguria (P. B.): 394, 395.
 Bizkaia: 9, 11, 15, 16, 18, 26, 27, 47, 69, 73, 77, 81, 82, 86, 89, 96, 103, 108, 123, 130, 134, 213, 282, 367.
 Blasco Ibañez: 341.
 Broussain: 302, 305, 342, 356, 357, 358.
 Burgos: 53, 61, 124.
 Daranatz: 306.
 Darrikarrere: 302, 306, 329, 330, 331, 332.
 Daskonagerre: 36.
 Decrept: 302, 354, 356.
 (D)Ibarrart: 317, 319, 320, 323.
 Dima: 44, 45.
 Donibane-Lohitzun: 310, 324, 326, 336, 339, 355.
 Dodgson: 75, 305.
 Donosti: 10, 15, 17, 18, 27, 28, 32, 53, 63, 64, 73, 139, 154, 181, 182, 183, 184, 186, 195, 197, 215, 217, 242, 248, 268, 290, 346, 348, 351, 353, 355, 394.
 Durango: 28, 32, 38, 52, 114, 124, 133, 135, 161, 200, 207, 229, 260.
 Duvoisin: 29, 34, 347, 341.
 .1: 101,
 Elgoibar: 55, 188, 195, 201, 237, 240.
 Eibar: 59.
 Eleizalde (K.): 61, 97, 235, 292, 293, 294.
 Elizanburu: 36, 303, 312, 317.
 Elizetxea (J. A.): 224.
 Elizetxea (E.): 281, 282.
 Elizondo (A.): 368.
 Elizondo (J.): 18, 32, 203, 222, 239.

Elorrio: 44, 56, 57, 59, 161.
 Elosu: 37, 38, 79, 127.
 Elzaurdia (E.): 399.
 Enbeita (K.): 137,
 Enbeita (B.): 85.
 Ereño: 145.
 Erkiaga (S.): 25, 40.
 Erkiaga (E.): 26, 35, 36, 37, 38, 41,
 122, 123, 124, 125, 128, 129, 386,
 388, 391, 382.
 Ernani: 212.
 Errazu: 394.
 Errrenderi: 214, 222, 254, 281, 284.
 Errenteria (G.): 26.
 Errloxa: 10.
 Arronkari: 51.
 Escudero (P.): 85, 355.
 España: 8, 29, 70, 76, 174.
 Etxahun: 333.
 Etxalar (A.): 368, 398, 399, 400.
 Etxamendi (M.): 302, 359, 360, 361.
 Etxaniz (N.): 123.
 Etxauri: 37.
 Etxebarria (P.): 380.
 Etxebarria (J.): 140.
 Etxegarai (K.): 61, 65, 232, 233, 234,
 235, 250.
 Etxegarai (B.): 63.
 Etxegolen (M.): 340.
 Etxeita: 36, 39.
 Etxenagusla (K.): 192, 386, 392.
 Etxenike: 340.
 Euzkadi: 12, 19.
 Euskalerria: 11, 18, 51, 70, 96, 99, 103,
 140, 174, 199, 206, 235, 259, 276, 308,
 370.
 Europa: 36, 53.

 Cánovas del Castillo: 30.
 Cejador: 138.
 Constantin (J. B.): 332, 333.
 Constantin (A.): 358.

 Farinelli: 76, 140.
 Frantzia: 8, 130, 154, 198, 213, 224,
 301, 314, 326, 340, 346.
 Gabika: 145.

 Gabiola (S.): 112.
 Gamiz: 67.
 Ganboa: 18, 250.
 Garagoitla: 44.
 Ganiwat: 87.
 Graai (M.): 261.
 Garate (J. M.): 25, 154, 155, 156. ,.
 Garate (J.): 76, 86.
 García Mercadal: 76.
 Garmendia (J. I.): 266.
 Garriga (G.): 121.
 Gaspar Oregi: 17.
 Gaztela: 15, 27, 28, 32, 54, 59, 69, 72,
 124, 149, 153, 195, 197, 229, 245, 264,
 285, 292, 355.
 Gelbentzu: 222.
 Gernika: 32, 132, 135, 136, 145, 146,
 234, 276, 277, 369.
 Gerra (J. K.): 17, 61, 208, 209, 210,
 211.
 Gipuzkoa: 18, 69, 76, 81, 108, 123, 125,
 234, 241, 245, 262, 291, 367, 372.
 Gullbeau: 17, 289, 305, 306,
 Goienetxe (K.): 368, 378, 379.
 Goikoetxea (E.): 398.
 Gorbea: 27, 69.
 Gorliz: 55, 56, 57.
 Gorostiaga (E.): 18.
 Gorostlaga (J.): 85.
 Gorostidi: 18.
 Gorrotxategi: 112.
 Guridl (J.): 79.

 Harispe: 302, 342, 343, 344.
 Hegi: 302, 349, 350.
 Herelle: 140, 302, 340.
 Hiriart-Urruti: 301, 302, 305, 306, 328,
 345, 346, 348, 349.

 Ibarguengoitia: 59.
 Ibargutxi: 32, 85, 150, 153.
 Ibero: 368, 398, 399.
 Ibiñagabeitia: 244, 249, 252, 253.
 Illarramendi: 18.
 Ilundain: 61.
 Intxausti: 349.
 Intzagarai (R.): 239.

Iñarra; 34, 228, 229, 231.
 Iraola (B.): 18, 182, 183, 184, 227.
 Irigarai (A.): 121, 192, 345, 385.
 Irigarai (J. A.): 386, 392.
 Irigarai (F.): 368, 386, 389, 391, 392.
 Irigoien (A.): 153.
 Irigoien (J. I.): 107.
 Mondo (T.): 188, 256.
 Iruña: 32, 259, 260, 262, 264, 395, 367, 371, 381, 387, 388, 399.
 Isasondo: 278.
 Ithurrl (J.): 346.
 Itza: 9.
 Izaro: 37.
 Izpaster: 40, 53.
 Izu: 369.
 Izurategi: 25, 55, 59.

 Jadarka: 122.
 Jauregi (K.): 64.
 Jaurgain; 140, 302, 327, 371.
 Joanategi: 302, 313, 314, 315.

 Kanpion (A.): 9, 13, 17, 32, 34, 40, 61, 63, 93, 101, 196, 292, 305, 306, 357, 367, 370, 371, 372, 373, 374, 375, 387.
 Karo: 33.
 Karrantza: 60, 150.
 Kasal Otegi: 272.
 Kirikiño; 11, 25, 26, 29, 50, 70, 113, 114, 115, 117, 119, 120, 121, 157, 138, 201, 282, 291, 215.
 Kortazar (J. J.): 274, 275.
 Kortazar (N.): 255.
 Kruwig: 85.

 Labaien (A. M.): 217, 220, 245, 280, 291.
 Lakonbe (G.): 140, 324, 325, 329, 331, 355.
 Lafitte (P.): 304, 307, 312, 316, 317, 318, 319, 320, 326, 329, 344, 349, 351, 359, 360, 361, 385.
 Lamote de Grignon: 80.
 Landa (J. B.): 271, 273.
 Larrakoetxea: 8.

 Larramendi: 75, 101, 104.
 Larrazabal: 93.
 Larrea: 43, 44, 47, 53, 89, 90, 113, 154.
 Larresoro: 304, 328, 333, 338, 344, 346, 350, 356.
 Lapurdí: 77, 108, 303, 325, 335, 347, 354.
 Larrinaga: 37, 94.
 Latxaga: 373, 387, 392.
 Lauaxeta; 247.
 Lekeitio; 11, 26, 280.
 Lertxundi (J. M.): 259, 260, 261.
 Lesaka: 192.
 Lizardi: 111, 247, 391.
 Lizarraga: 87.
 Lizarralde: 200.
 Logroño: 154.
 Lolola; 124, 125, 243.
 Lojendlo (J. M.): 271, 272, 273.
 Lope de Vega: 33.
 Lopez Alen: 29, 241.
 Lopez Mendizabal (I.): 17, 76, 341.
 Luis de Leon: 33.
 Luxanbio: 212, 213, 214.
 Landerretxe (M.): 324, 325, 326, 335, 17, 302.
 Lhande (P.): 61, 65, 122, 331, 355, 357.

 Madina: 9, 89.
 Madrid: 46, 63, 88, 114, 136, 207, 234, 292, 271, 389, 392.
 Maeztu: 9, 14, 87.
 Maguregi: 25, 44, 48, 49, 50, 51, 52.
 Maidagan: 85.
 Manila; 37, 131.
 Mañari: 116, 117, 118, 123.
 Mañaxikua: 85.
 Manterola (J.): 29, 139, 196, 322.
 Mao-Tse-tung: 108.
 Markina: 32, 44, 53, 72, 102, 113, 135, 154, 239, 332.
 Marañon (G.): 391.
 Martin Retana: 76.
 Matxado: 87.
 Maruri: 120.
 Maule; 28, 32, 342.
 Mendaro: 188.

Mendizabal (N.): 112.
 Menendez y Pelayo: 29, 86.
 Menendez Pidal: 393.
 Mexiko: 37.
 Mlangolarra: 146.
 Mitxelena (L.): 26, 27, 33, 34, 66, 78, 110, 122, 221, 244.
 Mitxelena (S.): 248.
 Mogel (J. A.): 36, 71, 101, 210, 235, 272.
 Mokoroa (B.): 18, 245, 267, 268, 269.
 Mokoroa (E.): 245, 252, 355.
 Mokoroa (J. M.): 376.
 Montellano: 114.
 Mortara (P. E.): 197.
 Mugarra: 113.
 Mundaka: 36, 37, 83.
 Muñoa: 15.
 Muxika (S.): 17.
 Muxika (O): 60, 122, 186, 191, 220, 234, 236, 282, 349, 355.
 Muxika: 136, 146.
 Muxika (M.): 197, 198, 199, 200, 264, 272.
 Munlta: 277, 278, 279.

 Nabarniz: 145.
 Naparroa: 10, 18, 77, 98, 101, 123, 229, 262, 367, 370, 372, 387.
 Novia de Salzedo: 75.

 Ogoño: 37.
 Oiz: 52.
 Olaeta: 85.
 Olabide: 107, 323, 357.
 Olaizola: 61, 85.
 Olarte: 46.
 Oleaga: 69, 70, 71, 77, 78, 82, 85.
 Oiartzun: 64, 206, 229, 268.
 Omaetxebarria: 39, 207, 281.
 Ondarrabl: 17, 92, 195, 213, 338, 261, 262, 305, 324, 394.
 Ondarroa: 58, 59, 62, 123, 279, 280.
 Oñati: 18, 61, 70, 197, 198, 199, 228, 229, 266, 274, 276, 354, 371.
 Oña: 124.
 Ordizia: 278.

 Orduña: 92, 234.
 Oregi (J. G.): 215, 216.
 Ordozgotl, 27.
 Orkaiztegi: 174, 178, 250, 260, 353.
 «Orixe»: 66, 85, 103, 110, 118, 129, 220, 239, 247, 312, 313, 316, 391.
 Orozko: 46, 150, 234.
 Ortega y Gasset: 61, 87.
 Otaegi: 196.
 Otaño: 204, 205, 206, 213, 225, 248, 250.
 Osa (E.): 198.
 Otxagabia: 51.
 Otxandio: 27, 28, 29, 149, 161, 270, 294.
 Oxobi: 335.
 Ozerin: 44.

 Paris: 70, 71, 136, 343, 354, 356, 382.
 Pedrell: 79.
 Prai Bartolo: 101.

 Bizal: 13, 108.
 Rollo: 52.

 Salamanka: 10, 89, 124, 138, 262, 274, 286.
 San Martin (J.): 66, 192, 193.
 Sagartzazu (K.): 120.
 Santander: 46, 69, 399.
 Sara: 314, 322, 337.
 Saraitzu: 51.
 Sarasola: 110, 313, 349.
 Saroihandi: 302, 353.
 Santxez Irure: 186, 187.
 Shakespeare: 33.
 Satrustegi (J. M.): 381, 382, 386.
 Sorabilla: 174.
 Soroa: 18, 217, 221, 222, 225.
 Somorrostro: 11, 146.
 Sota: 97.
 Sukarrieta: 94, 95.
 Schuchardt: 140, 353.

 Tartas: 331.
 Tolosa: 15, 33, 39, 174, 175, 207, 239, 244, 245, 250, 259, 260, 267, 277, 286, 341.
 Torrontegi (M.): 115.

Tovar (A.): 85.
 Tours: 70.
 Trueba (A.): 14, 28, 135, 194.
 Txaho: 12.
 Txillardegi: 107.
 Txurruka (E.): 368, 369.

 Xorlbit: 302, 344.
 Xemein: 48.

 XJbllos: 72.
 Ugarte (J. A.): 207.
 Uhelenbeck: 140, 302, 352, 353.
 Unamuno: 9, 13, 14, 26, 87, 88, 120, 275, 337, 371.
 Unzurrunzaga: (I.); 204, 205.
 Untzillaitz: 113.
 Urkiola: 60, 114.
 Urkixo: 13, 17, 25, 26, 61, 138, 139, 141, 142, 143, 292, 294, 353, 354, 373.
 Uranga (J. I.): 18, 179, 221, 266.
 Uribiarte: 45.
 Urruña: 315.
 Urruzuno: 188, 189, 190, 191, 298, 402.

 Valbuena: 33.
 Van Eys: 13, 93, 332.
 Varela: 36.
 ViUasante (Aita): 63, 66, 68, 92, 191, 210, 252, 261, 313, 385.

 Vinson (J.): 140, 305.
 Wagner: 80.
 Wlnkler: 140.

 Zabala-Arana: 110.
 Zabala (A. M.): 194, 195, 196.
 Zabala (A.): 212, 224, 243, 244, 245.
 Zaloña: 288.
 Zarate: 39, 110.
 Zarautz: 201, 207, 264.
 Zeanuri: 45, 125.
 Zegama: 195.
 Zengotlta-Bengoa: 52, 112.
 Zenarrutza: 279.
 Zestua: 60.
 Ziburu: 29, 216, 333.
 Zinkunegl: 376.
 Zornotza: 44, 149, 150.
 Zorrilla: 34.
 Zubikarai: 123.
 Zubiri (E.): 368, 381, 385, 389.
 Zubiaga: 126.
 Zubirla: 80.
 Zubero: 77, 108, 327, 333, 340, 350, 354, 358.
 Zubizarreta: 46.
 Zuloaga: 61.
 Zumaia: 60, 61, 62, 233, 234, 285,
 Zumelaga: 114, 117,
 Zumuarregi: 174.

AURKIBIDEA

Len-solasa ...

BIZKAIA (1895-1920)

Laburpen	25
Felipe Arrese ta Beitia	27
Jose Manuel Etxeita eta Luzarraga	35
Simon Anjel Ierkiaga ta Garatea	40
Emiliano Arriaga	42
Jeronimo Garagoitia Agirre	43
Aita Juan Antonino Uribiarte Bistegi	45
Juan Jose Maguregi Zelaia	48
Aita Juan Bizente Zengotita-Bengoa	52
Juan Izurrategi eta Berrostegetia	55
Txomin Agirre eta Badiola	58
R. M. Azkue eta Aberasturi	69
Migel Unamuno eta Jago	86
Julian Ariznabarreta Berrizbeitia	89
Arana Goiri'tar Sabin	92
Ijinio Gorrotxategi Alberdi	112
Bustintza'tar Ebaista	113
Aita Kandido Basabe Erretolaza	123
Gorgonio Maria Renteria Leniz	129
Pantzeska Belaustegi	133
Juan Bautista Arrospide Omagoxeaskoa	136
Julio Urkixo eta Ibarra	138
Eugenio Bengoa Akordagoitia	145

Zesareo Miangolarra Aberasturi	146
Zirilo Arzubiaga Etxebarria	149
Juan Garate Zubillaga	154
J. A. eta A., «Beargin bat»	156
«Euskalzale» eta «Ibaizabal» aldizkariak ...	158
Lekaima Euskaltzaleak	160
Eta beste auek	162
Eguneroko eta Aldizkariak	164

GIPUZKOA (1895-1920)

Laburpen	169
Pedro Josep Aldazabal Murgia	171
Jose Iñazio Gerriko Urkiola	172
Patrizio Antonio Orkaiztegi	173
Jose Marino Arrieta	179
Serafín Baroxa eta Zornotza	179
Biktoriano Iraola Arístegieta	182
Kaietano Santxex Irure	186
Pedro Migel Urruzuno Salegí	187
Antero Daniel Apaolaza Arenguren	192
Alfonso María Zabala Etxeberria	194
Pio Eduardo Mortara	197
Daniel Lizarralde	200
Jose Maria Agesta	200
Frantzisko Arriola Juaristí	201
Jenaro Elizondo	203
Pello Mari Otaño Barriola	204
Jose Antonio Ugarte	207
Juan Karlos Gerra	208
Jose Manuel Luxanbio, «Txirrita»	212
Jose Gaspar Oregí	215
Toribio Altzaga Anabitarte	216
Juan Iñazio Uranga Berrondo	221
Jose Artola Elizetxea	224
Rosario Artola Elizetxea	226
Migel Antonio Iñarra	228
Karmelo Etxegarai ta Korta	232

Jose Elizondo Lopez	239
Frantzisko Lopez Alen	241
Frantzisko Apalategi	243
Emeterio Arrese ta Bauduer.	244
Jose Maria Azkue Goñi	254
Toribio Iriondo	256
Juan Manuel Lertxundi ta Baztarrika	259
Meltxor Garai ta Elexpuru	261
Martin Aranburu	263
Mateo Mujika eta Urrestarazu	264
Juan Iñazio Garmendia Berrondo	266
Baleriano Mokoroa Soto	267
Joakin Larreta	270
Jose Bentura Landa	271
Siro Alkain	274
Jose Juan Kortazar Segura	274
Frantzisko Apaolaza Azkarate	276
J, Kasal Otegi	277
Inozenzio Munita Arizmendi	277
Enrike Elizetxea Arrieta	281
Iñazio Belaustegi Iturbe	285
Arantzazi Etxeberria'tar Engartzi	286
Pedro Luis Zaloña.	288
Ramon Gelbentzu ta Iribar	289
Luis Eleizalde Breñosa	292
R. I. Basterrarena	294
Eta beste pusketa auek	295

BIDASO'Z ANDIKOAK (1895-1920)

Laburpen	301
Grazian Adema, «Zaldubi».	303
Basilio Joannategi.	313
Pierre (D)Ibarrart	317
Martin Landerretxe	323
Jcan Jarugain	327
Amaud Abbadie, Kalonje	328
Jcan Baptista Darrikarrere	329

Jcan Baptista Constantin	332
Charles Becas	333
M. Etxegoien	340
Jean Etxenike	340
Georges Hérelle	340
Arnaud Agirre	Iribamegarai..... 341
Piarres Harispe	 342
Josep Xoribit	344
Jean Hiriart-Urruti	 345
Julien Hegi	349
Kristian Korneli Uhlenbeck	352
Jean Saroihandi	353
Etienne Decrept	354
Pierre Broussain	356
Albert Constantin	358
Manex Etxamendi	359
Eta ondar auek	362

NAPARROA'N ETA ARABA'N (1895-1920)

Laburpen	367
Ebaristo Txurruka	369
Arturo Kanpion eta Jaimebon	370
Krutz Goienetxe Elorga	378
Felipe Etxebarria Hemandorena	380
Enrike Zubiri Gortadi, «Manezaundi»	381
Pablo Fermin Irigarai Goizueta, «Larreko»	386
Ramon Menendez Pidal	393
Nizeto Beltzunegi Mendibe	394
Paskual Bemardino Eiguria ta Ozta	394
Erramon Goikoetxea Orokieta	398
Eusebio Elzaurdia Zibueta	399
Jose Tadeo Biela Lopez	401
Beste idatzi batzuk	402